Universidad de Deusto
Biblioteca

JESU-CRISTO,

ETA VIRGIÑA CHIT SANTAREN

MISTERIOEN, ETA BESTE CEMBAIT GAUCEN GAÑEAN

ERACUSALDIAC

DON JUAN BAUTISTA AGUIRRE ASTEASUCO ERRETORE, ETA GUIPUZCOACO ARCIPRESTAZCO NAGUSIAN DIPUTADU GENERALAC, CRISTAU ACIAI MEZA NAGUSIETAN EGUIÑAC.

Esqueintzen diezte Apaiz Euscaldunai.

IRUÑECO GURE APAIZ NAGUSIAREN BAIMENAREQUIN.

IRUGARREN LIBURUA.

TOLOSAN:

Andres Gorosabelen moldeteguian
1850 garren urtean.

147459

UNIVERSIDAD DE DEUSTO
Departamento de Estudios Vizcaínos
Patrocinado por la Excma. Diputación de Vizcaya
Aptdo. 1 - BILBAO

Universidad de Deusto
Biblioteca

ADVERTENGIA.

El lector echará de menos algunos Sermones correspondientes á varios misterios y fiestas principales que celebra la Santa Madre Iglesia, y por lo tanto se advierte que entre los escritos del Autor no se han encontrado mas de los que se publican en esta obra.

JESU-CRISTO, ETA VIRGIÑA CHIT SANTAREN

MISTERIOEN GAÑEAN ERACUSALDIAC.

LENENGO ERACUSALDIA.

JESUSEN PIZTUERAREN GAÑEAN.

Surrexit, non est hic. Marc. 16.

Poztu zaitezte egun andi onetan Jesus maite dezuen animac. Bucatu dira Jesusen odolezco izerdiac. Bucatu dira azoteac, eta gurutzeco neque, ta oñace izugarriac. Ill da Jesus guri cigun onguinai, eta amorio gueyeguiz, dio S. Pauloc: *Propter nimiam charitatem*; baña irugarren egunean piztu da, berac esan zuan bezala. Piztuera au da gaurco pozaldi, edo festaren gaya. Au da festa gucien festa, dio S. Gregorio Naciancenoc: au da Jaunac eguin, edo prestatu digun egun andia: poztu gaitecen egun onetan esaten digu Eliz Ama Santac: *Hæc dies quam fecit Dominus, exultemus, et lætemur in ea.* Au bear dan eran guc eguiteco, aditzera emango dizuet Misterio gozo-miragarri au. Urrena, uquituco det egun onetan eguin bear guenduqueana. Enzun arreta andiarequin, Cristaua.

Universidad de Deusto
Biblioteca

§ I.

Gure Jesus ona etorri zan Cerutic lurrera, Ceruco bidean gu ipintzera. Eguin zan guizon, eta oguei, ta amairu urte igaro cituan bide au eracusten ala itzez, nola obraz. Gure erospen, edo Redencioco obra andia eguiteco gauza bearra zan gurutzean bere vicitza ematea, eta Adanen, eta gure becatuen zorra ateratzea. Beñ baño gueyagotan aditzera eman cien au Apostoluai; baña dembora berean esan cien piztuco zala. Asi ciran Juduen arteco lenenac Jesusi vicitza quenerazteco aitzaquien billa, eta guciaren berri ciaquianac bezala, esan cien beñ Jesusec Jerusalengo Elizan: ea, urraezazue Eliz au, eta nic iru egunen barrumbean berriro alchaco det: *Solvite templum hoc, et in tribus diebus excitabo illud* (Joan. 2.º). Itz oetan aditzera eman cien, alperric cebiltzala berari vicitza quendu nayez: ceren illerazten bazuen ere, iru egunen barrumbean piztuco zan.

Eguin zuen Juduac asmo zuena. Milla charqueri, eta bidegaberen ondoren illeraci zuen gurutze batean lapur biren erdian Jesus Munduaren Salvatzallea. Belcez janci zan Cerua, asi zan dardaraca lurra: idiqui ciran obiac, eta arriac berac, ecusiric beren eguillea gurutzean cegoan eran, naigabez bezala erdiratu ciran. José Arimateacoa, Juduen artean guizon andi, eta aberatsa, Jesusen icaslea zan, baña isillic. Onec eguiña ceucan aitz vician obi berri bat, besterequin cutsatu gabea, eta Jesus il zanean, joan zan Pilatosegana eta escatu cion aren gorputza bere obi berrian ipintzeco baimena, eta eman cion. Baimen onequin eraman zuan Jesusen gorputza bere obi artara: balsamoz, eta usai gozoco li-

curtaz ganzutu zuan, eta arlosa andi batequin ichi zuan obiraco bidea. Oroitu ciran Juduac, nola Jesusec esan zuan, illerazten bazuen ere, iru egunen barrumbean piztuco zala, eta beldurtu ciran, Apostoluac gauaz ostuta, esan ceceen piztu zala. Orregatic joan ciran Pilatosegana, eta escatu cioen, aguin cezala, iru egun aetan gorde cedilla arretaz obia. Esan cien Pilatosec, badituzue ceren guardiac: zoazte, eta gorde ezazue obia. Ala eguin zuen Juduac: obiaren arlosari ezarri cioen beren sillua: ipiñi cituen nai cituen beguirale, edo guardiac, eta oec gau, ta egun egon ciran obia zaitzen.

Baña nor, edo cer da guizona Jaungoicoari eragozteco nai duana eguitea? Esan zuan Jesusec, illeracico zuela Juduac, baña irugarren egunean piztuco zala. Orregatic gauza bearra zan Jesusec aguindu zuana eguitea, alaco eran, non edoceñec ezagutu cezaquean, eguia garbia zala esan zuan gucia; ta ala eguin zuan oraiñ ecusico degun bezala. Igande goicean, eguna arguitu baño len, edo arguitzeco demboran (a) piztu zan Jesus, berac aditzera eman zuan eran: au da biurtu zan anima gorputzera, eta eguin ciran bat gueyago, edo beñere ez iltzeco: eta obiaren sarrera arlosaz ichia bacegoan ere, irten zan andic. ¿Nola guerta citequean au? Nola? Chit erraz: gucialduna, edo Omnipotentea da alabaña Jaungoicoa, eta nai izate utsarequin eguin cezaquean au gucia, eta gueyago.

Piztu zan unean bertan asi zan lurra icaraz; jachi zan Cerutic Aingueru bat: chimisten eran argui eguiten zuan beraren aurpeguiac, eta elurra beceñ zuria zan aren soñecoa, edo jantzia: eta norc nai ecusi cezan, etzegoala Jesus obian, baicic piztu zala, quentzen du obia ichitzen zuan arlosa, eta esertzen da beraren gañean (b). Ecusten due au gucia

Universidad de Deusto
Biblioteca

Juduen guardia, edo beguiraleac, eta beldurrez gueratzen dira cordegabe. Berengana ciranean, joan ciran Apaiz nagusietara, eta aditzera eman ciezan guertatu zana. Sinistu ote zuen Jesusen piztuera? Ez etzuen sinistu, ceren gorrotoaren lañoac itsutuac ceuden: eta sinistu bearrean, ugari eman ciezan guardai dirua, esan ceceen aec lo ceudela, Apostoluac ostu zuela Jesusen gorputza. Aitzaquiaren farragarria! Lo baceuden guardiac ¿nola ecusico cituen Apostoluac beren Maisua eramaten? (c).

Asco, eta gueyegui ere bazan au, Misterio au cenzua duan edoceñi sinisterazteco; baña etzan onembesterequin contentatu Jesus ona. Pazcoa goicean eguna arguitu baño len, irten ciran Jerusalendic Santa Maria Magdalena, eta bere lagunac, Jesusen gorputza usai oneco licurtaquin ganzutzera; dembora aetan alabaña Egipton, eta Juduen artean berroguei egunetan balsamoz eguiten cituen illen gorputzac. Joan ciran obira, eta arrituric gueratu ciran, ecusiric, idiquia cegoala, eta etzala an arquitzen Jesus: lastereguin zuen Apostoluetara, eta esan ciezan guertatzen zana. Biurtu ciran obira, eta ecusi cituen bi Aingueru, eta oetaco batec esan cien: Ez beldurtu: *Nolite timere*: badaquit Jesusen billa zatoztela: ez dago emen, piztu da alabaña berac esan zuan bezala: *Surrexit enim sicut dixit* (Math. 28). Egun onetan bertan aguertu citzaten Magdalenari, S. Pedrori, eta Emausco gaztelura cijoacen icasleai. Aguertu citzaten gañera Apostoluai jaten ceudela, eta janere zuan beraquin. Aldi oetan etzegoan an Santo Tomas, eta beste Apostoluai guertatu zana esan bacioen ere, ecin sinistu zuan: *Ezpadet nic ecusten*, esan cien: *ezpadet nic ecusten beraren escuetan iltzeen siñalea, eta uquilzen ezpadet nere escuaquin beraren sayetsa, ez det sinistuco diozuena.* An-

dic zortzigarren egunean Apostolu guciac ateac ichiric ceudela, sartu zan Jesus, eta esan cien: *Paquea zuequin*: *Pax vobis*: esan cion Tomasi: ecartzu zure beatza onara, eta ecusi itzatzu nere escuac: ecartzu escua, eta uquitu ezazu nere sayetsa, eta etzaitecela izan sinitsgaitza. Arrituaren eran gueratu zan Tomas, eta esan cion Jesusi: Nere Jaun, eta Jaungoicoa! *Dominus meus, et Deus meus!* Itz oequin arguiro aguertu zuan Santo Tomasec, Jesus zala Jaungoico, eta guizon eguiazcoa. Cerbait gueroago aguertu citzaten Jesus Galilean, S. Pauloc dioncz, bost eun, eta gueyago laguni (1 ad Corint. 15). Cer gueyago? Jesus piztu zanean, asco piztu ciran illen artetic: joan ciran Jerusalena, eta aguertu citzaizten beren ezagunai (d). Aimbesteraño zabaldu, edo barreatu zan Jesusen piztuera, non guizon jaquintsu ascoc dioenez, Pilatosec gaztigatu izan zuan Erromara guertatu zana (e).

Orra, Cristaua, Eliz Ama Santac gaur aditzera ematen digun Misterio andia. Orra cembat guisatan aguertu zuan Jesusec, il bazan ere guri onguinayez, piztu zala berac esan zuan bezala. Au ala ez aguertzera, etzuan iñorc ere sinistuco, Jesus zala Jaungoico, eta guizon eguiazcoa, eta Munduaren Salvatzallea, eta alperricaco gauza izango zan Jesusec esan, eta eguin zuan gucia. Piztu ezpada Jesu-Cristo, alperricaco gauza da guc eracusten deguna, baita gure fedea ere, dio S. Pauloc: *Si Christus non resurrexit, inanis est prædicatio nostra, inanis est et fides nostra.* Dacuscun oraiñ, cer eguin bear guenduquean egun andi onetan, eta gure aurreraco vicitzan.

§ II.

Il zan Jesus Jaungoico, ta guizon eguiazcoa, gu

becatuaren mendetic ateratzeco , eta piztu zan beñere ez iltzeco. Au da eguia bat gure fede Santac gaurco misterioan eracusten diguna. Au onela izan, eta ez ditugu utzico gaurdanic betico becatuaren bideac ? Au onela izan , eta ibilli naico degu amilca becatuaren bideetan ? Ea , sarritan sinistu ezazu , Cristaua , gaurco Misterioa , edo berbera dana sarritan eguitzu *Acto fedecoac.*

Ill zan Jesus , guri betico vicitza , eta atseguincontentuac emateagatic , eta piztu zan aguindu digun gucia emateco ¿ Nolaco uste , edo esperanza ez degu iduqui bear bada Jesus onagan , bera guiari, eta laguntzalle degula , iristeco Ceru eder orietan vicitzea ? Eguitzu bada Acto esperantzacoac. Atozea , emengo atseguin lotsagarriacgatic galdu naico dituzu Ceru eder ori , eta cere burua amildu nai dezu beti-betico su , eta garren artera ?

Il zan Jesus guganaco onguinai, eta amorio gueyeguiz, dio S. Pauloc: *Propter nimiam charitatem*; baña piztu zan gurequin beti vicitzeco, eta gure animen janari izateco. Ceñ on , eta maitagarria ez da izango gure Aita au , guretzat alacoa bada ? Eguitzu bada , Cristaua , sarritan *Acto caridadezcoac* , eta bera onratzeco aldeguizu becatutic , eta lagun, eta eche gaiztoetatic. Onela eguingo dezu Eliz Ama Santac gaur aditzera ematen diguna , eta iritsico dezu betico vicitza doatsua. Amen.

(a) Surrexit Dominus prima hebdomadæ die, quæ apud nos est *Dominica* , quam Mathæus vocat *primam sabbati*: Vide Benedictum XIV in suo opere de festis. Quæritur, qua hora resurrexerit? Communior sententia docet, resurrexisse paulo ante solis ortum, illuscescent aurora diei Dominicæ. Vide eundem.

(b) Quæritur 1.° an Angelus aperuerit monumentum ante, vel post resurrectionem Domini? Aliqui ex Patribus opinati sunt, Angelum aperuisse sepulcrum, ut reviviscenti Domino pateret exitus, non sané quod Christo id opus esset, sed ut honor illi haberetur. Alij vero existimant, Christum jam surrexisse, antequam Angelus revolveret lapidem. Hæc est communis Patrum sententia. Vide Benedictum XIV in opere citato de festis Domini. c. 8 n.° 33.

Quæritur 2.° An Christus Dominus idem corpus, eumdemque sanguinem asumpserit, quod, et quem dum viveret habuit? Affirmandum omnino; id vero non impedit, quominus pretiosi sanguinis guttæ aliquæ humi remanserint, quæ minimé essent necesariæ ad integritatem corporis : unde necese non erat, ut in resurrectione Domini ipsius corpori rederentur. Etsi enim illis corporis partibus semper Divinum verbum hypostaticé unitum fuerit, quæ ad integritatem corporis Chti. pertinebant, non tamen his partibus *semper conjunctum fuit*, quæ restituendæ. Hinc guttæ sanguinis Domini, quæ aliquibus in locis, præsertim Mantuæ venerantur , nequaquam sunt unitæ Verbo Divino. De illa autem controversia, quæ olim exarsit inter Fratres Minores, et Prædicatores, an nimirum sanguis Chti. in triduo mortis uniretur Verbo Divino? vide Benedictum XIV in opere de Canonizatione S. S.

(c) Hæc est communis sententia. Vide eumdem, ubi de festis.

(d) Math 27.

(e) Vide Benedictum XIV.

(f) Monumenta aperta sunt, et multa corpora Sanctorum , qui dormierant , surrexerunt , et exeuntes de monumentis post Resurrectionem ejus, venerunt in sanctam civitatem, et apparuerunt multis. Math c. 27 v. 52. De ijs autem mortuis duplex est quæstio: 1.ª quinam fuerint, qui ad vitam redierunt? Id autem omnino incertum est , nihilque affirmari potets. 2.ª Utrum qui revixerunt, rursus mortem obierint, an vero cum Chto in Cælum cum suo ipsorum corpore ascenderint? Maldonatus, et á Lapide sentiunt, nihil esse, cur dicamus, eos revixisse rursus morituros , sed una cum Chto. simul cum corpore in Cælum ascendisse. At aliter opinantur Calmet, et alij. Vide Benedictum XIV.

(g) Vide eumdem.

Universidad de Deusto
Biblioteca

BIGARREN ERACUSALDIA.

PAZCOETACO BIGARREN JAYEAN.

Adirazten da, nolacoa izan zan Jesusen piztuera eta nolacoa izan bear luquean gure animen piztuerac. Urrena, nolaco piztuera izan oi dan Cristauric gueyenena Pazcoetaco dembora onetan.

Surrexit vere: Luc. 24.

Pazcoa goicean piztu zan Jesus, ta aguertu citzaten Magdalenari, S. Pedrori, eta Emausco gaztelura Jerusalendic irten ciran Jesusen bi icasleai. Biurtu ciran oec Jerusalena Apostoluac ceuden echera, eta arquitu cituen oec piztuera beraren gañean itzeguiten: Piztu da eguiaz, cioen, eta aguertu zayo Simoni, edo Pedrori: *Surrexit vere, et apparuit Simoni.* Emaustic biurtu ciranac ere esan zuen guertatu citzatena, eta guciac poztutzen ciran beren Maisuaren berri onaquin. Atzo itzeguin nuan Misterio onen gañean. Jesusen piztuerac aditzera ematen digu, S. Pauloc dionez, gure animen piztuera: orregatic gaur itz bi esan nai dizquitzuet onen gañean. Aditzera emango det lenengo lecuan: nolacoa izan zan Jesusen piztuera, eta nolacoa izan bear luquean gure animen piztuerac. Urrena, nolacoa izan oi dan Cristauric gueyenena Pazcoaco dembora onetan. Enzun, Cristaua, arretaz.

Jesu-Cristo ill zan eguiaz gorputzaren aldetic, eta iru egun igaro cituan obian. Era berean gure animac, Jesusen ancera piztuco badira, ill bearrac dira becaturaco, eta becatu diran gauza gucietaraco. Au aditzera ematen digu batayoco Sacramentuac, batezere Elizaren lenengo demboretan eman oi zan eran, batayoa artzen zuana alabaña osotoro sartzen zan urean, adirazteco, ill zala, eta obiratu guizon zarra, bere becatu, eta griña gaizto guciaquin. Au bera aditzera ematen digüe batayoco egunean eman guinduan itzac. Urlia, esan cigun Elizac, gaurdanic betico uzten dituzu Satanas, eta Satanasequin batean beraren lagun, eta languilleac, ceñac diran mundu galdua, edo munduan vici diran gaiztoac, eta araguiaren gura charrac? *Abrenuntias Sathanæ?* Bai, beti-betico uzten ditut, eranzun cenduan: *Abrenuntio.* Urlia, esan cizun berriz, gaurdanic betico uzten dituzu Satanasen lan, eta obra guciac, nola diran becatua, eta becatuaren bideac? *Et omnibus operibus ejus?* Bai, betico uzten ditut, esan cenduan: *Abrenuntio.* Urlia, esan cizun irugarren aldian: gaurdanic betico uzten dituzu Satanasen arrotasun, eta zoraqueriac, dala jancian, janean, edanean, eta beste gastuetan, dala atseguiñ, eta jolasetan? Bayetz, eranzun cenduan: *Abrenuntio.* Eta orra nola batayoco egunean illa gueratu ciñan, Cristaua, becatu diran gauza gucietaraco: beraz guisa berean ill bearrac guera, Pazcoetan piztuco baguera Jesu-Cristoren ancera. Illac, eta illac ezecic obiratuac gueratu guiñan Jesu-Cristorequin batayoa artu guenduanean, esaten digu S. Pauloc: *Consepulti enim sumus cum illo per baptismum in mortem* (Ad Galat. 8). Jesu-Cristo piztu zan eguiaz, eta añ ariña gueratu zan noranai ibiltzeco, non beguien ichi-idiqui batean joan citequean lecuric urrutienera. Guisa berean Jesu-Cristorequin pistutzen dan anima

alaitzen da beraren Legue Santa gordetzeco, eta beraren icenean edoceñ neque igarotzeco: ez du icaratzen, ez goseac, ez egarriac, ecerc ere. Jesu-Cristo piztu zan eguiaz, eta aldeguin zuan obitic. Eta era onetan becatutic graciaren vicitzara piztu nai duan animac aldeguin bear du becatuaren obitic, edo bideetatic, eche, eta lagun gaiztoetatic: aldeguin bear du munduco zoraqueri, ta perilletatic: bestela becatuen obian gueratuco da. Atzenean piztu zan Jesus eguiaz, eta piztu zan beñere ez iltzeco: eta guisa berean becatutic graciaren vicitzara eguiaz piztutzen danac, ez du biurtu bear becatuaren obira. Ez det esan nai, ez ditequeala erori mundu onetan dagoan bitartean; baicic esan nai det, artuco dituala gracian irauteco neurri egoquiac, eta jarraituco diola vicitza eder, ta garbi bati. Au ez eguitera ez da eguiaz piztutzen becataria. Orra Cristaua, nolacoa izan bear luquean gure animen piztuerac. Dacuscun oraiñ, nolacoa izan oi dan dembora onetan Cristauric gueyenena.

Iru piztuera-motaren berriac ematen dizquigu Escritura Santac. Piztuera bata da Jesu-Cristorena, eta ecusi degu, nolacoa izan zan au, eta onen ancecoa izan bear luqueala gure animen piztuerac ere. ¿Baña asco ote dira Pazcoaco dembora onetan Jesusen ancera piztutzen diranac? Asco ote dira becaturaco illac bezala gueratu diranac? Asco ote dira batayoco egunean emandaco itzac gorde nai dituenac? Asco ote dira becatuaren obia betico utzi nai duenac, eta vicitza onean irauteco neurri egoquiac artu nai dituenac? Ez noasqui.

Escritura Santac dacarren beste piztuera-mota da

Lazarorena. Ill zan Lazaro, eta obian ustelduric, edo ustelcen arquitzen zan. Piztu zuan Jesu-Cristoc eguiaz, baña ez betico baicic guero illtzeco. Era onetan piztutzen dira ez guchi Pazcoaco demboran. Aditzen ditue, fedeac eracusten dizquigun eguia izugarriac: ezagutzen due, beren vicitza gaiztoarequin galdu duela Jaunaren adisquidetasun, eta gracia, eta arquitzen dirala beti betico su eta garren artera erortzeco zorian. Asitzen dira becatutic irteteco neurriac artzen, eta damuz, eta negarrez biurtzen dira beren Aita Cerucoagana. Orra esaten dio orduan onelaco becatariari: piztu cera, sendatua zaude; ez gueyago becaturic eguin: *Noli amplius peccare.* Baña cer guertatzen da? Garizuman lo bezala ceuden gura, eta griña charrac asitzen dira pazcoa ondoan esnatzen: badabil becataria beldur guchirequin, eta arquitzen ditu milla perill leneco becatuetara biurtzeco: perillac echean, perillac auzoan, perillac bideetan, eta perillac lagun artean: iltzen, edo oztutzen zaizca vicitza onari jarraitzeco eguin cituan asmo andiac, eta ez dauca sarritan Sacramentuac artzeco gogoric. Atzenean biurtzen da becatura: eta bear bada len baño ere gaizquiago vici da, eta amilca dijoa infernura: *El fiunt novissima hominis illius pejora prioribus.* Ala esaten digu Jesu-Cristoc becatuaren berrizcaturaren gañean.

Escritura Santac dacarren irugarren piztuera-mota da Samuelena. Saul Erregueren contra alcha ciran Filisteoac, eta prest arquitzen ciran gudan edo pelean asitzeco. Ecusi cituan Saulec, eta izutu zan. Jaquin nai zuquean, cer eguin bear zuan estutasun artan, eta galdetu cien Apaizai, eta Profetai; baña orduraco aserretua ceducan Jauna, eta etzion eranzun nai izan, ez Apaicen, ez Profeten bidez. Bere adisquide andia izan zuan Samuel Profeta, baña

Universidad de Deusto
Biblioteca

lencheago ill zan au. Estu zan Saul, eta billatu zuan andre azti, edo sorguintzat ceuqueena, eta erregutu cion piztu ceguiola Samuel. Aguertu zan Samuel, eta aditzera eman cion, ceñ gaizqui irtengo zan guerra artan (a) Etzan Samuel eguiaz piztu gueyenac eracusten duenez, baicic aren animac artu zuan beraren gorputzaren anz, eta iduria, Jaunac ala nai izanic, ez aztiaren aleguiñaz. Itz batean Samuelen piztuera etzan eguiazcoa, baicic iduri utsa. Eta onelacoac izan oi dira Cristauric gueyenen piztuerac Pazcoa-demboran, iduri utsac. Sarritan negar eguiten due ascoc garizuman: bearbada berritzen ditue confesioac, eta dioe *ez gueyago, ez becaturic.* Edoceñec uste izan dezaque, becatari oec piztu dirala eguiaz becatuen obitic; eta alaere guchi dira onela piztutzen diranac ¿Cergatic au? Ceren biotzic ez duen betico uzteco becatuaren bideac, echeac, eta lagunac: ceren biotzic ez duen, urratzeco beren oitura gaiztoac, lagun urcoari berea ematceco, eta obra onai jarraitzeco. Orregatic onelaco becatarien negarrac izan oi dira anzuac, eta obretan aguertzen ez diranac. Ez ote guera noizbait becatuen obitic irtengo?

Nere Cristaua, ez gaitecen engañatu: piztu gaitecen Jesu-Cristorequin, ez nolanai, baicic eguiaz, piztu gaitecen, eta jarraitu deguiogun vicitz eder bati. Piztu bacerate Jesu-Cristorequin, billa itzatzue Ceruco ondasun, eta atseguin-contentuac, esaten digu S. Pauloc: *Si consurrexistis cum Chto, quæ sursum sunt quærite* (Ad Colosens. c. 3). Onela iritsico degu betico vicitza doatsua. Amen.

(a) Anima Samuelis apparuit, non vi incantantis Pythonissæ, sed Deo ita volente, ait Menochius. Vide etiam Benedictum XIV de S. S. Canonizatione, Calmet, Billuart &.

PAZCOACO IRUGARREN JAYA.

Egun au jai erdia da, eta gure errietan goicean Meza enzunda, joaten dira gueyenac lanera. Emendic dator Arzayarentzat nequea, cer egun oetan eguin dezaquean, ezagutzen. Asco aldetara sayatu naiz, eta atzenean autu det modu bat jayerdi gucietaraco, eta da; Meza nagusian, eta al baliz goicecoan ere bai, eguitea goiceco, (edo arratseco) jayera. Nic (edo nere ordez bestec) esaten du liburutic, edo paperetic, eta nic diodana bera eranzuten due Mezatan daudenac. Guisa onetan dembora berean eracusten da dotrinaren parte bearrena, eta becatutic aldeguiteco, eta obra onac eguiteco bidea: eta uste det, modu onec gañeraco Sermoi guciac baño on gueyago ecarri duala. Emen ipiñico dira jayera biac.

GOICECO JAYERA.

Jauna adoratzea.

Nere Jaun Jaungoicoa! Zu cera gauza gucien Asiera, eta Iturburua, gucien Iraupena, eta Muga, edo Fiña, eta ni naiz nerez ecereza, eta dedan izate au zure escu onguilleac emana da. Ala ezagutzen, eta aitortzen det, eta adoratzen zaitut umiltasun, eta errespeto guciarequin.

Jaunari esquerrac ematea.

Milla esquer Jauna oraindaño eguin dizquidatzun mesede guciacgatic. Milla esquer ceren ecerezetic eguin ninduzun, eta eguin zu emen ezagutzeco, amatzeco, servitzeco, eta guero beticotasun gucian zurequin batean Ceruan doatsu izateco. Milla es-

Universidad de Deusto
Biblioteca

quer, ceren zure Seme Jesusen odol preciotsuarequin Adanen becatuaren mendetic atera, eta zure Elizaren ume batayoan eguin nazun. Milla esquer atzenean, ceren, igaro dan gau onetan vicitza gorde didazun.

Jaunari pensamentu, itz, eta obrac esqueintzea.

Esqueintzen dizquitzut, Jauna, gaurco nere pensamentu, itz, eta obrac. Betor, Jauna, zure lagunza, eta gracia, eguin ditzadan nic gaurco nere lanac, zuc nai dezun eran, eta zure onra, ta gloriaraco.

Examina, eta egun guciraco asmo onac.

Atoz, ó Espiritu Santua, atoz beartsuen gurasoa, atoz doayen emallea: argui ezazu nere adimentua, nic nere utseguiteac ezagutzeco: mugui ezazu nere biotza, oen gañean damutzeco.

Gogora ecartzu oraiñ dembora pisca batean, lenengo lecuan, bartdanic, edo azqueneco confesiotic, oraindaño Mandamenturen bat autsi dezun, edo ez?

Urrena, araco Mandamentu gueyena autsi oi dezun ura gorde dezun?

Irugarren lecuan, orraco zure griña, edo pasio char nagusien ori escuratzeco, eta ecitzeco sayatu ceran, edo ez?

Arrezazu asmo oso bat, araco gueyena autsi dezun Mandamentu ura ez autsitzeco, eta zure griña, edo pasio char nagusien ori ecitzeco, eta escuratzeco...

Arrezazu zure bitartecotzat Virgiña chit Santa, Aingueru goardacoa, S. José, eta zure iceneco Santua...

Eguitzu oraiñ fede, esperanza, caridade, eta contriciozco afectoac.

IRUGARREN ERACUSALDIA.

Adirazten da Jesusen Ceruraco igoera, eta ceñ guchi diran berarequin ara nai duenac.

Asitzen zacu gure deyez Eliz Ama Santa, eta esaten digu: eguizue chalo chalo: *plaudite manibus:* eta atseguin-contentuz lauda ezazue Jauna: *Jubilate Deo in voce exultationis.* Cergatic onela? Ceren gaurco egunez Cerura zan gure Aita, eta Salvatzaile Jesus maitagarria, eta idiqui cituan, aimbeste mende, edo seculetan guretzat ichiac egon ciran, ango ateac. Orregatic aditzera emango dizuet Misterio andi au, poztu, eta alaitu ditezen Jesus amatzen duen anima onac. Aditzera emango det urrena, ceñ guchi diran Jesus onarequin Cerura nai duenac. Enzun arretarequin.

§ 1.

Eguin zuan Jaunac guizona bera ezagutzeco, amatzeco, eta guero berarequin batean Ceruan vicitzeco. Galdu guenduan Adanen becatuarequin escubide, edo derech au, eta ichi ciran Adan, eta bere umeentzat Ceruco ateac. Utseguite au deseguiteco, erabaqui zuan bidaltzea lurrera bere Seme bacarra; baña ez bereala; andia zan alabaña, guizonac eguin cion bidegabea, eta guizonaren aldetic escatzen ciran ezagüera, eta erregu andiac, eta onetaraco ere etzan gai guizona berez.

Universidad de Deusto
Biblioteca

Bacetocen, eta bacijoacen mendeac, edo seculac seculen ondoren, eta osca cegozcan Jaunari anima onac, bidal cezala aguindu zuan Salvatzallea. Lau milla urteren buruan etorri zan Trinidadeco bigarren Persona, esan nai det, eguin zala guizon Virgiña chit Santaren sabelean Espiritu Santuaren obraz, eta graciaz. Oguei, ta amairu urte igaro cituan guizonen artean, eracusten ciela ala itzez, nola obraz Ceruraco bidea: eta bere Aitaren, eta guizonen artean paqueac eguiteco, eman zuan gurutzean bere vicitza; baña irugarren egunean piztu zan berac esan zuan bezala.

Au gucia eguin da ere, ichiac ceuden Adanen umeentzat Ceruco ateac, eta andic deserrituac ceuden munduaren asieratic Jaunaren gracian ill ciranen animac. Norc idiquico cituan Ceruco ateac? Norc Jesusec baicic? Etzan Jesus piztuta bereala Cerura igo, baicic igaro cituan lurrean berroguei egun. Dembora onetan sarritan aguertu citzaten Apostoluai, eta eracutsi ciezten Elizaren gobernuari cegozcan asco gauza. Berrogueigarren egunean sartzen da Apostoluac ceuden toquira: atelecatzen ditu, baña chit gozotoro, ceren beraren piztuera sinisteco atzera ceuden lenengoan. Aguindu cien, zabaldu citecela mundu gucian, eta aditzera eman ceceela beraren Legue Santa. Sinisten, eta batayoa artzen duena Ceruraco da, esan cien; aditzen da sinisteari dagocan eran vici bada. Baña sinisten ez duana galdua izango da betico. Sinisten duenac eguingo ditue mirari oec: *Nere icenean* ayenatuco ditue gaizquiñac: itz eguingo ditue izcunza berriac, eta len beñere aditu ez dituenac: illco ditue sugue mota guciac, eta puzoiren bat edanerazten badieza ere, ez die calteric eguingo. Zabaldu, eta ipiñico diezteza eriai escuac burugañean, eta oec sendatuco dira bereala. Orduan, edo lencheago esan cien, etzituala utzico ume zurtzen eran. Zuequin na-

go eta egongo naiz munduaren bucaeraraño: *Ecce ego vobiscum sum omnibus diebus usque ad consummationem sæculi* (Math. 28). Aguindu cien, bidalduco ciela Espiritu Santua, eta bera Cerura igotzen zanetic Espiritu Santua cetorren artean ceudela Jerusalenen. (Luc. 24). Esan det, nola mirariac eguiteco escua eman cien beragan sinisten zuenai, ceren Elizaren asieran gauza bearra zan doai au, fedea zabaltzeco. Oraiñ ez da mirarien premiaric, eta ez dira eguiten anciñaco demboran beceñ sarri. Alaere Jesu-Cristoren Elizan beti izan da eta izango da mirarien doaya, eta eguiten ditu Jaunac onelaco gauzac ongui deritzan demboran. Ala eracusten, eta sinisten due catolicoac, eta ez da dembora ascó, ala aitortu duala herege batec (a).

Gauz oec esan ondoan, eraman cituan Jesusec bere Apostoluac Oliveteco mendira (b). An guciac beguira ceudela, alcha cituan beguiac Ceruronz: asi zan ara igotzen guchica, ecusi ceceen an arquitzen ciran guciac, guertatzen zana (c). Zabaldu cituan escuac Apostoluen alderonz (d), eta eman cien bere bendicioa. Norc esan, nola egongo ciran Apostoluac, eta beste an beguira ceudenac une artan? Alde batetic naigabetuco ciran, ceren cijoaquien eren artetic beren Maisu, eta Onguille andia; baña beste aldetic atseguin, eta poz andia artuco zuen, ceren onra andiarequin cijoan bere erreñura, garaituric etsai guciac. Arrituric onela ceudela, aguertu zan odei ederargui bat, inguratu zuan Jesus, eta guchica ezcutatu, eta igo zan bere Aitaren escuyera. Igo zan diot, bere-berezco virtutez; ceren alde batetic zan Jaungoico eguiazcoa, eta beste aldetic guizona zan bezambat-ere doatsua zan, eta doatsuaren doayetatic bat da noranai igotzeco, eta ibiltzeco erraztasuna (e). Esan det gañera, igo zala bere *Aitaren escuyera*, ez ceren Aita

Universidad de Deusto
Biblioteca

Jaungoicoac escuya eta ezquerra dituan, baicic adirazteco, Jesusec Jaungoicoa danez Aitac adimbat gloria duala, eta guizona danez bestec iñorc baño gueyago (f).

Igoera au etzuan eguin Jesusec bacarric. Erregue batec, bere Erreñura dijoanean, berequin daramazqui etsaiai quendu diezten catibuac, edo etsaiac cativerioan ceduzcanac, eta Jesusec berequin Cerura eraman cituan, munduaren asieratic ordurañó il ciran on gucien animac. Oec alabaña gueratuac egon ciran Abrahanen limboan Jesus piztu zan artean, eta gueroco berroguei egunetan egon ciran Jesusen Ceruraco igoerari ichedoten, eta guciac igo ciran Jesusequin batean gaurco egunez Cerura. Ala aditzera ematen digu S. Pauloc: *Christus, ascendens in altum, captivam duxit captivitatem* (Ad Heb. 4). Cer edertasuna izango zan Adan, Eva, Patriarcac, Profetac, eta aimbeste anima on, beren Erregue, eta Salvatzallea onratzen, eta laudatzen zuela, Cerura berarequin igotzea? Baña etzuen oec bacarric onratu Jesusen igoera. Jachi ciran Jesusen bidera Ceruco Aingueru guciac. Orregatic otseguiten die Davidec: idiqui itzatzue Ceruco ateac, idiqui itzatzue, eta sartuco da orco Erreguea: *Atollite portas principes vestras....et intrabit Rex gloriæ* (psalm. 23) (g). Orra, nola igo zan gure Salvatzallea bere Aitaren escuyera. An dago gure Aita Santu, edo Apaiz nagusia, eta gure alde eracusten diozca Aitari escuoñetaco, eta sayetseco siñaleac, eta esqueintzen dio, gugatic igaro zuan gurutzeco eriotza (h). Ceñ egun andia egun au Jesus amatzen duen animentzat! Baña goacen aurrera.

Jesus Cerura igo zan, aditu dezuen eran, eta Apostoluen beguietatic ezcutatu bazan ere, arrituac bezala ceuden oec Ceruronz beguira. Aguertzen di-

ra bi Aingueru, eta esaten dieza ¿Cergatic zaute orrela Cerura beguira? *Quid statis aspicientes in Cœlum*? Zuen artetic Cerura igo dan Jesus au, era berean jachico da munduaren bucaeran: *sic veniet quemadmodum vidistis eum euntem in Cœlum* (i). Orduan biurtu ciran Apostoluac Jerusalena, Jesusec aditzera eman cien bezala, eta egon ciran ezcutatuac Espiritu Santuaren etorreraraño. Cerura igotzeco demboran Jesus egon zan toquian gueratu ciran beraren oñarrastoac, eta jayera andiarequin eraman oi cituen Cristauac ango autsac, eta alaere ez omen ciran deseguiten oñ arrasto aec, S. Geronimoc dionez. Santa Elenac lecu artan bertan eguin zuan Eliz eder bat, eta guertatu ciran bi mirari. Lenengoa: estali nai izan zuan Jesusen oñac egon ciran toquia arri ederrez, baña bereala ayenatzen cituan toquiarc an ipintzen ciran arri guciac. Asi ciran guero Elizari gañeco estalquia ipintzen, baña ecin estali izan zuen oñarrastoen parea; ceren nai zuan Jaunac, aguirian egotea Jesusec Ceruraco eraman zuan bidea (j). Orra, Cristaua, gaurco Misterio andiari dagozcan gauzac. Apostoluen demboratic eguindu Eliz Ama Santac egun onetan bere pozaldi, edo festa, eta S. Bernardoc dionez da Jesusi dagozcan festa gucien muga, eta betegarria: *Finis earum, et adimpletio est.* Dacuscun oraiñ, ceñ guchi diran Jesus onarequin Cerura nai duenac.

§ II.

Ecusten dezu, Cristaua, cembat neque, eta arazo artu zuan gure Salvatzalleac, guri Ceruco ateac idiquitzeco? Jesus Ceruan sartu zanetic gau, ta egun idiquiac daude ara nai duan guciarentzat: eta gauza negargarria! alaere guchi dira ara Jesusequin

Universidad de Deusto
Biblioteca

igo nai duenac : guchi dira alabaña becatuaren bide , eta perillac , oitura gaiztoac , eta atseguin lizunac utzi nai dituenac , eta oec utzigabe ez dago an sartzeric. Ala esaten digu S. Juanec : *Non intrabit in eam aliquid coinquinatum.* (Apoc 21). Erri onetatic campoan gueratuco dira , dio Santuac, zacurrac : *Foris canes.* Oec dira becatuaren berrizcaturan vici diranac , eta zacurrac gora bota duana atzera jaten duan bezala , leneco becatuac berriro eguiten dituenac. Erri onetatic campoan gueratuco dira beren beguiratze, itzeguite , losencha, eta janciera gaiztoaquin animac llilluratzen , choratzen , eta becatuan amilderazten dituenac : *Foris venefici.* Erri onetatic *campoan gueratuco dira* ciquiñac , edo desonestoac dala beren buruaquin , dala besterequin. *Foris immundi.* Erri onetatic campoan gueratuco dira, dio S. Juanec berac, gaiztaqueriz aurrac galtzen, edo galerazten dituenac, baita lagun urcoari eriotza opa dioenac ere: *Foris homicidæ.* Erri onetatic campoan gueratuco dira idoloen servitzariac: oec dira ez bacarric arriz, zurez, urrez, edo cillarrez eguindaco Jainco guezurrezcoac, baita Jaincoaren lecuan emengo onrac, ondasunac, eta araguizco idoloac adoratzen dituenac ere: *Idolis servientes.* Erri onetatic campoan gueratuco dira, dio atzenean S. Juanec, guezurra amatzen, eta eguiten, edo moldatzen duenac: onelacoac dira guezurraren gañean juramentu eguiten duenac, eta beren erausiaquin lagun urcoaren onra, eta icen ona guchitzen, edo beztutzen duena: *Omnis qui amat, et facit mendacium.* (Apoc. 22). Atocea oraiñ, Cristaua: au onela bada, dan bezala, asco ote dira gaurco egunean Jesusequin Cerura nai duenac? Beldur naiz ezetz, guchi dira alabaña becatua, eta becatuaren bideac utzi nai dituenac, eta nola Cerura joango guera oec

utzi gabe? Centza gaitecen noizbait, eta jarrai deguiogun Jesusen legue ederrari, berarequin vicitzeco betico vicitza doatsuan. Amen.

(a) Vide Benedictum XIV de festis Domini lib. 1 c. 10 et in Opere de Canoniz. Sanct. lib. 4 p. 1 c. 2. et Dom. Thayer in relatione suæ convers. ad fidem Catholicam.

(b) *Eduxit eos foras in Bethaniam*, ait S. Lucas. Num autem in via conspicuus esset, incompertum est, ut notat Suarez.

(c) Videntibus illis elevatus est, et nubes suscepit eum ab oculis eorum. Acta Apost. c. 1.° quibus verbis significari videtur sensibilis quædam elevatio per motum succesivum, ita ut Apostolis licuerit aliquandiu suis oculis illum euntem in Cælum prosequi, donec in lucidam nubem ingressus ab eorum aspectu est ereptum. Benedictus XIV de festis lib. 1.° c. 10 n.° 45.

(d) Suarez, et á Lapide existimant, pie et probabiliter credi posse, Chtum non utcumque manus elevasse, sed in crucis signum. Benedictus XIV verisimilius esse, ait, Dominum Jesum ascendentem in Cælum, manibus ad Apostolos extensis benedixisse. Vide eumdem lib. et cap. cit. n.° 36.

(e) Chtus Dominus ascendit in Cælum propria virtute, id est, non ea virtute, quæ naturæ humanæ propria est. sed propria virtute Divina: et ea virtute, quæ propria est animæ beatæ. Vide eumdem Benedictum lib. et cap. cit n.° 39.

(f) Vide eumdem n.° 33, 34, et catechismum nostrum.

(g) Vide eumdem Benedictum n.° 48.

(h) Vide eumdem n.° 40 ubi notat, quod etsi ea orandi formula *Jesu-Chte ora-pro nobis adhiberi posset*, si se vere perpendatur, Ecclesia tamen ea uti maluit: *Jesu-Chte miserere nobis*, ut Arianis, et nostrorum temporum Socinianis exo orationis forma, qua Chtum. Dominum præcamur omnis cavillandi eriperetur occasio circa Divinitatem, et consubstantialitatem Verbi divini.

(i) Acta. Ap. c. 1.°

(j) Vide Benedictum XIV ubi supra ano 53.

Universidad de Deusto
Biblioteca

LAUGARREN ERACUSALDIA.

Espiritu Santuaren etorreraren gañean.

Atseguin, eta poz andi bat aguertzen du Espiritu Santuaren egun onetan Eliz Ama Santac, eta deitzen digu Espiritu bera onratzera, eta adoratzera. *Alleluia* dio: Jaunaren Espirituac bete du lur gucia: atozte, adora dezagun: *Alleluia.* Pozaldi, edo festa au da gañeraco festa gucien coroa, eta betegarria bezala, eta batzuen iritzian da gucien artean andiena. Onen gañean itzeguin bear degu bada gaur. Aditzera emango det lenengo lecuan, Espiritu Santuaren etorrera, eta oni dagozcan gauza miragarriac. Urrena, nola guc ere iritsi ditzaquegun beraren doayac. Enzun arretarequin.

§ I.

Espiritu Santuaren etorreraco egunean aditzera eman, edo barreatu zan Jesusen Legue berria, eta orduan guertatu zanaren anz eder bat arquitzen degu Legue zarrean. Egon ciran Israeltarrac demborra lucean Egipton catiberio gogorrean. Jaunac atera cituan andic eguiten cituala mirari andiac, eta asco. Irten ciran aurreco egunean eguin zuen Jaunaren aguintez Pazcoaco festa, jaten zuela bildots errea eche bacoitzean. Berroguei ta amargarren egunean eman cien amar aguinte, edo Mandamentuen Leguea, orain esatera noan eran. Aguindu cien Sinai ceritzan mendira etzitecela igo eriotzaren pe-

nan: gorde ceceela, ezconduac ere, garbitasun, edo castidadea, eta ceudela soñeco garbiaquin. Leguea adiraci zan iru egunez lenago asi ciran Israeltarrac beren prestaera onetan. Irugarren egunean Sinaico mendia jarri zan sua, ta garra alde gucietatic ceriola. Odei lodi batec inguratu zuan, eta aditzen ciran turmoi ots izugarriac, eta ecusten ciran chimistac chimisten gaiñ. Asi zan Aingueru bat trompeta batequin amar Mandamentuac adirazten, añ sendoro, non aditzen cituen Israeltarrac, Aingueruac esaten cituan gauza guciac, eta baciran mendiaren inguruan iru milloi guizon. (Vide Exodum á cap. 15). Egun andi onen oroipena eguiten zuen Israeldarrac urte oro, beren Pazcoatic, berroguei, ta amargarren egunean, ceren egun onetan eman cien Jaunac bere Legue Santa Sinaico mendian, eta festa oni deitu cioen *Pentecostes*, esan nai du berroguei, ta amargarren eguneco festa: eta fest au izan zan bada gaurcoaren anz, eta iduri ederra, orain ecusico degun bezala.

Etorri zan Salvatzallea, munduaren asieratic Jaunac aguindua ceducan eran. Eguin zan guizon, eta gugatic gurutzean eman zuan bere vicitza. Aimbesteraño maite izan guinduan Aita Cerucoac, non eman zuan bere Seme bacarra, dio S. Juanec: *Sic Deus dilexit mundum, ut filium suum unigenitum daret.* Etzan contentatu gure Jesus ona gugatic vicitza ematearequin: ipiñi cituan gañera zazpi iturri, edo Sacramentu, graciaren ur gozoa beti ematen ari, eta beñere agortzen ez diranac. Au gucia eguinda ere, gauz asco bear ciran gure Erospen, edo Redencioco Obra Andia-osotoro bucatzeco. Aditzera eman bear zan Jesus beraren Legue berria: Legue bat, debecatzen cituana, munduaren alde gucietan adoratzen ciran idolo, edo Jainco guezurrezcoac. Le-

Universidad de Deusto
Biblioteca

gue bat gure gura, eta griña charren contra dijoana. Autuac ceduzcan onetaraco bere Apostoluac, baña oec ciran guizon jaquinezac, leundugabeac, eta beldurtiac. Gañera, ecusten zuan Jesus onac, bere odol preciotsuaren costuz, eta Sacramentuaquin Ceruraco bidean gu ipiñita ere, beti gueratzen guiñala argalac, gaitzera macurtuac, eta oneraco gogo guchirequin, eta nai zuan Ceruraco bidean gu ibiltzea alaitasun, eta atseguin andiarequin. Orregatic erabaqui zuan, bere Aitagana igo bear bazuan ere, bidaltzea Espiritu Santua Apostoluetara, eta bere Elizara gure Erospen, edo Redencioco obra osatzera. Ala esaten digu S. Agustiñec: *Ut quæ Salvator inchoaverat, Spiritus Sancti virtus consummet.*

Aditzera eman cien Apostoluai, nola joan bear zuan Aitagana, baña etzituala utzico ume zurtzen eran: erregutuco ciola Aitari, eta bidalduco ciela Espiritu Santua: *Et alium Paracclitum dabit vobis.* (Joan. 14): eta Cerura igotzeco cegoala, aguindu cien, ceudela Jerusalenen, Aitac aguindu zuan Espiritu Santua etorri artean. (Acta Apost. c. 1.º).

Igo zan Jesus Cerura: biurtu ciran Apostoluac Jerusalena, eta dirudianez, ezcutaturic egon ciran ostegun santuco aparia eguin zuen eche artan bertan (a). Aen orduco lan gucia izan zan beren biotzac prestatzea, Espiritu Santua artzeco. Pazcoatic berroguei, ta amargarren egunean, goiceco bederatzietan bezala asi zan turmoyaren anza zuan ots bat (b). Aguertu ciran suzco miac Apostoluac ceuden lecuan, eta jarri ciran aen, eta beste an arquitzen ciranen burugañean (c).

Jaunaren graciaren apaindura ederrarequin arquitzen ciran Apostoluac; baña suzco mingañac aen burugañean egon ciran bitartean, guc esan al baño

gueyago, ugaritu cien Espiritu Santuac graciaren doai ura, baita fede, esperanza, eta caridadearen virtuteac ere. (d) Gañera ugari isûri cituan aen biotzetan bere zazpi doayac, eta utzi cituan, Jaunac nai zuan guciraco ederqui prestatuac. Len Apostoluac ciran guizon moldacaitz, ez jaquin batzuec, eta Espiritu Santuaren doayac artu cituen ezquero, gueratu ciran Ceruco jaquiundez beteac, aimbesteraño non aditzen cituen Escritura Santac eracusten dizquigun gauzaric ezcutatuenac ere. Aditzen cituen gañera izcunza guciac. Len Apostoluac ciran guizon argal batzuec, ostegun santu arratsean beren maisua utziric iguesi joan ciranac; baña Espiritu Santuaren doayaquin gueratu ciran añ alai, ta sendoac, eta aimbesteraño Jaunaren amorioz beteac, non prest arquitzen ciran Jesusen Legue Santa mundu gucian barreatzeco, eta beren vicitzac beragatic emateco. Cer gueyago? Eman cien gañera Espiritu Santuac gaizquiñac ayenatzeco, eriac sendatzeco, illac pistutzeco, eta beren izcunza norinai aditzera emateco doaya (e).

Aditu zuen Jerusalendarrac, eta orduan Jerusalenen arquitzen ciran, arrotz ascoc ere turmoyaren otsa, eta iguerri zuen, non izan zan guchi gora bera ots au. Cer guertatzen zan jaquin nayez, joan ciran Apostoluen echeronz, ez Jerusalendarrac bacarric, baita arrozetatic ere, asco eta baciran oen artean izcunza gucietacoac; ceren *Pentecostes, edo berroguei, ta amargarren* eguneco festa artara munduaren lau aldeetatic joan oi ciran Jerusalena Jauna adoratzera. Ecusiric Apostoluac, beren echearen inguruan guizatalde ura gucia, irten ciran oetara beldurric batere gabe, eta asi ciran adirazten Jesu-Cristoren Misterio miragarriac, eta Leguea, añ ederqui, eta gozotoro, non aditzen ceuden guciac, arrituen eran arquitzen ciran. Ecusten zuen, Apostoluac cirala guizon leun-

Universidad de Deusto
Biblioteca

dugabe, ta jaquiunde guchicoac. Ecusten zuen doidoya jaquingo zuela beren errico izcunza, eta alaere guciz ederqui itzeguiten zuela Jesusen Leguearen gañean. Ecusten zuen, Apostoluac itzeguiten zuena aditzen zuela enzuten ceudenac, Erreñu, eta izcunz ascotacoac izan arren. Miretsiac ceuden guciac, ta galdetzen cioen elcarri: Cer da au? Cer aditzera emáten du orain dacuscunac? *Quidnam vult hoc* esse? Baciran batzuec isecaz cioenac: ardoz beteac, edo ordiac ceudela Apostoluac: *Musto pleni sunt* (Acta Apost. c. 2).

Orduan asi zan S. Pedro itzeguiten Legue berrico Aita Santua bezala, eta esan cien: Judatar Jaunac: *Viri Judæi*: zuec uste dezue, ordiac daudela guizon oec; baña utseguiten dezue uste orretan. Badaquizue, goiceco bederatzietan gaudela, eta onelaco jayetan egüerdiraño ez dala ecer jaten, ez edaten. Jaquizue, anciñatic aditzera eman zuala Jaunac Joel Profetaren autic, guizon oetan ecusi dezuena. Aditzera eman cien guero, nola Jaunac bidaldu zuan Jesus, anciñatic aguindu zuan bezala, Adan, eta bere umeac Ceruraco bidean ipintzeco: nola illerazo zuen gurutzean, eta piztu zan. Guc gueroc gueren beguiz ecusi degun gauza da au: *Cujus nos testes sumus*. Jaquin becee bada Israeldar guciac, gurutzean illerazo duen Jesus bera dala Munduaren Salvatzallea. Gauz arrigarria! Pedro guizon jaquiunde añ guchicoa, eta Juduen beldurrez iru bider bere Maisua ucatu zuana! eta alaere guizon onec Juduai, eta mundu guciari era onetan itzeguin die! Cer eguiñ ez dezaque batec Espiritu Santuaren doayaquin? S. Pedroren lenengo itzaldi onequin sinistu zuen Jesu-Cristogan iru millac bezala, eta batayatu ciran ¿Eta asiera onelacoa izan bazan, cer eguingo etzuen guero ala Pedroc, nola beste Apostoluac? Zabaldu zuen Jesusen Leguea

munduaren lau aldeetan: alperric alcha ciran Lucifer, eta bere lagun guciac Apostoluen contra. Alperric munduco Erregue, eta jaquintsu guciac: etzuen utzi Apostoluac beren lan andi hau, eta eguiaren alde isuri zuen beren odola. Orra, nere Cristauac, nola aditzera eman, edo barreatu zan gure Legue Santa Espiritu Santuaren etorrerarequin: eta orra gaurco Misterio andiac aditzera ematen diguna.

§ II.

Espiritu Santua jachi zan Apostoluetara, aditu degun bezala: bete cituan bere doayaquin, eta gueratu ciran beraren onran vicitza emateco prest. Etzan Espiritu Santua jachi Apostoluacgatic, edo aen onagatic bacarric, baicic Cristau gucien onagatic, eta gueratu zan Elizan betico, esan nai det, Cristau fededunen bilcui, batzarre, edo congregacioan. Ala aguindu cien Jesu-Cristoc berac Apostoluai (Joan. 14) Guerta diteque, eta guertatzen da asco becatuan loituac arquitzea, baño beste asco daude Jaunaren gracian: eta oen biotzetan dago Espiritu Santua, bere doayez betetzeco, eta bear duen lagunza gucia emateco, artaraco bear dan prestaera ipintzen duela. Orregatic S. Paulo Apostoluac deitzen dio Jaunaren gracian vici danari, Espiritu Suntuaren *jauregui*, *edo Eliza*: *Templum Spiritus Sancti* (1 ad Corint. c. 3 et 6.º).

Beraz zu, Cristaua, Jaunaren gracian vici ceran bitartean, cera Espiritu Santuaren Eliza bezala eta zu ongui prestatzen bacera, zure viotzean isûrico ditu bere doayac. Au onela izan ¿eta ez guera prestatuco alic onguiena? Eta cer ote da guc eguin bear deguna? Ara cer. Lenengoa: gure biotzac garbitzea becatuaren loyetatic; becatuan vici dana alabaña da Satanasen zulo nazcagarria, eta ecin artu ditza-

que Espiritu Santuaren doayac. Bigarrena: becatuaren bide, eta perilletatic betico aldeguitea. Au ez eguitera, ez dago, ez, becatutic irteteric. Irugarrena vicitz on, eta garbi bati venaz, eta viotz osoz jarraitzea, eta Sacramentuac sarritan artzea. Atzenean Espiritu Santuari bere doayac umilqui escatzea, Jaunaren gracian, edo viçitz onean irauteco. Esan deguiogun oraiñ Eliz Ama Santarequin:

Atoz, ó Espiritu Santua: eta bidal ezazu gure animetara zure arguiaren erreñu bat bederic, becatuaren illuntasunac ayenatzeco. *Veni Sancte Spiritus, et emitte lucis tuæ radium.*

Atoz beartsuen gurasoa, atoz doayen emallea, atoz gure biotzetaco arguia: *Veni Pater pauperum, veni dator munerum, veni lumen cordium.*

Atoz, gure Consolatzalle guciz ona, gure animen (*) arrotz, eta inz gozoa: *Consolator optime, dulcis hospes animæ, dulce refrigerium.* Onela vicitz onean irauteco, eta iristeco betico vicitza doatsua. Amen.

(a) Vide Benedictum XIV de festis lib. 1 cap. 11 á n.º 16.
(b) Vide eumdem n.º 3.º
(c) Idem n.º 13.
(d) Vide eumdem n.º 4.
(e) Idem n.º 4.º Vide etiam Croiset.

(*) *Latinezco itz onec:* hospes *eusqueraz esan nai du campotic datorrena, edo* arrotza. *Vide Larramendi: Ala itz au usatzen due Franciaco euscaldunac, liburuetan beintzat.*

BOSTGARREN ERACUSALDIA.

ESPIRITU SANTUAC ANIMAN ISURTZEN DUAN GRACIAREN DOAI MIRAGARRIAREN GAÑEAN.

Dereliquisti Dominum Deum tuum....Scito, et vide, quia malum, et amarum est reliquisse te Dominum Deum tuum. (Jerem. 2.)

Utzi dezu zure Jaun, eta Jaungoicoa, eta zu cere Aita onagana biurtzeco, aleguiñ asco eguin bada ere, etzera esnatu becatutic aldeguiteco. Jaquizu bada, esaten dizu Jeremiasec; jaquizu, eta ecusi ezazu, gauza gaizto, eta samiña dala, zuc zure Jaun, eta Jaungoicoa utzi izan dezun eran utzitzea: *Scito, et vide, quia malum, et amarum est reliquisse te Dominum Deum tuum.* Atzo itzeguin nuan Espiritu Santuaren etorreraren, eta oni dagozcan gauza miragarrien gañean; eta dembora berean aditzera eman nuan nola guc ere iritsi dezaquegun beraren doayac. Espiritu Santua jachi zan Jesu-Cristoren Elizara, edo berbera dana Apostoluetara, eta aequin batean anima onetara, eta arreizquero ez du utzi, eta ez du utzico Jesu-Cristoren Eliza, Jesu-Cristoc berac Apostoluai esan cien bezala (Joan. 14). Bete cituan bere doyaez, eta guertatu ciran atzo aditu cinduen gauza miragarriac. Espiritu Santu ura bera dator gure animetara, Sacramentuac ongui artzen dituguneán, eta isurtzen ditu bere doayac bacoitzaren prestaeraren neurrian; baña doai oen artean andiena,

Universidad de Deusto
Biblioteca

eta gucien sustraya da *gracia*: esaten diogun doaya. Onen gañean izango da gaurco Eracusaldia: eta doai onen berriac eman ondoan uquituco det, ceñ gauza gaizto, eta samiña dan, doai miragarri au ematen digun Jauna guc utzitzea. Enzun arreta andiarequin.

Graciaren icenez batzuetan aditzen degu edoceñ ontarte, eta mesede, eta era onetan guc ditugun gauz on guciac dira Jaunaren gracia; guciac dira alabaña beraren escu onguilleac emanac; baña ez degu emen graciaren icenez aditzen edoceñ mesede. Beste batzuetan graciaren icenez aditzen ditugu, becatutic irteteco, edo aldeguiteco obra onac eguiteco, eta oei jarraitzeco Espiritu Santuac bidaltzen dizquigun, gogoracio onac, eta biotzeco uquierac. Oec dira Ceruco mandatari batzuec, animari mandatua eguiñ ondoan, gugan guelditu gabe, aurrera igarotzen diranac. Espiritu Santuaren mandatu oequin batzuetan esnatzen da anima, becatutic irteteco, beste batzuetan ez. Atozea, Cristaua, etzatzu au guertatu ascotan, Jaunaren Itza enzuteco demboran? Etzatzu au guertatu Pazcoetic oraindaño aditu dituzun eguiaquin? Ceruco mandatu oec gabe ez guenduque gogoracio, edo pensamentu on batere eguingo beticotasun gucian, S. Pauloc eracusten digun bezala (2.ª ad Corint. 3): orregatic mandatu oec aditu bear ditugu biotz umill batequin; baña ez degu gaur oen gañean itzeguiten. Atzenean graciaren icenez aditzen da araco Espirituac animari Sacramentuen bidez ematen dion doai, edo apaindura eder ura. Doai, edo janciera eder au gueratzen da animan, eta ez da galtzen becatu larri, edo mortalarequin baicic (a). Lenengo aldian artzen du animac doai au batayoan;

guero confesio ona eguiten duanean, eta ugaritzen zayo gañeraco Sacramentuaquin.

Beraz zuc, Cristaua, batayoco egunean, eta ongui confesatu ceranean, cere animan bertan artu dezu graciaren doai, eta janciera ederra. Ay! eta baciñaqui ceñ miragarria dan doai au! *Si scires donum Dei.*! Doai onec animan sartzen dan unean bertan eguiten du guizona Jaungoicoaren beraren *seme*, ez bere *izatez*, baicic *aintzacotzat* Jaincoac artzen dualaco. Guizona bere izatez ez da, eta ecin izan diteque Jaincoaren Seme; onetaraco alabaña izan bearco luque Jaungoico, eta ecin dateque au. Era onetan Jesu-Cristo bacarric da Jaungoicoaren Semea. Baña aimbesteraño maite izan guinduan, non onratu gaituan bere Semeen icenarequin, eta aintzacotzat artu gaituan, graciaren doaya ematean. Demagun Españaco Erreguec seme bat bacarra duala, eta onez gañera semetzat artu nai duala beste bat. Eraguiten du janciera guciz eder bat, eta aguintzen du, janciera au daramana onratu, eta ezagutu dedilla Erregueren semetzat. Atocea, janciera au Erreguegandic iristen duana ez da izango Erregueren seme? Berez, eta bere izatez ez, esango didazu, baña bai *aintzacotzat artua*, *eta onratua*. Au bera guertatzen da bada graciaren soñeco ederra daucanarequin. Ez da, eta ecin izan diteque bere izatez Jaincoaren seme, ceren Jaincotasunic ecin izan dezaquean, baña graciaren soñeco ederra daucan bitartean bere semetzat dauca, eta aintzacotzat onratzen du Jaunac. Orregatic esaten digu S. Juanec: ecusi ezazue, nolaco onguinai, eta amorioa guganonz aguertu duan Jaunac: *Videte, qualem charitatem dedit nobis*, bada eman digu bere semeen icena, eta izatea: *Ut filij Dei nominemur, et simus* (Joan. 3).

Graciaren doayac, guizona Jaincoaren Seme egui-

Universidad de Deusto
Biblioteca

teaz gañera, dembora berean eguiten du Ceruaren jabegai, edo heredero. Semea Aitaren ondasunen jabegaya da, edoceñec daquian bezala: beraz graciaren doayac, guizona Jaincoaren Seme eguiten duan ezquero, dembora berean eguiten du, dio S. Pauloc, bere jabegai (Ad Rom. c. 8). Ni nerau izango naiz zure animaren sari, eta betegarria, esan cion Jaunac berac Abrahani: *Ego merces tua magna nimis* (Genes. 15).

Eguiten ere du graciaren doayac guizona Jaincoaren beraren adisquide, Jesu-Cristoren senide, eta Espiritu Santuaren vicilecu, eta Eliza bezala. Jaungoicoaren adisquide; Anima bat becatuan dagoan bitartean nazcagarria da Jaunaren beguietan; baña graciaren apaindura artzen duan bezala eguiten da Jaunaren adisquide, Trentoco Concilioac eracusten digun bezala (b): eta au aditzera eman cigun Jesu-Cristoc berac, esan cienean Apostoluai, emendic aurrera ez dizuet deituco: *nere servitzariac, baicic nere adisquideac* (Joan. 5). Miretsitzen da S. Gregorio onembeste onra Jaunac guri eman nai izateaz, eta dio, ez guera servitzarien icenaren diña, eta onratzen gaitu adisquideen icenarequin: *O mira Divina Bonitatis dignatio! servi non sumus digni nominari, et amici nominamur!* Eguiten du Jesu-Cristoren señide; Aita baten umeac alabaña senideac dira: orregatic dio S. Pauloc, Jesu-Cristo dala senide ascoren artean *lenic jayoa: Primogenitum in multis fratribus* (Roman. 8). Esan det, graciaren doayac guizona eguiten duala Espirituaren vicilecu, eta Eliza bezala; bada S. Pauloc dio, doai onequin batean animari ematen zayola Espiritu Santua: eta an vici da bere gogo, ta gustoco jaureguian bezala. Alaco eran nai du Espiritu Santuac graciaren apaindurarequin dagoan animan vicitzea, non an egon naico

luquean, lecu gucietan Jaungoicoa ezpalego ere (c). Orregatic esaten digu S. Pauloc: eztaquizue zuen gorputzac dirala Espiritu Santuaren Eliza? *An nescitis, quoniam membra vestra templum sunt Spiritus Sancti?* (1.ª ad corint. 6). ¿Au onela izan, eta alaere zure gorputz ori loitu dezu aimbeste bider, atseguin lotsagarrien ondoren zabiltzala? cembat bider bacarric? Cembat bider besterequin? Atozea, izango ote cenduque ausardia, Aldareco Sacramentua dagoan oncia escu ciquiñaquin erabiltzeco? Eta eztaquizu, onen anceco gauz itsusi bat eguiten dezula, zure gorputz ori becatuz ciquintzen dezunean? Baña goacen aurrera, eta ecusi ditzacun, graciaren doai miragarriari dagozcan, beste alabantzac.

Baciñaqui, Cristaua, ceñ andi, ta miragarria dan animaco graciaren doaya! *Si scires donum Dei!* Au da doai bat, becatuan illac, eta ustelduac dauden animac ere piztutzen dituana. Anima bat, becatuan errortzen danean, dala itzez, dala gogoz, edo pensamentuz: dala obraz, illa gueratzen da, Ezequiel Profetac dion bezala: *Anima, quæ peccaverit, ipsa morietur* (cap. 18). Orduan animari guertatzen zayo gorputz illari guertatzen zayona. Gorputz illac baditu escuac, eta ez da gai, edo gauza beatz bat ere alchatzeco. Baditu oñac, eta ecin jaso ditu. Baditu beguiac, eta ez du ecer ecusten. Baditu belarriac, eta ez du ecer aditzen. Eta orra animari becatu mortalarequin guertatzen zayona. Becatutic ecin berez irten diteque, eta irteten dan bitartean ez da gai Ceruraco irabaciric chiquiena ere eguiteco; eta onela becatuan datzala usteltzen da, eta quiratza dario beguiratzean, itzeguitean, ibilleran, eta modu gucietan. Zoaz festa batera: ecusico dezu araco guizon, eta mutill ura alic onguiena jancia, eta norcnai beguiratu deguioquean bezalacoa; baña animaren aldetic illa, eta

Universidad de Deusto
Biblioteca

usteldua, ceren becatuaren bideetan dabillen. Ez da contentatzen bere burua galtzearequin, beste asco galtzen ditu. Ecusico dezu araco emacume, edo nescach ura, nornai llilluratzeco eran apaindua; baña beguira animaren aldetic, eta arrituric gueratu cera... ecustean, usteldua dagoala gucia becatuan, eta bere quiratzarequin, edo moduaquin dala ascorentzat becaturaco sarea. Alaere añ miragarria da graciaren doaya, non becatari usteldu oec ere piztutzen dituan, animan sartzen dan unean bertan. Ala guertatzen da beñ baño gueyagotan, onelaco cembait becatari ezagüeran ongui erortzen, eta biotz osoarequin Jaunagana biurtzen diranean.

Graciaren doaya añ miragarria da, non munduan guertatu diran becaturic itsusienac ere animan sartze utsarequin ayenatuco lituquean, eguzquiac gauaren illuntasunac ayenatzen dituan eran. Au aditzera ematen digu Isaias Profetac, dionean, elurra beceñ zuri eguingo dirala gure becatuac, grana bezalacoac balira ere: *si fuerint pecoata vestra, ut cocinum, quasi nix dealbabuntur* (cap. 1). Cer esango det, doai onec animari ematen dion edertasunaz? Demagun, Cristalezco onci garbi batera biltzen dala eguzquiac, eta izarrac, vergeretaco loreac, urreac, cillarrac, perlac, eta diamanteac duen edertasun gucia. Ateratzen duc eguzquitara onci ura ¿ceñ ederra aguertuco lizaque? Alaere edertasun au gucia ecer-ez izango litzaque graciaren doayac animari ematen dion edertasunaren aldean. Santa Catalina Senacoari aguertu cion beñ Jaunac, gracian cegoan, anima baten edertasuna, eta arrituric gueratu zan, eta esan cion confesoreari: O aita! eta ecusico balu gracian dagoan anima baten edertasuna! Uste det, pocic beñ, ta berriz jarrico lizaqueala eriotzaren perillean, anima bat alaco edertasunean ipintzea gatic.

Graciaren doaya da Espiritu Santuac animan isurtzen duan ur vicia, Jesu-Cristoc deitzen dion bezala. *Aquam vivam.* Ur au, animac galtzen ezpadu bere zabarqueriaz, eguiten da iturri, eta iturri onen ura igotzen da Ceruraño: *Fons aquæ salientis in vitam æternam* (Joan. 4).

Doai au da Espiritu Santuac animan ipintzen duan Ceruco cepa, eta sustrai bat, virtute, eta doai gucien mentuac berequin dituana. Anima bat batayoan, edo confesioco Sacramentuarequin gracian jarri dediñ artean, da arbola macatza bezala, eta ez du Ceruco frutu gozoric ematen; baña batayo, edo confesioarequin ipintzen dio graciaren cepa, edo sustraya. Sustrai onetan daude fede, esperanza, eta caridadearen, eta beste virtute, eta Ceruco doayen mentuac. Mentu oec, animac ongui gordetzen baditu, asico dira beren alsuma ederrac botatzen: loratuco, eta obra onen frutaz beteco dira. Onela eguiten da arbola bat guciz ederra, uda, ta negu loretan, eta frutaz betea dagoana; arbola bat lurretic Ceruraño acitzen, eta igotzen dana.

Atzenean graciaren doaya añ balio andicoa da, non obra on chiquienari ere Ceruco erreñuaren balioa ematen dion. Cristauac, becatuan dagoan bitartean eguiten dituan obrac, berenez onac, eta laudagarriac izan arren, illac dira, ceren graciaren sustraya galdu zan. Zabaldu bitza batec bere ondasun guciac beartsuen artean; irabaci bitza Ceruraco, Apostoluac irabaci cituen baño ere, anima gueyago: piztu bitza illac, alda bitza batetic bestera mendiac. Obra oec guciac, berenez andiac, eta miragarriac izan arren, ecer ez dira Ceruraco, ceren graciaren cepatic ez datocen. Ala eracusten digu S. Pauloc (1 ad Corint 13). Baña Jaunaren gracian arquitzen bada anima bat, onen obra on chiquienac ere, ongui eguiñac

badira, balioco due Ceruco Erreñua; ceren graciaren doayac ala balio duan. Gauza chiquia da egarri danari ur pîsca bat ematea, eta alaere balio du Ceruco Erreñua. Ala eracusten digu S. Pauloc: *Quod in præsenti est momentaneum, et leve... æternum gloriæ pondus operatur* (2.ª ad corint. 4).

Ecusten dezu, Cristaua, ceñ miragarria dan animaco graciaren doaya? Eguizu contu, zure baratzan, edo vergeran aguertzen dala iru orrico lore guciz eder bat. Beguiratzen diozu, eta ecusten dezu, orri bacoitzean ezarriac daudela urrezco letra batzuec. Lenengo orrico letrac dioe: *Illac pistutzen ditut.* Bigarren orricoac dioe: *gaitz-mota guciac ayenatzen ditut.* Irugarren orricoac dioe: *gorde ni ongui, eta etzera gaisotuco, eta ez illco.* Arrituric gueratzen cera, letra oec dioena iracurriric. Aditzen dezu, ill dala zure adisquide bat; quentzen diozu lenengo orriari pîsca bat; ipintzen diozu adisquideari ezpañetan, eta piztutzen da. Norc esan, norañocoa izango lizaquean orduan zure poza? Aditzen dezu, zure auzoan dagoala norbait etsia, eta azqueneco asnasetan bezala. Artzen dezu bigarren orritic pîsca bat, eta ematen diozu eriari ardo, edo saldan: eta bereala gueratzen da sendatua. Arrituric, eta cer guertatzen zatzun ez daquizula gueratzen cera. Artzen dezu irugarren orria: sartzen dezu cutun batean, eta cerequin darabiltzu: gueroztic etzera gaisôtzen, zartzen, eta iltzen. Atozea, cer ezluque balioco lore miragarri arc? Cristaua, eta ez daquizu lore au dala, Jesu-Cristoc bere odolaren costuz zuretzat irabaci zuan, graciaren doaya? Eztaquizu, Espiritu Santuac batayoco egunean, eta ongui confesatu ceranean lore eder au ipiñi zuala, eta dua-

la zure animan? Atozea, eta ezta gauza gaizto, eta samiña, doai añ miragarri arequin apaindu cinduan, Jauna utzitzea? Ea, becataria, biur zaite noizbait zure aita onagana: vici zaite alaco Aitaren umeari dagocan eran: eta zuc iritsico dezu betico vicitza. Amen.

(a) Tridentinum ses. 6 cap. 15 de Justificatione.
(b) Trident. ses. cap. 7 de Justific.
(c) Suarez. Vide Houdry.



Universidad de Deusto
Biblioteca

SEIGARREN ERACUSALDIA.

Irutasun, edo Trinidade chit Santaren gañean.

Gure fede santac eracusten dizquigun Misterio gucien artean andiena, eta ezcutatuena da gaurco Eracusaldiaren gaya. Misterio au da *Irutasun*, edo Trinidade guciz Santa. Au da Misterio bat Jaunac aguertu etzuana Legue zarrean, Abrahanec arguitasun piscaren bat izan bazuan ere. Misterio bat ez guizonaren, ez Aingueruen adimentuac iritsi dezaqueana, eta alaere Cerura nai duen guciac sinistu bear duena. Orregatic gauza bearra da gai onen gañean zuei cerbait esatea beguiramentu, eta beldur andi batequin. Aditzera emango det lenengo lecuan, cer sinistu bear degun Misterio onen gañean. Urrena, nolaco ontarte, eta mesedeac zor diozcagun Trinidade guciz Santari, eta nola onratu bear degun. Enzun arretaz.

§ I.

Irutasun, edo Trinidade chit Santa da Jaungoicoa bera, Aita, ta Semea, eta Espiritu Santua, iru Persona distinto edo bana, eta Jainco eguiazco bacar bat. Misterio au aditzera eman zuan Jesu-Cristoc, esan cienean Apostoluai: Zoazte munduaren lau aldeetara, aditzera eman ezazue nere Legue berria, eta nigan sinisten duenai eman zayezue nere batayoa Aitaren, eta Semearen, eta Espiritu Santuaren icenean

(Math. 38). Au bera eracusten digu S. Juanec dionean: Iru dira Ceruan eguiaren testiguac, Aita, Semea, eta Espiritu Santua, eta iru oec bat dira: *Tres sunt, qui testimonium dant in Cœlo, Pater, Verbum, et Spiritus Sanctus, et hi tres unum sunt* (1 Joan. 5). Orregatic Eliz Ama Santac S. Atanasiorequin dio: Catolicoen sinistea, edo fedea da Jaungoico bat iru Personetan, eta iru Persona Jaungoico bacar batean onratzea, eta adoratzea: *Fides autem Catholica hæc est, ut unum Deum in Trinitate, et Trinitatem in unitate veneremur* (Symbolum S. Athanasij). Siniste au beraz guciz bearra da Ceruraco (a).

Gure Jaungoicoa da bat bacarra, eta ez dateque besteric: ala ez izatera, ez litzaque izango Jaungoico eguiazcoa, edo esan, eta gogora al ditequean gauzaric garayen, edo excelente, ta miragarriena: Jaun bat fingabe ona, Poderoso, jaquintsu, justua: gauza gucien Asiera, ta fin, edo bucaera. Virgiña chit Santa Andre gucien artean onena, eta miragarriena da, baña ez lizaque ala izango, besteren bat balizberaren pare ipiñi ditequeana.

Jaungoico bacar au da iru Persona, Aita, eta Semea, eta Espiritu Santua: iru Persona distinto, edo bana, eta Jaungoico eguiazco bacar bat. Zure anima da iru potencia, edo quemen, *oroipena*, *adimentua*, *eta vorondatea*: iru potenci oec bana dira, baña ez dira iru anima, baicic anima bat bacarra.

Trinidadeco lenengo Persona icendatzen da, *Aita*, eta eguiaz da icendatzen dan bezala, ceren beticotasun gucian bere adimentutic sortzen duan seme bat Aita berarequin gucian berdiña, eta Aitaren anz ederra. Jarri zaite ispillu garbi batean cere burua ecusten: bereala aguertuco da zure iduri, edo anza. Beguiratu cion bada Aita beticoaren adimentuac bere izate ederrari, eta betiraundetic

Universidad de Deusto
Biblioteca

sortu zan, eta sortzen da Aitaren anz ederra. Trinidadeco lenengo Persona edo Aita ez da *sortua, ez da jayoa, eta ez dator bestegandic*, baicic berez da betiraunde gucian: eta Juduac, ta heregeac berac ere aitortzen due dala Jaungoico eguiazcoa (b).

Trinidadeco bigarren Persona da Semea, eta esan degun bezala jayo zan Aitaren adimentutic betiraunde, edo eternidadean. Au da nere Seme maitea, betiraunde, edo eternidadetic nere atseguin-contentua, esan zuan Aita Cerucoac Taborco mendian. *Hic est filius meus dilectus in quo mihi bene complacui* (Math. 17). Aita beticoaren seme au eguiaz Jaungoicoa da. Ala eracusten digu S. Juanec, dionean: Jaungoicoa zan, eta da beraren itza, edo Semea: *Deus erat verbum*, eta arguiro aitortu zuan eguia au San Tomás Apostoluac Jesus piztuta ondoren beraren escuetaco iltze siñaleac, eta sayetsa ecusi cituanean: Nere Jaun, eta Jaungoicoa esan cion: *Dominus meus, et Deus meus.* Semearen Jaincotasuna ucatu zuan Arrioc, eta bere seta onetan iraun zuan ill arteco demboran, eta bucatu zan Constantinoplan lecu ciquin batean. Heregia au izurriaren eran zabaldu zan lecu ascotara, eta ez guchiena Españara. Leovigildo Españaco Erreguea, Arrioren heregiarequin ciquindua cegoan, San Leandroren arrebarequin ezcondua bacegoan ere. Leovigildoren Seme S. Hermenegildo Catolicoa zan, eta bere osaba S. Leandroc eracutsi cion bezala, sendoro sinisten zuan, Aita beticoaren Seme-bacarra, Trinidadeco bigarren Persona zala Jaungoico eguiazcoa. Leovigildoc eguin zuan aleguiña galerazteco semeari siniste au, baña alperric, eta aserratu citzayon S. Leandroren, eta Semearen contra, alaco eran, non erbestetu zuan osaba, eta illerazo zuan semea. Damutu citzayon guero, baño ez bear bezala. Gaisotu zan, eta iltzeco cegoala, deitu cion San

Leandrori, eta erregutu cion, beguira ceguiola bere bigarren Seme Recaredori Hermenegildori bezala. Baña ceñ gauza negargarria! Berac etzuan izan heregia uzteco biotzic Erreñuari aditzera ematen ciola nola sinistu bear zan, eta sinisten zuan Jesus zala Jaungoico, eta guizon eguiazcoa. Onela il zan bear zana eguin gabe. Recaredoc bere osabaren lagunzarequin artu zuan gure Fede Santa, eta berarequin batean Erreñu guciac utzi zuan Arrioren heregia (c).

Trinidadeco irugarren Persona da Espiritu Santua. Ala esaten digu Jesusec berac, eta ala sinisten degu gucioc. Irugarren Persona, edo Espiritu Santua ere da Jainco eguiazcoa. Ala eracusten digu S. Juanec (1.ª Joan. c. 5). Ucatu zuan eguia au Macedonio ceritzan herege batec, baña escomicatu zuan Elizac. Espiritu Santua dator Aitaren, eta Semearen vorondatetic, *asiera batetic bezala.* Aitac beticotasun gucian amatzen du bere seme bacarra, eta Semeac amatzen du bere Aita, ta biac elcarri dioen amorio baztergabeco onetatic *dator* Espiritu Santua. Diot *dator*, eta ez diot, *sortzen, edo jayotzen dala, ceren jayoa izatea* Semeari bacarric dagocan, eta bi seme izango liraque Trinidadean, jayoa baliz irugarren Persona. Esan det gañera, Espiritu Santua datorrela Aitagandic, eta Semeagandic asiera batetic bezala. Demagun iturri batetic datorrela erreca, eta guero erreca onetatic aincira, edo putzu andi bat. Iturria ez dator ez errecagandic, ez putzutic: erreca dator iturritic, eta putzua bietatic. Ez dira gauz oec esaten osotoro egoquiac diralaco, Trinidadeco Misterioa adirazteco, baicic ceren laguntzen duen, cer sinistu bear degun jaquiteco. Emendic atera dezaquegu, Aita Beticoa ez datorrela bestegandic, baicic berez dala betiraunde gucian: semea sortzen da-

la Aitagandic, eta Espiritu Santua *datorrela* Aita eta Semeagandic. Ala eracusten digu Eliz Ama Santac (d), eta cantatzen da Credoan (e): *Qui ex Patre, filioque procedit.* Aita Jaungoicoa da, Semea Jaungoicoa da, Espiritu Santua Jaungoicoa da, eta ez dira iru Jaungoico, baicic Jaungoico eguiazco bacar bat. Aita ez da Semea, eta Espiritu Santua ez Aita, ez Semea da, ceren Personac distintoac, edo bana diran, izan arren Jaungoico eguiazco bacar bat. Emen Aldarean dagoan ostia consagratua Cristo da, eta Larraulen, eta Alquizan dagoana ere bai: alaere emen dagoan ostia consagratua ez da Larraulen dagoana, eta Alquizan dagoana ez emen, ez Larraulen dagoana da; ceren ostia consagratuac distintoac, edo bana diran, izan arren Cristo bat bacarra Ceruan, eta Sacramentuan dagoana. Itz batean Jaungoicoa bat bacarra da, baña Personac iru (f).

Aita, ta Semea, eta Espiritu Santua berdiñac dira edertasun, eta perfeccio gucietan. Aita ez da Semea baño lenagocoa, eta ez bata, ez bestea dira Espiritu Santua baño lenagocoa, irurac dira alabaña beticoac. Eguzquiagandic sortzen da arguitasuna, eta alaere eguzquia ez da lenagocoa, edo zarragoa, ceren batetan biac asi ciran izaten (g). Aita Gucialdun, edo Omnipotentea da, eta era berean Semea, eta Espiritu Santua ere. Aitac eguiñ cituan Ceru-lurrac, eta gauza guciac, eta era berean Semeac, eta Espiritu Santuac. Aitac eguiten ditu eguiten diran gauza guciac, baña ez bacarric, baicic iru Personac. Alaere Escritura Santac aditzera ematen dizquigu cembait gauza, Aitac bacarric eguin balitu bezala. Ala Credoan esaten da: *sinisten det Jaungoico Aita guciz Poderoso Ceruaren, eta lurraren Criadoreagan*, iru Personac Ceru-lurrac eguin bacituen ere; ceren Aita dan indar, eta po-

dere guciaren iturburua. Beste gauza batzuec aditzera ematen dira Semeari bacarric balegozca bezala, nola diran jaquiunde andia aguertzen duen gauzac; Semea da alabaña Aitaren Jaquiundea, asieratic bucaeraraño gauza guciac arguiro ecusten, sendoro eguiten, eta gozotoro prestatzen dituana: *Attingit ergo á fine usque ad finem fortiter, et disponit omnia suaviter* (sap. 8). Azquenean beste gauza batzuec adirazten dira Espiritu Santuac bacarric eguiñac bezala, Trinidadeco iru Personac eguiñac izan arren. Onelacoac dira onguinai, eta amorio andi bat aguertzen duenac, ceren Espiritu Santua dan Aitagandic, eta Semeagandic betiraunde gucian datorren amorioa. Orregatic uquitzen danean Credoan, nola Trinidadeco bigarren Persona guizon eguin zan, esaten da *sortu zala Espiritu Santuaren obraz, eta graciaz.* Orra nere Cristauac, Trinidadeco Misterioari dagozcan, gaucen gañean cerbait esan dizuet, errazago sinistu ditzatzuen gai onetan sinistu bear ditugun gauzac. Dacuscun oraiñ, nolaco ontarte eta mesedeac zor diozcagun Trinidade guciz Santari.

§ II.

Baldin fedeac eracusten digunari beguiratu nai badiogu, arrituric gueratuco guera, Trinidadeco iru Personac guri ongui nayez eguin duena ecustean; bada dirudi, Munduaren asieratic oraindaño Trinidade chit Santaren eguiteco gucia izan dala guri on eguitea, eta gu ontartez betetzea. ¿Cer eguin ez du gure alde Aita Beticoac? Eguin guinduan ezerezetic bera ezagutzeco, amatzeco, eta beticotasun gucian berarequin Ceruan vicitzeco. Ederqui prestatu cituan guizonac, emen vici zan bitar-

tean, bearco cituan gauza guciac: eta gueroraco eguin zuan Ceruco erri eder ori. Baña galdu zuan Adanec ala beretzat, nola guretzat Ceruraco escu gucia; galdu zuan alabaña Jaunaren adisquidetasun, eta gracia, eta gueratu guiñan becatuaren mendean, eta betico galeran: urricaldu zan guzaz Aita Cerucoa, eta erabaqui zuan lurrera bidaltzea bere Seme bacarra, guizonaren utseguitea deseguiteco, eta gu Ceruraco bidean ipintzeco. Eta nola erabaqui, ala bidaldu zuan. Aimbesteraño maite izan guinduan, non eman zuan bere Seme bacarra, dio S. Juanec: *Sic Deus dilexit mundum, ut filium suum unigenitum daret.* Ecusten dezu, Cristaua, cembat zor diogun Trinidadeco lenengo Personari, edo Aita Beticoari?

Zoaz aurrerasêago, eta beguira, cembat zor diogun bigarren Personari, edo Seme Jaungoicoari. Seme Jaungoicoa jachi zan Cerutic lurrera, au da eguin zan guizon Virgiña chit Santaren Sabelean Espiritu Santuaren obraz. Arrituric gueratzen da Eliz Ama Santa, gogora ecarriric, Seme Jaungoicoa aur biurtu ta vicitu zala Virgiña chit Santaren Sabelean. *Et tu non horruisti Virginis uterum.* Oguei, ta amairu urte igaro cituan Ceruraco bidea eracusten guizonari ala itzez, nola obraz, eta Jaunari guizonac eguin cion bidegabeari eranzuteco, eta Aita Cerucoarequin paqueac eguiteco, eman zuan gurutzean bere vicitza. Ipiñi cituan bere Elizan zazpi Sacramentu, graciaren ur gozoa gure viotzetan isurtzeco, eta besteen artean ipiñi zuan Aldareco Sacramentu guciz miragarria, gurequin, eta gure artean vicitzeco, eta guri emateco bera dan gucia. Arrituaren eran dio S. Agustiñec. Izanic gure Jaungoicoa Gucialdun, edo Omnipotentea eciñ alaere eman digun baño gueyago eman cezaquean: *Plus dare non potuit.* Izanic

guciz jaquintsua, etzuan jaquin cer eman gueyago: *Plus dare nescivit*: eta izanic guciz aberatsa, etzuan izan cer eman gueyago: *Plus dare non habuit*, eman cigun alabaña bera dan gucia ¿ eta cer gueyago eman dezaque, bera dan gucia ematen duanac? Atzenean Cerura igo zanean idiqui cituan guretzat, aimbeste milla urtean Adanen umeentzat ichiric egon ciran ateac, eta aguindu zuan, ez guinduala utzico ume zurtzen eran, baicic gurequin egongo zala, eta gañera bidalduco zuala, Espiritu Santua, gure nequeac arintzeco, eta jaquin bear diran gauzac eracusteco. Aditzen dezu, Cristaua, cer eta cembat zor diogun Trinidadeco bigarren Personari?

Beguira atzenean, cer zor diogun irugarren Personari, edo Espiritu Santuari. Jesus Cerura igo zanetic amargarren egunean jachi zan Espiritu Santua, Salvatzalleac asi zuan obra andia, edo gure Erospen, edo Redencioco eguitecoa osotoro bucatzera. Bete cituan Apostoluac bere doayez: edertzen, ta apaintzen ditu animac batayoan, eta gañeraco Sacramentuetan. Gueratu zan Elizan, edo fededunen batzarre, bilcui, edo Congregacioan, eta berac guiatzen du emengo ecaitz gucien artean.

Orra nolaco ontarte, edo mesedeac zor diozcagun Trinidade chit Santari. Eta nola onratu bear ote degu? Onratu bear degu lenengo lecuan, sarritan oroitzen guerala, batayoco egunean eguin cigun mesede andiaz; bada beraren icenean izan guiñan batayatuac eta eguin guinduan Aita beticoaren ume, eta Ceruaren jabegai. Nondic guri onembeste onra, eta mesede? Mesede onen esquerrac ematen dira goiceco jayeran. Onratu bear degu bigarren lecuan, batayoco egunean eman guinduan itzac berritzen ditugula, eta leyalqui eranzuten diegula. Au nola eguin ederqui eracusten du lenvicico Comunioco li-

Universidad de Deusto
Biblioteca

buruac, dala confesioa eguin ondoco Eracusaldian, dala lenengo Comunioa eguin bear dancan. Onratu bear degu irugarren lecuan, beguiramentu, eta jayera andiarequin esaten degula *Aitaren, ta Semearen, eta Espiritu Santuaren icenean*; bada itz oequin aitortzen da Trinidade guciz Santa, eta gurutzea ongui eguiten bada, aitorzen degu, nola Semea guizon eguin zan, eta gugatic gurutzean eman zuan vicitza. Eguin dezagun bada aleguiña Trinidade chit Santa onratzeco batayoan aguindu guiñucan eran vicitz onari jarraitzeco, eta era onetan emango digu betico vicitza doatsua. Amen.

(a) Disputant Theologi, an Mysteria S. S. Trinitatis: et Incarnationis necesario credenda sint fide explicita necesitate medij? Alij dicunt, per se ita credenda esse, necesitate medij, per accidens autem, et in aliquo casu raro posse aliquem salvari cum fide implicita horum Mysteriorum. Hanc sententian tuentur Lugo Salmanticenses, Ligorius &. Alij autem docent, fidem explicitam horum Misteriorum esse quidem necesariam necesitate præcepti, non autem medij, cum ante adventum Chti non fuerit necesaria in populo hæc fides explicita.

(b) Pater á nullo est factus, nec creatus, nec genitus. Symbolum S. Athanasij.

(c) *Deus* filius. Simbolum S. Athanasij: Concilium Nicænum 1. Constantinopolitanum in suo Symbolo &. Contra Arium.

(d) *Deus Spiritus Sanctus*. Symbolum. S. Athanasij. Spiritus Sanctus á Patre, et filio, non factus, nec creatus, nec genitus, sed procedens. Idem Symbolum.

Macedonius Episcopus Constantinopolitanus 1.° negavit filij Divinitatem: Deinde aliam creavit hæresim contra Spiritus S. Divinitatem, sed damnatus fuit á Concilio Constantinopolitano 1.° quod celebratum fuit anno 381. Concilium autem Lugdunense secundum anno 1274 can. 1.° damnat eos,

qui negare præsumpserint, æternaliter Spiritum S. ex Patre, et filio procedere, sive etiam temerario aussu aserere, quod Spiritus Sanctus ex Patre, et filio tanquam ex duobus principijs, et non tanquam ex uno procedat.

(e) Secundum hodiernam disciplinam Symbolum recitatur, et cantatur in sacrificio Missæ, cum additione *Filioque procedit*. Non omnino autem incongruum, nec injucumdum, erit aliqua advertere circa prædictam disciplinam.

Quadruplex est Symbolum. Primum Apostolorum, in quo nulla fit mentio de Divinitate, ac processione Spiritus Sancti. Secundum Nicænum, quod Patres Nicæni primi Concilij anno 325 stabilierunt contra hæresim Arianam; at nihil habet de Divinitate, et processione Spiritus Sancti, quia nulla adhuc de his esset controversia. Tertium Symbolum est Constantinopolitanum, quod Synodus Constantinopolitana celebrata anno 381 decrevit contra Macedonium, aliosque Arianos. In Symbolo dilucide asseritur procesio *Spiritus Sancti á Patre*, nihil autem dicitur de *procesione á filio*. Quartum Symbolum est S. Athanasij, quod insertum est in Horis Canonicis *ad Primam*. Sunt qui existiment, Athanasium esse verum hujus Symboli Auctorem; at alij id negant. Videsis Cabbasutium in sua notitia Ecclesiastica sæc. 3 Dissert. 19.

Paulo post Concilium Constantinopolitanum, nimirum anno 400 secundum Villanuñum, celebratum fuit Concilium primum Toletanum, in eoque Patres nostri formulam fidei edidere, addendo Symbolo Constantinopolitano *filioque procedens*. In tertio autem Concilio Toletano, quod sub Recaredo Rege celebratum fuit, anno 589. canone 2.° constitutum »fuit, ut per omnes Ecclesias Hispaniæ, vel Galliæ (*Gallitiæ* »legit Cardinalis Aguirre, Martene autem *Galliæ* Narbonensis), secundum formam orientalium Ecclesiarum Concilij »Constantinopolitani, hoc est centum quinquaginta Episco»porum, Symbolum *fidei recitetur*, et priusquam Dominica »*dicatur Oratio, voce clara á populo decantetur*.» Hinc orta videtur consuetudo cantandi Simbolum Constantinopolitanum in Ecclesia Latina, et quidem cum additione *filioque*; hæc enim additio facta fuit á Patribus Hispanis in Concilio 1.° Toletano anno 400, ut supra dictum est. Et in hoc etiam Concilio condiderunt sequentem Canonem, qui in Confesione

fidei ponitur núm. º 3. º *Quicumque Spiritum Sanctum non credit aut non crediderit á Patre et filio procedere, eumque non dixerit coæternum esse Patri, et filio, et coæqualem; anathema sit.* Serius cæpit hic ritus in Gallia, atque Germania, nimirum sub Carlo Magno, ineunte Sæculo nono, inquit Meratius.

In Ecclesia Orientali jam ab anno 510 Timotheus Episcopus Constantinopolitanus introduxit Ritum recitandi Symbolum in Missa, ut resisteret Macedonianorum erroribus, qui audebant asserere, Spiritum S. esse multo inferiorem Patre, et filio, et utriusque servum. Vide Benedictum XIV in suo opere de Sacrificio Missæ lib. 2, cap. 8 núm. 8. Photius Patriarcha Constantinopolitanus, loco Ignatij, qui Bardæ artibus summa injuria expulsus fuerat, suffectus, in quodam Conciliabulo anathema dixit in eos, qui verbum *filioque* ad Symbolum addiderant, anno 876, et exorsum est schisma exitiosisimum totius orientis. Anno 1274 celebratum est Concilium Lugdunense secundum generale, et convocati sunt nedum Latini, sed etiam Græci, et ibidem convenere quingenti circiter Episcopi, atque etiam nuncij Imperatoris Michaelis Palæologi, cum litteris unionem, et obedientiam, sinceramque cum Apostolica sede Romanaque Ecclesia fidem profitentibus. Certe unio hæc optatissima utriusque Ecclesiæ confecta fuit in hac Synodo, necnon in Florentina, quæ celebrata fuit anno 1438, at Græci iterum, atque iterum reincidérunt in suos antiquos errores, atque his etiam temporibus schismatici perseverant. Errores, quos sequuntur, sunt, 1. º negant, Romanum Pontificem esse visibile totius Ecclesiæ caput, cui Pastores omnes subesse debeant, ac damnant Concilia omnia in Occidente celebrata. 2. º Licet fateantur Spiritum S. esse Deum, ac Personam á Patre, et filio distinctam, quæ procedat ex Patre, negant tamen ex filio etiam procedere, ac Romanam damnant Ecclesiam, quod Symbolo particulam *filioque* addiderit. Hic clare videtur, Græcos schimaticos non sequi Macedonium, qui negavit Spiritum S. á Patre procedere, atque esse Deum. 3. º Negant dari Purgatorium, et justorum animas, quibus nihil luendum supersit, ante extremi judicij diem clara Dei visione donari. Quarto: licitum esse putant dare uxori libellum repudij, et ad alias nuptias

transire. Quinto; eorum plerique negant, fornicationem inter solutos esse peccatum. Sexto, in eo quoque errant, quod tertias, et quartas nuptias pro illicitis habeant, nec desunt qui ussuras licitas esse credant. Omitto alios errores. Ecce monstra ex separatione á Romana Ecclesia in Photianis orta. Sunt inter orientales aliæ sectæ, ut Nestorianorum, et Jacobitarum, sed hæ ad rem præsentem non attinent.

Loquamur nunc de Ecclesiæ Romanæ disciplina circa Symboli recitationem, aut cantum in Missæ Sacrificio. Aliqui existimant primis Ecclesiæ sæculis Symbolum Apostolorum recitatum fuisse in Missa, sed id omnino incertum secundum Merati. Alij opinantur in Ecclesia Romana Symbolum nec recitatum, nec cantatum fuisse in Missa usque ad undecimum sæculum, Berno enim Abas refert, Romanam Ecclesiam usque ad tempora Henrici Imperatoris seu usque ad annum 1014 non decantasse Symbolum, eoque anno jussu Benedicti VIII postulante Imperatore cæpit decantari. At Mabillorius existimat, Symbolum recitatum fuisse in Ecclesia Romana in Sacrificio Missæ multo ante undecimum Sæculum. Leo enim tertius, qui sæculo octavo Pontificatum gessit, Legatis Concilij Aquisgranensis respondit circa Symboli cantum, et additionem. «*Quod vero* asseritis, »ideo vos ita cantare Symbolum, quoniam alios in istis par»tibus vobis priores audistis cantasse. Quid ad nos? Nos enim »id ipsum non *cantamus*, sed *legimus*, et legendo docere, nec »tamen legendo, aut docendo *addere quidpiam*, eidem Sym»bolo inserendo præsumimus». Hinc inferri potest 1. º in Ecclesia Romana ante undecimum sæculum recitatum fuisse Symbolum Constantinopolitanum in Missa, sed absque additione *filioque*, et absque cantu. Præterea valde verisimile est, cantatum non fuisse usque ad undecimum sæculum, ut refert Abas Berno. Vide Meratium, et Benedictum XIV Tandem *Procesio Spiritus S. á Patre et filio*, additioque particulæ *Filioque* facta á Concilio 1. º Toletano, approbata fuit á tota Ecclesia Catholica in Concilio 2. º Lugdunensi, et Florentino, ut supra dictum est.

(f) ...., Pater á nullo est factus, nec creatus, nec genitus. Filius á Patre solo est, non factus, nec creatus, sed genitus. Spiritus Sanctus á Patre, et filio non factus, nec crea-

Universidad de Deusto Biblioteca
UNIVERSIDAD DE DEUSTO Departamento de Estudios Vizcaínos Patrocinado por la Excma. Diputación de Vizcaya Apdo. 1 - BILBAO

tus, nec genitus, sed procedens. Unus ergo Pater, non tres Patres, unus filius, non tres filij, unus Spiritus Sanctus, non tres Spiritus Sancti. Symbolum S. Athanasij.

(g) Omnipotens Pater, Omnipotens filius, Omnipotens Spiritus Sanctus... Deus Pater, Deus filius, Deus Spiritus Sanctus, et tamen non tres Dij, sed unus est Deus. Idem. Et in hac Trinitate nihil prius, aut posterius, nihil majus, aut minus, sed totæ tres personæ coæternæ sibi sunt, et coæquales. Symbolum citatum.

ZAZPIGARREN ERACUSALDIA.

Corpus Cristi, edo festaberri eguneraco.

Aldareco Sacramentu guciz miragarrian Jesus onac aguertu, ta aguertzen digun amorio bazter gabeari nolerebait eranzuteco, ipiñi zuan Eliz Ama Santac gaurco pozaldi, edo festa, eta deitzen diogu *Corpus Cristi-eguna*, ceren Jesusen gorputza onratzeco autua, eta siñalatua dagoan: eta euscaldun-erri ascotan deitzen dioe: *Besta, edo festa berri*; ceren, ostegun santuz Sacramentu miragarri orren festa eguiten bada ere, ipiñi nai izan duan gañera Eliz Ama Santac gaur eguiten dana: eta ez da festa gucien artean ederquiago, eta anditasun gueyagorequin eguin oi danic. Eliz Ama Santac nai duana guc ongui eguiteco, itzeguin nai dizuet gaur fest onen gañean. Aditzera emango dizquitzuet lenengo lecuan festa onen berriac. Urrena, cer dan guc Jesus onratzeco eguin bear deguna. Asi gaitecen bertatic.

§ I.

Jesus, Aita Cerucoaren Seme bacarra, Trinidadeco

bigarren Persona, jachi zan Cerutic lurrera, edo eguin zan guizon Virgiña chit Santaren sabelean, guizon galdua Ceruraco bidean ipintzeco, eta Aita beticoaren, eta guizonaren artean paqueac eguiteco. Onetaraco eman bear zuan gurutzean bere vicitza, eta alderatu citzayon obra andi au bucatzeco, eta bere Aitagana biurtzeco ordua. Ostegun santu arratzean, gurutzean vicitza eman bear zuan vezperan, gañez eguin cion guganaco onguinai, eta amorioac, eta ume zurtzen eran gu ez uzteagatic, asmatu zuan, bere Aitagana joanda ere, dembora berean gurequin, eta gure artean vicitzeco, eta bere ondasun guciac gure biotzetan isûrtzeco bidea. Bide au izan zan ipintzea Aldareco Sacramentu guciz miragarria, eta Sacramentu onetan gueratzea munduac dirauen bitartean. Berac, Legue berrico Aita Santu, eta Apaiz Nagusiac bezala esan zuan lenengo Meza, eta eman cien Apostoluai lenvicico Comunioa. Gañera Meza esateco, eta Sacramentua emateco escua utzi cien Apostolu berai, eta oen ondorengo Opispo Jaun, eta Apaiz guciai. Nic oraiñ eguin dedana, esan cien, eguizue zuec ere gueró, nizaz oroitzen ceratela: *Hoc facite..... in meam Commemorationem* (1 ad Corint. 11). Itz oec emandaco escuarequin Legue berrico Apaizac eguiten due, eta ematen Sacramentu miragarri ori.

Norc esan, eta norc ezagutu ere norañoco onguinai, eta amorioa aguertu, eta aguertzen digun gure Jesus onac Sacramentu orretan? Ez da erraz. Alaere cerbait iguerrico dezu, beguiraldi bat ematen badiezu iru gauz oei: ceñ gauza miragarriac eguiten dituan Sacramentu orretan: cer ematen digun: eta nolaco charqueri, eta bidegabeac pairatzen, eta ecusten dituan. ¿Cer ote da Sacramentu miragarri orretan Jesus onac eguiten duana? Lenengo lecuan, Apaizac consagracioco itzac esaten dituan unean bertan, jar-

Universidad de Deusto
Biblioteca

tzen da Sacramentuan Jesus Jaungoico, ta guizon eguiazcoa, naiz izan Apaiza ona, naiz ez, naiz Catolicoa, naiz heregea. Gauz arritzecoa! Guizon baten otsera jachitzen da Jesus Cerutic lurrera, eta jachitzen da Apaizac nai duan demboran, eta adiñatan. Bigarrena: ecin conta al Elizetan egun oro jartzea, eta egotea Jesus, Ceruco bere jarlecua utzi bague. Irugarrena, Consagracioco itzac esaten diranean, len ogui zana biurtzea Jesu-Cristoren gorputz, eta len ardo zana bere odol. Laugarrena, consagracioco itzac esan ezqueroz, ez gueratzea Sacramentuan oguiric, eta ardoric, baña bai ogui-ardoen anz, eta iduriac. Bostgarrena, oguiaren eta ardoaren iduriac aimbeste indar izatea, nola duen ogui-ardoac. Seigarrena, ostia batec duan beceñ toqui chiquian jartzea, ta egotea Jesu-Cristo Jainco, ta guizon eguiazcoa. Zazpigarrena, ostia erdiratzen, eta puscatzen danean, ez puscatzea Jesu-Cristoren gorputza, eta puscatu ordean osoric arquitzea puscaric chiquienean ere. Zortzigarrena, Jesus ona viciric, eta Ceruan dituan doai, eta edertasun guciaquin jartzen bada ere, illaren eran egotea Sacramentuan, ezcutatzen dituala bere doayac oguiaren, eta ardoaren iduriaquin odei batequin bezala. Ecusten dezu, Cristaua, ceñ gauz andi, eta miragarriac eguiten dituan Jesus onac Sacramentu orretan? Orregatic ederqui dio Santo Tomasec, Sacramentu au dala mirari gucien artean andiena, eta esan diteque mirari gucien miragarritasuna berequin duala. Eta au gucia guri ongui nayez eguiten duan Jesusen onguinai, eta amorioa norañocoa izango da?

Zoaz orain, Cristaua, aurrerasêago, eta beguira cer ematen digun Jesusec Sacramentu orretan. Cer ematen digula, uste dezu? Jaungoico Gucialdun batec eman dezaquean gucia; ematen digu alabaña Jesus

onac bere gorputza, bere odola, bere anima, bere Jaincotasuna, itz batean bera dan gucia, eta ecin gueyago eman dezaque, S. Agustinec esan zuan eran: *Plus dare non potuit.* Cer onguinai, eta amorioa ez da Jesus onari au gucia eraguiten diona?

Eta cer esango dezu, cer charqueri, ta bidegabeac Sacramentu orretan ecusi, ta ecusten dituan beguiratzen badezu? Arrituric gueratuco cera, Jesus onari gurequin guertatu zayona, ecustean. Ez det itzic esan nai Juduen, gentil, eta heregeen gañean ¿cer alabaña oetatic ichedon, edo uste izan cezaquean Jesus onac, bidegabeac baicic? Baña bere adisquide, eta senidetzat autu cituanetatic ecusten duan adiña charqueri ecustea? Au da gauza bat, ecusi, ta ecusten ezpaliz ecin sinistu litequeana. Gau, ta egun, gurequin egon nayez Sacramentu orretan arquitzen da Jesus, baña guchi dira beragana aguertzen diranac, eta esan dezaque, tellatuco zuloan bacarric dagoan choria bezala dagoala: *Factus sum sicut paser solitarius in tecto* (psalm. 101). Sacramentu orretan dago gure animen janari, eta edari biurturic, guri emateco bere ondasun guciac, eta bera dan gucia; baña asco dira beragandic iguesi dabiltzanac: asco becatuz loituac dijoazquionac. Eta becatu larri, edo mortal gabe arquitzen diranac ere, asco vici dira epeldasun andian, eta Jesus onaren Ceruco janaria artzeco gose gabe. Epeldasun oni, goragalea ematen duan gauzari bezala, beguiratzen dio, Obispo Jaun bati S. Juanequin gaztigatu cion eran. Alaere, nola bere atseguiñ, eta contentuac dituan anima onaquin, oei beguiraturic ez gaitu utzi, eta or dago Sacramentu orretan, eta egongo ere da munduaren bucaerараño. ¿Norc oraiñ ez du ezagutuco, Aldareco Sacramentuan Jaunac aguertzen digun onguinai, eta amorioa dala bazterric, neurri, eta mu-

garic ez duana? Orregatic esan zuan S. Juanec, ecin gueyagoraño amatu guinduala: *In finem dilexit eos:* eta S. Cyrilo Alexandriacoac deitzen dio: onguinai, ta amorioaren miraria: *Miraculum amoris.*

Jesusen onguinai, eta amorio baztergabe oni alic onguiena eranzuteco, eta onratzeco Sacramentu miragarri ori, ostegun Santu egunean anciñatic eguiten dio Eliz Ama Santac bere oroipena, eta festa. Baña alde batetic Jesusen neque, oñace, eta gurutzeco eriotza gogoan darabill orduan eta bestetic aguertu ciran herege batzuec, Sacramentu miragarri ori ucatzen zuenac, oen artean Berengario, Angers deritzan erri andi bateco Arcedianoa, eta cirudian gauz egoquia egun bat berecitzea, ta siñalatzea Sacramentu miragarri orren onran. Ala Jaunac aditzera eman cion, Juliana ceritzan, Liejaco monja virtutetsu bati. Aguertu citzayon illargui bat alde aldean betea, baña ez osotoro: illargui onec aditzera ematen zuan Eliza, eta acatsac egun bereci baten gabea, edo falta, Sacramentuari onra andiac emateco. Etzuan Julianac aditzen, cer esan nai zuan icuscarri onec, eta sarritan aguertzen bacitzayon ere, dembora lucean etzion iñori ere esan guertatzen citzayona. Aditzera eman cion Jaunac, cer esan nai zuan illarguiaren acatsac. Aguertu cion Julianac, cer igarotzen citzayon, Canonigo jaquintsu bati, eta onec itzeguin cien Liejaco Obispo Jaunari, eta beste guizon andi ascori, eta asi zan alde aetan *Corpus-Cristi, edo festa berria* esaten diogun au, oraiñ host eun, eta iruroguei, ta sei urte, eta andic urte batzuetara Aita Santu Urbano laugarrenac aguindu zuan, eguin cedilla festa au Eliza gucian; baña onetara nolerebait beartu zuan Aita Santu au, Bolsenan dembora artan guertatu zanac. Meza esaten ari zan Apaiz bat, eta ecin sinistu zuan, Sacramentu orretan jartzen dala, eta dagoala Jesus maitagarria. Orduraco esan cituan consagracioco itzac, eta ostia ecusi zan odola ceriola, eta manchatu ciran *Corporalac.* Joan zan Aita Santua Bolsenara; ecusi cituan *Corporalac,* eta aguindu zuan, eguin cedilla urte oro *Corpus Cristi* deritzan festa (a).

Eztaquigu, Aita Santu onec beronec, edo ondorengoren batec ipiñi zuan egun onetaco *procesio* ederra; baña badaquigu, anciñatic eguiten dala Eliza gucietan eta onra andian erabiltzen dala cale, eta placetan Sacramentua, heregeen ausardi centzugabea lotsaturic guera dedin (b). Carlos bostgarrenaren demboran guertatu zan Vienan orain esatera noana. Carlos procesioan cijoan argui eracequiarequin: Sacramentua ceraman Magunciaco Cardenalac, eta Palioa Principe, edo Imperioco lenenac chandaca. Andi oen artean baciran Luteroren setari jarraitzen cioenac, eta etzuen Palioa eraman nai izan beren chandan. Naigabe andia artu zuan Carlosec, eta barreatu zan guertatu zana. Orregatic, dirudianez, Trentoco Concilioac escomicatu cituan, Sacramentu orretan onratu, edo procesioan erabilli bear ez dala Jesus, daraustenac: *Anathema sit* (c). Gaur ezecic beste egun batzuetan ere eguiten dira Sacramentuarequin procesioac eta oetatic bat da *Minerva* esaten zayona. Bada Erroman toqui bat *Minerva* icendatzen dana (d). An arquitzen da Santo Domingoren ordenacoen Eliza bat, *Santa Maria Minerva* gañecoa deritzana, eta Eliz onetan ipiñi zan *Cofradia bat* Sacramentua onratzeco, eta ill oro lenengo igandeetan eguiten zan Sacramentuarequin Procesioa. Emendic etorri zan, ill oro Elizetan Sacramentuarequin eguiten dan procesioari, *Minervaren* icena ematea (e). Erri oetan *Minerva* eguiten da irugarren igandeetan, ceren lenengoetan eguiten dan Arrosa-

Universidad de Deusto
Biblioteca

rioco procesioa. Orra nere Cristaua, *Corpus Cristi* eguneco *Pozaldi*, edo festaren berriac. Dacuscun oraiñ, egun onetan, eta beste onen ancecoetan Jesus onratzeco guc eguin bear deguna.

§ II.

Egun onetan, gure Salvatzallea onratzeco, eguin bear degun lenengo gauza da, gure biotzac ongui garbitzea, eta prestatzea Sacramentu miragarri ori artzeco. Ala adirazten digu Aita Santu Urbano laugarrenac. Au bera aditu bear da Minerva egunetaraco ere. Erri ascotan itzaliaz omen dijoa jayera eder au: eta ez da cer miretsi aituaz badijoaz Jesusen adisquide, eta maitatzalleac, eta Cristauric gueyenac vici badira becatuaren bideetan oatuac bezala. Zu, nere Cristaua, etzaitecela eguin cenzugabe oetatic bat, eta onra ezazu biotz osoz zure Jesus ona, prestaera ederrarequin sarritan artzen dezula. Bigarrena, Sacramentuarequin *Procesioa* eguiten danean, zabiltza beguiramentu, eta modesti andiarequin. Irugarrena: Eliza garbitu, eta apaindu bear da aleguiñean: bideac estaltzen dira usaibelarrez, eta leyo, ta pareteac ere apaintzen dira al dan eran (f). Lecu batzuetan procesioan joan oi dira bi gazte ederqui janciac, arrosa ostoz zareac beteric, Jauna dabillen bidean botatzeco, baña ez dira loreac bota bear procesioan dijoacenen aurpeguira, edo bizcarrera, baicic bidera (g). Guizonac joan bear due candela eracequiaquin eta ezquillac jotzen dira procesioa bucatu dedin artean (h). Laugarrena: ecusten duenac Jauna naiz egun onetaco procesioan, naiz erietara dijoanean belaunicatzen dira, ala oñezcoac, nola zaldizcoac, baita cochean dabiltzanac ere. Ala aguintzen due Españaco legueac (i).

Era onetan onratzen baguendu guc gure Salvatzallea, cer ontarte, eta mesedeac ez lituque isûrico Cristau gucietara? Baña ay! guerraren aitzaquian, oztu, edo itzali da ascoren siniste, edo Fedea: iguesi dabiltza Jaunaren itzagandic, eta Sacramentuetatic: eta ez due gogoric Jesus maitagarria onratzeco, Eliz Ama Santac prestatzen dizquigun, bide ederretan ibilliaz. Badaquizue erri batzuetan noraño galdu, eta oquertu omen diran asco? Iguerri due, indargabe arquitzen dala Eliza, Sacramentua arrerazteco bear dan demboran, eta beldurgabe gueratzen dira Pazcoetan ere confesio, eta comunioric artu gabe, bearbada urteetan. Badaquit, chit guchi dirala emen doacabe oetatic; baña itsascorra da gaitz au, eta eguin dezagun aleguiña Jesus onratzeco Sacramentu miragarri orretan, dala procesioac eguiten diranean beraren onran, dala sarritan Sacramentuac artuaz, eta bera adoratzera etorriaz. Emendic etorrico diran ontarteac ezagutzeco, enzun, Cristaua, testamentuco cucharequin Jericoren inguruan eguin zan procesio batequin guertatua.

Israelitai aguindu ciezten Jaunac berentzat Canaango lur guicenac. Araco sarreran cegoan Jerico ceritzan erria, murallaz inguratua. Jericotarrac ciran gudari, edo guerrari sendoac, eta Israeltarrac aronz abiatzen ciraneco, prestatuac arquitzen ciran aen contra peleatzeco, eta erria gordetzeco. Josue zan Israeldarren buru, eta aguintaria, eta Jaunac aditzera eman cion, artuco zuela Jerico, baña eguin bear zuela Jaunberac esango ciena. Zazpi egunetan, beren armac janciric, zure guerrariac inguratuco due erria, procesioan dijoacenac bezala. Guerrarien ondoren joango dira zazpi Apaiz jubileoco trompetaquin soñua jotzen duela (trompet oequin aditzera ematen zan, noiz sartzen zan jubileoco urtea). Zazpi Apaiz oen ondoren beste Apaizac eramango due testamentuco arca, edo cucha, eta guero gañeraco gendea, baña lenen-

go sei egunetan ez du iñorc ere itzic esan bear, erriaren inguruan zabiltzaten bitartean; baña Apaizac soñua joco due zazpigarren egunean, besteetan bezala joango dira ala guerrariac, nola gañeracoac: trompetariac joco due soñua beste egunetan baño indar gueiagorequin: eta armadun, eta armagabeac oju eguingo due al duen indarrarequin. Orduan deseguingo, ta lurreraco dira murallac: sartuco dira errian zuen guerrariac, eta ilco ditue arquitzen dituen erritarrac, zarrac, eta gazteac, guizon, eta emacumeac, bai ta vicia duen beste gauzac ere. Au, ta gueyago esan cion Jaunac Josueri. Eguin zuen Israeldarrac Jaunac esana zazpi egunetan; azqueneco egunean erori ciran murallac, sartu ciran Israeldarrac, eta bucatu cituen Jericotarrac (j). Ecusten, edo aditzen dezu, Cristaua, Jericoren inguruan testamentuco cucharequin guertatua? Cer ote zan cucha au? Cucha au zan Legueco bi olac, eta mana gordetzeco, eguin zan cucha eder bat. Cucha au zan Aldareco Sacramentuaren anz, eta iduria ¿Eta cucha au procesioan Jericoren inguruan erabiltze utsarequin lurrera baciran ango murallac, eta deseguin etsayac, cer eguingo ez du Sacramentuac berac, onratzen badegu procesioetan, sarritan etortzen baguera bera adoratzera, eta prestaera onarequin artzen badegu? Eguin dezagun au arretaz, vici gaitean Jesus onac eracusten digun eran, eta onela emango digu betico vicitza doatsua. Amen.

(a) Vide Benedictum XIV tom. 1 institutionum Pastor. Institutione 5.ª et in opere de festis lib. 1 cap. 13.
(b) Vide eumdem.
(c) Tridentinum ses. 13 can. 6.
(d) Vide Benedictum XIV citata instit.
(e) Vide eundem ibidem.

(f) Vide Baruffaldum de hac Processione.
(g) Vide eumdem.
(h) Vide eumdem.
(i) Vide Benedictum XIV cit. Institut.
(j) Josue c. 6.

ZORTZIGARREN ERACUSALDIA.

ALDARECO SACRAMENTU GUCIZ SANTUAREN DESAGRAVIOEN FESTIVIDADEAREN GAÑEAN.

Caro mea veré est cibus, et sanguis meus veré est potus.
Joan 6.

Gure fedeco misterio gucien artean goyena, miragarriena, ta Jaincoaren guganaco amorioa guciena aguertzen duana da, nere Critauac, Aldareco Sacramentu guciz veneragarria. Sacramentu onetan arquitzen da gure Jesus ona gurequin egoteagatic, guri bere ondasunac emateco, ta atzenean gure janari, ta edari eguiñic. Au onela izanic, dan bezala, norc uste izan zezaquean Sacramentu orretan ecusi bearra zala ecin conta al esquergabequeria, charqueri, ta bidegabe? Etzan eguiaz erraz onelacoric gogoratzea ere, baña ala guertatu da. Elizaren asieratic asi ciran herege batzuec misterio andi au ucatzen, S. Ignacio Martiriac Esmirnacoai gaztigatzen dienaz, ta

gueroztic beti beregandic bialdu ditu infernuac Sacramentu oni guerra eguiteco batzuec, edo batzuec. Anciñaco demboran Berengário, ta gueroago Wiclef, Carolostadio, Zuinglio, Ecolompadio, ta Juan Calvino. Egungo egunean cembatec jarraitzen dioe Juan Calvinori Francian, cembatec Inglaterran? Izan due oen jarraiquiñac ausardia Sacramentua ganibetaz ebaquitzeco, iltzez urcabean josteco, Sacramentuari odola cerion bezala, ta alaere odol preciotsua casoric eguin gabe: izan due ausardia Sacramentua Elizetatic arturic zaldiai zaldaletzat janerazteco. Arrituric, ta ecin sinisturic bezala gauz oec aditzean arquitzen cerate bearbada zuec, baña adiezazue Tillemont deritzan Bravanteco erri batean guertatu zana orain eun da ogueita amalau, edo amabost urte bezala. Erri onetan sartu zan Mos de Chatillon Franciaco Erregueren generala Españaren contra, bere mendeco soldaduaquin. General Calvinista onec etzien barcatu doncellai, etzien barcatu Religioan gorderic arquitzen ciran Virgiñai, etzien barcatu Elizai. Cer gueyago? etzion barcatu Aldareco Sacramentu guciz veneragarriari ere, bada Elizetan arquitu cituan forma consagratuac jan-eraci ciezten bere zaldiai! Ecusten dezue nere Cristauac, cer bidegabe, ta charqueri izugarriac craman dituan Jesusec Sacramentu orretan? Oen ordez bada, guc berari zor zaizcan esquer onac, ta adoracioac emateco, eguiten da Españian lecu ascotan gaur zuec eguiten dezuen festividade *Desagravioen* izenarequin. Argatic asmoarequin nator zuei beguien aurrean ipintzeco onetaraco cembait bide egoqui. Lenago aguertuco degu Sacramentu oni dagocan doctriñaco puntua.

Aldareco, edo Comunioco Sacramentua da zazpietatic bata, ta au aditzen degu *Laugarrena Comunioa* esaten degunean. Comunioco *Sacramentu chit Santua*

certaco da, galdetzen du doctrinaco liburuchoac; ta erantzuten du: *Guc* bear bezala artu, ta gure animen janari *izan dedin*, ta gracia ugaritu, ta gueitu diezagun. Comunioco Sacramentuan cer artzen da? Jesu-Cristo Jainco, ta guizon eguiazcoa, Aldareco Sacramentuan eguiaz dagoana. Ongui comulgatzeco cembat gauza bear dira? iru gauza. 1.ª cer artzen, edo errecibitzen dan jaquitea. 2.ª barau naturala, edo ecer artugabe egotea. 3.ª becatu larri, edo mortalic batere gabe, ta Jaincoaren gracian egotea. Ona zuec gauz onen gañean guchien guchiena jaquin bear dezuena. Goacen orain aguertuaz gauz oec berac.

Comunioco Sacramentua guc bear bezala artu, ta gure animen janari izan dedin, ta gracia ugaritu, edo gueitu diezagun. Gorputzac janariric gabe ecin iraun dezaque, ta ecin eguingo ditu bear diran gauzac. Guisa onetan gure animac ezpadu noizean beiñ bederic bere janaria, motelduaz joango da Ceruco bidean, ta atzenean ilco da igaro bear duan bidea igaro gabe. Argatic Jesus onac utzi digu gure animen janaritzat bere gorputza, ta edaritzat bere odola. *Caro mea vere est cibus, et sanguis meus veré est potus.* Janari, ta edari au ongui prestaturic, ta biotz garbiarequin artzen ditugula, ugaritzen due animaco gracia, uzten due anima indar berriz betea Ceruco bidean aurrera joateco: guchitzen dira gaitzera griña gaiztoen vicitasuna, ta ascotan gorputzeraño ere zabaltzen dan atseguiñ, ta contentuac uzten ditu Jesusec bera ongui artzen duanaren animan. Jauna: Apaizac artzen due Jesusen odola, baña Apaiz ez diranac ez due artzen esandezaque orain gauzen berri ongui ez daquianen batec. Elizaren asieran guciac artu oi zuen Jesu-Cristo orain Apaizac bezala oguiaren, ta ardoaren antz, edo especien azpian, ta gaurco eguean ere ala artzen due dio Benedicto XIV. Orienteco

Elizan, edo artzen due forma consagratua Jesu-Cristoren odolean bustiric cucharean. Baña emen ez duc Apaiz ez diranac aspaldico demboretan Jesus artzen oguiaren accidenteen azpian baicic. Alaere nola ostian arquitzen dan Jesusen odola comulgatzen dan guciac artzen du au gorputzarequin batean.

Apaizac Consagracioco itzac esan artean ostia ez da ogui pisca bat besteric, baña consagracioco itzac esaten dituan bezala, lenago ogui zan ostia gueldítzen da Jesu-Cristoren gorputz eguiñic, izan dedilla Apaiza naiz ona, naiz gaiztoa baldin eguiaz Apaiza bada. Consagracioco itzen virtutez jartzen da ostian Jesu-Cristoren gorputza, baña ez gorputz illa, piztu zan alabaña beñere ez iltzeco, baicican vicia, ta nola gorputz viciari dagocan odola, jartzen da odola ere gorputzarequin Jesu-Cristoren gorputzari itsatsiric, ta unituric arquitzen da beraren anima, ta jartzen da au ere ostian gorputzarequin batean. Atzenean Jesusen gorputz animai unituric arquitzen da Jesusen Jaincotasuna, ta nola Semea, Aita, ta Espiritu Santuarequin Jainco bat dan, Trinidade guziz Santua arquitzen da ostia consagratuan. Au obeto adituco dezu gogora ecartzen badezu catea batequin guertatzen zatzuna. Eldu guiozu, ta tira catea baten aurreneco mallari. Zuc bati eltzen diozu, ta tiratzen, baña guciac ceregana ecarrico dituzu, ceren aurrenecoari itsatsiric arquitzen diran besteac. Eta au bera guertatzen da Aldareco Sacramentuan era miragarriago batean. Esaten ditu Apaizac consagracioco itzac ostiaren gaiñ: puntu artan bertan an dago Jesu-Cristoren gorputza. Itzen virtutez gorputza bacarric jarrico lizaque, baña nola Jesusen gorputzari dicheozcan gauzac diran odola, anima, ta Jaincotasuna, gorputzarequin batean an dira gauz oec guciac.

Calizan Apaizac itzac esan artean, ez dago ardoa,

ta ur pisca bat besteric, baña Consagracioco itzac esaten dituan bezala, lenago ardo zana eguiten da Jesu-Cristoren odol, ta odolarequin batean jartzen da gorputza, anima, Jaincotasuna, ta Trinidade iru personac. Itz batean gucia esango det: ostian arquitzen da Jesu-Cristo gucia Ceruan duan edertasun guciarequin, ta Calizan ere bai: Jesu-Cristo gucia hostia gucian, ta gucia hostiaren puscaric chiquienean: Jesu-Cristo gucia Ceruan, ta gucia Aldareco Sacramentuan: ostia erdiratzen da, ta ez da erdiratzen Jesu-Cristo. ¡Gauza miretsitzecoac eguiaz, baña errazac Jainco Gucialdunarentzat!

Jauna ongui dago ori gucia, baña esan beguit, Apaizac ostia goora jasoric eracusten duanean, cer ecusten degun. Batzuec esaten due, au dotrinan galdetzean, ecusten duela beren Jauna, edo ecusten duela Jesu-Cristo. Baña engañatzen dira, Jesu-Cristo alabaña gorderic, ta ezcutaturic arquitzen da, ta ala ez izatera nola animatuco guiñaque beraren aurrean jartzera? Beste batzuec eranzuten oi due ecusten duela oguia, ta au gaistoago da. Au da alabaña nolere bait uste izatea ostia Consagratuan orain-dic badala oguia, Luteroc esaten zuan bezala, ez da bada ecusten Sacramentua eracusten danean oguiric, ceren ya ez dagoan. Ecusten dana da oguiaren antza, oguiaren colorea, edo zuritasuna, biribiltasuna, ta luce zabala, ta oguiaren soñeco, ta accidente oen azpian sinisten, ta adoratzen degu Jesu-Cristo Jainco, ta guizon eguiazcoa. Asco degu onembesterequin, ta guchi esan badegu ere itzegui-teco gai onentzat, gueyegui bear bada ascorentzat. Goacen oraiñ aguertzera Jesusi zor zaizcan esquer onac, ta veneracioa emateco cembait bide eder, ta egoqui. Eta onetaraco escatu deguiogun Virgiña guciz Santari bere laguntza Aingueruarequin esaten diogula. *Ave Maria.*

Universidad de Deusto
Biblioteca

Caro mea vere est cibus, et Sanguis meus vere est potus. Joan. 6.

Aldareco Sacramentuan Jesus onac gure amorioz ecusi dituan charqueri, ta bidegabeen ordez zor diozcagun esquer onac, ta adoracioac emateco bide asco dira. Baña gucien artean zuentzat egoquienac izango dira oec. 1.ª maiz siniste, edo fede vici batequin visitatzea Jesus ona Sacramentatua. 2.ª maiz bera artzea, baña artzea ongui prestaturic.

§ I.

Jesus onac, gugatic gurutzean vicitza emanic igarotzen zuala gurutzeco eriotza gogorra, nai izan zuan gure artean guelditu; ta milla ta zortzi eun, ta gueyago urte onetan Aldareco Sacramentuan arquitzen da beñere gu utzi gabe. Atseguin poz andia Jesus onarentzat bere umeaquin egotea, berac adieraciric daucan bezala. *Deliciæ meæ esse cum filiis hominum.* Emendic gauza chit ederra, ta Jesusen gogoa da maiz gu bera visitatzera joatea. Visita oec bear bezala eguiteco gogora ecarri bear dezu benic beiñ nora zatozen, ta norequin itzeguitera. Baldin sinistea galdu ezpadezu ezagutuco dezu zoazela Erregue gucien Erreguea, Aingueruz, Serafin, ta Cherubinez inguratua dagoana visitatzera bere Elizan, edo echean. Ecarri bear dezu guero gogora Jesusec Sacramentu orretan daramana; bada igarotzen ditu demboraric gueyenac azturic, ta bacarric; ta atzenean gauz oen damu, ta atsacabe andia artzen dezula, milla esquer eman, milla agur eguin bear diozcatzu. Au da, nere Cristauac vide guciz ederra Jesus desagrabiaturic uzteco. Baña bide au cembatec artzen due? Cembat etortzen zaizca Jesusi visitac eguitera?

Betor nondic nai guizon aberats bat, aren echean izango dira bereala ongui etorri eguitera errian cerbait dirala deritzen guciac. Betorquio nori nai urrutitic adisquide bat; etorri berria aditu orduco anda adisquidea ecustera, ta nequez edo ecin bestez alde eguingo du aren ondotic. Edocein onguille aberats guciac edo asco joan oi zaizca esquerrac ematera, ta maiz ecustera, batezere cerbaiten ustea bada. Baña etorriric gure Jesus ona Cerutic lurrera, izanic Jesus ona gauza gucien jabea, ta ecin gueyagoraño aberatsa, izanic atzenean ecin gueyagoraño onguillea nor etortzen zayo ecustera, ta berarequin itzeguiten ordu laurden bat bederic igarotzera?

Argatic espadasun andiaquin esaten digu Sacramentu artatic gaur: Zuec badezue dembora egunac, ta asteac igarotzeco erausian, zuec badezue dembora edanean, ta jocuan ceren animac galtzeco: Zuec badezue dembora ceren gogocoaquin egoteco. Ta izanic ni zuen eguillea, zuec-gatic guizon eguin ta gurutzean vicitza eman nuana, ta zuequin egotera, ta ondasunez beteric uztera etorriric nagoana *azturic ni; oblivioni datus sum; bacarric ni, ego autem relictus sum solus.* Nonda, nonda, nere Cristauac, gure fedea? orren bacarric usten degunean gure Jesus ona?

Etortzen cerate, eguiaz, Jai egunetan Meza enzutera. Baña nola egoten dira gueyenac? Egoten dirade Erregue gucien erregueren aurrean daudela sinisten duela? ez, ez gueyenac beintzat, baicic Jesusi iseca eguitera etorri balira bezala; batzuec beguiac armatu batera, ta bestera beguiratuaz; besteac itzeguiten; batzuec auzabalca, bezteac ordu erdi bat ezin igaroric. Au da, nere Cristauac, Jesusi zor diozcagun esquer onac, ta adoracioac ematea? Au da desagraviatzea? ez baicic heregeac baño bidegabe andiagoac eguitea!

Universidad de Deusto
Biblioteca

§ II.

Ez al guera, nere Cristauac, emendic aurrera oraindaño bezala egongo Jesus ona bacarric utziric! ta etortzen gueranean siniste, ta arreta obeagoarequin egongo alguera! onela Jesus onari zor diozcagun esquer onac, ta veneracioac emateco. Baña badegu beste bide bat onetaraco aurrenecoa baño-ere egoquiagoa, au da maiz, ta bear dan eran artzea Jesus ona Comunioco Sacramentu Santuan. Bacecusen Jesusec onac neque, ta tentu lanac garaituaz igaro bearrac cirala beraren umeac Ceruco atseguin contentuen artean vicitzeco. Neque oec batzuec datoz etsaiaren aldetic. Tentatzen du etsaiac anima gaisôa andic, ta emendic, batzuetan tristuraz, besteetan aserrearen suarequin: batzuetan cuticiaz, besteetan araguiaren gura gaistoaquin. Ta etsai amorratuaren aldetic datocen neque oc guchi balira bezala, tentatzen ere due anima gaisôa bere lagun urcoac ere: tentatzen du batzuetan errierta, ta ateleca gaistoaquin, besteetan itz bidegabecoaquin, edo asmacio gaistoaquin.

Beste nequeric ez danean berequin izango du animac norc necatu, beti izango du alabaña bere burua, ta aragui gaitzeraco griñaz betea, ta onez gañera nequea beti du Jaincoaren Legueco gauza guciac zucen eguitean. Neque oen gucien azpian gu illic ez guelditzeco cer eguin zuan Jesus onac? cer? Jainco ezinguciagoraño onguilleac baicic ecin eguin cezaquean gauz arrigarri bat, edo Aldareco Sacramentuan gure janari, ta edari eguiñic guelditzea, onela janari Ceruco onen indarrarequin aisa eramateco Ceruco bidean degun neque gucia. Nere gorputza janaria da eguiaz, ta nere odola edari, esaten digu berac. *Caro mea veré est cibus, et sanguis meus vere est potus*; gorputz au jaten, ta odol au edaten duanac izango du betico vicitz doatsua. *Habet vitam œternam.* Ta atozte, deitzen digu Sacramentu artatic, atozte nere umeac: *venite ad me*: atozte nere Leguearen cargarequin nequetan zautenac, nic emango dizuet, zuec carga ori aisa eramateco bear dezuen indar gucia. *Venite ad me omnes, qui laboratis, et onerati estis, et ego reficiam vos.* Beguira orain, Cristaua, nolaco bide ederra dan Jesus ona Comunioco Sacramentuan maiz artzea, berari atseguin eguiteco ta zor diozcagun esquer onac emateco.

Baña eguiten dezu au anima becataria? etzera zu aspaldico demboretan pazcoatic pazcoara egon oi Comunioco mayera gabe, ta orduan ere zere Artzayaren edo Justiciaren beldurrez? Etzabiltza iguesi bezala, ta beti atzera Jesus ona artzera etorzeco? Ah triste cere galgarria! Baciñaqui cembat ondasun Ceruco galtzen dezun! baciñaqui cer naigabea ematen diozun cere Jesus onari! ta cer sentencia izugarria Aldare artatic ematen duan! Adiezazu cer esaten dizun, zuri, ta guciai. Eguiaz, eguiaz esaten dizuet: *Amen, amen dico vobis*: espadezue nere gorputza jaten, ta odola edaten, ez da zuetan izango graciaren vicitza ederra, ta guero Ceruco vicitza doatsua. *Nisi manducaveritis carnem filii hominis, et biberitis eius sanguinem.* Baña ez da aditu bear maiz Jauna artzea diodanean edocein guisatan artzea, baicic ongui prestaturic, ta biotz garbiarequin onela ongui prestaturic dauden animetan jarriric bere ondasun guciac eman nairic arquitzen da Jesus ona; ematen duala duan gucia, bada ematen du bere gorputza, odola, anima, ta Jaincotasuna. Beldurgabe diot, esaten du S. Agustiñec: izanic gure Jaincoa, dan bezala gucialduna, eman digun baño gueyago ezin eman ceguiquegun. *Dicere audeo, quod Deus cum sit omnipotens plus dare non potuit.* Izanic gure Jaincoa Ja-

Universidad de Deusto
Biblioteca

quiunde utsa, etzuan jaquin cer gueyago eman. *Cum sit sapientissimus plus dare nescivit.* Izanic atzeneau gauza gucien Jabea, ta ecin gueyagoraño aberatsa, etzuan izan *cer gueyago eman. Cum sit ditissimus plus dare non habuit.* Au gucia ematea da Jesusen atseguin contentu andia bere umeai, oec ongui prestaturic arquitzen diranean, baña becatuaren loyez beteric dijoan biotzean? Onela dijoanac Jesus onari berriz bere aleguiñean gurutzeco eriotza ematen dio esaten du S. Pabloc. *Rursum sibimetipsis crucifigentes filium Dei:* bere gain artzen du Jainco viciaren Semearen odola: *reus erit corporis, et sanguinis Domini:* jaten, ta edaten bere condenacioco sentencia *juditiun sibi manducat et bibit.*

Ta oec dira gure arteco ascoc, Sacramentu orretan Jesusec ecusi dituan esquergabequeri, charqueri, ta bidegabeac deseguiteco ematen diozqueen esquer onac, adoracio, ta atseguin contentuac, heregeac baño ere bidegabe andiagoac eguitea, gaizqui Jauna artuaz. Ala artzen dezu zuc guizon edo emacume birauen oitura madaricatu ori uzten ez dezuna. Ala zuc cere lagun urcoarequin itz eguin naigabe, cer esana ematen dezula vici cerana. Ala zuc guizon edanean, jocoan, alferquerian zabiltzana. Ala zu cerequico lizunquerien oitura edo becatuaren perillac utzi nai ez dituzuna. Confesatzen cera, ta bear bada maiz, baña becatua uzteco asmoen iduripen uts batequin eta onela zoaz guerotic guerora gueyago berrituaz Jesusen neque oñaceac ceregan danez. *Rursum sibimetipsis crucifigentes filium Dei.* ¡Ay! nere Cristauac ta cein premiazcoa dan gaurco festividadea! bada onembeste ecusten du, onembeste darama ez heregeetatic bacarric baita gugandic ere.

Ta alaere zu Jesus ona isill isillic Sacramentu orre-

tan gucia ecusten dezula! Zu cere Justiciaren ezpata zorrotza maguitic atera nai gabe! Zu nondic muguituco gaituzun vicitza eder bat eguitera, ta biotz eder garbiaquin zugana etortzera! Bedeicatua izan bedi Jauna zure Misericordia, ta paciencia gurequin izandezuna. Orain ezagutzen ditugu ongui zure ontasunari eguindaco charqueri eta bidegabeac. Lotsaz beteric arquitzen guera gure esquer gabequeri oni beguiraturic. Urricaldu zaitez arren guzaz: uquitu itzatzu biotz oec, damuz deseguin ditecen; iguzu arren zure lagunz ugaria, emendic aurrera zu viotz garbiarequin artuaz virtutez virtute joateco, zure Sacramentu orrec guretzat dacartzian ondasunac ez galtzeco, eta onela iristeco betico vicitza doatsua. Amen.

BEDERATZIGARREN ERACUSALDIA.

Adirazten da, nola Virgiña chit Santa, Jaungoicoaren, eta gure Ama maitagarria Cerura jasoa, edo alchatua izan zan gorputz, eta anima.

Urrena, cer guc eguin bear degun bera onratzeco.

Guero ere eldu, edo etorri zacu araco egun andi ura, ceñean mundu onetatic jasoa izan zan Cerura Virgiña chit Santa Jaungoicoaren, eta gure Ama maitagarria. Festa onec garaitzen ditu Santuen beste festa guciac, dio S. Agustiñec. S. Geronimoc esaten digu, ez dala munduan ecusi egun andiagoric. Orregatic Eliz Ama Santac nai du, Cristau guciac postutzea egun andi onetan! Postu gaitecen gucioc egun onetan, dio Mezaren sarreran: *Gaudeamus omnes.* Au guc ongui eguiteco, beguiraldi bat eman bear diogu gaurco Misterioari, eta Misterio oni dagozcan gauzai. Urrena uquituco det, cer eguin bear degun Virgiña chit Santa onratzeco? Asi gaitecen bertatic.

§. I.

Gure Salvatzallea, piztuta berroguei garren egunean, igo zan Cerura, eta beraren Ama maitagarriac jarraitu nai cion biotz osoz; baña nola zan Cristau gucien laguntza, eta atseguin-contentua, Semeac nai izan zuan emen gueratzea Ama, Eliz Ama Santari laguntzeco bere nequeetan.

Ascoren iritzian, oguei ta iru urte igaro cituan eta bitarte onetan izan zan Apostoluen, eta Cristau gucien Eracusle a, guiari, eta Bitarteco andia. Urte batzuetan vicitu zan Jerusalenen; baña Juduac ecusiric, nola Apostoluac zabaltzen zuen Jesusen leguea, alcha zuen Elizaren contra ecaitz izugarri bat: Apostoluac zabaldu ciran munduaren lau aldeetara, eta Virgiña chit Santa joan zan S. Joanequin Efeso ceritzan erri andira. Guchitu zan ecaitz ura, eta S. Juan Damascenoc dionez, biurtu zan Jerusalena, eta an vicitu zan ill arte gucian. Ez da guizonaren mingaña gai, adierazteco, norañoco virtute, eta Santutasunera igo zan Ama miragarri au, mundu onetatic irten zaneco. Sortua izan zan Adanen becatuaren mancharic gabe, eta aimbeste doayequin edertu, eta apaindu zuan ordutanic Espiritu Santuac, non beraren edertasunac garaitzen zuan Aingueru, eta Santu gucien edertasuna. Bere sortzetic ezagüera osoarequin arquitzen zan, eta asi zan Jauna amatzen, eta amorio au unetic unera andiagoa zan, animaco gracia, ta doayac andiagoac ciran eran. Norc esan, eta norc ezagutu ere, noraño ugarituco ciran Virgiña chit Santaren virtute, eta Santutasuna egun bacoitzean? Eta noraño igoco zan emen lurrean vicitu zan urteetan? Vicitu zan alabaña, gueyenac eracusten duenez, iruroguei, ta amabi urtetan (a).

Alderatu citzayon Virgiña chit Santari deserri onetatic Cerura igotzeco dembora, eta Aingueru batec aditzera eman omen cion noiz au guertuco zan. (b). Zabaldu zan berri au, eta naigabe andia artu zuen Cristauac, ceren Ama maitagarri au zan gucien atseguin, eta poza, eta laster au gabe ecusico ciran; baña arintzen, eta gozatzen citzaten neque, ta naigabe au, oroituric, bere Semeagana cijoala, eta izango zala beraren aldean gure bitarteco, eta laguntzalle andia. Lecu gucietatic elcarren leyan bezala, joan bide ciran Cristauac beraren azqueneco bendicioa artzera. San Juanec, Jesusec gurutzetic a-

ditzera eman ciona eguiteco, ecin utzi cezaquean, Virgiña chit Santa azqueneco ordu oetan. Beste Apostoluac urrutietan cebiltzan Jesusen berriac ematen, eta ascoren iritzian mirariz arquitu ciran, Santo Tomas ez besteac, Jerusalenen. Aditzera eman ciezten Elizaren gobernuari cegozcan asco gauza: alaitu cituan beren eguitecoan ari citecen gogo, eta biotz andiarequin eta aguindu cien Cristau guciai bere laguntza. Eracequi ciran arguiac, eta negar eguiten zuen guciac. Irten ciran Ainguеru guciac Cerutic, Virgiña chit Santari araco bidean laguntzera. Ecusi cituan, nola cetocen; orduan, lenaz gañera, eracequi citzayon Jaunaren amorian: eta aldeguin zuan erbeste onetatic (c). Bereala bete zuan guela, eguzquiac baño gueyago distiatzen zuan, argui batec. Eche artan ceuden guciac, eta era berean Jerusalenen, eta inguruan vici ciran Cristauac onratu zuen Ama maitagarri onen gorputza, Jaungoico-guizonaren dembora bateco vicilecua bezala. Ara joan ciran, eri guciac sendatu ciran, eta S. Juan Damascenoc dio, Juduac berac ere etzirala gueratu Virgiña chit Santaren ontarte, eta mesedeac dastatu, edo progatu gabe. (d) Elizaco gurasoetatic batzuec ecin sinistu zuen, il zala Virgiña guciz Santa, eta oetatic bat izan zan S. Epifanio: cerren eriotza dan becatuaren saria, S. Pabloc dion bezala, eta Virgiña chit Santac etzuan izan becaturic, ez jatorrizcoric, ez berac eguiñic, ez andiric, ez chiquiric. Gañera, izanic Virgiña au Jaungoico beraren Ama, nola sinistu diteque eriotzaren mendean utzi naico zuala bere Semeac? Alaere Elizaren iritzia da, eguiaz il zala; baña Elizaren gurasoac dioe, Mariaren eriotza etzala izan, gurearen eran, becatuaren ondorena, eta pena; etzuan alabaña izan becaturic: baicic il zala, ceren Jaunaren naya zan Adanen

ondorengo guciac eriotzaren nequea igarotzea. Il zan Jesus becaturic ecin izan bacezaquean ere: eta era berean il zan beraren Ama ere; baño etzan il eritasun, edo gaitzen bategatic, baicic Jaungoicoaganaco ongui nai, eta amorioaren indarrez. Orregatic esan zuan S. Ildefonsoc: edo ezuala il bear Virgiña chit Santac, edo il bear zuala Jaunaren amorioz.

Ez dago erabaquia, non obira zuen; baña S. Juan Damascenoc dio, Jerusalenen il zala, len esan dedan bezala, eta Getsemanin obiratu zuela (e). Eraman zuen obira, eta an ipiñi zuen Aingueruac, eta Apostoluac cantantcen zuela beraren onran. Iru egunez aditu ciran an Aingueruen soñu, eta cantac, eta Apostoluac gau, ta egun chandaca gorde zuen obia. Irugarren egunean gueratu ciran osotoro Aingueruen canta, eta soñuac (f) eta dembora artan aguertu zan an Santo Tomas. Oni eracusteco Virgiña chit Santaren gorputza, quentzen due obia estaltzen zuan arria, eta ecusiric, an ceudela, ipiñi citzaizcan zapiac, eta oec usai gozoa alde gucietara zabaltzen zuela, baña etzegoala gorputzic; arrituen eran gueratu ciran, eta sinistu zuen, etzuala nai izan Jesusec bere Ama maitagarria gueratzea obian usteltzen, eta arren bazcatzat, baicic piztu, eta eraman zuala beregana. Au da Elizaco gurasoen iritzia, eta Eliza guciarena ere bai (g). S. Agustiñec dio: izutzen naiz, Virgiña chit Santa arren mendean gueratu zala gogoratze utsarequin: *Perhorresco.*

Baña norc adiraci, Virgiña chit Santa, piztuta Cerura jasoa, edo alchatua izan zanean, nola onratua izan zan? Irten ciran Ceruco Aingueruac, S. Bernardoc dionez, Virgiña chit Santari Ceruraco bidean laguntzera: irten zan Jesus bera ere, eta eman cion bere besoa Ama maitagarriari, eta Semearen besoan

Universidad de Deusto
Biblioteca

berea ipiñiric asi zan Cerura igotzen. Añ ederqui apaindua, eta alaco eran argui eguiten zuala cijoan, non arrituric elcarri galdetzen cioen Aingueruac: Nor ote da munduco basotic, Jesusen besoan berea ipiñiric, onembeste onra, eta atseguineguin igotzen dan andre au? *Quæ est ista, quæ ascendit de deserto, delicijs affluens, innixa super dilectum suum*? (Cantic. 8). Ainguerueta tic milloyac, eta milloyac cijoacen Mariaren igoera onetan, batzuec aurretic, besteac beraren inguruan: elcarren leyan jotzen cituen soñu gozoac, eta cantatzen cituen Virgiña Mariaren alabanzac. Atrebituco naiz esatera, dio S. Pedro Damianoc: *Audacter dicam*: igoera au Jesusena baño ere ascoz onra, ta gloria gueyagocoa izan zala; ceren Jesusen besoan berea ipiñiric igo zan Maria, baña Jesus igo zanean Aingueruac bacarric bidera irten citzaizcan. Au aditzen da, uzten degula alde bat Jesusec Jaungoico-guizonac bezala berequin duan, onra, eta gloria: *Salva filij majestate*.

Eta Ceruraco igoeran guisa onetan onratua izan bazan, cer izango zan zori oneco erri artara igo ezquero? S. Pabloc an egon ondoan, etziaquian, cer esan, eta arrituric cegoanac bezala, esan zuan: ez beguiac ecusi, ez belarriac aditu, ez guizonac iritsi du, nolaco ondasunac prestaturic dauzcan Jaunac bere adisquide, ta servitzarientzat. Eta ondasun añ miragarriac prestatu bacituan, bera amatzen duen gucientzat, cer etzuan eguingo bere Ama maitagarrientzat? Ama onec bacarric Aingueru, eta doatsu guciac baño gueyago amatu zuan Jaunac ¿nolaco onrac, eta ondasunac etzituan bada prestatuco Ama onentzat? Il zan unean bertan, atseguin-contentuen sari añ ugaria eman cion beraren animari, non doatsu guciena bat eguinda ere, ecer ez dan Ama miragarri onen animac artu zuanaren aldean: eta animac

artu zuan sari oni cegozcan bezalacoac izan ciran piztuta Cerura igo zanean izan cituan onrac. Jaso zuan, doatsu, eta Aingueru gucien toquiac baño ascoz gorago, S. Agustiñec dion bezala (h): eta bere Semearen escuyean ipiñi cion bere Tronu, edo jarlecua. Trinidade guciz Santac eguin ciozcan agur, eta ongui etorriac norc adiraci bear bezala? Aita beticoac beguiratzen dio bere alabaric maiteenari bezala: Semeac bere Ama guciz maitagarriari bezala: eta Espiritu Santuac bere jauregui, eta vicilecu beste gucien artean ederrenari bezala. Atoz, esaten dio Trinidade chit Santac; atoz zure goyende, edo dignidadeari, eta zure santutasunari dagocan coroa artzera: *Veni, coronaberis* (cantic. 4). Izan zaite Aingueruen, eta guizonen Erreguiña: zure santutasunaren modu ederraquin guia-itzatzu gauza guciac, eta betiraunde gucian erreguiña-ezazu Aingueruetan, eta guizonen biotzetan: *Specie tua, et pulchritudine tua intende prosperé procede, et regna* (psalm. 44). Eman cion, dio S. Anselmoc, escu gucia Ceruan, eta lurrean: ta ez da Virgiña onec ez dezaquean gauzaric: alaitu ditzaque alabaña gogaituric vici diran becatariac berac ere, eta piztu dezaque oen biotzetan Ceruaren uste, edo esperanza: *Nihil imposibile, cui posibile est relevare in salutis spem desperantes* (i). Eta S. Pedro Damianoc dionez, Mariaren escuetan ipiñi cituan Jaunac bere Urricaltasun, edo Misericordien gordairuac (j). Orregatic esaten dio S. Agustiñec: Zu cera pecatarien uste, edo esperanza bacarra: zure bidez uste degu becatuen barcacioa, eta zugan ipintzen degu gueroco sariaren esperanza (l). Orra, nere Cristaua, gaurco Misterio andia, eta oni dagozcan gauzac. Au gucia aditu, eta ez guera esnatuco Ama maitagarri au onratzeco? Baña cer ote da guc onetaraco eguin bear deguna? Au da orain ecusi bear deguna.

§ II.

Aditu dezu, Cristaua, Virgiña chit Santa, Jaungoicoaren, eta gure Ama maitagarria, il bazan ere Jaunaren naya eguiteco, etzala obian gueratu usteltzen, baicic laster piztu zala, eta bere seme, ta Ceruco Aingueru guciaquin igo zala Trinidade guciz Santaren aldera. Aditu dezu nola onratua izan zan. Eguin zuan Aingueruen, eta guizonen Erreguiña: eman cion Ceruan, eta lurrean escu gucia, eta beraren escuetan ipiñi cituan Jaunac bere, Urriquimentu, edo Misericordien ondasunac. Sinisten degu au ¿ eta Ama maitagarri au ez degu onratuco ?

Onetaraco lenengo lecuan jayera andiarequin deitu bear diogu gure premietan. Bigarrena era berean esan bear da Errosario Santua, bada berac eracutsi cion Santo Domingori, heregeac, eta becatariac Ceruraco bidean ipintzeco. Irugarrena, beraren onran sarritan artu bear dira Sacramentuac, eta enzun bear da Jaunaren itza. Jaungoicoarena danac, enzuten du Jaungoicoaren itza, dio Jesu Cristoc: argatic ez dezue zuec enzuten, ceren Jaungoicoarenac etzeraten: *Propterea vos non auditis, quia ex Deo non estis* (Joan 8). Laugarrena, aldeguin beraren onran becatutic, batecere garbitasunaren contraco itzeguite, eta modu lotsagarrietatic. Atzenean, beraren onran utzi bear ditugu becaturaco bide, eta perillac; bestela cer onra emango diogu Virgiña chit Santari, baldin gugan danez berriro gurutzean ipintzen ari baguera beraren Seme maitagarria, S. Pabloc dion bezala ?

O Ama guciz maitagarria! Berandu bederic, erabaqui degu zu era onetan onratzea, eta zugana gatoz gure otoiz, edo erregu umillac Eliz Ama Santarequin eguitera.

Agur Aingueruen, eta gure Erreguiña, Misericordiazco Ama ! *Salve Regina, Mater Misericordiæ.* Ceruco Erreguiñac bezala gucia dezaquezu, eta zure escuetan ipiñi ditu ondasun guciac: eta Ama Urricaritsu, edo Misericordiazcoac bezala, gure alde eguin nai dezu, aldezun gucia ¿ nolaco uste, edo esperanza ez degu zugan ipiñi bear?

O! Virgiña guciz Santa! zure aurrean gaude gaur, gure esquergabequeri , eta becatuen lotsaz beteac alde batetic, baña alaitzen gaitu zugan artu degun uste, edo esperantzac, eta Elizarequin diogu: Agur, vicitza gozo, eta esperanza gurea! *Vita, dulcedo, et spes nostra: salve.*

Gu guera Evaren ume deserrituac: galdu guinduan gure lenengo ama onec, eta erbeste onetan vici guera, aren becatuaren ondoren samiñac aunatzen gaituela; baña zu cera Jaungoicoaren beraren Ama, eta dembora berean gurea ere bai, eta eman dizu Jaunac, gure nequeac arintzeco escu gucia. Zuri deyez gaude bada Evaren ume deserrituac negarrez, eta adiaz zugana suspiratzen degu negarrezco ibar onetan: *Ad te clamamus exules filij Evæ: ad te suspiramus gementes, et flentes in hac lacrymarum valle.*

Norgana joan al gaitezque, zugana baicic, ó Maria ! Ea bada bitarteco gurea, zure begui urricaritsu oriec biurtu itzatzu gugana: *Eja ergo, advocata nostra, illos tuos misericordes oculos ad nos converte.*

Emengo neque, eta gurutzeac, ta emengo premiac arintzea, ta gozatzea, nai degu, baña ascoz gueyago, gure egunac ongui bucatzea, eta zure Seme Jesus maitagarria betiraunde gucian ecustea, eta zurequin batean alabatzea. Eracuscuzu bada deserri onen ondoren Jesus zure sabeleco frutu bedeicatua: *Et Jesum benedictum fructum ventris tui nobis post hoc exilium ostende.*

O guciz beraa! ó Piadosa! ó Maria Virgiña gozoa! erregüezazu gugatic, Jaungoicoaren Ama Santa, zure Seme Jesusec aguindu digun betico vicitza iritsi dezagun. Amen.

(a) Quoto ætatis anno B. Virgo mortua sit, definiri non potest; at ad veritatem accedere illam sententiam, quæ B. Virgini tribuit duos, et septuaginta annos, ait Benedictus XIII. Eodem modo opinantur S. Antoninus, Suarez, á Lapide, et Cardinalis Gottus. Vide Benedictum XIV. in opere de festis lib. 2 capit. 8 n.° 6.

(b) Vide Croiset in suo Anno Chtiano.

(c) Vide Benedictum XIV cit. cap. a núm 1.° usque ad quintum inclusive.

(d) Vide Croiset.

(e) Vide Breviarium, et Benedictum decimum quartum.

(f) Vide Croiset, et etiam Breviarium.

(g) Asumptio B. Virginis non est fidei Articulus, sed qui eam negaverit termeritati summæ notaretur, et Cardinalis Gottus ait, de hæresi vehementer suspectum fore hujusmodi temerarium, non quod Catholicæ fidei adversaretur, sed quod præsumi posset, falso eum judicare, B. Virginis veneracionem per errorem ab universali Ecclesia proponi. Vide Benedictum XIV lib. et capite supra citato á n.° 18.

(h) Vide Croiset.

(i) Vide eumdem.

(j) Vide eumdem.

(l) Vide eumdem.

AMARGARREN ERACUSALDIA.

VIRGIÑA CHIT SANTAREN JAYOTZAREN GAÑEAN.

Jacob autem genuit Joseph, virum Mariæ, de qua natus est Jesus, qui vocatur Cristus. Mathei 1.

Iru jayotzari bacarric pozaldi, edo festividadea eguin oi die Eliz Ama Santac. Eguiten dio lembicia Jesus maitagarri Jainco-guizonaren Jayotzari, gucion Salvatzallearen jayotzari dagocan bezala. Eguiten dio urrena Jesusen etorreraren berri onac ematera Jesusen aurretic etorri zan S. Juan Bautistaren jayotzari. Eguiten dio irugarrena, eta eguiten dio S. Juan Bautistaren jayotzari baño ascoz bide gueyagorequin zori oneco Jesusen Ama maitagarriaren jayotzari. Jayotza onetan atseguin pozez beteric Eliz Ama Santa deyez asitzen zayo Virgiña chit santari, esaten diola: Zure jayotzac, Virgiña Jainco beraren Ama, atseguin pozez bete du mundu gucia. *Nativitas tua Dei Genitrix Virgo, gaudium anuntiavit universo Mundo.* Jayotza onen gañean bada nere enzunleac ceña zuec veneratzen, eta alabatzen dezuen atseguin pozez beteric itzeguin biar dizuet gaur; baña lenago, Aita Santu Benedicto XIII aguintzen digun bezala doctriñaco puntucho bat uquitzera noa. Izan bedi bada, gaurco gure doctrina Virgiña chit Santari zor zayon veneracioaren gañean.

Iru veneracio mota eracusten ditue Teologoac. Lembicicoa da Jaungoicoari bacarric ematen diogun veneracioa, Teologoac S. Agustiñequin *Latria* deitzen

Universidad de Deusto
Biblioteca

dioena. Veneracio au ematen diogu Jaunari gauza gucien Eguille andi, ta Jauna dalaco ezagüeran. Bigarren veneracio mota da Santuai ematen diegun veneracioa, *Dulia* Teologoac deitzen dioena. Veneracio au ematen diegu Santuai Jaincoaren adisquideai bezala, gure bitartecoai, eta Espirituaren temploai bezala. Argatic veneracio au Jaunari ematen diogun veneracioa baño ascoz chiquiagoa da; veneratzen degu alabaña Jaincoa gauza gucien Eguille andia, eta Jauna bezala; eta Santuac, ez Jaincoac balira bezala, baicican Jaungoicoaren adisquideac, gure bitartecoac, eta Espiritu Santuaren temploac bezala. Irugarren veneracio mota da Virgiña chit Santari ematen diogun veneracioa, *Hyperdulia* Teologoac deitzen dioena. Veneracio au aurreneco bien bitartean arquitzen dan veneracioa da, alde batetic alabaña ascoz, eta ascoz chiquiagoa da Jaincoari ematen diogun veneracioa baño, bestetic andiagoa da beste Santuai ematen zaten veneracioa baño. Badaquit Virgiña chit Santari, eta berebat Santuai ematen diogun veneracioaren contra asco daraustela heregeac, eta Virgiña, eta beste Santuac Jaincotzat adoratzen baguindu bezala, idolatrac guri deitzerañoco ausardia duela. Nolabait engañatu bear beren icasleac.

Baña guc aitortzen diegu biotz osoz Jainco bacar bat dala: aitortzen diegu Santu guciac, eta Virgiña chit Santa bera-ere ezpalira bezala dira Jaunaren anditasun baztergabecoaren aurrean. *Omnes gentes quasi non sint, sic sunt coram eo*: (a) aitortzen diegu S. Agustiñequin, Jaincoari ematen diogun veneracio andi *Latria* deitzen zayona Jaincoaz osterontzean iñori eman bear etzayola. *Illo cultu, qui græcé Latria dicitur, nec colimus, nec colendum docemus, nisi unum Deum.* (b) Baña diogu S. Agustin berarequin, diogu Eliz Ama Santarequin veneratu bear dala Virgiña

chit Santa, ez equiaqui Jaincoa baliz bezala, (au litzaque alabaña anciñaco herege Coliridianoen heregia) baicican Jaincoaren Ama bezala, baicican Santu gucien Erreguiña bezala, baicican Jesu-Cristoz ozterontzean gure Bitartecoric andiena bezala. Venera dezagun Jaincoaren Ama, dío Niceaco Concilio II, ez Jaincoa bezala, baicican Jaincoaren Ama bezala. *Sanctam quoque Genitricem adoremus, non tanquam Deum, sed tanquam Dei Mater*, (c) *secundum carnem.*

Veneracio au ematen diogu Virgiña chit Santari lembicia: guerengan aitortzen degula, ta sinisten Jaincoaren Amatzat; Santu gucien, ta Aingueruen Erreguiñatzat: Bigarrena, beste Santuetan baño uste gueyago degula beraren bitartecotasunean. Irugarrena, beraren Letaniac esanaz, eta berari gure bitarteco andiari bezala erregutzeaz. Laugarrena, beraren imagiñai agur, ta erreverencia eguiñaz. Baña contu emen Trentoco Concilioac eracusten digun dotriñarequin. Veneratu bear dirala dió Concilio onec Virgiña chit Santaren imagiñac, (baita beste Santuenac-ere): imaginai ematen zaten veneracioa igarotzen da alabaña, edo zucentzen da Virgina beragana. Baña Concilio berac eracusten digu ezdala uste izan bear, ascoc bear bada uste duen bezala, Mariaren imagiñetan arquitzen dala mesedeac eguiteco escu, edo virtuteren bat. Imagiñac alabaña, ez dira beste gauzataraco, ezpada Ceruan dagoanaz oroi gaitezen.

Jauna, esango dit norbaitec, ni oraindaño uste orretan vicitu naiz, eta uste onequin nic, eta beste ascoc lenago promesac eguiten diozcagu Ama Virgiña Aranzazucoari, beste imagiñai baño. Baldin ustea ipiñi badezu Aranzazun arquitzen dan imagiñan, gaizqui ipiñia da; eta jaquin bear dezu, besteac (baldin gaucen cerbait berri badue) Ama Virgiña Aranzazucoari, edo besteren bati promesac eguiten diozque-

Universidad de Deusto
Biblioteca

enean, ez duela bere ustea imagiña edo bulto artan ipintzen, baicican Ceruan arguitzen dan Virgiña beragan. Jauna; beraz diona eguia bada; edo imagiñac ezpadue mesedeac eguiteco escu, edo virtuteric batere, alferric da, edo obeto esateco, zoraqueria da, Aranzazuco, edo beste toquiren bateco imagiñai promesac eguitea. Ez orrelacoric. Cergatic Virgiña chit Santac imagiña bataren bitartecotz ascotan mesedeac eguiten ditu, beste imagiñen bitartecotz eguiten ez dituanac. Cergatic eguiten duan au, ori ez da gure contuco gauza.

Bigarrena; Trentoco Concilioac eracusten digu, Virgiña chit Santaren imagiñai, eta orobat beste Santu gucienai, etzateela erregutu bear, etzateela ezer escatu bear; imagiñac alabaña ez due gure erreguac aditzeco belarric. Jauna, esango du arrituric norbaitec; Jauna, ¿nola izango da, baldin gucioc Mariaren imagiñai erregutzen, eta mesedeac escatzen egoten baguera? Gucioc egoten guera erregutzen, eguia da, imagiñen aurrean, baña ez diogu erregutzen imagiñari, edo bultoari, bacican Ceruan arquitzen dan Virgiña chit Santari, ceñaz imagiñac oroi erazten gaituan. Au da Concilio Trentocoac gauza onen gañean eracusten digun dotriña; doctriña bear bada cembaitentzat premiazcoa. Goacen orain Virgiña chit Santaren jayotza doatsuaren gañean itzeguitera. ¡ Virgiña guciz Santa! indazu zure gracia, ta laguntza neretzat goyeguia dan lan onetaraco, bada escatzen dizut zuc aimbeste nai dezun Aingueruaren agur andiarequin *Ave Maria.*

Jacob autem génuit Joseph, virum Mariæ de qua natus est Jesus, qui vocatur Christus. Mathei 1.

Jacob izan zan Joseren Aita, Jose Mariaren esposa,

ceñagandic jayo zan Jesus, Cristo deritzana, dio gaurco Evangelioac. *Jacob autem genuit Joseph virum Mariæ de qua natus est Jesus, qui vocatur Christus.* Au da Evangelistac Mariaren jayotzaren, eta vicitzaren gañean itzeguiten duen gucia. ¿ Cer da au, Evangelista Santuac? esaten die S. Tomas de Villanuevac Mariaren jayotzaco sermoyan; ¿ cergatic Mariaren jayotzaco gauza miragarriac aditzean artuco guenduquean atseguin contentu andia ucatzen diguzue? ¿ Cergatic gauza onen atseguin pozgarriac, aimbeste ansiaz deseatuac isillic uzten dituzue ? *Cúr tanto nos gaudio privatis? Cúr ha tan læcta; et desiderata conticuistis?* (d). Alaere, dio Santuac, isillic uzten dituen gauza gucien ordain da (eta ascoz gueyago), Mariari Jesusen Ama dala esatean, ematen dioen alabanza. *De qua natus est Jesus.* Ceren baldin Maria bere jayotzan bada Jaunac berac bere Amatzat eternidadetic auturicaco aur doatsu ura , ceñagandic jayo bear zuan, eta jayo zan Jesus ¿ cer nolacoa izango da jayotza au? ¿ Cembat santidadez, graciaz, doayez, virtutez betea? ¿Cein atseguin poz andicoa Mundutar gaisoentzat? Zuec, uste det, nere enzunleac, ansia andiarequin gauza oec aditu naico dituzuela, eta nic, gauza oec berac nolaere bait zuei adirazteco, diot: *Mariaren jayotza da: Jaicoarentzaco guciz Santa; Munduarentzat guciz atseguin pozgarria.* Ona emen, gaurco nere itzeguiteco gai gucia.

§ I.

Mariaren Jayotza da lenvicia Jaincoarentzaco, eta Jaincoaren beguietan guciz Santa; au da, Jaunaren graciaz, virtutez ta doayez betea. Virgina chit Santa ecin gueyagoraño Ceruco graciaz, doayez ta virtutez betea, ta edertua izan zala ecin ucaditequean,

Universidad de Deusto
Biblioteca

eta Elizaco Doctoreac arguiro eracusten digüen gauza da. Ecin asma diteque, dio S. Anselmoc, Jaunarenaz osterontzean, edo Jaincoarena ezpada Virgiña onen Animaco edertasuna baño ederragoric. Ondoric ez duan itsasoa adinacoa da Mariaren gracia, dio S. Juan Damascenoc; eta S. Epiphanioc, número, ta neurri guciac baño andiagoa. Aingueruari, eta Santuai, dio S. Buenaventurac S. Geronimorequin batean, Aingueruari, ta Santuai, ta beste gañeraco guciai puscaca eman die Jaincoac bere gracia, baña Jesusen Amari eman cion cegocanari bezala, graciaren betetasun guci-gucia. *Ceteris per partes præstatur, Mariæ vero simul se tota infudit gratiæ plenitudo.* Doctore Santu oec, eguia da, ez duela izendatzen Mariaren jayotza, sortzea, edo beste demboraric, baña oen esan oriec Mariaren jayotzari dagozcanac dira; graciaren betetasun edo ugaritasun au gucia Mariari ematen dioe, ceren Jaincoaren Ama izateari ala dagoquion, edo ceren Maria dan araco Jaincoaren eguitura eder-miragarri ura, ceñagandic jayo zan Jesus Jainco guizona, *Maria, de qua natus est Jesus,* eta Virgiña chit Santa bere jayotzaco puntuan ere zan Jaunac bere Amatzaco eternidadetic autu zuan aur eder-miragarria: zan Jaincozco imagiña eder ura, ceñagandic jayo bear zuan, eta jayo zan Jesus. *Maria, de qua natus est Jesus.*

Gauza au, bear dan eran sinisteco, edo beintzat cein sinisgarria dan ezagutzeco, jaquin bear da, gure Jaincoac norbait autzen duanean carguren bateraco, ez diozcala ucatzen carguari dagozcan gracia, doai, eta virtuteac. Jaincoac cerbaitetaraco autzen dituanac, prestatzen ditu, dio S. Tomas Aingueruac, autzen dituan carguraco egoquiac eguiten dituan moduan. *Quos deus ad aliquid eligit, ita præparat, ac disponit, ut ad id quod eliguntur, inveniantur idonei.*

(e) Argatic S. Juan Bautistari bere jayotzatic eman ciozcan aimbeste gracia, doai, eta virtute, ceren autu zuan bere precursoretzat. Argatic S. Pedrori aimbeste constancia, ceren autu zuan Eliza guciaren burutzat. Argatic aimbeste Fedearen celo S. Pablori, ceren autu zuan Fedearen zabaltzalletzat. Emendic, baldin Virgiña chit Santa bere jayotzan (baita bere sortzean ere) auturic arquitzen bada Jainco beraren Amatzat, ecin ucatuco diozca Jaunac dignidade, ta exelencia oni dagozcan gracia, doai, ta virtuteac. Baña ¿ norc, nere enzunleac, norc adieraci, norc ezagutu-ere cein andiac, cein ugariac izan bear duen Jaincoaren Ama izateari dagozcan Ceruco gracia, doai, eta virtuteac ? Galde bequie Doctore Santuai cer dignidade cer excelencia dan Jaincoaren Ama izatea? Batzuec erantzungo due miragarri gucien artean miragarri andiena, ta berriena dala. *Miraculum miraculorum omnium:* (f); besteac, Jaincoaz osterontzean asma alditequean goitasun, eta excelencia guciac igarotzen eta garaitzen dituala. *Hoc unum, quod Dei Mater est, excedit omnem altitudinem, quæ post Deum cogitari potest.* (g). Galde bequie cembait Teologori, eta ardura gabe erantzuten due: Jaincoaren Ama izatea dignidade ta excelencia baztergabecoa dala (h(. Galde bequio Teologo gucien buru S. Tomas Aingueruari-ere, eta erantzungo digu, eraren batera bazterric, edo mugaric ez duan dignidadea dala Amatasun au. Virgiña doatsuac, dio Santuac, Jaincoaren Ama danez, nolerebait bazterric ez duan dignidadea du; ceren bazterric gabeco on, edo ontasuna dan Jaincoa, ceñaren Ama dan: eta alde onetatic ecin eguin diteque gauza obe-goyago, ta miragarriagoric. *Beata Virgo, ex hoc, quod est Mater Dei, habet quamdam dignitatem infinitam, ex Bono infinito quod est Deus, et ex hac parte non potest aliquid fieri melius.* (i).

Universidad de Deusto
Biblioteca

Ongui: eta Jaincoaren Ama izatea dignidade, eta excelencia onen goi miragarria bada: eta beste aldetic S. Tomas Aingueruac dion bezala, Jaincoac carguren bateraco aututzen dituanac prestatzen baditu carguari dagozcan gracia, doai eta virtuteaquin, izanic Virgiña chit Santa dignidade, ta excelencia onetaraco autua eternidadetic, ¿cembat santidade, cembat gracia, cembat doai, eta virtute izango cituan bere jayotzan? Gogora ecartzue zuec, nere enzunleac, eta zuec au gogoan darabiltzuen bitartean, nic uste det Aita Suarez jaquintsuarequin: (j) Mariac bere jayotzan, ta lenagotanic ere cituan Santutasun, gracia, doai, ta virtuteac gueyago, ta ugariagoac cirala izan diran, ta izango diran Santu, ta Santa gucien Santutasun, gracia, doai, eta virtuteac baño: gueyago, ta ugariagoac Ceruco Serafin, Tronu, eta Aingueru gucienac baño. Ceren oec guciac batean ipiñi arren Jaincoaren Ama izateac duan excelencia ta dignidadeagandic urruti arquitzen dira.

Ipiñi bitez alde batetic Legue zarrean, ta berrian izan diran Santu, eta Santa guciac. Ipiñi bitez araco Sara aec, Jael aec, Judith aec, Ana aec. Ipiñi araco Abrahan leyal aec, José constante aec, David urricalsu aec. Ipiñi Erriac, ta erreinuac, España, Italia, Francia, Grecia, India, Jaunaren Leguera cituen Apostoluac. Ipiñi Jesu-Cristogatic mundua beren odolez umandu duen Martiri guciac. Ipiñi, Jauna osotoro servitzeagatic, mendi urruti, ta bacardadeetan vicitu diran eremutar guciac. Ipiñi paret artean Aingueruen eraco vicitza eder garbi bat eguin duen Virgiña guciac. Ipiñi Religioen fundadoreac beren seme guciaquin, S. Benito, S. Agustin. Santo Domingo, S. Francisco, S. Bruno, S. Ignacio ta beste guciac. Alcha orain animaren beguiac Ceru Empireoraño, ecin conta al dira Aingueruac, eta dan chiquienac santidade, gracia, doai, ta virtute gueyago du Santuric andienac baño. Ipiñi bitez Aingueru beenecoac, erdicoac, eta goyenecoac. ¿Norc adieraci, cein andia izango dan aimbeste Santu, aimbeste Aingueruen Santidadea? ¿Norc adieraci norañocoac izango diran oen gucien gracia, doai eta virtuteac? Baña ipiñi bedi beste aldetic araco Jaunac bere Amatzat eternidadetic arturic jayotzen dan aur eder miragarri ura. ¿Ez ote da aur au bacar bacarric Santuen eta Aingueruen escuadra oriec guciac baño ederrago? ¿Ez ote du, oriec guciac baño Santidade, gracia, doai eta virtute gueyago? Eguiaz ni erraz engañatu naiteque, baña uste det asco guizon jaquintsurequin, Santu guciac, Aingueru guciac, dignidade, ta excelencian garaitzen dituan bezala, era berean garaitzen dituala animaco edertasunean, gracia, doai, ta virtuteen ugaritasunean. Uste det, Jaunac ederrago deritzala bere Ama izateco mundura aguertzen dan aur eder miragarri oni, Santu guciai, ta Aingueru guciai baño. Ecin conta al dira nere servitzari oec guciac, dio Jaunac. *Adolescentularum non est numerus*; baña au bacarric da nere ederra, dio aur onegatic; au bacarric santidadez, graciaz, doayez ta virtutez osotoro betea. *Unica est columba mea: perfecta mea* (l). Emendic, izanic Jaunaren beguietan aur zori oneco au onen ederra, onembeste graciaz, doayez, ta virtutez betea, aur au, edo Mariaren jayotza da Jaincoarentzaco, edo Jaincoaren beguietan guciz Santa. Au da aurrena adierazteco artu guenduan gauza.

§ II.

Mariaren jayotza Jaincoaren beguietan guciz ederra

guciz Santa, izateaz gañera, da mundu guciarentzat guciz atseguin pozgarria. Gure jayotzac, baldin fedearen beguiaquin beguiratzen badiegu, ez dira ez atseguin pozgarriac, baicican negargarriac: jayotzen guera alabaña Adanen becatuan irabiotuac: jayotzen guera gaitzeraco griñaz gueran gucioc beteac; jayotzen guera Jainco beraren etsayac, eta etsai galgarriaren mendeco anima galduac. Ez da eguiaz ez, Mariaren jayotza guisa onetaco jayotza doacabe-negargarria; jayotzen da alabaña Adanen becatuaren loyac batere ucuitu gabe, jayotzen da ecusi degun aina graciaz, doayez, eta virtutez edertua. Eta ¿au ez da bideric asco Mariaren jayotza mundu guciarentzat atseguin pozgarria izateco? Bideric asco da, bai, munduac ondo ezagutzen balu cer gauza dan Adanen becatuaren loyac ucuitu gabe jayotzea: eta jayotzea aimbeste Ceruco graciaz, doayez, ta virtutez edertua, eta apaindua. Baña nola ongui ezagutzen ez ditugun gauz oec, ez da guretzat ain atseguin poz andicoa alde onetatic. Guciz atseguin pozgarria da mundu guciarentzat, ceren munduac aimbeste seculan ansi andiarequin uste zuan Salvatzallearen Amaren jayotza dan.

Bai, nere enzunleac, bay; Mariaren jayotza guciz atseguin pozgarria da mundu guciarentzat, ceren Salvatzallearen Amaren jayotza dan. *De qua natus est Jesus.* Adan, gure lembicico gurasoac Jaunarequicoa galdu zuanetic Mariaren jayotzara lau milla eta gueyago urteren arrastoa zan. Dembora onetan gucian Salvatzallearen berria izan zuen munduan ascoc; izan zuen Patriarcac, izan zuen Erregue ascoc beintzat. Izan zuen Profetac-ere; eta Munduac oen ezpañaz ansia guciz andiarequin deitzen cion bere Salvatzalle oni. Adan guizagajoac beti beguien aurrean zeuzcala bere zoraqueriaz bere buruari, ta

ondorengo guciai eguin ziezten calte arrigarriac, oec guciac erremediatu nayaz, deituco cion eguiaqui gucien ordez, deituco cion bein da berriz, ta ascotan ere, deituco cion egun oro goiz arrats, da ¿norc taqui cembat aldiz? Deituco cion bere bat Abrahanecere, deituco cion, eta deitu cion Jacob, onen semeac-ere. Salvatzallea ecusteco ansiaz noa ni mundutic Abrahanen Limbora esaten cien Jacobec bere umeai iltzeco puntuan; an egon bear det nic, eta egon bear due ongui ill guciac, Salvatzalle au datorquigun artean. *Salvatorem meum expectabo* (m). ¿Noiz artean, Jauna, esaten cion David Santuac ere Jaungoicoari, noiz artean egongo zera gueldiric, ta gugana etorri gabe? Eguizu Jauna, gaurdanic, ta luzatu gabe, eguiteco zauden cere lan andia: esnazazu zure Escugucialdun ori, eta atoz, atoz gucien Salvatzallea. *Excita potentiam tuam, et veni.* (n).

Era onetan bertan Jaunari aguertu ciozcan Munduac bere Salvatzallea ecusteco ansia arrigarriac Profeten ezpañaz. Oen artean Isayasec adieraci zuan, izango zala demboren buruan Virgiña bat aur dun guizonic gabe. Virgiña au erdico zala, eta izango zuala seme bat Virgiña gueldítzen zala. *Ecce Virgo concipiet, et pariet filium* (o). Au era ascotara adieraciric, asitzen zate Ceruai otsez, esaten diela: ¿certan zaute, Ceruac, orren legorrac? ¿Noiz urtu bear due zuen odeyac? ¿Noiz Espiritu Santuac odei eguiñic eguingo du Virgiñ Amaren lur garbian bere virtutez eguiteco dagoan lan andia? Aitu bedi, aitu bedi noiz ere bait, Ceruac, zuen legortasun ori. *Rorate Cæli desuper.* Bial ezazue odeyac, guc aimbeste ansiaz uste degun gure Salvatzallea. *Et nubes pluant justum.* (p). Ansi oequin, nere enzunleac, igaro cituan mundu doacabe onec lau milla eta gueyago urte bere Salvatzallearen ustean. Oraiñ

Universidad de Deusto
Biblioteca

¿norc adieracico du onembeste ansiarequin bere Salvatzallea uste zuan munduarentzat, cein atseguin pozgarria dan Salvatzallearen Amaren jayotza? Ez eguiaqui nic beintzat; ni contentu guelditzen naiz esatearequin, Mariaren jayotza guciz atseguin pozgarria dala mundu guciarentzat; ceren aimbeste seculan ansia andiarequin uste zuan Salvatzallearen Amaren jayotza dan. *De qua natus est Jesus.*

Eguia au are obeto ezagutuco degu, cer guisatan deitzen Escritura Santac Jesus gure Salvatzalleari, eta cer guisatan Mariari contuz beguiratzen badegu. Jesus gure Salvatzalleari deitzen dio Escritura Santac Eguzqui alde gucietara argui eguiten duana; *Sol illuminans per omnia.* (q). Salvatzallearen Amari bere jayotzean deitzen dio Escriturac, edo Aingueruac; Eguzqui Jaincozco onen aurretic aguertzen dan arguia edo eguantza. ¿ Cein ote da, equiten dioe elcarri Aingueruac ecusiric Salvatzallearen Ama jayotzen; cein ote da onaco eguantzaren eran aguertzen dan au? *Quæ est ista, quæ progreditur quasi aurora consurgens?* (r) Emendic naita ez guciz atseguin pozgarria izan bear du Salvatzallearen Amaren jayotzac mundu guciarentzat. Au ongui ezagutzeco gogora ecartzue cein era negargarrian arquitzen zan mundua Mariaren jayotzan; becatuaren illuntasun izugarriac cein estalia, Israel-darrac ez besteac gueyenac Jaincoa utziric fedegabetasunaren gau illunean vici ciran. Guciac atera ciran, dio David Santuac, Ceruco bidetic; guciac galdu ciran Jaincoarentzaco, ta Ceruraco; etzan gucien artean gauz on bat eguiten zuanic, bear bezala beintzat. *Omnes declinaverunt, simul inutiles facti sunt; non est qui faciat bonum, non est usque ad unum.* (s) Argatic zabaldu zuan bai, ta ongui alaere, infernuac bere eztarritzar izugarria, dio Isayas Profetac; idiqui ci-

tuan ecin gueyagoraño bere ortzac, eunca, ta milloica irintsitzeco animac. *Propterea dilatavit infernus animam suam, et aperuit os suum absque ullo termino.* (t) ¡Cein era negargarrian arquitzen zan mundua Salvatzallearen Ama mundura aguertzean! Becatuaren gau beltz, eta illuntasun izugarriac gucia artua, ta estalia. Bai, dio Isayas Profetac, gauac, ta illuntasunac estalia arquitzen zan mundua, eta itsuturic gende guciac. *Tenebræ operiebant terram et caligo populos.* (x).

Esan guidazue oraiñ, nere entzunleac, onembeste illuntasunen artean arquitzen bada mundua Mariaren jayotzan, eta onembeste illuntasunen artean aguertzen bada Maria eguantzaren eran berequin dacarrela Jesus eguzqui Jaincozcoa, ¿ ez da guciz atseguin pozgarria Mariaren jayotza mundu guciarentzat? Eguin dezagun contu, mudaturic gure Ceru onen, eta Eguzquiaren muguimentua, oraiñ cembait orduco gaua degun bezala, sartzen zacula, ez sei illabetecoa Groelandian bezala, baicican berroguei, edo gueyago urteco gau luce icaragarri bat. Esan guidazue, baldin dembora oen gucien buruan aguertuco balitzacu eguantz ederra, berequin ondoren duala Eguzquia, ¿ ceiñ atseguin pozgarria izango litzaque? Ez guiñaque eguiaz Groelandian bezala contentu gueldituco eguantzari Musicaz ongui etorri eguitearequin; igaroco guiñaque noasqui, fedeac besteric ez eracustera, Jaincotzat adoratzeraño-ere. Eta ¿ cer luque cer ecusi cembait urteco illuntasun oec Mariaren jayotzan mundu doacabe au estaltzen zuen illuntasunen aldean? Illuntasun oec becatuaren illuntasun icaragarriac ciran; eta ciran ez berroguei urtean, baicican berroguei seculan, eta gueyagoan iraun zuen illuntasunac. Illuntasun icaragarri oen artean, bada, aguertzea Maria eguantz gu-

Universidad de Deusto
Biblioteca

ciz eder baten eran, *quasi aurora consurgens*, bere ondoren duala gucien Salvatzalle Jesus eguzqui Jaincozcoa, ceiñ atseguin pozgarria izango da? Nai ta ez guciz atseguin pozgarria. Guciz atseguin pozgarria Ainguerueutzat; guciz atseguin pozgarria Limboco guraso santuentzat; guciz atseguin pozgarria Purgatorioco anima gaisoentzat; guciz atseguin pozgarria guciontzat; itz batean, guciz atseguin pozgarria mundu guciarentzat; ceren munduac aimbeste seculan ansia andiarequin uste zuan Salvatzallearen Amaren jayotza dan. *De qua natus est Jesus.* Au da bigarrena, ta atzena adierazteco artu guenduan gauza.

Poztu bitez bada gure biotzac, dio S. Pedro Damianoc; *Exultemus*; eta Jesus maitagarriaren jayotzan atseguin contentuz bete oi diran bezala gure animac, bete bitez Jesusen Amaren jayotzan-ere: *et sicut gaudere solemus in Nativitate Christi, ita etiam et gaudeamus in Nativitate Matris Christi.* (i). Baña ¿cer provechu ateraco degu atseguin-poz onetatic, aztutzen baguera Mariaren santidadea imitatzeaz? Provechuric batere-ez, edo obeto esateco, provechuaren ordez calte andiac. Argatic alferricaco gauza izan ez dedin Mariaren jayotzaren gañean predicatzea, eta festividade au eguitea, ez degu contentu guelditu bear zori oneco jayotza onetan poztutzearequin, ez nere enzunleac. Sayatu-ere bear degu gucioc Mariaren santidadea imitatzera. Mariac bere jayotzan zuan bere dignidade, ta excelenciari cegoquion santidadea; eta guc-ere Mariari imitatzen diogula, gure indar, ta aleguin guciaquin sayatu bear degu Jaunac eman digun cargu, ta empleoari dagocan santidadea iristera. Au da Mariac bere jayotzan eracusten eta escatzen diguna gucioi; au escatzen die doncellai; au ezconduai; au gurasoai; eta errietaco buruai. Guisa onetan sayatzen guerala gucioc, prest arquituco de-

gu bai Mariaren bitartecotasuna, prest beraren escua Jaunac escatzen digun vicitza onera igotzeco; eta prest atzenean vicitza onaren saria beti betico glorian. Amen.

(a) Isaiæ 40. (b) August. L. 10 contra Faustum. (c) Concilium Nicæn. II Action. 4 apud. Benedict. XIV. T. 1 de can. S. S. diss. 1. (d) S. Thomas Villan. Serm. de Nativ. Virg. (e) S. Thomas 1. P. Q. 27 art. 4. (f) S. Joann. Damasc. (g) S. Anselmus de excellen. V. (h) Carden. Rodas, Ripalda &. (i) S. Thomas 1. P. Q. 15 art. 61. (j) Suarius T. 2. in tertiam partem. (l) Cant. 6. (m) Gen. 48. (n) Psal. 77. (o) Isai. 7. (p) Isai. 44. (q) Eccle. 42. (r) Cant. 6. (s) Psal. 18. (t) Isai. 5. (x) Isai. 60. [y] Pet. Damiani Serm. 3 in Nativ. Virg.

AMAICAGARREN ERACUSALDIA.

Ceñ gauza gaizto , eta samiña dan , guc gure Jauna utzi izan degun eran utzitzea : eta gaurco Eracusaldi onetan adirazten da : *Jaunac guizona eguitean , certaco eguin zuan , eta nolaco doayaquin ornitu zuan. Urrena , nola becatuan erori zan, eta ceñ ondoren samiñac etorri ciran , eta datocen becatu artatic.*

Dereliqüisti Dominum Deum tuum...Scito, et vide, quia malum , et amarum est reliquisse te Dominum Deum tuum. Jerem. 2.°

Eliz Ama Santac ama urricaritsuac bezala , eguin du garizuma onetan , eta lenago ere aleguiña gu Ceruraco bidean ipintzeco : eta Pazcoaz aditzera eman digu , nola piztu zan Jesus eguiaz, eta beñere ez iltzeco , certaco ote ? gu esna gaitecen, eta piztu becatutic graciaren vicitzara , eguiaz, eta beñere becatura ez biurtzeco. Alaere Cristauric gueyenac ez oi dira piztu graciaren vicitzara , eta gueratzen dira becatuan illac , batzuec , ceren biotzic ez duen becatuaren bide , eta perillac , eche, eta lagun gaiztoac utzitzeco ; besteac , ceren lagun urcoari , edo erriari eman , edo biurtu bear citzayona biurtzen ez dioen ; batzuec ceren oitura gaiztoac deseguiteco neurriric artzen ez duen ; besteac ceren duen carguaren eguin-bideai eranzuteco sayatzen ez diran. Onela dautza becatuen obian Ce-

ruaz etsiac bezala ¿Cer eguin al dezaquegu becatari oequin? Cer, ezpada Virgiña chit Santa *Doloreetacoa* bitarteco degula , aditzera ematea , ceñ gauza gaizto, eta samiña dan gure Jaun, eta Jaungoicoa utzitzea, eta becatuaren bideai jarraitzea. Gaur asiera sustrayetic artzeco , aditzera emango dizut , becataria, guizona eguitean , certaco eguin , eta nolaco doayaquin ornitu zuan Jaunac. Urrena, nola becatuan erori zan , eta ceñ ondoren samiñac etorri ciran , eta datocen becatu artatic. Virgiña chit Santa, gugatic penaz , eta naigabez betea , vicitza berri-on bat artu nai duen becatari gucien Bitarteco , eta Ama gozoa, nai onequin Zugana etorri nai nuque; baña loturic nauquee nere becatu, eta griña charrac. Lagun zaiquizquit oec urratzen, eta vicitz eder bat artzen. O Ama guciz beraa! Zu cera nere vicitza , eta atseguin contentua: zu nere esperanza. Ez gaitzatzula arren utzi. Esperanza onequin equin deguiogun, becataria, gure eguitecoari.

Gure Jaungoicoac, doatsu izateco etzuan, ez Aingueruen, ez guizonaren bearric, beregan du alabaña doatasun gucia, eta betiraunde, edo beticotasun gucian izan da eciñ gueyagoraño doatsua Aingueruric, eta guizonic gabe. Demboraz eguin cituan Aingueruac, espiritu eder, eta garbiac; apaindu cituan doai miragarriaquin, eta eman cien beti-beti zori onecoac izateco era gucia. Baña Lucifer buru zuela, alcha ciran asco Jaunaren Aguinteren baten contra, eta bota cituan betico su, eta garren artera, eta an egon bearrac dira beticotasun gucian. Aingueru gaizto oec dira gure animen etsayac.

Aingueruen ondoren eguin nai izan zuan guizona,

Universidad de Deusto
Biblioteca

eta onetaraco era miragarrian prestatu cituan guizonarentzaco bear ciran gauza guciac. Lenengo egunean eguin cituan Ceruac, eta lurra, eta nola arquitzen ciran illumbean, eguin zuan arguitasuna. Eguin bedi, esan zuan, arguia, eta bereala aguertu zan eguiña. Bigarren egunean eguin zuan beguien aurrean dacuscun Ceru au: Irugarren egunean bildu cituan lecu batera lurraren gañean zabalduric ceuden urac, eta eman cien itsasoen icena. Aguindu cion lurrari, eman citzala loreac, belarrac, arbolac, eta bereala aguertu ciran gauz oec: eta dirudianez irugarren egun onetan eguin zuan Paradisuco vergera ederra. Laugarren egunean eguin cituan eguzquia, illarguia, eta izarrac. Bostgarren egunean eguin cituan arrayac, egaztiac, abere, eta ganaduac. Era onetan, guizona eguin baño len prestatu cituan eraz vicitzeco arc bearco cituan gauzac. Emen lurrean igaro bear cituan egunetaraco zan Paradisua, non vici citequean nequeric gabe, eta era guciaquin: eta emengo egunac bucatzen cituaneco, prestatu zuan Ceruco jauregui guciz ederra. Seigarren egunean esan zuan: *eguin dezagun gure antzera guizona*: eta lur pisca batequin moldatu zuan Adanen gorputza: ecerezetic eguin zuan anima, eta emanic au gorputzari, aguertu zan eguiña lenengo guizona, eta deitu cion Adan. Lo cegoala, atera cion sayets ezur bat; onequin moldatu zuan Evaren gorputza, eta ecerezetic eguin zuan anima. Eman cion au gorputzari, eta gueratu zan eguiña lenvicico emacumea, eta eman cion icena *Eva*. Oec dira lenengo guizona, eta emacumea, eta bi oetatic due beren jatorria munduan izan, eta izango diran guizon, eta emacume guciac (a).

Certaco eguiñ ote zuan Jaunac guizona? Eguin ote zuan emengo ondasunen ondoren ibiltzeco? Ez; zan

alabaña lurreco gauza gucien Jaun, eta jabe, eta etzuan eceren billa ibilli bearric. Eguiñ ote zuan araguiaren atseguiñ lotsagarrien ondoren bere burua aunatzeco, eta ciquintzeco? are guchiago ¿Certaco eguin zuan bada? Eguin zuan bera ezagutzeco, amatzeco, eta berarequin batean Ceruan doatsu izateco. Au da gure siniste, edo fede onac eracusten diguna, eta siniste onec cuturtzen ditu asco anima, mundu doacabe au utziric paret artean eren buruac ezcutatzera (b).

Eta norc aditzera emango ditu, Jaunac Adani, eta Evari eman ciezten doai miragarriac? Etzuen jateco, eta edateco bear zuenaren quezcaric; ceren Paradisuac emango cien onetaraco bear zana. Etzuen gaittzen, eritasunen, eta eriotzaren beldurric; Paradisuco arbolen artean alabaña bazan bat *vicitzaren arbola* ceritzana. Onen frutac añ miragarriac ciran, non gordeco zuen guizona eritasun gucietatic, zartze, eta eriotzatic (c). Eman cien Jaunac animaren aldetic graciaren apaindura ederra (d). Eman cien gañera *Zucentasun*, edo *Justicia originala* deitzen zayon doai *miragarria*. Doai onequin adimentua cegoan arguia gauzac ezagutzeco: vorondatea cegoan prest Jaunac nai zuana eguiteco; idurimendua, edo imaginacioa etzan oraiñ bezala zoroaren eran ibiltzen noranai adimentuaren, eta vorondatearen baimena gabe. Cer gueyago? Doai miragarri ura becatuarequin galdu zuan bitartean, guizonaren gura, edo griñac paquean ceuden guciac: etziran asaldatzen, eta etzuen echean guerraric ematen. Prest arquitzen ciran vorondateac aguintzen ciena eguiteco, baña etziran alchatzen, vorondateac aguintzen ezpacien. Atzenean Adani, eta Evari eman cien Jaunac mundu gucico aguintea. Ez da izan eta ez da izango Erregue añ andiric, nola zan Adan. Orregatic esaten dio Davidec Jaunari: gu-

re Jaun, eta Jaungoicoa! Ceñ miragarria dan zure icena mundu gucian! Cer da guizona, zu arzaz oroitzeco? onraz bete eta zure escuetaco obren gañean ipiñi dezu: *Et constituisti eum super opera manuum tuarum* (psalm. 8). Orra, certaco eguin zuan Jaunac guizona, eta nolaco doayaquin bete zuan. Dacuscun oraiñ cer guertatu zan guero.

Paradisuco arbolen artean bazan bat onaren eta *gaitzaren jaquiundeco arbolaren* icena ematen zayona. Deitzen zayo onela, ceren guezurraren Aitac, edo Demonioac aguindu cien Adani, eta Evari, izango cirala Jaungoicoaren eran, onaren, eta gaitzaren berri ciaquienac. Deitzen zayo *gañera onaren eta gaitzaren jaquiundeco arbola*; ceren arbola onen fruta janda icasi zuen cer ondasunac galdu cituen, eta cer gaitzac beren gañera eracarri cituen. Debecatu cien Jaunac arbola bacar onen fruta jatea esaten ciola Adani: *Noizerenai jan dezazula* orren fruta, illco cera: *Morte morieris* (e). Illco cera ez gorputzaren aldetic bacarric, baita animarenetic ere. Illco cera, ez zu bacarric, bai ta zure ondorengoac ere. Luciferrec ecin begui onez ecusi zuan guizonaren aimbeste onra, eta asi zan becatuan amilderazteco bidea prestatzen, baliatzen zala Evaz. Bacebillen Eva Paradisuan, eta etsayac itzeguin cion sugue baten autic: *cergatic ez dizue Jaunac eman fruta gucietatic jateco escua?* esan cion: Eranzun cion Evac: Paradisuaren erdian dagoan arbola baten frutatic jatea debecatu digu Jaunac, ill ez gaitecen, baña jan dezaquegu beste gucietatic. Orduan esan cion etsai guezurtiac, *etzerate*, ez, orregatic illco: eta arbola aren fruta jaten dezuen unean bertan idiquico dira

zuen beguiac, eta izango cerate Jaincoa bezala, eta jaquingo dezue onaren, eta gaitzaren berri. Jarri zan Eva arbolari beguiratzen: ecusi zuan, jateco sasoi onean ceuden frutaz betea, eta beguietaraco guciz ederra: *Pulchrum oculis, aspectuque delectabile.* Artu, eta jan zuan aren frutatic. Gaitz erdi izango zan au, onembesterequin contentatu baliz; baña eman cion Adani ere, eta jan zuan. Guisa onetan autsi zuen Jaunaren Aguintea. Adanen becatu au da *jatorrizcoa* edo *originala* deitzen dioguna, ceren ondorengoetara jatorriz igarotzen dan.

Norc oraiñ aditzera eman, ceñ ondoren samiñac etorri ciran eta datocen becatu onetatic? Len etzuen jateco, eta edateco gaucen quezcaric, ceren Paradisuan zuen, nequeric gabe, bear zuena; baña erbestetu cituan, edo bota andic Jaunac, eta bacoitzac, ala lenengo gurasoac, nola aen ondorengoac beren neque-icerdiarequin billatu bear izan zuen, eta due jateco eta edateco bear dana. Len etzuen soñeco bearric, ceren zucentasun, edo justicia originalaren doaia galdu zuen artean, etzan lotsatzeco gauza soñecoric gabe egotea; baña ozta erori ciran becatuan, lotsatu ciran, eta picostoaquin nolerebait estali ciran. Len etzuen eritasun, zartze, eta eriotzaren beldurric; ceren vicitzaren arbolaren fruta-jatearequin vicico ciran gaitz, edo eritasunic gabe, eta dembora cetorrenean viciric joango ciran Cerura; baña guero ecin conta al gaitz ecusi bear ditu guizonac, eta atzenean ill bearra da: *Autsa cera, eta auts biurtuco cera*, esan cion Jaunac Adani. Len arguia cegoan adimentua jaquin bear diran gauzac ezagutzeco; baña oraiñ neque andiarequin icasten dira. Len vorondatea prest arquitzen zan Jaunaren naia eguiteco; guero naguia gueratu zan. Len idurimendu, edo imaginacioac etzuan asaldatzen guizona, guero guerra andia ematen

du. Len gurâ guciac paquean, eta vorondatearen mendean ceuden; baña guero ecin ongui adiraci ditequean adiña neque ematen due, eta mundu gucia darabilte soseguric gabe: guerra eta iscambilla echean eta guerra erreñuetan: emendic aimbeste eriotza. Eguizu, Cristaua, contu, presa bat urratzen dala. Ecusico dezu, len soseguz cijoacen urac guero indar andiarequin abiatzen dirala eren bidean: eta orra guizona becatuan erori zanean guertatu zana. *Zucentasun* edo *justicia originalaren doayac* lotuac bezala ceduzcan guizonaren gura guciac; etziran alchatzen vorondateac aguindu gabe; baña *justicia originalaren* doai andia galdu zuan bezala, gura guciac asi ciran beren bidean, eta gueroztic ez due paqueric eman nai. Guizonac onraz beteric cegoanean, etzuan ezagutu bere zori ona: guero eguin zan centzugabeco abere, edo astoen anceco, dio Davidec: *Homo cum in honore esset, non intellexit: comparatus est jumentis insipientibus, et similis factus est illis.* (Psalm. 48). Atzenean, Adanec becatuan erori zan unean bertan, galdu zuan Ceruraco escubide gucia, ez beretzat bacarric, bai ta bere ume, eta ondorengo gucientzat ere: guciac dira alabaña becatuan sortuac.

Ecusten dezu, becataria, ceñ gauza gaizto, eta samiña dan guc gure Jaungoicoa becatuarequin utziztea? Sagar, edo fruta bat dastatzea, edo progatzea añ gauza gaiztoa izan bazan, eta ondoren añ samiñac etorri baciran, eta badatoz becatu artatic, beguira cer izango dan guc eguin ditugun adiña becatu eguitea. Eta ezaguturic au ez ote cera, becataria, becatuaren lo astun orretatic esnatuco? Ea, esna zaite, irten zaite becatuaren obi orretatic: zoaz cere Aita onagana, eta vici zaite beraren Legue ederrac eracusten digun eran. Onela iritsico dezu betico vicitza doatsua. Amen.

(a) De hæresi Præadamitarum vide Feijoum tom. 5 Discursu 15.

(b) Hæc veritas est fidei nostræ fundamentum, et illa docetur in Symbolo Apostolorum his verbis: *Vitam æternam.*

(c) De arbore vitæ dicitur cap. 2 Genesis, «*Produxitque* »Dominus Deus de humo omne lignum pulchrum vissu, et »ad vescendum suave: *lignum etiam vitæ in medio* Paradisi.

»Ecce Adam quasi unus ex nobis factus est sciens bonum »et malum. Nunc ergo ne forte mittat manum suam, et su»mat etiam de ligno vitæ et comedat, et vivat in æternum. »Et emissit eum Dominus Deus de paradiso voluptatis, ut »operaretur terram, de qua sumptus est.»

De vi, et eficacia ligni vitæ duplex est sententia: prima docet, lignum vitæ fuisse productum ad arcendam mortem, quæ contingere solet ex senio: unde secundum hanc sententiam homo frequenter, vel sæpe comedere deberet ad arcendam mortem. Hanc sententiam tenent communiter Scholastici cum Divo Augustino. Secunda sententia docet, lignum vitæ eam vim habuisse, ut vel semel gustatum perfectam afferret immortalitatem, et ideo non ante sumendum fuisse, quam transferendi essent homines de statu gratiæ, in quo poterant non mori, ad statum gloriæ, in quo non possent amplius mori. Huic sententiæ favere videtur caput 2 Genes. per verba supra citata.

(d) Communis Theologorum sententia tenet, primum hominem in ipsa creatione accepisse gratiam gratum faciente. Vide S. Paulum ad Ephes. c. 4, et Tridentin. Ses. 5 Decreto de peccato originali.

Est autem considerandum, quod primo homini in sua institutione datum fuerat divinitus *quoddam supernaturale donum*, scilicet *originalis justitia*, per quam ratio subdebatur Deo, et inferiores vires rationi, et corpus animæ. Ita S. Thomas q. 4 de malo art. 1.

(e) Vide Menochium.

Universidad de Deusto
Biblioteca

AMABIGARREN ERACUSALDIA.

Ceñ gauza gaizto, eta samiña dan becatua, adirazten digu Trinidadeco bigarren Persona, Aita Beticoaren Seme-Jaungoicoa Cerutic jachita guizon eguiteac. Misterio miragarri au da oraingo Eracusaldiaren gaya.

Dereliquisti Dominum Deum tuum....Scito, et vide, quia malum, et amarum est reliquisse te Dominum Deum tuum. Jerem. 2.

Utzi dezu zuc, becataria, zure Jaun, eta Jaungoicoa: eta garizuman asco eguia izugarri aditu badituzu ere, etzera becatnaren lo astun orretatic esnatu. Jaquizu bada, esaten dizu Jeremiasec, eta ecusi ezazu, gauza gaizto, eta samiña dala, zuc zure Jaun, eta Jaungoicoa utzi izan dezun eran utzitzea. Ecusi cenduan azqueneco igandean, Jaunac guizona eguin zuanean, certaco eguin zuan, eta nolaco doayac eman ciozcan. Ecusi cenduan, nola becatuan erori zan, eta ceñ ondoren samiñac etorri ciran, eta datocen becatu artatic. Jan zuan Adanec Paradisuco arbola baten fruta debecatua, eta bereala bota zuan Jaunac Paradisutic, eta len eritasun, eta eriotzaren beldur gabe vici zana, gueratu zan ecin conta al gaitz, neque, eta eriotzaren mendean. Atzenean galdu zuan Jaunaren gracia, eta zucentasun originalaren doai miragarria, baita Ceruraco escubide gucia ere. Eta norc eztacus, ondoren oec dacarzian becatua dala gauza guciz gaizto, eta samiña? Eta ondoren oec ecarri cituan sagar, edo fruta debecatu bat dastatze, edo progatzeac, ez Adanentzat bacarric, baita guretzat ere, fedeac eracusten digun bezala.

Eguia au bera adirazten digüe, guizona Ceruraco bidean berriro ipintzeco Jaunac artu cituan neurri miragarriac. Oen artean lenengoa da Trinidadeco bigarren Persona, Aita beticoaren Seme-Jaungoicoa guizon eguitea. Misterio au izango da gaurco Eracusaldiaren gaya. Enzun bada arreta andiarequin, Cristaua.

Autsi zuan Adanec Jaunaren Aguintea, len esan degun eran, jaquiundeco arbolaren fruta debecatua jaten zuala. Ozta Adanec eguin zuan becatu au, iguerri zuan Jauna cetorquiola, eta ezcutatu zan arbolen ostartean. Deitu cion Jaunac Adani, esaten ciola: non cera? *Ubi es?* Eranzun cion Adanec: aditu det, Jauna, zure otsa, eta lotsatu naiz, ceren soñecoric gabe arquitzen nintzan: orregatic ezcutatu naiz. Esan cion Jaunac: eta norc aditzera eman dizu, soñecoric gabe, edo larru gorrian ceundela, debecatu nizun fruta jateac baicic? Eranzun cion Adanec: laguntzat eman didazun emacumeac eman dit, eta jan det. Orra noiz danic asi zan guizona bere utseguitea edertu, edo guchitu nayez. Orduan esan cion Evari: cergatic eguin dezu au? Eranzun cion Evac: sugueac engañatu nau. Orra Evac ere besteri egozten dio bere becatuaren oben, edo culpa guco Demonioaren contra, eta esaten dio: *Madaricatua izango cera*: nic guerra vicia ipiñico det zure,

Universidad de Deusto
Biblioteca

eta andre baten artean: guerra zure ume, eta andre aren semearen artean: andre arc bere semearen bidez zapalduco du zure burua: *Inimicitias ponam inter te, et mulierem, et semen tuum, et semen illius: ipsa conteret caput tuum.* (Genes. 3). Itz oetan Jaunac aditzera eman zuan, etsai galgarriac gure lenvicico gurasoac galduric utzi bacituan ere, bidalduco zuala Munduaren Salvatzallea, eta onec zapalduco ciola etsayari burua. ¡Ceñ ona, eta Urricaritsua gure Jauna! Aserre cegoan guizonaren contra, ceren autsi zuan ipiñi cion Aguintea; baña ecusten zuan, Adan eta Eva, eta oetatic etorrico ciran ondorengo guciac gueratuco cirala Cerutic erbestetuac betico, eta joan bearrac cirala betico su, eta garren artera. Ecusten zuan Adanec, eta Evac ecin deseguin cezaqueela eguin cioen bidegabe izugarria, ceren guizonaren aleguin gucien gañeticacoa zan (a). Beste aldetic etzuan nai, Lucifer berearequin irtetea. Cer asmatu zuan Jaunaren ontasun, eta urriquimentuac? Asmatu zuan bide bat berac bacarric asma cezaqueana; au zan Trinidadeco bigarren Persona Cerutic lurrera jachitzea, guizon eguitea, eta Adanen, eta ondorengo becatuen zorra pagatzea. Aimbesteraño amatu guinduan Jaunac, dio S. Juanec, non eman zuan bere Seme bacarra: *Sic Deus dilexit mundum, ut filium suum unigenitum daret* (cap. 3).

Baña guisa onetan Jaunac bere Semea bidaltzea aguindu bazuan ere, etzuan bereala bidaldu; nai zuan alabaña guizonac ezagutzea, ceñ gauza gaizto, eta samiña dan bere Eguille, eta Aita ona utzitzea becatuaren atseguin-apur bategatic. Alaere ez usteizan, Cristaua, munduaren asieratic Salvatzallea etorri artean ill ciran guciac galdu cirala: ez, ceren Jaunac beguiraturic Jesusec demboraz igaroco zuan gurutzeco eriotzari, eman cien Adan, eta Evari bai-

ta ondorengoai ere becatutic irteteco, eta vicitza ona eguiteco bear zuen Ceruco lagunza, eta gracia, baña Jaunaren gracian iltzen ciranac ere etzijoacen Cerura, baicic Abrahanen limbora: an egoteco Salvatzalleac atera citzan artean. Etziran Ceruco ateac guizonarentzat idiqui Jesusec Cerura igotzean zabaldu cituan artean (b).

Bitarte onetan anima onac, Patriarca, eta Profetac osca cegozcan Jaunari, bidal cezala aguindu zuan Mesias, edo Salvatzallea. Esan cien beiñ Jaunac Isayasen autic. Enzun ezazu Daviden echea: *Audite ergo domus David*: Virgiña bategandic sortu, eta jayoco da Seme bat, eta deituco zayo Manuel: *Ecce virgo concipiet, et pariet filium, et vocabitur nomen ejus Emmanuel* (Isaiæ c. 7). Bacetocen, eta bacijoacen era onetan mendeac mendeen edo seculac seculen ondoren; baña guero ere lau milla urteren buruan bete ciran Jaunac beregan marcatuac ceduzcan demborac. Orduan Trinidade guciz Santac bidaldu cion Virgiña chit Santari bere Aingueruetatic bat Nazaret ceritzan Galileaco erri batera, eta Aingueru au zan S. Gabriel. Sartu zan Ainguerua Virgiña chit Santa cegoan guelara, eta itz eguin cion era onetan S. Lucasec dionez: Agur graciaz betea, Jauna da zurequin, bedeincatua cera andre gucien artean: *Ave gratia plena, Dominus tecum.* Arrituric gueratu zan Virgiña chit Santa agur añ onragarria Aingueruagandic aditu zuanean: nastu zan beregan dio S. Lucasec, eta gogoan cerabillen, cer esan nai ote zuan agur onec: *Turbata est in sermone ejus, et cogitabat, qualis esset ista salutatio.* Argatic esan cion Aingueruac: Ez beldurtu Maria: *Ne timeas Maria*: Zu cera andre gucien artean autua, eta Jaunari agradatua: zuc sortuco, eta eguingo dezu Seme bat, eta deituco diozu *Jesus.* Seme au Jaunaren beguietan izango da Andia, eta

Jaincoaren Seme icendatuco da, eta eguiaz izango ere da. Emango dio Jaunac Daviden jarlecu, edo tronua. Erregue izango da beti Jacoben echean, eta eche onec, edo beraren erreñuac ez du bucaeraric izango. *Et regni ejus non erit finis.* Daviden jarlecuaren, eta Jacoben echearen icenez aditzera ematen zuan Aingueruac Jesu-Cristoc bere odol preciotsuarequin alchaco zuan Eliza, eta Eliz onetan beti izango zuan aguintea. Erantzun cion Virgiña chit Santac: *Nola* izango da ori, ezpadet nic ezagutzen guizonic, eta garbitasuna gordetzea Jaunari aguindu badiot? *Quomodo fiet istud, quoniam virum non cognosco* ? (c). Orduan esan cion Aingueruac: Nic esan dizudana ez da aditzen guizonaren obraz, eta zure garbitasunaren caltearequin. Espiritu Santua jachico da zugana, eta berac eguingo du Misterio au nai izate utsarequin: *Spiritus Sanctus superveniet in te, et virtus Altissimi obumbrabit tibi.* Zugandic jayoco dan Santua, *Jaungoicoaren Seme* icendatuco da. Orra zure aide Isabel, adiñean aurreratua badago ere, aurdun arquitzen da: anzua dala uste duc, eta alaere sei illabeteco Semea sabelean dauca: jaquin dezazun, ez dala Jaungoicoac ez dezaquean gauzaric: *Quia non erit impossibile apud Deum omne verbum.*

Alaitu zan Virgiña chit Santa Aingueruaren itzoequin. Triñidade gucia beraren baimenaren zai, edo beguira cegoan *Encarnacioco* Misterioa eguiteco: Orregatic S. Bernardoc itzeguiten dio eraonetan: Aditu dezu, Virgiña chit Santa, Aingueruac ecarri dizun mandatua, eta ecusten dezu, zure baimenari ichedoten dagoala; ez arren luzapenic ipiñi. Au escatzen dizue Adanec, eta beraren ondorengoac: au Abrahanec, Davidec, eta zure aurrecoac; au mundu guciac. O! andre gucien artean

ederrena! Itzeguizu, eta aditu dezagun zure otsa. ¿cergatic zaude isilic? Baña itzeguitera dijoa, enzun dezagun cer erantzuten dion Ceruco mandatuari. Ona ni, esaten dio umiltasun andiarequin; ona ni Jaunaren servitzaria; eguin bedi nigan zuc diozuna, eta zuc diozun eran: *Ecce ancilla Domini, fiat mihi secundum verbum tuum.* Ozta aditu zan araco *eguin bedi* ura Mariaren autic, orduan bertan eguiña gueratu zan Encarnacioco Misterio miragarria, Espiritu Santuaren obraz. Misterio au da, Trinidadeco bigarren Persona, Aita beticoaren Seme bacarra Virgiña chit Santaren sabelean guizon eguitea, edo araguiz jancitzea Espiritu Santuaren obraz. Uzten ditut, gueyegui luzatu ez nadin, gañeraco Misterio oni dagozcan gauzac.

Esan zadazu oraiñ Cristaua, certaco artu ditu Jaunac arazo, eta eguiteco oec guciac? Certaco beeratu zan guizonaren jancia artzeraño? Jaungoico Gucialduna aur biurtu zan, eta vicitu Virgiña chit Santaren sabelean! Au gucia eguindu Jaunac, guizona becatuaren mendetic ateratzeco. Orra ceñ gauza gaizto, eta samiña dan guc gure Jaun, eta Jaungoicoa utzitzea, Jeremiasec esaten digun bezala: *Scito, et vide, quia malum, et amarum est reliquisse te Dominum Deum tuum.* Cristaua, eta ezaguturic au gucia, ez ote degu negar eguingo, Jauna aimbeste bider becatuarequin utzi degun bezala utzitzeaz? Eguin dezagun au, nere Cristaua, biur gaitecen gure Aita onagana, onela iristeco gure becatuen barcacioa, eta guero betico vicitza. Amen.

(a) «Peccatum contra Deum commissum quamdam infinitatem habet ex infinitate Divinæ Majestatis; tanto enim offensa est major quanto major est ille, in quem delinquitur.

«Unde oportuit ad condignam satisfactionem, ut actus satis»facientis haberet efficaciam infinitam, utpote et Dei, et ho»minis existens, ait S. Thomas.» Hinc homo purus non po»terat Deo satisfacere de condigno. «Neque per ipsum libe»raremur unum Mediatorem Dei et hominum hominem Chtum »Jesum, nisi esset et Deus, inquit Augustinus in Enchiridio c. »108. Et S. Leo serm. 1 de Nativitate ait: *Nissi esset* verus »Deus non afferret remedium; nisi esset verus homo ; non »præberet exemplum.

Quæritur: an incarnatio esset necessaria ad reparationem hominis? Communis sententia docet, non esse absolute necesariam, quia Deus poterat multis alijs modis reparare hominem v. g. condonando illi injuriam sibi per peccatum illatam, ut persona offensa, et supremus judex; aut acceptando aliqualem hominis satisfactionem. Docet præterea, incarnationem quodammodo fuisse necesariam, quatenus per illam melius, et convenientius facta fuit reparatio generis humani.

(b) Ascendens in altum captivam duxit captivitatem. S. Paulus ad Ephes. 4. In Cælum abiens portas, quæ Adami peccato interclussæ fuerant, patefecit, nobisque viam munivit, qua ad cælestem beatitudinem perveniremus..... quod quidem ut rei etiam eventu aperte comprobaret, piorum animas, quas ab inferis eripuerat, secum in æternæ beatitudinis domicilium intro *duxit*, ait Catechismus Roman.

«Qui ante ejus adventum (Chti.) in hunc mundum vene»runt, quamtamlibet justitiæ virtutem haberent, ex corpo»ribus educti in sinum cælestis Patriæ statim recipi nullo »modo poterant, quia necdum venerat, qui inferni claustra »sua descensione solveret, et justorum animas in perpetua »jam sede collocaret». S. Gregorius Moralium lib. 13 c. 14.

(c) Vide Benedictum XIV in festo Annuntiationis.

AMAIRUGARREN ERACUSALDIA.

Ceñ gauza gaizto, eta samiña dan guc gure Jaun, eta Jaungoicoa becatuagatic utzitzea, ederqui adirazten digüe Jesusec Pasioco demboran igaro cituan neque izugarriac, ala barrengo aldetic, nola campotic. Barrengo nequeac izango dira gaurco Eracusaldiaren gaya.

Dereliquisti Dominum Deum tuum... scito, et vide quia malum, et amarum est, reliquisse te Dominum Deum tuum. Jerem 2.

Utzi dezu, Cristaua, utzi dezu zure Jaun, eta Jaungoicoa, eta ez dezu oraindaño aldeguin nai izan becatutic: etzera biurtu cere Jaun, eta Aita onagana. Jaquizu bada, eta ecusi ezazu gauza gaizto, eta samiña dala, zuc zure Jaun, eta Jaungoicoa utzi izan dezun eran utzitzea. *Scito, et vide, quia malum, et amarum est, reliquisse te Dominum Deum tuum.* Ala esaten digu Jeremias Profetac. Aditu dezu len, nola gure lenengo gurasoac becatuan erori ciran, Paradisuco arbola baten fruta debecatua jaten zuela, eta ceñ ondoren samiñac etorri ciran, eta datocen becatu artatic. Aditu dezu, cer asmatu zuan Jaunaren Ontasun, eta Urriquimentuac, gu Ceruraco bidean berriro ipintzeco, eta zan Trinidadeco bigarren Persona Aita Beticoaren Seme bacarra Cerutic lurrera jachitzea, guizon eguitea, eta Adanen, eta gure becatuen zorra pagatzea ¿Eta gu becatutic ateratzea, eta Ceruraco bidean ipintzea aimbeste costa bacitzayon

Jaunari, ceñ gauza gaizto, eta samiña izango ez da becatua? Ez dezu, becataria, egui au ongui ezagutzen? Atoz bada nerequin, eta beguiraldi bat eman deguiogun, Jesus onac Pasioco demboran gure becatuacgatic igaro cituan nequeai, bada oec arguiro adirazten digüe; cer dan Jauna utzitzea, edo becatuari lecu ematea. Jesusec Pasioco demboran igaro cituan nequeac batzuec dira barrengoac, besteac campocoac: eta barrengoac izango dira gaurco Eracusaldiaren gaya. Asi gaitecen bertatic.

Trinidadeco bigarren Personac edo Aita Beticoaren Seme bacarrac bere gañ artu zuan Adanen, eta gure becatuen zorra; eta demborac bete ciranean jachi zan Cerutic, edo eguin zan guizon Virgiña chit Santaren sabelean Espiritu Santuaren graciaz, azqueneco Eracusaldian aditu cenduen bezala. Arrituric gueratzen da Eliz Ama Santa, beguiratzen duanean, Jaungoico Gucialduna aur biurtu, eta Virgiña chit Santaren Sabelean egon zala, jayo arteco demboran: *Et tu non horruisti Virginis uterum!* Jayo zan, eta oguei, ta amairu urte igaro cituan guizonen artean, Ceruraco bidea eracusten, ala itzez, nola obraz. Alderatu zan, gugatic bere vicitza emateco dembora. Ostegun Santu arratsean eguin zuan Apostoluaquin, legueac aguintzen zuan aparia: gañez eguin cion naigabeac, ecusiric, bere Apostoluetaco batec saldu, eta bere etsayen atzaparretan ipiñico zuala: garbitu ciezten oñac, eta eman cien Aldareco Sacramentu miragarria. Irten zan Jerusalendic Getsemanico baratzara, Pasioco neque izugarriai equitera: eta guri ongui nayez igaro cituan, benicbeñ, bere biotzean; eta au da gaur ecusi bear deguna.

Getsemanico baratzaren sarreran esan cien Apostoluai: *Zaute emen, nic nere Aitari otoiz, edo oracio eguiten diodan bitartean. Sedete hic donec orem.* Sartu zan aurreraseago, S. Pedro, Santiago, eta S. Juan berequin cituala. Bereala asi zan, bere barrengo nequea arindu nayez dabillen baten eran, eta esan cien iru Apostoluai: Illuntasun, eta tristurac inguratua dago nere viotza, alaco eran, non iltzeco zorian nagoala deritzadan: *Tristis est anima mea usque ad mortem.* Zaute zuec emen, baña zaute ernai: *Sustinete hic, et vigilate.*

Badijoa barrenago, eta bere iru Apostoluetatic ez urruti jartzen da auspez lurraren gañean. Ay, nere Cristaua! Norc esan eta norc ezagutu ere, cer nequeac daramazquian Jesusen viotzac une onetatic aurrera! Ecusten ditu bere animaco beguien aurrean munduaren asieratic orduraño eguin ciran, eta munduaren azqueneraño eguingo ciran becatu guciac. Ecusten du gucien, eta bacoitzaren itsustasuna, eta guciac bere gañean dauzcala. Nastu, eta asaldatu cion barren gucia becatuen pilla izugarri onec, edo Davidec deitzen dion bezala becatuen ujolac: *Torrentes iniquitatis conturbaverunt me* (a). Ecusten du Juduen arteco Jaunac, eta Judas, gorrotoaren sua dariezala, ceñ ernai dabiltzen armadunen billa Jesus artzeco: Inguratu naue cecen sendo, edo guicenac: *tauri pingues obsederunt me*: Nigana datoz, beren autzarrac zabalduric, eta leoi baten eran orroaz izutu nai ditue bazter guciac: *Aperuerunt super me os suum* (b), *sicut leo... rugiens.* Ecusten du, Judas doacabea, bere mayean aimbeste demboran iduqui, eta bere Apostolu eguin duan guizona, gogortu dala becatuan, eta lenago urcatuco duala bere burua, ecen ez utzi bere becatua. Ecusten du, Juduac, Salvatzallearen ichedoten, eta Jaunari osca vicitu baciran

ere, banacaren batzuez campora, gañeracoac ez duela beren Mesias, edo Salvatzalletzat ezagutu nai izan: eta itsumen onetan iraungo duela munduaren azqueneco demboretaraño. Ecusten ditu, Virgiña chit Santaren, Martiri, eta anima onen neque, eta naigabeac. Ecusten du, gure animen oneraco utzico cituan Sacramentuac biurtuco guinduala gure animen puzoi, eta Sacramentu miragarri orretan ecusi bearra zala bidegabe guciz itsusiac, ez Judu, herege, eta fedegabeen aldetic bacarric, baita Cristauetatic ere. Ecusten du, gu Ceruraco bidean ipiñi nayez, aimbeste neque, eta gurutzeco eriotza igaro arren, guchi Ceruraco cirala: eta au zan naigabe gucien artean samiñena, eta izugarriena.

Nola gueratuco zan Jesusen viotza, aimbeste gauz izugarri icusi ondoan? Ay! Jaungoico gucialduna bazan ere, guizona zan bezambat icaratu zan: *Cæpit pavere*. Inguratu zuan berriro illuntasun, edo tristura andi batec: *Cæpit contristari*. Len Pasioco neque, eta oñace guciac egarri andi batequin nai cituan eta atseguin andia artu zuan alderatu zanean dembora: *Desiderio desideravi*; baña oraiñ ecin gogoan sartu zayo Pasioco caliza: *Cæpit tædere*. Neque izugarri onetan nori deituco dio? Deituco ote dio bere Jaungoicotasunari? Baña Jaungoicotasunac utzico du bere nequean, ceren bere gañ artu zuan gure becatuen zorra, eta oni eranzun bear dion. Onetan eguin zuan Jaungoicotasunac mirari andi bat; Jesusen guizatasunac alabaña, Jaincotasunarequin bat eguiña cegoanac bezala, berez ecin ecusi cezaquean onelaco beldur, illuntasun, eta nequeric, baña neque oen artean utzi zuan Jaincotasunac gure becatuen zorra atera cezan ¿Nori deituco dio bada Jesus onac, neque oec arintzeco? Deituco ote die Apostoluai? Deitu cien beñ, ta berriz, baña lo ceuden, eta esnatuta ere

arrituric, eta cer esan etziaquiela gueratu ciran. Beguiratu nuan, dio Daviden autic; beguiratu nuan alde gucietara, eta etzan neretzat laguntzalleric: *Circunspexi, et non erat auxiliator*: ez nuan arquitu nere nequea arindu nai zuanic: *Sustinui, qui consolaretur, et non inveni* (c).

Ecusiric Jesus onac bere burua estutasun onetan asi zan bere Aitari otoiz edo oracio eguiten, eta eguin zuan iru aldiz. Nere Aita, esaten dio; *Pater*: albada igaro bedi Pasioco caliz samiñ au nic edan gabe: *Si posibile est, transeat á me calix iste*: baña eguin bedi, ez nere guizatasunac berez nai luquean eran, baicic zuc nai dezuna, eta zuc nai dezun bezala: *Verumtamen non sicut ego volo, sed sicut tu*. Etzion Aitac bere erregua aditu, pasioco caliza ez igarotzea escatzen zuan aldetic. Jarri zan bigarren aldian lengo erregua bera eguiten; estutzen, eta necatzen zuan alabaña bere viotzeco illuntasun, eta tristura izugarriac; baña etzion Aitac aditu bigarren erregua ere. Jarri zan irugarren aldian, eta luzaro egon zan Aitari erregutzen. Aita nerea, esaten dio: *Pater*: albada, igaro bedi Pasioco caliza samiñ au, nic edangabe: baña eguin bedi, ez nic nai dedan eran, baicic zuc nai dezun bezala. Aimbesteraño eracequi citzayon Jesusen viotzari Jaunaren, eta gugaraco amorioan, non gueratu zan arguizagui urtua bezala, Davidec dionez: *Factum est cor meum tanquam cera liquescens*. Cer gueyago? burutic oñetaraño jarri zan odolezco icerditan: *Et factus est sudor ejus, sicut guttæ sanguinis decurrentis in terram* (Lucæ 22). Iltzeco zori, edo agonian jarri zan; orduan Aitac bidaldu cion Aingueru bat, arindu cion bere nequea, eta alaitu zuan Pasioco neque izugarriac igarotzeco.

Ecusten dezu, Critaua, cer nequeac igaro cituan

Universidad de Deusto
Biblioteca

Jesusen viotzac Adanen, eta gure becatuen zorrac ateratzeco? viotzetic joyotzen dira becatu-mota guciac: eta Jesusec bere viotzean igaro nai izan cituan lenengo lecuan becatu-mota guciai dagozten nequeac: eta esan diteque, Jesusen barrengo nequeac andagoac, eta gueyago izan cirala campotic igaro cituanac baño.

Atozea oraiñ becataria: au onela izanic, ceñ gauza gaizto, eta samiña izango ez da guc gure Jauna utzitzea, eta beraren contra becatu eguitea? Eta ez ote cera oraiñ ere biurtuco zure Aita onagana? Ea, erabaqui dezagun noizbait venaz, becatutic betico aldeguitea, eta vici gaitecen Jesusen legue Santac eracusten digun eran. Onela iristsico degu betico vicitza. Amen.

(a) Psalm. 17.
(b) Circumdederunt me vituli multi, tauri pingues obsederunt me. Aperuerunt super me os suum, sicut leo rapiens, et rugiens. Psalm. 21.
(c) Vide psalm. 68 et Isaiam c. 63 v. 5.

AMALAUGARREN ERACUSALDIA.

Ceñ gauza gaizto, eta samiña dan guc gure Jaun, eta Jaungoicoa utzitzea, ederqui adirazten digüe Jesusen Pasioco neque-oñaceac, ala barrendic, nola campotic igaro cituanac. Barrengoen gañean itzeguin zan azqueneco aldian; eta gaurco Eracusaldian izango dira campotic igaro cituanac.

Dereliquisti Dominum Deum tuum.....Scito, et vide, quia malum, et amarum est, reliquisse te Dominum Deum tuum. Jeremiæ 2.

Utzi dezu becataria, zure Jaun, eta Jaungoicoa, eta etzera biurtu beragana. Jaquizu bada, esaten dizu Jeremiasec; jaquizu, eta ecusi ezazu, gauza gaizto, eta samiña dala zuc zure Jaun, eta Jaungoicoa utzi izan dezun eran utzitzea: *Scito, et vide, quia malum, et amarum est reliquisse te Dominum Deum tuum.* Eguia au azaltzeco, azqueneco aldian itzeguin nizun, Cristaua, Jesus onac Getsemanico baratzan bere viotzean igaro cituan neque izugarrien gañean: gaur itzeguin bear dizut campotic igaro cituanen gañean, baña ez det uquitzea besteric eguingo; ceren, dagoten eran adirazteco guciac urte gucia ere guchi izango lizaquean. Asi gaitecen bertatic.

Getsemanico baratzan Jesus ona, bere Aitari otoiz, edo oracio eguiten egon zan demboran, izutu zan

ecusiric bere animaren beguien aurrean gure esquergabequeri, ta becatuac. Illuntasun, eta tristuraz bete zan ezaguturic alperrac izango cirala gueyenentzat beraren nequeac, eta gurutzeco eriotza. Cer prochu ateraco det, dio Daviden autic, nere vicitza ematearequin, ezpaditue becatariac utzi nai becatua, eta becatuaren bideac? *Quæ utilitas in sanguine meo?* (psalm. 29). Barrengo neque oequin estutu zan Jesusen viotza tolareco ardazpean dagoan matsa bezala: jarri zan odolezco icerditan, eta illa zan, bere Aitac bidaldu zion Aingueruac alaitu ezpalu. Alaere zu becataria, etzera batere bigüindu, eta zure viotz gogor ori becatuari itsatsia arquitzen da. Dacuscun bada, Jesusec campotic igaro cituan nequeaquin gozatzen ote dan, bere Aita onagana biurtzeco.

Bucaturic Getsemanico otoiz, edo oracioa, alcha zan Jesus auspez cegoan toquitic eta esnatu cituan Apostoluac. An zan bereala Judas armaz, eta soldaduz ongui prestatua, eta adisquidearen idurian saldu zuan bere Maisua, eta eman cien Juduai. Itsasi cioen oec, eizari atzaparra egozteco zai dagoan, leoi baten eran, dio Davidec: *Sicut leo paratus ad prædam.*

Lotu, eta eraman zuen Jesus Jerusalena, eta erabilli zuen echez eche, eta calez cale. Igues eguin zuen Apostoluac; iru bider ucatu zuan S. Pedroc: eta Judas doacabeac, ezaguturic bere gaizqui eguiña, urcatu zuan bere burua. Eraman zuen Anasen echera; andic Caifas Apaiz nagusiaren aurrera. Bildu zan Juduen batzarre andia, eta blasfemaritzat eman zuen. Eriotzaren pana dagoca, deadar eguiten zuen: *Reus est mortis.* Arrats artan utzi zuen an cebillen gende char-circillaren mendean, eta Jesusec berac baicic eztaqui nolaco bidegabeac ecusi cituan. Eguin cioen istuca bere aurpeguira: estali ciozqueen beguiac zatar batequin, eta asi citzaizcan masallecoca, esaten cioela: ea, Cristo, asma ezazu, norc jo zaituan: *Profetiza nobis Christe, quis te percussit.* Norc sinis cezaquean, Aita beticoaren Seme eta Jaungoico eguiazcoac ecusi citzaqueala bide gabe oec? Etzan erraz, baña au gucia bear zan guri adirazteco, ceñ gauza gaizto, eta samiña dan becatua. Bigaramon goicean bildu ciran Judu Jaunac, eta bidaldu cioen Jesus Pilatosi, gurutzean illerazo cezan. Etzuan arquitu onetaraco bideric batere; bidaldu cion Herodesi, eta onec eman zuan zorotzat Jesus, Aita Beticoaren Jaquiundea bazan ere. Baña etzan Juduen amorrua onembesterequin itzali. Erriac alchatzen ditu, deadar eguiten zuen: eta bere burua erregue eguin nayez dabill; baña etzuen aleguin guciaquin ere arquitu guezur oen testiguric, eta iguerri zuan ere.

Iguerri zuan Pilatosec, bidegabe cebiltzala Juduac Jesusen contra. Orregatic etzuquean bere burua ciquindu nai oben, edo culparic etzuan Jesus guizonaren eriotzarequin. Pazcoaco demboran atera oi zuan carcelan ceudenetatic bat, eta cegoan Barrabas ceritzan guizon gaizto, ta erallea. Esan cien Juduai: ea, Jaunac ordago carcelan Barrabas, eta emen dago Jesus: auquera ematen dizuet, eta bietatic zuec nai dezuena utzico dizuet libre. ¿Ceñ nai dezue? Uste zuan Pilatosec, etzuela autuco guizon gaizto, eta eralle bat, nola zan Barrabas; baña engañatu zan; bada Juduac deadarca eranzun cioen, etzuela nai Jesus, baicic Barrabas: *Non hunc sed Barabbam.* Asma ditequе bidegabe itsusiagoric? Ecusiric, etzuala ecer atera lenengo bide onetatic, gogoac eman cion Jesus azotatzea, onela bederic guchitu, edo itzali cedin Judu gogorren gorrotoa: eta ala a-

guindu cien bere soldadu batzuei (a). Quentzen diozque soñecoac, eta larru gorrian lotzen dioe coloma bati (b) eta ceatzen due gogortasun andiarequin. Atozea becatari gogor-esquergabea ¿ ez ote da zure viotz ori biurtuco bere Aita onagana ? Guisa onetan zaurituric iduqui nai dezu zure Salvatzallea ? Ez digu Escritura Santac esaten, cembat azote eman ciozqueen ; eta nola nic esan al dezaquet ? Nic esan dezaquedana da, legue zarrean debecatu zuala Jaunac, berroguei azote baño gueyago iñori ematea (Deutero. 25); baña Jesusen borreroac etziran Juduen leguecoac, eta eguingo zuen gogoac ematen ciena. Ascoren iritzian bost milla azote baño gueyago eman ciozqueen, eta nolanai, eciñ ucatu diteque gogortasun andiarequin urratu zuela Jesusen gorputza. Contatu ditue, dio Daviden autic, nere ezur guciac : *Dinumeraverunt omnia ossa mea* (psalm. 21). (c). Etziran onetan gueratu Jesusen borreroac : aditu zuen, Juduen erregue eguin nai izan zuala bere burua, eta emendic artu zuen bidea Jesusi iseca, eta bidegabe guciz itsusiac eguiteco : quendu ciozqueen soñecoac, ipiñi cioen soñeco gorri bat, eta escuetan cañabera, Erregueren anz, edo iduria emateco : ezarri cioen buruan aranzazco coroa : eta asi ciran istuca beraren aurpeguira : belaunico aurrean jarri, eta esaten cioen: Agur Juduen Erreguea : *Ave Rex Judœorum*. Neque oen gucien ondoren Pilatosec ipiñi zuan Jesus Juduac ongui ecusi cezaqueen toqui batean, eta esan cien : *Ecce homo* : esaten bacien bezala : beguira, Jaunac, guizon urricalgarri oni : Erregue izan nai bazuan, zuec diozuen bezala, ecusi ezazue, nolaco Erregue izan ditequean, eta nola dagoan gucia urratua, eta zauri bat eguiña: baderitzat, apendu ceratela asco adiña, eta utzico dio-

zuela onembesterequin. *Ecce homo* (c). Engañatu zan Pilatos, bada Juduac amorru andiarequin deadar eguiten zuen, ill bearra zala Legueac aguintzen zuan bezala: *Secundum legem debet mori*. Beldurtu zan Pilatos, Emperadorearequicoa galerazo ceguioen: eta beldur onequin, garbitu cituan escuac, eta eman zuan Jesus gurutzean illerazteco sentencia (d). Cer diozu oraiñ zuc, becatari sor, eta gorra? *Ecce homo* esaten dizu Elizac: Beguira Jesus onari pauso onetan: ori da guizona ezecic Jaungoico eguiazcoa, eta Erregue gucien Erreguea : ori da, zu Ceruraco bidean ipintzeco guizon eguin zana, eta zugatic neque oec guciac igaro dituana. Beguira, nolacoa utzi duen gure becatuac: gucia zauri eguiña dago: *vulneratus est propter iniquitates nostras* (e): eta ez dauca guizonaren ancic. *Non erat aspectus*: ez ote da viotz ori Jesus necatzez ase?

Ipiñi cioen gurutzea bizcarrean Salvatzalleari. Asi zan Calvarioco bidean; baño nola joan citequean, baldin alde aldean odol ustua bacegoan? Beldurtu ciran Juduac, Calvariora baño len ill cequien, eta laguntzat eman cioen Simon ceritzan guizon bat (f). Igo zan noizbait Calvariora: quentzen diozquee soñecoac, eta uzten due mundu guciaren aurrean era chit lotsagarrian (g). Iltzez josten diozquee bere escu, eta oñac gurutzean (h), eta ipintzen due gurutzea zutic. Aguertu zan Munduaren Salvatzallea airean lapur biren erdian. Iru ordu bezala igaro cituan viciric gurutzean, oñacez inguratua alde gucietatic. Orregatic deitzen dio Isayasec: Oñacezco guizona: *virum dolorum*. Dembora onetan erregutu cion Aitari, barca ceguiela neque aetan ipiñi zuen etsayai, ceren etziaquien ongui, cer eguiten zuen. Aguindu cion lapur onduari Paradisua (h). Beguiratu cion bere Ama maitagarriari, eta bere ordez utzi cion Semetzat S. Juan;

beguiratu cion S. Juani, eta utzi cion Amatzat Virgiña chit Santa. Aguertu cion Aitari bere neque izugarria. Aditzera eman zuan egarri andi bat, eta eman cioen ozpiña (i). Biurtu zan bere Aitagana, eta esan cion: bucatu dira Profetac nere gañean aditzera eman cituen nequeac: *Consummatum est.* Eguin zuan ots andi bat, esaten zuala: Aita nerea, zure escuetan uzten det nere vicitza, eta anima: *Pater in manus tuas commendo spiritum meum*: Onela ill zan Munduaren Salvatzallea, gure Aita, eta Onguille ecin Onguilleagoa.

Ecusten dezu, becataria, cer costa zayon Jesus onari Adanen gure becatuen zorra? Ecusten dezu, ceñ gauza gaizto, eta samiña dan guc gure Jaungoicoa utzitzea, eta becatuari lecu ematea? Eta au gucia ecusita ere etzera viotz osos biurtuco zure Aita onagana? Ez ote dezu negar eguingo zure vicitza lotsagarri orren gañean? Jesus gurutzean cegoan demboran gauza guciac aguertu zuen beren eran naigabe andia. Janci zan Cerua beltzez, ucatzen cituala eguzquiac bere argui ederrac: lurra asi zan dardaraca: obiac lecu ascotan berenez idiquiac gueratu ciran, eta arriac ere erdiratu ciran. Eta zu, becataria arriac baño gogorragoa izango ote cera? Biur zaite, becataria, biur zaite zure Jesus onagana: barcatuco dizu oraindañocoa, eta vici zaite beraren legue Santac eracusten dizun bezala. Onela iritsico dezu betico vicitza doatsua. Amen.

(a) Chtum ad columnam alligatum flagellatum fuisse vetustissima est traditio. Vide Benedictum XIV in opere de festis lib. 1 cap. 7 á n.º 50.

An jusserit Pilatus, Jessum flagellari? an ipse flagellaverit? Nudumne omnino? Vide eumdem.

(b) Vide Benedictum. XIV in lib. citato c. 7 á n.º 54.
(c) Vide eumdem á n.º 60.
[d] Vide eumdem n.º 61.
[e] Isaiæ 53.
[f] Jesus, cruce humeris sublata, aliquantum confecit itineris, ac fortase ad urbis portam pervenit, sed cum innumeris plagis, et cruciatibus affectum vires deficerent, narrant Math. c. 27. Marcus c. 15 et Lucas c. 23 redeunti é villa Simoni Cyrenæo impositam crucem. Hic quæritur, an solus Simon ad Calvarium portaverit crucem, exonerato Chto? Alij cum Cajetano existimant, Simonem portasse partem crucis á tergo Chti, et ita depingere solent pictores Simonem. Alij vero cum Hieronymo, et Augustino docent, solum Simonem portasse crucem. Vide Benedictum XIV loco citato n. 62.
[g] Vide eumdem n.º 88. De forma crucis, de Suppedaneo &. Vide eumdem.
[h] Vide eumdem n.º 99.
[i] Vide eumdem á n.º 104.



Universidad de Deusto
Biblioteca

AMABOSTGARREN ERACUSALDIA.

Becatuac berequin ecarri oi dituan ondoren gaiztoen artean, lenengoetatic izan oi da becatuan erortzeco oitura, eta onen gañean izango da Eracusaldi au.

Adirazten da lenengo lecuan, ceñ minanze gaiztoa dan becatuan erorteco erraztasuna, edo oitura.

Adirazten da urrena, nolaco arreta ipiñi bear duan becatariac miñanz onetan ez erortzeco.

Dereliquisti Dominum Deum tuum... Scito et vide, quia malum, et amarum est reliquisse te Dominum Deum tuum. Jerem. 2.

Utzi dezu; Cristaua, zure Jaun, eta Jaungoicoa, eta beraren ontasun baztergabea era ascotara adiraci bazatzu ere, etzera beraganonz asi, eta ala asi bearrean, gueroago eta sorrago zaudela, dirudi. Gauza bearra da beraz Eracusaldiac garraztutzea, eta samintzea cerbait: Orregatic equitera noa, becatuac berequin ecarri oi dituan, ondoren samiñai. Oen artean lenengoa bezala da becatuan erortzeco erraztasuna, eta oitura: eta au izango da gaurco itzaldiaren gaya. Aditzera emango det lenengo lecuan: ceñ miñance gaiztoa dan becatuan erortzeco erraztasuna, eta oitura. Urrena, nolaco arreta ipiñi bear duan batez ere gazteac miñanz onetan ez erorteco. Enzun, becataria, gaitz onetatic aldeguiteco gogo, eta asmo sendo batequin.

Becatuan erorteco oituraren icenez ez degu aditzen becatuan nolanai erortzea; baicic sarritan erroriaz batec bere buruari erantsitzen dion griña gaiztoa. Asitzen da urlia juramentuac guezurraren gañean eguiten; sandia, birauac lagun urcoari botatzen; berendia ordiquerietan. Asitzen da urlia atseguiñ lizunetan bere buruarequin, edo besterequin; sandia beste becaturen batean: lenengo becatu oec ez dira oitura; baña baldin becatariac jarraitzen badio asi duan lan gaiztoari, eta sarritan erortzen bada, laster erantsico dio bere buruari becatuan erortzeco erraztasun, eta oitura. Ascotan guertatzen da Confesoreac galdetzea becatariari, len izan ote duan becatu onetan, edo artan erortzeco oitura? eta orduan aitortu bear da, dana dan bezala (a); eta naiz galde dezala, naiz ez, baldin oraingo becatu orietan erortzeco oitura izan badezu; eta deseguin, edo garaitu gabea bada, esan bear diozu confesoreari: *Jauna becatu onetan erori naiz onembeste bider azqueneco confesiotic oraindaño; eta lenagotic det becatu au eguiteco oitura, ongui garaitu gabea* (b). Beguira dezagun oraiñ, nolaco miñancea dan oitura au.

Becatuan erortzeco oitura da, batec bere buruari erantsitzen dion, griña bat, berez, eta sortzetic berlatic dituan griñen ancecoa, S. Agustiñec dion bezala: *Quasi secunda et affabricata natura.* Emendic dator oitura gaiztoa becatariari utzierazteco nequea. Otsoac berez dacar ardietaraco, azariac olloetaraco, eta arranoac sarraisquiaganaco griña, eta nequez galerazoco zate au: eta onen ancecoa da oitura gaiztoa.

Becatuan erortzeco oitura, batezere zarra bada, da miñance bat eciñ sendatu ditequeana. Sendatu liteque, baldin Jaunaren lagunzareqnin eguingo balu becatariac eguin lezaqueana; baña ez oi du izan viot-

Universidad de Deusto
Biblioteca

zic onetaraco. Asico da bearbada Confesioco Sacramentua sarritan artzen, eta aspertzen da bereala: asico da lagun gaiztoetatic aldeguiten, eta ecin dago aetara joan gabe, eta biurtzen da leneco becatuetara. Ala egun oro ecusten da birauac botatzeco, juramentu guezurrezcoac eguiteco, ordiqueriaraco, queñada, eta uquiera lotsagarriac eguiteco, itz desonestoac esateco oitura zarra duenaquin. Orregatic esaten digu Jaunac Escritura Santan: Etiopiaco beltz bat zuritzen danean, eta catamotzac uzten dituanean bere nabardurac, edo manchac, utzico dituzue zuec ere artu dituzuen aztura, edo oitura charrac: *Si Æthiops mutare potest pellem suam, et pardus varietates suas, et vos poteritis bené facere, dum didiceritis malum* (c).

Becatuan erortzeco oitura da miñance bat, anima uzten duana itsua, sorra, eta gorra. Aditzen, edo iracurtzen badu cerbait, becatuac berequin dacartzian, betico su, eta garren gañean, bereala itzutzen ditu animaren beguiac, agradatzen zaizcan gaucetara. Aditzen baditu, Jaunac bere adisquide, eta servitzarientzat prestaturic dauzcan, atseguin-contentuac; gueratzen da Indietaco ondasunen berriac adituco balitu bezala, eceren uste, edo esperanza gabe. Onela vici da bere oitura gaiztoan oatua bezala, eta ez du vicitza ontzeco neurriric artzen.

Becatuan erortzeco oitura da miñance bat becatariaren viotza gogortzen duana, mallucaria ari zayon ingudea gogortzen dan eran. Bidaltzen badiozca Jaunac nequeren batzuec, centza dediñ, Jaunagana biurtu bearrean, emendic artzen du bidea, birau, eta beste becatu berriac eguiteco. Orregatic onelaco becatariaz itzeguiten duala, Jaunari esaten dio Jeremiasec: Jo dituzu eta ez due beren gaiztaquerien damuric artu: *Percusisti eos, et non doluerunt*: ceatu dituzu, eta

ez due vicitza ontzeco neurriric artu nai izan: *Attrivisti eos, et renuerunt accipere disciplinam* (Jerem 5). Baldiñ gurasoac, edo arzayac cerbait esaten badio, utzi ditzan lagun, eta eche gaiztoac, eranzungo du: *ecusi nai ez naue cembaitec, eta oetacoren bat izango zan berri oen ecarlea: embidia da gucia, eta eztanda eguingo badue ere, miñ onequin egon bearrac dira.* Ez da batere lotsatzen bere vicitza gaiztoaz, eta lotsatu bearrean, emacume guizacoyaren aurpeguia eracusten du, Jeremiasec dion bezala: *Frons mulieris meretricis facta est tibi* (cap. 3). Guertatzen da onelaco becatariarequin buztiñari eguzquiarequin guertatzen zayona: atera bitez eguzquitara arguizaguia, eta buztiña: bidaltzen diezte eguzquiac bere berotasuna, eta argui ederrac: arguizaguia gozatzen, eta bigüintzen da; baña buztiña? elcortzen, eta gogortzen da: eta ona becatuaren oitura gaiztoan dagoanarequin guertatzen dana: ascó Jaunaren Itza adituaz, Sacramentuac artuaz, eta Jaunac bidaltzen diezten nequeaquin bigüintzen, eta venaz sartzen dira Ceruraco bidean; baña becatuaren oitura zarrean vici dana gueroago eta elcorrago eguiten da, ala Jaunaren Itzarequin, eta Sacramentuaquin, nola emengo neque, eta gurutzeaquin.

Becatuaren oitura da minance bat, becatuen neurriaz campora amilderazo oi duana anima gaisôa. Au zuc ezagutzeco, jaquizu, gure Jaunac gauza guciai ipiñi diela beren neurria, Espiritu Santuac esaten digun bezala: *Omnia in mensura, et numero, et pondere disposuisti.* (Sap. 11). Emendic marcatua dago Jaunagan, gutatic bacoitzari barcatuco diozcan becatuen neurria. Iru becatu barcatuco dieztet Damascoarrai, cion Jaunac Amos Profetaren autic; baña lautara igarotzen badira, ez diet barcatuco: *Super tribus sceleribus Damasci, et super quatuor non*

convertam (Amos c. 1) Jaquizu gañera, neurriaz campora eguiten dan becatu ura dala zauri bat beñere ongui sendatuco ez dana, eta garranga bat beti-co eriotzaren puzoya berequin duana: eta garranga au irinsi duana arquitzen da betico su, eta garren arteraco prestatua. Atozea oraiñ, Cristaua, becatuaren oituran vici dana ez dijoa eyaca, edo lasterca bezala becatuen neurri, eta muga igarotzera? Atozea, eta alaere etzera esnatzen, becatutic aldeguiteco, eta Jaunagana biurtzeco?

Becatuaren oitura da atzenean miñance bat, beartzen duana Jesu-Cristo, uztera becataria bere gura charren mendean, eta beragandic betico aldeguitera: banoa ni, esan cien Juduai, banoa ni, eta nere billa ibillico cerate, baña alperric: illco cerate ceren becatuan: *Ego vado, et quæretis me, et in peccato vestro moriemini* (Joan 8). Au bera esango dio Jesu-Cristoc becatariari, becatuen mugatic igarotzen danean. Ay! esquergabea! esango dio, Ceruraco eguin cindudan, eta eguin det aimbeste aleguiña, araco bidean zu ipintzeco. Eguin nintzan guizon, eman nuan gurutzean nere vicitza: ipiñi nituan Sacramentuac, eta gueratu ninzan Aldareco Sacramentuan, zuri emateco nere ondasun guciac, eta zu guiatzeco Cerura. Baña gucia izanda zuretzat alperra. Deitu dizut, eta ez dezu aditu nai izan nere deya: guera zaite bada zure griña, eta oitura gaiztoen mendean: banoa ni zugandic betico: *Ego vado.* Ordutanic aldeguingo du becatariagandic Aingueru goardacoac: aldeguingo du Virgiña chit Santac, eta gueratuco da doacabea Ceruco inz, eta euri gozoac uquitzen ez duan ur elcorra bezala, eta illco da becatuaren oitura gaiztoen atzaparretan. Badira itsasoac neguan ormatzen,edo gelatzen diranac: orduan ango arrayac daude sortuac; eta illac bezala; baña andic aterata surtan

ipintzen dituenean, esnatzen dira. Arrai oen eran sortua bezala vici oi da becataria oitura gaiztoaquin; baña emengo itsaso onetatic irteten, eta su, eta garren artean bere burua dacusanean, esnatuco da doacabea.

Ecusten dezu becataria, nolaco minancea dan becatuan erortzeco oitura? Minanz onetan erorico cera, ezpacera esnatzen becatutic irteteco, eta cere Aita onagana biurtzeco; becatuac alabaña, ezpada viotzetic ayenatzen damu eguiazcoarequin, bere cargarequin amilderazten du becataria beste becatuetan, S. Gregorioc dion bezala: *Peccatum, quod pœnitentia non deletur, mox suo pondere aliud trahit.* Onela becatua becatuari eransiaz erortzen da oitura gaiztoaren miñancean.

Cer eguin bear ote du bada gazteac miñanz onetan ez erortzeco? Eguin bear duan lenengo gauza da lembait len bere Jaunagana biurtzea: ala eguin zuan seme ondatzalleac: joan zan bere Aita onagana, eta esan cion damu andiarequin: Aita eguindet becatu zure aurrean, eta zure contra: ez naiz zure semearen icenarequin onratua izateco diña. Ala eguin zuan Magdalenac ere. Becatariac eguin bear duan bigarren gauza da, becaturaco bide, eta perilletatic, eche, eta lagun gaiztoetatic aldeguitea; bestela becatuaren berrizcaturan, eta oitura gaiztoaren miñancean erorico da. Irugarrena da vicitza eder, garbi bati jarraitzea, Sacramentuac sarritan artzen dirala. Era onetan vici zaitezque becataria oitura gaiztoan erori gabe: gazteac alabaña, gazte dala, artzen duan bidea ez du zartzen danean ere utzico, dio Espiritu Santuac: *Adolescens juxta viam suam, etiam cum senuerit, non recedet ab ea* (Prov. 22). Jauna, esango dit norbai-

tec: berorrec dion au gncia ongui dator, becatuen oituran osotoro sartu ez diranentzat; baña ni oitura onetan vici naiz aspaldico urteetan ¿ez ote da neretzat miñanz onetatic irteteco sendagairic? Bai, eta ascó, ta onac, eta zuc leyalqui artzen badituzu, sendatuco cera: baña ez ditu artu nai oitura zarra duanac sendagai egoquiac, eta berequin darama obira oitura gaiztoaren lorra. Nai dituzu zuc sendagai egoquiac artu? Zoaz bada Confesore on bategana, eta eguizu arretaz esaten dizun gucia, eta sendatuco cera. Au da S. Bernardoc ematen dizun, sendagaya. Eguin dezagun, nere Cristauac, dembora degun bitartean aleguiña becatutic aldeguiteco, eta Jaunaren gracian irauteco: onela iritsico degu betico vicitza. Amen.

(a) Vide prop. 58 damnatam ab Innocentio XI

(b) Videndum, an consuetudo antiqua relicta fuit? Tunc enim non tenetur recidivus illam confiteri, quia nova peccata non censentur orta ab illa, sed ab alia causa. Idem dicendum, si nova peccata oriantur ab aliqua extraordinaria causa, occasione, aut tentatione.

(c) Jerem. 13. Vide quæ post institutiones sequentes de occasione proxima advertuntur.

AMASEIGARREN ERACUSALDIA.

Becatuac berequin ecarri oi dituan ondoren gaiztoen artean bigarrena izan oi da lagun urcoai becaturaco bidea, edo escandaloa ematea. Eta becatu au izango da gaurco Eracusaldiaren gaya.

Adirazten da lenengo lecuan, cer dan, eta ceñ izugarria escandaloa diritzan becatua.

Adirazten da urrena, cer eguin bear degun, Jaunagandic becatu onen barcacioa iristeco.

Dereliquisti Dominum Deum tuum....Scito, et vide, quia malum, et amarum est, reliquisse te Dominum Deum tuum. Jeremiæ 2.

Utzi dezu becataria, zure Jaun, eta Jaungoicoa, eta ez dezu beragana biurtzeco neurriric artu nai. Jaquizu bada, esaten dizu Jeremiasec; jaquizu, eta ecusi ezazu, gauza samiña dala zuc zure Jaungoicoa utzi izan dezun eran utzitzea: *Scito, et vide, quia malum, et amarum est reliquisse te Dominum Deum tuum.* Amaicagarren Eracusaldia da gaurcoa gai onen gañean: eta azquenecoan aditu cenduan, nola, becatuac ecarri oi dituan, ondoren gaiztoetatic lenengoa bezala dan becatuan erortzeco erraztasuna, eta oitura, eta ceñ miñance gaiztoa dan au. Aditu cenduan gañera, nolaco arreta ipiñi bear dan minanz onetan ez erortzeco; baña au da gauza bat, becatari guchic eguin nai duena, eta asco erori oi dira oitura gaiztoetan. Gaitzerdi litzaque bere burua galtzearequin

gueratuco baliz becataria, baña guertatzen dana da beste ascori ematea becaturaco bidea, edo escandaloa: eta au da becatuaren beste ondoren gaizto, eta samiña. Onen gañean izango da gaurco Eracusaldia. Aditzera emango det lenengo lecuan, cer eta ceñ izugarria dan, *escandaloa* deritzan becatua. Urrena, cer eguin bear degun, becatu onen barcacioa Jaunagandic iristeco. Asi gaitecen bertatic.

Escandaloa deritzan becatua da lagun urcoari becaturaco *bidea, oña, edo lagunza ematea:* becatu larriraco bidea ematen bada, escandaloa ere izango da larria, bestela izango da veniala. Baña beguira, becatu larri, edo mortala eguin diteque, obraz ezecic, itzez, eta gogoz ere.

Guerta diteque batec lagun urcoari gaitzeraco bideric ez ematea, eta arc bere gaiztaqueriaz bidea artzea ; eta oni deitzen zayo *Fariseoen escandaloa;* oec alabaña Jesusen obra onetatic artzen zuen gorrotoraco bidea. Ez da onelaco escandaloaren beldurrez utzi bear eguin bear dana. Guerta diteque gañera, batec lagun urcoari becaturaco bideric ez ematea, eta alaere arc artzea, ez gaiztaqueriaz, baicic argaltasunez, edo sasoi charrean dagoalaco. Escandalo au icendatzen da argalena. Emacume, edo guizon bat dagocan eran jancita Elizara etortzea gauz ona da, eta berez ez dio iñori becaturaco bideric ematen: alaere artu lezaque bide au urliac, edo sandiac bere argaltasunez. Escandalo onen gañean gueyenac eracusten digüena da oraiñ esatera noana. Elizara etortzea, naiz jai eguna izan, naiz ez, utzi diteque, eta utzi bear da, urlia, edo sandiarentzat becatuan erortzeco perill andia danean: utzi bear da diot iñoiz, edo berriz: ez ordea ascotan: ceren ascotan utzitzea izango lizaque neque andieguia. Au bera diot beste gauz onac, edo becatu ez diranac eguitearen gañean (a).

Becaturaco bidea, batzuetan ematen da, becatu eraguiteco asmoric gabe. Au guertatzen da, esaten, edo eguiten bada, lagun urcoarentzat becaturaco perill andia ecarrico duan gauzaren bat. Ala guertatu oi da itz loi-desonestoac esateco oitura duenaquin: *dembora igarotzeco unore onean, esaten dituela,* darauste onelacoac; baña ez dira ontzat emango Jaunaren aurrean aitzaquia oec. Atozea, unore ona igarotzeco da lagun urcoari becatuaren puzoya prestatzea? Unore ona igarotzea da gazteai becaturaco modu ac eracustea? Españaco legue batec aguintzen du, ez dedilla, ez gauaz, ez egunaz esan, edo cantatu izt desonestoric: eta legue au autsitzen duanaren castigua da eun azote, eta urte betean erritic campoan vicitzea. Legue au gordeco baliz, cembatec vici bearco luque basoetan mosalaquin? Eta cer esango degu, queñada lotsagarriac eguiteco oitura duenaz? Añ lasavac, eta aberequiac dira cembait, non, obrazco becatuaz osteronceco guciac, ecertan artzen ez dituen: *ez det Jauna ecer seigarrengoan,* esango due. Atozea, eta ez ote dira izan queñada lotsagarriac, eta araguien izendatzea? Ez ote dira izan musu, laztan, eta goyetaco uquierac? Oriec, bai Jauna, baña ez ditugu gauz oec ecertan artzen: unore ona igarotzea besteric ez da izan. *Unore ona besteric ez da izan?* Unore onaren aitzaquian bada eguizu edoceñ gauza. Atozea, ori da Cristauari dagocan itzeguitea, eta vicitza? Becatu eraguiteco asmoric gabe ematen due gañera ascoc becaturaco bidea, onestidadeac escatzen duan, modu ona gorde

Universidad de Deusto
Biblioteca

gabez. Au guertatzen da, batzuetan mutillac igueri eguiten duela, emacumeac dabiltzan toquian, edo beguira daudela; besteetan, emacumeac gobada jotzeco jartzen dirala era lotsagarrian guizonezcoen aurrean, edo arbola gañetan dabiltzala, mutillac beguira daudela ¿ Cer esango det, goyac salgai ipintzen, eta eracusten dituenaz, edo, zatarrezco metac alchatzen dituen, eroaz? Cer esango det, dituen era, eta mallari beguiratu gabe, ezin irozo dezaqueen adiña soñecoetan gastatzen duen chorascaz?

Becaturaco bide, edo escandaloa beste batzuetan ematen da, laguntzen zayola lagun urcoari gauza debecatuetan. Era onetan *escandaloa* deritzan becatua eguiten du, nagusiari, echecoandre, edo lagunari lapurretan laguntzen dionac: ezcontzeco dauden estalqui jartzen danac, egon ditecen aec bacarric, eta nai duen eran: era berean echeetaco seme, edo alabai arto, edo garia erosten diezanac, daquiela, ostua dala: edanean igarotzeco laguntzen duenac brindisca: sagardoa, ardoa, edo edari vicia, orditzeco perillean daudenai, ematen diezanac: eta oro bat ordu jaquiñaz campora gazteac, edo zarrac iduquitzen dituenac jocoan, eta bear bada eciñ emendic esan nitzaquean, modu ichusietan. Cer esango det, araco eche aez, non jai egunetan biltzen diran gazteac, ala mutillac, nola nescachac, eta non guertatzen diran onestidadeari ez dagozcan gauzac? Eta onelaco echeetaco buru, edo gurasoac, Catolicoen artean ere badira?

Atzenean becaturaco bide, edo escandaloa ematen da cembait aldiz, baldin bat, bere carguaren eguin-bideai eranzuteco, zabarra bada. Ez da asco errico buru, eta cargudunac, edo gurasoac gauza gaiztoric ez eguitea: gauza bearra da gañera carguari arretarequin eranzutea, eta au ez eguitera,

asco gazte eta zar erorico dira becatuetan, eta becatu oec izango dira cargudunaren gañean. Ay! eta alde onetatic ongui beguiratzen badiegu gueren buruai, eztaquit, nola arquituco gueran gai onetan! Eta zabarqueria utsarequin escandalo, edo becaturaco bidea eman baditeque ¿ cer izango da ascó guraso vici diran bezala vicitzea ? Cer, errietaco cargudunac bide ez egoquietan ecustea ? Baña goacen aurrera, eta dacuscun, ceñ izugarria dan escandaloa deritzan becatu au.

Lagun urcoari becaturaco bide, edo escandaloa ematea da Jaungoicoa utziric Satanasen alde alchatzea, eta onen guerrari, eta servitzari jartzea. Satanas munduaren asieratic ari da Jaincoari guerra eguiten, eta animac infernura amilderazten: eta beratic escandaloa ematea da Satanasen guerrari jartzea, animac infernura bidaltzeco ¿ Au da, nere Csistaua, batayoco egunean eman guenduan itza?

Lagun urcoari becaturaco bide, edo escandaloa ematea da Jesu-Cristori, aimbeste neque costa citzaizcan, animac quentzea, eta etsai galgarriari ematea. Norena da, nere Cristaua; norena da zuc becatura amilderazo dezun anima ura? Jesu-Cristorena da alde gucietatic. Jesu-Cristorena, ceren, Jaungoicoa danez, ecerezetic eguin zuan. Jesu-Cristorena gañera, ceren Jaungoico-guizona dan bezambat bere odol preciotsuaren costuz erosi, eta beretu zuan: *Etzerate cerenac*, esaten digu S. Pauloc, *non estis vestri*, baicic Jesu-Cristorenac: *vos autem Chti* (1.ª ad Corint. 3, et ad Ephes. 6). Ceñ bidegabe izugarria izango ez da bada quentzea Jesus onari aimbeste nequerequin beretu cituan animac; eta ematea Satanasi?

Lagun urcoari becaturaco bidea, edo escandaloa ematea da Ceruraco Jaunac eguin zuan anima aleguiñean amilderaztea betico su, eta garren artera. ¿ Asma

diteque gogortasun itsusiagoric? Idi, edo bei bat carobi batera botatzea gogortasun andia izango liza-que ¿cer izango da Ceruraco Jaunac eguindaco ani-ma betico infernura bota nai izatea?

Lagun urcoari becaturaco bide, edo escandaloa ematea da golpe batean iru eriotza izugarri eguitea; illtzen du alabaña lenengo lecuan bere anima, Eze-quiel Profetac dion bezala: *Anima quæ peccaverit, ip-sa morietur* (c 18). Illtzen du urrena lagun urcoaren anima, eta animarequin batean arteraño eguin ci-tuan obra on guciac. Illtzen du gañera bere alegui-ñean Jesus S. Pauloc dion eran.

Atzenean: lagun urcoari becaturaco bide, edo es-candaloa ematen diona beartua dago animetan eguin ditnan calteac aleguiñean deseguitera ¿baña nola au eguingo du, ezpadaqui, norañocoac diran eguindaco calteac? Becaturaco bidea ematearequiñ guertatzen da gari soro baten erceco lasto igarrai su emanda guertatzen dana, edo guertatuco litzaqueana. Erceco lastoetatic erraz igaroco lizaque sua urrengo lastoeta-ra, oetatic soro gucira ¿Eta cer beste gauzaric guer-tatzen da, becaturaco bidea ematen danean? Urliac eman dio sandiari becaturaco bidea: sandiac beste ascori, oec besteai eta bearbada su au ez da itzali, urte ascoren buruan ere: bearbada asco ill dira, eta infernuan daude; eta besteac aurrera dijoaz becatua-ren moduac eracusten.....

(Eracusaldi au arquitzen da gueyago seguitu eta acabatu gabe Aguirre Jaunaren paperetan).

AMAZAZPIGARREN ERACUSALDIA.

Becatuaren ondoren gaiztoen artean irugarrena izan oi da becaturaco bide, eta sareetan anima nas-turic, eta catrabillaturic gueratzea. Orregatic be-caturaco bideen gañean izango da Eracusaldi au.

Aditzera emango da lenengo lecuan, cer, eta cembat guisatara izan oi dan becaturaco bidea.

Aditzera emango da urrena, ceñ gauza bearra dan becaturaco bideetatic aldeguitea.

Dereliquisti Dominum Deum tuum... Scito et vide, quia malum, et amarum est reliquisse te Dominum Deum tuum. Jerem. 2.

Utzi dezu, becataria, zure Jaun, eta Jaungoicoa, eta alperrac izan dira, zu Ceruraco bidean ipint-zeco, oraindañoco nere aleguin guciac. Jaquizu ba-da, esaten dizu Jeremiasec; jaquizu, eta ecusi e-zazu, gauza gaizto, eta samiña dala zuc zure Jaun, eta Jaungoicoa utzi izan dezun eran uztitzea. *Scito, et vide, quia malum, et amarum est reliquisse te Dominum Deum tuum.* Asi guiñan becatuac berequin ecarri oi dituan ondoren gaiztoac uquitzen, eta az-queneco aldian ecusi cenduan, Cristaua, cer dan, eta ceñ izugarria *escandaloa* deritzan becatua, au da alabaña becatuaren ondoren samiñetatic bat. Ecu-si cenduan urrena, cer eguin bear degun becatu

onen barcacioa iristeco. Ez du becatariac aditu nai, bere oneraco esaten zayona ; aurrera dijoa gaiztaquerian , eta dabillen toquian eotzen ditu becaturaco sareac , eta nonnai gueratzen da nasturic, eta catrabillaturic. Au izan oi da becatuaren irugarren ondoren samiña. Orregatic gaur itzeguin nai dizut , becataria , becaturaco bide , edo perillen gañean. Aditzera emango dizut , lenengo lecuan , cer, eta cembat guisatara izan oi dan becaturaco bidea. Aditzera emango dizut urrena , ceñ gauza bearra dan becaturaco bideetatic aldeguitea. Enzun arretarequin.

Becaturaco *bide* eta *perillaren* icenez aditzen da artaraco bidea ematen digun edoceñ gauza ; baña ez dira berdiñac bide , eta perill guciac. Bata da *urruticoa* , eta onela deitzen zayo , ceren beregandic urruti daucan becatua , eta guchitan amildarazo oi duan artan. Bazatoz Elizara , eta ecusten dezu guizon, edo emacume bat ongui jancia. Ecusten au uts-utsic , edo beste salsagarriric ez duala , becaturaco bide , eta perill *urruticoa* da , eta etzaude onelaco perilletatic igues eguitera beartua ; bestela irten bearrac guiñaque mundu onetatic.

Becaturaco beste bide , eta perilla da *urcoa*, ceren bide , eta perill onetan dagoana , edo jartzen dana sarritan erori oi dan becatuan , edo beintzat erortzeco perill andia dan , sayets gucietara beguiratu ezquero. Demagun araco eche artan jai egunetan biltzen dirala mutillac , eta nescachac: aritzen dira dembora pusca batean carta jocoan , eta bitartean , edo ondoren izan oi dira izqueta desonestoac, queñada lotsagarriac , eta beste modu itsusiac. Batzarre onetara joatea da becaturaco bide , eta perill

urcoa. Alaere izango dira echeetaco buruac onelaco batzarreac beren echeetan iduquitzen dituenac. Badaqui urliac , Tolosara gurasoa gabe dijoanean, sartu oi dala an , edo emen bere Aingueru goardacoarequin : edaten da poliqui gurgurren sendagaitic, eta ondoren an , eta bidean guertatu oi dira itzeguite , eta modu itsusiac. ¿Norc eztacus , zuretzat guis-orretan Tolosara joatea , izango dala becaturaco bide , edo perill urcoa ? Badaqui sandiac , erriz erri festen aitzaquian ibiltzea , oraindaño arentzat izan dala becatu ascotan erortzeco bidea : onequin uquiera ciquiñac ; arequin musu , eta laztanac ; onequin itz araguizcoac , arequin cerbait gueyago ¿Eta norc iguerrico ez du , sandiarentzat erriz erri orrela ibiltzea dala becaturaco bide , eta perill urcoa ? Badaqui berendiac , araco ezcutari arequin bacarric egotea dala arentzat bide , eta perill andia atseguin lizunetan , edo beintzat gogoracio gaiztoetan goisatzeco : ecusia dago beraz , egoera ori berendiarentzat dala becaturaco bide , eta perill urcoa.

Becaturaco bide , eta perilla izan diteque *urcoa*, obrazco becaturic izan ez arren , baldin itzez , gogoz , edo beste moduz erortzeco bide , edo perill andia bada. Emendic atera dezaquezu , cembait gazte , gaitzeronz colocatzen diranetic, centza ditecen artean , vici dirala becaturaco bide , eta perill andi, eta urcoan. Nola ori , esango didazu? Ceren itzez, gogoz , eta escuz erortzen diran quezca , ta arduraric gabe. Galde bequie onelacoai: *Seigarrengoan badezu ecer ? Ez Jauna* , eranzungo due. Galde bequie gueró : *izanda onelaco gauza ? Bai , Jauna. Eta alaco gauza ? bai Jauna.* Nola bada esan dezu, *ez dezula seigarrengoan ecer ? Jauna , orrelaco gauzac ez ditut ecertan artu.* Emendic ez da cer miretsi , baldin onelacoac becaturaco bide , eta perill

Universidad de Deusto
Biblioteca

urcoan quezca andi gabe vici badira , bada araurreneco becatuaz osteroncecoac ecertan artzen ez ditue.

Becaturaco bide , eta perilla izan diteque *urcoa* edoceñ mandamenturen contra. Uste due batzuec, seigarren mandamentuari dagozcan gaucetan bacarric izan oi dala becaturaco bide , eta perill urcoa; eta engañatzen dira ; bada seigarren Mandamentuaren contra ezecic besteen contra ere becatu eguin diteque , eta ascotan andiagoa. Orregatic becaturaco bide , eta perilla izan diteque *urcoa* , edoceñ Mandamenturen contra. Ala izan oi da batzuentzat edaria saltzen dan echera joatea , ceren edo ordítzen diran , edo lagun arteco , eta echeco paquea galerazten duen : besteentzat jocoa ; batzuentzat gaucen saltze , eta erosqueta , besteentzat beste gauzaren bat.

Becatuaren bide, eta perill urcoa, batzuetan da *vorondatearen contracoa*, esan nai det, nai ta ere ecin batec utzi dezaqueana, beintzat calte andi gabe. Badijoa bat itsasoan, eta oncian arquitzen du bere burua seigarren Mandamentua autsitzeco bide, eta perill urcoan: deitzen zayo bide, eta perill oni *vorondatearen contracoa*, ceren naita ere ecin aldeguin dezaquean oncian dijoanac. Au bera guerta diteque carcelan dagoan batequin. Guertatzen da batzuetan *becaturaco bidea* utzi litequeana izatea, baña calte andiarequin , edo onran , edo beste ondasunetan. Onelaco bide, eta perillari ere *vorondatearen contracoaren* icena eman oi zayo, utzita etorrico liraquean calteac gatic. Demagun Erretore batentzat becaturaco bide, eta perill andia dala duan cargua: utzi lezaque cargu au; baña uzten badu gueratu bearra da cerequin vici ez duala: becaturaco bide, eta perill au vorondatearen contracoa da, calte andi gabe eciñ utzi ditequealaco (a). Cer eguin bear du onelaco becatariac? Alaco neurriac artu bear ditu becatuan ez erortzeco, non garaitu dezaquean duan perilla Jaunaren lagunzarequin: eta ecin badu, aldeguin bear du perill artatic , datorrena datorrela, naiz galdu ditecela ondasun guciac , naiz vicitza: calte oec baño andiagoa da alabaña anima galtzea betico (b).

Guerta diteque, gauza bat berez gaiztoa ez izatea, eta alaere ascorentzat becaturaco bide, eta perill urcoa izatea. Eguzquiaren, eta izarren edertasuna ez da gauza gaiztoa, baicic ona: alaere anciñaco demboran ascorentzat izan zan idolatriaraco bidea. Ona da ezconza, errietaco cargudun izatea: baña ascorentzat dira anima galtzeco bidea. Orregatic aldeguin bear dezu, zuretzat becaturaco bide, eta perilla dacarten gaucetatic, berenez gauza gaiztoac ez izan arren: aldeguin bear dezu araco lagun, eche, jolas, itzeguite eta festa aetatic, baldin zuretzat becaturaco bidea badacarte. Ez dezazula esan, ascoc esan oi duen bezala: *bezteac badijoaz, cergatic joango ez naiz ni?* bada aec ez due bear bada zuc dezun adiña perill, edo ez due iguerritzen: eta nolanai: zu beartua zaude zuretzat becaturaco bide, eta perrilla diran gaucetatic aldeguitera. Añ gauza bearra da au, non becaturaco bide, eta perill urcoan vorondatez jartze utsa becatu dan, perillari dagocan becatu ura eguitea cerbaitec eragotzico balu ere. Demagun, zuretzat jai egunetan ostatura, edo edaria saltzen dan echera joatea dala orditzeco, edo beste becatuetan erortzeco bide, eta perill urcoa: bazoaz jai batean, eta biurtzen cera echera ardoric uquitu gabe, ceren aitu dan. Etzera ordi, eta alaere ordi baciña bezala becatu eguin dezu, ceren cere nayez artaraco bidean jarri ceran.

Universidad de Deusto
Biblioteca

Becaturaco bide, eta perilla *urcoa* izateco ez da sarritan becatuan erori bearric, baldin era danean erortzen bada bat. Urtean beñ izan oi da iñuteria, eta urtean beñ erri bacoitzeco festac: alaere ascorentzat egun oriec dira becaturaco bide, eta perill urcoa, ceren erortzen diran edo gogoz, edo itzez, queñadaz, edo bestela ¿Baña norc ecertan artzen ditu becaturaco perill oec?

Atzenean becaturaco bide, eta perilla izan diteque *urcoa*; becatuan erori baño lenago ere, baldin alde gucietara beguirauric, erortzeco perill andia bada. José anciñacoa, Jacoben seme ederra, etzan bere echecoandrearequin becatuan erori, baña orpoz-orpo cerraiquion emacume gaiztoa, eta aren atzaparretan utziric capa igues eguin zuan echetic. Norc eztacus, becaturaco bide, eta perill urcoa izango zala Joserentzat eche artan aurrera egotea? Au bera guerta diteque servitzen dabiltzan cembaitequin. Suerteac ematen dio bati nagusi ollacoi, edo chorasca bat gucia dastatu nai duana: equiten dio beñ, ta berriz, eta ascotan gaizqui dirudien moduaquin: ayenatzen eta botatzen du beregandic ordu gaiztoan, eta ez dio beregan becatuari lecuric eman. Alaere alaco echean, eta alaco nagusiarequin vicitzea izango litzaque guizon jaquintsu ascoren iritzian, becaturaco bide, eta perill andi, eta urcoa (c). Orra, Cristaua, cer, eta cembat guisatara izan oi dan becaturaco bide, eta perilla. Dacuscun oraiñ, ceñ gauza bearra dan becatuaren bideetatic aldeguitea.

Espiritu Santuac esaten digu, perrilla nai duana perillean bucatuco da: *Qui amat periculum, in illo peribit.* (Eclesiastici 3.º v. 27): esan nai du, perillean

erorico dala. Ala guertatu da beti, eta aurrera ere guertatuco da. Cer guertatu citzayon Evari? Bacebillen Paradisuco vergera zoragarrian: etsai galgarriaasi citzayon galdeca, cergatic *jaquiundearen* arbolatic jaten etzuen? Eranzun cion: Paradisuan diran arbolen frutatic jaten degu; baña aguindu digu Jaunac, ez dezagula jan Paradisuaren erdian dagoan arbola baten fruta, eta ez dezagula uquitu ere, ill ez gaitecen. Esan cion etsayac: etzerate ez illco orregatic; badaqui alabaña Jaungoicoac, arbola aren fruta jaten dezuen bezala, idiquico dirala zuen beguiac, eta izango ceratela, bera bezala, onaren, eta gaitzaren, eta gauza gucien ezagüera dezuenac. Ezagutu cezaquean Evac, etsayac ematen ciola Jaunaren aguinte ausitzeco bidea, eta aldeguin bear zuala artaraco perilletic. Ez ordea ori eguin: eta ala eguin lecuan joan zan arbola cegoan toquira, jarri zan beguira, eta ceritzan, chit ona izango zala jateco, eta zaletu zan: beste aldetic arbola bere frutaquin añ ederra cegoan, non llilluratu, eta chora cezaquean: *Pulchrum oculis, aspectuque delectabile.* ¿Cer guerta al citequean onetara ezquero? Cer, bere nayez perillean jartzen danari guertatzen zayona baicic? Artu zuan sagar bat, eta jan zuan: artu zuan beste bat, eta eman cion Adani, eta onec ere jan zuan, eta onela galdu zuen mundu gucia (Genes. 3). Cer guertatu citzayon Dávidi? Bazcal ondo batean, lo eguinda, bere jaureguiaren gañeco ibiltoquian cebillela, ecusi zuan Betsabe, Uriasen emazte ederra, bañuan, edo urean bere burua garbitzen ari zala. Iguerri cezaquean Davidec, cer guertatuco citzayon, quentzen ezpacituan beguiac perill artatic; bana zabartu zan, eta erori becatuan, eta illerazo zuan Urias. Cer guertatu citzayon Salomoni? Ezcondu zan, Jaungoi-

Universidad de Deusto
Biblioteca

co guezurrezcoac adoratzen cituen, emacume goimallacoaquin, eta guizon añ jaquitsua amildu zan idolatrian. Orra nola perilla nai duana perillean erorico dan. *Qui amat periculum, in illo peribit.* Baña cer diot nic erorico dala? Bere borondatez perillean dagoana, egoera utsarequin eroria dago, eta eroriaz dijoa ala dagoan bitartean. Orregatic esaten digu Jesusec: zure escuyeco beguia zuretzat becaturaco bidea bada, atera eta bota ezazu ceregandic: eta escuyeco escuac ematen badizu becaturaco bidea, ebaqui, eta bota ezazu ceregandic: esan nai du, quendu, edo utzi bear dala becaturaco bidea, beguia, edo escua beceñ bearra baliz ere: *Si oculus tuus dexter scandalizat te, erue eum, et projice abs te... et si dextera manus tua scandalizat te, abscinde eam, et projice abs te.* (Math. 5).

Ecusten dezu, Cristaua, ceñ gauza bearra dan becatuaren bideetatic aldeguitea? Baña nola aldeguingo dezu gogortuaz bazoaz becatuan? Nola aldeguingo dezu, utzi badezu zure Jaun, eta Jaungoicoa? eta beragana biurtzeco viotzic ezpadezu? Aldeguin bearrean, zalbiltzan erri, eta toquietan eoco dituzu sare berriac, eta nonnai nastuco cera becaturaco biscan. Etzaitecela engañatu: deitzen dizu etsayac betico su, eta garren artera, eta ara eramateco zorian zauzca; eta ari jarraitu nai diozu? Deitzen dizu zure Aita Cerucoac, eta ez dezu adituco beraren dei gozoa? Ea, biurtu zaite beragana, onela iristeco zure becatuen barcacioa, eta guero betico vicitza doatsua. Amen.

(a) Vide, quæ post sequentem institutionem advertuntur.
(b) Vide eadem.
(c) Vide eadem.

EMEZORTZIGARREN ERACUSALDIA,

ETA BECATURACO BIDEEN GAÑEAN BIGARRENA.

Adirazten da lenengo lecuan, nolaco aitzaquiac billatzen dituan becatuaren bideetan nasturic vicidanac, andic ez irteteco.

Adirazten da urrena: ceñ negargarriac diran, emendic becatariari etorri oi zaizcan ondorenac.

Dereliquisti Dominum Deum tuum... Scito, et vide, quia malum, et amarum est reliquisse te Dominum Deum tuum, Jerem. 2.

Utzi dezu zure Jaun, eta Jaungoicoa, eta añ esquergabea cera zure Aita onarentzat, non, biurtu etzeran beragana, aditu dituzun aimbeste eguia gozorequin ere. Jaquizu bada, esaten dizu Jeremiasec; jaquizu, eta ecusi ezazu gauza gaizto, eta samiña dala zuc zure Jaun, eta Jaungoicoa utzi dezun eran utzitzea: *Scito, et vide, quia malum, et amarum est reliquisse te Dominum Deum tuum.* Eguia au onguiena ezagutzen da bearbada, becatuac berequin dacartzian, ondoren gaizto, eta samiñai beguiraturic, eta oen artean irugarren lecuan aitatu guenduan becatuaren bide, eta perilletan anima nastua, eta catrabillatua gueratzea. Azqueneco aldian aditzera eman nizun, Cristaua, cer, eta cembat guisatara izan oi dan becaturaco bidea, eta ceñ gauza bearra dan becaturaco bideetatic aldeguitea. Gaur ecusi bear degu, lenengo lecuan, nolaco aitzaquiac asmatzen, edo billatzen dituan be-

catariac, becatuaren bideac ez uzteco. Urrena, ceñ negargarriac diran, becatariari emendic etorri oi zaizcan ondorenac. Enzun arretarequin.

Anima bat, becatuaren sare, eta bideetan nasturic vici danean, alde batetic arquitzen da guerocoaren ar ozcariarequin, eta bestetic sorra dago bear luqueana eguiteco, eta billatzen ditu aldituan aitzaquiac, becatuaren bideac ez uzteco. Ara aitzaquia oetatic batzuec.

Lenengoa: ez det ucatzen, urlia nere echean egotea, edo onara etorri oi dan bezala etortzea, neretzat dala becaturaco bide, eta perill andia; baña ez daucat nic escuric ura echetic botatzeco, edo aren etorrerac eragozteco ¿Cer nai du nic eguitea? Aitzaquia onec ez dizu ecer balioco Jaunaren aurrean; eta badaquizu, ecin becatuari lecuric eman deguioquezula, ez munduaren beldurrez, ez vicitza ez galtzeagatic ere. Atozea, zu iltzera baletor urlia ori, cer eguingo cenduque? Etzenduque igueseguingo? Ala bear izatea, etzenduque deadar eguingo? Eguizu bada ori bera, animaren vicitza quendu ez deguizun. Igues eguizu, albadezu: eciñ igues eguin badezu, eguizu deadar. Atzenean paqueric eman nai ezpadizu, esan zayozu, aditzera emango diozula gurasoari guertatzen dana, Jauna, gurasoari esaten badiot, galduco du urliac bere onra, eta icen ona, eta ecusi naico ez du gurasoac. *Galduco du bere onra, eta icen ona*, gurasoari esanda? Noren culpa izango da? Berarena; bada zuc aditzera eman ciñucan, gurasoari esango ceniola, uzten ezpacizun paquean. Baña ascó ote dira au leyalqui eguingo duenac? Ez noasqui, eta guertatuco dana da becaturaco bide, eta perilla bere oñean gueratzea ¿eta guero? Betico su, eta garren artean erorttzea, ezpadira garai onean centzatzen.

Bigarren aitzaquia: aitortzen det, oraindaño vicitu naizala becaturaco bideetan, eta eguin ditudala ecin conta al becatu. Dembora pusca batean jai arrasaldeetan joan oi nintzan eche batera; biltzen guiñan mutillac, eta nescachac, eta guertatzen ciran jolas, eta ibillera lotsagarriac, ala bertan, nola echeraco bidean: eta beste onembeste guertatu oi citzatan iñu terian eta festa demboran. Onembeste urtez guchi gora bera vicitu naiz lagun gaiztoen modu, eta ibillerai jarraituaz, naiz gabaz, naiz egunaz. Berandu echeratzen guiñan, eta naigabetzen ciran gurasoac: elcar artzen guenduan urlia, sandia, ta berendia becatuan amilderazteco, eta guero elcarri esan oi guiñuzcan igarotzen ciran gauzac. Onembeste demboran izan det adisquidetasun gaiztoa urlia batequin: era izan ezquero, guertatu oi ciran becatu mota guciac, eta oraindaño iraundu, eta badirau perill onec. Ascotan aguindu didee Confesoreac, utzi ditzadala nere lagun gaiztoac: utzi ditzadala araco eche aec, non bildu oi diran mutill, eta nescachac: utzi ditzadala adisquidetasun limuri oec; baña beren oñean daude batzuec beintzat. Atozea, eta eztaquizu, oriec utzitzea dala zuretzat, Jaungoicoagana biurtzeco lenengo lana? Ongui esaten dit, eta erabaqui det sendoro, ori eguitea; baña gaur absolucioa eman bear dit. ¿Cer diozu, becataria? Lenago utzi bear dituzu becaturaco bide oriec: guero presta zaite gaizqui vicitu ceran demboraco confesio guciac berritzeco, eta orduan egongo cera absolucioa artzeco sasoi onean, baña arteraño ez. Jauna: eguingo det ori gucia; baña gaur Comunio Santua artu bear det: bestela cer esango litzaque nizaz? Comunio Santua artuco dezu, sasoi onean jartzen ceranean: eta etzaitecela leyatu gai onetan. *Jau-*

Universidad de Deusto
Biblioteca

na, cer esango due? diozu. Ecer ez, ceren bacoitzac badu bere buruarequin cer eguin, zuri beguira egongabe ere. Gañera egun oro berritzen dira confesioac, eta gauzac ongui bucatu artean uzten da Comunioa: eta ez du orregatic ecerere galtzen becatariac. Utzi itzatzu bada aitzaquia oriec, eta eguizu bear dana.

Irugarren aitzaquia: *joango naiz araco eche artara, araco lagun aetara, baña ez det ecergatic becaturic eguingo lenago lepoa eman.* Atozea, oraindaño eche, eta lagun oriec ez dira zuretzat izan becatuan erortzeco bide, eta perill andiac, edo gogoz, edo itzez, edo bestela? Eta alaere diozu, joango cerala perill orietara, eta ez dezula becaturic eguingo? Ez dezu ecusten, ori dala, becaturaco bide eta perill urcoac uzteco, viotzic ez izatea? Zuc nai cenduque bi gauza, dembora batean ecin elcarrequin izan ditezqueanac, oec dira becaturaco bide urcoan vorondatez egotea, edo jartzea, eta becaturic ez eguitea. Eztaquizu, orrelaco perillean egote, edo jartze utsa becatu dala? Perilla nai duana, perillean erorico, edo galduco da, dio Espiritu Santuac: *Qui amat periculum, in illo peribit.* Zu bezala dabillenari guertatu oi zayo michirricari, edo ingumari guertatzen zayona. Badabil michirrica arguiaren inguruan: beguiratzen dio, eta llilluratzen, eta choratzen du arguiaren edertasunac: alderatzen zayo, eta erretzen zayo egoa baten erza: badijoa berriz, eta erretzen zayo zanco char bat. Alaere ez da centzatzen, eta atzenean iltzen da chorasca arguiari darraicala. Ay! zu guizon, edo emacume inguma, edo michirrica guciac baño choroago biurtu cerana! Cembat bider esan zatzu, utzi bear dirala becaturaco bide, eta perillac, becatuan ez erortzea nai badegu? Alaere *joango naiz*, diozu, *eta ez det becaturic eguingo*: itsumenaren andia!

Laugarren aitzaquia: *joango naiz eche artara: joango naiz lagun gaizto aetara, baña uste det, Jaunac emango didala becatuan ez erortzeco lagunza; ala escatu diot venaz Virgiña chit Santari.* Becatari centzugabea: au da becaturaco bidea utzi nai ez izatea, eta Jaincoaren laguntza, eta Virgiña chit Santaren bitartecotasuna zure becatuen estalquiñ ipintzea. *Uste det diozu, Jaunac emango didala becatuan ez erortzeco laguntza:* engañatzen cera; Jaungoicoac alabaña ematen dizquigu, becatuaren bideetatic aldeguiteco laguntzac, baña ez, gueren nayez becaturaco perillean jarri nai badegu. Atozea, cere nayez sartzen bacera carobi eracequi batean, naico, edo usteco dezu, Jaunac gordeco zaituala mirari andi batequin, erretzen etzerala? Ez dezu ecusten, au izango litzaqueala centzugabequeri andi bat? Gañera esana dago, bere nayez bat becaturaco bide, eta perill urcoan egote, eta jartze utsa becatu dala. *Escatu diot venaz, Virgiña chit Santari, gorde nazala becatutic* Au da beste cenzugabequeri andia. Atozea, cere nayez joan nai badezu becaturaco bidera, eta joatea bera becatu bada, nola becatutic gordeco zaitu Virgiña chit Santac?

Bostgarren aitzaquia: *Joaten naiz* ni urliaren echera, baña ez gauza gaiztoric eguitera: besteac ere joan oi dira nai duen lecura. Au da ematen dituzun esanmesac quentzeco viotzic ez izatea. Demagun, etzoacela ara gauza gaiztotara, baicic errosarioa esatera: baña munduac badaqui, urlia dala erguel bat, eta zu cerala Jaunaren beldur guchicoa: munduac ecusten zaitu ara zoacela gauaz, eta egunaz, eta ezagutzen du, ez dezula an eguitecoric batere: emendic badaraus zure ibilleraren gañean, eta dio: *Oriei orrela utzi bear zate? Ez da Alcateric, ez Erretoreric? Jauna, besteac ere joan oi dira nai duen lecura.*

Ongui: demagun, besteac ez duela ongui eguiten eta ceren besteac gaizqui eguiten duen, zuc ere eguin bear dezu? Munduac badaqui zure berri, eta mirua dabillen toqui gucian miru dala: eta oquer edo zucen badaraus zure contra: besteaz ori bera eguingo du, miruac dirala iguerritzen duanean. Orregatic beartua zaude jayera ori utzitzera; S. Pauloc dio alabaña, utzi bear ditugula, gauza gaiztoac ezecic gaiztoen anza duenac ere: *Ab omni specie mala abstinete vos* (1 ad Thesal. 5).

Seigarren aitzaquia: urliaren echera joaten naiz, edo sandiarequin egoten naiz, baña aspaldi ez da gauz andiric guertatu. Au da becatua, eta artaraco bidea gañchuritzea, leneco perillean gueratzeagatic. Atocea, eta urliarequin zaudenean, ez oi dira guertatu izqueta lizunac? queñada lotsagarriac, musu, eta laztanac? Oriec bai, Jauna; eta alaere gauz andiric ez da guertatu diozu ¿eta orietan erortzeco perill urcoan iraun nai dezu? Badira becatari batzuec añ leundugabeac, basati, eta moldacabeac, non, araurreneco becatuac baicic, ecertan artzen ez dituen.

Zazpigarren aitzaquia: *albanu utzico nuque becaturaco bide, eta perill au ¿ baña certan nago ni urliarequicoa galtzen badet?* Au da munduaren, edo munducoen beldurrez becatuan, eta becaturaco bidean vici nai izatea. Atozea, etzenduan batayoco egunean Jaungoicoa gauza gucien gañetic amatzeco itza eman? Ez dezu dotrinan esaten, *Jaungoicoa* gauza gucien gañean amatzea dala guciac galtzea nayago izatea bera ofenditzea baño? *Certan nago ni*, diozu ¿eta certan zaude, cere anima galtzen badezu betico? Cer ateraco dezu, mundu gucia irabacita ere, galtzen badezu cere anima, esaten dizu Jesu-Cristoc: *Quid prodest homini, si mundum universum lucretur, animæ vero suæ detrimentum patiatur?*

Zortzigarren aitzaquia: *cer esango due eche onetatic irteten banaiz, edo eche artara joaten ezpanaiz?* Au ere becaturaco bidean gueratu nai izatea da gueyenetan. Atozea, badaquie auzoan, eta inguruetan zure vicitza gaiztoaren berri? Ezpadaquie, ez due ecer esateco bideric batere, ceren eche batetic irteteco, edo beste batera ez joateco non nai izan oi dira milla modu, eta ez da orregatic ecer esateco bideric. Baña baldin badaquie auzoan, eta inguruan, poztuco dira daquienac, becaturaco bidetic aldeguiten dezula, dacustenean ¿Eta uste dezu, ez daquiela? Galde guiezu iturriai, labeaurreai: galde sucaldeetaco laratzai, eta oec esango dizue, nola zure vicitzaren gañean itzeguin dan.

Bederatzigarren aitzaquia: *Jauna, becaturaco bide, eta perill urcoa utzitzea añ gauza bearra bada esango diot urliari, bucatu dirala gure contuac, eguin dezala confesio on bat.* Atocea, eta onembesterequin gueratu nai dezu becaturaco bidean? eta uste dezu, zuc ori esatearequin onduco dala urlia? Demagun, itotzeco zorian iduqui duala otsoac ardiren bat. Andic laster badijoa ardi choroa otsoagana, eta esaten dio: *Otso Jauna, gauza bat zuri esan bearrean nago: etzaitecela izan oraindaño beceñ ardicoya: gaizqui itzeguiten da zuzaz, ondu zaite.* Uste dezu, orrembesterequin onduco dala otsoa? Ondu bearrean, ortzac egotzico diozca ardi choroari, eta arzaz eguingo du nai duana. Au bera guertatuco zatzu zuri ere, becataria, aitzaqui oequin gueratzen bazera becaturaco bidean. Orra, nolaco aitzaquiac billatzen dituan becatariac, becatuaren bideac ez uzteco. Dacuscun oraiñ ceñ negargarriac diran emendic etorri oi zaizcan ondorenac.

Lenengo ondorena da, Jaunac ucatzea, becatuan

ez erortzeco bear dituan , Ceruco lagunzac. Ez dizu Jaunac aguintzen , becataria , Ceruco indar , eta lagunza becatuan ez erortzeco , cere nayez jartzen bacera , edo bazaude becaturaco bidean. S. Pedro bere nayez jarri zan izquetan , eta surtan berotzen Jesusen etsayaquin, eta erori zan becatuan , ucatzen zuala iru aldiz bere Maisua ¿ eta S. Pedrori utzi bacion Jaunac becatuan erortzen , ceren bere nayez perillean jarri zan, cer guerta al diteque besteaquin?

Bigarren ondorena : Sacramentuac , eta Jesu-Cristoc gure oneraco isûri zuan odol preciosua bere animaren puzoi biurtzea ; becatuaren bide , eta perill urcoan bere nayez dagoanac alabaña ecin artu dezaque absolucioric , eta artzen badu , izango du bere caltean , eta au bera guertatuco zayo beste Sacramentuaquin.

Irugarren ondorena : gueyenetan eriotza negargarria : ceren edo batetan , edo prestaera charrarequin ill oi diran onelacoac. Ala guertatu citzayon Toledoco inguruan ezcutari bati ; izan zuan noizbait Virgiña chit Santaren jayera andia ; baña adiñean cerbait sartu zanean , oitu zan gaiztaquerietara , eta vicitu zan becaturaco bidea bere echean zuala. Bazan erri artan anima virtutetsu bat , eta egun batean otoiz , edo oracioan cegoala , aguertu citzaizcan Jesu-Cristo Virgiña chit Santa , eta Aingueru asco. Asi ciran ezcutariaren gañean itzeguiten , eta Jesu-Cristoc eman zuan batetan vicia quentzeco sentencia; baña Amaren erreguz utzi cion oguei, ta amar egunean. Virgiña chit Santac esan cion beguira cegoan anima virtutetsuari cijoala onelaco erligiosogana, eta aditzera eman ceguiola ecusi , eta aditu zuana. Ala eguin zuan arc , baña erligiosoac etzion sinistu. Anima on arc lenengo aldian ecusi zuana bera ecusi zuan berriz , eta irugarren aldian ere. Orduan si-

nistu zuan Erligiosoac , eta onec aditzera eman cion ezcutariari guertatzen zana. Ezcutariac aitortu zuan bere vicitza gaiztoa : prestatu zan confesio on bat eguiteco , eta eguin ere zuan damu andiarequin. Baña echapean arquitzen zan urlia , eta ezcutariac etzuan escuric au botatzeco. Aguindu cion , alda cedilla beste guela batera , eta barrendic ichi cezala atea , eta ala eguin zuan. Urliac eraguin zuan guilza berri bat : idiqui zuan atea , eta cuturtu zuan ezcutaria becatura. Berriro confesatu zan , eta confesoreac aguindu cion , atea barrendic ichitzen zuanean, atean bertan utzi cezala guiltza ; baña urlia gaiztoac, idiquiric atea , eta eraguin cion nai zuana. Confesatu zan irugarren aldian , eta confesoreac eman ciozcan penitencia sendo , eta samiñac : aspertu zan oequin , eta esan cion confesoreari , utzi ceguiola paquean : atsoen ipuyaquin cebillela. Etorri zan oguei, ta amar garren eguna , eta gau erdian otseguin cioen confesoreari. Joan zan lasterca , eta arquitu zuan becatari doacabea viciric. Ay ! deadar eguiten zuan: *ay ! arpoi batequin igaro didee viotza* ! Eguin zuan confesoreac aleguiña , becatari ura Jaunagana biurrerazteco; baña alperric : ill zan damu eguiazcoaren siñaleric gabe.

Ecusten dezu , becataria , ceñ negargarriac diran, becatuaren bide , eta perillac ez uztetic datocen ondorenac ? Ez du becatariac viotzic sare oec urratzeco , eta billatzen ditu milla aitzaquia becatuaren bideac ez uzteco : eta etsai galgarriac berequin darama betico su , eta garren artera. Emendic atera ezazu , Cristaua , ceñ gauza gaizto , eta samiña dan guc gure Jaungoicoa utzitzea , eta beragana biurtu nai ez izatea. Becataria! eta orain ere ez aditu eguingo diezu Jaunaren deiai ? Ea urra itzatzu becatuaren sare oriec : vici zaite Jesusen legue ederrac

eracusten digun eran, eta emango dizu betico vicitza. Amen.

EMERETZIGARREN ERACUSALDIA.

Becatuaren ondoren gaiztoen artean laugarrena izan oi da Confesio gaiztoac eguitea. Au era ascotara guertatzen da, len luzaro aditzera eman izan dedan bezala; baña ez naiz gucien gañean itzeguiten gueratuco, asi dedan lana guyegui luzatu ez dedin. Gaur uquituco dira, becatuac lotsaz confesatu gabe utziric, eguiten diran, confesio gaiztoac.

Dereliquisti Dominum Deum tuum....Scito, et vide, quia malum, et amarum est, reliquisse te Dominum Deum tuum. Jeremiæ 2.

Utzi dezu becatarià, zure Jaun, eta Jaungoicoa eta amairu Eracusalditan eguin da aleguiña, zu zauden perill izugarritic ateratzeco; baña alperric: etzera esnatu becatuaren modorra, edo lo astun orretatic. Jaquizu bada esaten dizu Jeremiasec; jaquizu, eta ecusi ezazu, gauza gaizto, eta samiña dala, zuc zure Jaun, eta Jaungoicoa utzi izan dezun eran utzitzea. *Scito, et vide, quia malum, et amarum est reliquisse te Dominum Deum tuum.* Eguia au zuri adirazteco, azqueneco Eracusaldietan uquitu ditut, becatuac berequin dacartzian, ondoren samiñetatic batzuec. Beste ondoren gaiztoa izan oi da confesio gaiztoac confesio gaiztoen gañean eguitea. Au era ascotara guertatzen da: baña ez det guciai equiteco asmoric, ceren gai onetan luzaro itzeguin izan dedan lenago. Ascotan guertatzen da becatariac lotsaz, edo beldurrez becaturen batzuec confesatu gabe utzitzea, eta confesio gaiztoa eguitea. Au norequin, eta nola guertatu oi dan adiraztea izango da gaurco itzaldia, eta ondoren uquituco det, ceñ gauza gaizto, eta samiña dan era onetan gure Jaun, eta Jaungoicoa utzitzea. Enzun, Cristaua, arretarequin.

Gure Salvatzalleac batayoco Sacramentuarequin barcatu cigun becatu etorquia, jatorrizco, edo originala: au da, araco lenengo gurasoetatic datorquigun becatu ura. Apaindu guinduan graciaren soñeco ederrarequin: ornitu guinduan fede, esperanza, eta caridadearen virtuteaquin: eman cizquigun gañera Espiritu Santuaren doayac. Confirmacioco Sacramentuarequin indarrez bete guinduan, beraren gudari, edo soldadu alayac bezala, animaren etsayac garaitzeco. Aldareco Sacramentu miragarrian gueratu zan gurequin vicitzeco, guri bere ondasunac emateco, eta Ceruraco bidean laguntzeco. Gu nor izatera, etzan Confesioco Sacramentuaren bearric, baña ecusten zuan Jesus onac, chit guchi izango cirala, etsayaren contra bear bezala peleatuco ciranac: ecusten zuan alde aldean guciac galduco zuela graciaren vicitza, eta gueratuco cirala becatuan illac. Orregatic ipiñi nai izan zuan Confesioco Sacramentua, batayoa ezquero eguindaco becatuac barcatzeco. Cerura igo zan baño lencheago, sartu zan Apostoluac ceuden toquira eta esan cien: Arrezazue Espiritu Santua: *accipite Spiritum Sanctum:* zuec barcatzen dieztezuen becatuac barcatuac izango dira, eta oraindanic barcatzen zaizte: *Quorum remisseritis peccata, remittuntur eis:* eta zuec barcatu gabe uzten dieztezuenenac,

barcatu gabe gueratuco dira: *Et quorum retinueritis retenta sunt.* (Joan. 20). Baña Sacramentu onec ez ditu nolanai barcatzen becatuac, baicic eguiten duala becatariac bere aldetic eguin bear duana: eta beste gauz ascoren artean gauza bearra da becatariac becatuac Confesoreari aitortzea, bere viotzean arquitzen dituan bezala, larriac beintzat, Ala eracusten digu gure sinisteac. Baña cer guertatzen da? Becatariac badu ausardia becatu eguiteco, baña garbiro aitortzeco, edo confesatzeco chit beldurtia da, eta asco dira, guizon jaquintsuen iritzian, lotsaz, edo beldurrez becatuac confesatu gabe uzten dituenac; emendic confesio, eta comunio gaiztoac eguitea, eta beti-co su, eta garren artera amiltzeco zorian vicitzea. Eta zu, aditzen zauden becataria, ez ote cera oetatic bat? Au ezagutzeco, beguiraldi bat eman deguiogun zure vicitzari.

Zuc, Cristaua, gaztechoa ciñala, icasi cinduan gaiztaqueri batzuec, edo senide, edo auzocoren batzuequin: ascotan gogora etorri zaizquitzu dotrinaren bat aditzean, edo confesioco eguna; baña lotsaz utzi dituzu confesatu gabe, ceregan esaten dezula: *chiquia nintzan orduan.* Atozea, eta cembat urte cinduan orduan? Jauna, zazpi, zortzi, edo gueyago. Atozea, eta etzinaten ezcutatzen gauz oriec eguiteco? Bai, Jauna: beldur naiz bada, gaiztoac izan ote ciran zure confesioac.

Zuc, amar, amabi, edo gueyago urte cinduanean, eguin cinduan ibillera itsusiac: uquitu cinduan zaurian dotrinaren batec, edo confesorearen galdeac: confesio batean aitortu cinduan becatu oriec, baña, cere burua edertzeco, esan cenduan: *Jauna, artean ez nituan bost, edo sei urte besteric.* Ausê da becatua osotoro ucatzea bezala; ceren confesoreac usteco du ibillera oriec guertatu cirala, onaren, eta gaitzaren ezagüeraric etzenduan adiñean. Orregatic zure confesioa izan zan gaiztoa.

Zu ascotan egon cera ceregan garbitasun, edo castidadearen contraco gogoracioetan, len igarotaco gauza gaiztoac gogora ecartzen cinduala: batzuetan poztutzen ciñan, besteetan goisatzen, orduan bertan guertatzen balira bezala; bestectan gaitzeraco gura esnatzen zan. Alaere lotsatu ciñan ceregan igaro citzatzuna garbiro esateco, eta esan cenduan, *etzenduala ecer seigarren Mandamentuaren contra*, edo esan cenduan etzeniela lecuric eman gogoracio gaiztoai. Au da becatua gañchuritzea, eta confesio gaiztoa eguitea. Gogoracio gaiztoac etortzea, naiz fedearen, naiz caridade, eta garbitasunaren contra, ez da becatu, baldin guc, oartzen gueranean, bereala eguiten badegu aleguiña gogoracio gaiztoac ayenatzeco, dala pensamentua beste gaucetara aldatuaz, dala esturan Jesus, Maria, ta José esanaz, dala Virgiña chit Santari viotza alchatuaz; baña ascotan guertatzen da becataria, oartuta ere, llilluraturic eta choraturic egotea gogora datorquion gauza gaiztoetan poztutzen edo goisatzen dala, eta ascotan lecu emateco perill andian.

Zuc cere buruarequin, aur demboran ezecic, gueró ere eguin dituzu escuz, edo bestela becatu itsusiac. Iguerritzen cenduan, modu oriec etzirala izango onac, edo beintzat bacenduan ar bat, esaten cizuna, ez dira gauz oec ongui dirudienac. Ala ere ez dituzu confesatu. Noizbait esnatu ciñan dotrinaren batequin, eta confesatu cinduan modu itsusi aec, baña edertu cinduan esaten cenduala: *ez niaquian becatu cirala.* Beldur naiz, zure confesioac izan dirala gaiztoac. Badira guizon, edo mutill batzuec añ basatiac, eta abereac, non uste duen, ez dala becatu mutillac mutillaquin edoceñ gauza e-

guitea; baña jaquin becee oec, emacumeaquicoa baño itsusiagoa dala guizonezcoac guizonezcoaquin ciquinquerian ibiltzea: eta au bera esan bearco lizaque, eguingo balitue emacumeac emacumeaquin gauza debecatuac. Sodomatarrac oitu ciran lizunqueri oetara, alaco eran, non erri artara cijoacen guizon arrotzac ere borchatu nai cituen ibillera nazcagarrietaraco. Aserratu citzayon Jaunari, eta Lot, bere emaztea, eta bi alaba ez, beste guciac erriarequin batean auts biurtu cituan bidaltzen zuala sufre eracequizco euri ugaria.

Zuc, becataria, an, eta emen zabiltzala, ederetsi diozu edari viciari, eta ascotan jarri zatzu *lausoa beguietan*: moteldu zatzu mihia: asi dira echeac giraca; itz batean, achitu dezu araco aditzen dezun gauzacho ura. Alaere ez dezu garbiro aitortu confesioan zure becatua, baicic esan dezu: *berotuse nintzan: alegueratuse guiñan: bear baño gueyago edan nuan.* Onelacoen confesioac ascotan izan oi dira gaiztoac. Eta guizonezcoaquin au guerta baditeque, cer izango lizaque, emacumeac oituco balira edari vici eta goisoetara, eta achituco balue polita baño andiseagoren bat? Onelaco emacumeac guchitan berez aitortuco luque guertatua garbiro.

Zu, becataria, etzera osotoro orditzen; baña sarritan, edo era dezun gucian bazarraizca edanari; emendic dator zorrai ez eranzutea; umeac gaizqui acitzea, eta emaztea gosea iltzeco, eta umeac estaltzeco, bear danaren billa ibiltzea. Atozea, eta edaneraco zure oitura orren ondoren oec garbiro esan dituzu confesioan? Oriec ez jauna; ceren oriec garbiro esan ezquero, nortaqui cer aguinduco ciran? Eta ez dezu ecusten zure confesioac gaiztoac izan dirala? Urlia ez da osotoro orditzen, baña arequin dira suac, eta garrac, eta botatzen ditu lagun urcoen contra birauac galerazten du paquea echean, eta lagun artean, eta aguertzen ditu besteren tacha isilic ceudenac. Atozea urlia, eta garbiro esan dezu confesioan, cer ondorenac datorquizun edanetic? Ez, Jauna; galdua ninzan alabaña oriec garbiro esanda. Gaiztoac izan dira beraz zure confesioac. Sandia ere ez da osotoro orditzen, baña era danean badarrayo goisoari, edo viciari, eta gauza jaquiña du, onguicho edaten duanean, lasaitzen, eta erraztutzen dala araguiaren atseguin loyetaraco: ecer ez bezala dira arreizquero itz desonestoac, uquiera, eta queñada lotsagarriac: orregatic esan zuan S. Vicente Ferrerec, illac piztutzea baño mirari andiagoa dala onelacoac garbitasuna gordetzea. Atozea oraiñ guizon, edo emacumea, garbiro esan dezu confesican, cer becatutan erori ceran edanagatic batezere garbitasunaren contra? Ez, Jauna; beldur nintzan alabaña, debecatuco cidala edariari diodan jayera. Orra bada, nola beldur orregatic eguin dituzun confesio gaiztoac. Emen gazteai itz bat: mundu gaiztoan vici cerate, eta edaneraco griñagandic igues eguizue, bestela galduco cerate, ala munduaren, nola Jaincoaren aurrean.

Zuc, Cristaua, noizbait eguin cinduan becatu itsusi batzuec, eta bear bada abere, edo ganadu, edo egaztiren batequin, eta confesioan esan cinduan pensamentu utsac bezala. Eguin cenduan confesio gaiztoa. Badira batzuec, becatuac diran bezala esateco, viotzic ez duenac, baldin confesorearen galdeac zuzurian bertan uquitzen ezpaditu. Ostu omen zuan mutil batec anzumeren bat: galdetu cion confesoreac: *ostu dezu arcumeric?* Eranzun cion: *ez Jauna*: eta guero cion, *arcumearen lecuan esan balit anchumea galdua nintzan.* Cristaua, edo confesoreac galdetu, edo ez, zuc becatuac aitortu bear dituzu, ceregan arquitzen dituzun bezala.

Universidad de Deusto
Biblioteca

Zuc, becataria, urliarequin, edo sandiarequin eguin cinduan becatu batzuec; ura zan aidea, ezcondua, edo beste estadutacoa. Esan cenduan confesioan becatua, baña ez cer estadutacoa zan, edo aidea zala. Eguin cenduan confesio gaiztoa.

Zuc eguin cenduan becatu urliarequin, eta ez dezu confesatu, ceren arc eraguin, eta esan cizun, quezcaric ez iduquitzeco: *berac confesatuco zuala gucia.* Atocea, eta orrembesterequin confesatu gabe daucazu becatua? Eztaquizu, bacoitzac berac esan bear dituala bere becatuac?

Zuc dembora batean utzi cenduan confesatu gabe lotsaz araco becatu ura: guero garizumaren batean berritu cinduan confesio guciac; baña etzenduan izan viotzic esateco, araco becatu ura utzi cenduala lotsaz confesatu gabe. Ause da, confesioac berritzeco eguin dezun lan gucia galtzea, eta berriro eguin bearrean gueratzea. Zuc asieratic esan baciñuca confesoreari: *Jauna onembeste urte dira onelaco becatu lotsaz utzi nuala confesatu gabe: arreizquero urtean eguin ditut onembeste confesio.* Era onetan erraz, eta ongui eguin centzaquean cere confesioen berritzea, eta au eguin gabez gueratu cera len baño gaizquiago.

Zuc eguin cenduan urliarequin, edo sandiarequin araco becatu itsusi ura: confesioan, cere burua edertu nayez, esan cenduan: *borchaz, eta nai ez nuala eraguin cidan, Jauna.* Borchaz? Balizaque, baña guchitan au guertatzen da. Borchaz? Atozea, etziñan gustoz egon urliarequin aura beguira, eper-zacurra eizari dagocan eran? Atozea, eta deadar eguin cenduan? Jauna, esaten nion, utzi ceguidala paquean. Orise da ardiac otsoari esatea: *otsoa utzi guidazu paquean.*

Zuc guizon, edo emacume ezcondua, eguin dituzu

cere vicilagunarequin, Jaunaren legueac debecatzen dituan, asco gauza, batzuetan, aur asco izan ditzatzun, beldurrez; besteetan araguizco atseguin ciquiñ berriac arquitu nayez. Iguerritzen cenduan, etziruditela ongui modu nazcagarri oriec: ascotan gogora zatzu, confesoreari gauz oec esatea, baña lotsatu cera esateco, eta aurrera joan cera cere modu itsusietan, ceregan diozula: *ezconduen artean cilleguidira gauz onelacoac.* Cristaua, zure confesioac gaiztoac izan dira, ceren beldur, eta quezca oriec quentzeco arretaric izan ez dezun, eta jarraitu diezu cere modu itsusiai. Jauna, ez da bada emaztea guizonarena, eta guizona emaztearena? Bai, baña ez, Jaunac debecatzen dituan gauzac eguiteco. Zurea da zatoan, edo bombillan daucazun ardo ona, ez ordea cere burua, edo besteric orditzeco. Sararen lenvicico zazpi guizonac ezconduac ciran; alaere Sararen guelara sartzean, zazpiac urcatu cituan Demonioac. Judas Patriarcac ezcondu zuan bere Seme nagusi *Her* ceritzana Tamarrequin, eta Seme nagusi oni vicia quendu cion Jaunac, ceren gaiztoa zan beraren beguietan. Ez digu Escriturac esaten, cer gaiztaqueria zan Herrec eguiten zuana; baña jaquintsu ascoren iritzia da, eguiten cituala loiqueria nazcagarriac. Patriarcac eman cion alargunari bigarren seme, *Onan* ceritzana (au zan alabaña orduco usanza Seme nagusia aurric gabe illtzen zanean). Bigarren Seme onec ere eguiten cituan lizunqueri itsusiac, eta quendu cion Jaunac vicia. Ecusten dezu, nola ezconduen artean ere guerta ditezquean asco becatu? Orregatic gauzaren batzuec quezca ematen badizue, galdetu bear diozu confesoreari, becatu diran edo ez.

Era onetan, nere Cristaua, gure animac sendatzeco, eta Ceruraco bidean ipintzeco, gure Salvatzalleac utzi cigun sendagai miragarria biurtzen du becatariac bere animaren puzoi, eta amilca dijoa becatuaren bideetan. Orra cer datorren gure Aita onaren uztetic: eta orra ceñ eguia andia dan Jeremiasec diona: gauza gaizto, eta samiña dala guc gure Jaun, eta Jaungoicoa utzi degun eran utzitzea: *Scito, et vide, quia malum, et amarum est reliquisse te Dominum Deum tuum.* Noiz artean bada, becatari cere galgarria, noiz artean iguesi ibillico cera zure animaren jabe, eta arzai onagandic? Aspaldi zure billa dabill, eta deyez dagoquizu: biur zaite bada beragana; baña biur zaite osotoro: aztuco da zure esquergabequeri guciaz, eta emango dizu betico vicitza. Amen.

OGUEIGARREN ERACUSALDIA.

Azqueneco Eracusaldian uquitu dira, becatuac lotsaz confesatu gabe utzita, eguiten diran, confesio gaiztoac. Orain aditzera emango dira, becatua ez aitortzeco, etsayac becatariari gogora ecarri oi diozcan iduripen, eta zoraqueriac: eta ondoren uquituco da, nolaco ondorenac emendic datozquion animari: eta ceñ gauza gaizto eta samiña dan guc gure Jaun, eta Jaungoicoa utzi degun eran utzitzea.

Dereliquisti Dominum Deum tuum... Scito et vide, quia malum, et amarum est reliquisse te Dominum Deum tuum. Jerem. 2.

Utzi dezu becataria, zure Jaun, eta Jaungoicoa, eta cembat ere andiac, eta asco diran, zu cere Aita onagana biurrerazteco, aditzera eman diran gauzac, ez da batere biguindu zure viotz ori: olagarroa arcaitzari itsatsia dagoan eran itsatsia dago zure viotza becatuaren bideai, eta dirudianez eyaca, edo lasterca zoaz, etsayac zuretzat prestatua daucan, suzco aincira izugarria: jaquizu bada esaten dizu Jeremiasec: jaquizu, eta ecusi ezazu gauza gaizto, eta samiña dala, zuc zure Jaun, eta Jaungoicoa utzi dezun eran utzitzea: *Scito, et vide, quia malum, et amarum est reliquisse te Dominum*

Deum tuum. Eguia au norc nai ezagutzen du, becatuaren ondoren samiñai beguiratu ezquero : orregatic ondoren oen gañean cerbait itzeguin det Eracusaldi batzuetan: eta azquenecoan uquitu nituan, lotsaz, edo beldurrez becatuac confesatu gabe eguin oi diran confesio gaiztoac ; oec alabaña dira becatuaren ondorenetatic bat. Gaur uquitu bear ditut, benic beñ, becatua ez aitortzeco, etsayac becatariari gogora ecarri oi diozcan, iduripen, edo zoraqueriac. Urrena, emendic animari datozquion calte negargarriac. Oec ongui ezagutu ezquero, erraz iguerrico du becatariac ceñ gauza gaizto, eta samiña dan guc gure Jaungoicoa utzi izan degun eran utzitzea. Asi gaitecen bertatic.

Lotsaz, edo beldurrez confesatu gabe utzi dituzu, becataria, cembait becatu, eta vici cera becatuaren aranzac gau, tą egun estutzen, eta aunattzen zaituela. Badacus ori etsai galgarriac, eta igues eguin ez deguiozun confesio onaren bidez, gogora ecarrico dizquitzu asco iduripen, eta zoraqueria. Ara cembaiti ecarri izan diezten batzuec.

Lenengo iduripen, eta zoraqueria: *ez dago neretzat barcacioric.* Ez dago, ez, zuretzat barcacioric, ezpadezu aitortzen, edo confesatzen becatua damu eguiazco, eta vicitza ontzeco asmo osoarequin. Nola izango da zuretzat barcacioa, eguin nai ezpadezu, cere aldetic eguin bear dezuna ? berequin eramango zaitu etsai galgarriac betico su, eta garren artera, eta emen aitortu nai ez dezuna, an aitortuco dezu adiaz, eta negarrez. Baña baldin zuc eguindaco becatuen damu eguiazco, eta vicitza ontzeco asmo osoarequin aitortzen badituzu zure becatuac,

jaquizu, zure Aita Cerucoa dala guciz ona, eta urricaritsua : *ez del nai, dio, becataria galtzea, baicic nigana biurtzea:* nigana biurtzen dan unean bertan aztuco naiz, eguin dizquidan esquergabequeria guciaz: *Omnium iniquitatum ejus, quas operatus est, non recordabor* (Ezechiel. 18). *Ala eguin zuan seme ondatzallearequin.*

Bigarren iduripen, eta zoraqueria: *Becatu oec esaten badiozcat confesoreari, ez dit absolucioric emango.* Anciñaco demboran lecu batzuetan ez omen zuen eman nai cembait becaturen barcacioric, ez eta eriotzaco orduan ere: baña Erromaco Elizac etzuan ontzat eman beñere onelaco gogortasunic, eta bear bezala prestatua dagoan edoceñi pozic emango dio confesoreac barcacio edo absolucioa. Demagun aitortzen dan becatuaren barcacioa ematea dagocala Obispo Jaunari, edo Aita Santuari: buldarequin edoceñ confesorec eman dezaque heregiaz osteronz diran becatuen barcacioa. Demagun, zure becatua dala heregia: alaere confesoreac ecarrico du, becatu orren barcacioa zuri emateco, escua. Orregatic zoraqueri andia da esatea: *ez dit absolucioric emango.* Badaquizu, nori ecin eman deguioquean absolucioric ez emengo confesoreac, ez Obispo Jaunac, ez Aita Santuac ? Jaquizu bada becatari au dala, confesio onac escatzen duan prestaera eguin ez duana : becatutic, eta becatuaren bideetatic aldeguin nai ez duana ; baña presta zaite ongui, eta esaitzu zure becatuac, cere viotzean arquitzen dituzun bezala, eta atseguin andiz emango dizue absolucioa. Badira becatari batzuec añalacatzac, leundugabe, eta basatiac, non absolucioa, eta comunioa bereala artu nai duen, artaraco prestatuac ezpadaude ere : eta aditu det, cembait aldiz confesoreari errosarioac utzita, esan dioe-

la: *nere anima berorren gañean: ez naiz gueyago etorrico confesatzera.* Ez da emen onelaco gauzaric guertatzen: badaqui alabaña bacoitzac, absolucioa, eta comunio Santua artu bear ez dirala, artaraco sasoi onean jarri artean: badaqui confesioa eguinda ere, ascoc ez duela absolucioric artu nai, bear dan damu, eta asmoa obeto sortzeco.

Irugarren iduripen, eta zoraqueria: *cer esan, edo beregan igaroco luque confesoreac, esango banioz-que becatu oec?* Atozea, eztaquizu, confesorea ere, zu bezala dala guizona, eta bere utseguiteac izango dituala Mandamenturen batean? eta bear bada zureac baño andiagoac? eta izan ezpalitu ere, jaquin bear du, Adanen umea cerala, griña charrez inguratua, eta erraz dala irristada batean crortzea ¿cer esango du beregan? Bitatic bat edo ongui prestatua zaude, edo ez? Prestatua ezpazaude bertatic Sacramentuac artzeco, esango du beregan, gauza bearra da becatari au alaitzea, biur dedin Jaunagana; eman bear zayo dembora, gaizqui vicitu dan demboraco confesioac berritzeco: au esango, eta eracutsico dizu, cer, eta nola eguin bear dezun. Atozea, eta cer neque da au, zuc gau ta egun ceregan igarotzen dituzun quezca orien aldean. Baña ecusten badu, bear dan prestaera eguiña daucazula: garbiro aitortzen dituzula eguin dituzun becatuac, cer esango du orduan? Esango du: *gudari, edo soldadu ona cerala, pelea batzuetan zauriz betea gueratu bacera ere.* Demagun guerrari, edo soldadu bat, etsayarequin pelean dabillela, artzen ditu zauri andiac, eta asco. Deitzen dio sendatzaileari, eta esaten dio: ona nolacoa gueratu naizan nere pelean: ona beso au cincilica, eta burua zuloz betea: ona aztala balaz igaroa; eguin beza sendatzeco aldana, naiz erreaz, naiz ebaquiaz, bes-

tela ecin senda ditequeana. Atozea, cer esango du sendatzalleac, guerrariaren autic au aditzen duanean? Esango du, viotz andicoa dala. Au bera esango du zuzaz confesoreac, baldin zuc garbiro, eta umilqui aitortzen badituzu zure animaco zauriac, edo becatuac.

Laugarren iduripen eta zoraqueria: *norc esango diozca confesoreari becatu añ itsusi, eta nazcagarriac? Ez det uste, bestec eguin duala añ itsusiric.* Atocea, Santo Cristoren bat ceatu ote dezu? Aldareco Sacramentua oñ-pean erabilli ote dezu? Norbaiti vicia quentzeco puzoya eman ote diozu? Ez det uste, eta au gucia guertatu balitzatzu ere, jaquizu, ori, eta gueyago igaro dala munduan. Ez da cer esan ecer seigarrengo Mandamentuaren contraco becatuen gañean: ceren guertatu diran gauza nazcagarriac aitatze utsac ciquindu litzaquean zuen gogo, eta viotzac. Munduaren asieratic Noeren demboraraco aimbesteraño ciquindu ciran guizonac, non damutu citzayon Jaunari guizona eguin zualaco: eta Noe, ta beraren echecoac ez, beste guciac, guizon, eta emacumeac, ala zarrac, nola gazteac bucatu cituan, bidaltzen cituala mundu gucia estali zuen ujolac ¿cergatic bada diozu, edo uste dezu, ez duala bestec eguin zureac, beceñ itsusiric? Eta ala baliz ere, jaquizu, mundu guciaren aurrean aguertuco dirala becatu oriec, eta ongui confesatzen badituzu, edertuac, eta lotsaric emango ez dizuen eran gueratuco dira. Aguertuco dira Daviden, eta S. Pedroren becatuac; aguertuco dira Santa Maria Magdalenaren utseguiteac, baña ez dieza lotsaric batere emango.

Bostgarren iduripena, ta zoraqueria: *izutuco lizaque Confesorea, becatu itsusi oec esango baniozcaque.* Au da zoraqueri farragarri bat. Confesoreac zure becatu oriec baño andiagoac iracurtzen ditu bear

bada Escritura Santan, eta ez da confesio-lecuan ésertzen virtuteac aditzeco. Badaquizu, cerc icaratuco duan Confesorea? Icaratuco du ecusteac, ez dezula zuc viotzic becatutic, eta becatuaren bideetatic aldeguiteco, eta alaere Sacramentuac artu nai dituzula.

Onembesterequin ezagutu dezaquezu, Cristaua, iduripen, eta zoraqueri utsac dirala, zure becatuac ez aitortzeco, etsayac buruan sartu dizquitzun beldur oriec: eta beragatic lembait len utzi bear dezu lotsa anima galgarri ori; bestela zure gañera etorrico dira, ascori etorri zaizcan, calte negargarriac. Oec dira oraiñ uquituco ditudanac.

Lenengo caltea izan oi da egunetic egunera acitzea, becatua aitortzeco, beldur, edo lotsa. Ascotan gogora datorquio bere becatua: ecusten du, nora dijoan, ezpadu confesatzen: badabill ar ozcari onequin gogaitzeco zorian; batzuetan jartzen da becatua gar. biro esateco asmoan, baña confesioco demboran ez du viotzic onetaraco: guertatzen zayo, Isayas Profetac erdi nai, eta ecin erdi dagoan emacume batez diona: etorri ciran semeac jayotzeco zorira, baña etziran jayo, ceren etzuan amac indarric: *Venerunt filij usque ad partum, et virtus non est pariendi* (c. 37). Ala guertatu citzayon inguru onetan nescacha bati: gaisotu zan, eta artu cituan Sacramentuac, baña etzituan esan, lotsaz confesatu gabe ceduzcan, becatu batzuec. Iltzeco icerdi otzac eman cioen: deitu cion lagun bati, eta esan cion: *illtzera noa: onelaco, eta qlaco becatu lotsaz confesatu gabe utziac dauzcat: eta zuc nere ordez esan guiozcatzu Confesoreari.* Era onetan ill zan.

Bigarren caltea vicitza gucia igaro bearra barrengo paque, eta atseguin-contenturic gabe. Alperrac dira soñuac, eta trisca guciac becatuaren barrengo aranza ura ateratzeco: atseguin, eta jolasen erdian, inguratuco dio viotza illuntasun, eta tristura andi batec. Irugarren caltea da vicitza gogaicarri onen anceco eriotza. Ala guertatu citzayon Valencian dama bati. Gueratu zan au guraso gabe: asi citzayon ezcutari bat milla losencha eguiten; sarritan cijoaquion itzeguitera, eta atzenean cuturtu nai izan zuan becatura. Demboren buruan erori zan. Sarritan confesatzen zan, len oi zuan bezala; baña etzan atrebitzen guertatu citzayona esatera. Iru urte joan ciran guisa onetan confesio, ta comunio gaiztoac eguiten cituala: eta Jaunac bidaldu zuan erri artara Misionari andi bat. Asi zan au Jaunaren Itza adirazten: etzuan damac sermoiric galtzen, eta bacoitzac, arpoi baten eran, igarotzen cion viotza. Eciñ ase zan negar eguitez, eta cion beregan: *Betico cere burua galdu naico dezu? Etzenduan lotsaric izan becatu eguiteco ¿eta lotsatzen cera aitortzeco? Baldin lotsatzen bacera, bateguin confesatzeco, zoaz beste batégana: orra nondezun Misionaria, eta ordu erdi batean irten zaitezque neque orretatic.* Egun batean añ sendoro uquitu cion viotza Jaunaren Itzac, non osotoro erabaqui zuan aitortzea bere becatua. Eguin zuan gaisoaren iduria, eta deitu cion Misionariari. Joan zan au lagun batequin: aditu cion bere confesioa: eta ecusiric negar andiaquin esan cituala becatuac, atseguin andiarequin eman cion absolucioa, eta biurtu zan bere Colegio, edo Conventura. Eria confesatzen cegoan demboran, Misionariaren laguna arquitzen omen zan igarotzen zana ecusteco eran, ecer ecin aditu bacezaquean ere: eta onec confesioco demboran ecusi zuan oyaren bazterretic noizcean beñ aguertzen zala atza-

par beltz itsusi bat, eta estutzen zuala eriaren eztarria alaco eran, non cirudian itoco zuala. Esan ciou Misionariari ecusi zuana: biurtzen da au eriaren echera, eta gauza negargarria! Eria, edo eriaren iduria eguin zuana ill zan Misionaria ara zaneco. Quezca, eta naigabe andiarequin joan zan bere Colegiora: jarri zan Sacramentuaren aurrean, anima argatic Jaunari erregutzen. Gau erdico demboran aditu cituan cateen otsac, eta adia izugarriac: andic laster aguertu zan emacume doacabe ura garrez inguratua, eta esan cion confesoreari: *Ni naiz, zurequin confesatu naizan emacume ura. Atozea*, esan cion Misionariac: Etzera ongui confesatu? Ez, eranzun cion, ez naiz osotoro confesatu: asi ninzan chiquienetatic, andienac uzten nituala azqueneraco, oen artean oraiñ iru urte guertatu citzatan seigarrengo becatu bat, eta ondorengo confesio, eta comunio gaiztoac. (Esan zuan, seigarrengo becatuan nola erori zan). Ay! cion: *andienetatic asi banintz!* Baña lotsatu nintzan, eta guerotic guerora andiagoa zan lotsa au, eta etsayac gogora ecarri cidan, beste edoceñi esanda baño gueyago galduco nuala zuri nere becatua esatearequin: osasunarequin nengoala, eta gaisotzen nintzanean gucia confesatuco nuala. Zu nere echetic irten ciñan bezala, *gueratu ninzan itz gabe, eta andic laster illa.* Atozea, esan cion Confesariac: *eta oraiñ cerc ematen dizu penaric andiena? Ecusteac*, eranzun cion, *Jaunac bidaldu cinduela zu urrutietatic, nere anima Cerurako bidean ipintzera, eta galdu dedala era añederra.* Au esan da, ondatu zan betico su, eta garren artera. Orra, cer dacarren becatuac lotsaz, edo beldurrez confesatu gabe utzitzeac.

Au gucia, eta gueyago dator guc gure Jaun, eta Aita ona utzitzetic, eta beregana biurtzeco degun zabarqueriatic. Emendic atera ezazu, Cristaua, ceñ bide

andiarequin esan zuan Jeremiasec, gauza gaizto, eta *samiña dala guc gure Jaun, eta Jaungoicoa utzi izan degun eran utzitzea. Scito, et vide, quia malum, et amarum est reliquisse te Dominum Deum tuum.* Atozea, becataria, eta au gucia arguiro ezagutzen dezula, oatuaren eran becatuan vici nai dezu? Ea, zoaz zure Aita onagana, eguizu confesio on bat, eta vici zaite Cristauari dagocan eran: zuc ecusico dezu, ceñ gauza gozoa dan zure Jauna servitzea, eta emango dizu atzenean betico vicitza doatsua. Amen.

OGUEI TA BATGARREN ERACUSALDIA.

VICITZA ONTZECO ASMO OSO, ETA ERAGUILLEA SORTU GABEZ EGUITEN DIRAN CONFESIO GAIZTOEN GAÑEAN.

Dereliquisti Dominum Deum tuum... Scito, et vide, quia malum, et amarum est reliquisse te Dominum Deum tuum, Jerem. 2.

Utzi dezu, Cristaua, zure Jaun, eta Jaungoicoa, eta beragana biurtzeco neurri egoquiac artu lecuan, ez dituzu ecertan artu nai zure Aita onaren deiac. Jaquizu bada, esaten dizu Jeremiasec; jaquizu, eta ecusi ezazu, gauza gaizto, eta samiña dala, zuc zure Jaun, eta Jaungoicoa utzi izan dezun eran utzitzea: *Scito, et vide, quia malum, et amarum est, reliquisse te Dominum Deum tuum.* Eguia au beguien aurrean ipintzen digüe, beste gauz ascoren artean, becatuari darraizquion ondoren samiñac. Oen artean

laugarren lecuan ipiñi guinduan confesio gaiztoac, eta azqueneco bi eracusaldietan itzeguin det, lotsaz, edo beldurrez becatuac confesatu gabe utzita, eguiten diran confesio gaiztoen gañean. Baña ascoz gueyago dira, vicitza ontzeco asmo oso, eta eraguillea sortu gabez eguin oi diranac. Orregatic gaur aditzera emango det, benic beñ nor diran vicitza ontzeco asmo osoric gabe confesatzen diranac. Urrena, emendic ateraco degu, ceñ gauza gaizto, eta samiña dan guc gure Jauna utzitzea. Enzun arretarequin.

Confesioco Sacramentuarequin gure becatuen barcacioa iristeco, aitortu bear ditugu gure becatuac; eta au ere ez da asco; baicic gauza bearra da eguindaco becatuen damu eguiazcoa aurrera becaturic beñere ez eguiteco asmo oso eraguillearequin. Asmo au da becatu gucietara, larrietara beintzat zabaltzen dana, eta eraguillea. *Asmo osoa*, esan nai det viotz gucitic jayoa, eta alaco sasoyan ipintzen duana becataria, non prest jartzen dan, ecergatic ere aurrera becaturic ez eguiteco, ez eta vicitzagatic, edo eriotzagatic ere. Asmo, becatu gucietara, larrietara beintzat zabaltzen dana; emendic ez da asco becatu au, edo ura ez eguiteco asmoa, baicic bear da, becatu larriric beintzat batere, eta beñere ez eguiteco asmoa. Atzenean, Confesioco Sacramentuac escatzen duan asmoa, da *eraguillea*, au da asmo bat, becataria esnatzen, eta azcartzen duana, aurrera becaturic ez eguiteco neurri egoquiac artzera. Emendic vicitza ontzeco, eta aurrera becaturic beñere ez eguiteco asmo oso-eraguille gabe confesatzen diranac, eguiten ditue confesio gaiztoac. Goacen, nor diran oec, ecustera.

Vicitza ontzeco asmo oso-eraguille gabe confesatzen dira benic-beñ dotrina, eta ongui confesatzeco prestaera icasi nai ez duenac. Cristauac, gaitzaren, eta onaren ezagüeran sartzen danetic, artu bear du Ceruraco bidea, fede, esperanza, eta caridadearen virtuteaz baliatzen dala. Artu bear ditu Sacramentuac, eta atzenean eranzun bear die bere *estadu*, eta cargüen eguin-bideai. Eta nola au eguingo du, ezpadu arretaric ipiñi nai dotrina icasteco, eta bere estadu, eta carguac dituan eguin-bideac ezagutzeco? Cembat, eta cembat onelaco ez dira arquituco estadu bacoitzean? Cembat errietaco cargudunen artean? Onelacoac bada confesatu oi dira vicitza ontzeco asmo oso-eraguille gabe. Jauna, edoceñ estadu, eta errietaco cargüetan bear dira estadu, ta carguaren artzalleac, bestela bereala bucatuco lizaque gucia. Ala da, baña estadu eta carguren bat artzen duanac icasi bear ditu becatu larriaren azpian bere eguinbideac. Ala eracusten digu Santo Tomasec: eta au eguin gabez, asco vici dira gaizqui.

Vicitza ontzeco, eta aurrera becaturic ez eguiteco asmo oso-eraguille gabe confesatzen dira bigarren lecuan, becaturaco bide, eta perill urcoac uzteco viotzic ez duenac. Ala eracusten digüe Teologoac, eta Espiritu Santuac dio: perilla nai duana, perillean bucatuco da: *Qui amat periculum, in illo peribit.* Alaere asco dira becaturaco bide, eta perillac utzi gabe vici diranac, ala confesioaren aurretic, nola ondoren. Urliarentzat becaturaco bide, eta perill urcoa izan zan echean, edo auzoan duan mutill, edo neskach ori: era bercan araco eche artara joatea, vici dan lecuan vicitzea, lagun gaiztoaquin biltzea. Santiarentzat becaturaco bide, eta perill urcoa izan da erriz erri eraquerian ibiltzea: ezcontzeco itza eman cionarequin egotea. Alaere ez due izan viotzic perill

oetatic aldeguiteco: eta aditzera eman due, confesatu dirala vicitza ontzeco asmo oso-eraguille gabe.

Vicitza ontzeco asmo oso-eraguille gabe confesatzen dira irugarren lecuan, besteri becaturaco bidea ematen dioen itz loi, edo modu gaiztoac utzi nai ez dituenac. Batec bere anima galtzea gauza izugarria da: cer prochu ateraco du guizonac mundu gucia irabaztearequin, galtzen badu bere anima? *Quid prodest homini, si mundum universum lucretur, animæ vero suæ detrimentum patiatur?* Anima bat bacarra du, eta au galtzen badu, non arquituco du aren ordaña, dio Jesu-Cristoc: *Quam dabit homo commutationem pro anima sua?* Baña bere anima galtzeaz gañera lagun urcoarena ere galdu nai izatea, au da Jesu-Cristoc bere vicitzaren costuz irabaci cituan animac saltzea Satanasi, eta Jesusen odol preciotsua alperricaco gauza biurtzea. Añ gauz itsusia da au, non Jesusec berac dion: Ay! becaturaco bidea ematen duanaren zori gaiztocoa! *Væ homini illi per quem scandalum venit!* Becatu au ez du ecertan artzen munduac, eta ecertan artu lecuan, cembat eta anima gueyago becatuan amilderazten diran, ambat atseguin gueyago artzen due becatariac. Beguira ezperen, cer guertatzen dan lecu gucietan. Zoaz soroetara, bideetara, placetara, cer ecusico dezu? queñada itsusiac, jolas gaiztoac, ipui ciquiñac. Zoaz echeetara, batecere jai arratsetan? Ecusico dezu, gauetan gueratzen dirala cembait edanean, jocoan, eta guertatzen dirala modu itsusiac. Era onetan lagun urcoari becaturaco bidea ematen diezanac, ez oi due izan viotzic modu gaizto oec osotoro uzteco, eta beragatic confesatzen dira vicitza ontzeco asmo oso-eraguille gabe.

Vicitza ontzeco asmo oso-eraguille gabe confesatzen dira laugarren lecuan, lagun urcoari onran, icen

onean, edo beste ondasunetan eguindaco calteac deseguiteco, edo jabeari bere gauza biurtzeco arretaric ez duenac. Onelaco becatariac beñ baño gueyagotan adituco zuen beren arzai, edo confesoreagandic, deseguin bear dirala esan ditudan calteac, eta gauza biurtu bear zayola jabeari, baña ez due izan viotzic au eguiteco, eguin cezaqueela. Beraz oec, confesatu diranean ez due izan, vicitza ontzeco asmo oso-eraguillerie, ez dira alabaña esnatu artaraco neurri egoquiac artzera. Orregatic S. Francisco Javierrec, S. Carlos Borromeoc, eta Ritualac berac eracusten digüe, ez daquiela eman onelacoai absolucioric. Eta cembat era onetaco Cristau arquituco dira erri bacoitzean? Batzuec calte eguiten dioe lagun urcoari onran, aurpeguira eranzuten diozqueela bere, edo aurrecoen tacharen batzuec; besteac icen on, edo faman, egozten diozqueela ez dituan utseguiteac, edo aguertzen dituela barreatuac ez diranac ¿Eta ez ote dira arquituco anima añ galdu, ta galgarriac, non lagunai esaten diezan besteri eraguindaco becatua? Noiz onelacoac deseguingo ditue calte oec? Badira beste batzuec erriari calteac eguinda, becatu oec ecertan artzen ez dituenac: badira zorrac lecu ascotan izan arren, arretaric ipintzen ez duenac oei eranzuteco. Oec guciac confesatu oi dira vicitza ontzeco asmo oso-eraguille gabe.

Asmo au gabe confesatzen dira bostgarren lecuan becaturaco oitura garaitzeco sayatzen ez diranac. Guerta diteque vicitza ontzeco asmoric sendoena artu arren, guero alaco tentacioac equitea, edo alaco perillean ustecabean batec bere burua ecustea, non erraz irristatu litequean; baña confesatuta, tentacio chit esturic gabe, edo perillera vorondatez joanda, lenecora biurtzen bada, aditzera ematen du, vicitza ontzeco asmo oso-eraguille gabe confesatu zala. De-

magun, urliac duala eche galant bat, ala lurrez, nola basoz; baña bere alperqueriaz galdu du gucia: ez du urtearen erdiraco artoric: eta billa dabil auzoetan: baña nola biurtzen ez daquian ematen zayona, ez dioe ecer eman nai. Ecusiric bere burua guisa onetan, jartzen da bere soroai beguira eta dio: *ay soroac, soroac!* nere alperqueriaz galduac. Laster beste modutan jarri bearrac eerate, eta ez guera arto goscaren beldur izango. Au gucia esan arren, ezpadu arretaric lurrac maneatzeco, simaurtzeco eta iñaurquiñac biltzeco, cer esango degu onelaco necazari alperraz? Esango degu, ez duala artoa ugari izateco asmo oso-eraguilleric, baicic iduri utsa. Eta au bera esan bearrac guera becatariaz, baldin confesatu ondoan sayatzen ezpada arretarequin, bere oitura gaiztoac garaitzeco. Alperric ibillico guera gure naguitasuna gañ churitzen, au da eguia bat ezagüera zucenac nori nai beguien aurrean ipintzen diona.

Vicitza ontzeco asmo oso-eraguille gabe confesatzen dira seigarren lecuan, beren estadu, eta carguaren eguin-bideai eranzuteco arretaric ez duenac. Izan dedilla Erretore, Alcate, Diputadu, guraso bat cintzoa, amar mandamentuac, eta Elizaren bostac ez autsitzeco; baldin bere carguari dagozcan gaucetan arduragabe vici bada, ez da confesatuco vicitza ontzeco asmo oso-eraguillearequin.

Azquenean vicitza ontzeco asmo oso-eraguille gabe confesatzen dira lagun urcoaganaco gorroto, edo gorrotoaren siñaleac utzi nai ez dituenac; ez due alabaña Salvatzallearen legue Santa gordetzeco asmo osoric ¿Cer aguintzen digu gure Salvatzalleac? Aguintzen digu, maite izan ditzacula gure etsayac: *Diligite inimicos vestros*: on eguin zayezue, dio, gorrotatu zaituenai: *Et benefacite his, qui oderunt vos.* (Math. 5). Onguinai ta amorio au, eguiazcoa ba-

da, aguertzen da obretan: laguntzen dio lagun urcoari, premiac ala escatzen duanean bederic, eta ez du eracusten gorrotoaren siñaleric: barcatzen dio etsayari viotz osoarequin. Onguinai, ta amorio au gabe vicitu diranac ez due izan, confesatu diran aldietan, vicitza ontzeco asmo oso-eraguilleric. Eta cembat arquituco ez dira oetatic erri bacoitzean? Badira echeac lagun urcoaganaco gorrotoa jatorriz bezala gordetzen duenac, eta su au itzali gabe igarotzen da gurasoetatic umeetara, eta beste ondorengoetara. Badira, azaria olloaren zai egon oi dan bezala erari ichedoten daudenac lagun urcoari charqueria eguiteco. Badira etsayaren berri onac aditzean naigabetzen, eta berri gaiztoac entzutean poztutzen diranac. Badira, era datorrenean lagun urcoaren contra itzeguiteco, ozca, ta aguinca bezala asico diranac, aren onra, ta icenari utsiqui eguiten dioela. Ez da oentzat janari añ gozoric, nola dan etsayaren utseguiteac esatea, eta aditzea. Badira etsayari diosala ucatzen, edo mucinca eguiten dioenac. Oec guciac confesatzen dira vicitza ontzeco asmo-eraguille gabe. Orra, nere Cristaua, nor diran asmo oso-eraguille gabe confesatu oi diranac.

Ecusten dezu, ceñ ondoren samiñac datocen, guc gure Jaun ona utzi degun eran uztetic? Ecusten dezu, ceñ eguia garbia dan Jeremiasec esaten diguna? Au da gauza gaizto, eta samiña dala guc gure Jauna utzitzea? *Scito, et vide, quia malum, et amarum est reliquisse te Dominum Deum tuum.* Atozea, eta orain ere etzera cere Jaunagana biurtuco? Ez dezu ecusten, cer galtzen, eta cer irabazten dezun esquergabequeri itsusi orrequin? Ay! galtzen dezu cere Jaungoicoa: galtzen dituzu betico atseguin contentuac. Cer irabaci dezu vicitza lotsagarri orrequin?

Cer, ezpadā Satanasequin infernuan erretzen, eta gogaitzen egotea? Centza zaite noizbait, biur zaite zure Aita onagana, eta bera amatzen, eta servitzen dezula, zuc iritsico dezu betico vicitza doatsua. Amen.

OGUEI TA BIGARREN ERACUSALDIA.

COMUNIO GAIZTOEN GAÑEAN.

Adirazten da lenengo lecuan, ceñ becatu itsusia dan Comunio gaiztoa.

Urrena, emendic ateraco degu, ceñ gauza gaizto, eta samiña izango dan guc gure Jaun, eta Jaungoicoa utzitzea, eta beragana biurtu nai ez izatea; bada emendic dator comunio gaiztoac eguitea.

Dereliquisti Dominum Deum tuum....Scito, et vide, quia malum, et amarum est, reliquisse te Dominum Deum tuum. Jeremiæ 2.

Utzi dezu, becataria, zure Jaun, eta Jaungoicoa, eta seta izugarri batequin iraun nai dezu becatuaren bideetan, datorrela datorrena. Jaquizu bada, esaten dizu Jeremiasec: jaquizu, eta ecusi ezazu, gauza gaizto, eta samiña dala zuc zure Jaun, eta Jaungoicoa utzi dezun eran utzitzea. *Scito, et vide, quia malum, et amarum est reliquisse te Dominum Deum tuum.* Nondic nai beguira dedilla, gauza gaizto eta samiña da guc gure Jauna utzitzea, eta beragana ez biurtzea; baña au ezagutzeco bideric erracena

da, becatuac berequin dacartzian ondoren gaiztoai beguiratzea. Ondoren oen artean laugarren lecuan ipiñi guinduan confesio gaiztoac, eta oen gañean itzeguin det cerbait. Confesio gaiztoai darraite comunioa, eta ecusia dago, nolacoa izan ditequean confesio gaiztoaren ondorengo Comunioa. Orregatic gaurco Eracusaldia izango da Comunio gaiztoaren gañean. Aditzera emango det lenengo lecuan, ceñ becatu itsusia dan Comunio gaiztoa? Urrena, emendic ateraco degu, ceñ gauza gaizto, eta samiña dan guc gure Jaun, eta Jaungoicoa utzitzea, eta beragana biurtu nai ez izatea. Enzun becataria arreta andiarequin.

Zuc, becataria, galdu dezu zure Jaungoicoa, eta zure anima: eta ez dituzu utzi nai becatuaren bideac: ura bezala edaten dituzu confesio, eta Comunio gaiztoen becatuac. Ay! eta baciñaqui ceñ becatu itsusia dan Comunio gaiztoa! Nai dezu au aditu? Zaude bada arretaz.

Becatu itsusi asco guertatu dira, eta guertatzen dira munduan, eta oen artean aguitz itsusia izan zan Judasen Jesus saltzea. Judas zan Jesus onac auts-artetic atera zuan guizon bat. Alcha zuan onra andietara: artu zuan bere icasleen artean, eta bere mayan iduqui zuan dembora lucean ¿Cer gueyago? Eguin zuan bere Apostolu, eta Elizaco cargudun andi ¿Eta nola eranzun cien Judasec onra, eta mesede andi oei? saldu cien Juduai bere maisu, eta Onguille andia, eta ipiñi zuan aen atzaparretan adisquidearen idurian. Becatu au orduraño munduan guertatu zan becaturic itsusiena zan, dirudianez, eta S. Leonec dio, gaiztaquerien artean aurreco lecua dagocala: *Privilegio perfidiæ obtinet in facinore primum locum.* Añ itsusia iritzi cion Judasec berac ere, non

izuturic urcatu zuan bere burua. Ipintzu oraiñ, Cristaua, Judasen becatuaren aldean zure Comunio gaiztoen becatua ¿Ceñ ote da itsusiagoa? Ascoz itsusiagoa da zure becatua: Judasec alabaña beñ bacarric saldu zuan bere Onguille andia; baña zuc saldu dezu sarritan, edo Comunio gaiztoa eguin dezun aldi gucietan. Judasec saldu zuan Jesus, argatic bere vicitza eman etzuan demboran; baña zuc saldu dezu, zugatic bere vicitza eman ezquero. Judasec saldu zuan Jesus oguei, ta amar dirutan; baña zuc saldu dezu alseguin lotsagarri bategatic, edo obeto esateco ecer ezean. Judasec saldu zuan Jesus, jaquin gabe, Jesus zala Jaungoico, ta guizon eguiazcoa, eta Munduaren Salvatzallea; baña zuc aurtasunetic daquizu, eta sinisten dezu, Jesus dala Aita beticoaren Seme bacarra, Trinidadeco bigarren Persona, eta Jaungoico eguiazcoa: eta alaere izan dezu ausardia, becatuz loitua zaudela beraren mayan jartzeco, eta saltzeco. ¿Norc eztacus oraiñ Judasen becatua baño ascoz itsusiagoa izan dala zurea? Baña zoaz aurreraseago, ipintzu zure becatua Juduac Jesus illeraztean eguin zuenaren pare, eta ecusico dezu, Juduena baño ere itsusiagoa dala zurea.

Juduac Judas Patriarcaren odolecoac ciran, eta odol onetatic jayotzecoa zan Salvatzallea. Demborac bete ciranean, etorri zan, eta oguei, ta amairu urte igaro cituan oen artean: sendatu cituan eriac, argitu itsuac, eta piztu illac. Alaere etzuen ezagutu nai izan beren Salvatzalletzat, eta aintzacotzat iduqui bearrean, munduan dan guizonic gaiztoenari bezala beguiratu cioen, eta atzenean illerazo zuen gurutzean. Guciz izugarria, eta itsusia izan zan Juduen esquergabequeri au, baña ongui beguiratzen badezu, Cristaua, becatu ascoz itsusiagoac dira zure Comunioac. Juduac artu zuen Jesus Getsemanico baratzan;

lotu, eta eraman zuen Jerusalena, eta eguin ciozqueen bidegabe andiac. Atozea, eta zuc ez dezu ascotan artu Jesus bera zure ortzen artean? Ezdezu loturic sartu infernuco dragoyaren lican, edo becatuz ciquindua cenducan barrumbe orretan? *Loturic*, diot, sartu dezula, ceren ipiñi dezun, eguin nai cizquitzun ontarte, edo mesedeac ecin eguin citzaquean eran. Juduac azotez urratu, eta aranzaz coroatu zuen Jesus ¿eta zuc zugan danez, ez diozu eguin ori, eta gueyago? Doña Sancha Carrillori aguertu citzayon Jesus zauriz betea, eta odola ceriola: eta esan cion: *orra certaco diran Comunio gaiztoac.* Juduac Jesus baño nayago izan zuen Barrabas, guizon gaizto, eta erallea: *Ill bedi Jesus gurutzean*, deadar eguin zuen: eta zuc nayago izan dezu zure viotzean vicitzea Satanas, ecen es Jesus. Juduac beren gañean artu zuen Jesusen odola, etorri al citezquean neque, eta ondoren guciac ecertan artu gabe: eta arreizquero badarraite lecu gucietan Jaunaren aserre, ta madariacacioa: eta zuc cere gañean artu dezu odol ura bera, daquizula emendic datorrela animaren betico galera. Juduac illerazo zuen Jesus; eta au bera eguin dezu cere aleguiñean, S. Pauloc dionez; eta eguin dezu ez beiñ bacarric, baicic ascotan. Juduac atzenean etziaquien ongui, Jesus zala Aita Beticoaren Semea, eta Jaungoico eguiazcoa. Au aditzera eman zuan Jesusec berac gurutzean cegoala, bere Aitari esan cionean: *Aita, barcaguiezu, ez daquie alabaña cer eguiten duen* (Luc. 23): eta S. Pauloc dio, etzuela gurutzean illeracico, nor zan ezagutu balue (1.ª ad Corint. c. 11); baña zuc, Cristaua, guciaren berri daquizula, Comunio gaiztoac eguin dituzu, eta zure Aita, ta Onguille andia aimbeste bider illerazo dezu cere aleguiñean ¿Ez dezu ecusten oraiñ, Juduen becatua baño izugarriagoa dala, zuc Comunio gaiztoarequin eguin dezu-

na? Orregatic esan zuan S. Agustiñec biguñagoac izan cirala Juduac. *Mitius peccaverunt Judæi.*

Baña guchi da oraindaño esan dedan gucia S. Pauloc 'dionaren aldean. S. Pauloren iritzian batayoa ezquero becatu eguiten duanac, beregan danez berriro gurutzean ipintzen du Jesus, eta quentzen dio vicia bere aleguiñean, eta quentzen ezpadio, ori da, ceren piztu zan beñere ez illtzeco, eta ecin ill dite-quean: *Rursum crucifigentes sibimetipsis filium Dei?* Eta cer ote dio Comunio gaiztoa eguiten duanaren gañean? Dio benic beñ, Jesusen gorputza, ta odola gaizqui artzen dituanac, vicitza quentzeco aleguiña eguitea guchi baliz bezala, equiten diela Jesusen gorputz, eta odolari, eta oben, edo culpadun eguiten dala oen contraco bidegabe itsusiarequin: *Quicumque manducaverit panem hunc, vel biberit calicem Domini indigne, reus erit corporis, et sanguinis Domini* (1 ad Corint. c. 11). Itz oetan aditzera ematen digu Comunio gaiztoaren itsustasuna alaco eran, non becatariric gogorrena ere arrituric guera ditequean. Au guc ongui ezagutzeco, demagun Aita batec, bere semeari dion amorioagatic, igarotzen dituala ecin conta al neque, ta naigabe, eta atzenean semeac eguin dituan gaiztaquerien barcacioa iristeco, ematen duala urcamendian bere vicitza. Aditzen du semeac au gucia, eta bere gaiztaquerien damuz corde gabe gueratu bearrean alaco amorruan jartzen da bere Aitaren contra, non ill ezpaliz, berac ilco luquean. Laster eguiten du Aitagana: ateratzen du obitic; ascatzen du ganibetaz gorputza, eta jaten diozca errayac. Esan zadazu: asma diteque Seme onen esquergabequeri, eta gogortasuna beceñ itsusiric? Ezetz esango didazu. Atozea, eta ez daquizu, au bera eguin dezula Comunio gaizto bacoitzean? Jesus da gure Aita maitagarria, guri on-

gui nayez Cerutic lurrera jachi zana. Gu becatutic atera, eta Ceruraco bidean ipintzeco, igaro cituan aimbeste neque, eta oñace, eta eman zuan gurutzean bere vicitza. Guganaco onguinai, eta amorio gueyeguiac eraguin cion au, dio S. Pauloc: *Propter nimiam charitatem.* Eguia onen berri aurtasunetic izan cenduan, eta siniste onetan vicitu cera; baña cer eguin dezu? Cere becatuen damuz negar eguin bearrean, berriro gurutzean ipiñi, eta ill nai izan dezu, eta ill dezu cere aleguiñean, S. Pauloc dion bezala. Ecusi dezu, eciñ ill dezaquezula, eta amorratuaren eran equin diezu beraren gorputz, eta odolari ozca, eta sartu dituzu becatuz loitua daucazun barrumbe orretan, edo Satanasen licean. Arritu zaitezte Ceruac, eta deseguin Ceruco ateac, esan dezaquegu Jeremiasequin: *Obstupiscite Cœli, et portæ ejus desolamini.* Orra, cer aditzera ematen digun lenengo lecuan S. Pauloc Comunio gaiztoaren gañean. *Reus erit Corporis, et sanguinis Domini.* Cer gueyago ote dio Aposqui artzen duanac jaten, eta edaten duala bere betolu Santuac gai onetan? Dio, Comunio Santua gaiztico galera: *Qui enim manducat, et bibit indigne, judicium sibi manducat, et bibit* (1.ª ad Corint. c. 11). Gauz arrigarria! Izan Sacramentu ori animaren vicitza ugarizten duan janaria: izan betico vicitzaren arbola! eta alaere Comunio gaiztoa eguiten duanac jaten du betico eriotza, eta galera! *Judicium sibi manducat, et bibit!*

Ondoren au beste ascorequin dator, guc gure Jaun ona utzi degun eran, utzitzetic. Emendic atera ezazu, Cristaua, ceñ gauza gaizto, eta samiña dan Jaun au utzita beragana biurtu nai ez izatea. *Scito, et vide, quia malum, et amarum est reliquisse te Dominum Deum tuum.* Cer eguiñ al dezaquegu calte oec deseguiteco, eta Ceruraco bidean jartzeco? Ez dago bes-

te bideric, ezpada eguindaco becatuen damuz gure Aita onagana biurtzea, seme ondatzallearen eran: eta aurrera aldeguitea becatuaren bideetatic. Andiac dira gure becatuac, baña andiagoa da gure Aitaren ontasuna. Eguin dezagun au guc bertatic, eta ez digu ucatuco gure becatuen barcacioa: eta emango digu betico vicitza doatsua. Amen.

OGUEI TA IRUGARREN ERACUSALDIA,

Adirazten da lenengo lecuan, ceñ sendagai miragarria dan Jaunaren itz Santua.

Bigarren lecuan, ceñ mimbera dan Jauna beraren itza ongui entzutearen gañean.

Atzenean, nola bere animaren puzoi biurtu oi duan becatariac Jaunaren itza.

Scito et vide, quia malum, et amarum est reliquisse te Dominum Deum tuum. Jerem. c. 2.

Gauza gaiztoa, ta samiña da zuc zure Jaun Jaungoicoa utzi izan dezun eran utzitzea, esaten digu Jeremias Profetac; becatariac alabaña becatuaren atseguin circilla bategatic utzitzen du ontasun bazterga-becoa, ta edertasun paregabecoa dan bere Jaungoicoa; galtzen du Jaun beraren adisquidetasuna, ta gracia, eta gracia onec ematen cion Ceruraco escua; ta irabazten ditu betico suac, eta garrac. Eta gaitz erdi izaque, becatuan lenengo erorten dan bezala, ezaguluco balu, cer eguin duan, eta artuco balu bere Aita onaganaco bidea. Baña au eguiñ ordean amilduaz dijoa mallatic mallara, ta ez oi da gueratu gueyenean betico su, eta garrren artera bere burua sartu dezan artean. Izugarriac dira becatuaren ondorenac; eta oei beguiratzea izan da gure zazpi illabete onetaco lana. Ederretsitzen dio becatariac becatuari, ta artzen du becatuan aisa erorteco oitura; au da lenengo ondorena. Dabillen lecu gucietan prestatzen ditu bere anima galtzeco sareac, lazoac, ezagüera, ta adisquidetasun limuriac; au da bigarren ondorena. Ezta contentatzen bere burua galtzearequin; berequin batean galdu nai oi ditu beste asco-ere, ematen diela becaturaco bidea; au da irugarren ondorena. Gaitz oen gucien sendagai miragarriac utzi cizquigun gure Salvatzalleac Confesioco, ta Comunioco Sacramentuan; baña becatariac biurtzen ditu oec bere animaren puzoi here aldetic eguin bear luqueana eguin gabez; au da becatuaren laugarren ondorena. Ondoren, eta malla oec ecusi ditugu, nere Cristauac. Eta onetara ezquero aurrera dijoa becatari bere galgarria infernuco bere bidean. Eri batec bere caltetan biurtzen baditu sendagairic onenac; cer esango degu aren viciaz? Cer, dembora guchian iraungo duala baicic? Alaere utzi cion Jaunac bere Elizari beste sendagai eder, eta indartsu bat, au da Jaun beraren *Itz Santua*; baña au ere biurtu oi du becatariac bere caltetan, eta ona becatuaren bostgarren ondoren icaragarria. Gaur itzeguin nai dizuet Jaunaren *itz* Santuaren gañean. Aditzera emango dizuet lenengo lecuan: *cein* sendagai miragarria dan Itz au. Aditzera emango dizuet bigarren lecuan: ceiñ mimberaa dan Jauna beraren itza ongui entzutearen gañean. Aditzera emango dizuet atzenean: nola bere animaren puzoi biurtu oi duan becatariac Jaunaren itza. Gaurco dotrinaren gai au

Universidad de Deusto
Biblioteca

norinai illuntasunez, eta penaz betèric utzi dezaquean gaya da; baña alaere eciñ utzi diteque uquitu gabe, ceren asco dijoaquion Cristauari gauz au ongui ezagutzean. Asi gaitecen bertatic.

§ 1.

Jaungoicoaren *izt andia* da Jaungoico beraren Semea, Trinidadeco bigarren Persona Aitaren betico Jaquiundea, ta antz ederra, ta Aitarequin gucian berdiña; baña gaur itzeguiten degu, ez itz andi onen, baicic Jaunac guizonai berez, edo bestez aditzera eman izan dien itzaren gañean. Legue zarreco Patriarcai ascotan itzeguin cien Jaunac berez; eta legue bereco gendeari itzeguin oi cion Profeten autic. Legue berrian lenengo Cristauai itzeguin cien Jaunac Apostoluen aotic, eta guerocoai itzeguiten die Obispo Jaunen eta oec bidaltzen dituenen bidez. Munduaren lau bazterretara zabalduric aditzera emanguiezue guciai Evangelioa, edo nere Legue Santa, esan cien Jesu-Cristoc Apostoluai: *Euntes in mundum universum, prædicate Evangelium omni creaturæ.* Marc. 16. Ala eguin zuen Apostolu Santuac; eta gueroco demboretan lecu gucietara bidaltzen ditu Eliz Ama Santac bere predicariac; eta Catolicoen erri gucietan aditzera ematen da Jaungoicoaren itza.

Itz au ezta predicatzen duanaren aotic irteten dan otsa; otsa alabaña gueyenez-ere iristen da aditzallearen belarriac ucuitzeraño, baña Jaungoicoaren itza ongui aditzen bada igarotzen da barrena edo viotzera. Predicatzen duanaren itza da carroza bat, non dijoan Jaungoicoaren itza; carroza gueratzen da enzunlearen belarriac uquitzean, eta Jaungoicoaren itza aurrera dijoa, ongui artzen bada. Argatic doctrinac, eta sermoyac aditzen ditugunean ez ditugu aditu bear guizonaren itzac bezala; eta onela aditzen baditugu ez degu fruturic ateraco; baicic aditu bear ditugu Jaungoicoaren gastiguac bezala, pres ipintzen ditugula gure viotzac Jaunac aditzera eman nai diguna enzuteco, ta eguiteco. Jaungoicoaren itza da argui bat ayenatzen dituana gure ez jaquiteac, ez oroitzeac, uste oquerrac, eta iritzi gaistoac. Argui onec eracusten dio animari, ceiñ on-maitagarria dan gure Jaun Jaungoicoa, ta cein andi miragarriac diran Jaun onec bere maitatzalleentzat prestaturic dauzcan ondasunac. Argui onec eracusten dio animari, cer nequeac, cer suac, eta garrac irabazten dituan becatu eguiten duanac; baita nola oetatic aldeguin dezaquean ere. Jaungoicoaren itza, adimentuaren arguia ezecic, da gañera viotzarentzat sua; ongui enzuten danean alabaña deseguiten, eta urtutzen ditu becatuaren gelac, eta berotzen du becataria Ceruraco bidea artzeco. Cer ¿ ez dira nere itzac suaren eran? dio Jaunac Jeremiasen aoaz. *Numquid non verba mea sunt quasi ignis?* (Jer. 23). Jaunaren itza da atzenean gaistaquerietan lo dagoan becataria esnatzen duan ots andi-indartsu bat. *Vox Domini in virtute, vox Domini in magnificentia.* (Psalm. 28). Edo da Jeremiasec dionez arrien antzeco viotzac ere puscatzen dituan mallua. *Numquid non verba mea... Sicut, malleus conterens petras?* (Jerem. 23).

Eta ona, cergatic Jaunaren itza dan sendagai guztiz miragarria, naiz gure animac becatuaren sare, ta lazo oetatic gordetzeco, naiz obra onac gogo obearequin eraguiteco, naiz becatua, ta becatuaren bideac utzierazteco. Cembat, eta cembat zar, eta gaztec diraue Jaunaren gracian, eta adisquidetasunean, ceren, Jaunaren itza viotz onarequin aditu ta, ecusi cituen Munduac becaturaco zabalduric dauzcan sareac, eta lazoac? eta gorde ciran oetan sartze-

Universidad de Deusto
Biblioteca

tic? Cembat, obra onetan, eta Ceruraco bidean zabartzera, ta naguitzera eguin zuenac, esnatu izan dira Jaunaren itzarequin? Cembat, eta cembat becatari, Sacramentuetatic fruturic batere ateratzen etzuenac; edo frutu atera ordean Sacramentuac bere animen puzoi biurtzen cituenac, atzenean Jaunaren itzac atera ditu becatutic, eta becatuaren bideetatic? Ecin conta al dira, nere Cristauac, era onetan Jaunac beretu izan dituan animac; eta esan diteque, viotz umill, eta ongui prestatuarequin Jaunaren itza aditzen duan becatariac laster deseguingo dituala becatuaren cateac, eta biurtuco dala Jaunagana. Cergatic bait esan zuan Jesu-Cristoc: Jaungoicoarena danac enzuten ditu Jaungoicoaren itzac, *Qui ex Deo est verba Dei audit* (Joan. 8). Eta are obeto ezagutu dezazun Cristaua nolaco sendagaya dan Jaunaren itza, beguira ezazu itz onec Elizaren asieran Mundu gucian eman cituan frutu miragarrietara. Jesu-Cristo etorri zan demboran Juduac ez, beste Mundu gucia vici zan Jaungoico eguiazcoaren ezagüera gabe. Vici zan idolatriaren gau illunean, ta bacoitzac, bere griña charrai onguiena cegoten, idoloa adoratzen zuala. Etorri zan Mundura Jesu-Cristo, eta etorri zan ez Juduen oneraco bacarric, baicic Mundu guciari eracustera Ceruraco bidea, ta bere legue Santa; legue bat debecatzen duana Jaincoaz ostera beste gauzaric adoratzea; legue bat debecatzen duana etsairic andienari-ere gaitz opa izatea, ta gaitzari gaitzez eranzutea; legue bat debecatzen duana Munduco onra, ondasun, eta atseguin-contentuetan viotza ipintzea; legue bat atzenean debecatzen dituana araguiaren atseguin loyac, usurac, eta tratu ciquiñac. Legue au Munduari ar-eraztea zan lan guciz andia, bere contra cituan alabaña Munduaren oitura, ta usadio zarrac; bere contra cituan guizonaren griña,

ta pasio guciac; bere contra munduco Erregueac eta Emperadoreac, guizon andiac, eta chiquiac, jaquintsuac, eta jaquinezac. Eguiteco andi onetaraco autu cituan Jaunac ez Munduco andiac, ez jaquintsuac, eta aberatsac, baicic arrantzale batzuec, jaquiñezac, eta pasioco demboran beldurrez Jesu-Cristogandic aldeguin, edo igues eguin zuen guizonac. *Infirma mundi elegit Deus, ut fortia quæque confundat.* Alaere oen aotic itzeguiten zuala Jaunac urte guchiren barrumbean ayenatu cituan idoloac; zabaldu zuan Mundu gucian Jaungoico eguiazcoaren ezagüera, ar erazo cien guizon andi, eta chiquiai bere legue eder garbia, eta ecusi zan gurutzea Emperadore, ta erregueen coroetan, onra anditzat ipiñia. Ecusten dezu, Cristaua, ceiñ sendagai miragarria dan Jaungoicoaren itz Santua? ¿Nolaco umiltasunarequin bada, nolaco beguiramentuarequin, eta viotzeco prestaerarequin aditu bear ez guenduque itz au? Izan dira Santuac Escritura Santa iracurtzen etzuenac belaunico, ta buru utsean baicic, ceren Escritura Santan itzeguiten duan Jaunac; baña guc itz Santu au aditu izan degu, ascotan beintzat, nola nai, ta gueratu guera, atera guintzaquean frutuac atera gabe. Ta nortaqui, cembat calte emendic etorri litezquean gugana, ezpaguera noizbait noizbait centzatzen? Ascotan dotrina bat ongui aditzean dago baten betico vicitza doatsua; aiñ da mimberaa Jauna bere itz Santua ongui aditzearen gañean, oraiñ ecusico degun bezala.

§ II.

Jaungoicoaren itza berez guci-alduna da, Escriturac deitzen dion bezala: *Omnipotens Sermo*; baña nola eguin zuan guizona bere escuco, edo oneraco, ta gaitzeraco escuarequin; guertatzen da ascotan, eta

Universidad de Deusto
Biblioteca

iñoiz ere baño gueyago egungo egunean , guizonac edo aditu nai ez izatea Jaungoicoaren itza , edo bear dan eran ez aditzea , eta itz Santu au *fruturic gabe gueratzea.* Eta ain da senticorra , edo mimberaa Jauna alde onetatic , non aserraturic utzi oi dituan Provincia , ta Erreñu osoac bere *itzaren* intz gozo edo euria gabe. Zoaz , Cristaua , legue zarreco gendeetara. Etzuen Israeltarrac aditu nai izan Jaunac bere Profeten auaz esaten cienic , eta utzi cituan Jaun berac Profetaric gabe ; bere itza gabe , eta atzenean idolatrian ondatuac. Etzuen Juduac ere aditu nai izan Jesu-Cristoc berac berez eta beste Profeten aotic esaten ciena; ta utzi cituan Profetaric gabe, fede gabe Provinciaric, eta Erreñuric gabe, eta onela vici dira ardi erratuen eran milla zazpi eun eta gueyago urte onetan. Zoaz, Cristauaquin-ere guertatu danari beguiratzera. Zoaz goizaldera , edo Orienteco bazterretara. Ecusico dezu Egipto, dembora batean Erligiosoen vicilecua zan bazter ura, S. Athanasioren, eta beste guizon andi ascoren autic Jaincoaren itza aditu izan zuan ura , Mahomaren zoraqueriai darraitela. Ecusico dezu Jerusalenen , Cesarean , Antioquian , Constantinoplan dembora batean Jaincoaren itza entzuten zala Jaunaren Ministroen aotic; ¿ta nolaco Ministroen aotic? S. Cirilo , S. Basilio , S. Gregorio Nacianzcoa , S. Juan Crisostomo , eta beste guizon andi asco izan ciran bazter aetan Obispo , eta Jaunaren itzaren erelle. Baña utzi cituan Jaunaren itzac bazter aec , eta arquitzen dira Mahomaren legue zatarrarequin. Zoaz Africara. Ecusico dezu , dembora batean Jaunaren legue Santa , ta itza frutu andiarequin predicatzen zuela an S. Ciprianec , S. Agustiñec , ta beste ascoc ; ta gaur arquitzen dira lecu aec guciacere; quendu cien alabaña Jaunac bere itzaren arguia , eta gueratu ciran Mahomaren leguearequin.

Atoz Europara , cer ecusico dezu ? Zoaz Prusiara , Suecia , ta Dinamarcara ; zoaz Olandara , zoaz Inglaterrara ; lecu oetan gucietan nozbait erein zan frutuarequin Jaunaren itza ; baña gaistotu zan guero lurra ; etzan aditzen Jaunaren itza cegocan eran, eta utzi cituan Jaunac bazter oec guciac heregiaren lañopean. Baña certaraco necatuco guera gauza zarrai beguiratzen , beguien aurrean daucagula Franciaco Erreñuarequin guertatzen daña orain bertan? Francia ogueita lau , edo bost milloi anima cituan Erreñua ; Francia *Christianissimo , edo chit Cristauaren* icenarequin onratzen zan Erreñua: Francia, araco erreñu ura , non Jaunaren *itza* aditzera ematen zan ain sarri , ain contuz , ain leun , eta gozotoro, gaurco egunean arquitzen da itz Santu au gabe , legueco ministro gabe, Sacramenturic gabe: eta an gueratu diran Catolico gaisoac arquitzen dira fedea galtzeco perill andian. Nondic etorri ote zayo Franciari ondoren izagarri au ? Ay ! ederetsi cien gendeac bere griña , ta pasio charrai ; etzan Elizaren aguinteaz quezca andiric , etzuen Jaunaren itzac frutu andiric ematen ; eta Jaunaren aserreac utzi du Erreñu aiñ andia gucioc dacuscun eran. Ezta orain-dic berroguei urte deadar eguiten ciola Autore batec Franciari : Ah ! Francia ! Cein aberatsa ceran cerorrec ezagutzen ez dituzun ondasunetan ! Jaunaren itzaren acia ugari ereiten da zure erri andietan , eta chiquietan ! Itz onen ale bacoitzac Indian , Japonen, edo beste bazter ascotan ereinda, erro ugariac botaco cituan ; baña oiñpean dabill emen aci au , eta ezta errotzen. ¿Eta cer? Ez ote da gurequin guertatuco Juduaquin guertatua ? Itz onen faltaz fedearen argui gabe vici diran gendeac deadar eguingo due Jaunaren aurrean , eta escatuco due castigua gure contra. Ay ! ene ! eta logratuco due ! Onela deadar egui-

Universidad de Deusto
Biblioteca

ten zuan Franciaco autore batec , oraindic urte ascó ez danean; eta ecusten degu bidezcoac cirala beldur oec , eta gure egunetan guertatu dira gauzac ura beldur zan eran. Ecusten dezu , Cristaua , ceiñ mimberaa dan gure Jaun Jaungoicoa bere itz Santu ongui entzutearen gañean ? Au aditzera emana dauca anciñatic Escritura Santan beiñ , ta berriz. Bai au aditzera eman zuan benicbeñ Isaiasen autic mastiaren ipui , edo parabolan. Ipiñi zuan Jaunac mastia , dio Isayasec, ichi zuan ; eta alcha cion erdian torre bat bere tolareacquin. Egon zan aren mats gozoen ustean ; baña oen ordez eman ciozcan mats gaciac , basamatzen antzecoac. *Expectavit ut faceret uvas , et fecit labruscas.* (Isai. c. 5.) Orain, dio Jaunac , orain nic esango det cer eguingo diodan nere masti esquergabe oni. Quenduco diot esia , sartu dedin edoceñ eta artu dezan nai duana; botaco ditut eguin niozcan pareteac , eta erabillico due oñen azpian. Utzico det etze ; ez da moztuco , edo iñausico; ez eta ondeatuco-ere. Estalico due sasiac , eta arantzac , eta aguinduco diet odeiai , ez deceela aren gañean euriric eguiñ. *Nubibus mandabo , ne pluant super eam imbrem.* Parabola onetan aditzera eman zuan Jaunac len Juduai guertatua , eta gueroz Erreñu ascori guertatu zayena , eta guertatuco zatena, ezpadue ecertan artzen Jaun beraren itz Santua. Au bera aditzera eman zuan gañera Jaunac berac Amos Profetaren autic. Badatoz egunac , dio Jaunac: *Ecce dies veniunt dicit Dominus.* Nic bidalduco det lurraren gañera gosea : *Mittam famem in terram.* Ez oguiaren gosea , eta ez uraren egarria , baicic Jaungoicoaren itzaren gosea. Ibillico dira batetic bestera itz onen billa , ta ez due arquituco. *Circuibunt quærentes verbum Domini, et non invenient.* c. 8. Amos Profetac itzeguiten cien Israeldarrai,

baña ez oei bacarric; itzeguiten cien gañera beste Erreñu, ta gende guciai ere eta gucietan guertatuaz dijoa Profeta Santuaren esana. Cer? eztegu ecusten gaurco egunean, aldeguin duala Jaunaren itz Santuac, eta fedeac alde aldean Europa gucitic? Ay ene! Ta ez ote da au bera guertatuco Españarequin ere? Guc daquiguna da, Jaunac gauza guciai ipiñi diela numero, neurri, ta pisu jaquiña. Ala esaten zacu Escritura Santan. Lau becatu barcatuco dieztet Damascoarrai, bana andic aurrera ez diet barcatuco, esaten cien Jaunac. *Super tribus sceleribus Damasci, et super quatuor non convertam.* Guc daquiguna da lau saltoan bezala goacela becatuaren bideetan, eta Jaunaren itz Santuac frutu guchi ematan duala Españan, oraiñ bertan escribitzen duenac dioenez; eta beragatic gañez eguiten duenean gure esquergabequeriac, etorrico da Amos Profetac dion gosea, eta gueratuco guera Jaincoaren itz gabe, fede gabe, Sacramentu gabe. Eracutsi cion bein Jaunac Doña Marina Escobarri ontzi, edo botella bat osotoro bete gabea. Botella onec esan cion aditzera ematen du España, botella onen barrunen dagoana dira Españaco becatuac: eta botella au betetzen danean emendic aldeguingo du fedeac beste lecutara. Au gucia gogora ecarri ta ¿ nor egon diteque, nere Cristauac, negar eguin gabe? Eguizue bada negar zuec ondorengoac utzitzen dituzuen, gurasoac; eguizue negar zarrac; eguizue negar gazteac, ta eguin dezagun negar gucioc; escatzen diogula Jaunari, guera ditzala becatuaren ujaldeac; eta ez dezala arren bere escutic utzi Jaun beraren Amac aimbeste maite izan duan Erreñu au.

Baña utziric pensamentu icaragarri oec, dacuscun, nola bere animaren puzoi biurtu oi duan becatariac Jaunaren itz Santua.

§ III.

Jaunaren itza da sendagai miragarria, ecusi degun bezala; baña ascotan, eta ascotan biurtzen du becatariac bere animaren puzoi, edo igues eguiten duala Jaunaren itza aditzetic, edo adituta ere viotzean lecuric ematen ez diola, edo atzenean bere bide oquerretara biurtzen dala. Iru becatari mota oec marcatuac arquitzen dira Deabruaren artaldeco marcarequin, S. Gregorioc dionez. *Non audientium, non acceptantium, recidivantium.* (Hom. 18 in Evang.) Bai, nere Cristauac, bere animaren puzoi biurtzen du ascotan becatariac Jaungoicoaren itza, ceren enzun lezaqueala, igues eguiten duan entzutetic. Eguizu contu Cristaua, Erregue batec bidaltzen duala Erregue beraren contra alcha dan Provincia batera guizon aditu bat, guertatu diran oquerrac deseguitera, esqueintzen dituala paquea, ta mesede andiac. Baña cer guertatzen da? Berri oec atseguin-contentu andiarequin aditu ordean, uzten du gende errebes esquer gabe arc Erreguec bidaltzen dien guizona, cer dacarren aditu ere gabe. Atozea, Cristaua, ez lizaque esquergabequeria au izango leneco oquer eta errebesqueria guciac baño gauza ascoz itsusiagoa? Au bera bada esan bear degu Jaungoicoaren itza gandic iguesi dabillenaren esquergabequeriaz. Bidaltzen dio Jaunac itz Santu onequin bere Embajadorea, eguin dituan utseguiteac deseguiteco. Esqueintzen diozca paquea, eta betico ondasunac; ta bere Jaunaren itza ongui enzun ordean, igues eguiten du au entzutetic, eta esquergabequeria onequin, biurtzen du bere caltedun ondasun andiac dacartzian Jaunaren itza. Esan guidazue, nere Cristauac, esan guidazue arren: cembat vici dira egungo egunean goiceco me-

za bat enzunda urte gucian Jaunaren itza enzungabe vici diranac? Cembat Meza nagusi, Vespera, ta errosarioco demboran zuloetan, edanean, edo munduco gaucetan egoten diranac? Cembat bider mutillac plean, edo jocoan Vesperetaco demboran? edo bullan .& Cembat izango dira oen artean eztaquienac dotrina, ta are guchiago nola prestatu bear duen ongui confesatzeco? Cembat oatuac bezala vici diranac becatuaren oituran? Oec guciac Ceruraco bidean nequez sartu ditezque Jaincoaren itza aditu gabe, eta alaere iguesi dabiltza onza arguiaren iguesi ibilli oi dan eran.

Beste batzuec entzuten due Jaincoaren itza belarriacquin, baña ez dioe utzitzen viotzera igarotzen. *Non acceptantium.* Batzuec ceren entzuten duen guizonaren itza bezala, besteac ceren viotzeco sasoi charrarequin.

Emendic dator eguiaric arguienac-ere ecin sinisturic gueratzera, ceren gure oitura, ta griña charren contra diran, eta viotzic ez degun oec ecitzeco. Emendic Jaincoaren itza barrena samintzen, eta asaldatzen asitzen danean gogoa beste gauzatara eramatea. Emendic Jaincoaren itza ez aditzea aditzera eman dan eran, edo adituta-ere tacha billa ibiltzea. Guertatzen da Jaincoaren itzarequin eguzquiari arguizaguiarequin eta buztiñarequin guertatzen zayona. Eguzquiac bidaltzen ditu bere argui ederrac, ta berotasuna: arguizaguia gozatzen, eta beratzen da; baña buztiña, cembat eta eguzquiac berotasun gueyago bidaltzen dion, ambat gueyago elcortzen da. Ay! au bera ecusten da becatariaquin. Becatari sasoi onecoa gozatuaz, ta berotuaz dijoa Jaunaren itzarequin, eta atzenean muguitzen da becatua utzitzera; baña beste asco are gueyago elcortzen eta gogortzen dira, chingudea malluarequin gogorra-

Universidad de Deusto
Biblioteca

go eguiten dan bezala. Atzenean beste batzuec Jaincoaren itza aditzean asitzen dira muguitzen Cerurako bidera; baña ozta irteten dira Elizatic sartzen dira leneco perilletan, eta biurtzen dira becatura. *Recidivantium.*

Ona nola becatariac bere animaren puzoi biurtzen duan Jaincoaren itza. Eta cer? onela vici bear ote degu aurrera-ere? Gure zori gaistocoac ezpaguera centzatzen! Oraindañocoa eguiña eguin. Jaunari escatu deguiogun barcacioa eguin ditugun utseguiteaz; ta aurrera enzun dezagun Jaunaren itza bear dan eran. 1.ª ecin bestean baicic ez degu utzi bear Jaunaren itza enzutea. 2.ª Enzun bear degu ez guizonaren, baicic Jaincoaren itza bezala. 3.ª Enzun bear degu frutu ateratzeco nai andi batequin, eta au Jaunari escatu bear diogu. *Itzeguizu Jauna, eta ona ni prest* zuc aditzera eman nai didazuna entzuteco, ta eguiteco. 4.ª Jaunac aditzera eman diguna ongui viotzean gorde bear degu, eta guero obraz eguin. Lurren acia botatzen dezunean ez dezu aguirian utzitzen, estaltzen, ta gordetzen dezu lurrean, egaztiac eraman ez deceen. Au bera eguin bear degu Jaunaren itzarequin. Jaun berari nai daiquiola itz onec frutu ugaria ematea, eta becatuaren ujaldeac gueratzea, era onetan Ceruraco bidean gu ibiltzeco ongui, ta iristeco betico vicitza doatsua. Amen.

OGUEI TA LAUGARREN ERACUSALDIA.

Adirazten da, nola becatariac eguiaz Jaunagana biurtu gabe, bere egunac bucatzen dituan.

Scito, et vide, quia malum, et amarum est reliquisse te Dominum Deum tuum, Jerem. c, 2.

Gauza gaiztoa, ta samiña da zuc zure Jaun Jaungoicoa utzi izan dezun eran utzitzea esaten digu Jeremias Profetac. Eguia au ezagutzeco diña bider aditu centzaquean, Cristaua, eguin diran aspaldico dotrinetan, eta ez guchiena atzenean. Dembora egoquian Jaunagana biurtzen ez dan becataria, erori oi da animaco itsumenean, eta viotzaren gogortasunean; eta Jaunac utzitzen du bere escutic becatari esquergabea. Urrengo ondorena da becatariac eguiaz Jaunagana biurtu gabe bere egunac bucatzea. Au da ondoren bat egunoro guertatzen dana munduan, eta guertatzen dana iru uste, edo esperanza zororen coloreren azpian. Au aditzera eman nai nuque gaur. Guztiz icaragarria da gaya, eta ongui adierazten badet, ausardiaric andieneco becatariaere beregan sar erazoco duena. Enzun nazazue contuz.

§ I.

Becataria, bere Jaunagana biurtu ordean, llilluratzen, eta choratzen da munduco gauzetan, eta

Universidad de Deusto
Biblioteca

Jaun berac bërez, liburu, Predicari, eta Confesoreen bidez ematen diozcan golpe, edo uquituai ez oi die lecuric eman. *Emango dit Jaunac dembora beragana biurtzeco*, esan oi du beregan, *eta emango dit*, onequin zabartzen da dembora egoquian, eta atzenean iltzen da becatuaren atzaparretan. Ezagutu dezazun, Cristaua, ceñ zoroa dan uste au, beguira ezazu, benic beiñ, cein dan uste au duana? Au da bere eguille, ta Aita onaren contra aimbeste alcha izan dan becatari esquergabea. Au da, Jaunac bere oneraco utzi ciozcan Sacramentuac bere animaren puzoi biurtzen dituan becataria. Au da Jaunaren itzaz, lagun urcoen egemplo onaz, eta Ceruco gaztiguaz iseca eguin izan duana. Au da atzenean, Jaunac Cerua irabazteco eman diozcan urteac gaistaquerian, eta becatuaren bideetan gastatu dituana. Eta onec alaere du ausardia esateco: *Emango dit Jaunac dembora beragana biurtzeco*? Orain ematen dio dembora au; orain esaten dio S. Pauloren ezpañaz: ona dembora egoquia: *Ecce nunc tempus acceptabile*: orain deitzen dio, eta esaten: gaur entzuten badezu Jaunaren deia, edo otsa, ez dezazula gogortu zure viotza: *Hodie si vocem ejus audieritis nolite obdurare corda vestra*. Eta orain enzungor eguiten badio Jaunari, nola uste izan dezaque, gueró emango diola Jaun berac dembora? Beguira gañera, certaraco eman bear dion Jaunac becatari esquergabeari dembora au. Ez ditu becatariac orain utzi nai bere bide oquerrac; ecin aspertu da becatuz, eta gaiztaqueriaz; eta Jaunac eman bear dio dembora Jaun beraren contra ibiltzeco aspertu dedin artean? Eman bear dio dembora, aspertzen danean Jaunagana biurtzeco? ¡Ustearen zoroa, eta ausardia icaragarria! Ta are obeto ezagutuco dezu eguia au oroitzen bacera, Cristaua,

gure Jaun Jaungoicoac erabaquia daucala beregan, cembat egun, cembat aste, hill, eta urte emango diozcan gutatic bacoitzari, eta muga oetatic ez guerala igaroco. Au aditzera ematen digu Job Santuac dionean: laburrac dira, Jauna, guizonaren egunac; eta zuc bacarric daquizu cembat illean iraungo duan aren vicitzac. *Breves dies hominis sunt, numerus mensium ejus apud te est.* Ipiñi diozcatzu guizonaren emengo vicitzari muga cerorrec daquizquitzunac, eta ecin igaroco da aetatic. *Constituisti terminos ejus, qui præteririnon poterunt.* C. 14. Ongui: ta Jaunaren gogoan ipiñia arquitzen bada gure egunen, asteen, hillen, eta urteen muga: ta muga aetatic ecin igaro bagaitezque, nola diozu becataria: *Emango dit Jaunac dembora noiz bait beragana biurtzeco*? Izan diteque uste zoroagoric? Zure oraindañoco vicitza izan da dituan sayets gucietatic donguea. Zure mingaña loitua dago birauacquin, juramentuacquin, itz desonesto, canta, ipui, eta lagun urcoaren contraco erausiacquin. Zure escuac ciquinduac queñada, ta uquiera lotsagarriacquin, lapurreta, ta licharreriacquin. Zure viotza arquitzen da cuticia, ira, embidia, gorroto, ta lujuriaren sutegui biurtua. Alferrac dira zu Ceruraco bidean sar erazteco Sacramentuac, eta Jaungoicoaren itza; bana alaere ceregan diozu: *urrengo misioan onduco naiz: emango dit Jaunac dembora beragana biurtzeco.* Eguizu gañera contu, aurten, eta bear bada egun guchiren barrumbean, betetzen dala Jaunac zure vicitzari ipiñi cion neurria. Atozea, Cristaua, cer izango da zure animaz? Alferric esango dezu: *Emango dit Jaunac dembora*; ez ditu muga ipiñiac aldatuco; oec uquitzean ilco cera, eta sasoi orretan bazaude orduan, ilco cera becatuaren azaparretan. Ala il dira uste zoro onequin infernuan erretzen dauden Cristau guciac, edo gueyenac. E-

Universidad de Deusto
Biblioteca

mango dit Jaunac dembora, esaten zuen; baña nola dembora oec neurtuac dauden Jaunagan, usteric guchiena zuenean aitu citzayen egunaren arguia, eta artu cituan eriotzaren gau illunac, ta ill ciran eguiaz Jaunagana biurtu gabe. Enzun ezazu usura, ta tratu ciquiñetan ciardun bati guertatua Juan Algrino Cardenalac contatzen duanez. Guizon tratalari au vici zan irabacira itsutua, eta etzuan beguiratzen irabacia garbia, eta leguezcoa zan edo ez. Bere arzayac esan cion bein ta berriz beguira ceguiola bere animari, eta oroitu cedilla betico ondasunaz; baña alferric. *Emango dit Jaunac dembora*, cion, *nere tratuac utzitzeco, eta barcatuco dizquit nere utseguiteac.* Onela vici zan becatua becatuari erantsiaz eta noizbait gaisotu zan iltzeco gaitzarequin. Joan citzayon bere Arzaia, eta berriro esan ciozcan ordu artan ongui cegozcan gauzac; baña alferric. *Bada*, cion, *oraindic dembora.* Artzen due iltzeco icerdiac, ezagutzen du au, eta deadar andi batequin esaten du; *O¡ penitencia! non cera? bada etzera aguiri.* Onela eman cion bere anima etsayari. Ecusten dezu, becataria, nola dembora izango dalaco uste zoro onecquin betico galtzen diran animac? Oroi zaite bada emendic aurrera, nola Jaunac beregan marcatuac dauzcan gure egunen mugac, eta ecin oetatic igaro gaitezqueala, Job Santuac dion bezala. *Constituisti terminos ejus, qui præteriri non poterunt.* Oroi zaite, betico galduac izango guerala, ezpaguera Jaunagana eguiaz biurtzen Jaunac onetaraco ematen digun demboran; eta eztaquigu, orain bertan ematen digunaz osterontzean besteric emango digun. Ematen ezpadigu, cer izango da guzaz? Beste ascoz izan dana, eta izango dana.

§ II.

Becatariaren bigarren uste zoroa izan oi da beregan esatea: *Emango dit Jaunac bere gracia, ta laguntza noizbait beragana biurtzeco.* Bere uste zoro onequin eztu centzatu nai: ez ditu ecertan artzen liburuac, confesoreac, eta predicariac aditzera ematen diozqueen eguia icaragarriac; eta Jaunac bidaltzen diozcan gaztiguac deseguiten dira aren viotz gogorraren contra itsasoaren bagac arcaitzen contra deseguiten diran eran. Onela gaizqui gastatzen ditu becatariac, berarentzat Jaunac neurri jaquin batean prestatu cituan Ceruco gracia, indar, eta laguntza ugariac, eta gueratzen da modu negargarri batean, edo Jaunaren escutic utzia, Ceruco laguntza ugarien inz gozoa gabe; eta atzenean iltzen da becatuan. Goacen ecustera au gucia. Graciaren icenez aditzen da batzuetan araco gure animac *justu, Santu, Jaungoico beraren ume, eta Ceruaren jubegai eguiten dituan* doai miragarri ura. Doai au da animaren vicitza, eta Ceruraco jantzi ederra, eta au isurtzen du Espiritu Santuac animan batayoco, ta confesioco Sacramentuarequin, baita onezco damuarequin Jaunagana biurtzen danean-ere; eta doai eder au eztu galtzen animac becautu larriarequin baicic. Baña ez degu gaur onen gañean itzeguiten. Beste batzuetan graciaren icenez aditzen dira, becatutic irteteco, eta obra onac eguiteco Jaunac ematen dizquigun Ceruco indarrac, eta laguntzac. Gracia oec ez dira gueratzen gugan; baicic, beren aguertua eguinda, igarotzen dira, eta contu eguin bear du animac gracia oec deitzen dioenean, ongui enzuteco dacarten gaztigu, edo mandatua, eta eguiteco Jaunac nai duana. Atozea, Cristaua,

Universidad de Deusto
Biblioteca

doctrinac, edo sermoyac ongui aditu dituzunean; liburu onac iracurtzean, adisquideren bat il zatzunean, ez dituzu bat batean izan becatutic irteteco argui batzuec, edo pensamentuac? Etzatzu gogora, cein circillac diran gure emengo izatea, emengo ondasunac, atseguin-contentuac, onrac? Cein izugarriac infernuco penac? Etzatzu gogora, ceiñ onmaitagarria dan gure Aita Cerucoa? Bada gogargui oec guciac dira Jaunac zu esnatzeco, becatutic quenerazteco, eta Ceruco bidean sarrerazteco bidaltzen dizquitzun Ceruco gracia, indar, eta laguntzac. Atozea: eta laguntza oec ongui artu dituzunean, eztezu ceregan ezagutu, zure viotza gozatzen, eta becatutic irteteco gogoz betetzen dala? Bada viotza gozatze au, eta becatutic irten nai au dira Ceruco laguntzac. Atozea gañera; eta gogo oni dagocan era irteten bacera becatutic, lan onetan gucian eztizu laguntzen zure Jaunac? Laguntza au bada da Ceruco laguntza, ta indarra. Atzenean, becatutic irten ondoan, ez dituzu ceregan izan gogargui berriac, viotzeco muguimentu onac Jaunaren legue Santa gordetzeco, eta becatura ez biurtzeco? Oec-ere bada dira Ceruco gracia, laguntzac, eta indarrac. Laguntza oec batzuetan dira aiñ ugariac, non becatariric gozacaitzenac-ere illeetatic artuta bezala quenerazten duen becataria becatutic, eta becatuaren bideetatic: ala ecusten da, misio batean ongui, ta contuz aditzen bada, ateratzen dituala Jaunac asco becatari infernuaren eztarritic, ceren jasaz bezala bidaltzen dituan alaco demboran Jaunac Ceruco laguntzac. Laguntza ugari oec bidaldu oi diozca Jaunberac becatariari, ez nolanai, baicic berac onguiena deritzan neurrian. Beste batzuetan, edo gueyenean laguntza oec ez dira ain ugariac, ta indartsuac; baña bai asco adiña becataria becatutic quenera-

teco, baldin ongui laguntza berac ongui artu, ta bere aldetic aleguiña eguin nai balu. Etzigun guri gure Jaunac zor laguntza oetatic batere, ceren Adan becatuan erori zanetic galdu guenduan oetaraco derecho, ta escu gucia; baña irabaci cituan guretzat Jesu-Cristoc bere vicitzaren costuan; eta onegatic Ceruco laguntza oei deitzen zate *Jesu-Cristoren gracia*. Cembat zor eztiogu gure Salvatzalleari!

Ceruco gracia, laguntza, ta indar oec ain dira bearrac becatutic becataria irteteco, non oec gabe ecin irten ditequean betiraunde, edo beticotasun gucian becatuaren azpitic; becatua da alabaña lice icaragarri bat, non erori gaitezquean, eta nondic ecin atera gaitezquean, ezpagaitu Jaunac bere ontasunez, eta urriquimentuz ateratzen. Guertatzen da onetan Sansoni guertatu citzayona. Eman ciozcan Jaunac Sansoni indar guztiz andiac, eta oen sustraya zuen buruco illean. Izutuac ceuzcan Sansonec Filisteoac, eta etziaquien cer asmatu Sanson beren mendean artzeco; baña atzenean irten ciran berenarequin emacume baten bidez era onetan. Sansonec adisquide zuan Dalila ceritzan emacume bat, eta elcar artu zuen onec, eta Filisteoac aguer-erazteco Sansoni, nondic, eta nola cituan aimbeste indar? Ez beingoan, baña betico galdez ariarequin aguer erazo cion Dalilac Sansoni misterio gucia, eta contu emanic eracarri cituan Filisteoac bere echearen ingurara. Sansoni, lo cegoala, quendu edo ebaqui cion illea; otseguin cien Filisteoai; eta oec bereala lotu zuen Sanson; atera ciozqueen beguiac, eta carcelan iduqui zuen beren farragarritzat. Cer eguiten zuan bada Sansonec carcela urratugabe? Cergatic ayenatzen etzituan Filisteoac? Ceren illean zuan bere indarra, eta ebaquia daucan illea. Au aci citzayonean Filisteoz beteric cegoan Eliza bat, lurre-

Universidad de Deusto
Biblioteca

ra bota zuan, eta an illic gueratu ciran ascó Filisteo, eta oecquin batean bera-ere bai. Eta becatuaren licean erori danari guertatzen zayona; izan dedilla au Salomon bera baño jaquintsuagoa; izan dezala Sansonec baño indar gueyago; ezta betiraunde, edo eternidade gucian andic irtengo, Jaunaren ontasun, eta urriquimentuac bidaltzen ezpadio bere graciaren laguntza, eta indarra. Ez guera gueroc alabaña gai pensamentu on batere eguiteco, ez eta bear dan eran Jesus esateco-ere, dio S. Paulo Apostoluac. *Nemo potest dicere Dominus Jesus nisi in Spiritu Sancto.* 1.ª ad Corinth. c. 12. Eta ematen ote diozca noiz nai, eta nola nai Jaunac becatariari Ceruco gracia, ta laguntza oec? Ez, ez nere Cristauac. Ceruco gracia, ta laguntza, batezere laguntza andiac, indartsu, ta ugariac dira contatuac, eta Jaunac berac bacarric daquian neurrian; gauza guciac eguiten ditu alabaña jaquiunde utsa dan gure Jaungoicoac neurri, numero, eta pisu jaquiñean Escritura Santac esaten digun bezala. *Omnia in mensura, numero, et pondere disposuisti.* Sap. 11. Auda, Cristaua, eguia bat iñorc ere Catolicoen artean ucatzen eztuana. Ongui. Eta Jaunac zuri becatutic irteteco emango dizquitzun laguntza, gaztigu, eta indarrai ipiñi badie, ipiñi dien bezala, neurri, numero, eta pisu jaquiña; nola diozu: *Emango dit Jaunac bere gracia, ta laguntza, noizbait beragana biurtzeco?* Eguizu contu orain viotzera bidaltzen dizquitzun golpe oriequin iristen dezula Jaunac zuretzat prestatu dituan Ceruco laguntzen neurria. Atozea, cer izango da zuzaz, ezpacera orain laguntza oriez valiatzen? Ay! eguia icaragarria da, baña eguia ecin ucatu ditequeana: zuc zure egunac bucatuco dituzu becatuaren atzaparretan. Ala guertatu zate ecin conta al becatariri, eta oen artean Judasi. Norc

esan, nolaco gaztiguac viotzera bidalduco ciozcan Jesu-Cristoc bere icasle, ta Saltzalle gaisto ari, oñac garbitu ciozcan bitartean? Baña etzan alaere Judas esquergabea centzatu orduan; eta era onetan gaizqui gastatu cituan Jesu-Cristoc berarentzat prestatu cituan Ceruco laguntzac; gueratu zan bere gaistaquerian gogortua, eta il zan gucioc daquigun eran, gogaitua, eta bere burua urcaturic. Era berean eriotza negargarri batequin bucatu cituan bere egunac Saul Erregueac-ere. Saul Jaincoac berac Israelco erreguetzat autua, eta Samuel Profetac ganzutua Erregueacquin eguiñ oi dan eran. Etzuan eguin Jaunaren esana Amalecitacquin zuan guerra batean; utzi zuan Jaunac bere escutic; gastatu cituan alabaña Jaunac prestatu ciozcan laguntzac, eta cembat erregu, eta cembat negar eguin cion Samuelec Jaunari Saulen alde, etzuan ecer irichi Profeta Santuac. *Noiz artean negarrez egongo cera, Samuel*....neregandic ayenatua, eta botaa daucadan onegatic? *Usquequo tu luges Saul, cum ego proiecerim eum?* (Lib. 1. Reg. c. 16). Ona, becataria, ecin uste zoroa dan esatea: *Emango dit Jaunac bere gracia, ta laguntza noizbait beragana biurtzeco;* ta ona uste onequin nola becatariac bucatzen dituen eren egunac eguiaz Jaunagana biurtu gabe. Eztago, Cristaua, becatutic irteteco, eta Ceruraco beste bideric, Jaunac bidaltzen dizquigun gaztigu, eta laguntzai dirauen demboran ongui eustea baicic. Agor ola batec neguco euriacquin burniric eguiten ezpadu: nola eguingo du agortzen diranean errecac? eta ezpada becataria becatutic irteten orain Jaunac Ceruco euri gozoac bidaltzen diozcanean, cer eguingo du euri oec aitutzen diranean? Cer ezpada becatuan oatua bezala gueratzea? Cer ezpada eriotza negargarri baten ortzetara joatea?

Universidad de Deusto
Biblioteca

§ III.

Becatariaren irugarren juste zoroa izan oi da esatea: *Andia da Jaunaren ontasuna, eta barcatuco dizquit nere becatuac.* Uste zoro, edo obeto esateco aitzaquia animagalgarri onequin badarraye becatari gaisoa bere griña, ta gura charrai, eta atzenean irinchitzen becatu bat arpoyaren eran errayetaraño igarotzen zayona, becatu bat beti-betico eriotzaren puzoya, eta garranga berequin duana; becatu bat besteacquin batean neurria betetzen duana, eta onela iltzen da becataria bere Aita onagana eguiaz biurtu gabe. Enzun ezazu, Cristaua, eguia au zuri adierazteco esatera noana.

Andia da Jaunaren ontasuna, eta ontasun onec muguituric guretzat prestatu ditu ondasun ain andi miragarriac, non ecin aditzera eman ditezqueen. Andia da Jaunaren ontasuna, eta ontasun onec muguituric jachi zan Cerutic lurrera, eguin zan guizon, eman zuan gurutzean bere viçitza, eta utzi cion bere Elizari gure becatu guciac barcatzeco escua. Baña dembora berean da, ecin gueyagoraño *zucena, eta justua*, eta beregan artuac dauzca gauza gucien neurriac, jaquintsuac Escrituran dion bezala. *Omnia, in mensura, numero, et pondere disposuisti.* Eta emendic beregan erabaquia dauca, cembat becatu, ta nolacoac barcatuco diozcan bacoitzari. Ala eracusten due Elizaco gurasoac, eta oen artean S. Agustiñec (b). Becatuen neurri au ezta gucientzat berdiña; batzuentzat dalaburra, besteentzat chit andia; ¿ eta norc galdetuco dio *zucentasuna* bera dan Jaunari cergatic au eguiten duan? Pensamentuzco becatu bat asco izan zan Aingueru gaistoetan neurria betetzeco. Bost urteco aurra bere amaren besoetatic eraman zuen

Deabruac becaturen bat eguinta, S. Gregorioc dionez. Valladolidco ibaian ito zan zortzi urteco aur bat, eta D.ª Marina Escobarri aguertu citzayon suz, eta garrez inguratua, eta esan cion nola condenatu zan juramentu guezurrezco bategatic. Jaunac bacoitzari ipiñi dion neurria betetzen duan becatu auere barcatu ditequeana dana berez; baña ezta beiñere osotoro barcatzen, ceren neurria betetzen duanetic becataria gueratzen dan Jaunaren escutic utzia. Argatic neurriaren betegarria dan becatu oni deitzen dio S. Gregorioc *erraietaraño sartutaco becatua: Peccatum invisceratum.* Jeremiasec: *sendatu ecin ditequean zauria. Insanabilis fractura tua, pessima plaga tua... curationum utilitas non est tibi.* c. 30. Job Santuac deitzen dio Infernuraño gueratzen ez dan becatua: *Usque ad inferos peccatum illius.* c. 24, eta S. Joanec: betico eriotzaren puzoia dacarrena. *Peccatum ad mortem.* 1 c. 5. Jarri zan bein Jeremias Profeta Jaunari erregutzen bere gendeacgatic, eta esan cion Jaunac, etzeguiola erregutu, ceren adituco etzuan. *Tu ergo noli orare pro populo hoc... quia non exaudiam te.* c. 7. Jarri zan Virgiña guciz Santa bi becatariren oneraco erregutzen, baña etzuan irichi escatzen zuana; ceren neurria beteric ceuqueen. Becatariac bere neurria betetzen duanean esango du Jaunac Jeremiasec diona: eman diozcagu Babiloniari, edo becatari esquergabe oni sendatzeco prestatu niozcan laguntzac, baña alferric; utzi dezagun bada bere gura charren atzaparretan. *Curavimus Babilonem, et non est sanata, derelinquamus eam.* c. 51. Edo esango du Jesu-Cristoc Jerusaleni, eta Juduai esana. Beguiratu cion bein Jerusaleni, eta ecusiric onen gañera etortzeco ceuden ondoren izugarriac, malcoa ceriola esan zuan: Ezagutu izan bacindu zure oneraco nic eguin ditudan,

Universidad de Deusto
Biblioteca

eta eguin nai nituan gauzac! *Si cognovisses et tu, et quidem in hac die tua, quæ ad pacem tibi.* Luc. 19. Atzenean esango dio: Ni banoa zugandic, eta banoa betico. *Ego vado.* Asico cera nere billa, baña cere becatuen neurria bete dezu, eta becatuan ilco cera. *Quærelis me, et in peccato vestro moriemini.* Au onela igarotzen da egun oro, eta egunean ascotan, baña nola beguiacquin ecusten ez degun, ez degu centzatu nai, eta aurrera goaz gueren animac galtzeco bidean, eta guertatzen zayo becatari bere galgarriari sulla, edo charro bati urean guertatzen zayona. Badabill sulla urean, macurtzen da alde batera, eta edaten du ur pisca bat; macurtzen da beste aldera, eta edaten du beste pisca bat; baña nola oraindic ondatzeco diña edan ezduan, badabill uuraren gañean. Badijoa era onetan alde batera, eta bestera macurtuaz, eta ura artuaz, eta neurrira iristen dan puntuan, ondatzen da. Ay! zu Jaunaren deyaz iseca eguiten dezun becataria! Ay! zu gurasso zabarra! Ay! zu beranduraño gendea edanean, eta jocoan iduquitzen dezuna! Ay! zu nescah eguel, atseguin loyen bisca prestatzen dezuna! Ay! zu mutil centzugabea, zure itzeguite, ibillera, ta modu gaistoacquin animac galerazten dituzuna! Ay! zu usura, ta tratu ciquiñetan vici cerana, edo besterena biurtzeco viotzic ez dezuna! Ay! zu lagun urcoaren contra nola nai itzeguiten dezuna! Bazabiltza munduco itsaso onetan, edaten dezu uura bezala becatua; baña neurria betetzean gueratuco cera infernuan, edo infernuraco bidean eta etzera gueroz zucenduco. Eztezu iñoiz ecusi, Cristaua, nola amorrai andiscoren bat erortzen dan arrantzalearen atzaparretan? Botatzen du arrantzaleac zurda garranga chiquiarequin, eltzen dio amorraiac, eta autsten dio garranga. Erantsitzen dio cigorrari zurda sendoagoa, ta garranga andiagoa, ta lumaz, edo chicharearequin estaliric botatzen dio. Uste du amorraiac len bezala igues eguingo duala; irintsitzen du garranga, eta gueratzen da arrantzalearen mendean. ¿Cer besteric guertatzen zayo becatariari? Eten ditu bein ta berriz, eta bear bada ascotan etsayaren zurdac, eta garrangac, edo irten da ascotan becatutic, ezta centzatu, eta dabillen dabillen irintsitzen du neurri betetzen duan becatuaren garranga icaragarria, eta gueratzen da betico infernuco arrantzalearen mendean. Argatic esana dago Escritura Santan: guizonac achituac izten dirala dembora gaistoan arraiac zurda, ta garrangarequin achitzen diran bezala. *Sicut pisces capiuntur hamo... sic capiuntur homines in tempore malo.* Ecclesiastes c. 9. Ta au gucia asco ezpada, becataria, zuc eguia au ongui ezagutzeco, atoz nerequin Zacariac, eta Amos Profectac aditzera emanic dauqueena enzutera.

Zacarias Profetari aguertu citzayon beiñ Aingueru bat, eta esan cion: *Alcha beguiac.* Beguiratu zuan, baña etzuan cer cecusan ezagutzen. Au da, esan cion Aingueruac, au da cantaro, edo neurri bat. *Hæc est amphora.* Ecusi zuan guero Zacariasec cantaro arganonz cetorrela berun pusca andi bat. Ecusi zuan gañera, etorri zala emacume bat becatu, ta gaistaqueria gucien antza, eta imagiña zana, eta au jarri zala cantaroaren erdian. Ecusi zuan emacume au cantaroan barruna sartzen, eta orduan Aingueruac len esan degun berun pusca andi arequin ichi, eta estali zuan cantaroaren aoa. Atzenean aguertu ciran bi emacume miruaren egoaz jantziac; artu zuen cantaroa, ta eraman zuen Senaar deritzan lurrera, edo sufrea, ta betuna darion bazter batera. c. 5. Au da Zacarias Profetari Aingueruac eracutsi ciona; eta au da becatariari, becatuen neur-

Universidad de Deusto
Biblioteca

ria bete ezquero guertatzen zayonaren antza. ¿Cer aditzera ematen du Zacariasec ecusi zuan cantaro arc? S. Gregorioren iritzian becatariaren viotza, eta S. Agustiñec dionez becatuen neurria. ¿Cer aditzera ematen du, emacume gaisto ura cantaroan sartzeac? Aditzera ematen ditu becatariac bere gaiztaquerien ontzi, ta neurrira biltzen dituan becatu guciac. ¿Cer aditzera ematen du berun pusca andi arc? Aditzera ematen du neurria betetzen duan becatu icaragarri ura. ¿Cer aditzera ematen ote due miruaren egoacquin aguertu ciran emacume aec? Aditzera ematen due, bere gaistaquerien neurria bete duan becataria eramango duela Demonioac betico su, eta garren artera. Au da Zacarias Profetac ecusi zuana. Baña arguiroago itzeguiten du Amos Profetac, edo obeto esateco Jaunac berac Profeta onen autic. Iru becatu barcatuco dieztet Damascoarrai, dio Jaunac, baña laugarrena ez diet barcatuco. *Super tribus sceleribus Damasci, et super quatuor non convertam.* Iru becatu barcatuco dieztet Gazacoai, baña laugarrena ez diet barcatuco. *Super tribus sceleribus Gazæ, et super quatuor non convertam.* Iru becatu barcatuco dieztet Tyrocoai, baña laugarrena ez diet barcatuco. *Super tribus sceleribus Tyri, et super quatuor non convertam.* Iru becatu barcatuco dieztet Edongoai, baña laugarrena ez diet barcatuco. *Super tribus sceleribus Edom, et super quatuor non convertam.* Iru becatu barcatuco dieztet Amonen ondorengoai, baña laugarrena ez diet barcatuco. *Super tribus sceleribus filiorum Ammon, et super quatuor non convertam.* c. 1. Ecusten dezu, Cristaua, nola Jaunac barcoitzari ipiñi dion barcatuco diozcan becatuen neurria? Ta au onela izanic ala-ere ain ardura guchirequin ura bezala edan degu becatua, ta gaistaqueria? Alaere ez ditugu bertatic, eta betico utzi nai becatuaren bideac, eta perillac? Esango degu: *Andia da Jaunaren ontasuna, eta barcatuco dizquit nere becatuac?* Andia da bai Jaunaren ontasuna, baña dembora berean andia da beraren zucentasuna, ta justicia, eta beragatic becatuen neurria betetzen badezu, galdua cera betico. Ala dijoaz becatariac beren neurria beteaz, eta amilduaz betico su, eta garren artera. Cembat izango dira neurria bete duenac? Cembat neurri betetzeco becatu bat bacarra falta duenac? eta alaere egun oetaco zalagardac, becaturaco bide, eta perillac utzico ez dituenac? Baña badator contuen dembora; badator beticotasuna, eta gaur esan diran eguia oec izango dira becatari centzatzen ez danarentzat ar ozcari bat beñere bucatuco ez dana. Baña asco da.

Ona nere, Cristauac, cein ondoren samiñac, eta garratzac diran becatuaren ondorenac. *Scito, et vide, quia malum et amarum est reliquisse te Dominum Deum tuum.* Eta miretsitzen cera, Cristaua, ondoren oen gañean eguiten diran dotrinac samiñac irteteaz? Ojala aditzera eman albaledi becatuaren samintasuna dan eran! Ez lituque orduan dituan adiña jarraiquiñ izango. Sinistu ezazu, Cristaua; ezdagoala Ceruraco beste bideric becatua betico utzita vicitza berria eguitea baicic, eta eguin bear da artaraco dembora egoquia galtzen ez dala; bestela guertatuco zacu becatuen neurria betetzea, eta betico galtzea. Jaunari nai daquiola gu betico beragana biurtzea, eta guc gure egunac bucatzea beraren gracian, eta paquean. Amen.

OGUEI TA BOSTGARREN ERACUSALDIA,

BAÑA GURE FIÑ-GOI-MIRAGARRIAREN GAÑEAN LENENGOA.

Ecce nunc tempus acceptabile, ecce nunc dies salutis. 2 ad corrint. c. 6.

Noiz artean, becataria, noiz artean izango cera aiñ pisua, eta naguia zure animari dagozcan gaucetan? Noiz artean usarrean, eta muturca ari bear dezu lurraren gañean, certaraco zure eguille onac eguin zaituan beguiratu-ere gabe? ¿Cergatic aunatzen cera, guezurra, engañioa, ta iduripen utsa besteric ez diran, gaucen billa? ¿Ceri zagozcala amatzen dituzu Munduco gauza uts-circillac, eta atseguin lotsagarriac? Era onetan deadar eguiten zuan dembora bartean David Santuac (a). ¿Ta cer? Davidec bere demboran ciona, ez ote da eguiaz, eta bidez esango, Cristaua, zuzaz, eta gueyen gueyenaz? Cembat, eta cembat izango dira alabaña gaistaqueria, ta becatuen oituran urte asco oetan oatuac bezala arquitzen diranac? Cembat, becatuaren berrizcaturen mendean vici diranac, len confesioan bota cituen gaistaqueriac berriro zacurraren eran jaten dituenac? Cembat becatuaren bide, ta perilletan begui bietaraño ondatuac daudenac? Cembat, edaneraco griña gaistoa utzi nai ez duenac? Cembat, birau, edo madaricacioac botatzen dituenac? Cembat guraso, ume, ta mirabeai dotrina, ta Ceruraco bidea eracusteco conturic, eta arretaric ez duenac? Cembat gazte errebesac, eta gogorrac eren guraso, ta nagusi, edo echecoandreaquin? Cembat, licharreria, losencha, guezurra, eta trampa beste gabe bici diranac? Cembat beren itzeguite, beguiratze, ta queñada lotsagarriaquin animen eralle, ta etsayaren miru biurtu diranac? Cembat, eta cembat lagun urcoaren icen on edo famari beti ozca, ta aguinca ari zaizcanac? aren gauza guciac beztutzen, oquertzen, alde gaistora botatzen dituenac? Cembat, eta cembat esaminaric ongui eguin gabe, damuric, eta ontzeco asmo oso gabe confesioco Sacramentura, ta Jaunaren mayera etortzen diranac? Esan diteque alde aldean Davidec ciona: *Aldeguin due guciac Jaunagandic, ta galdu dira dembora berean Jaunarentzat. Ezta arquitzen gauz onic bear bezala beintzat eguiten duanic. Non est usque ad unum* (b). Badacus au gucia Eliz Ama Santac; badacus bere umeric gueyenac, mendi gaiñ batetic amilca datorren arcaitzaren eran, amilduaz dijoacela betico su, eta garren osiñera; ta Ama onac bezala, pena, samintasun, eta naigabez beteric, otseguiten die bere ume errebesai, S. Paulorequin batean. Ona, dio, ona, Jaunac bere urriquimentuaren ondasunac isûri oi dituan dembora. *Ecce nunc tempus acceptabile.* Ona zuen animac garbitzeco, sendatzeco, ta Ceruraco bidean ipintzeco eguna. *Ecce nunc dies salutis.* Enzun itzatzu bada, Cristaua, zure Ama on Elizaren deyac. Presta zaite zure Jaunaren gracia, ta adisquidetasuna iristeco dembora Santu onetan; ta lan andi onetan zuri laguntzeco beguien aurrean ipiñico dizquitzut, gure siniste onac eracusten dizquigun, cembait eguia indartsu. Equingo diot saill oni, Virgiña chit Santa gugatic naigabez, eta penaz betea bitartecotzat aututzen dedala, ta uste det, Cristaua, etorten bacera contuz, eta Jaunagana biurtzeco nai andiarequin, beguiratuco dizula becatarien Ama maitagarri onec urriquimentu andiarequin. Gaur itz eguingo

Universidad de Deusto
Biblioteca

det'gure Fin goi-miragarriaren gañean, ta beguien aurrean ipiñico dizquitzut pensatzeco gai oec. Lembicia: Norgandic dezun, ta certaraco dezun izate ori? Bigarrena; cer neurriac artu dituan zure Jaun Jaungoicoac zuc zure fin, eta betico doatasunaj irichi dezazun. Irugarrena, cer neurriac artu dituan Jaun berac gueroraco. Atoz, Espiritu Santua; atoz beartsuen gurasoa; atoz doayen emallea: argui itzatzu gure adimentuac, ezagutu ditzagun gure esquergabequeriac. Mugui itzatzu gure viotzac oen gañean negar eguiteco, ta vicitza on bat artzeco. Ta zu Virgiña chit Santa, gugatic aimbeste pena, ta samintasun ecusi, ta ecusten dezuna, zu cera munduco baga, ta perillen artean gure Norte izarra; zu Ainguеruen Erreguiña, ta illuntasun, ta atsacabez inguraturic arquitzen diranen argui ederra, ta atseguin-contentua. Zu ondunai duen becatarien bitarteco andi, ta Ama gozoa. Izan zaite bada arren gure guiari, ta laguntzalle asitzera goacen lan andi onetan. Au da guc umilqui escatzen dizugun ontarte, edo mesedea, Aingeruarequin diogula.

AVE MARIA.

Ecce nunc tempus acceptabile, ecce nunc dies salutis. 2 ad cor c. 6.

§ I.

Gure fede Santac eracusten dizquigun eguietatic bat da, Cristaua, dezun izate ori ez dezula cerez, ez eta ustecabean sortua-ere. *Beguira ezazu bada lenengo lecuan Norgandic dezun, ta certaraco ?* Oraintsei milla urte etzan Jaincoaz osteroncean ecer-ere. Etzan oraindic munduric, etzan izarric, illarguiric,

eguzquiric, Ceruric. Etzan lurric, eta lurrean arquitzen diran gauz oetatic batere. Etzan guizonic, eta emacumeric. Norc eguin ote ditu gauz oec guciac, galdetzen digu Isaias Profetac ? *Quis creavit hæc* (c). Ta galdu ezpadezu zuc, Cristaua, zure sinistea, ta centzua, nai ta ez aitortu bear dezu, gauz oec ez dira berac berenez aguertu ; ecin alabaña ecereza atera diteque berez bere ecerezetic. Aitortuco dezu, gaucen asieran gucia eguin zuala Jaunac, Escritura Santac dion eran (d). Aitortuco dezu atzenean edoceñ guizon sortzen danean ecer ezetic eguiten duala bacoitzaren anima. Ta zuc aitortuco ezpacenduen eguia au, gauza guciac deadar eguiten due: Jaunac eguiñac dirala, ez berenez sortuac. *Ipse fecit nos, et non ipsi nos* (e). Norc gañera dauca gauz oen gucien, eta zure contua ? Norc gordetzen die eren izatea ? Norc ezpada Jaunaren escu guci-aldunac ? Nola Jauna iraun lezaque ecere-ere zuc nai ez izatera ? dio Escritura Santac. *Quomodo posset aliquid permanere, nisi tu voluisses ?* (f). Jaunagandic dezu beraz, Cristaua, dezun izate ori ? Jaunaren escutic beraz beti ichiquiric, eta chinchilic arquitzen cera, iraungo badezu zure izate apur orretan ? Ta,

Certaraco eman ote dizu zure Jaun Jaungoicoac izate ori ? Eman ote dizu ecer ezaren ondoren cere egunac igarotzeco ? Eman ote dizu munduaren losencha, ta guezurrai jarraitzeco ? Eman ote dizu munduco idolo engañagarriac, onrac, arrotasunac, izanac adoratzeco ? Eman ote dizu gorputzaren atseguin-contentuen ondoren lau oñecoen eran, edo are ciquiñago vicitzeco ? Ez, Cristaua, ez. Circilleguiac dira gauz oec guciac zuretzat. Gauz andiagoetaraco eguin cinduan Jaunac ; bada eguin cinduan bera ezagutzeco, amatzeco, servitzeco ; ta beticotasun, edo eternidade gucian doatsu berarequin

Universidad de Deusto
Biblioteca

batean Ceruan izateco. Au eracusten digu gure fede garbiac, au sinisten degu Credoco misterioac sinisten ditugunean.

Aditzen dezu, Cristaua, certaraco eman dizun Jaunac, dezun izate ori? Aditzen dezu, cein dan zure fiña, ta zure viotzaren muga? Baña norc esan, Cristaua, cein fin prestua, cein goi, eta miragarria dan gure Jaun Jaungoicoa ezagutzea, amatzea, ta servitzea? Jaungoico bat ecin gueyagoraño eder, on, eta maitagarria? Jaungoico bat, bere edertasuna aguertze utsarequin betico doatsu eguiten dituana Ceruco Ainguеruac, eta ango anima guciac? Jaungoico bat atzenean, beguien ichi-idiqui batean aguertuco balitzate infernuan arquitzen diran Deabru, ta anima galduai atseguin-contentuetan biurtuco lituqueana aen neque-oñaceac, aen suac, eta garrac, aen samintasunac. Norc esan, diot berriz, cein fin prestua, cein goi, ta miragarria dan Jaun au ezagutzea, amatzea, servitzea? Ay! Cristaua! Ez due Ceruco Ainguеruac, Querubin, eta Serafinac zuc dezun baño fin goyagoa, ta Jaungoicoac berac ecin eman ceguiquezun fin goyago, eta eguiteco prestuagoric. Ezpadezu nere esana sinisten, galde guiezu Elizaco guraso, ta jaquintsuai, ta eranzungo dizue ecerezac dirala munduco Erregueen coroac, erac, eta onrac, zure Jaun Jaungoicoaren servitzari izatearen pare. Eranzungo dizue Jaungoicoa servitzea dala eguiaz Erregue izatea. *Servire Deo regnare est.*

Au onela izan, Cristaua, eta alaere vicitu cera oraindaño certaraco munduan zauden beguiratu gabe? Au onela izan, eta alaere zure oraindañoco urteac igaro dira zuc daquizun eran? Arquituco ote dezu urte orien gucien artean bat bederic zure Jauna ezagutzen, eta servitzen igaroa? Baña cer diot nic urte bat? Arquituco ote dezu egun bat bacarra-

cre bear bezala zure Jaungoicoa servitzen igaroa? Cein gauza lotsagarria! Ezagüeraric, eta centzuric ez duen gauza guciac izaten asi ciran une, edo puntutic beti ari dira beren Eguille onac eman cien eguitecoan; beti darraizca Eguille berac ipiñi cien finari. Ez dira beren lan, eta eguiteco onetan aspertzen. Sei milla urte aldean da eguin cituala Jaunac Cerulurrac, eta oetan arquitzen diran gauzac, ta bacoitza ari da nor bere lan, eta jardueran. Eguzquia, illarguia, ta izarrac ez dira beñere aspertu beren argui ederrac ematez. Lurra ari da arbolac, loreac, frutuac, urrea, cillarra, ta beste ondasun asco bere errayetatic bidaltzen; eta au bera guertatzen da gu ez beste gauza guciaquin. Ta zu, Cristaua, ezagüeraric, eta centzuric ez duen gauzac baño beerago jechi cera? Ez dezu ezagutu zure Jaungoicoac eguin dizun onra; eguin dezu cere burua centzugabeco animaliaquin bat; eta aen anceco biurtu cera. *Homo, cum in honore esset, non intellexit; comparatus est jumentis, et similis factus est illis.* (g). Ta cerbait lizaque centzugabeco animalien antzeco izatea: ezagutzen du alabaña idiac bere jabea; ta astoac bere Jaunaren trisipua, dio Isayas Profetac; baña zuc, esquergabe gaistoa, ez dezu ezagutzen, ez dezu amatzen, eta servitzen zure Jaun Jaungoicoa (h); ta ez dezu beguiratu-ere certaraco eman dizun Jaunac dezun izate ori.

§ II.

Andia da, ta goi-miragarria, Cristaua, Jaunac zuretzat nai izan duan fiña; ta jaquiñ ezazu fin oni dagozcan bezalaco lagunzac prestatu cituala zuretzat Jaun berac. Prestatu cituan benicbein gorputzaren aldetic emen bearco cinduan lagunza guciac. Zu ja-

Universidad de Deusto
Biblioteca

jayo baño len eguiña ceucan zuretzat munduco eche eder galant au. Eche onen tellatuac izarrez beteac dauden, Ceruac dira. Echearen azpia oñpean daucazun lurra. Emengo arguia egunaz eguzquia da, ta gauaz illarguia, ta izarrac. Ez dira beñere urratzen tellatuac; eta ala oec nola beste emengo gauza guciac Jaunaren contura daude. Etziñan eche utsean sartu mundu onetara etorri ciñanean. Baciaquian zure Eguille onac, echearen ececic beste gauz ascoren premia izango cenduala emen vicitzeco; ta ongui ciaquianac bezala, ornitu zuan eche au gauza guciaz. Eguin cituan lurpean urrea, cillarra, diamante, eta arri fiñac. Eguin cituan lurraren gañean ardiac, beyac, egaztiac. Eguin cituan iturriac, ibayac, itsasoac. Eguin cituan oetan nortaqui cembat arrai-mota. Eguin cituan arbolac, fruta gozoac, eta ecin conta al lore eder. Ta au gucia ecer ezpaliz bezala, eman cien lurrari, aiceari, suari, ta urari bear adiña indar berenez, edo laguntzen zayela zure jan-edanac, soñac, eta beste premiac escatzen duena eguiteco. Norentzat eguin ditu, Cristaua, zure Jaunac gauz oec guciac? Norentzat zuretzat baicic? Arrituric gueratzen zan David Erreguea Jaunac guretzat prestatu cituan gauzai beguira jarriric, «Gure Jaun Jaungoicoa, »cion: cein miragarria dan mundu gucian zure icena! »Cer da guizona, zu guizonaz era onetan oroitzeco? »Gloriaz, eta onraz bete dezu, ta zure escuetaco obra »miragarrien gañean ipiñi dezu. *Constituisti super »opera manuum tuarum* (i).» Guerta diteque, Cristaua, zu bearrean arquitzea, baña ori izango da, ceren zure aldetic eguin bear cenduqueana eguiten ez dezun, edo ceren ori dan zuri onguiena dagoquizuna Ceruraco bidean. Au da eguia bat sinistea galdu ez duanac, ecin ucatu dezaqueana. Eguia bat Jaunac Escritura Santan ezarri, eta dembora gucietan obraz

aguertu diguna. Ez quezca gueyeguitan ibill i, jan edaneraco, ta janciraco bear dezuenaren gañean. *Nolite soliciti esse.* Beguira airean dabiltzan egaztiai. Ez due oec ereiten ecer, ez eta biltzen-ere aletegui, edo graneroetara. Ta alaere zuen Aita Cerucoac bazcatzen ditu bear duen jana emanaz. Beguira, campoetan jayotzen diran lirioac nola acitzen diran. Ez dira batere necatzen soñeraco bear duenaren billa, ez due onetaraco ardatzean ere eguiten. Alaere etzan oec beceiñ ederqui apaindu izan Salomon bera bere jaquiunde, ondasun, eta aleguin guciaquin. Ta gaur bai, eta bigar ez dan, edo surtara botatzen dan belarra onela jancitzen, eta apaintzen badu Jaincoac ¿cembatez andiagoa izango da Jaun berac zuez daucan contua? Ez bada quezquetan ibilli esanaz: *Cer jango, ta edango degu, edo cerequin estalico guera?* Gade oec guciac federic ez duen gendeen galdeac dira. Badaqui zuen Aita onac, gauz oen gucien bear ceratena. Billa ezazue lenengo lecuan Jaungoicoa; contuz eguin ezazue beraren Legue Santac aguintzen duana; eta animaco ondasunaz gañera emango zaizquitzue gauz oec guciac. *Hæc omnia adjicientur vobis* (j).

Ecusten dezu, Cristaua, ceiñ lagunza eder-andiac prestatu dituan zure Jaun Jaungoicoac, zure emengo premia guciac estaltzeco? Ta eztaquizu laguntza oec dirala zuc errazago, ta gogo obearequin Jaun bera amatzeco, ta servitzeco? Badaquigu, dio S. Pauloc, Jaungoicoa amatzen duenai gauza guciac laguntzen diezala oneraco (l). Ta zure caltetan, eta cere animaren puzoi biurtu ez ditzatzun emengo laguntza oec, artu cituan Jaunac neurri guztiz miragarriac. Debecatu dizu lurreco onra, ondasun, eta beste edoceñ gaucetan viotza ipintzea; ta bacarric gauz oezaz valiatzea nai du bera amatzeco, eta servitzeco laguntzen duen bezambat. Gañera eman cizun zori on, eta

Universidad de Deusto
Biblioteca

doatasunaren eresi andia, ta egarri bat Jaungoico beraren edertasun paregabeac bacarric ase, ta bete dezaqueana. Alferric necatuco cera emengo onra, losencha, ta goimallen ondoren. Alferric erquituric ibiIlico cera ondasunac ecin bilduric. Alferric deseguingo cera munduac eman ditzaquean atseguin billa. Alferric aunatuco cera munduco era, estimacio, adisquidetasun, eta zoraqueriai jarraitzen Ililluraturic, eta itsuturic. Gauz oec guciac irichico bacindu-ere zure viotza gueratuco lizaque len beceñ utsa, ta zori on, edo doatasunaren egarria ase gabe; ceren Jaincoa bacarric dan viotz orren *betegarria*. Au beregan ecusi zuan Salomonec. Ezta izan munduan Erregue onen pare ipiñi ditequeanic jaquinndean, ondasunetan, onra, eta icen andian, eta alaere utsa izan zan au gucia beraren viotza betetzeco. Asi zan eguzquiaren azpian guertatzen diran gauza gucien ezagüera iristen, ta neque onen ondoren dio: gucia dala ecereza. *Ecce universa vanitas*. Asi zan Jauregui ederrac, vergerac, loreac, arbolac ipintzen; ta ecusi zuan oec utsa cirala viotza betetzeco. Asi zan ondasunac biltzen, eta beste Erreguec ez adiña bildu cituan. Asco da esatea aren demboran cillarrari, ecer valio etzuan gauzari bezala beguiratzen citzayola. Baña etzuan oetan ere arquitu utsa, ta barrengo quezca, ta nequea besteric. *Vidi in omnibus vanitatem, et afflictionem animi*. Asi zan musica, ta cantariac bere jaureguian ugari ipintzen, eta orobat guertatu citzayon. Equin cion alzenean gorputzaren beste atseguin ez garbiac billatzeari. Ez nien beguiai ucatu gura izan cituen gauzetic batere, dio berac; eta ez nion eragotzi nere viotzari prestatu niozcan gauzetan nai cituan atseguin guciac artzea. Norc izango ditu, dio, nic adiña atseguin, eta contentu? *Quis... deliciis affuet ut ego?* Inguruco Erregue, ta Principeen alabac beregana ci-

tuan: eta nornai arrituric utzico duan gauza da Escritura Santac diona, zazpi eun emazte izan cituala Erreguiñen icenarequin; eta irureun beagocoac. Ta munduco atseguin–mota guciac era onetan dastatu–ric, cer atera zuan Salomonen viotzac? Cer ezpada betico bere burua, ta bere icen andia beztutzea? Cer ezpada emacumeen losenchen goisoaquin Ililluratzea, itsutzea, ta farragarri biurtzea? Cer, ezpada betico galdu zalaco beldur andi bat utzitzea. Aitortu zuan Erregue onec gucia zala utsaren utsa, eta ecer eza. *Vanitas vanitatum, et omnia vanitas.* (*) Ona, Cristaua, ceñ neurri ederrac artu dituan zure Jaun onac, munduan zure oneraco prestatu dituan laguntzac, cere puzoi biurtu ez ditzatzun. Atozea orain, Cristaua; eguiñic zure Jaun Jaungoicoac zuretzat munduco eche eder galant au; ornituric, eta apainduric eche au zuc bear dituzun gauza guciaz ¿laguntza oezaz valiatu ote cera zure Eguille ona ezagutzeco? bera amatzeco, ta servitzeco? Zure animaren zori on, eta doatasuna billatzeco? Esan beza zure oraindañoco vicitzac. Cer eguin dezu zure artasunean? Cer errebesqueria, ta ibillera gaiztoa besteric? Cer gaztedasunean? Ay! zure adiñ au ciquinqueria, itz loi, escuca, queñada, ta gauz are itsusiagoen aincira, edo osin bat bezala izan da! Cer eguiten dezu zartasunean sartu ezquero? centzatu bearrean, equin diezu irabaci naspillaz beteai, tratu gaiztoai, cuticiari; ta era onetan zure oneraco Jaunac emandizquitzun emengo gauza, ta lagunzaz valiatu cera Jaungoico beraren contra alchatzeco. Ez ote cera noiz-erebait centzatuco?

§ III.

Orain adiraci dizquitzudan lagunza oec gorputzari dagozcan laguntzac dira, gueyenac beintzat. Ta iza-

Universidad de Deusto
Biblioteca

nic oec diran beceñ andiac, eta miragarriac, cer izango dira, Cristaua, zure animari Ceruraco bidean laguntzeco prestatu dituanac? Adan zure lembicico gurasoa becatuan erori zanean, galdu zuan berequin bere ondorengo gucientzat Jaunaren gracia, ta adisquidetasuna. Galdu zuan gracia onec ematen cion Ceruco ondasun, eta atseguin contentuen escu, ta derecha gucia. Guelditu zan bere animan elbarritua bezala; ta dembora berean guelditu zan Jaincoaren aserre, ta madaricacioaren azpian, eta etsai galgarriaren mendean. Ta nola Adanen becatua, eta becatuaren ondorenac jatorriz igarotzen diran Adanen ondorengo gucietara, zu-ere cere sortzetic gueratu ciñan Jaunaren madaricacioaren azpian, becatuaren loiez betea, ta Ceruraco gauz onic batere ecin eguin centzaquean eran. Urriquitu zan guzaz gure Aita ona; eta aimbesteraño maite izan guinduan non eman izan zuan bere Seme bacarra guizon eguiteco; guizon eguin da gurutzean vicitza emateco; ta era onetan Jaungoicoaren, eta guizonaren arteco paqueac eguiteco. Ala dio S. Paulo Apostoluac. *Sic Deus dilexit mundum, ut filium suum unigenitum daret mundo.* Eman zuan bada, Cristaua, zure Salvatzalleac zugatic bere vicitza; prestatu zuan zuretzat zure zori ona, doatasuna, edo betico Cerua iristeco bidea. Prestatu zuan gañera Salvatzalle berac batayoco Sacramentuan, bere criotzaren frutu gozoac, eta ondasunac zure animan isurtzeco bidea; ta deitu cinduan Sacramentu onetara, ta dembora berean bere fede, ta legue Santara. Ay! ta ezagutu bacentza cein ontarte, ta onra andia dan au! Cer dira munduco onra guciac utsa, ta ecer eza baicic onen pare ipintzen badituzu? Cer dira munduco ondasunac? Cer dira munduco jatorri, eta aidetasun andien icena duenac? Cer atzenean emengo lecurie

alchatuenai zuc batayora deitua izatean dezun onra, ta mesedearen aldean? Ozta artu cenduan batayoco Sacramentua, puntu berean gueratu ciñan Adanen becatuaren loietatic garbitu, ta Ceruco graciaren doai, eta virtuteen soñeco ederrarequin apaindua. Ordutanic artu cinduan Jaunac bere adisquide, ta semetzat, eta eguin cinduan Ceruco Erreñuaren, eta ango atseguin contentuen jabegai, edo heredero. Ta au gucia zugatic, ta bera zuc ezagutzeco, ta amatzeco eguin duan Jaunac, cer gañera ez du eguin? Eman dizquitzu bere legue Santaren Ministroac, zuri Ceruraco bidea eracusteco. Eman dizu bere Ainguerueiatic bat, zure sortzetic asita zu ill artean contu eguin deguizun edo zaitu zaitzan. Eman dizquitzu aimbeste Ceruco gracia, ta laguntza becatutic aldeguiteco, ta Ceruraco bideari jarraitzeco; ta gracia, ta laguntza berriac, eta ugari izan ditzatzun, utzi dizquitzu Sacramentuen iturri beñere agortzen ez diranac; oen artean Aldareco Sacramentu guztiz miragarria. Sacramentu orretan gorderic dago, zuri zure premia gucietan laguntzeco; zurequin viotzez viotz itzeguiteco; ta zurequin vicitzeco. Sacramentu orretan dago zure viotzean issurtzeco bere onguinai, amorio, ta gozotasunaren ondasunac, Ceruco gracia, eta laguntzac; ta gucia batean esateco, Sacramentu orretan dago zure Salvatzallea, bera dan guci gucia zuri emateco. Arritzen da S. Agustin Jaunaren onguinai, ta amorio onezaz, eta dio: izanic gure Jaungoicoa dan bezala *Gucialduna*, ecin alaere eman digun baño gueyago eman izan zuan. Izanic ecin gueyagoraño jaquintsua, etzuan alaere jaquin cer gueyago guri eman. Ta izanic ecin gueyagoraño aberatsa, ta gauza gucien jabea, etzuan izan cer gueyago eman. *Plus dare non habuit.* Ona, Cristaua, cein lagunza miragar-

Universidad de Deusto
Biblioteca

riac prestatu dizquitzun zure Jaun onac, Jaun bera zuc amatzeco , ta servitzeco ; ta era onetan betiraunde , edo eternidade gucian doatsu zu izateco. Baña esan guidazu, Cristaua, esan guidazu arren: Jaunaren onguinai , ta amorio baztergabecoac prestatu dizquitzun laguntza oec guciac certan gueratu dira zurequin? Cer frutu atera dezu? Ay! esquergabequeriaren itsusia! Cembat eta onguinai , ta amorio gueyagorequin beguiratu dizun zure Aita onac; cembat eta era, ta laguntza gueyago prestatu dizquitzun bera servitzeco, ta betico vicitza doatsua iristeco; ambat gueyago aztu cera cere onguille andiaz, eta animaz, eta zori onaz! Etzaitu, doacabea, muguitu zure Jaun Jaungoicoa servitzera , ez Jaun bera guizon eguinda zure billa etorteac , ez beraren gurutzeco eriotza gogorrac ; ta artara muguitu ordean cere aleguin guciaquin aritu cera zure Salvatzallea berriro gurutzean josten. Batayoco Sacramentua artu cenduanean, deitu cinduan bere fede, ta legue Santara ; utziric beste ecin conta al fedearen arguiric ez duen gendeen artean : artu cinduan bere adisquide , ta semetzat ; ta ozta ezagüeran sartu ciñan , ausi cenduan , eta ausiaz zoaz orduan artu cenduan legue Santa. Cer esango degu eguin dituzun confesio , ta comunio gaistoaz ? Cer , ezpada Jaunac zure oneraco prestatu dituan lagunza guciaz valiatu cerala beraren contra alchatzeco , ta becatua becatuaren gaiñ eguiteco ? Cer , ezpada Jaunaren lagunza guciac deseguin dirala zure viotz esquergabearen contra itsasoaren bagac bazterraren contra deseguin oi diran eran ? Ta , zu sendatzeco Jaunac ipiñi dituan gauzac, cere calteraco biurtzen badituzu. ¿Cer perillean etzaude Cristaua? Baña ez gaitecen gueyegui gueratu emen. Goacen aurrera.

§ IV.

Baldin zure Jaun Jaungoicoac eguin bazaitu, Cristaua, bera ezagutzeco, amatzeco, servitzeco, ta betiraunde, edo eternidade gucian doatsu berarequin Ceruan izateco: baldin emen vici bear dezun dembora pisca onetaraco prestatu badizquitzu aimbeste laguntza, ta ondasun ta zure oneraco artu baditu aiñ neurri andi, ta miragarriac; cer neurriac etzituan artuco zu iltzen ceraneco? Cer ondasunac, eta atseguin-contentuac etzituan zuretzat prestatuco? Deserri, ta negarren ibar onetan aimbeste ondasun zuretzat prest ipiñi duan zure Jaunac, cer eguingo etzuan Ceruco zure erri doatsuan? Baña emen vici gueran artean ecin au ongui ezagutu dezaquegu. Eraman zuan beiñ Jaunac S. Juan Evangelista Cerura, ta Santuac dionez utsac dira emengo urre cillarrac, emengo diamante, ta arri fiñac Ceruco erriaren edertasunaren pare ipintzen badira O! Israel, dio Baruc Profetac: ceiñ andia dan Jaunaren echea, ta beraren doatasunaren lecua! Andia da, ta ez du bucaeraric; goya da ta ez du mugaric, edo bazterric. Eraman zuan Jaun berac S. Paulo-ere erri aren ecustera; ta andic etorri ondoan itzeguiten du, arriturguiac cer esan ez daquian baten eran: Ez ditue, dio berezonaren gogora ere, Jaunac bere maitatzalleentzat prestatu dituan ondasunac. *Oculus non vidit, nec auris audivit, nec in cor hominis ascendit, quæ præparavit Deus iis, qui diligunt adventum ejus* (m). Ta sinistu diteque, Cristaua, ondasun onen miragarriac, ondasun beticoac, ta zuretzat Jaunac prestatu dituanac, doaric, edo atseguin circill lotsagarri bategatic aimbeste bider saldu dituzula? Beguira ondo,

Universidad de Deusto
Biblioteca

Cristaua, beguira arren nora zoacen. Zure Jaun Jaungoicoa amatzea, ta servitzea da zure lan, eta eguiteco gucia. Ecin asma diteque eguiteco gozoagoric, eta onragarriagoric, ta au eguitearequin zori onecoa zu beticotasun, edo eternidade gucian. Zu igoco cera zuretzat prestaturic, eta ederqui apainduric dagoan Erri eder orretara. Zuc iritsico dezu Jaunac bere maitatzalleentzat gorderic daucan saria, ta zu vicico cera atseguin-contentuen artean nequeren, pena, ta naigaberen beldur gabe. Zure Jaunaren jarlecu, edo Tronutic irtengo da atseguin miragarrien ibai, edo itsaso bat, eta edango dezu edan al gucia, ta beti edango dezu edatez beñere aspertu gabe. *Inebriabuntur ab ubertate domus tuæ, et torrente voluptatis tuæ potabis eos* (n). Baña baldin zure Jaun Jaungoicoa amatu, ta servitu ordean Jaun beraren contra vicinai badezu. Baldin zure zori on, eta doatasuna billatzen badezu oraindaño bezala emengo onra, arrotasun, atseguin, eta ondasunetan, guertatuco zazu Salomoni guertatu citzayona, edo ecer ez, eta utsaren ondoren cere burua galtzea. Guertatuco zazu ipuyetaco zacurrari guertatua bera, edo oquelaren guereiz utsari ortzac egoztea. Guertatuco zazu atzenean betico su, eta garren osiñean cere burua ondatzea. Nai ta ez, Cristaua, edo betico doatsu izango cera, edo betico doacabe; eta bioetatic bat autu dezaquezu. Ta autu naico ote dezu betico doacabe izatea? Ez arren, Cristaua, eguin onelaco centzugabequeriaric. Centza zaite noiz ere bait, beguira certaraco eguin zaituan zure Jaun onac; ta biur zaite beragana. Ona dembora egoquia guciraco. *Ecce nunc tempus acceptabile, ecce nunc dies salutis.*

Aditu dezu Cristaua, certaraco eguin zaituan zure Jaun Jaungoicoac; edo eguin zaituala, Jainco berac eman ceguiquezun fiñic goyen, eta miragarriene-

raco. Aditu dezu, cer laguntzac prestatu dituan Jaunac, zuc zure eguitecoan jarduteco, ta cere fiña iristeco. Aditu dezu atzenean, cer neurriac artu dituan Jaun berac zu iltzen ceraneco, nor bacera zu. Emendic atera bear dituzun frutuac asco, ta andiac dira; baña bearrenac, oraiñ aditzera emango dizquitzudan, oec. Lenengo frutua da: contuz eta cere Jaun onagana biurtzeco asmoarequin etortzea egun oetan Jaungoicoaren itza aditzera. Jaincoaren itza aditu nai ez duanac berequin darabil etsayaren marca. Bigarren frutua, confesio on bat eguiteco, ta gaizqui eguiñac berritzeco prestatzea. Ceruraco bidean jarri nai badezu, eguin bear dezu zure animaren lurrean, necazari batec, sasiz, larrez, arantzaz josia dagoan, lur bat soro biurtzeco eguiten duena. Ez du etze dagoan lurrean aciric ereiten; quentzen ditu lenago sasiac, larrac; ondeatzen du, eta garbitzen sustrai gaistoetatic, ta gañera, carea, edo simaurra emanaz, ipintzen du acia ereiteco aro, ta sasoyean. Ta au bera da, Cristaua, zure animaren lur ori soro biurtzeco zuc eguin bear dezuna. Etze daucazu lur ori aimbeste dembora onetan; becatuen sasiac, ta arantzac estali due gucia oitura gaistoen, becaturaco bide, ta perillen, griña, ta genio charren erroac, eta zañac josia dauquee; ta Ceruraco labore gozoac or eguin nai badituzu, lamberritu bear dezu contuz, garbitzen dezula lar, eta arantza orietatic; ondeatu bear dezu esaminaren, eta damuaren achurrarequin; erre, edo ebaqui bear dituzu becatuaren sustrai, eta bideac; eta au eguin artean beti etze gueratuco da zure anima; beti izango dira zure confesioac idu-ripen, eta zarata utsac. *Novate vobis novale, nolite serere super spinas* (o). Ez da asco au ere Cristaua, zure animaren soroac frutu, ta labore onac ematco. Etze egon dan lurrari frutu onac eman-erazteco,

Universidad de Deusto
Biblioteca

larrac, arantzac, eta sustrai gaistoac erretzeaz gañera eguin bear zaizca beste gauz asco; inguratu bear da esiz, paretez, edo lubaquiz; erein bear da aci ona, ta bere demboretan eman bear zaizca bere jorrac, eta beste maneadurac. Era berean eguin bear dezu, Cristaua, zure animaren lur orrequin. Becatuaren loyac, bideac, sustrayac quentzeaz gañera inguratu bear dezu Jaincoaren beldur Santuaren, lagun onen, eta ongui vicitzeco asmo sendoen esiz, edo paretez; erein bear dezu guero obra onen acia, contuz eranzuten diezula cere vicimoduari dagozcan gauzac, eta leyalqui gordetzen dituzula Jaunaren, eta Eliz Ama Santaren Mandamentuac. Itz batean ecin zure animaren soro orrec frutu onic eman dezaque ezpadezu zuc viotzic vicitz on batean neurri sendoac artzeco: eta ecin artean confesio onic ere eguin dezaquezu. Ta au da Cristauric gueyen gueyenaquin igarotzen dana. Garizuman, Misioetan, eta beste demboretan aditzen ditue gure fedeco eguia izugarriac ecusten ditue bere viotzac guztiz loituac, eta becatu mota gucien zapoz, suguez, piztiaz beteac; izutzen dira, ta bear bada negar andiaquin aitortzen ditue beren gaistaqueriac, eta alaere ez dira garbitzen, eta becatutic irteten. Cergatic, uste dezue? Ceren ongui miratzen bada oen barrenac, ez duen viotzic osotoro, ta betico utzico, becatura amilderazten dituen, bideac, itzeguiteac, beguiratzeac, queñadac, batzarre, edo billera gaistoac, adisquidetasunac; festac, dantzac, ta beste onelaco ibillerac. Ceren viotzic ez duen osotoro, ta betico ucatzeco becatuaren berrizcaturaren azpian darabiltzan griña, oitura, ta genio charra. Argatic egun oro ecusten da, irauten duela oitura, ta genio gaistoac obiraño. Ceren atzenean viotzic ez duen viciza onaren neurri egoquiac, indartsuac, eraguilleac

artzeco. Jan-edanera gueyeguí itsutu dan bat artzen duanean gotaren colpe gogor batec; deituco dio sendatzalleari, artuco ditu sendagayac, utzico ditu janean gueyeguiac; baña esaten bazayo osotoro, ta betico utzi bear dituala, illuntzen da, ta ez du viotzic onembeste bere buruari ucatzeco. Ta ona, Cristaua, zuri oraindaño guertatua. Eztago Jaungoicoagana eguiaz biurtzeric; eztago becatutic irteteric, ezpadagu viotzic betico utzitzeco becatua, ta becatuaren bideac; eta artzeco vicitza onean irauteco bear diran neurriac. Jaunari nai daquiola zuen, eta nere viotzac bere gracia indartsuarequin ucuitzea, eguiaz beragana biurtzeco. Jaunari nai daquiola bera amatzen, eta servitzen degula guc gure egunac bucatzea. Era onetan doatsuac izango guera beti beti iraungo duan, Ceruco glorian. *Ad quam* &.

(a) Psalm. 4 (b) Psalm. 13. Omnes declinaverunt, simul inutiles facti sunt: non est qui faciat bonum, non est usque ad unum. (c) Isai. 40. (d) Genes c. 1. (e) Psalm. 99. Olim dubitabatur, num sicut cuncti homines quoad carnem ab uno homine originem trahimus, secundum illud: *Fecit ex uno omne genus hominum* (Actor 17) ita etiam trahamus quoad animam? Anceps fuit S. Augustinus, et cum eo alii non pauci, At universi D. D. Catholici hodie unanimiter asserunt, animam cujusque hominis creari dum ipse concipitur. (f) Isai. 40 (g) Psalml. 48 (h) Isai. c. 1 (i) Psalm. 8. (j) Math. cap. 6 et Luc. 12. (l) Rom. 8 (*) Ecclesiastæ c. 1. et 12 ac 3 Regum. cap. 11. (m) 1.ª ad Corinth. cap. 2. (n) Psalm. 35.

OGUEI TA SEIGARREN ERACUSALDIA.

BAÑA GURE FIN GOI-MIRAGARRIAREN GAÑEAN BIGARRENA.

Desolatione desolata est terra, et nullus est qui recogitet corde Jer. 12.

Galtzez galdua dago mundua, eta ezta arquitzen beregana biurtu nai duanic, deadar eguiten du Jeremias Profetac. Ona becatuaren ondoren izugarria. Aurrenean beldurtzen da ezagüera ona duan edoceñ anima becatuaren icen, eta gogoracio utsarequin; lotsatzen da beregan, utseguiteren bat guertatzen bazayo; baña becatutic becatura dabillela, ederetsitzen dio becatuari; itsutzen, ta gogortzen da bere gaistaquerian; eta gueroztic ez oi dioe mallaric eguin ez Ceruaren galtzeac, ez betico su, eta garren artera joan bearrac, ez eta asma al ditezquean neurriric sendoenac-ere. Ala guertatu zan Noeren demboran munduan vici ciranaquin. Aztu ciran beren eguille onaz; oitu ciran becatuaren atseguin loyetara, ta eguin ciran centzugabeco abereac baño abereago, ta ciquiñago. Aimbesteraño galduac, ustelduac, ta ciquinduac ceuden, non beartu zuen Jauna, mundu gucia, Noe, ta bere echecoac ez besteac ujolaz itoric uztera. Ala guertatu zan Sodomaco becatari ciquiñaquin. Ala guertatu zan Juduaquin, eta ala guertatzen da egungo egunean ere edoceñ munduaren bazterretan. Badacus gorrotoan

vici danae, birauac, eta juramentuac nolanai eguiteco oitura duanac, cer bide daraman. Badacus guraso zabar bere ume, ta mirabeai contu artzen ez dienac, nora dijoan vicimodu onequin. Badacus edaneraco oituran itsutua dagoanac, badacus cutician bere viotza ipiñi duanac. Badacus onra, ta arrotasunen ondoren bere anima galtzen duanac. Badacus araguiaren atseguin lizunetan dabillenac, betico su, eta garren artean amiltzera dijoala. Ta alaere guchi dira berengana biurtu, ta betico galtzeco perilletic irten nai duenac venaz. Llilluratzen, ta sortuac uzten ditu becatuaren izurriac. Alaere sendatu ditezque becatari oec dembora egoquian esnatzen badira, ta Jaunaren laguntza, ta graciarequin aleguiña eguiten badue. Onetaraco bada, nere Cristauac, eta dembora berean presta ditecen guciac, gure becatuac quentzen dituen, Bildots Jesus maitagarria Pazcoetan artzeco, ipiñi du Eliz Ama Santac garizuma; ta sarritan aditzera ematen dizquigu, becatariric sorrena ere esnaerazteco gai diran eguiac. Eguia oetatic asco beguien aurrean ipiñi dizquitzuet lenagotic; eta saill berari equitera noa gaurdanic, Virgiña chit Santa gugatic damuz, eta penaz betea bitarteco dedala. Gaur itz eguingo det gure Fiñ goimiragarriaren gañean. Atoz Espiritu Santua; atoz beartsuen gurasoa; atoz doayen emallea: argui itzatzu gure adimentuac, ezagutzeco guc gure utseguiteac; ucuitu itzatzu gure viotzac, damuz, eta negarrez becatuaren loyetatic garbi ditecen. Ta zu, Virgiña chit Santa dolorez betea, becatari ondu nai duen gucien Ama gozoa, izan zaite arren gure bitarteco, ta laguntzalle, orain zure onran asitzen degun, lan onetan. Ez arren beguiratu gure oraindañoco esquergabequeriai: baicic gure oneraco igaro cinduan pena, naigabe, ta samintasunai. Au escatzen dizugu

gaur becatutic irteteco nayez, eta asmoz beteric, Ainguerуarequin batean diogula:

AVE MARIA.

Desolatione desolata est terra, et nullus est qui recogitet corde. Jer. 12.

Eguin cinduanean, Cristaua, zure Jaun Jaungoicoac, fiñen bateraco eguin cinduan. Ecin alabaña eguin dezaque Jaunac ecer ere ustecabean, alferric, edo gauza bacoitza zucentzen ez duala onguien deritzan mugara. Certaraco eguin cinduela, uste dezu, Cristaua? Eguin ote cinduan negarrezco ibar onetan beti arrastaca, ta nequetan vicitzeco? Eguin ote cinduan emengo onra, arrotasun, eta choraqueriai jarraitzeco? Eguin ote cinduan emengo izan, eta ondasunen billa aunaturic, eta erquituric ibiltzeco? Eguin ote cinduan, centzugabeco abereen eran, gorputzaren atseguin ciquiñen ondoren eiaca, ta irrinciaz joateco? Eguin ote cinduan, zure gorputz ori ecin apainduric, cere urteric onenac galtzeco? Edoceñ moda, ta jantzi lotsagarri artzeco? Eguin ote cinduan Jaunac beraren ordez zure gura, ta griña charrac servitzeco, ta adoratzeco? Ez, Cristaua, ez. Etzinduan gauz onen circill, edo ecer-ezen ondoren necatzeco eguin, baicic bera amatzeco, ta servitzeco, ta betiraunde, edo eternidade gucian doatsu berarequin batean Ceruan izateco. Au da zure fin guztiz goi-miragarria. Au zure mira, nai, ta gogo gucientzat Jaunac ipiñi duan muga. Au zure lan, ta eguiteco andia. Beste gauzetan desberdiñac dira gure mallac; batzuec jayotzen dira aguintzeco, besteac oen aguinduac eguiteco; batzuec lecu alchatuetan egoteco, besteac lurraren aldean arrastaca ibiltzeco;

batzuec izango dira aberatsac, besteac beartsuac; batzuec jaquintsuac, besteac ez jaquiñac, baña guciac dira, ta guciac daude munduco eche andi onetan Jaungoicoa ezagutzeco, amatzeco, servitzeco; ta beticotasun gucian doatsu berarequin batean Ceruan izateco. Guciac guera berdin Jaunac guretzat autu zuan fiñ eta muga onetan: gucioc degu lan, eta eguiteco bat, au da gure betico zori on, eta vicitza doatsua billatzea, ezagutzen, amatzen, eta servitzen degula gure Jaun Jaungoicoa. Au da, Cristaua, gure siniste onaren cimendua dan eguia, baña dembora berean zuc oraindañocoan ecertan artu ez dezun eguia. Au guerta eztaquizun emendic aurrera, biur zaite ceregana, ta beguira ezazu lenengo lecuan: ceiñ andia dan betico doatasuna billatzeco lan, eta eguiteco au.

§ I.

Munduco eche andi onetan guizonen escutartean dabiltzan, gauzai beguiratzen badiezu, Cristaua, ecusico dituzu, nortaqui cembat lan, eta eguiteco andien icena duenac. Zoaz Erregueen Jaureguietara, eta ecusico dituzu ango servitzariac jan edanaz, ta loaz azturic cer asmatu eztaquiela Erregueren, eta Erreguiñaren gogora gauzac eguiteco; ta au gucia emengo onra, edo ondasun circillen uste apur batégatic. Zoaz Erregueren urrengo guizon andietara, ecusico dituzu ecertaraco paqueric, eta soseguric gabe nequez, arazoz, eta quezcaz beteac, batzuec guerraco gaucetan, besteac Erreñuco ondasun, gobernu, eta oec berequin dacazten lanetan. Zoaz beste errietara, ta ecusico dituzu ecin conta al arazo, eta eguiteco andien artean macurtuac, eta doi doya beren buruaz oroitzeco diña lecu duela.

Universidad de Deusto
Biblioteca

Ala itzeguin oi due berac. Baña cer dira, Cristaua, eguiteco oec guciac zure betico doatasunaren eguiteco andiaren pare ipintzen badituzu ? Cer, ezpada utsaren utsa, edo ecer eza, Salomonec cion eran? *Vanitas vanitatum, et omnia vanitas* ? Cer, ezpada aurren jolasac, S. Agustinec dionez ? *Majorum nugæ negotia vocantur*? Munduco eguiteco guciac, izan ditecela andiac, edo chiquiac, eta irten ditecela nola nai, laster aituco diranac dira ; baña zure animaren eguitecoa ? Zure animaren doatasuna ? Au da beticotasun, edo eternidade guciraco eguitecoa. Ezpadezu oraindic ongui ezagutzen eguiteco onen anditasuna, Cristaua : galde guiezu Apostolu Santuai, eta Martiriai, cergatic igaro nai izan cituen, igaro cituen, nequeac, eta oñace izugarriac ? Batzuec gurutzean josiric, besteac ezpatari lepoac emanic ; batzuec parrilletan erretzen cituela; besteac labe gorietan sarturic. Batzuec leoi, eta artzen alzaparretan puscatuac gueratzen cirala, besteac azotez, eta burniazco cacoaquin urratzen cituela. Galde guiezu Elizaco confesore Santuai ¿cergatic artu nai izan cituen aimbeste neque, eta gurutze? Batzuec gau, ta egun nequean, oracioan, barau, azote, ta ildura izugarrietan; besteac, eremuetan ezcutaturic, mendico belar utsaquin igarotzen cirala? Galde, munduutziric, paret artean ezcutatu, edo gorde diran aimbeste doncellari. Cembat, eta cembat oen artean era andiaquin aciac? Cembat, munduan onrac, ondasunac, ezcontzac izan citzaqueenac? Cembat, Erregue, guizon andi, edo eche chit prestuetatic beren jatorria cecartenac? Galde guiezu bada, cergatic utzi dituen beren echeac, aideac, adisquideac, ondasunac, ezcontzac, itz batean, munduan gueyena nai izan oi diran gauza guciac? Eta guciac erantzungo dizuc S. Euquerioc ciona: gure eguiteco gucia, gure

neque, eta aleguiñac dira animaren doatasuna, eta betico vicitza billatzea. *Negotium, pro quo contendimus, vita æterna est.*

Ez dezu, oraindic-ere ezagutzen, ceiñ andia dan zure animaren eguitecoa? Oroi zaite bada, cer eguin duan zure Jaun Jaungoicoac, zuc zure betico zori on, eta doatasuna irichi dezazun. ¿Certaraco eguin cituan munduco eche eder au, ta emengo gauza guciac? Certaraco urrea, cillarra, perlac, diamanteac, arri fiñac? Certaraco ardiac, beyac, egaztiac? Certaraco iturriac, ibayac, itsasoac, arrayac? Certaraco belarrac, loreac, arbolac, eta aimbeste fruta gozo? Certaraco Ceru eder oriec, eguzquia, illarguia, eta izarrac? Eguin cituan guciac zuri cere animaren eguitecoan laguntzeco; ta ala laguntzen dieza Jaunaren maitatzalleai, dio S. Pauloc. *Omnia cooperantur in bonum.* Certaraco Aita eternoac bidaldu zuan bere Seme bacarra mundura? Certaraco, betico doatasuna iristeco bidean zu ipintzera baicic? Aimbesteraño maite izan gaitu, non eman izan digun bere Seme bacarra, dio S. Juanec. *Sic Deus dilexit Mundum, ut filium suum unigenitum daret Mundo.* Certaraco guizon eguin zan Jaungoicoaren Seme-Trinidadeco bigarren Persona; ta guizon eguiñic gurutzean eman zuan bere vicitza? Certaraco Espiritu Santua jachi zan bere doayaquin Eliz Ama Santagana? Certaraco eman dio Jaunac guizonari laguntzat bere Aingueruetatic bat? Certaraco ipiñi ditu bere leguecco Ministroac, Sacramentuac, ceremoniac? Certaraco ipiñi du gure bitarteco, eta Amatzat Virgiña chit Santa Jaungoico beraren Ama? Certaraco atzenean gueratu nai izan du Jaungoico-guizon Jesus maitagarriac Aldareco Sacramentuan? Ta gueratu ecusten dituala aimbeste charqueria, ta bide gabe? Ay! Cristaua! zure sinisteac eracusten dizuna ucatu

Universidad de Deusto
Biblioteca

nai ezpadezu, aitortuco dezu zure Jaun Jaungoicoac eguin dituala gauza miragarri oec guciac, zuc zure doatasuna irichi dezazun! Ta nai ta ez ezagutuco dezu zure animaren eguitecoa dala ez nola nai andia, baicic Jaungoico beraren obraric miragarrienen-artean-ere miragarria.

Au onela da, Cristaua, ta alaere vicitu cera oraindañocoan, certaraco munduan zauden, beguiratu-ere gabe? Au onela da; ta alaere dituzun urte gucien artean ez dezu bat arquituco, Jauna servitzen, eta animaren eguitecoan igaroa! eta cer diot nic urte bat? Arquituco ote cenduque egun bat bacarra-ere osotoro zure eguite andi onetan igaroa? Cein gauza lotsagarria! Centzuric ez duen gauza guciac gau, ta egun ari dira beren eguille onac eman cien eguitecoan. Ez dira beñere aspertzen eren jarduera onetan; ta zu, Cristaua, arturic Jaunagandic dezun adimentua, ta borondatea beste ecin conta al ontarterequin batean, aztu cera guciaz! eta eguin dezu cere burua centzuric ez duen gauzac baño ecer-ezago! Centza bacendi orain bederic! Onetaraco beguira-ezazu bigarren lecuan.

Cembat dijoaquizun, edo cer galduco dezun, zure animaren eguiteco onetan gaizqui irteten bacera.

§ II.

Cer galduco dezula, uste dezu, Cristaua, era orretan vici cerala? Galduco dezu benic bein zure anima bacarra, ta galduco dezu betiraunde, edo eternidade guciraco. Eman cizun Jaunac anima, edo espiritu bat bere antzera eguiña, ta beti beti iraungo duana zure obrai dagoten lecuan. Eman cizun Jaun bera ezagutzeco, amatzeco, servitzeco, ta guero beticotasun gucian doatsu izateco, Ceruan. Cer valio eztu anima orreč, eguin bazuan Jaunac Ceruco bere Jauregui ederrean berequin iduquitzeco? Eguin bazan guizon, eta gurutzean vicitza eman bazuan anima ori galdu etzedin! Ta anima ain valio andicoa galduco dezu, Cristaua, ezpadezu osotoro utzi nai becatua! Ta non arquituco dezu anima orren ordaiñ ipiñi ditequean gauza, esaten dizu Jesu-Cristoc? *Quam dabit homo commutationem pro anima sua?* (a) Bazalbiltzateque munduaren ondoren. Chit cecoitza, cequena, gogorra, ta esquergabea da bere servitzariaquin; baña demagun zurequin izan nai duala besteaquin ez bezala, ta issuri nai dituala zure alde bere ondasun guciac. Iristen dituzu gogora al ditezquean onra guciac, lecu andiac goimallaco ezcontzac, aidetasun, eta bernageric bicañenac. Iristen dituzu, urean, lurraren azpian, eta gañean arquitzen diran, gauz, edo ondasun guciac, urrea, cillarra, perlac, diamanteac, celayac, basoac, beraceac, ganaduac; eta besteac ecer izateco, lenago etorri beardue zugana baimenaren esque. Iristen dituzu atzenean zure beguiac, belarriac, escuac, gorputzac escatzen dizquitzuen atseguin-contentu guciac. Au gucia irichita-ere cer prochu izango dezu; galtzen badezu betico zure anima bacarra, esaten dizu Jesu-Cristoc? *Quid prodest homini, si mundum universum lucretur, animæ vero suæ detrimentum patiatur?* (b). Au ongui ecusi zuan beregan Salomonec. Ezta izan »munduan Erregue onen pare ipiñi ditequeanic ja»quiundean, ondasunetan, onran, eta icen andian. »Asi zan eguzquiaren azpian guertatzen diran gauza »gucien ezagüera iristen; ta neque onen ondoren dio: »*gucia da utsa, ta ecer-eza. Ecce universa vanitas.* Asi »zan jauregui ederrac, vergerac, loreac, arbolac i»pintzen: ta oec-ere utsa cirala. Asi zan ondasunac »biltzen, eta beste Erreguec ez adiña bildu cituan. »Asco da esatea aren demboran cillarrari ecer valio

Universidad de Deusto
Biblioteca

»etzuan gauzari bezala beguiratzen citzayola. Baña »etzuan ondasunetan-ere quezca, ta nequea besteric »arquitu. *Vidi in omnibus vanitatem, et affictionem »animi.* Asi zan musica, ta cantariac bere Jaureguian » ugari ipintzen, eta oro bat guertatu citzayon. Equin »cion atzenean gorputzaren beste atseguin ez gar- »biac billatzeari. Ez nien, dio berac, ez nien beguiai »ucatu gura izan cituen gaucetatic batere; eta ez »nion eragotzi nere viotzari prestatu niozcan gauce- »tan nai cituan atseguin guciac artzea. Norc izango »ditu, dio, uic adiña atseguin-contentu? *Quis... deli- »ciis affluet, ut ego*? Inguruco Erregue, ta Principeen »alabac beregana cituan, idoloen servitzariac baci- »ran-ere: ta nornai arrituric utzico duan gauza da »Escritura Santac diona, edo zazpi cun emazte izan »cituala Salomonec Erreguiñen mallacoac: eta iru- »reun beagocoac.» Ta cer prochu atera zuan Erre- gue onec munduco onra, ondasun, eta atseguin mo- ta guciaquin, galdu bazuan bere anima? Illundu zuan eta beztu betico bere icen andia, ta utzi zuan betico galdu zalaco beldur andi bat, eta berac aitortu zuan: utsaren utsa, ta ecer-eza cirala munduco gauza gu- ciac. *Vanitas vanitatum, et omnia vanitas* (c). Etzitza- yon guchiago guertatu Evangelioco aberats cuticiat- suari. Izan zuan cuticiatsu onec abuztu guztiz ugari bat, ta Jaincoari esquerrac eman ordean, eta beart- suai laguntzeco contuac atera lecuan, quezca andia- quin asi zan pensatzen, cer eguingo ote zuan aimbes- te fruturequin, ceren nora bildu etzuan. Esan zuan orduan: *deseguingo ditut nere aleteguiac, eta eguingo ditut beste andiago batzuec*: ara bilduco ditut nere on- dasunac; eta esango diot nere animari: *Ea nere ani- ma* orra non dauzcatzun prest urte ascoraco ondasu- nac. *Etzaitecela necatu; jan ezazu, edan ezazu, errega- la zaite. Requiesce, comede, bibe, epulare.* Cer prochu

atera zuan cuticiatsu onec bere ondasun gucietatic? Ay! contu oec ateratzen cegoela, aditu zuan Jaincoa- ren ots icaragarri bat esaten ciona: *Centzugabea*! Gau onetan bertan zure gorputz orretatic irten bearra da zure anima: norentzat gueratuco dira bildu dituzun ondasunac? Iltzan, eta ondatu zan betico su, eta gar- ren artean (d). Alferric beraz, Cristaua; alferric za- biltza munduari jarraitzen; alferric necazten cera e- mengo onra, ondasun, eta atseguin loyen billa. Ez dezu zure neque guciaquin zure anima bacarra beti- co galtzea beste prochuric ateraco.

Cer gueyago galduco ote dezu, Cristaua, zabiltzan eran bazabiltza? galduco dezu zure Jaun Jaungoi- coa, ta galduco dituzu Jaun berac zuretzat prestatu dituan betico ondasunac, eta atseguin-contentuac. Ta cer eguin al dezaquezu, zure Jaun onac utzi ezque- ro betico? Ay! becataria! Ezta gueroztic zure ga- ñean erorico Jaunaren graciaren inz, eta euri go- zoric; baicic betico suac, eta garrac. Ezta gueroz- tic zure viotzean izango Ceruaren, eta ango onda- sunen usteric; baicic illuntasun, eta tristura, edo gogaicio bat beti beti ozca, ta aguinca arico zatzu- na. Au izango da ar bat beiñere ilco, edo bucatuco ez dana. Enzun-ezazu, Cristaua, cer dion Jesu-Cris- toc guizon aberats jan-edanean, eta oec dacazten becatuetan vici zan batez. Jancitzen zan guizon au granaz, eta tela eder preciotsuaquin; eta egunoro jaten zuan mai ugari, edo naroro ornituan. Dembo- ra berean vici zan guizon gaiso beartu bat Lazaro ce- ritzana. Au egon oi zan guizon aberatsaren arteetan illaren, viciaren baño antz gueyago zuala: goseac igaroa, zauriz betea, ta aberatsaren mayetic eror- tzen ciran apurraquin bederic gosea iltzeco ongui zaletua. Baña etzion gaisoari iñorc ecer ematen. An cetzan iltzeco zorian, zacurrac etorrita bere zau-

riac miazcatzen ciozqueela. Ala ere bere neque gucien artean etzuan birau, ta madari cacioric botatzen, baicic esqueintzen cion Jaunari bere viotza, vicitza, ta bera zan gucia. Il zan Lazaro beartsua: eta eraman zuen Aingueruac Abrahanen limbora, edo Jesu-Cristoc Ceruco ateac idiqui cituan arteac anima onac joan oi ciran lecura. Il zan aberatsa-ere, eta jachi zan betico su, eta garren artera. Bere neque, eta oñaceen artean ecusi zuan, Jaunac ala nai izanic, urruti batean Abrahan bere atseden lecuan; eta Abrahanequin batean Lazaro escalea-ere bai. Asi citzayon otsca Abrahani, *Aita Abrahan, urriquitu zaite arren nizaz. Misserere mei.* Bidal-ezazu Lazaro, beatz baten punta urtan bustita nere mingaña ezatu dezan: erretzen nago alabaña su, eta garoen artean. *Crucior in hac flamma.* Adituric urrutira adia oec, erantzun cion aberats doacabeari: *Ene seme*, oroi zaite, vicitzan artu cinduala ondasun, eta atseguin-contentuac; eta Lazaroc nequeac: baña orain au pozez beteric dago, ta zu neque oñacez lertzen. Gañera zurequin gure artean arquitzen da lize icaragarri bat Jainco beraren aguintez eguiña, eta onec eragozten du ortic onera, ta emendic orrera igarotzea. *Aita Abrahan*, esan cion berriz aberats doacabeac: erregutzen dizut, bidal-dezazula Lazaro nere Aitaren echera, (baditut alabaña bost anai) aditzera eman deguiezten nere nequeac, nere pena, ta oñaceac, eta amildu ez ditecen aec-ere zori gaiztoco lecu onetara. Erantzun cion Abrahanec: *Baditue Moyses, eta Profetac; aditu bitzee oec. Ez Aita Abrahan*, ez due Moysesen, eta Profeten esan-etara beguiratuco; baña ildacoren bat aguerturic emen guertatzen danaren berriac ematen badiezte, biurtuco dira Jaunagana, ta utzico due beren vicitza gaistoa. Eranzun cion berriz Abrahanec:

Moysesen, edo Profeten esanac aditzen ezpaditue; ez luquee sinistuco or aguertzen dana, ildacoren bat piztuco balitz-ere (e). Au da Jesu-Cristoc aberats doacabe onen, eta Lazaro escalearen gañean dionа.

Ecusten dezu, Cristaua? Ecusten dezu, cer dijoaquizun, edo cer galduco dezun, animaren eguitecoan gaizqui irteten bacera? Esanguidazu orain zuc, birauguillea; zuc guraso zabar cere ume, ta mirabeai becaturaco bidea eracusten diezuna; zuc, guizon edanean cere echea galtzen dezuna; mutil arro nondic zure, ta beste ascoren animac galduco dituzun zabiltzana; nescach erguel cere arinqueria, ta ibillera lotsagarriaquin animen sare, edo lazo biurtu cerana; zuc saldu-erosi ciquiñac, licharreriac eguiten dituzuna; lagun urcoaren onra, fama, icen ona utsiquitzen ozca, ta aguinca beti ari cerana, esanguidazu arren ¿nola beguiratzen ez dezu, cer galtzera zoacen? Eta galtzera betico? Non da zure sinistea? Noraco asmoan zabiltza, cere animaren galgarria? Ez ote diozu noiz ere bait zure animaren eguiteco oni venaz equin bear? Beguira, Cristaua! etzaitecela dembora egoquian zabartu. Ta zure zabarqueriaren mendean elbarrituaren eran egon etzaitecen, beguira ezazu irugarren lecuan. Cein perill andian arquitzen dan zure animaren eguitecoa, eta betico doatasuna.

Zure Jaun Jaungoicoac eguin cinduan doatsu izateco beticotasun, edo eternidade gucian; baña doatsu izateco ez doaric, ez borchaz, eta zure borondatearen contra; baicic cerorrec nai dezula venaz, eta artaraco eguin bear dana contuz eguiten dezula. Zure doatasunac beraz ez du beiñere utseguingo Jau-

Universidad de Deusto
Biblioteca

nari dagocan aldetic. Baña zure aldetic? Ay! Cristaua! Ongui beguiratzen bacenio gauz oni, arrituco ciñaque, beti betico galtzeco zorian arquitzen cerala, ecustean! Atoz ezperen nerequin, eta aguertuco dizut, cein eguia garbia dan orain diodana.

Edoceñec dacus, edo beintzat ecusi dezaque, alde gucietatic perillez inguratuac arquitzen guerala gucioc. Perillac eta lazoac zabalduric daude lecu gucietan guri betico doatasuna gal-erazteco. Perillac errietan; perillac bacardadean; perillac itsasoan, perillac lurrean; perillac Demonioaren, eta munduaren aldetic; perillac guerengan; perillac aurtasunean; perrillac gazte demboran, eta perillac zartzean. Argatic ongui vici danac-ere ez du cer zabartu bere bidean; baicic ernai, ta contuz jarraitu bear dio bere nequeari, guerta ez daquion beste ascori guertatu zayona, edo betico galtzea. Jaunaren beldur santuaz beteric ari zaitezte zuen animen eguitecoan, esaten digu S. Paulo Apostolua. *Cum metu et tremore vestram salutem operamini* (f). Baldin Ainguerua Ceruan; baldin Judas Jesu-Cristoren aldean galdu bazan: baldin S. Paulo Apostolua, eta Santu guciac galtze onen beldur andi batequin vicitu baciran ¿nor ezta izutuco? Ta norc eztu ezagutuco betico galtzeco perill au?

Ta guciac onembat perillean badaude, cer esango degu zuzaz, aimbeste dembora onetan becatuaren berrizcaturetan, eta gaistaqueriaren bideetan vici ceran, Cristaua? Cer, ezpada arquitzen cerala beti betico galtzeco zorian, eta infernuaren ercean? Ez dezu zuc alabaña viotzic, zure salvatzalleac aguintzen dizuna osotoro eguiteco; ez dezu viotzic Salvatzalle bera amatzeco, ta servitzeco bear diran neurriac artzeco. Ez, Cristaua; ez dezu viotzic, benic bein zure Jaunaren legue Santa osotoro gor-

detzeco, bayetz, confesioco Sacramentura zatocenean, esaten badezu-ore. Esan dezaquezu zuc, guraso donguea, cere zabarqueria, cere berandu echeratze, cere oitura charraquin ume eta mirabeai infernuraco bidea eracusten diezuna, eguin nai det Jaincoaren legue Santac aguintzen dizuna; baña ongui miratzen badezu cere barrena, iguerrico dezu ez dezula viotzic mirabeai ucatu bear zaizten ibillerac, itzeguiteac, eta sartu irtenac ucatzeco, edo gal-erazteco, ejemplo ona emateco; goiz echeratzeco, edaneraco oitura utzitzeco. Esan dezaquezu zuc, gazte arro centzugabea, ez dezula nai gueyago becaturic eguin, ta biurtu nai dezula cere Jaungoicoagana; baña itzeguin beza ez mingañac baicic barrenac; eta onec esaten dizu, ez dezula viotzic osotoro eta betico utzitzeco adisquidetasun, jolas, ibillera, ta beste zure anima galtzeco izan diran lazoac. Esan dezaquezu zuc, cere ipui, ta naspillaquin echeetaco paquea galerazten dezuna, zuc, cere mingaiñ madaricatu orrequin lagun urcoaren icen, eta fama beztutzeco oitura dezuna, zuc, licharrerian, tratu ciquiñetan lagun urcoaren odola edaten dezuna: esan dezaquezu, diot, gorde nai dezula zure Jaun Jaungoicoaren legue Santa; engañatu dezaquezu cere burua, ta confesorea, baña zuc oraindañocoan ez dezu viotzic izan becatu-mota oec osotoro, ta betico utzitzeco.

Ez dezu gañera viotzic zure Salvatzallea amatzeco, ta servitzeco bear diran neurriac artzeco. Cer neurri ote dira oec? Neurri oec dira etsai galgarriaren, eta mundu galduaren usadio oquer ta iritzi gaistoac betico utzitzea, ta cere gure, griña, naicunde, ta genio charrac ucatzea, ecitzea, ilduratzea, edo mortificatzea; ta zuc, Cristaua, ez dezu oraindaño neurri oec artzeco asmo oso, edo viotzic izan. Atocea,

Universidad de Deusto
Biblioteca

ezperen ¿ Cembat bider utzitzen diezu zure ume, ta mirabeai festara, dantza ciquiñetara, lagun centzugabeen artera, ezagutzen dezula ceregan, gauz oriec ez oi dacardela animen caltea besteric? Atocea, cembat bider joaten cera nescacha-mutillen batzarre, naspilla, ta zalagarda ciquiñac izan oi diran lecuetara, daquizula, ez dezula cere anima loitu gabe andic ateraco? Atocea, cembat bider zure auzoari gaitz opa izan diozu, edo aren gaitzaz poztu cera, edo onaz naigabetu, ceren arequin aspaldicho otz vici ceran? Atozea, cembat bider zure onran, edo zure guiar-guiarrean ucuitu zaituela iduritzean, asi cera zoratuaren eran edoceñ gauza esaten, diranac, eta ez diranac barreatzen; eta prest egon cera alde orretatic ucuitzen zaituanari ez barcatzeco? Atozea, cembat bider laudatzen dituzu cerbaiten ustea danean, urliaren oquerrac, arrotasunac, vengantzac? Cembat bider batzarre orietan itzeguin bear cenduquean gauzetan isillic egon cera urliaren, edo sandiaren beldurrez? edo bear dan eran cargüetaraco votoa eman dezu, *auzotasuna, edo odola ecin* ucatuco dezula esanaz? Ecusten dezu, nola oraindaño viotzic izan ez dezun munduduarenusadio, uste, ta iritzi gaistoac betico utzitzeco? munduaren usadio gaistoac amilderazten ditue bein baño gueyagotan anima on-sendoetatic-ere ez guchi; baña viotzic ez duanac ez du amildu bearric; beti dago amildua. Amatzen badu batec mundua, ezta argan Jaunaren amorio, adisquidetasun, eta graciaric, dio S. Juanec. *Si quis diligit Mundum, non est charitas Patris in eo* (g). Au bera guertatzen da bere gura, griña, naicunde, ta genio charrac ucatzeco, ecitzeco, ta ilduratzeco viotzic ez duanarequin. Jesu-Cristorenac diranac ilduratu, ta gurutzeficatu due gorputza bere gura, ta naicunde charraquin, dio S.

Pauloc. *Qui sunt Chti. carnem suam crucifixerunt cum vitiis, et concupiscentiis* (h). Niri jarraitu nai didanac uca beza bere burua, edo bere griña, ta naicundeac, dio Jesu-Cristoc berac. *Abneget semet ipsum* (i). Baña zuc, Cristaua, ez dezu viotzic Jesu-Cristoren aguindu au eguiteco. Onran, eta puntuan viotza ipiñi duanac nequez chit ucatuco du griña au, ta orobat guertatzen da cutician, astseguin loyetan, ezcontzeco gogoan viotza itsatsia daucanarequin. Ecusten dezu, Cristaua, cein perill andian arquitzen dan zure animaren eguitecoa, eta betico doatasuna? Ecusten dezu, nola arquitzen ceran beti-betico galtzeco zorian? Au onela da: ta zuc alaere ez dezu centzatu nai? Au onela da; ta alaere ez dezu beguiratu-ere nai, cer galtzen dezun, eta nora amiltzera zoacen? Galtzez galdua dago mundua, ta ezta arquitzen bere calteari beguiratu nai dionic, dio Jeremiasec, *Desolatione desolata est terra, et nullus est qui recogitet corde.* Edo betico doatsu, edo betico doacabe izan bearra cera, Cristaua! Eztago muga onen artean bestetaraco lecuric, eta bideric; ta zure vicitza guztiz macurtua dago, eta amiltzeco zorian betico su, eta garren artera. Esna zaite, Cristaua; beguira arren nora zoazen: guera zaite, ta ar ezazu zure betico doatasuna iristeco bidea. Baña ez gaitecen gueyegui luzatu.

Aditu dezu, Cristaua, zure Jaun Jaungoicoac eguin cinduala bera amatzeco, eta servitzeco: ta betiraunde, edo eternidade gucian doatsu berarequin batean Ceruan izateco; ta cein andia dan zure lan, eta eguiteco au. Aditu dezu, cembat dijoaquizun, edo cer galduco dezun, eguiteco onetan gaizqui irteten bacera. Aditu dezu atzenean, ceiñ perill andian arquitzen dan zure eguiteco au, eta betico doatasuna. Emendic atera bear dezun frutua da lembicia: zure

Universidad de Deusto
Biblioteca

animaren zori on, eta doatasuna iristeco nai andi, eta egarri eracequi bat. Santo Tomasi galdetu omen cion bere arreba batec: *Nola irichi cezaquean salvatzea?* Eta Santuac erantzun cion: *Nai dezula.* Nai oso au iritsi artean beti ibillico guera iduripen utsetan, beiñere Ceruraco bidean ongui jartzen ez guerala. Guertatzen da nai erdi, edo laurdenaquin alferraren nai, edo deséoaquin guertatzen dana. Nai luque alferrac echean artoa, ta garia, urtea ongui igarotzeco-diña bederic; nai lituque ardiac, beyac, idiac, ceciña, urdaya; ta baditu bear bada gauz oec guciac escatzen dituen lurrac, belarrac, eta ostoa; ta alaere alferra deséo aen gucien artean goseac bucatzen dago; ceren deseo antzuac, eta dagocan eran sayatzera, eta necatzera muguitzen ez duenac diran. Nai du, eta eztu alferrac, dio Jaquintsuac Escritura Santan. *Vult, et non vult piger.* Eguiazco nai oso au iristen badezu, Cristaua, ta leyalqui berari jarraitzen badiozu, zuc ederqui eguingo dezu zure animaren eguitecoa, ta artuco dituzu betico doatasuna ez gallzeco neurriac. Zori onecoac zucentasun, eta vicitza onaren gose-egarri diranac, ceren oec aseac izango diran, dio Jesu-Cristoc. *Beati, qui esuriunt, et sitiunt justitiam, quoniam ipsi saturabuntur.* Baña emen gogoan ar ezazu, Cristaua, nai oso au dala Jaunaren ontarte, ta mesede andi bat; ta beragatic umilqui escatu bear diozu Jaun berari, eta ez dizu ucatuco bear dan eran escatzen badiozu. Baldin zure viotzaren ateetan viotza ucituaz ari bazatzu, berac dion bezala: *Ecce sto ad ostium, et pulso:* baldin esca dezazula, ta emango zatzula, esaten badizu; nola ucatuco dizu bera amatzeco, servitzeco nai osoa? Gaurco eguia oetatic atera bear dezun bigarren frutua egun oetan contuz, eta Jaungoicoagana osotoro biurtzeco asmoarequin etortea Jaincoaren itza

aditzera. Jaincoaren itza aditu nai ez duanac ez du Ceruraco gogoric, eta berequin darabil etsayaren marca. Jaungoicoarenac diranac aditzen due Jaungoicoaren itza; argatic zuec aditzen ez dezue, ceren Jaungoicoarenac etzeraten, esan cien beiñ Jesu-Cristoc Judu esquergabeai. *Propterea vos non auditis quia ex Deo non estis.* Gaurco eguia oetatic atera bear dezun irugarren frutua da, zure anima becatuaren loyetatic garbitzeco, ongui prestatzea. Sasiz, larrez, eta belar gaistoz beteric dagoan lur baten eran arquizen da, Cristaua, zure animaren soro ori, eta or Ceruraco obra onen frutu gozoac eguiteco, lenengo lana da ongui garbitzea zacarreria orietatic. Baña contu emen; ez dago anima garbitzeric, ez dago confesio onic zuretzat becaturaco bidea dacarten ibillera, itz eguite, sartu-irten, eta beste perillac betico utzi nai ezpadituzu. Aztenean emendic atera bear dezun frutua da Jaunaren servitzen vicitzeco neurri egoquiac artzea. Era onetan ederqui eguingo dezu emen zure animaren eguiteco andiari dagocana, eta irichico dezu zuretzat Jaunac prestaturic daucan Ceruco gloria. *Ad quam* &.

---

12. (a) Math. 16 (b) Ibidem. (c) Ecclesiastæ cap. 1; et ac tertio Regum c. 11. (d) Luc. 12. (e) Luc. 16. (f) Ad Philip. 2. (g) 1.ª Joan. 2. (h) Ad Galat. c. 8. (i) Math. 16, Marc. 8, Luc. 9.

OGUEI TA ZAZPIGARREN ERACUSALDIA,

BAÑA GURE FIÑ-GOI-MIRAGARRIAREN GAÑEAN IRUGARRENA.

Porro unum est necesarium. Lucœ capite 10.

Gure Jaun Jaungoicoac eguin cituan gauza guztiac, guizona ez besteac, beren sortzetic asi ta beñere necatu gabe ari dira bacoitza bere fiñari dagocan eguitecoan. Eguzquia, illarguia, izarrac, lurra, sua, uura, aicea, ta beste gauza guciac gau ta egun eguiten due, ta munduac dirauen artean eguingo due beren Eguille Andiac eman cien lana. Ta gauz arritzecoa! Centzuric ez duen gauzac aiñ leyalqui, ta zucen beren fiñari jarraitzen dioe: ta izanic guizona, bere Jaun Jaungoicoac adimentuaren arquitasunez edertu, ta apaindu zuan gauza: guizona alaere da bere Eguille Andiaz aztu, ta certaraco eguiña dan ongui beguiratu-gabe, egunac, asteac, urteac ecer-ezaren, edo munduco auqueria, ta atseguin circilla ta lausoen ondoren igarotzen dituana: chit guchi dira alabaña guizonen artean beren fin goi, ta andiari contuz jarraitzen dioenac. Guizonaren esquergabequeria itsusi au aditzera ematen du guizon virtutetsu batec ipui onequin. Usatu cion bein guizon videz cijoan bati Unicornio, edo *Adarbacoitza* deritzan animalia aserre batec. Equin cion videzcoac lasterrari, baña alaere *Adarbacoitzac* dembora guchiren barrumbean achitzeco zorian jarraituco cion. Estu, ta larri zan videzco gajoa, ta bere estutasunareguin salto eguin zuan vide ondoan ecusi zuan leice izugarri batera, ta an beera ci-

joala eldu cion leicearen alde batetic cegoan lerchun baten adarrari, ta gueratu zan aidean ichiquiric. Beguiratzen du goora, ta an cegoan Adarbacoitz aserrea noiz igoco dan zai. Beguiratzen du beera, ta ecusten du dragoitzar izugarri bat aoa zabalduric, beera erortzen dan puntuan irintsitzeco chinchilic dagoan guizon tristea. Beguiratzen du lerchunaren sustrayera, ta ecusten ditu bi sagu, churia bata, belcha bestea, sustraya guchica janaz ari dirala. Cer pena, cer quezca, ta naigabeac etzuan guizon au inguratuco, bere burua era onetan ecustean? Ala guertatuco zala uste izan citequean, baña engañatzen guera. Gure videzcoa perill aiñ andian cegoalaric, arquitzen zan alaere quezca, ta arduraric batere-gabe, lerchunaren orrietatic erortzen ciran ezetasun goiso baten tantoai aoa zabalduric. Ez da au centzugabequeria escarguea? Guizon bat alde gucietatic perillen artean inguratua, goyen Adarbacoitza aren zai: bean dragoitzarra eztarria zabalduric guizon onen beguira: lerchun medar baten adar charretic ichiquiric leicean ondatzeco zori zorian: ta lerchunaren sustrayari gau ta egun janaz ari zaizcala bi saguac! ta trance onen estuan gure guizona arquitzen da lerchun-ostoetatic erortzen zaizcan tanto goisoai aoa zabalduric, eta choraturic! O itsumen izugarria! Ongui Cristaua ¿ta ipui onec cer aditzera ematen digu, ezpada gurequin egun oro guertatzen dana? Videz dijoan guizona da jayo dan guizon, ta emacumea. Adarbacoitza, edo unicornia da, gure sortzetic asi ta beti orpoz orpo darraiquigun eriotza. Leice da mundu galdu au, ta leice onetan sarturic guizona ichiquiric arquitzen da, edo chinchilic lerchun baten, edo vicitzaren adar mee batetic. Gure vicitzari beti ari zaizca pusca quenduaz bi sagu, churia bata, belza bestea, au da gaua, ta eguna, ta beera beguiratzen badegu ecusten degu dra-

goi bat, edo infernua bere eztarritzar izugarria zabalduric, gu irintsi nairic. Ta alaere gu vici guera lerchunaren orrietatic, edo gure vicitzaren ostoetatic erortzen diran cembat tanto goisori aoa zabalduric, choraturic, ta arquitzen gueran perill andiari beguiratzen ez diogula, ta certaraco gure Eguille on maitagarriac emen ipiñi gaituen aztuac. Ez ote guera, nere Cristauac noizbait noizbait centzatuco? Nai daquiola Jaunari, noiz-ere bait gu viotzetic Ceruraco videzucen garbian sarturic ipintzea. Nai onequin adiracico det: *Ceiñ* fin goi, ta andiraco eguin gaituan gure Jaun Jaungoicoac.

Porro unum est necesarium.

Eguin cinduan zu, Cristaua, ta eguin ninduan ni gure Eguille onac ecer-ezetic, ta eguin guinduan bere antzera, edo gure animan ezartzen zuela Trinidade guztiz Santuaren imagiña ederra. Eguin dezagun guizona gure antzera, esan zuan Jaunac, guizona eguitean. *Faciamus hominem ad imaginem et similitudinem nostram* (Genes. c. 1.º). Ecusten zuan, Jaunac, cein esquergabeac izango guiñan berarequin. Ecusten zuau gure viotz gogorraren contra deseguingo cirala berac emango cizquigun laguntza, arguitasun, ta muguimentu on guztiac, itsas bazterrean dagoan arcaitzaren contra bagac urratzen, ta ausitzen diran bezala. Ecusten zuan, Jaunac, vici on batequin lagun urcoari Ceruraco videan lagundu bearrean, zure asmo, zure gogo, ta zañezurrac aspertuco etzirala lagun urcoari becaturaco videa ematez. Ta ecusten zuan atzenean Jaun berac, bere Semearen odol preciosoa, ta Sacramentuac alferrac izango cirala gutatic ascorentzat, ta alaere eguin guinduan, aimbeste

ta aimbeste eguin gabe uzten cituala! *Faciamus hominem ad imaginem et similitudinem nostram.*

Eguin guintzaquean gu emen vicitzeco, baña ez du nai izan gure Jaunac mundu onetan gu beti izatea, ta are guchiago munduco gauza oen mendean vicitzea, ta au nai izan ordean, gauza oec guztiac eguin cituan guizonarentzat. Beguira munduaren lau bazterretara, ta ecusico degu oetan guztietan arquitzen diran gauzac servitzen due guizona. Mundua da guizonarentzat emen vici dan arteco Jaureguia: Ceruco Eguzqui eder ori da egunaz guizonaren arguia, ta illarguia, ta izarrac arratsean. Lurrac, itsasoac, ibayac, suac, aiceac, ta beste gauza guciac prest daude guizonaren servitzeco. *Jauna*, esaten dio David Santuac: *gauza guciac ipiñi dituzu guizonaren mendean. Omnia subjecisti sub pedibus ejus.*

Cein ote da bada, ta nolacoa gure Jaunac guretzat autu duan fiña, edo certaraco eguin gaituela, uste dezu Cristaua? Fin guztiz goi, ta miragarria da fin au nere Cristauac: au da alabaña emen vici gueran artean Jaun bera ezagutzea, ta viotz on batequin maite izatea, ta guero, Jaungoicoa bera bere ondasun, ta edertasun guztiarequin beti beti ecustea, amatzea, ta beraren atseguin contentuz beteric vicitzea Ceruan.

Ezagutzeco zuc, Cristaua, cein gauz andietaraco eguin zaituen zure Eguille onac, edo berbera dana ceiñ goi ta miragarria dan zure fiña, oroi zaitez, cerala Ceruco Erreñu eder artaco Principe, edo Princesa izateco eguiña, ta Jaungoico beraren semearen senide izateco autua. Ala esaten diz Davidec: *Ego dixi Dii estis, et filii Excelsi omnes.* Oroi zaitez: zuc galdu ez dezazun Jaunac zuretzat nai izan zuen fin miragarria au, etorri dala Cerutic lurrera, ta guizon eguiñic emandu bere

vicitza gurutzean. Ecusten dezu orain, Cristaua, cein dan, ta nolacoa zure fiña? Ecusten dezu certaraco eguin gaituan gure Eguille onac? Ecusten decu au? baña oroitu cera zu, ta oroitu naiz ni fin miragarri au gogo, ta viotzean erabiltzeaz? O! itsumen, ta esquergabequeria izugarria!

Eguin gaitu Jaunac ecer-ezetic, ecin conta al eguin gabe uzten dituala: baña oroitu guera gure Jaunari onetan zor diozcagun amorio, ta ontarteai errantzuteaz? Non ciñan, esaten dizu, Jaunac, Job Santuaren aoaz, non ciñan lurraren cimenduac ipintzen ari nintzanean? *Ubi eras quando ponebam fundamenta terræ?* Non ciñan orain milla, orain bosteun, edo orain eun urte? *Ubi eras?* Atocea orain Cristaua, baldin atzo, esateco eran, ecer ezpaguiñan: baldin degun izate pisca au gure Eguille onac prestatuz bezala eman badigu ¿nola izan degu ausardia Eguille beraz aztuizeco? beraren contra alchatzeco? Argatic espadasun andiac aguertzen dizquigu Jaunac Isayas Profetaren ezpañaz, esaten digula: «Idiyac ezagutu »du bere jabea, ta astoac bere nagusiaren trisipua: »baña Israelgo gendeac ez nau ezagutu, ta nere erriac ez nau aditu. Ay? dio, Ay! becatuaren videan da»billen gendearen zori gaiztocoa! *Congnovit bos posesorem suum, et asimus præsepe Domini sui: Israel autem me non cognovit, et populus meus non intellexit: væ genti pecatrici* (Isai. c. 1).

Ezgaitu eguin gure Jaunac, aditu degun bezala, munduco gauz oen mendean vicitzeco, ta gauza berac servitzeco, baicic gauz oezaz Ceruraco videan bear adiña valiatzeco. Ongui ¿ta nola erantzun diozu zuc, ta nola nic Jaunac eguindaco ontarte andi oni? Esan beza zure aurtasunac, zure gaztedasunac, ta atzenean zure zartzeac. Aurtasunean etzan zuretzat aurqueria beste Jaungoicoric: gazte demboran ariqueria, atsen loyac, adisquidetasun anima galgarriac, ta zartzean cuticia, ta onra nai, ta antustea izan da zure Jaungoicoa, ta zure viotz, ta zure aleguin gucien Jabea. Ona! munduco gaucen Jabe eguiñic gu gure Jaunac, gauz oen servitzari, ta esclabo eguin ditugu gueren buruac. O! centzugabequeriaren andia!

Alcha bada, Cristaua, zure animaren beguiac, ta beguira ondo cein gauz andietaco eguiña ceran. Ceru eder oriec zure vici lecu izateco eguiñac dira, anzuc beti beti, edo eternidade gucian Jauna bere ondasun guztiaquin gozatzeco. Izan zaitezque emen beartsu, ta ecusi ditzaquetzu zure nequeac, gurutzeac, lagun urcoen desleyaltasun; saltze gaizto, charqueria, ta videgabeac, baña alaere, zuc ongui beguiratzen badezu cein fin andi, goi, ta miragarria dan zure fiña; baldin fin oni dagocan eran moldatzen badezu zure vicitza: Zori onecoa zu! zu izango cera Ceruco Erreñu eder artan Ceruco Principe, ta Ceruco Erregueren Semearen senide.

Ay baña! zuc ez oraindañocoan beguiratu ere certaraco jayoa ceran! Ibilli zu oraindaño aurqueriaz aurqueri, becatuz becatu ganaduen artean irabiotzeco eguiña bacin bezala! Centza zaite bada noiz ere bait, ta presta zaitez lembicia zure anima loitu ori garbitzeco, confesio humill, ta eguiazco bat eguiten dezula. 2.ª Emendic aurrera eci itzatzu orraco zure griña char aimbeste aldetara galdu zaituen, ta galtzen zaituen oriec. 3.ª Arrezazu, Jaungoico beraren Seme Ceruan izateco jayo danari dagocan vici modu bat. Au da Jaunari escatu bear dioguna, ta gucionzat deseatzen dedana. Nai daquiola Jaunari gure erregu au aditzea. Amen.

OGUEI TA ZORTZIGARREN ERACUSALDIA.

BAÑA GURE FIN GOI—MIRAGARRIAREN GAÑEAN LAUGARRENA.

Porro unum est necesarium. Luc. 10.

Ecusi guenduan atzo gure Jaun Jaungoicoac eguin gaituala, ez munduco choraquerietan gure egunac igarotzeco, ez araguiaren atseguin lizunetan centzugabeco animalien eran loitzeco, ez munduco izan, edo ondasun lausoetan viotza ipintzeco, baicic emen Jaun bera maitatzeco, ta guero Ceruco erri eder artan Principe izateco. Au da beraz, nere Cristauac, gure fin goi, andi, ta miragarria? Au da gure eguitecoa, ta onetaraco ipiñi gaitu gure Eguille onac mundu onetan? Ecin ucatu dezaquegun eguia da au. Jesu-Cristo gure Jaunac jaten zuan bein batean Lazaroren echean, ta Lazaroren arreba bata Marta ceritzana chit contu, quezca, ta arreta andiarequin cebillen Jesu-Cristori jana emateco bear ciran gauzac prestatzen. Maria Magdalena beste arreba gueldi gueldiric cegoan animaco gaucetan bere gogo, ta viotza cerabiltzquiala, ta Martac eguin zuan cerbait samintzera bere aizpac laguntzen etziola ecusiric. Esan cion Jesu-Cristoc Martari: *Marta Marta quezcaz beteric zaude*, ta arazo ascorequin asaldatzen cera. *Solicita es, et turbaris erga plurima.* Baña zaude jaquiñic, eguiteco bat bacarra dala eguiteco bearra. *Porro unum est necesarium.* Elizaren gurasoac itz oec artzen ditue guri aguertzeco gure animac salvatzeco eguitecoa, cein eguiteco andia bearra ta bacarra dan, ta au nolere bait aguertzeco adiraci nai dizuet 1.ª Eguiteco au dala Cristauaren eguiteco gucien artean bearrena, andiena, edo obeto esateco bacarra. 2.ª Ta eguia au onela izanic-ere, eguiteco au dala beste gucien artean guchiena beguiratzen, ta ecertan artzen dana: ta emendic atera dezaquegu cein guchi salvatzen diran. Virgiña chit Santa! argui itzatzu gure viotzac, ta iritsi ezazu gure viotzac muguituco dituan laguntza andi indartsu bat, bertatic guc gure animen eguiteco andi oni equiteco.

§ I.

Ezagutzeco zuc, Cristaua, nolacoa dan zure anima salvatzeco eguiteco au, ez dezu beguiratu besteric cer eguin duan gure Jaun Jaungoicoac, cer Jesus maitagarriac, cer Ceruco Santuac eguiteco oni dagozcala. Ta au guchi bada, beguira ezazu, eguiteco onetan dagoela edo betico zorionecoa, edo betico zori gaiztoco izatea: edo betico ondasunac, ta atseguin contentuac, edo betico nequeac, betico ayac! betico su, eta garrac.

Cer eguin ez du gure Jaun Jaungoicoac gure animac Ceruraco bidean ipintzeco? Eternidadetic berc gogoan artu zuan traza au, ta ecusiric Adanen becatuarequin galduric guizona, bidaldu zuan mundura bere Seme bacarra, emen guri eracustera cer ta nola eguin bear degun, gure animac Ceruratzeco, ta atzenean eguiteco onec muguitu zuan bere Seme bacarra Judu gogorren atzaparretan uztera. Atocea Cristaua: cer eguitecoa bada, cein andia izango da zure anima salvatzeco eguiteco au, Jaungoi-

coa eguiteco onec muguitu duanean, bere Seme bacarraren vicitzari ez barcatzera?

¿Cer eguin ez du zure Jesus onac eguiteco oni dagocala? Cer odolezco icerdiac, cembat oñace, cembat bidegabe etzuan igaro, gure animac salvatzeco, gu becatuaren loyetatic ateratzeco? Beguira guiozu bere escu-oñetara, buru Sagradura, bere costadu, ta gorputz guztira, ta ecusico dezu guztia urraturic, ta zauri bat eguiñic, zure anima ori salvatzeagatic.

¿Cer eguiteco da bada gure animen eguiteco au, Jainco beraren Seme Jesus ona era onetan ipiñierazo duanean? Nai ta ez, nere Cristauac, eguituco guztien artean andiena, bearrena, edo obeto esateco, gure eguiteco becarra. Ezagüera onec sar eraci ditu aimbeste Doncella eder, eremuetan, ta pareteen artean, ta igaro ditue beren egunac beren gorputzac azotez, baraüez, ta beste neque ascorequin ecitzen dituela. Ezagüera onec bidaldu ditu aimbeste guizon andi, jaquintsu bacardadeetara, an beren vicitza guztia animari dagozcan gauzetan igarotzera. Ezagüera onec ipiñi ditu aimbeste milla martiri carceletan, cateen artean, labe gorietan, gurutzeetan, ta leoyen artean, ta ezagüera onec neque oec guztioc gozatu, ta arindu diezte. San Ignacio Martiriac, iltzeco cegoala, martirioa igarotzeco ansiaz esaten zuan: «orainche bai, orainche asitzen naiz Jesu-Cristoren discipulu, edo icasle izaten:» *Nunc incipio Chti esse Discipulus.* Sua, gurutzea, animalia aserreac, ezurrac ausitzea nere gorputzaren zatiac, ta gorputz guztia ceatzea; ta atzenean Deabruaren neque oñace guztiac, atozte, cion Santuac, atozte neregaiñ, Jesu-Cristorequin izateagatic bacarric. *Tantum ut Chto. fruar.*

Ecusten dezu Cristaua, edo aditzen dezu cer nolacoa dan gure animac salvatzeco eguiteco au? Ezpa-

dezu oraindic ongui ecusten, ta aditzen, atoz nerequin gauz oni beste alde batetic beguiratzera. Gure siniste onac eracusten digun eguia da, edo izango cerala betico zori onecoa Ceruan, edo betico zori gaistocoa infernuan. Ez dago emen bi gauz oetatic igues eguiteco videric. Zure animaren eguiteco oni ongui jarraitzen badiozu, beste eguiteco, ta gauza guztiac oquer irteteac ez du ecer esan nai: ill bitez aideac, aitu bitez adisquideac, ta onguilleac; eraman bitza uurac zure lurrac, ganadu, ta ondasunac, guera zaitez larru gorrian: guchi esan nai du onec, baldin anima salvatzen badezu; zureac dira alabaña orduan Ceru eder oriec, zureac ango celai ederrac, zureac ango ondasunac, itz batean: zurea da Jaungoicoa, ta Jaungoicoagan gauza guztiac. Baña ay! baldin zure anima salvatzeco eguiteco oni ongui beguiratzen ezpadiozu, cer esan nai du beste eguiteco guztietan ongui irteteac? Irabaci bitez erriac, Provinciac, Erreñuac, bildu bitez Indietan diran urre, cillar, perla, diamanteac: eguin bitez eche eder berriac, cer ateraco dezu, Cristaua gauz oetatic, baldin zure anima galdua badaucazu? Cer? ezpada, emen nequeac, quezcac, arantzac, ta guero beti betico suac, ta garrac? Cer provechu du guizonac mundu guztia beretzearequin, baldin galtzen badu bere anima? esaten digu Jaunac berac. *Quid prodest homini si mundum universum lucretur, animæ vero suæ detrimentum patiatur?* Erraz bada emendic atera dezaquezu, ta erraz sinistu dezaquezu, zure anima salvatzeco eguiteco au dala beste eguiteco guztien artean andiena, bearrena, edo obeto esateco gure eguiteco bacarra, ta gañeraco guztiac aurqueriac, edo ecer ez. *Porro unum est necesarium.*

Universidad de Deusto
Biblioteca

§ II.

Eguia au ain arguiro aguiri, ta ecusten dana izanic, norc sinits lezaque, mundu guztia, edo beintzat Cristau guztiac eguiteco andi oni ez dagozcala gau ta egun? Baña ahi! chit guchi dira lan onetan necatzen diranac. Necazaria arto, ta gariaren billa necatzen da gogotic; aucilaria badabil echez eche bere aucia irabazteco paper, ta argui billa, eguraldi ona, edo gaistoa dan beguiratu gabe. Comerciantea bada, cer contuac ez ditu ateratzen bere vicimodua galtzeco beldurrez? Itsasoan dabiltzanac cembat neque, cembat icara, cembat perill igarotzen ditue emen beren buruac cerequin vici ez duela ecusi ez ditzaten? Baña, non, ta nor da, nere Cristauac, egungo egunean, bere anima salvatzeco eguiteco andi onetan onembat quezca, ta icerdi artu nai duena? Zoaz gazteetara, beguira guiezu oen asmoai, ta ezagutuco dezu zartzeraco uzten duela lan au. Zoaz zarretara, ta ecusico dezu oetatic batzuec gazteac baño gaizquiago vici dirala batzuec, besteac arcaitzari lapa baño itsatsiagoac arquitzen dirala cuticiari, ta cuticia bazcatzen duen irabazvide, ganadu, diru, grano, edo onelaco contuai, ta animaco eguiteco au dala gueroraco, edo umeac ongui ipintzen diranean, edo beste eguiteco andiric ez danean asitzeco uzten dana. Esan dezaquegu noasqui David Santuac bere demboran ciona. *Doi doya* arquitzen dala gauz onic eguiten duanic bear bezala beintzat. *Non est qui faciat bonum, non est usque ad unum.* Ain da andia gure itsumena, gure naguitasuna, edo zoraqueria animari dagozcan gaucetan. Ah! nere Cristaua, ta gu necatzen baguiña betico Cerua irabazteco, betico nequeac, ta betico su, eta garrac irabazteco necatzen gueran adiña! Cembat neque, quezca, ta naigabe igarotzen ez du araguiaren atseguin loyen ondoren dabillenac? Cembat quezca, cembat neque cuticiosoac bere ondasunac aurreratzeco? Cembat neque lagun urcoari charqueria eguiteco derecha billa dagoan viotz cimurrac? Galtzen da loa, ta ez da beguiratzen nequeetan bacoitza bere asmoarequin irteteco. Atocea, Cristaua, atocea era onetan vici ceran anima, betico su, eta garrac irabazteco artu dituzun neque oriec guztiac artu izan bacindu Cerua irabazteco, ceiñ santidade andian jarriric egongo etziñan gaurco egunean?

Ona, nere Cristaua, cer nolaco arduragabetasunarequin beguiratzen diogun gure animac salvatzeco eguiteco andiari. Cer dator emendic? Cer? Gueyeñac eriotza negargarri bat izatea. Alferric engañatu nai ditugu gueren buruac, nere Cristauac, guero gueroraco utziaz gure animaren eguiteco andia. Cerbait sayatzen danac-ere arquitzen ditu bere aldapac, sasiac, ta larrac, ta necatu bear du aldapa goora dijoan baten eran. *Regnum Cœlorum vim patitur.* Indarca ari bear du bere griña ta pasio animagalgarriac escuratzeco, ta ecitzeco. Baña neque oec guztiac arintzen ditu, ta gozatzen Espiritu Santuaren graciac, betico ondasunen usteac, ta barrengo paqueac. Jaunari nai daquiola gu bertatic asitzea gure salvacioco lan andi onetan viotz osoarequin. Escatu deguiogun onetaraco bere laguntza Virgiña Maria chit Santa bitarteco degula.

Universidad de Deusto
Biblioteca

OGUEI TA BEDERATZIGARREN ERACUSALDIA.

Adirazten da Jaunac bere fede, ta legue Santara deitzean Cristauari eguin dion ontarte edo mesede andiaren gañean.

Desolatione desolata est omnis terra, quia nullus est qui recogitet corde. Jer. 12.

Cer da au, Cristaua? Etzaitu zure Jaun Jaungoicoac eguin bera ezagutzeco, amatzeco, ta servitzeco? Etzaitu eguin beticotasun gucian doatsu berarequin batean Ceruan izateco? Cer eguiñ eztu zure Eguille onac zu betico doatsu izan zaitecen? Ta alaere mundua azturic vici da Jaunac guretzat prestatu, ta aimbeste nequeren costuan Jesu-Cristoc irabaci cigun betico zori onaz! Munduco atseguin circillen ondoren llilluratuac, edo choratuac dabiltza Adanen umeac! Amilca dijoaz betico su, eta garren artera, ta alaere ezta arquitzen, dio Jeremiasec, bere onari dagozcan gauzen pensamentuac eguin nai dituanic. *Desolatione desolata est omnis terra, quia nullus est, qui recogitet corde.* Aurreco egunean itzeguin nizun, gu doatsu izateco Jaunac artu dituan neurri miragarrien gañean. Gaur itzeguin nai dizut Jaunac bere fede, ta legue Santara, edo bere Elizaren ume izatera deitzean eguin dizun ontarte, edo mesede andiaren gañean. Onetaraco beguien aurrean ipiñi nai dizquitzut bi pensamentu.

LENENGO PENSAMENTUA.

Nolaco ontarte, edo mesedea dan, Jaunac bere fede, edo legue Santara deitzean eguin dizun, ontarte, edo mesedea.

Nolaco ontarte, edo mesedea dala, uste dezu Cristaua, ontarte au? Ote daquizu, edo jaquiteco aleguiñaric eguiñ ote dezu? Ez noasqui oraindañocoan beintzat. Alacoa da alabaña animari dagozcan gauzetan gure naguitasuna, ta itsumena. Jaquin ezazu bada, ontarte edo mesede au dala Jaunaren ontarte, ta doai gucien artean andiena; au dala onra, ta ondasun gucien cimendua, ta asiera; ta au dala atzenean, Jaunaren ontasunez, eta urriquimentu utsez dezun ontarte, edo mesedea. Bai, Cristaua, bai: Jaunac bere fede, ta legue Santara deitzean eguin dizun, ontarte, edo mesedea da benic beiñ Jaunaren ontarte, ta doai gucien artean andiena. Andia da ecerezetic ateratzea. Andia da Ceruraco eguitea. Andia da gugatic guizon eguin ta gurutzean vicitza ematea. Andia da Sacramentuac ipintzea, ta gugana amorioz Aldareco Sacramentu guztiz miragarrian gueratu nai izatea; baña ontarte, edo mesede oriec guciac alferrac ciran zuretzat, bere fede, ta legue Santara deitu ezpacindu zure Jaunac, edo batayoco Sacramentuarequin eguin ezpacindu berequin bere Elizaren ume. Ala guertatzen da fedearen argui gabe vici diran gende guciacquin. Ala guertatzen da Turcoacquin, Rusiatarracquin, Prusian, Alemanian, Olandan, Inglaterran, Francian vici diran fede gabeacquin. Ez ditu Jaunac deitu bere fede, ta legue Santara, edo deitu bacituan ere oetatic asco, aldeguin due fede Santagandic, eta Eliz Ama Santaren barrutietatic, ta ez due prochuric Jau-

Universidad de Deusto
Biblioteca

nac gure oneraco eguin dituan ontarte, edo mesede guciaz; oec alabaña betico vicitza doatsuarequin batean prestaturic dauzca gure Jaun Jaungoicoac, Jaunberaren umeen izatea, duenentzat, ez besterentzat. Eta izate miragarri onetara deitu cinduan, eta alcha bere fede, ta legue Santara, edo berbera dana batayora deitu cinduanean. Ontarte, ta doai onec garaitzen ditu gañeraco guciac, dio S. Leonec. *Omnia dona excedit hoc donum* (a).

Ontarte, edo mesede au da gañera onra, ta ondasun gucien asiera, ta cimendua. Oroi zaite, Cristaua, cein urricarria, ta doacabea arquitzen ciñan, Jaunac batayoco Sacramentuarequin bere fede, ta legue Santara ecarri cinduan artean. Loitua ceunden Adanen becatuarequin. Arquitzen ciñan Ceruraco escu gucia galduric, Jaunaren aserre, ta madaricacioaren azpian, eta etsai galgarriaren mendean. Oroi zaite era berean batayoco Sacramentuarequin zugana etorri ciran onraz, ta ondasunaz. Garbitu cinduan Adanen becatuaren manchatic. Gainzutu cinduan olio, ta balsamoarequin Erregueen eran, aditzera emateco Ceruco Erreñuaren jabegai ciñala. Eman cizun graciaren soñeco ederra. Aita Eternoac artu cinduan bere umetzat, Jesu-Cristoc artu cinduan bere senidetzat, eta Espiritu Santuac bere Esposatzat, ta jarri zan zure viotzean zure guiari. ¿Aditzen dezu, Cristaua, norañoco onrac, eta ondasunac zugana etorri ciran batayoco Sacramentuarequin? Cer da au, Cristaua, zuri, ta niri onembeste onra ta ondasun eman gure Jaun onac, eta gu ain esquergabeac gure onguille andi onentzat! Zu Jaungoico beraren Seme, ta adisquidearen goyendean jarria? Ala eracusten digu S. Joanec (b). Zu Jesu-Cristoren senide eguiña? Ala dio S. Pauloc (c). Zu Espiritu Santuaren Esposa, vicilecu, eta Eliza izateco edertua, ta apaindua? Ala dio S. Pauloc berac (d). Ta zu alaere vicitu cera daquizun eran? Baña ez gaitecen gueyegui onetan gueratu. Esan ditugun ondasun oec ezecic beste gueyago-ere etorri zaizquitzu batayoco Sacramentuarequin. Batayoan bertan apaindu cinduan Espiritu Santuac bere doayaquin, eta zugan isuri cituan fedea, esperanza, caridadea, eta beste virtuteac; eman cizun beste Sacramentuac artzeco escua; ta zuri Ceruraco bidean laguntzeco ipiñi cituan legueco Ministroac, bere itz Santua, ejemplo onac, eta atzenean, zuc zure emengo deserri au uzten dezuneco, zuretzat prestatua dauca betico vicitza doatsua, betico ondasunac, eta atseguin contentuac. Ona nola Jaunac zu bere fede, ta legue Santara deitu zaituan eran deitzea dan onra, ta ondasun gucien cimendua, ta asiera.

Ta nondic zuri, nondic niri onembat ontarte, edo mesede? *Unde hoc mihi?* Ez eguiaz zure aurrecoetatic, oetatic ez dezu alabaña becatuan sortua, ta ciquindua izatea beste gauzaric, Davidec cion bezala. *Ecce enim in iniquitatibus conceptus sum, et in peccatis concepit me mater mea.* Ez dezu onra, ta mesede au zure obra onac-gatic; etziñan alabaña gai, ta etzenduan ezagüeraric-ere obra onac eguiteco batayoa artu cenduanean; ta ezagüera izan bacendu-ere nola obra onac eguin cintzaquean fedearen arguiric gabe, ta becatuz loitua ceundela? Ez dezu onra, ta mesede au Cristau-errian jayo ceralaco, asco, ta asco alabaña jayo izan dira, ta jayotzen dira Cristau-errietan, eta iltzen dira batayoa, ta batayoarequin datocen ondasuna irichi gabe. Nondic bada, Cristaua, nondic zuri, ta niri onembeste onra, ta mesede? Ecin conta al dira Jaunac onra, ta mesede eguiten ez dienac, eta betico galtzen diranac. Ta zuri, ta niri eguin digu onra, ontarte, ta mesede au? Nondic ote ditugu bada

ondasun oec? Ez gaitecen necatu, Jaunaren ontasunez, eta urriquimentu utsez degu au gucia. Esan dezaquegu S. Paulorequin: Jaunaren graciaz, ta doayez naiz naizana. *Gratia Dei sum id quod sum* (e). Ecusten dezu, nolaco ontarte, edo mesedea dan, Jaunac bere fede, ta legue santara deitzean eguin dizun, ontarte, edo mesedea? Ay! au guc ongui ezagutu baguendu, besteric izango zan gure vicitza! Cer eguin al dezaquegu? Cer S. Joanec diona baicic. Oroi zaite, esaten digu, nondic erori, edo amildu ciñan, biur zaite cere Jaunagana. *Memor esto itaque unde excideris, et age pœnitentiam* (f).

BIGARREN PENSAMENTUA.

Nola artu cinduan Jaunac bere fede, ta legue santara?

Ezta erligioco ordenetan iñor ere artzen, aguintzen ezpadu, autu duan ordenaco eguin bideai contuz erantzutea; ta era berean eztu Jaunac, edo Jaunaren Elizac bere fede, ta Legue Santara iñor-ere artzen, aguintzen ezpadu Legue onec escatzen duan eran vicitzea, ta dituan eguin-bideai ongui erantzutea. *Urlia* esaten dio batayoa artzera dijoan bacoitzari Eliz Ama Santac, cer escatzen diozu Elizari? *Quid petis ab Ecclesia?* Zure ordez erantzun zuan Aitaponteac, *fedea* escatzen cenduala. Galdetu cizun berriz: Fedeac cer ematen dizu? Erantzun cenduan: *Vicitza beticoa.* Orduan esan cizun Elizaco Ministroac: Nai badezu bada betico vicitza doatsuan sartzea, gorde itzatzu aguinte oec: *Amatuco dezu zure Jaun Jaungoicoa zure viotz guciaz, zure anima guciaz* ta zure adimentu guciaz; ta amatuco dezu zure lagun urcoa zere burua bezala. *Diliges Dominum Deum tuum ex toto corde tuo, et ex tota anima tua, et ex tota mente*

tua, et proximum tuum sicut te ipsum. Bi Aguinte oetara biurtzen dira Cristauaren eguin bide guciac; oec gordetzea escatu cizun Eliz Ama Santac, ta etzizun Elizan sartzen utzi au aguindu artean.

Baña nola ecin gorde ditezquean Jaunaren legue Santaco eguin bideac, aldeguiten ezpada, Demonioac, eta onequin batean munduac, eta araguiac prestatzen dituen, becaturaco bide, eta perilletatic, galdetu cizun Elizac: *Urlia*, itza ematen dezu gaurdanic betico ucatzeco, ta utzitzeco Satanás? *Abrenuntias Sathanæ?* Bai ala aguintzen, eta itza ematen det, erantzun cenduan. *Abrenuntio.* Galdetu cizun bigarren aldian: urlia, itza ematen dezu betico utzitzeco Satanasen lan, gaistaqueria, ta becatuac? *Et omnibus operibus ejus?* Bayetz erantzun cenduan. *Abrenuntio.* Galdetu cizun irugarren aldian. Itza ematen dezu betico utzico dituzula, ta orain bertatic utzitzen dituzu Satanasen zoraqueriac, becaturaco bidea, ta perilla dacarten gauza guciac? *Et omnibus pompis ejus?* Bayetz erantzun cenduan. *Abrenuntio.* Era onetan betico adio eguin cenien Deabruari, munduari, ta araguiari, edo oen atseguin lizun guciai, S. Ambrosioc dionez. *Renuntiasti Diabolo, et operibus ejus, renuntiasti mundo, luxuriæ, ac voluptatibus ejus* (g). Aditzera guri emateco eman guinduan itz oen indarra illacquin bat eguiten gaitu S. Pauloc. Illa dagoan batec eztu beguiric zabaltzen becaturaco bidea ematen duen gauzac ecusteco; eztu mingaña itz loyaquin ciquintzen; ez du escuric, oñic, ta gorputzic muguitzen gaitzeraco: eta auxe bezala gueratzen da Cristaua, batayoraco aguindu zuanez. Ill ciñaten Jesu-Cristorequin, dio S. Pauloc; ta ill ezecic obiratuac gueratu guiñala gañera, esaten digu. *Consepulti enim sumus cum illo per baptismum in mortem* (h). Au gucia aguinduric, ez bestela, artu cin-

Universidad de Deusto
Biblioteca

duan, Cristaua, zure Jaunac bere fede, ta legue Santara, edo batayora; ta batayoco ura eman ta bereala ipiñi cizuen zapi zuri bat esaten cizuela: arezazu soñeco zuri au: eramango aldezu becatuaren loyez ciquindu gabe Jesu-Cristoren jarlecuaren aurrera, irichi dezazun betico vicitza. Ipiñi cizuen atzenean argui eracequi bat, aditzera emateco Jaunaren aguinduac, ta obra onac eguiñaz argui eguin, ta exemplo ona eman bear dezula lagun urcoen artean.

Ona, Cristaua, nola artu cinduan Jaunac bere fede, ta legue Santara. Ona cer aguindu edo cer itz eman cinduan. Ongui: ta zure, ta nere vicitza izan ote da eman guinduan itzai dagoten bezalacoa? Aguindu cenduan, amatuco cenduala zure Jaun Jaungoicoa zure viotz guciaz, zure anima, ta adimentu guciaz, ta vicitu cera Jaunaren aguinduac eguin naigabe, ta Jaungoicoric ezpaliz bezala. Aguindu cenduan zure lagun urcoari ongui nai izatea, cere buruari bezala, ta au eguin ordean eguin dituzu, nortaqui, cembat charqueria, ta bidegabe lagun urcoen contra dala itzez, dala obraz, dala gogoz. Aguindu cenduan, contuz gordeco cinduala Jaunaren, eta Elizaren Mandamentuac, eta ezta gucien artean batere autsi ez dezunic. Aguindu cenduan Deabruaren, munduaren, eta araguiaren lan, eta lazoetatic betico aldeguitea, ta oei jarraitzea izan da zure atseguin-contentu gucia. O! itsumenaren izugarria! Pensa dezagun guchi bat gauz oen gañean.

Lenengo pensamentua: nolaco ontarte, ta mesedea dan, Jaunac bere fede, ta legue Santara deitzean eguin dizun, ontarte, edo mesedea. Au da Jaunaren ontarte, eta doai gucien artean andiena. Au da onra, ta ondasun gucien cimendua, ta asiera. Ta au da atzenean, Jaunaren ontasunez, ta urriquimentu utsez dezun ontarte, edo mesedea.

Bigarren pensamentua: nola artu cinduan zure Jaunac bere fede, ta legue Santara? au da, cer itz eman bear izan cinduan onetaraco? Apaiz bat, Erligioco ordenaren batean vici dan bat, ecusten badezu, edo aditzen, lizunquerietan dabillela, arritzen cera, eta bidez alaere. Cergatic ote? Ceren Apaizac, eta erligiosoac eren vicimodua artzean aguindu zuen beti betico aldeguitea gauz orietatic. ¿Eta ezta arritzeco gauza, batayoan aguindu cenduana aguinduric, zu fedegabeen eran, eta are gaizquiago vicitzea? (Emen guchi bat egon bear da isilic gauz oen gañean pensatzen.

FRUTUA.

Bi pensamentu oetatic atera bear dituzu frutu oec. Lenengo frutua. Lotsa gaitecen Jaunaren aurrean gure esquergabequeria izugarriaz, eta eguin dezagun negar gure oraindañoco vicitza gaiztoaz. Bigarren frutua, ar ezazu bertatic confesio on bat eguiteco, ta aurrera becatutic, ta becatuaren bideetatic betico aldeguiteco asmo osoa. Irugarren frutua: ongui confesatzeco, ta aurrera ez biurtzeco gracia irichi dezazun ar ezazu zure bitartecotzat Virgiña guztiz Santa dolorez betea. Atoz Virgiña beraren onran, atoz contuz bederatzi urren onetara. Goazen oraiñ ongui confesatzeco prestaera icastera, ta eguitera.

(a) S. Leo Serm. 2 de Nativ. (b) Videte qualem charitatem dedit nobis Deus ut filii Dei nominemur, et simus 1.ª Joan. 3 (c) Roman. 8 (d) 2 Corinth. 6. (e) 1 ad Corinth. c. 15 (f) Apocal. 2 (g) D. Ambrosius Lib. de his qui initi. c. 2. (h) Roman. 4.

Universidad de Deusto
Biblioteca

OGUEI TA AMARGARREN ERACUSALDIA,

ATZENECO ERACUSALDICO GAYAREN BERAREN GAÑEAN.

Benedictus Deus, et Pater Domini nostri Jesu-Chti, qui secundum Misericordiam suam magnam regeneravit nos in spem vivam. 1.ª Petri cap. 3.

Eguin zuan gure Jaungoicoac Adan, eguin zuan Eva, ta biac eguin cituan bere Ceruraco. Eguiñ orduco eman cien biai lurrean vici ciran artean ongui izateco bear zuena; bada eman cien lurreco Paradisua, ta Ceruco inocencia, justicia originala, ta gracia. Bazuen Paradisuan, doaric alaere, Adanec, eta Evac, jateco, edateco, ta gauza gucietaraco nai adiña, baita ascoz gueyago ere. Etzuen gaitzeraco macurtasunic batere, ta gauz onac aisa, ta erraz eguin citzaqueen beren inocencian, ta zuen graciarequin batean. Era onetan vicitzera gure lenengo Gurasoac, Jaunac ongui ceritzanean, eramango cituan bere Cerura eriotzaren atzaparretan erori gabe, ta emango cien betico atseguin-contentu ta gloria. Ta au bera guertatuco zan Adanen ondorengoaquin, occ ongui vicitzen baciran, ta contatuac izango ciran oen artean gaitzeraco ciranac. Zori onecoac gu baldin Adan ta Evac eguin izan balue beren Jaunaren esana; baña utseguin zuen gure lenengo guraso occ Jaunac debecatu cien fruta jaten zuela: galdu zuen Jaunaren adisquidetasuna, ta justicia originala: galdu zuen Ceruraco zuen escu, ta derecha, ta bertatic asaldatu ciran len lo, edo illac ceuden gaitzeraco griña, ta pasio anima galgarriac. Gueratu ciran Ceruco ateac, becatu jatorrizco onequin ichiac, Adanentzat, ta onen ondorengoentzat.

Baña oneguia da gure Jaungoicoa gaitz onen andia sendatzeco videa ucatzeco. Guizonaren oquer andi au zuzentzeco bidaldu zuan mundura bere Seme bacarra, ta Seme onec guizonaren jantzia arturic, ta gurutze batean aimbeste nequ-oñace ta pena igarotzen zuela, ta atzenean bere vicitza ematen zuela, eguin cituan bere Aitaren, ta guizonaren arteco paqueac, ta idiqui cituan lau milla ta gueyago urtean ichiric egon ciran Ceruco ateac beragan sinistu, ta beraren legue garbi-zuzena gorde nai duenentzat. Jaunac siniste onetan ta bere legue garbira deitu izan gaitu nere Cristauac, ta onetan eguin digun ontarte andiaren gañean izango da nere gaurco itzaldia. Adirazico dizuet aurrena, cer nolacoa dan ontarte, edo mesede au. Bigarrena: Jaunaren siniste on, ta legue garbia artzean cer aguindu degun: ta atzenean cer eguin bear degun gure Jaunaren guganaco onguinai, ta amorioari erantzuteco.

§ I.

Zure Jaun Jaungoicoac bere ontasun, ta misericordiari beguiraturic deitu zaitu, Cristaua, bere fede Santara, ta legue eder garbira. Ta badaquizu, Cristaua, ceiñ andi, ta miragarria dan zuri onetan zure Jaunac eguin dizun ontarte, edo mesedea? Badaquizu cer onguinai, ta amorioa zor diozun Jaun berari? Edo oroitu cera zure onguille on Jesus maiteari alic umilquiena esquerrac emateaz, ontarte au cere gogoan darabiltzula? Norc sinits lezaque ozta ozta

oraindaño zure zor onezaz oroitu cerala? Au bera emendic aurrera guertatu ez daquigun beguira ezazu Jesu-Cristoren sinistean ta legue garbian egotea cein gauza bearra, ta dignidade andia dan. Beguira-ezazu guero ontarte au ucatu diela Jaunac ecin conta al Anima zu baño ascoz leyalago izango ciranai. Beguira ezazu atzenean ez dezula zori on andi au cere irabaciz, edo zure gurasoac gatic, baicic zure Jaunaren misericordia, ta graciaz. Au gucia ecusi ezquero izango degu bideric asco Jaunaren aurrean lotsatzeco.

Idiqui zituan Jesu-Cristoc, eguia da, idiqui cituan bere eriotzarequin Ceruco ateac, baña idiqui cituan bere siniste, ta legue garbi ederra artu ta Jesus beraren marcarequin arquitzen diranentzat. Ez dago Ceruraco bideric, ta ez dago Ceruraco irabaciric Jesu-Cristoren siniste, ta legue gabe; galdu zuan alabaña guizonac becatu jatorrizcoarequin Ceruraco escu guztia, ta graciaren izate ederra, ta escu, ta izate au iristeco berriro jayo bear du batayoco Sacramentuan, ta Sacramentu onequin biurtzen zaizca Ceruraco escua, ta graciaren izate ederra. «*Salvatuco »da* dio S. Marcos Evangelistac. (cap. 16). Sinisten ta »batayoco Sacramentua artzen duena; baña betico »galdua izango da, sinisten ez duena. Berriro jayot»zen ez dana, dio S. Juan Evangelistac, uretic, ta Es»piritu Santuagandic, ecin sar diteque Ceruco Erre«ñuan.» (Joan. 3). Ez dago salvatzeric ezpada Jesu-Cristoren icen Santuan, siniste, ta leguean. *Non est in alio aliquo salus.* (Actor. 4.) Ecusten dezu cein gauza bearra dan Jesu-Cristoren siniste, ta leguean egotea Cerura nai duanarentzat? Ta ote daquizu cein dignidade andi, ta goya dan legue onetaco izatea? Da Cristaua dignidade bat, zuri ematen dizuna Jaungoico beraren Semearen icena, ta izatea

S. Juanec dionez: *Ut filii Dei nominemur et simus.* Dā Jesu-Cristoren beraren senide izatea, ta Jesu-Cristorequin berarequin Ceruco Erreñuaren heredero gueratzea. *Hæredes Dei cohæredes Chti.* Ta izanic Cristauaren izate au onen andi-miragarria, gu alaere deitzea dignidade onetara! Cer ontarte, edo mesedea ez diogu onetan zor gure onguille eciñ onguilleago Jesus maitagarriari?

Ontarte au ucatu die ecin conta al batayoric gabe iltzen diranai. Cembat aur iltzen dira munduaren lau bazterretan batayoco Sacramentua gabe? Cembat Cristau errietan beretan? Oraindaño onela ill, ta aurrera illco diranac izango dirala guchiena, dio Alapide guizon jaquintsuac, milla milloi. Nondic datorquizu bada, Cristaua, zuri, nondic niri oetaco bat ez izatea? nori zor diozu, ezpada zure Jaunaren misericordiari? Ta batoyoric gabe ill diran ta illco diran aurrac onembeste guchienean izango badira, cembat, ta cembat milloi izango ote dira federic gabe oraindaño ill diranac, ta munduaren azqueneraño illco diranac? Cembat Asian, African, American, ta Europan bertan? Cembat aen artecoac izango ciran Jaunarentzat gu baño leyalagoac, contu obearequin virtutearen bide eder garbiari jarraituco cioenac? Ta alaere aec utzi cituan Jaunac, ta uzten ditu bere siniste, ta leguera ecarri gabe, ta guri, nere Cristauac, guri eman digu izate, ta dignidade miragarri au? Ecusi ezazue, dio S. Joanec, ecusi ezazue nolaco onguinai, ta amorioa aguertu digun Jaunac, ematen digula Jaungoico beraren Semeac deitzea; ta ez deitzea bacarric, baita izatea-ere. *Videte qualem charitatem dedit nobis Pater, ut filii Dei nominemur et simus.* (Cap. 13). Beguira ezazu ongui Cristaua, cer ontartea zor diozun Jaunari, ceren Jesu-Cristoren siniste, ta legue garbira deitu zaituan.

§ II.

Baña ontarte aiñ andi, ta dignidade onen goyac nai ta ez, esan oi dan bezala, berequin ecarrico ditu bere eguin bear andiac. Ote daquizu zuc Cristaua, cer eguin bear diran oec? Ote daquizu cer aguindu cenion Eliz Ama Santari Ceruaren, ta lurraren, Ainguerueu, ta guizonen aurrean? Oroitu ote cera, zure batayoco egunean emandaco itzaz? Ez noasqui zure oraindañoco vicitzac dionaz. Jaquin dezazun bada cer aguinduric arquitzen ceran egun artatic ecusi ezazu benic bein cer guisatan, ta nolaco ceremonia Santuaquin artu cinduan Eliz Ama Santac bere umeen artean. Ecusi ezazu guero batayoan aguindu dezunari erantzuteco certara beartua arquitzen ceran, eta arrituric noasqui esango dezu: ez dala zugan oraindañocoan Cristauaren antzic izan zure vicimodu, ta azturetan.

Lenengo ceremonia Santua izan zan Aita, ta Ama Pontecoac zurequin batean Elizara etortzea, zure ordez erantzuteco eguiten diran galdeai, ta zure icenean aguintzeco aguindu bear dan guztia. Emendic Aita, ta Ama Pontecoac beartuac gueratzen dira aurrai gurasoen faltan dotrina eracustera, dio Santo Tomasec. Bigarren ceremonia da icena ipintzea, ta onela batayatua gueratzen da Jesu-Cristoren Soldadescan sartua munduaren, Deabruaren, ta araguiaren contra guerra eguiteco. Irugarren ceremonian galdetu cizun Eliz Ama Santaren icenean Apaizac: *Cer escatzen diozu Elizari?* Zuc orduan ecin erantzun centzaquean, baña zure ordean erantzun zuan zure Aita ponteac: *escatzen cenduata fedea*, ta fedeac ematen duala *vicitza beticoa*. Laugarren ceremonian *aiceman* zuan Apaizac zure

aurpeguira ayenatzeco zure viotzetic etsaya, Espiritu Santuaren jarlecu, ta Eliza bat eguiñic guera cindecen. *Irten adi*, aguindu cion Apaizac etsayari, *irten adi onegandic* Espiritu enas ciquiña ta eguin guiocleeu Espiritu Santu consolatzalleari. *Exi ab eo immende Spiritus, et da locum Spiritui Sancto Paraclyto.* Bostgarren ceremonia izan zan zure bularrean gurutze Santuaren siñalea eguitea, lotsa etzaitecen, Cristaua izateaz, ta Cristauac guerala aguertzeaz. Seigarren ceremonia da: gatz *bedeicatua* zure aoan sartzea, oroi cindecen Jaunac batayoan eguin cizun ontarteaz, ta oroipen onequin contuz icasi cenezan Ceruco jaquiundea, edo zure vicitza gordetzea becatuaren usteldasun guztietatic. Zazpigarren ceremonia izan zan estola bat gañean zuri ipintzea, ta onela Elizan sartzea, aditzera ematen zatzula, Cristauac izan bear duela Jaunaren vicilecu, ta Eche. Zortzigarren ceremonia izan zan chistuarequin eguitea zure sudur, ta belarriac, aec idiquiac iduqui ditzatzun Jaunaren itza, ta Ceruraco gauzac aditzeco, ta zure vicitza onarequin virtutearen usai gozoa zabaltzeco. Bederatzigarren ceremonian, batayoa ematteco aurrean, galdetu cizun Eliz Ama Santac cere icenez: *Urlia*: ta ucatzen dezu Satanas? *Abrenuntias Sathanæ*? Bai, ucatzen det, zure icenean erantzun zuan Aita ponteac, edo an ceudenac. *Abrenuncio.* Ucatzen, ta betico uzten dituzu Satanasen eguiteco guztiac? *Et omnibus operibus ejus*? Ucatzen ditut, erantzun cenduan. *Abrenuncio.* Ucatzen dituzu, ta betico uzten Etsayaren zoraqueria, ta pompac? *Et omnibus pompis ejus*? Ucatzen ditut, erantzun cenduan. *Abrenuncio.* Amargarren ceremonian gainzutu cinduen bularrean, ta espaldetan Cristaua, ta olio Santuarequin, onetan adirazten zala zure Anima batayoco Sacramentuan gainzutzen zala Jau-

naren gracia, ta Ceruco doayaquin, ta Espiritu Santuaren presenciarequin. Amaicagarren ceremonian ipiñi cizuen buruaren gañean eun churi bat, aditzera ematen citzatzula Adanen jauntzi zarrac, ta becatuaren zatar pusca guztiac utziric, jauntzitzen dezula graciaren soñeco zuri ederra, jauntzi berarequin mancharic gabe aguertzeco contuetaco egunean Jesu-Cristoren aurrean. *Accipe vestem candidam, quam immaculatam perferas ante Tribunal Domini Jesu-Chti.* Atzenean galdetu cizuen: *Vis baptizari?* Urlia: era onetan, ta Cristauari dagozcan eguimbide oequin nai dezu batayoco Sacramentua artzea? Bayetz, esan cenduan. *Volo.*

Ona, Cristaua, nola cer guisatan artu izan cinduan Eliz Ama Santac bere umeen artean. Baña ceiñ guchi oroitu ceran zu cer aguindu cenduan Cristauaren izate ta dignidade andi au artu cenduanean! Enzun nazazu guchi bat arreta andiarequin, ta ezagutuco dezu cein gauz andiac aguinduric zauden. Aguindu cenduan benic beiñ Jesu-Cristo gure Maisu, ta Eracuslea gurutzean arantzaz, ta iltzez josiric iltzan eran, zu ere becatu diran gauza gucietaraco vicico ciñala gurutzean josia, ta illa bezala. Illa araguiaren atseguin loyac dacaizten itzeguite, beguiratze, ucuitze, jauntzi arro gucietaraco. Illa birau, juramentu, lagun urcoari becaturaco videa emate, ta jan edan gueyeguietaraco. Illa besteri calte eguiteco dala vicitzan, dala ondasunetan, dala honra, edo faman. Adi ezazu cer dion S. Paulo Apostoluac Jesu-Cristoren ume eguiazco diranac gurutzeficatu due beren araguia bere griña macur, ta gura gaistoaquin: *Qui autem sunt Chti carnem suam crucifixerunt cum vitiis, et concupiscentiis suis.* (Cap. 5 ad Galat). Jesu-Cristorequin gurutzean josiric nago, dio Apostolu berac: vici naiz, baña ez naiz ni nerau

vici, vici da nigan Cristo. *Chto. confixus sum cruci: vivo jam non ego, vivit vero in me Chtus.* (Cap. 2 Ad Galat.) Ta oraindic are gueyago dio Apostolu berac, esaten duanean: batayoco Sacramentuan gueratu guerala Jesu-Cristorequin batean obian sartuac illac bezala izateco munduaren, Demonioaren, ta araguiaren gauzetaraco. *Consepulti enim sumus cum illo per bautismum in mortem.* (Ad Romanos cap. 6.º) Ongui: ta non dira egungo egunean Cristau oec? Non dira Jesu-Cristorequin gurutzean josiac, ta obian sartuac ta illac bezala vici diranac munduaren, etsayaren, ta araguiaren gogaeta gaistoetaraco? Atozea zu birauguillea, edo juramentuac erraz eguiten dituzuna: atozea zu guizon cere ume, ta familiari naigabez betericaco vicitza ematen diozuna, zure alferqueria, zure edan, ta berandu echeratzearequin: atocea zu nescah cere jauntzi arro, cere ibillera arin, ta modu gaistoaquin Demonioaren beraren maisu izan zaitezqueana: atozea zu gazte edo zar cere itzeguite loyaquin lagun urco ascori becaturaco sarea zabaltzen diezuna: zure vicimodu ori da batayoco Sacramentuan aguindu cenduana? Certan iguerrico zatzu Cristaua ceran, edo gentil fedegabecoa?

Aguindu cenduan gañera batayatu ciñanean, cere griña, ta pasio charrac ucatzea. Etzenduan aguindu griña macurric ez izatea: ceren oec becatu jatorrizcoaren ondoren gurequin jayo, ta gurequin vicitzen dira, ta batayoco Sacramentuac becatu jatorrizcoa quentzen badu ere, uzten du gugan gaitzeraco macurtasuna, ta gauz onetaraco naguitasuna. Cer aguindu cenduan bada batayoan? Aguindu cenduan griña charrac illduratzea, ta beti contra eguiñaz, escatzen duena ucatuaz, escuratzea, ta ecitzea. Nere ondoren etorri nai duanac, ucatu beza

bere burua, esaten digu Jesu-Cristoc, ta jarrai beguit. *Quicumque vult post me venire, abneget semetipsum, et sequatur me.* Mira ezazu, Cristaua, miratu ongui zure vicitza, ta galde guiozu cere buruari: Urlia: non, ta certan arquituco det nic zugan Cristauaren siñaleric, edo arrastoric chiquiena-ere? Arquituco ote det, nere griña, ta pasio gaistoac garaitzeco arreta, ta contu cintzoan? Ah! baldin alde onetatic nere buruari beguiratzen badiot, ez da nigan arquitzen Cristauaren antzic! Nic alabaña nere griña macurrac escuratzeco contu eguin bearrean ez det derecharic galdu oec gura duena eguiteco, oec bazcatzeco, ta nere Anima, ta beste ascorenac galtzeco!

Aguindu cenduan gañera, Cristaua, aguindu cenduan batayoco Sacramentuan viotzez ucatzeco, ta uzteco munduco ondasun, atseguin, onra, ta gauza guciac, berenez gaiztoac ez izan arren, contentu vici cerala zure Jaun Jaungoicoa zurea izatearequin. Ez digu escatzen gure Jaunac, ondasunic ez izatea, atseguin-contenturic batere ez artzea, onraric gabe vicitzea. Ez; baicic aguintzen digu gure viotzac ez ipintzea gauz oetan, baicic ontasun neurrigabea dan gure Jaunagan. Ala eracusten digu gure Salvatzalleac. *Omnis ex vobis qui non renuntiat omnibus quæ possidet, non potest meus esse Discipulus.* (Luc. c. 14). Batayoco Sacramentuan eman cenduan itz oni ongui erantzuteco alaco sasoyean gorde bear dezu zure viotza, non prest egon bear dezun ondasun gustiac, atseguin-contentu guztiac, itz batean guztia uzteco zure Jaunaren leguea ez ausitzeagatic. Viotzeco sasoi au, ta era onetan prest vicitze au adirazten digu San Paulo Apostoluac, esaten digunean: Emazteac dituenac, izan bitez ezpalitue bezala: *Qui habent uxores tanquam non habentes sint.* Nequez, ta negarrez vici diranac, negar gabe vici balira bezala, ta atseguin-

contuen artean vici diranac atseguiñic artzen ezpalue bezala. *Et qui flent tanquam non flentes, et qui gaudent tanquam non gaudentes.* Eta erosturac eguiten dituenac, gauzaric ezpalue bazala, ta munduco gauzaz usatzen duenac usatzen ezpalue bezala. *Et qui emunt tanquam non posidentes, et qui utuntur hoc mundo, tanquam non utantur.* (1.ª Ad Corint. cap. 7). Ecusten dezu, anima, nolaco sasoyean iduqui bear dezun zure viotza berenez becatu ez diran gauzetan ere? Ta necatu cera iñoiz aguinte au cein andia dan ezagutzen? Ondasunen artean vici, ta oei viotza ez itsastea: atseguin-contentuen artean egon, ta oetan viotza ez ipintzea: onra, ta estimacioac izan, ta ezpalira bezala oen artean igarotzea, da nere Cristauac gauza guztiz andia, ta miragarria: da gauza Jaunaren laguntza ta gracia gabe iristen ez dana: ta da Cristau guchic bear dan eran eguiten duena.

Adiraci ditugun gauza oezaz gañera aguindu cenduan Batayoco Sacramentua artu cenduanean zure Jaun Jaungoicoa viotz osoz, ta guztitic maite izatea, ta Jaunaren ontasun onegatic zure lagun urco guztiac, baita oen artean etsayac-ere. Aguindu cenduan zure Jaunaren aguinte guzti guztiac leyalqui gordetzea. Viotz guztitic Jauna amatzeco, ez da asco aoaz esatea amatzen dezula Jaun bera. Aimbesteraño Jaungoicoaren ontasunagana jarri bear due gure viotzac non prest egon bear duen Jauna ez uzteco, ta ez ofenditzeco ez Ceruagatic ta ez lurragatic, ez goyagatic ez beagatic, ez vicitzagatic, ta ez eriotzagatic. Mira ezazu Cristauac zure viotz ori, ta ecusi ezazu era onetan eguiaz bere Jaunagan jarria egon ote dan oraindañocoan, ta arquitzen ote dan orain bertan ere. Ay! nere Cristauac, nola egongo ciran sasoi eder onetan, ta onembesteraño Jaunaren ontasunagana etziñac gure viotzac: baldin dan aserreric chiquiena,

Universidad de Deusto
Biblioteca

becaturaco itz, edo beguiratze bat, iñor aintzat artze bat, erregalocho bat asco izan bada zure viotza bere Jaunaz aztutzeco, ta edocein gauza macur esateco ta eguiteco? Ez da ez ezpata bularrean ecustearen bearric izan zuc zure anima, ta zure Jaun Jaungoicoa utziric gogoac eman dizuna eguiteco.

Ona, nere Cristau onac, ceiñ gauz andiac aguindu ditugun Cristauaren dignidade goya artu degunean. Andiac dira berenez, baña baldin beguiratzen badegu contuz: guerala Jaungoico beraren Semeac, Jesu-Cristoren senideac, ta Ceruco Erreñuaren herederoac: baldin oroitzen baguera Cristauaren dignidadea artzean, gueratu guiñala Espiritu Santuaren graciaz ta doayez gaintzutuac, ta Espiritu Santuaren vicilecu izateco consagratuac: au guztia ongui beguiratzen badegu, norc eztacus, cein vicitza garbia, ta cein santidade andia escatzen digun Cristauaren dignidadeac, ta nic adiraci ditudan gauza guciac ez dirala gueyegui oni erantzuteco? Eztaquizue, esaten digu San Pauloc, ez daquizue, zuec ceratela Espiritu Santuaren Eliza, edo Temploac? *Nescitis quia membra vestra templum sunt Spiritus Sancti?* Au onela da, Cristaua? Ta au onela izanic, vicitu cera zuc daquizun eran? Au onela, ta zure confesio ta comunio oriequin, ara ona ibiltzearequin, uste cenduan Cristaua ciñala, ta Cristauaren eguimbide guztiai erantzun ceniela? Ezagüezazu bada orain asco badira-ere Cristauaren icena duenac, guchi dirala Cristau izatea cer dan ongui beguiratzen duenac.

§ III.

Nere Jaun Jaungoicoa! ceiñ on, ta onguille maitagarria ceran zu neretzat! Milla esquer Jauna ceren zure odol preciotsuarequin erosi, ta zure siniste on,

ta legue garbira deitu nazun. Nondic niri nere Jaun Jaungoicoaren Seme, Ceruco Erreñuaren heredero, ta nere Jesus maitagarriaren senide izateraño alchatze au? Nondic niri onembat dignidade aimbeste milloi uzten dituzula fedegabetasunaren gau illunean? Cer eguin al nezaque nic Jauna, zure ontasun, ta Misericordia gueyegui oni erantzuteco? *Quid retribuam Domino pro omnibus quæ retribuit mihi?*

Jauna guchi da nic eguin al guztia, zugan dedan zor andi oni erantzuteco, baña alaere eguin uste det emendic aurrera zure laguntzarequin bat, zuc nigandic nai dezun gauza bat. Eguingo det Jauna bertatic aleguiña nere oraindañoco esquergabequeriac Penitenciaco Sacramentuan deseguiteco. Garbituco det Jauna, nere viotz au, ta prestatuco det Espiritu Santuaren jarlecu izan dedin: ta vici naizan gau egunetan aztu ez nadin nere zor andi onezaz, artuco det, Jauna, urtean egun bat batayatu nintzanean eguin cenidan ontarte andiaz oroitzeco, ta ill arte gueian zor dizudan amorioari erantzuteco eguingo det zure legue Santac escatzen duan vicitza garbi, eder bat. Amen.

Universidad de Deusto
Biblioteca

OGUEI TA AMAICAGARREN ERACUSALDIA,

ADIRAZTEN DA ASCO EDO GUCHI OTE DIRAN SALVATZEN DIRAN CRISTAUAC.

Domine, si pauci sunt, qui salvantur? Luc. 15.

Ecusi dezu, Cristaua, aurreco egunetan, cein gauza andietaraco eguin cinduan zure Jaun Jaungoicoac; edo eguin cinduala bera ezagutzeco, amatzeco, servitzeco, ta guero beticotasun gucian berarequin batean doatsu Ceruan izateco. Ecusi dezu, cein neurri miragarriac artu dituan Jaunac zuri billaerazteco zure betico zori ona, ta vicitza doatsua. Au gucia eguin gure alde gure Jaun onac! ta alaere Adanen umeac vici dira vici diran eran? Ay! Aldeguin due guciac, esan dezaquegu David Santuarequin, aldeguin due betico zori onaren bidetic, eta galdu dira Jaunarentzat. *Omnes declinaverunt, simul inutiles facti sunt* (a). Beguiraturic munduari eguin diteque bein batean Jesu-Cristori eguin cioen galdea: Jauna, esan cion batec, guchi ote dira Ceruratzen, edo salvatzen diranac? *Si pauci sunt, qui salvantur?* Galde oni nagocala beguien aurrean ipiñi nai dizquitzut bi pensamentu.

LENENGO PENSAMENTUA.

Asco, edo guchi ote diran Adanen ondorengo gucien artean salvatu, ta salvatzen diranac?

Gure Jaun Jaungoicoac eguiaz nai du, dio S. Pau-

loc gucioc salvatzea: *Deus omnes homines vult salvos fieri* (b) ¿Cer eguin eztu bere nai onequin gucioc Ceruraco bidean sar-erazteco, ta gucioc Cerua irabaci dezagun? Baña nola guizonari eman cion gaitzeraco, ta oneraco escua, etzion quendu nai izan escu au, dio S. Agustiñec (c). Emendic dator guizon esquergabeac, bere Jaun Jaungoicoa amatu, ta servitu ordean, Jaun bera utzitzea, bere gura charrai jarraitzea, ta becatutic becatura dabillela, galtzea betico vicitza doatsua. Baña guizonac leyalqui gordetzen baditu Jaunaren aguinteac, ta contuz jarraitzen badio Jaun beraren legue Santari, onec iristen du betico zori ona. Era onetan betico zori ona irisien duenac, edo salvatu, ta salvatzen diranac asco, ta asco dira Adanen ondorengo gucien artean. Au aditzera eman zuan Davidec esan zuanean: contatuco ditut, eta ondar-aleac baño ugariago izango dira. *Dinumerabo eos, et super arenam multiplicabuntur* (d). Au bera aditzera emango cigun S. Juanec cionean: ecusi nuan talde andi bat gende-mota gucietatic, eciñ iñorc-ere conta cezaquean adiñecoa. *Vidi turbam magnam, quam dinumerare nemo poterat ex omnibus gentibus* (e). Baña asco, edo guchi ote dira betico galdu, ta galtzen diranen aldean? Chit guchi, nere Cristauac, chit guchi, eta eguia au ezagutzeco asco da munduari bere jayotzatic onera beguiraldi bat ematea. Nola vicitu ote zan mundua lenengo milla sei eun, eta berrogueita amasei urteetan, edo ujalderaño? Seten ondorengoac cembait demboran ongui, Cainenac gaizqui. Asi ciran ezcontzaz elcarganatzen, eta mundu gucia ciquindu zan becatuz, idolatriaz ta lujuriaz aimbesteraño, non esan izan zuan Jaunac. *Quenduco det lurraren gañetic eguin nuan guizona*; eta ez guizona bacarric, baita onequin batean abereac, edo animaliac berac-ere,

lurrean arrastaca dabiltzanetic asi ta aidean dabiltzan egaztietarañoco guciac; damutu zat alabaña oec eguiñaz: *Pœnitet enim me fecisse eos* (f). Eman ciozcan munduari eun ta oguei urte bere gaistaqueriaz, eta becatu nazcagarriaz damutu cedin; baña alferra izan; ta guciac bucatu cituan, mundu gucia estali zuan, ujalde batequin. Bacar bacarric gorde ciran Noe, ta bere emaztea iru seme, ta iru errañarequin, Jaunac esan cien eran arca, edo cucha batean sarturic (g). Cembat milloi anima etziran itoco ujalde artan? Eta guciac betico galdu ciran cembaiten iritzian. Eguia da asco guizon jaquintsuac uste duela, ito ciranen artean batzuec biurtuco cirala Jaungoicoagana (h).

Ta castigu izugarri onen ondoren nola vicitu ote zan mundua? Nola? len bezala guchi gora bera, laster alabaña zabaldu zan idolatria, ta loiqueria-mota gucia, Sodoma, Gomorra, ta beste iru errirequin guertatuac aditzera ematen duan bezala. Ecin esan diteque, certaraño loitua, ta usteldua arquitzen zan erri oetaco gendea araguiaren atseguin ciquiñetan. Asco da esatea, beartu zuala Jauna sufre, ta betunezco su icaragarri batequin Lot, onen emaztea, ta bi alaba ez, beste erri aetan vici ciranac, eta erriac berac auts biurtzera. Eta gende oec guciac amildu ciran betico infernura. Ordutanic Jesu-Cristoren etorreraño zucendu ote zan mundua? Batere. Isrraeltarren artean ezagutzen, eta adoratzen, zuen gure Jaun Jaungoicoa, ta gañeraco mundu gucia Jainco guezurrezcoen itsumenean vici zan. Argatic Davidee deadar eguiten zuan. Guciac aldeguin due Jaunagandic, eta galdu dira. Eta Isayas Profectac cion zabaldu du infernuac bere colcoa, ta neurriric gabe idiqui du bere eztarritzar izugarria. *Dilatavit infernus animam suam, et apperuit os suum absque termino* (i). Etorri zan munduaren salvatzallea, oguei ta amairu urtean vicitu zan guizonen artean itzez, eta obraz Ceruraco bidea eracusten, eman zuan gurutzean bere vicitza, ta ipiñi zuan bide bera ederqui prestatua. Ta alaere munduaren lau bazterrac fedearen argui gabe vici dira, Catolicoen erriaz osterontzean, eta oetan-ere becatuaren llolloa errotu, ta zabaldu da nortaqui cembateraño. Adanen ondorengo guciai beguiratzen badiegu beraz chit guchi dira salvatu, ta salvatzen diranac galtzen diranen aldean. Cein gauza negargarria au guertatzea aimbeste Jesu-Cristori costa zaizcan animacquin! Aita Santu Inocencio irugarrenari esan cion bein guizon Santu batec: *ecusi cituala* animac infernura amiltzen, elurra ugari ari danean elur-maloac lurrera erori oi diran eran.

BIGARREN PENSAMEMTUA.

Cristauen artean asco, edo guchi ote diran salvatzen diranac, galtzen diranen aldean?

Salvatzen diran Cristauac berenez asco dira, eta aurtasunean iltzen diranac barrunen sartzen dirala, gueyago izango dira salvatzen diranac galtzen diranac baño; jayotzen diranetatic ascó, edo alde aldean irugarren partea iltzen dira zortzi, edo amar urteetaraco (l). Baña Cristau aciaz itzeguiten dala, salvatzen diranac guchi dira galtzen diranen pare ipintzen badira. Au aditzera eman digüe S. Basilioc, S. Agustiñec, S. Juan Crisostomoc, S. Gregorioc, eta S. Bernardoc (m). S. Juan Crisostomoc Antioquiaco erri andian predicatzen ari zala esan zuan: cembat uste dezue erri onetan dirala salvatuco diranac? *Quot esse putatis in civitate ista, qui salvi fiant?*

Gauz illun, edo samiña da esatera noana, baña esango det. Doi doaya arquituco dira aimbeste milaren artean eun salvatuco diranac, eta oez-ere dudan nago. *Vix in tot millibus inveniri centum possunt, qui salvi fiant, quin et de his dubito.* S. Gregorioc dio: asco dira fede Santara datozenac, eta guchi Cerura dijoazenac. *Plures ad fidem veniunt, et ad Cœleste Regnum pauci perducuntur* (n). Eta ez dira guchiago icaratzeco gauzac S. Vicente Ferrerrec, Hugo Cardenalac, Agreda veneragarriac esaten dizquigüen gauzac. Baña certaraco necatuco guera guizonen esanac aitatzen baldin Salvatzalleac berac esan bazuan: asco dira deituac, baña guchi autuac? *Multi sunt vocati pauci vero electi?* (o).

Ta oraindic-ere ecin sinistu badezu guchiago dirala Cristau acien artean salvatzen diranac galtzen diranac baño, beguira alde batetic gure fede Santac eracusten duanari, ta besteti guizonen vicitzari. Gure fede Santac eracusten digu, ez dala Ceruan sartuco gauza loiric, edo berbera dana becatuarequin ciquindua dagoanic. *Non intrabit in eam aliquid coinquinatum* (p). Emendic Cerura nai duanac edo garbi gorde bear du batayoan Jaunac eman cion graciaren soñeco ederra, edo penitenciarequin, au da damuz, eta negarrez garbitu bear du bere anima. Eta norc eztaqui, cein guchi diran batayoan artu zuen graciaren soñeco ederra garbi gordetzen duenac? Norc eztaqui, Adanen umeac ozta gaitzarequin onaren ezagüeran sartzen dira, gaitzera dijoazela lasterca, atearen umeac urtara dijoacen, eran? Guchi dira beraz becatuz loitu ez diranac, eta inocenciaren bidetic salvatzen diranac. Eta ugari ote dira eguiaz eta viotzetic Jaungoicoagana damuz, eta negarrez biurtzen diranac, becatuan erori ezquero? Gueyago dira becatuan oatuac bezala vici

diranac Jaunagana biurtzen diranac baño, gueyago gaizqui confesatzen diranac ongui confesatzen diranac baño, guizon jaquintsu ascoc esaten digüenez (q), ta neque da bestela izatea gure usadio, gure zabarqueria, ta vicimoduari beguiratzen badiegu. Cembat, eta cembat arquituco dira ongui confesatzeco nola prestatu eztaquienac? Cembat alaere Jaunaren itzagandic igues eguiten duenac? Cembat nola nai Pazcoa igarotzearequin urte gucico ongui daudela, uste duenac? Cembat becatua, ta becaturaco bideac, echeac, lagunac osotoro utzitzeco viotzic ez duenac? Cembat eren oitura, griña, ta genio charrac garitzeco neurriac artu nai ez dituenac? Cembat lotsaz becatuac edertzen, edo isilic gordetzen dituenac? Aita Frai Luis Granadacoac beguiraturic Cristauen vicimoduari dio: Cristauen talde, ta gorputzac oñetic asita bururaño alde aldean ez daucala osasuna osoarequin dagoan pusca, edo parteric.

Baña eguin dezagun contu, becatariac gueyenac biurtzen dirala Jaunagana eguiaz. Gure fede Santac eracusten digu gañera, ez dala asco salvacioraco nola nai Jaunagana biurtzea; baicic iraun bear dala vicitza onean, eta becatutic aldeguiten dala. Ill artean irauten duana salvatuco da dio Jesu-Cristoc. *Qui perseveraverit usque in finem hic salvus erit.* (r). Cembat, eta cembat Cristau betico su, eta garren artean arquitzen dira noiz bait ongui asi ciranac? baña galdu ciran, ceren iraun etzuen. Cembat garizuma edo Misioren batean ongui confesatu ciranac? ta alaere beti erretzen egon bearrac dira, ceren iraun etzuen onean. Esanguidazu orain, Cristaua ¿Pazcoetan, edo Misioetan Jaunagana biurtzen diran becatarietatic asco ote dira becatura biurtu gabe dirauenac? Izango ote dira irutatic bi? Ez. Izango

ote dira erdiac ? Ez. Izango ote dira irutatic bat? Ez eta orrembeste-ere , guizon jaquintsuen iritziàn. Oetatic batec dio: *Poztuco nintzaque ni, baldin Misio batean Jaunagana biurtzen diranetatic eunetatic oguei ta amarrac iraungo balue becatura biurtu gabe ; baña nic esan deguiquezuet , ozta dirala oguei.* Au letraz ezarria utzi zuan Aita Calatayud-ec. Ta au onela bada ¿ cer da cer miretsi guchi izateaz salvatzen diran Cristauac galtzen diranen aldean?

Gure fedeac eracusten digu Ceruco erreñua irabazten dala borchaz, au da gure gura, griña, ta genio errebesac escuratzeco, zucentzeco, edo ecitzeco, sayatzen guerala, eta obra onac eguiteari contuz jarraitzen diogula. *Regnum Cælorum vim patitur* (s). Eta norc eztacus, Cristauric gueyen gueyenac ez duela conturic beren griña charrac escuratzeco? Gazteac gaistaqueriari ederretsi ezquero, lenago utzico du larrua bere bide oquerrac baño: eta zarrac ez oi due viotzic bere genioai contra eguiteco. Esana dago: *antz azturac obiraño.* Atzenean Escritura Santac esaten digu, becatarien eriotza izan oi dala guztiz gaistoa: *Mors peccatorum pessima* (t). Ez cergatic, becataria osotoro Jaunagana biurtzen bada, barcacioa ucatzen dion Jaun berac, baicic ceren neque dan, ta guchitan guertatzen dan eriotzaco demboran becataria bear bezala Jaunagana biurtzea. Gaitzac alde batetic, bere vicitza gaiztoac , eta infernuaren beldurrac bestetic, utzi oi due alabaña becatari tristea ecertaco ez dala. Emendic atera dezaquegu erraz Cristauen artean-ere guchiago dirala salvatzen diranac, eta guertatzen dala Salvatzallearen esana. Asco dira *deituac, baña* guchi autuac. *Multi sunt vocati, pauci vero electi.* Goacen oraiñ gai onen gañean gure cerbait pensatzera.

Lenengo pensamentua: Asco edo guchi ote diran

Adanen ondorengoen artean salvatu, ta salvatzen diranac:

Bigarren pensamentua: Cristauen artean-ere asco, edo guchi ote diran salvatzen diranac galtzen diranean aldean? Gure Salvatzalleac dio asco dirala deituac, baña guchi autuac. *Multi sunt vocati, pauci vero electi.* Eguizue aleguiña bide, edo ate estutic sartzeco. *Contendite intrare per angustan portam.* Ay! ta ni salvatuco diran orietacoa, edo besteetacoa ote naiz? (Emen isilic egon bear da guchi batean gauz oetan pensatzen.)

FRUTUA.

Emendic atera bear degun lenengo frutua da: Jaunaren aurrean ongui damutzea oraindañoco gure vicitza anima-galgarriaz. Bigarren frutua, bertatic ar ezazu confesio on bat eguiteco , becatutic, eta becatuaren bideetatic aldeguiteco asmo osoa. Au da, Jesu-Cristoc esaten digun bezala, ate estutic sartzeco aleguiña eguitea. *Intrate per angustam portam.* Irugarren frutua ongui confesatzeco, ta aurrera becatura ez biurtzeco bear dezun gracia irichi dezazun, ar ezazu zure bitartecotzat Virgiña guztiz Santa dolorez betea. Atzenean Virgiña beraren onran atoz bederatzi urren onetara, ta oitu zaite Jaincoaren itz Santura, vezpera, ta errosariora etortzera. Goazen oraiñ ongui confesatzeco prestaera icastera, ta eguitera.

(a) Psalmo 13. (b) 1. Timot. 2. (c) Lib. de Gratia, et libero Arb. (d) Psalm. 138. (e) Apoc. 7. (f) Genes. 6.

(g) 1 Petri 3. (h) Bellarminus, Suarius, Tyrinus &. (i) Isai. c. 5. (l) Videsis Calatayud de Numero prædestinatorum (m) Vide eumdem. (n) Chrys. Hom. 4 ad populum Anthioquen. D. Greg. Hom. 19 in Evang (o) Math. 20 (p) Apoc 21. (q) Videsis Calatayud ubi supra. (r) Math. 10. (s) Math. 11. (t) Psalm. 33.

OGUEI TA AMABIGARREN ERACUSALDIA.

ADIRAZTEN DA CRISTAUA ASCO DIRALA DEITUAC, BAÑA GUCHI AUTUAC.

Multi sunt vocati, pauci vero electi. Math. 20.

Asco dira deituac Jesu-Cristoren fede, ta legue Santara, ta alaere guchi dira autuac Ceruco erreñuraco. Au aditzera eman cigun Jesu-Cristoc esan zuanean: asco dira deituac, baña guchi autuac. Gauza negargarria! Aimbeste neurri eder artu gure Jaun onec guri betico vicitza doatsua eman naiez; ta alaere guchi izan Ceruratzen diranac galtzen diranen aldean! Ta zu, Cristaua, ni, eta emen arquitzen gueran gucioc noraco ote guera? Eztaquigu. Guc daquiguna da dembora, edo urte guchiren barrunen izango guerala edo betico zori onecoac, edo betico zori gaistocoac. Guc daquiguna da Eliz Ama Santaren barrutian nastuac dabiltzala onac, eta gaistoac, baña bere demboran berecico ditu Jaunac, eta ipiñico ditu onac alde batean, gaistoac

bestean; lastoa, ta belar gaistoac alde batean, ale garbia bestean. Alaere Elizaren barrutian nastuac badabiltza-ere onac, eta gaistoac, baditue eren marca, ta siñaleac, norenac diran, ta norentzaco dauden, aditzera ematen duenac; batzuec marcatuac arquitzen dira Ceruraco marcaren batequin, besteac infernuracoarequin. Nai dezu zuc, Cristaua, jaquin noraco siñale, edo marcarequin arquitzen ceran? Ori zu bada onetaraco bi pensamentu.

LENENGO PENSAMENTUA.

Arquitzen ote da zugan Ceruraco marca, edo siñaleetatic batere?

Baldin zu, Cristaua, becatu larriren batean eroria bazaude, ta aren mendetic irtenquizun, ezta bitarte orretan zugan arquitzen Ceruraco marca, ta señale eguiazcoric batere; becatuan zauden bitartean alabaña cera Jaincoaren etsaya, eta etsai galgarriaren umea. S. Benitoren ordenan vicitu zan Pelayo ceritzan Erligioso bat, eta aren vicimoduari beguiratuta norc nai esan cezaquean Ceruraco marcatua cegoala. Alaere ilta laster aren gorputza irten zan obiaren gañera sua, ta garra ceriola; aitortu cion bere aguintari, edo buru zuanari, nola betico infernura zan, ceren erligioan sartu baño len abereren batequin eguin zuan becatu bat confesatzeco viotzic izan eztuan. Ecin dateque beraz Ceruco marca, ta siñale eguiazcoric becatutic bat irten dedin artean. Gañera becatutic irtete utsa ezta oraindic batec Cerura bear duala, aditzera ematen duan marca, ezpadacar berequin beste siñaleric, asco dira alabaña, edo gueyenac noizbait becatutic irten zuenac, baña guchi becatura biurtzen ez diranac. Enzun itzat-

zu bada oraiñ, Cristaua, Ceruraco marca, ta siñaleetatic cembait, eta beguira-ezazu oecquin arquitzen ote ceran.

Elizaco guraso, ta guizon jaquintsuac asco marca, ta siñale uquitzen ditue gai onetan, eta oetatic bata da Jaunaren itz Santua, sermoyac, ta dotrinac umilqui, ta Ceruraco bidean aurreratzeco egarriarequin entzutea. Erbesteturic dagoan batec gogoz entzuten ditu bere errico berriac. Ardiac enzuten du bere artzayaren deya, ta jarraitzen dio. Ala eguiten due Jesu-Cristoc beretzat autuac dauzcan animac. Marca au Jesu-Cristoc berac aditzera eman cigun. Jaungoicoarena danac esan cien Juduai Jaincoaren itza enzuten du. *Qui ex Deo est verba Dei audit.* Arquitzen ote cera, Cristaua, marca onequin? Ceruraco autuen bigarren marca da Jaincoaren beldur santu bat. Beldur au duan animac, alde batetic amatzen du bere Jaungoicoa bere Aita, ta ontasun guztiz maitagarria bezala, bere ustea, ta esperantza ipintzen du beragan; baña beste aldetic ezagutzen du ceñ gauza gaistoa, ta samiña dan Jaun au utzitzea, ta emendic sortzen zayo Jaun beraren contra becatu eguiteco beldur santu bat, eta ongui baño-ere obeto gorde nai lituque Jaunaren Aguinteac. Marca au aditzera emana dago Escritura Santaren asco lecutan. Zori onecoa Jaunaren beldurra irichi duan guizona! Au duana noren pare ipiñico, edo noren antzeco eguingo da, dio Escritura Santac. *Beatus homo, cui donatum est habere timorem Dei! Qui tenet illum, cui assimilabitur?* Zori onecoac Jaunaren beldurtiac, ta Jaunaren legue Santa contuz gordeaz vici diranac, dio Davidec. *Beati omnes, qui timent Dominum, qui ambulant in viis ejus.* Atozea, Cristaua, zugan ecusten ote da bigarren marca au? Ceruraco autuen irugarren marca da etsairic andie-

nac-ere biotzetic amatzea, ta charqueriaric eguin ezpalue bezala ongui artzea dala itzeguitean, dala gure bear diranean. Marca au Jesu-Cristoc asco bider aditzera eman zuan, eta bein batean esan zuan: nic esaten dizuet: *Ego auten dico vobis:* ama-itzatzue zuen etsayac; on eguin guiezue zuei gaitz nai izan dizuenai, ta erregüezazue zuei atsacabeac emanaz, ta ez diran gauzac alchatuaz dabiltzanac-gatic zuen Aita Cerucoaren Semeac izan zaitezten. *Ut sitis filii Patris vestri, qui est in Cœlis.* Ecusten dezu, nola Jaincoaren semeen marca dan etsayac amatzea? Adisquideac amatzea gueyena da, baña etsayac amatzea Cristau-ena bacarric, esan zuan Tertulianoc. *Amicos diligere omnium est, inimicos autem, solorum Christianorum.* Arquitzen ote da marca au zugan, Cristaua?

Ceruraco autuen laugarren marca da lagun urcoen neque, ta premiaz urricaldutzea, ta aleguiñean berai laguntzea. Marca au-ere Jesu-Cristoc aditzera eman cigun. Zori onecoac urriquimentua duenac, dio. *Beati missericordes.* Ceruraco autuen bostgarren marca da, utseguiteren batean erortzen diranean, umilqui Jaunaren aurrean beren utseguitea ezagutzea, lembait len barcacioa iristeco neurriac artzea, eta Ceruraco bideari len baño ere arreta gueyagorequin equitea. Soldadu batec, zauri andi bat pelean dabillela artu, edo atera badu, ta zauria estuta bereala equiten badio etsayari len baño-ere gogorquiago, norc nai esango du, viotz andicoa, ta pijoa dala soldadu au; eta au bera esan diteque utseguiteren bat guertatu ondoan lembait len Jaunagana biurtuta vicitza onari contuz equiten dion Cristauaz. Ala eguin zuan Davidec. Ceruraco autuen seigarren marca da Jaunagandic, lagun urcoagandic, edo nondic datorquien neque, ta gurutzeac Jau-

naren icenean ongui artzea, ta igarotzea. Marca au, ez bein bacarric, aditzera eman zuan Jesu-Cristoc, eta Tobiasi esan cion S. Rafaelec: ceren Jaincoaren gogocoa ciñan gurutze, ta nequearequin progatzea gauza bearra zan. *Quia acceptus eras Deo, necese fuit, ut tentatio probaret te.*

Ceruraco autuen zazpigarren marca da sarritan, eta ederqui prestaturic Sacramentuac artzea, Meza nagusi, vezpera, errosario, ta gauz onetara contuz etortzea. Bidez dijoanac contu eguiten du bere orduetan artzeco bear duan jana, ta edana; ta era berean Ceruraco bidea daramanac, aunatu ez dedin, contuz artzen ditu Sacramentuac, ta ecin bestean baicic ez ditu utzitzen Jaunaren echean, edo Elizan eguiten diran gauz onac; badaqui alabaña era onetan ematen dituala Jaunac bere laguntzac ugariena. Ceruraco autuen zortzigarren marca da Virgiña guztiz Santaganaco jayera, edo devocio andi bat, beraren onran aldeguiten dala becatuaren bideetatic, ta eguiten dirala obra onac. Ala esaten digu S. Juan Damascenoc. Ala S. Anselmoc. Bederatzigarren marca Ceruracoa da, becatura biurtu gabe irautea, ta au da beste marca, ta siñale gucien coroa. Ill artean irauten duana salvatuco da, dio Jesu-Cristoc. *Qui perseveraverit usque in finem, hic salvus erit.* Beguira ondo, Cristaua, marca oequin arquitzen ote ceran, eta oequin arquitzen bacera, zoaz aurrera cere bidean contuz, Jaunac deitu zaitzan artean.

BIGARREN PENSAMENTUA.

Ceruraco marquen ordean arquitzen ote diran zugan, etsayac bereai ipintzen diezten marcac?

Jesu-Cristoc beretzat autuac dauzcan animac mar-

catuac dacartzi Elizaren barrutietan aditzera eman ditudan marca oecquin. Eta Deabruac-ere beretzat dauzcan becatariac marcatzen ditu bere guisara; ipintzen ditu unai contuzcoacquin, eta darabiltzqui nai duan eran, nai duan lecuan, eta nai duan lagunacquin. Ay! ta nolaco taldeac! cein ugariac! Infernuraco marquen artean lenengoa bezala esan diteque Jaunaren itz Santua aditzetic, dotrina, sermoi, vezpera, errosario, Sacramentu, ta gauz onetatic iguesi ibiltzea. Argatic zuec aditzen ez dituzue Jaincoaren itzac, ceren arenac etzeraten, esan cien bein Jesu-Cristoc Juduai- *Propterea vos non auditis, quia ex Deo non estis.* Eta marca au infernuraco marca bada, beguira, Cristaua, cembat, eta cembat marcatuac egongo diran araco egungo egunean? INFERNURACO bigarren marca da Jaunaren legueco Ministroen, eta Erligioco ordenetan vici diranen contra nolanai itzeguitea, oni, edo ari utseguiteren bat guertatzen bazayo gucien onra, ta icena oiñpean erabiltzea, al dan charqueria estadu onen contra eguitea, ta eguiteco moduac, eta bideac prestatzea. Jaquiña da, cein castigu andiac eguin cituan Jaunac Israeliten contra, ceren gaizqui itzeguin zuen Moisesen, eta Aaronen contra. Jaquiña da, nola Moisesen arreba Maria egon zan ezcabiz, edo lepraz betea, ta besteen artetic botaric, ceren bear etzan bezala erausian egon zan anaiearen contra. Jaquiña da, nola dion Escritura Santac: honra ezazu zure Jaungoicoa zure anima guciaz, eta onra itzatzu Apaizac: *Honora Deum ex tota anima tua, et honorifica Sacerdotes;* eta berriz dio: zuec uquitzen zaituenac, uquitzen du nere beguico ninia: *Qui tangit vos, tangit pupillam oculi mei.* Ta legue zarreco Apaizac gatic au bacion Jaunac, cer izango da legue berricoac ecertan ez iduquitzea? Legue zar-

reco Apaiztasuna alabaña etzan Jesu-Cristoren leguecoaren erruñu, ta guereiza besteric. Elizaren asieratic gaurdaño ari dira heregeac ala Apaicen nola Erligiosoen contra beren puzoya zabaltzen. Arrioren ondorengoac, Luteroc, Calvinoc, Wiclef, ta beste herege asco aritu dira Elizaco Ministroen, ta Erligiosoen contra bata alde batetic, bestea bestetic, ta oetatic zabalduaz joan da izurria Catholico ascotara, batezere ogueita amar urte oen barrumbean. Cer etorri da emendic? Guchitu da Eliz Ama Santari, Jaunaren Ministroai, Erligiosoai zor zaten onra, ta errespetoa; gaistotu dira oitura, edo costumbreac; ondatu dira erriac, eta amilca dijoaz becatariac dagoten lecura. O! dembora illunac! dembora negargarriac! Certan gueratu bear ote dezue! Infernuraco irugarren marca da, Jaunaren beldur Santua galduric, ardura gabe becatua becatuaren gañean eguitea, era onetan vici danac alabaña aditzera ematen du, ez daucala ecertan bere Jaun Jaungoicoa, ta nayago duala bere gogora ibilli Jaunac aguintzen diozcan gauza, edo atseguin contuguciac baño. *Infernuraco laugarren* marca da, iñoiz vicitza onaren bideari equinda, bereala aspertzea, eta leneco vicitza gaistora biurtzea. Eri, edo gaiso dagoan bat gaitzaren berrizcaturac sarritan artzen duanean, etsitzen degu aren osasunaz. Ta au bera guertatzen da gueyenean becatuaren berrizcaturarequin. *Infernuraco bostgarren marca* da atseguin ciquiñetara oitutzea, ta itsutzea. Ez due oec parteric Ceruco erreñuan, dio S. Pauloc. S. Geronimoc esaten digu, griña lizun onen bucaera dala infernua. *Cujus finis gehena. Infernuraco seigarren marca* da, munduco izan, edo ondasunetan viotza ipintzea, ta lagun urco beartsuai gogortasunarequin beguiratzea. Non dira urrea, ta cillarra gordetzen zuenac? Au

da oetan viotza ipintzen zuenac? *Ubi sunt... qui argentum thesaurizant, et aurum?* Jachi ciran infernura, dio Baruch Profetac. *Ad inferos descenderunt.* Zoazte nigandic betico surtara, esango die Jaunac azquen contuetan. *Discedite á me maledicti in ignem æternum. Infernuraco zazpigarren marca* da munduco onrari itsatsia iduquitzea viotza, eta prest egotea alde onetatic uquitzen gaituanaren contra edocein gauza eguiteco, aren faltac aguertzeco, eta edoceñ erausi eguiteco. Oec alabaña ez due viotzic eren buruac ucatzeco, ta Jesu-Cristoren aguinduac eguiteco. *Infernuraco zortzigarren marca* da munduari, edo gure aide, adisquide, auzo, onguille, edo laguntzalleai atsacabe emateco beldurrez, prest vicitzea ezagüera zucenac, eta Jaunaren legue Santac debecatzen dituan gauzac eguiteco, edertzeco, edo estaltzeco edertu, edo estali bear ez diranean. Trance batean nori nai guerta daquiqueo argala izatea, ta utseguitea, baña era onetan prest vicitzea munduaren beldurrez Jaunaren legue Santa autsitzeco? Ez ain erraz; eta au da etsayaren umeen siñale, ta marca chit aguiria, ta nabarbena. Atzenean infernuraco marquen artean chiquiena ezta etsaiari barcatu nai ez izatea, itzeguitea, ta diosala ucatzen zayola vicitzea. Mira ezazu orain, Cristaua, zure vicitza zutean, eta cearrean, eta beguira noraco, ta norentzat marcatua zauden. Arquitzen ote cera Ceruraco marcarequin? edo arquitzen ote cera infernuracoarequin? Eta cer eguin ote dezaque infernuraco marca beregan dacusanac? Cer? lapurraren marcarequin bere ardia dacusanac eguiten duana. Quentzen dio lapurraren marca, ipintzen dio berea, eta aurrera contu obeto eguiten dio. Au bera eguin bear dezu zuc-ere becataria; quendu bear dezu confesio on batequin ceregandic Deabruaren

marca ori , eta ipiñi bear dezu vicitza onari jarraituaz Ceruraco marca. Ezpazaude Ceruraco autua, eguizu , izan zaitecela autua , esan zuan S. Agustiñec. *Si non es prædestinatus, fac ut prædestineris.* Goacen orain gai onen gañean guchi batean pensatzera.

Lenengo pensamentua : arquitzen ote da zugan Ceruraco marca , edo siñaleetatic batere ? Arquitzen bada , zoaz aurrera zure bidean zabartu gabe.

Bigarren pensamentua , baña Ceruraco marquen ordean ez ote dira zugan arquitzen infernuraco marcac? (Emen isilic guchi batean egon bear da gauz oetan pensatzen.)

Pensamentu oetatic atera bear dituzun frutuac dira oec. Lenengo frutua : eguin dezagun negar gure oraindañoco vicitza anima galgarriaz. Bigarren frutua : bertatic artu dezagun confesio on bat eguiteco , becatutic , eta becatuaren bideetatic aldeguiteco asmo osoa. Era onetan deseguingo degu infernuraco marca. Irugarren frutua , ongui confesatzeco, ta aurrera becatura ez biurtzeco gracia irichi dezazun, ar ezazu zure bitartecotzat Virgiña guztiz Santa dolorez betea. Atzenean Virgiña beraren onran zoaz obra onai jarraituaz. Goacen oraiñ ongui confesatzeco prestaera icastera, eta eguitera.



OGUEI TA AMAIRUGARREN ERACUSALDIA.

Adirazten da cein gauza gozoa eta ariña dan Jesusen legue Santa gordetzea.

Jugum enim meum suave est, et onus meum leve. Math 11.

Mundu galdu–doacabeac eguiten du gurequin, Moisesec Canaango bazterrac ecustera, ta miratzera bidaldu cituan celatariac eguin zuena. Israeldarrac vicitu ciran dembora luceetan Igitarren mendean, ecusten cituela norc daqui cembat neque, pena, eta gogortasun. Urriquitu zan Jauna Jacob Patriarcaren jatorria era onetan ecusiric; eta Moises guiari, ta buru ematen ciela, atera cituan cativerio gogor artatic. Aguindu cien Jaunac bere Israeldarrai Canaango, ta inguruetaco lurra: ta lur ain gozoa, zoroa, ta ugaria, non, *esnea, ta eztia* darion, lurra Escritura Santac deitzen dion. Alderatu ciran Israeldarrac bazter artara; ta an sartu baño len, bidaldu cituan Moisesec Jaunaren aguintez amabi celatari, Canaango lecuen, eta gauza guztien berriac eramateco. Eguin zuen celatariac Moisesec aguindua; ta guztiai beguien aurrean ipintzeco, cein bazter zoroac ciran ecusi cituen bazterrac, artu zuen mats adar bat mordo elduz beteric cegoana, ta aga batean ipiñiric eraman izan zuen bi lagunen artean. Celatari oec, ecusia ecusirie-ere, Josue, ta Caleb ez, besteac Egipton ceuden beren gogoz, ta ez Jaunac aguinduricaco lurrean; ta asi ciran Israeldarren artean asco guezur barreatzen, eta ipiñi cituen oec Egiptora biurtzeco zorian. Lur arc irintsitzen ditu, cioen guezurti aec,

irintsitzen ditu an vici diranac. *Devorat habitatores suos.* Andiac, esquergabeac, icaragarriac dira ango guizonac; ta arquitu degu giganteen mota, edo jatorri bat ain andia, non larapoac, edo langostac baicic ez guiñala cirudian aen aldean. *Quasi locustæ videbamur.* Israeldarren mandatari guezurti oen eran erausi oi due munduaren adoratzalleac Jesu-Cristoren legue santaz, vicitza on, ta virtutearen bideaz. Illuntasun, eta tristuraz erquituac, eta bucatzeco zorian vici dirala, esango due, gure legue santa venaz, eta viotz osoz gorde nai duenac; eta au dala ona eremuetan, edo erligiotaco paret artean ezcutaturic daudenentzat, ez gendeen artean vici diranentzat. Itz batean, munduaren jarraiquin oen iritzian Jesu-Cristoren Legue Santa arantzaz, elorriz, eta larrez guztia josiric arquitzen da. Oituac daude oec munduaren bazca loyetara, eta eztaquie ezcurraren, eta ezcurraren antzeco gaucen berriric baicic. Ez due viotzic janari oec uzteco, eta gure Salvatzalle Jesus maitagarriari jarraitzeco; ta badarauste edocein zoraqueria, ta edocein guezur Salvatzalle berac aguintzen digunaren contra. Ta gauz arrigarria! izanic, mundua esaten diogun, Momo, edo idolo au beren griña, ta pasioen zorabioz betericaco gende utsa, alaere munduaren adoratzalleac zabalduric arquitzen dira bazter guztietan, erri andietan, bitarteetan, chiquietan, guizonetan, emacumeetan, zarretan, gaztetan, eta estadu guztietan. Doi doya arquitzen da, Jesu-Cristo utziric, eyaca, ta lasterca munduaren ondoren ez dijoanic, naiz costa osasuna, onra, ondasunac, eta vicitza bera; naiz beguien aurrean ecusi infernuaren eztarritzar izugarria zabalduric, eta gu irintsitzeco prest. Esan diteque alde aldean David Santuac bere demboran ciona: Aldeguin due guztiac Jaunagandic, eta galdu dira, ta ezta arquitzen gauz

onic, bear bezala beintzat eguiten duanic. Biur gaitecen, nere Cristauac guerengana, ta enzun dezagun gure Salvatzalleac esaten diguna: Nere leguearen uztarria gozoa, ta leuna da. *Jugum enim meum suave est.* Ta nic ipintzen dedan carga ariña. *Et onus meum leve.* Itz oei nagotela beguien aurrean ipiñi nai dizuet 1.ª cein gauza gozoa dan Jesusen Legue Santa gordetzea. 2.ª Cein gauza erraza, ta ariña. 3.ª Aditzera emango dizuet egun oroco jayera bat, chit asco laguntzen duana Jaunaren leguea gordetzen. Enzun nazazue contuz.

Ezagutzeco zuc, Cristaua, cein gauza gozoa dan zure Salvatzallearen leguea, ta legue berac aguintzen duana gordetzea, beguira ondo nor dan legue au ipintzen diguna? Noren oneraco ipintzen duan; cer ondasun, ta cer atseguin contentuac prestaturic dauzcan bere maitatzalleentzat Jaunac, ala emen nola Ceruco Jauregui ederrean? Nor dala uste dezu, Cristaua, zure Salvatzalle Jesus maitagarria? Au da gure Jaun Jaungoicoa bera, gauza gucien eguille andia, ta gu ecer ezetic atera guinduana, utziric beste asco, edo ecin conta ai, beren ecer ezean. Au da munduco eche eder galant au guretzat prestatu zuana, guc bear ditugun gauza guztiaquin. Au da gau, ta egun gure vicitza gorde duana, ta gure perill, eta premia guztietan guri laguntzeco prest egon dana. Au da, becatuaren, eta etsayaren mendetic gu ateratzeco, guizon eguin ta gurutzean bere vicitza eman zuana. Au da, gu batayoco Sacramentuarequin Adanen becatuaren manchatic garbitu gaituana, ta Eliz Ama Santaren ume eguin, utziric beste asco edo

batayo gabe, edo federic ez duen gendeen artean. Au da, guganaco onguinai, ta amorioac gañez eguiñic, Aldareco Sacramentuan gueratu nai izan zuana, gurequin, eta gure artean egoteco, guri emateco bere gorputza, bere odola, bere anima, bere viotza, bere Jaincotasuna, itz batean, bera dan guztia. Izanic Jaun au Gucialduna, ecin alaere eman digun baña gueyago eman ceguiquegun, izanic eciñ gueyagoraño jaquintsua, etzuan jaquin cer gueyago eman; ta izanic guztiz aberatsa, ta gauza guztien Jabea, etzuan izan cer gueyago guri eman, esan zuan S. Agustiñec. Au da atzenean izate ecin gueyagoraño eder, on, eta maitagarria. Ta munduco Erregue, Principe, ta guizon andiac servitzea gauza gozoa, ta atseguin-contentu andiarequin eguiten dana bada: cer izango da gure Salvatzalle Jesus maitagarria servitzea, ta beraren Legue Santa gordetzea, izanic dan bezalacoa Jaun au? Ta alaere, Jaun au utziric, jarraitu izan diogu munduari, munduco ecerezari, iduripenai, losencha, eta guezurrai? Ausi degu aimbeste bider Jaunaren legue Santa? Alcha guera beraren contra, ta esan degu ez degula servituco? *Confregisti jugum meum, rupisti vincula mea, et dixisti: non serviam.*

Noren oneraco ote dira gure Salvatzalleac bere leguean aguintzen dizquigun gauzac? Noren ezpada gure oneraco? Ez du Jaunac betiraunde gucian, edo bere eternidadean gu beceñ servitzari circillen bearric izan, eta era berean oraiñ ere ez da gure bear neurriric, eta mugaric gabe doatsua beregan izateco. Ta baldin bere legue Santan aguintzen badizquigu gauzaren batzuec, eta debecatzen besteac: ori guztia da gure onra, ta oneraco. Artu gaitu alabaña, Jaungoico beraren Semeen artean, eguin gaitu bere senide, ta Ceruco Erreñuaren jabegai; ta nai

du gu vici gaitean, onra onen goi, ta andia ez galtzeco eran ¿Eta ez da gauza gozoa Jaun bat onen onguillea servitzea? Ezta, dio S. Ambrosioc, Jesu-Cristo servitzea baño onra ta dignidade andiagoric.

Ta cer esango degu, Jaunac bere maitatzalleentzat prestaturic dauzcan, ondasun, atseguin-contentu, ta gozotasunai beguiratzen badiegu? Ondasun, eta aseguin-contentu oec ematen diezte batzuec bertatic, eta besteac aguintzen diezte deserri au bucatzen daneco. Emen Jaunac bere servitzariai ematen dieztenac dira, ez campocoac, eta azalecoac, baicic barrengoac, eta viotzean artzen diranac. Ematen die benic beiñ viotzeco paquea bat, munduco gurutzeac, penac, samintasunac gozatzen, eta arintzen dituana. Ala guertatzen citzayon S. Paulori, ala beste anima onai. Eztaquie munduaren adoratzalleac barrengo atseguin-contentu oen berriric, ta ez dira berac eguiaz beñere poz, eta contentu. Egon ditezque algaraz, ibilli ditezque nai duen eran, eta nai duen lecuetan, baña viotza gueratuco zate beti utsa. Galde ezperen S. Agustiñi, eta Salomoni. Progatu cituan S. Agustiñec Jaungoicoagana biurtu zan baño len, munduco atseguiñac, progatu cituan guero animari dagozcanac, eta dio: ez dirala becatariac beñere eguiaz poztutzen, baicic eguiten dituela pozaren gestuac, eta iduripenac. *Peccatores non propríe gaudent, ses gestiunt.* Ez dio guchiago Salomonec, munduan arquitu al ditezquean atseguin guztiac progatu, ta dastatu ondoan. Progatu cituan ondasunetan gorderic daudela uste dan, atseguin-contentuac. Eta ecusi zuan etzecartela barrengo quezcac, arantzac, eta arazoac baicic. Progatu cituan munduaren laudarioac, onrac, eta losenchac, eta guertatu citzayon oro bat. Progatu cituan vergera ederrac, musicac, eta jauregui apainduac beguiai,

ta belarriai eman oi diezten contentuac. Progatu cituan gorputzaren atseguin lizunac, inguruetaco Erregue, ta Principeen alaba ederrac deitzen cituala. Ez nien ucatu nere beguiai gura zuen gauzaric; eta ez nion eragotzi nere viotzari, nai cituan atseguin, eta gustoetan gozatzea, dio berac. Dastaturic guisa onetan, gogora citzaizcan, munduco atseguin mota guztiac, esan zuan: utsa da, ecereza, ta iduripena guztia. *Vanitas vanitatum, et omnia vanitas.* Baña bere Jaun Jaungoicoa leyalqui servitzen, eta viotz osoz amatzen duan anima, neque, ta gurutzeac inguraturic dagoanean-ere, arquitzen da barrenen paque gozo batean, naigaberic andienetan ere Jaunaren nayari, edo borondateari beguiratzen diola, itsas-orratzac norte-izarrai beti beguiratzen dion eran. Gauza batec bacarric samindu, eta naigabez bete dezaque Jauna amatzen duan anima, eta au da igarotaco vicitzan eguidaco utseguiteaz oroitzea. Oroipen onec umill erazten du bere Jaunaren aurrean: onec eraguiten dio ugari negar, eta suspirio; baña negar oec alde batetic samiñac badira, bestetic munduan diran contentu guztiac baño gozoagoac dira. Ala dio S. Agustiñec ongui gauz onen berri ciaquianic bezala. *Dulciores sunt lacrymæ pœnitentium quam gaudia theatrorum.* Gozoagoac ciran Santa Maria Magdalenac Jesu-Cristoren oñetan isuri cituan malcoac, lengo vicitza limurian artu cituan atseguin guztiac baño. Betor edoceiñ becatari eguiaz Jaunagana biurtu dana, itzeguin beza, ta aguertu beregan igaro zayona, ta au bera esango du. Paquea gozo onezaz gañera badu Jauna servitzen duanac beste doai preciotsu bat ere, ta da bere Jaunaren Letart, edo providenciaren besoetan uste oso, ta sosegu andiarequin atsedetea, naiz gauaz, naiz egunaz, naiz osasunan, naiz eritasunetan, naiz

eriotza bera datorrenean. Ez ditugu guc ondasun gozo oec ongui ezagutzen; baña cergatic? ceren viotz osoz jarraitu ez diogun oraindañocoan gure salvatzalle Jesus maitagarriari, ta ceren munduaren ta gueren griña, ta pasio charrac escatzen dituen atseguiñ circillac utzi nai ez ditugun.

Atseguin-contentu, ta gozotasun oec emen bertatic eman oi diezte Jaunac bere servitzariai; ta negarrezco ibar onetan onen ongui beguiratzen badie ¿cer ondasunac; cer atseguin contentuac izango dira, deserri onen ondoren emango dieztenac? Jaungoicoa bera izango da anima onaren saria. Jaungoicoaren doatasun miragarriagandic irtengo da atseguin, contentu, ta gozotasunen ujola, edo ibai bat anima ona osotoro bete, ta bete ececic guztia inguratuco duana. *Inebriabuntur ab ubertate domus tuæ, et torrente voluptatis tuæ potabis eos.* Ecin guc ongui ezagutu ditzaquegu, nere Cristauac, ango atseguin-contentuac. Ez ditue, dio S. Pauloc, beguiac ecusi, ez ditue belarriac aditu; ez guizonaren adimentuac irichi, Jaunac bere maitatzalleentzat prestaturic dauzcan ondasunac. Esan guidazu oraiñ, Cristaua ¿ez da gauza gozoa, ta atseguincontentuz betea gure salvatzalle Jesus maitagarriaren legue Santa gordetzea? Ta alaere nayago izan degu munduaren centzugabequeria, usadio, ta iritzi animagalgarriai jarraitzea? nayago, ganadu beltzen eran, bazca loyetan, ozalean, ta ezcurrean vicitzea? Centza gaitecen, nere Cristauac, eta Evangelioco seme ondatzallearen eran biur gaitecen gure Aita onagana.

Jaunac bere servitzarientzat prestatu dituan ondasunac, eta atseguin-contentuac andieguiac dira,

nere Cristauac, doaric emateco. Necatu bear da ondasun oec escatzen duen bezala; baña neque au erraza, ta ariña da, ongui beguiratzen badiogu. Ala dio Jesu-Cristoc berac. *Onus meum leve.* Ez dezu sinisten, Cristaua? Atoz bada eguia au ecustera. Jaunaren legue Santac aguintzen digun lenengo gauza da Jaun bera adoratzea, ta servitzea. *Adoratuco dezu zure Jaun Jaungoicoa, ta bera bacarric servituco dezu*, esaten zacu Escritura Santan. Ta cer neque da gure eguillea, gauza guztien asiera, ta iturburua, guztien iraupena, ta iña ezagutzea, ta dagozcan agur umillac eguitea? Erregueen Jauregüetan arquitzen diran zaldunac, eta erreñuco andiac ez due neque anditzat artzen Erregueren aurrean beren agur umillac eguitea, ez eta servitzea ere ¿Ta neque andia izango da au eguitea Erregue guztien Erreguerequin? Erregue aiñ on, eta maitagarriarequin?

Aguintzen digu gañera servitu dezagula. Eguia da, servitze onec baditu bere aldapac, baditu contraco aiceac, ta baditu perill latzac munduaren, Demonioaren, eta araguiaren aldetic; ta escatzen du, contuz, eta arretarequin jarraitzea gure eguin bide guztiai. Baña dembora berean eguia da, neque andiagoa dala munduaren, eta gure griña, ta pasio charren mendean vicitzea; ta barrengo paquea, ta pocic beñere gustatu, ta progatu gabe batec bere egunac bucatzea. Jaunaren servitzean arquitu ditequean neque guztia arintzen due, Jaunac bere maitatzalleai ematen diezten, laguntza, ta gracia ugariac. Arintzen due viotzeco paquea gozoac, ta betico ondasunen usteac. Arintzen da atzenean, ceren gure eguimbide guztiac biurtzen diran bi gauzatara, Jaungoicoa ta Jaungoicoagatic lagun urcoa amatzera. Eguiaz, eta viotz osoz amatzen duanac bere Jaungoicoa, nequeric gabe

adoratuco du sarritan Jaun bera, umilqui esquerrac emango diozca argandic artu, eta egun oro artzen dituan ontarte guztiaz, ta oei nolerebait erantzun nayez, esqueñico diozca bere itz, pensamentu, ta lan guztiac aren onra, ta gloriaraco. Sinistuco ditu aisa fedeco misterio guztiac; eta uste oso-umil bat izango du Jaunagan. Ez du juramenturic eguingo, eguiarequin, eta premiac ala escatzen duanean baicic. Ez du jai egunic ausico, ta Eliz Ama Santaren aguinduac eguingo ditu Jainco berarenac bezala.

Era berean lagun urcoa venaz, eta viotz osoz amatzen duanac, onratuco ditu bere gurasoac, ez dio lagun urcoari gaitzic opaco; ez dio bere anima, ta gorputza loitzeco bideric emango ez itzez, ez queñada ciquiñaquin, ez bestela. Ez dio ecer ostuco; ez dio bidegaberic eguingo bere onran, eta icen onean. Itz batean, lagun urcoari dagozcan gauza guztiac, ta bere estaduco eguimbideac aisa, ta pocic eguiten ditu Jaungoicoaren, eta lagun urcoaren amorio andia duanac; ta contuz ucatzen ditu bere griña ta pasio charrac. Baldin Jacob Patriarcac morrontzan amalau urte igaro bacituan, egun guchi baciran bezala, Raqueli cion amorioagatic, ta igaro Laban beceñ guizon esquergabe-gozacaitzaren echean; cer eguingo ez du Cristauac, Jaungoicoaren, eta lagun urcoaren onguinai, ta amorio andia iristen duanean? Onguinai, ta amorio andiac samintasunac berac goisatzen ditu, azucreac fruta samiñac goisatzen dituan eran; ta arintzen ditu nequeric andienac-ere, dio S. Agustiñec gauz onen berri ongui ciaquianac bezala. *Laborat nullus amor magnus::::: Quidquid difficile est in præcepto, leve est amanti?* Ona cergatic, eta cein bidez dion gure Salvatzalleac, ariña dala beraren Legue Santaren carga.

Ar ezazue nere leguearen uztarria ceren gañean, eta zuec arquituco dezue ceren animentzat paquea, ta sosegua, esaten digu Salvatzalle berac. Nai dezu bada, Cristaua, zure Jaunaren legue Santa erraz gordetzeco bidea icasi? ta nai dituzu legue onen gozotasun, eta atseguin-contentuac irichi? Ara bada onetaraco bide erraza. Garbi ezazu benic bein viotza becatuen loi, ta lia ciquiñetatic confesioco iturrian; artean alabaña etzera gai, Jaunac bere legue Santa gordetzen duenai eman oi diezten, paquea gozoa, ta atseguin-contentuac dastatzeco. Oitu zaite guero goiz arratsetan, Jaunaren aurrean jarriric, Jaun bera umilqui adoratzera, eguin dizquitzun ontarteaz esquerrac ematera, cere itz, pensamentu, ta lanac beraren onra, ta gloriaraco esqueintzera. Oitu zaite goiz arratsetan asmo oso bat artzera gueyena ausitzen dezun mandamentua contuz gordetzeco, ta zure griña, ta pasio nagusiena ucatzeco, ta ecitzeco; ta goiz-arratsetaco jayera au buca ezazu fede, esperanza, caridade, ta contriciozco afectoaquin. Atzenean zure nequeac, eta lan guztiac izan ditecen Jaunaren gogocoac, ta Ceruraco irabaciac, noicean beiñ berri ezazu, goicean artu cenduan, nai, ta intencio ona. Asco da onetaraco Jaunagana viotza alchatzea esanaz ceregan: *Jauna esana esan*: *goicecoan bertan arquitzen naiz*: zure icenean, zure onra, ta gloriaraco izan bedi nere neque, gurutze, edo lan au. Zure griña, ta pasio charren batec eguiten badizu, edo ustecabean perillen batean cere burua ecusten badezu: lembait len oroi zaite Jauna beguira dagoquizula, ta zuri laguntzeco prest arquitzen dala. Otseguiozu cere viotzean, eta esan: *Aloz Jauna*, *aloz laster*, *gorde nazazu perill onetatic*: nayago det bertan iltzea, zure beguietan becatu eguitea baño. Ez due, nere Cristauac, gauz oec neque andiric, eta dan ez jaquiñenac-ere

erraz chit eguin ditzaqueanac dira. Alaere oec contuz, eta egun oro eguitea da virtute guztien cimendua, Ceruraco irabacien gordallua, ta jayera, edo devocio guztien gaña, ta lore ederra. Ta sinisturic nago, gure gende prestu-garbien artean ascoc artuco duela gauz oec goiz arratsetan eguiteco jayera, baldin beguien aurrean ipintzen bazate arguiro, cer, ta nola eguin bear dan. Siniste onec muguitu nau jayera au alic onguiena letraz ezartzera. Ta zuec icasi dezazuen, nola bacoitzac bere bacarrean, eta nola gurasoac beren mendecoaquin eguin ditzaqueen devocio oni dagozcan gauzac, asmo det, cembait jayetan gai, edo lan oni equitea. Zuequin batean esango det devocio oni dagocana; ta gañera eguingo det gauza bacoitzaren gañean dotrina eder bat. Atozte, nere Cristauac; atozte, Ceruraco bidean sartu nai dezuen guztiac. Eguin dezagun guztioc, azquen contuen ordu icaragarria datorquigun baño len aleguiña vicitza zucentzeco, ta beti beti iraungo duan Ceruco gloria iristeco. Amen.



OGUEI TA AMALAUGARREN ERACUSALDIA,

Adirazten da lenengo lecuan, ceñ andia dan gure Jaungoicoa.

Bigarren lecuan, ceñ andia beraren al, eta escua.

Atzenean, ceñ andia beraren Jaquiundea.

Ambula coram me, et esto perfectus. Genes. 17.

NOTA: Aurrena esango dira goiceco jayeran dauden gauzac, Comunioco liburuco laugarren partean, ogueita zortzigarren Eracusaldian arquitzen diran eran; ta ondoren eguingo da platicacho au.

Aditu dezue, Cristauac ta batez-ere echeetaco burua goicetaraco artu bear luqueen jayera. Nai nuque jayera onen oitura zabaldu litequean echetara, baña ez det onembat on iritsi uste, lenago ongui ezagutzen ezpadezue jayera au, ta onen pusca bacoitza, ta au ezagutu ondoan Jaunaren laguntzarequin batean venaz asitzen ezpacerate Ceruraco videari jarraitzen. Goiceco jayeran esaten diran gauzac ain dira bearrac, ta valio andicoac, non ecin utzi nitzaquean banaca, ta aldedan onguiena, ta arguiroena adiraci-gabe.

Goicetic Cristauac aurrena eguin bear duan gauza da: honestidadearequin, ta oracioren batzuec esanaz jeiqui, ta Jaunaren aurrean jartzea, esaten duala: *Oroi zaitez nere anima Jaunaren aurrean arquitzen cerala, ta beguira dagotela zure itz pensamenlu, ta gauza guztiai.* Ta gurasoac, edo gurasoaren ordez bestec bere echecoaquin jayera au eguiten badu, esan dezaque: *Oroi gaitecen Jaunaren aurrean arquintzen guerala, ta beguira dagotela gure itz, pensamentu, ta gauza guztiai.* Jaunaren aurrean gaudela, ta Jauna beguira dagoquigula lecu guztietan, ongui sinisteac guztiz asco laguntzen du eguiten ditugun gauz onac ongui eguiten, Jaunac bidaltzen dizquigun neque, ta gurutzeac ongui eramaten, ta becatuagandic aldeguiten. Argatic goiceco jayera asitzen da, Jaunaren aurrean gaudela oroitzetic.

Goiceco jayeran bezala, beste gauzac eguiteanere oitu zaitecen zu, Cristaua, Jaunaren aurrean zaudela, ta Jauna beguira dagoquizula, sinistera: gaur eguia onen gañean itzeguin nai dizuet. Onetaraco adiracico dizut. 1.ª Ceñ andia dan gure Jaun Jaungoicoaren izate miragarria. 2.ª Ceñ andia beraren al, ta escua. 3.ª Ceñ andia beraren jaquiundea. Iru gauz oec zuc ongui ezagutzen, ta sinisten badituzu, aisa ezagutuco dezu, edoceñ lecutan zaudela zuc beti arquitzen cerala cere Jaunaren aurrean, edo obeto esateco zure Jaunagan beragan: beti zaudela Jaunaren escutic cincilica bezala: ta beti Jaun beraren begui ecusleac ecusten zaituela. Enzun nazazu arretarequin.

§ I.

Gure sinisteac eracusten digun gauza da, gure Jaun Jaugoicoaren izate miragarria ain dala *Andia* non ez neurriric, ta ez mugaric izan dezaquean. *Andia da, ta andia neurriric, ta bucaeraric-gabe dio Baruch Profetac.* Au nolerebait ezagutzeco, beguira guiezu Jaun onec eguin ta beguien aurrean dauzcagun gauzai. Andiac dira itsasoaren osiñac, ta bazterrac: andiac dira lurreco celayac, aldapac, mendiac: andiac dira gure gañean arquitzen diran odeyac, izarrac, ta eguzquia. Andiac dira Ceru eder oriec. Baña cer dirala uste dezu gauza oec guztiac,

diran beceñ andiac izan da-ere, Jaungoicoaren izate andiaren aldean, edo pare ipintzen badituzu? Ecer ezpalira bezala dira guztiac Jaunaren izateaaren aldean. Ceruaren erpiña baño goragocoa da Jaungoicoa: infernuaren ondoa baño ondoragocoa: igarotzen ditu lurraren bazter, ta muga guztiac, ta itsasoa baño zabalagoa da, dio Job Santuac.

Ecusten ditugun gauza oezaz gañera, nai izate utsarequin eguin litzaque zure eguille andiac beste gauza berriac, ta berriac beñere necatu, ta bere escua, ta indarra guchitu gabe: eguin litzaque Ceru berriac, itsasoac, izarrac, eguzquiac, ta aec guztiacere ecer ez bezala izango liraque Jaunaren izate andiaren aldean.

Izate guztiz andi onec bada betetzen ditu berac eguin dituan lecu oec guztiac, ta era berean beteco lituque lecu berriac ta berriac eguiten eternidade guztian arico baliz ere. Ez da bada, Cristaua, ez da, ez Ceruan, ez lurrean, gure Jaunaren izate andia ez dagoan lecuric ez chiquiric, ez andiric, ez illunic, ta ez arguiric. Ain da andia, ain da neurriric, bazteric, edo mugaric ez duana. Emendic atera-ezazu, Cristaua, edoceñ lecutan zaudela zu, naiz bacarric, naiz lagunaquin, naiz echean, naiz soroan, naiz mendian, beti beti arquitzen cerala zure Jaungoicoaren aurrean, edo obeto esateco, Jaunaren izate andi-baztergabecoaren barrenen, itsasoan arrayac urez inguratuac arquitzen diran baño ascoz obeto, ta era miragarriagoan inguratzen zaituala Jaunac. Eguia au, beste ascoren artean, ederqui aguertu cien S. Paulo Apostoluac Athenasco gendeai. Eraman zuen oec Apostolua Arcopago deitzen cioen Tribunal batera (au zan gaitz guilleac juzgatzen cituen Juecen Tribunala), ta an guztien aurrean esan cien: Athenasco gendeac: ecusten zaituet gau-

za guztietan beste gendeac baño supersticio, edo bear ez diran adoracioetara jarriac, bada idolo, edo Jaungoico guezurrezcoac adoratzea guchi baliz bezala, or igarotzean ecusi det nola daucazuen aldare bat ezagutzen ez dezuen Jaungoicoarentzat ipiñia; an letraz ezarriric dago: *Ez daquigun, edo ezagutzen ez degun* Jaungoicoarentzaco Aldarea. *Ignoto Deo.* Zuec bada, Athenasco gendeac, zuec ezagutu gabe adoratzen dezuen Jaungoico onen berriac orain ematen dizquitzuet. Ez da ez Jaungoico au gugandic urruti arquitzen; beragan vici guera, beragan muguitzen guera, ta beragan gaude. *In ipso enim vivimus, movemur et sumus.* (Acta Apost. 17).

Au onela da, nere Cristauac: ta alaere vicitu guera gure Jaungoicoaz ain aztuac? Jaungoico beraren aurrean, ta Jaungoicoaren izate guztiz andi, ta baztergabecoaren barrenen, ta errayetan bezala vici guera, muguitzera, ta gaude: ta alaere izan degu ausardia beraren contra becatu eguiteco? Baña gueyegui luza ez gaitecen. Goacen ecustera ceñ andia dan Jaungoicoaren escu eta ala.

§ II.

Andia lecu guztiac betetzen dituana, ta baztergabecoa da Jaungoicoaren izatea, ta izate oni dagocan bezalacoa da beraren al, eta escua; da alabaña gure Jaungoicoa, gauza guztiac eguin cituan eguille andia, ta eguin cituana ecer ecetic, ta iñoren laguntza gabe, nai izate utsarequin. Da eguin cituan gauza guztiai beren izatea gordetzen, ta dan gauzaric chiquienarenari-ere contu eguiten dion Jaungoicoa.

Bai, nere Cristauac: gure Jaungoico maitagarria da gauza guztien Eguille andia. Jaungoicoac eguiñac di-

ra Ceru oriec diran beceñ andiac, ederrac, zabalac. Jaungoicoac eguiñac dira Ceru orietan ecusten ditugun eguzquia, illargia, ta izarrac. Jaungoicoac eguiñac dira itsasoac, ibayac, iturriac. Jaungoicoac eguiñac aiceac, sua, mendiac, celayac, lurra, ta itz batean esateco mundu guztia, ta Ceruaren goyenetic asi ta lurraren ondoraño arquitzen diran gauza guztiac: ta oec eguin cituan beceñ erraz, edo aisa eguin ditzaque, berac nai izatera, beste munduac, ta munduco, oraingoa baño-ere andiagoac, ta ederragoac. Onetaraco duan al, ta escua batere laburtu, ta necatu gabe. Eguia au ezpadaquizu, Cristaua, galde eguin guiezu astoai berai, dio Job Santuac, ta eracutsico dizue: galde Ceruco egaztiai, ta esango dizue: galde itsasoan dabiltzan arraiai, ta aditzera emango dizue. Norc ez daqui, Jaunaren escuac eguiñac dirala gauza oec guztiac. (Job 12).

Gauza oec guztiac eguiteco, etzuan izan Jaungoicoac gairic-batere, baicic eguin cituan ecer-ecetic, ta au da Jaungoico gucialdunac bacarric daguiquean. Eguin dezaquee Aingueruac, ta eguin dezaquee guizonac-ere lore baten antz, edo ichura zurean, olean, urrean, edo cillarrean; baña ez au, ta ez beste gauzaric eguin dezaquee onetaraco gairic ez duela. Gure Jaungoicoac gucialdunac bezala eguin cituan bada gauza guztiac ecer ezetic, ta batere gairic gabe. *Ex nihilo* (Macha. 7). Etzuan ez iñoren laguntzaren bearric izan onetaraco: Norc laguntu cion, dio Isayas Profetac, edo nor izan zan Jaunaren consejari, ta eracutsi cion cer ta nola eguin? (Isaiæ 40). Asco izan zan, dio David Erregueac, *eguin bide au*, eguimbedi ura esatea, bereala eguiñic aguertzeco. *Ipse dixit et facta sunt: ipse mandavit et creata sunt.*

Gure Jaun Jaungoicoac bere al, ta escu miragarri au aguertzen digu gañera eguin dituan gauza guztiai beren izatea gordetzen diela, ta guztien contua daucala. Ez luque mundu onec, ez eta munduan diran gaucetatic batec-ere puntu edo instante batean-ere iraungo Jaunaren al, ta escuac gordeco ezpalu. Guztia bere anciñaco ecer-ezera biurtuco lizaque. Ala dio Jaquintsuac Escritura Santan. Nola iraun lezaque, Jauna, ecerc-ere zuc nai ez izatera? *Quomodo autem posset aliquid permanere, nisi tu voluisses?* (Sap. 11). Gauza guztiac bada Jaungoico Guzti-aldunaren escutic artu izan due beren izatea, ta iraungo badue, puntu, edo instante bacoitzean berriro artuaz dijoaz, ta escu altsu-onguille artatic cincilica arquitzen dira. Gañera eguin dituan gauza guztiaz, ta dan chiquienaz contu dauca. Beguira Ceruco izarrai, beguira itsasoan diran are aleai, lurreco arbola, ta belarrai: beguira aideco egaztiai: oec guztiac eguiñac dauzca berac nai duan neurrian, berac nai duan adiña, ta berac ongui iritzi dio pisuan. (Sap. 11.) Ta guztiaz berdin dauca bere contua, dio Escritura Santac. (Sap. 6).

Beguira oraiñ Cristaua cen andia dan gure Jaungoicoaren al, ta escua! ta ceñ esquer gabeac, ta guren galgarriac izan gueran oraindañocoan! Jaungoico Gucialdun-onguille onen escutic artu degu degun izatea: izate au ecer-ecera biurtuco da Jaun berac gordetzen ezpadigu: instante oro, ta lecu guztietan beraren escutic cincilica arquitzen guera: ta alaere ez degu nai Jaungoico maitagarri onezaz oroitu, ta berac eman ta gordetzen digun izateaz valiatzen guera beraren contra becatu eguiteco. Centza baguindez oraiñ bederic!

§ III.

Ecusi degun beceñ andia, edo obeto esateco ecin

ecusi ta ecin adiraci ditequean beceñ andia da gure Jaungoicoaren ala ta escua. Ta ez da batere laburragoa beraren Jaquiundea. Beguira dagoca beti gure Jaungoicoa bere izate on maitagarriari, ta izate onetan perfeccioai. Ecusten du nola dan Jaungoico bacar bat, ta iru Persona Aita, Semea, ta Espiritu Santua. Ecusten du nola dan Aitagandic Semea, ta Aita ta Semeagandic Espíritu Santua. Bere izate-andi-ederra, ta bere perfeccioac ecusteaz gañera, guztiz arguiro ecusten ditu, beste gauza guztiac igaroac, guertatzen diranac, guertatuco diranac, ta guerta alditezqueanac. Beti beti, ta batetan ecusten ditu, dio Escriturac, eternidadetic eternidaderañoco gauza guztiac, (Eccle. 39.) Berdin da Jaunaren begui ecusleentzat gaua nola eguna: berdin arguitan, edo illumbean, bacarric, edo lagunaquin: zocoan, sasian, guelan, mendian, edo beste edoceñ lecutan gauza eguitea. Au ongui sinisten zuanac bezala, Jauna, esaten zuan Davidec. Nora aldeguingo det zure jaquiunde orregandic? «Nora igues eguingo det zure aurpeguitic? »Ceruaren goyenera banoa, an zaude zu: infernura »jeisten banaiz, an arquitzen zaitut, ta egaztia beza»la, goicean egoac arturic, joaten banaiz itsasoa»ren urrutieneco bazterretara, *ecin alaere zugan»dic ezcutatuco naiz.*» (Psal. 138.)

Ecusten dezu orain, Cristaua, ceñ andia dan Jaunaren jaquiundea? Ecusten dezu nola beguira dagoten gure asmo, gure naicunde, gure gauz on ta gaisto guztiai? Eguzquia bera baño ascoz arguiagoac dira Jaunaren beguiac, dio Escritura Santac; alde guztietatic beguiratzen, ta ecusten ditue guizonen vide, ta ibillera guztiac baita itsasoaren ondarrean ta gure viotzetaco zocoric ezcutatuenean cer dagoan-ere. Ni, nerau naiz testigu, ta Juez, dio Jeremiasen aoaz. (Jerem 29). Sinistu ote degu orain-

dañocoan eguia au? Ez noasqui bear dan eran; au ongui sinistera alabaña ecin eguin guintzaquean eguin ditugun adiña utseguite, ta becatu: ta ecin izan guindezquean izangueran beceñ naguiac, ta zabarrac Ceruraco videan. Sinistu dezagun bada fede vici batequin, nere Cristauac, Jaunaren aurrean arquitzen guerala beti, ta edoceñ lecutan: Jaunaren aurrean, ceren Jaunaren izate andi baztergabecoa lecu guztietan dagoan. Jaunaren aurrean, ceren beraren al, ta escu neurri guztiac baño andiagoa lecu guztietan guri degun izatea ematen, gordetzen, ta guri bere laguntza, ta ondasunac emateco prest dagoan. Jaunaren aurrean gaude atzenean, ceren beguira dagoten lecu guztietan gure itz, pensamentu, ta gauza guztiai.

Nai dezu bada zuc, Cristaua goiceco jayera, ta eguiten dituzun lanac ongui eguitea? Oroi zaitez maiz, maiz, maiz Jaunaren aurrean arquitzen cerala, ta beguira dagoquizula beti; ta lecu guztietan, ta muguituco cera contuz, ta ongui eguiten dituzun gauzonac eguitera. Ala guertatu citzayon David Santuari. Gorde ditut Jauna esaten dio zure aguinteac, ta leguea, ceren nere bide, ta ibillera guztiac zure aurrean ta beguietan arquitzen ciran. *Servavi mandata tua, et testimonia tua, quia omnes viæ meæ in conspectu tuo.* (Psalm 118). Nai dezu becatuaren perilletic ateratzea, ta becatura beñere ez biurtzea? Oroi zaitez sarritan Jauna beguira dagoquizula, oitu zaite viotz ori beragana jasotzera. Ala Susana Andre prestuac eguin zuan, zar berde bic elcar artuta becatura amilderazteco bidean, ta vicitza galtzeco perillean bere burua ecusiric. Obeago det, esan cien zuen atzaparretan vicitza galtzea, Jaunaren aurrean, ta beguietan becatu eguitea baño. *Melius est mihi absque opere incidere in manus vestras,*

quam peccare in conspectu Domini (Daniel 13). Nai dituzu atzenean atzeratu gaitzeraco zure griña charrac? Sarritan bada fedearen arguiarequin gogora ecartzu beguira dagoala zure Jaun Jaungoicoa, ta beragana viotza jasoric dei zayozu S. Pedroren eran: gorde nazazu nere Jaun maitagarria, galdua naiz bestela. Itz batean. Zabiltza, esan cion Jaunac Abrahani, eta esaten digu guri-ere, zabiltza nere aurrean, ta zu izango cera bear bezalacoa, edo virtute, ta santidadez jauntzia. *Ambula in conspectu Domini, et esto perfectus.* Jaunari nai daquiola gure viotzac jayera onetara muguitzea, ta beraren laguntzarequin batean vicitza on bat eguitea, iristeco guero beti iraungo duan Ceruco gloria. *Ad quam* &.

OGUEI TA AMABOSTGARREN ERACUSALDIA.

Adirazten da, cer guisatan erraz, edo aisa icasi dezaquegun Jaunaren aurrean ibiltzea.

Ambula coram me, et esto perfectus. Genes. 17.

Ecusi guenduan leneco egunean Jaunaren aurrean ibiltzeac ceñ ongui laguntzen duan naiz becatuan ez erortzeco, naiz eguin bear ditugun gauz onac contuz eguiteco. Au onela izan, ta alaere mundua galduric, ta becatuen osin izugarrian ondaturic arquitzen da egungo egunean! Cergatic ote? Ceren gure griña ta pasio charren lañoac alde guztietatic inguraturic, beguiratzen ez diogun gure aurrean, ta gurequin beti beti dagoen Jaungoicoa. Ecusle maitagarriari: ta berari beguiratu bearrean, edo ordean, nayago guenduque noasqui fedearen arguiac animaco beguien aurrean ipintzen ezpaligu Jaun bera. *Loyac, ta nazcagarriac dira becatariaren lanac,* dio David Santuac: ceren beguiratzen ez dion bere aurrean daducan Jaun Jaungoicoari. *Non est Deus in conspectu ejus: inquinatæ sunt viæ illius in omni tempore.* (Psalm. 9). Au guertatu ez daquigun emendic aurrera, ecusi bear degu gaur, cer guisatan erraz, edo aisa icasi dezaquegun Jaunaren aurrean ibiltzen. Aditu contuz.

§ I.

Jaunaren aurrean, ta beguietan ibiltzea da gure lanac, ta gure vicitzaco pausoac eguitea. Jaun andi au beguira dagoquigula oroituaz, ta beraganontz viotzac muguitzen ditugula. Ta norc eztacus, nere Cristauac, ceñ gauz errazac diran bi gauz oec edoceñ Cristaurentzat, onec viotzetic bere Jaungoicoa servitu nai badu? Baña ceñ errazac diran bi gauz oec obeto ezagutzeco, beguiratu bear diegu biai banaca.

Jaunaren aurrean ibiltzea da beñic beiñ gure lanac, ta gure vicitzaco pausoac eguitea, gure Jaun Jaungoicoa beguira dagoquigula oroituaz. Ezagutzen det, nere Cristauac, ceñ erraz gure gogo, ta viotzac munduco arazo, contu, ta aurquerien ondoren dijoacen, ta ceñ laster aztutzen gueran gure Jaun andiaz. Baña dembora berean ecin ucatu dezaquegu, dan Cristauric ezjaquiñenac-ere erraz bere gauzac eguingo dituala Jaunaren aurrean dagoela oroituaz, baldin oitutzen bada maiz, edo sarritan sinistera Jaun andi au arquitzen dala munduaren bazter guztietan, ta gu gauden edoceñ lecutan bere izate eder baztergabecoarequin, bere Escu, edo Al guztiarequin, ta bere Jaquiundearen beguiaquin guztia ecusten duala. Idi-

qui itzatzu, Cristaua, zure animaren beguiac, beguira guiozu fedearen arguiarequin zure Jaungoicoari. Ecusico dezu ain andia dala beraren izate ederra, non ez duan, ta ecin izan-ere dezaquean neurriric, bazter, edo mugaric. Betetzen ditu Ceru-lurrac, ta oetan arquitzen diran gauza guztiac, ta era berean beteco lituque mundu berriac, eta berriac eguingo balitu. Andia da bai, dio arrituric Baruch Profetac, ta andia bucaeraric gabe. Ez da ez gure arteco bacoitzagandic urruti arquitzen: beragan vici guera, beragan muguitzen guera, ta gaude esaten cien S. Pauloc Athenasco gendeai. Beguira guiozu berriz ere zure Jaungoicoari, ta ecusico dezu bere escu edo al guztiarequin arquitzen dala edoceñ lecutan; *Gucialduna* da alabaña beti, ta toqui guztietan, ta nai izate utsarequin gauza guztiac eguin cituana, guztiac deseguin ta berriro eguin ditzaqueana. Beguira atzenean Jaun berari, ta ecusico dezu, bere Jaquiundearequin beguira dagotela guertatu diran, guertatzen, ta guertatuco diran gauza guztiai. Ez da Jaunarentzat gauric, ez da illuntasunic, ez da zocoric. Au adirazten digu Escritura Santac, esaten digunean, *Eguzquia bera baño arguiagoac dirala Jaunaren beguiac.* Atozea orain, Cristaua, ez da gauza erraza dan ezjaquiñenarentzatere maiz Jaungoico Andi au gogora ecartzea? maiz sinistea Jaun bera arquitzen dala munduaren bazter guztietan, ta gu gauden edoceñ lecutan? Ez da gauz erraza lanen bat asitzean, edo bucatzean, neque, edo estusasunen bat dartorquigunean, Jaun au beguira dagoquigula oroitzea? Oroitzen guera aisa edoceñ lecutan, ta edoceñ demboratan, beñere oroitu bear ez guenduquean gauzaz: ta ez da erraz izango, gure Jaun Jaungoicoa gure Eguille andia, gure Aita maitagarria beguira dagoquigula, ta beraren aurrean arquitzen guerala, oroitzea?

Onetaraco batzuec, beñ gogoratzen due Jaungoicoa itsaso andi bat baliz bezala, ta beren buruai beguiratzen dieza itsaso onec alde guztietatic inguratzen balitu bezala. Etzaiteztela zuec onelaco antz, edo imagiñac ceren buruetan ecin moldaturic necatu; au lizaque alabaña ascorentzat burua alferric necatzea. Gañera gure Jaungoicoa Espiritu uts-garbia da, ta beragatic ecin guc moldadezaquegu beraren antz edo imagiñaric. Beste batzuec gogora ecartzen due Jesu-Cristo gure Jauna, ta eguiten ditue beren gauzac, Jesu-Cristo beren aldamenean baleuquee bezala. Atzenean besteac beren gogoan artzen due Jesus maitagarria bere Pasioco pausoren batean egon zan eran, eguin dezagun contu Getsemanico baratzan odolezco icerdia lurreraño ceriola. S. Bernardo, ta S. Buenaventura gogoz, edo pensamentuz joaten ciran Jesusen costadura, ta an sarturic ceudela eguiten cituen beren lanac, ta gordetzen ciran etsayaren peril guztietatic. Era onetan Jaunaren aurrean ibiltzea jayera guztiz ederra, ta gure animentzat ondasun andiac ecarrico lituaqueana da; baña ez da guztientzat egoquia; ceren gueyenac moldatuco ez liraquean Jesusen pauso oec maiz beardan eran beguien aurrean ipintzeco, edo Jesus beraren costaduari gogoz beguiratu, an sartu, ta gorderic egoteco, dembora berean beren vicimoduco lan guztiac contuz eguiten dituela. Ta onezaz gañera Jesu-Cristo gure Jauna, guizona danez, Ceruan, ta Aldareco Sacramentuan bacarric arquitzen da. Mundu guztian, ta gu gauden, edo gabiltzan lecuetan. Jaungoicoa bacarric da munduaren bazter guztietan, arquitzen dana: ta Jaun onen aurrean, ta beguietan ibiltzeco moduric erracena, da sarritan sinistea eguia au, sarritan gogoratzea nola beguira dagoquigun, ta berari beguiratuaz gure lan, ta eguimbideai jarraitzea.

§ II.

Ona da, nere Cristauac era onetan, edo Jauna beguira dagoquiola oroituaz bacoitzac bere lanac eguitea; onela ari danac alabaña nai ta ez contuzago eguingo ditu gauz onac, ta lotsatuco da ascotan, Jaungoico beraren aurrean becatuari, edo becaturaco bidea ematen duen choraqueriai bere barrenen lecu emateaz. Baña zuc, Cristaua, es dezu onetan gueratu bear, ez: baicic, zure Jaunaren aurrean zaudela, ta beguira-beguira dagoquizula oroitzeaz gañera, alic maizena beguira dagoquizun Jaunagana jaso bear dezu zure viotza, ta aoaz ezpada viotzez bederic aguertu beraganaco onguinaya, esquer ona, beraren laguntzaren premia, zure becatuen damua, itz batean eman guiozu berari aldezun eran zure viotza. Ez da onetaraco iracurtzen jaquin bearric, viotza alchatzea bear da gurequin ta guri beguira dagoan Jaungoicoaganontz. Ongui, nere Cristauac: ez da au gauza guztiz erraza dan ez jaquiñarentzat-ere? Cembait Cristau onentzat ascò da celai bat lore ederrez betea ecustea, gauza gucien Eguille andiaren ederta-sun paregabea gogora ecartzeco, ta S. Agustiñequin esateco: *O edertasun anciñacoa, baña beti berria!* Batzuec ecusten baditue labore ederrac, alchatzen due viotza Jaunagana, ta esaten dioe: *O nere onguille maitagarria! ni zuzaz azturic*: ni becatua becatuaren gaiñ eguiten, ta zu onembat ontarte niri eguiten? Milla esquer Jauna. Besteac neque andiren bat datorquienean, esaten dioe: Jauna gueyago, eta gueyago mereci due nere utseguite, ta becatuac: eguin bedi zure borondatea! Batzuec lanean ari diranean, edo tentacioren batec estutzen dituanean, bereala beguiratzen dioe beren Jaungoicoari, ta viotzez otse-

guiten dioe: *Atoz, atoz, Jauna, laster niri laguntzera.* Baña ez da itz oec gogoan artu bearric: asco da aldan eran, ta bacoitzac bere modura viotz on, ta prestu batequin beguira dagocan bere Jaungoicoari cerbait esatea.

Necatzen dira asco iracurtzen icasten, obeto, ta errazago ezagutzeco virtutearen bidea; ta ongui eguiten due. Icasten ditue beste cembaitec liburuetan arquitzen diran oracio, edo erregu egoquiren batzuec. Gauz ona da au ere. Atzenean asco dira berengan ansiatzen diranac, ceren iracurtzeco, ta oracio pisca bat eguiteco dembora egoquiric ecin iritsi duen; baña ez due Cristau oec cer estutu orregatic: naiz ez jaquin iracurtzen, naiz ez izan bacardadean iracurtzeco derecharic; baldin arretaz oitutzen badira, sarritan beguiratzera lecu guztietan, ta gu gauden toquian bertan dagoan Jaungoicoari, ta oni beguiratuaz, ta oni noicean beiñ viotza jasoaz, beren lanac, ta nequeac eguiten baditue, au, nere Cristauac, izango da iracurtze guztiac, ta oracio guztiac baño ondasun gueyago emango diena, edo obeto esateco oracioa eguiteco moduric onena, erracena, ugariena. Beguira ezperen anciñaco Patriarca Santuai. Etzuen eguiaz oec oraiñ guc ditugun devociozco liburu oenic, ta ala ere igo ciran Santidade goi-miragarri batera; nola uste dezue? Jaunaren aurrean cebiltzala, edo berbera dana, sarritan oroituaz beguira dagoan Jaungoicoaz, ta sarritan beragana viotza jasoaz. Au da Escritura Santac ematen dien alabantza andia aetatic batzuei. *Ibilli zan Enoch Jaungoicoarequin, ta ezcutatu zan*, ceren Jaungoicoac quendu zuan, dio Escritura Santac, Patriarca aren gañean itzeguiten duanean. *Ambulavitque cum Deo, et non apparuit, quai tulit eum Deus.* (Genes. 5.º) S. Basilioc, neque, gurutze, ta ten-

tacio guztien sendagaitzat ematen du Jaunaren aurrean ibiltze au. Oitu gaitecen bada, nere Cristauac, Jaunaren aurrean, ta beguietan ibiltzera. Maiz sinistu dezagun munduaren bazter guztietan, ta gu gauden edoceñ toquitan arquitzen dala gure Jaun Jaungoicoa bere izate andi baztergabecoarequin bere escu, ta al guztiarequin guri laguntzeco zai bezala, ta atzenean bere Jaquiundearen beguiaquin ecusten dituala guc eguiten, ta gogoan igarotzen ditugun gauza guztiac. Ni naiz testigu, ta dembora berean ni nerau naiz Juez dio Jaun berac. Baña eguia au sarritan gogora ecarri, ta sinisteaz gañera, noicean beiñ viotzac jaso bear ditugu beraganontz. Onela zuzenduaz joango da becataria bere vicieran, ta aurreratuaz onac virtutearen bide ederrean. *Ambula coram me, et esto perfectus.* Au da guztioi opa dizuedana emen, ta beti betico atseguin contentuac Ceruan. Amen.

OGUEI TA AMASEIGARREN ERACUSALDIA.

Jaunaren aurrean gaudela lecu guztietan; eta non nai, ta noiz nai beguira, dagoquigula sinistearen gañean.

Dominum Deum tuum adorabis; et illi soli servies. Deuter. 6 et Math. 4.

Gure Ian, eta eguiteco guztien artean andiena, edo obeto esateco bacar bacarra da gure Jaun Jaungoicoa ezagutzea, adoratzea, ta servitzea. *Adoratuco dezu zure Jaun Jaungoicoa, ta ura bacarric servituco*

dezu, esaten zacu Escritura Santan. Alaere eguiteco au da guztien artean aztuena, ta beti gueroco uztendeguna. Ta gauza negargarria! Eguiteco oni venaz equiñ baño len etorri oi da eriotza, ta galtzen dira betico ecin conta al anima. Au guerta eztaquigun, eta dembora berean Jauna servitzean arquitu ditequean neque guztia gozatzeco, ta arintzeco da, egun oroco asi degun jayera, edo devocioa. Ongui beguiratzen badiogu jayera oni, ta jayera onetaraco ipintzen diran gauzai, au da Cristauari dagocan vicitza onaren cimendua bezala; ta beragatic alic onguiena aguertzea, azaltzea, adiraztea dagocana. Jayera onen lenengo gauza da Jaunaren aurrean jartzea, edo sinistea Jaunaren aurrean gaudela, ta beguira dagoquigula; ta onen gañean itzeguingo dizuet gaur. Aditzera emango ditzuet lembicia: cer dan Jaunaren aurrean jartzea. Bigarrena: nola eguin bear dan Jaunaren aurrean jartze au. Ta atzenean, ceiñ ondasun andiac gorderic dauden Jaunaren aurrean jartze onetan, siniste vici batequin au eguiten bada.

Edoceiñ lecutan gaudela, nere Cristauac, beti arquitzen guera gure Jaun Jaungoicoaren aurrean, eta beguietan, munduaren bazter guztietan arquitzen da alabaña Jaun bera bere izate, bere escu, edo al, ta Jaquiunde bazterric, mugaric, eta neurriric ez duanarequin; eta nora nai goacela, beti egongo guera Jaunaren aurrean, eta beguietan. Ez dezu ongui aditzen eguia au? Enzun nazazu bada guchi batean, eta uste det, adituco dezula. Asi gaitecen Jaunaren izatearen anditasunetic.

Beguira guiezu beguien aurrean dauzcagun gau-

zai. Andiac dira itsasoac, andiac lurreco celayac, aldapac, mendiac. Andiac dira gure gañean arquitzen diran odeyac, izarrac, eguzquia, ta Ceruac. Baña ezpalira bezala dira oec guztiac, Jaunaren izatearen anditasunari beguiratzen badiozu. Betetzen ditu Jaunac lecu oec guztiac, eta era berean beteco lituque milloica lecu berriac eta berriac eguingo balitu, eguin litzaquean bezala. Argatic arrituric dio Baruc Profetac: *Andia da, ta andia mugaric, eta bucaeraric gabe.* (a) *Ceruaren erpiña baño goragocoa da; infernuaren ondoa baño ondoragocoa; igarotzen ditu lurraren bazter, eta muga guztiac, eta itsasoa baño zabalagoa da*, dio Job Santuac (b). Jaungoicoaren beraren barrenen vici guera, muguitzen guera, ta gaude esaten cien S. Pauloc Athenasco gendeai. *In ipso enim vivimus, movemur, et sumus* (c).

Jaun onen escua, edo ala beraren izateari dagocana da. Nai izate utsarequin, eta ecer ezetic eguin cituan Ceruac, eta oetan arquitzen diran izarrac, eguzquia, ta illarguia. Nai izate utsarequin, eta ecer ezetic eguin cituan lurra, ta lurreco gauza guztiac. Asco izan zan eguin bedi au, eguin bedi ura esatea, bereala eguiñic aguertzeco, dio David Erregueac. *Ipse dixit, et facta sunt: ipse mandavit, et creata sunt* (d). Nai izate utsarequin eguin cituan eran, gordetzen-ere die eman dien izatea gauza guztiai. Au onela ez izatera, biurtua lizaque bereala mundua anciñaco bere ecer ezean. Atzenean Jaunaren Jaquiundea ez ta batere laburragoa Jaun beraren izatea, ta escua baño. Ecusten ditu arguiro gauza guztiac, guertatuac, guertatzen diranac, eta guertatuco diranac; eta ecusten ditu bat batetan diran bezala bere betiraunde, edo eternidadetic. *A seculo usque in seculum respicit* (e). Oro bat da Jaunarentzat gauza bat guertatzea gauaz, nola egunaren erdian; illumbean nola ar-

guitan; bacarric, edo lagunaquin, zocoan, sasian, guelan, edo plazaren erdian; pensamentuz, edo lanez; Jauna bera da alabaña neurriric ez duan arguia, gauza guztiac diran eran aguertzen dituana; ta Jaunaren beguiac eguzquia bera baño arguiagoac dira, dio Escritura Santac (f): ez ceren Jaunac guc bezala lurrezco beguiac dituan, baicic ceren guztia arguiro dan bezala dacusen. Argatic esaten cion David Santuac Jaunari: *Non ezcutatuco naiz, Jauna, zure Jaquiunde miragarri orregandic? Nora zure aurpegui ta beguietatic iguesi joango naiz? Joango banintz-ere Ceruaren goyeneraño, an zaude zu: jachico banintz infernura, oro bat zaude zu an-ere; eta joan albanindeque egazti baten eran itsasoaren beste aldeco bazterretara, ecin alaere zugandic ezcutа nindeque* (g). Aditzen dezu orain, Cristaua, nola gure Jaun Jaungoicoa arquitzen dan munduaren bazter guztietan, ala bere izate guztiz andiarequin, nola bere escu, ta Jaquiunde bazter gabecoaréquin? Ecusten dezu, edoceñ lecutan gaudela gu, nai ta ez arquitzen guerala Jaun beraren aurrean, eta beguietan? Au da eguia bat ezagüera duen guztiac aitortzen duena. Baña ez dezu uste izan bear, oro bat dala Jaunaren aurrean arquitzea, nola Jaunaren aurrean jartzea, ta ibiltzea. Jaunaren aurrean, eta beguietan arquitzen dira arriac, belarrac, aritzac, eta centzuric ez duen gauza guztiac ere, baña ez dira oec ez jartzen, ez ibiltzen Jaunaren aurrean, eta beguietan ¿Cer ote da bada *Jaunaren aurrean jartzea, ta ibiltzea?* Da *fedearen arguiarequin gogora ecartzea, ta sinistea* gaudela lecu guztietan Jaunaren aurrean, eta non nai beguira dagoquigula; ta siniste onequin Jaunagana viotz osoaz gueren lanac eguitea. Zabiltza nere aurrean, eta beguietan, eta zu izango cera bear bezalacoa, esan cion Jaunac Abrahan Patriarcari. *Ambula coram me,*

esto perfectus (h). Ala guc eguin bear guenduque; ta besteric izango lizaque gure vicitza. Baña ez gaitecen gueyegui emen gueratu. Goacen ecustera, nola eguin bear dan Jaunaren aurrean, eta beguietan jartze au, emendic atera ditezquean, ondasun andiac guc ez galtzeco.

Jaunaren aurrean, eta beguietan jartzeco ta ibiltzeco jayera ongui eguiteco, bear dira iru gauza. Lenengoa da fedearen arguiarequin gogora ecartzea, ta sinistea, arquitzen guerala gure Jaun Jaungoicoaren aurrean, ta beguietan. Batzuec necatzen due, ta berotzen burua Jaunaren antz, edo imagiña beregan sortzen, eta moldatzen: eguin dezagun contu *Arguilasunezco itsaso bat baliz bezala*. Baña etzaitecela necatu zu, Cristaua, Jaunaren antz, edo imagiñen billa; alde batetic alabaña Jaungoicoa da izate bat esan, eta gogora al ditezquean beste gauza guztiac baño andiagoa, goyagoa, eta miragarriagoa, ta beste aldetic Espiritu uts garbia; ta beragatic ecin guerengan sortu dezaquegu beraren antz, ta imagiña egoquiric. Beste batzuec gogoz, eta pensamentuz joaten dira Jesu-Cristoren sayetseco llagara, ta guganaco amorioac idiqui zuan ate artatic sartzen dira: an sarritan escatzen diozquee Salvatzalleari bere laguntzac ongui vicitzeco; an milla esquer ematen diozquee eguin diezten mesedeaz; ta an ezcutatzen dira edocein perill, edo tentacioc equiten dienean. Ala eguiten zuen S. Bernardoc, eta S. Buenaventurac. Eta S. Francisco Salesec-ere nai du, tentacio leyaturen batec equitean, gogoz, eta viotzez laster eguitea Jesus gurutzeficatuagana, ta an bertan beguien aurrean ecusten balu bezala, berari eldutzea perilla igaro artean. Onac dira gauz

oec guztiac; baña bi gauza contuz gogoan artu bear dituzue. 1.ª era onetan Jesu-Cristoren sayetsera joatea, edo beguien aurrean balego bezala berari eldutzea da gogo, eta pensamentu utsezco gauza; Jesu-Cristo alabaña, guizona danez, ezta arquitzen lecu guztietan; baicic Ceruan, eta Aldareco Sacramentuan. 2.ª Jesus gurutzeficatuaquin, eta Jesusen pasioco pauso, edo llagaren baten gañean sarritan, eta venaz pensatu izan duanac, aisa edoceiñ perilletan, edoceñ ordu ta lecutan gogoz, eta viotzez laster eguingo du, Jesusen llaguetara, edo pasioco pausora; baña gauz oec gogoan erabiltzeco oituraric izan ez duana nequez moldatzen da. Atzenean beste batzuec bacarbacarric fedearen arguiarequin gogora ecartzen due, ta sinisten, lecu guztietan dagoan Jaun Jaugoicoaren aurrean, eta beguietan daudela, beste gauza, ta pensamentu zallagotan sartu gabe. Eta au da era ta moduric erracena guztientzat, jaquintsuentzat, eta ez jaquiñentzat.

Jaunaren aurrean jartze, ta ibiltze au ongui eguiteco, ez da asco gogora ecartzea, ta sinistea Jaunberaren aurrean, eta beguietan arquitzen guerala. Baldin, eguia au gogora ecarrita sinistu ezquero, gueratzen bacera len bezala; ezpadiozcatzu beguira dagoquizun Jaun Andiari cere agur umillac eguiten; edo ezpadezu conturic, eta arretaric viotza beragana jasotzeco: esan guidazu, Cristaua, certaraco da Jaunaren aurrean zaudela sinistea? Ez dezu ecusten, siniste au dala siniste antzua? Argatic bada Jaunaren aurrean, eta beguietan gaudela sinistu ondoan, alcha bear degu viotza beragana, aldian aldiari dagocan eran. Batzuetan edertasun baztergabearen aurrean gaudela gogoraric, esan dezaquegu: *O edertasun anciñacoa, baña beti berria! Non nabill zuzaz azturic, ta ceren billa? izanic zu onda-*

sun gucien jabea ta iturburua? Besteetan beraren contra aimbeste bider alcha guerala, ezaguturic, esan dezaquegu: *Ta zuc, Jauna, ecusiric nere esquergabequeria itsusiac, nere becatu izugarriac, ez nazu alaere betico su, eta garren artera bidaldu?* Nola erantzungo diot zure ontasun, eta misericordiari? Batzuetan esquerrac eman bear zaizca beti eguiten dizquigun mesedeaz; besteetan esqueñi bear diogu asitzen degun lan, edo eguitecoa. Neque, gurutze, edo naigaberen batec equiten digunean jaso bear degu viotza, ta esan: *Zure icenean izan bedi, Jauna, nere neque au: bedeicatua izan bedi zure icen Santua.* Tentacioren bat datorrenean lembait len gogo, ta viotzez joan bear degu bertan beguira dagoquigun Jaunagana, aur bat, otsoa ecustean, bere Aita, edo Amaren besoetara lasterca dijoan eran. Esan deguioquegu orduan S. Pedroc Jesu-Cristori esan cion eran, itsasoa aserratuta galtzeco perillean cebillenean. *Jauna gorde nazazu*, galdua naiz bestela. Baña contu, Cristaua; ez dezu uste izan bear, itz oequin, edo beste onelacoaquin bacarric viotza alcha bear dala Jaunagana. Eztabill Jauna itz polit-ederren billa; eta ez dira itz icasiac ain onac, nola Jaunaganaco muguimentuac eralquitzen dituanac. Jaungoicoac nai duana da viotz oso-prestu bat: Jaungoicoac nai duana da viotza beragana jasotzea; naiz itzic ez esan, edo itz politic ez jaquin.

Atzenean Jaunaren aurrean jartzeco, ta ibiltzeco egercicio au ongui eguiteco gauza bearra da arretarequin, eta sarritan, Jaunaren aurrean, eta beguietan gaudela, sinistea, ta sarritan viotza beragana jasotzea, batez-ere orduren bat aditzean, lanen bat asitzean, edo bucatzean, mesederen bat eguiten digunean, neque, gurutze, edo tentacioan arquitzen gueranean. Era onetan gu oraindañocoan sayatu izan

baguiña, etzan izango, ez, gure vicitza izan dan beceñ charra, ta negargarria. Necatzen dira batzuec (eta ongui eguiten due): necatzen dira iracurtzen liburuac, icasteco oracio eguiten; baña ez due guztiac onetaraco era. Necatzen dira beste batzuec, liburuetan arquitzen dituen, oracioren batzuez gogoan artzen. Ongui eguiten due oec-ere; baña ez due guztiac auquera oetan ibiltzeco era; ta bestetic guerta diteque erraz, oracio oec gogoan arturic, loroac bezala esatea viotzaren muguimenturic gabe. Ala egun oro guertatzen zacu Aita gurearequin, oracio guztien artean onena bada-ere. Baña Jaunaren aurrean jartzeco, ta ibilteco jayera au da guztiontzat erraza, edoceñ lecutan, naiz echean, naiz bidean, naiz lanean ari gueranean, eguin ditequeana: ta esan diteque jayera au gogotic artuta eguiten duana egun guztian oracioan dagoala. Au zan anciñaco Patriarca Santuen oracioa; Abrahan, Isac, Jacob, José, ta beste anciñaco Santuac etzuen alabaña izan Jaungoicoaren aurrean fede vici batequin jartzea, ta beraren aurrean ibiltzea beste libururic. Au da atzenean jayera bat ondasun andiac berequin dacartziana, orain ecusico degun bezala. (l).

Jaunaren aurrean jartzeco, ta beraren beguietan ibilteco jayera onetatic atera ditzaquegun ondasunac, bitara biur ditezque. Oetatic bata da becatutic gordetzea. Andiac dira, ta asco, inguratzen gaituen becaturaco perillac. Perillac aurtasunean, perillac gaztetasunean, perillac zartzean. Perillac barrendic, perillac campotic. Perillac lagun artean, perillac bacardadean. Perillac echeetan, perillac plazetan, bideetan, soroetan, eta lecu guztietan. Beteac daude lecu guztiac perillez, beteac sarez, eta lazoz, dio S. Gregorioc. *Plena omnia periculis, plena laqueis.* ¿Norc gorde gaitzaque perill, eta lazo oen

guztien artean? Norc, ezpada S. Pedro itsasoaren baga aserreen artean gorde zuanac? Norc, ezpada Babiloniaco labe eracequian iru gazte Israeldarrac erre gabe gorde cituanac? Gurequin dago lecu guztietan: Guztialduna da, ta nai izate utsarequin gorde gaitzaque becatuan erortzetic. Beguira dago, ta zai bezala guri laguntzeco; baldiñ gu gueroc gueren nayez sartzen ezpaguera becatuan amiltzeco bideetan. Oitu gaitecen bada fede vici batequin, eta sarritan sinistera, Jaun onen aurrean arquitzen guerala, ta beguira beguira dagoquigula. Oitu gaitecen perill guztietan viotza beragana jasotzera, bere laguntza escatzera: ta aiceric gogorrenac ifar gozotan biurtuco, perill guztiac deseguingo dira. Baldin Erregueren zaldunac, Erregue beguira dagoala, ezpadira gauza gaistora atrebitzen, berenez errebesac diranac-ere: baldin ume bat ezpada trebe bere gurasoaren aurrean esateco, ta eguiteco, bestela esan, eta eguin oi dituan gaistaqueriac ¿ nola guc izan dezaquegu ausardia Jaugoicoaren aurrean becatuari lecu emateco, baldin fede viciarequin sinisten badegu, beraren aurrean gaudela, ta beguira dagoquigula? Au osotoro sinisturic guera gaitecen, beguira dezagun, cer guertatu zan José Patriarcarequin, eta Susanarequin.

José, Jacob Patriarcaren seme guztiz eder, eta maitea, bere senideen embidiac saldu zuan. Erosi zuen aurrena Ismaelita mercatari batzuec, eta guero Egiptoco Erregueren ejercituen buru, ta aguintari Futibar ceritzanac. Eguiten cituan Josec bere nagusiaren aguinduac leyalqui, ta bere contura utzi ciozqueen gauza gucia, irteten citzaizcan nagusiac nai zuan bezala. Ecusiric onec Joseren leyaltasuna, ta doay ederrac, bere contura eman ciozcan echea, ta gauza guztiac; ta bereala ugaritu ciran Joseren es-

cuetan. Onela vici zan José bere nagusiaren borondatearen, eta viotzaren jabe, ta bere Jaun Jaungoicoac beguiratzen ciola gauza guztietan Aita onaren beguiaquin. Baña prestatu cion etsayac lazo icaragarri bat, Joseren icen ona, ta anima galerazteco chit perill andicoa, eta limuria. Jarri citzayon egun batean echeco andrea beguira, ta Joseren edertasunarequin llilluraturic, equin cion bear ez diran gauzetaraco bidea ematen. Equin cion ez beiñ bacarric, baicic ascotan, baña beti alferric. Egun batean sartzen da José echera, ta asitzen da bere bacarrean lanen bat eguiten. Sartzen zayo echeco andre ez garbia, ta caparen ercetic elduta equiten dio José tentatzeari. Cer eguin zuan onec? Cer? utziric capa irten zan echetic. Elizaren gurasoetatic ascoc, ecusiric Josec eguin zuana, gueyago dala au, dioe, iru gazte Israeldarrac Babiloniaco labe gorian erregabe gueratzea baño. Ta cerc perill onen andietan gorde zuala, uste dezu Cristaua? Jaunaren aurrean, eta beguietan cegoala fede vici batequin sinisteac. Atozea, esan cion bere tentatzalleari: nere nagusiac zu ez, beste gauza guztiac utzi ditu nere escuetan. *Nola bada eguin dezaquet nic desleyaltasun onen itsusia nere Jaungoicoaren aurrean, eta beguietan? Quomodo ergo possum hoc malum facere, et peccare in Deum?* (j).

Ezta guchiago Susanarequin guertatua. Susana Helciasen alaba ederra bere eguituran, eta oraindic ederragoa bere animan, ezcondu zuen gurasoac Joaquin ceritzan guizon aberats batequin. Nabuco-Donosor Erregueac deseguin, eta preso eraman cituanean Juduac Babiloniara, besteaquin batean joan bear izan zuan Susanac-ere, Judatarra zanac bezala. Nola Juduen usadioac, eta izcuntza berdiñac etziran Babiloniacoaquin, eman izan cien Juduai Erreguec escua, aututzeco beren

artean bi Juez, erabaqui citzeen oec Juduen auciac, ta beste gauza Juecen escuetara oi diranac. Autu cituen Juduac bi guizon zar cintzoac, elduac, eta errespetocoac cirudienac. Bi Juez oec biltzen ciran Susanaren echean Juduen gauzac aditzera, ta erabaquitzera, ta onetan ceuden demboran, irten oi zan Susana echearen ondoan zuan vergera batera. Ecusten zuen bi Juez aec, ta ecusi ececic beguiratzen ere cioen, ecustean artzen zuen atseguin, eta pozagatic. Ta oi dana: aztu ciran Juez zar oec beren adiñaz zuen carguaz, eta Jaungoicoaz. Lotsatzen ciran aurrenean zar madaricatu biac, batac besteari aguertzeco colcoan ceduqueen sua; baña nola aciaz, eta egunetic egunera eracequiaz cijoan, ausi zuen aurreneco lotsa pisca ura, aguertu cion batec besteari bere gogo lizuna, ta gueratu ciran Susana galtzeco elcar ongui artuac. Equiten dioe Zar nazcagarri biac andre prestua tentatzeari, bacarric, eta (lecu artan usatzen zan bezala) urean sarturic maiñuan cegoan garayean. Ichiac daude vergeraco ateac, esaten cioen; ez dago iñor-ere beguira, ta ezpadezu zuc guc gura deguna eguin nai, guc esango degu arquitu zaitugula gazte batequin ezcontza ciquintzen duan gaistaquerian. (Ta gaistaqueria onetan arquitzen zana arrica iltzen zuen Juduac, legue zarrac ala aguinduric.) Ezta gogora besteric, cer quezcac, cer pena, ta naigabeac inguratuco zuan trance onetan Susanaren barrena. Ecusten zuan alde batetic, tentatzalle lizun aec nai zuena eguiten ezpazuan, galduco cioela bere onra, ta ipiñico zuela eriotza gogor baten atzaparretan. Ecusten zuan beste aldetic, beguira cegoala Jaungoicoa, ta gauza izugarria zala Jaunaren aurrean, eta beguietan becatu eguitea; ta oni beguiraturic, erabaqui zuan lizunqueriari lecuric ez ematea, naiz costa cequiola

bere onra, eta vicitza. Obe da neretzat, esan cien, becaturic eguin gabe zuen vengantzaren atzaparretan erortzea, ecen ez Jaungoico beraren beguietan becatu eguitea. *Melius est mihi absque opere incidere in manus vestras, quam peccare in conspectu Domini.* (1). Au esanda, deadar eguin zuan echeronz, eta agure ciquiñac-ere asi ciran deadarrez Susanaren contra. Eguin zuen oec aleguiña Susanari onra, eta vicitza gal erazteco; barreatu zuen gaistaquerian arquitu zuela; baña Daniel Profetac aguertu zuan Susanaren inocencia; ta zar berde-madaricatuac ill ciran Susanari eman nai cioen eriotza-motarequin berarequin, edo arrica. Ecusten dezu, Cristaua, nola becatuan erortzetic gorde cituan Jose Patriarca, ta Susana, Jaungoicoaren aurrean, eta beguietan arquitzen cirala, sinisteac?

Jayera onetatic datorren beste ona da gauz onac berac, bestela eguingo liraquean baño contu, ta arreta obearequin eguitea. Baldin soldaduac arreta gueyagorequin eguiten baditu dagozcan gauzac Aguintaria beguira dagoala ecustean; baldin au bera guertatzen bada mirabeaquin, eta bearguilleaquin, beguira dagotenean naguisiaren beguia ¿cembatez obeto eguingo ditugu gure eguimbideai dagozten lanac eta beste edoceñ gauz on fede viciarequin, eta sarritan sinisten badegu, beguira dagoquigula gure Jaun Jaungoicoa? Onela igo zan Henoch virtute, ta Santidade andira. *Ibilli zan*, dio Escriturac, Jaunarequin, au da Jaunaren beguietan, eta Jaunaren nayari beguiratuaz. (m). Henoch ujaldiaren aurretic vicitu zan, eta etzuan izan guc ditugun adiña gauz onetaraco laguntza; etzan alabaña orduan Sacramenturic, etzan sermoi, ta dotriñaric; etzan devociozco libururic, ta alaere Jaunaren aurrean, eta beguietan ibiltzeco oiturarequin irichi zuan virtute mi-

Universidad de Deusto
Biblioteca

ragarri bat; ta oraindic vici zala, ezcutatu zuan Jaunac guizonen artetic, eta gorderic dauca berac daquian gaucetaraco. Oro bat Noe Jaunaren aurrean ibiltzeco jayera onequin izan zan guizon zucen, eta Santua. (n). Oitu gaitecen bada, nere Cristauac, jayera onetara. Zabiltza nere aurrean, eta zu izango cera bear bezalacoa, esaten dio Jaunac gutatic bacoitzari, Abrahani esan cion bezala. *Ambula coram me, et esto perfectus* (o). Sarritan, ta fede viciarequin sinis dezagun Jaunaren aurrean arquitzen guerala, ta beguira dagoala, cer eguiten, cer esaten, eta cer pensatzen degun. Bera izango da egun batean testigu, ta Juez (p). Baña ez gaitecen contentu gueratu siniste utsarequin; alcha dezagun viotza sarritan beguira dagoquigun Jaungoico guztiz on, eta onguille andiagana, dala lanen bat asitzean, edo bucatzean; dala neque, edo naigaberen bat datorquigunean; dala tentacioen demboran, itz batean, sarritan, sarritan, sarritan. Jaunari nai daquiola, nere Cristauac, zuec, eta nic, jayera onetan gorderic dauden, ondasunac ez galtzea, ta oequin batean iristea betiraunde gucico gloria. Amen.

(a) Magnus est, et non habet finem, excelsus, et immensus. Baruch c. 3. (b). Excelsior Cælo est... profundior inferno... longior terra mensura ejus, et latior mari. Job. c. 11. (c). Acta Apost. c. 17. (d). Psalm. 148. (e) Eccl. 39. (f). Oculi Domini multo plus lucidiores sunt super solem, circunspicientes omnes vias hominum. Eccli 23. (g). Psalm. 138. (h). Genes. 17. (i). Videsis hæc omnia apud Alphonsum Rodriguez. (j). Genes. 39. (l). Daniel. 13. (m). Genes. 5. (n). Genes. 6. (o). Genes. 17. (p). Ego sum judex, et testis. Jerem 29.

OGUEI TA AMAZAZPIGARREN ERACUSALDIA.

Adirazten da lenengo lecuan Jauna adoratzeco degun zor andia.
Urrena Jaun berari esquerrac emateco deguna.

Dominum Deum tuum adorabis, et illi soli servies. Deuterom. 6, et Malh. 4.

Gure lan, eta eguiteco guztien artean andiena, edo obeto esateco bacar bacarra da gure Jaun Jaungoicoa ezagutzea, adoratzea, ta servitzea. *Adoratuco dezu zure Jaun Jaungoicoa, ta ura bacarric servituco dezu*, esaten zacu Escritura Santan. Alaere eguiteco au da guztien artean aztuena, ta beti gueroco utzitzen deguna! Ta gauza negargarria! Eguiteco oni venaz equiñ baño len etorri oi da eriotza, ta galtzen dira betico ecin conta al anima! Au guerta ez daquigun, eta dembora berean Jauna servitzean arquitu ditequean, neque guztia gozatzeco, ta arintzeco da, egun oroco asi degun, jayera, edo devocioa. Ongui beguiratzen badiogu jayera oni ta jayera onetaraco ipintzen diran gauzai, au da Cristauari dagocan vicitza onaren cimendua bezala; ta beragatic alic onguiena aguertzea, azaltzea, adiraztea dagocana. Jayera onen lenengo gauza da Jaunaren aurrean jartzea, edo sinistea, Jaunaren aurrean gaudela, ta beguira dagoquigula. Gai onen gañean zan aurreco dotrina. Bigarrena da Jaun bera umilqui adoratzea, ta eguin dizquigun ontarte, ta mesedeaz esquerrac ematea ta onen gañean izango da gaurco dotrina. Ecusico de-

Universidad de Deusto
Biblioteca

gu aurrena: Jauna adoratzeco degun zor andia. Ecusico degu urrena Jaun berari esquerrac emateco deguna.

Gure Jaun Jaungoicoa da gauza guztien Asiera, ta Iturburua, guztien Iraupena, ta Fiña, ta Excelencia, edo Gainde onegatic zor diogu onore, ta onraric garayena, goyena, ta andiena.Onra au ematen zayo Jaunari era ascotan, eta era oetatic batari deitzen zayo *adoracioa*. Adoratzeco guc Jauna eguiaz, eta bear dan eran, bear dira iru gauza. Lenengoa da: ezagutzea Jauna dala guztiaren Asiera; ta Iturburua, guztiaren Iraupena, ta Fiña. Baña ezagüera ecer ezta ezagüera utsean gueratzen baguera. Bigarren gauza da: viotz umill batequin aditzera eman nai izatea Jaunaren *Excelencia*, edo *Gainde* au, ta gure ecer eza, ta Jaunari zor diogun mendetasun osoa. Au da adoracioaren viotza, ta anima bezala. Atzenean viotzaren sasoi on au aditzera eman bear da gorputzaren siñaleren batequin: eguin dezagun contu auspez, edo belaunico Jaunaren aurrean jartzen guerala, edo burua macurtuaz (a). Iru siñale occ usatzen ditu Eliz Ama Santac Jauna adoratzeco, ta anciñaco Patriarcac-ere usatu cituen. Ezagutzeco orain guc Jauna adoratzeco degun zor andia, asco da beguiratzea cein dan gauza guztien Asiera, ta Iturburua? Norc gordetzen dien duen izatea gauza guztiai? Certaraco eguiñac dauden guztiac? Goacen iru gauz occ banaca ecustera.

Orain bederatzi milla urte danean Jaungoicoaz osterontzean etzan ecer-ere. Etzan Ceruric, etzan izarric, etzan eguzquiric, etzan illarguiric, etzan Ainguceruric. Etzan lurric, arriric, arbolaric, ez eta guizonic-ere, sei milla urte bezala dira alabaña guizon jaquintsuen contuetan mundu au izaten asi zala, lau milla Jesus-Cristoren jayotzaraño, eta bi millaren al-

dean Jesu-Cristo jayo zanetic gaurdaño (b). Ecer-ezaren illumbean beraz arquitzen ciran Jaincoaz osterontzeco gauza guztiac orain bederatci milla urte danean, eta gueroztic-ere. Norc atera ditu gauz oec beren ecer-ecetic? Norc eguiñac daude, galdetzen digu Isayac Profetac? (c). *Quis creavit hæc?* Norc Ceruac, izarrac, Eguzquia, ta illarguia? Norc Ainguceruac? Norc lurra; ta lurrean arquitzen diran gauzac? arrayac, egaztiac, arbolac, ganaduac, itsasoac, ibayac, iturriac, guizonac? *Quis creavit hæc?* Eguiñ, edo aguertu ote dira berenez? Baña ecer-ezac eztu al, edo escuric, eztu indar, eta quemenic ecer eguiteco. Norc bada gauza guztiac atera ditu ecer-ezaren illumbetic? *Quis creavit hæc?* Norc ezpada gure Jaun Jaungoico Gucialdunaren escuac? Gaucen asieran eguin cituan Cerua, ta lurra, ta oetan arquitzen diran gauzac, dio Moisesec (d). Guizon batetic guizonaren jatorria zabaldu du lurraren gaiñ guztian (e) dio S. Pauloc. Norc lagundu cion Jaunari gauz oec guztiac eguiten? Norc eracusi cion cer ta nola eguin, dio Isayac Profetac? *Quis adjuvit Spiritum Domini? aut quis consiliarius ejus fuit, et ostendit illi?* (f). Etzuan ez Jaunac gauz oec guztiac eguiteco nai izatea besteric bear. Esan zuan eguin bedi au, eguin bedi ura, ta bereala aguertu zan guztia eguiña. Ecusten dezu, Cristaua, cein dan gauza guztien Asiera, ta Iturburua? Ecusten dezu nola guztiac datocen gure Jaun Jaungoicoagandic?

Ta munduari, ta munduan arquitzen diran gauzai norc gordetzen ote die duen izatea? Norc ote dauca gauza guztien, eta bacoitzaren contua? Norc, eguin cituan Jaungoicoac berac baicic? Jaun onen nai, eta Letart edo Providenciaren aritic ichiquiric, eta chinchilic arquitzen dira gauza guztiac. Ecin iraun dezaquee, dan uneric, eta demboraren punturic chiquie-

Universidad de Deusto
Biblioteca

nean-ere, Jaunaren nai, eta escu indartsuac gordetzen ez dituala. Guztiac bereala biurtuco liraque anciñaco beren ecer-ezean. Argatic Jaquintsuac esaten dio Jaunari Escritura Santan: Nola ecerc-ere iraun lezaque, Jauna, zuc nai ez izatera? *Quomodo posse taliquid permanere, nisi tu voluisses?* (g). Jaunac beraz gordetzen gaitu, edo puntu oro berriro ematen digu gauza guztioi degun izatea, Jaunac dauca gauza chiqui, ta andien contua; ta Jauna da guztien iraupena.

Certaraco eguin ote cituan Jaunac mundua, ta munduco gauza guztiac? Eguin cituan Jaun beraren naya eguiteco, bacoitzac bere eran: eguin cituan beraren onra, ta gloriaraco. *Universa propter semetipsum operatus est Dominus* (h). Argatic David Santua, becatariai ez, beste gauza guztiai otsez dagote, ta deitzen die guztiai Jauna laudatzera. Deitzen die Aingueruai, eguzquiari, illarguiari, izarrai, ta oen arguiari. Deitzen die dragoyai berai, suari, abazuzari, elurrari, ta izotzari. Deitzen die mendiai, arbolai, abereai, ta egaztiai. Deitzen die guizon virtutetsu guztiai, Erregue, Principe, ta lurreco Andiai, gazteai, eta zarrai. *Hymnus omnibus Sanctis eius.* Ona, Cristaua, ona nola gure Jaun Jaungoicoa dan gauza guztien Asiera, ta Iturburua; guztien Iraupena, ta Fiña, ta ona nondic datorquigun Jaun bera adoratzeco zor andi bat.

Sinisten ditugu eguia oec! eta alaere izan guera gu, izan gueran bezalacoac? Cembat, eta cembat egun joan zaizquigu, Jaungoicoa danic-ere ongui oroitu gabe? Cembat, eta cembat dembora, Jaun oni agur umillic eguin gabe? Ta Jaunaren echean, edo Elizan bertan gaudenean-ere, contuz, eta viotz umillarequin eguin ote diozcagu, dagozcan agurrac? Cembat bider gorputzez Elizan egonagatic, gogoz,

eta viotzez Jaunagandic urruti ibilli guera? Cembat egoten dira Elizan bertan, au zabalca, erdi lo, edo naguiac ateratzen? Cembat mezataco demboran bertan zocoetan belaunicatu-ere gabe, edo gueyenaz belaun bata lurrean duela? Cembat gazte Eliz inguruan ibiltzen dira pelotan, edo bestela deadarca, Meza demboran bertan? Ta cembat bider egoten dira ostatuetan gendeac, Jaunaren alabancen demboran? Cembat emacume mezatan, edo meza ondoan erausian, asteco ipuyac, eta Jaungoicoaren echeari ongui ez dagozcan, gauzac contatuaz? Au da, nere Cristauac, gure Jaun Jaungoicoa adoratzea? Ez ote da au iseca eguitea Jaun berari? Lotsa gaitecen, nere Cristauac, onembeste gure utseguitez. Oitu gaitecen, Jauna sarritan adoratzera. Oitu gaitecen Elizan umiltasun, eta errespeto andiarequin egotera, Jaunari noicean bein agur umillac eguiñaz. Ayena bitez betico Elizaco erausiac, eta modu dongueac. Eguin becee Errico buruac, ta eracusleac dagoten eran contu, galerazteco, Jaunaren onra, alabanza, ta errespetoa guchitzen duen, oitura, ta usadio gaistoac. Onela eranzungo diogu ongui, gure Jaun Jaungoicoa adoratzeco degun, zor andiari. Goacen orain, Jaunari, eguin disquigun, eta egun oro eguiten ari zacun ontarte, ta mesedeaz, esquerrac emateco degun, beste zor, eta eguin bideari beguiratzera.

Ontarte, edo mesedeac artu dituan baten eguimbide, ta zorrac asco dira, ta oetatic bat da ontarte berac gogoan iduquitzea, ta onguilleari viotz ezagüera onez betericaco batequin esquerrac ematea. Ala eracusten digu fedearen arguiac, izan zaitezten esquer onecoac, esaten digu S. Pauloc (i). Ala eracusten digu, guizonari Jaunac eman cion, ezagüera, eta arguiac; ta ala eracusten digüe atzenean centzuric ez duen abereac, eta egaztiac berac; oroit-

Universidad de Deusto
Biblioteca

zen dira alabaña abereac beren eran, onguillearen escuac eguin cien, onaz; ta egaztiac egun oro eguantzaren zai daude beren eguille ona laudatzen asitzeco, eta esquerrac berari emateco. Ta ontarte, edo mesederen bat artu duan edoceñec esquerrac zor badiozca bere onguilleari ¿ nolacoa, ta ceiñ andia izango ote da, gure Jaun Jaungoicoari esquerrac emateco degun, Zorra? Au nolerebait ezagutzeco iru gauzari beguiratu bear diogu: Nor dan gure onguille au? Cembat eta andiagoa, goyagoa, ta arguiagoa dan alabaña onguille bat, ambat andiagoa da, ta valio gueyago du ontarte, edo mesedeac. Nor gueran gu? Ta cer ontarte, edo mesedeac eguin dizquigun onguille maitagarri onec? Iru gauz oei contuz beguiratu ezquero, erraz ezagutuco degu, ceiñ andia dan, Jaunari esquerrac emateco degun, zorra. Asi gaitecen lenengotic.

Nor ote da gure onguille au? Da onguille au Jaungoico gucialduna bera, gauza guztien Eguille, Jaun, ta jabea; beticoa, iñoren bearric ez duana, berez, eta beregan beti doatsua. Da Erregue guztien Erreguea. Da araco izate ecin gueyagoraño eder, eciñ gueyagoraño on, eta maitagarri ura, ceñaren ecertasuna ecusteac betico doatsu eguiten dituan Ceruco Aingueruac, eta anima onac ¿Ta Jaun andi onec nai izan du gure onguilletzat jarri? Jaun andi onec eguin dizquigu aimbeste on, eta mesede? Baldin gauza, berenez andiac ez diranac-ere, anditzen, ta valio goyenecora igotzen badira Erregueren escutic datozenean ¿ cer esango degu, Erregue guztien Erregueren escutic artu ditugun, ambat ontarte, ta mesedez? Ta cein andia izango da, Jaun andi oni esquerrac emateco emendic datorquigun, zorra?

Ta nor guera gu, edo cer, Jaun au era onetan guzaz oroitzeco? Cer da, Jauna, guizona, zuc aim-

besteraño guizona alchatzeco esaten dio Job Santuac Jaungoicoari. *Quid est homo, quia magnificas eum?* Cer, ezpada lurreco auts pisca bat, gorputzaren aldetic beguiratzen bazayo? Cer ezpada loyez, ciquinqueriaz, eta arrez betericaco ontzi nazcagarri bat? Ontzi bat egun oro loya sortzen duana, loya gabe ecin iraun dezaqueana? Cer, ezpada goicean jayota arratsaldeco igarturic dagoan lorea? Ta animaren aldetic begiratzen badiogu, cer da guizona, sortzen daneco Jaunaren etsayaren siñalea, edo becatu jatorrizcoa berequin dacarren, gauza besteric? Ta alaere guzaz oroitu da Jauna? Eguin dizquigu aimbeste ontarte, ta mesede?

Ta nolaco ontarte, edo mesedeac? Au ongui ezagutzeco banaca ecusi nai liraque mesede oec; baña errazago contatuco liraque itsasoan arquitzen diran ur tanta, ta are-aleac: lenago lurraren gañean diran belar, eta arbolac, Jaunaren escu onguilleac eguin dizquigun mesedeac baño. Argatic oetatic batzuei bacarric beguiratuco deguiequegu. Idiqui, ta zabaldu itzatzu bada, Cristaua, zure animaren beguiac, ta osotoro aitu ezpada zure ezagüeraren arguia ecusico dituzu, zure Jaun Jaungoicoac eguin dizquitzun, ta beti eguiten ari zatzun mesede andiac. Zure Jaun, ta onguille onec atera cinduan ecer-ezetic utziric beste ecin conta al beren ecer-ezean ¿Non ciñan oraiñ milla, oraiñ berreun, edo oraiñ eun urte? iñon-ere ez, edo ecer-ezaren illumbean? Non ciñan, esaten dizu Jaunac, non, lurraren cimenduac ezarten ni ari nintzanean? *Ubi eras, quando ponebam fundamenta terræ*? (j). Jaun onec eguin cinduan bere antzera, ta berarequin batean Ceruan vicitzeco, ta prestatu cizun Ceruco erri zoragarria. Jaun onec gordetzen du zure vicitza; ta emen vici bear dezun arteco prestatu zuan zuretzat munduco eche eder

Universidad de Deusto
Biblioteca

galant au, zuc bear dituzun gauza guztiaquin. Badira eche onetan urre-cillarrac, diamanteac, arri fiñac: badira beyac, ardiac, ta illez, edo lumaz jancric dabiltzan beste gauzac. Badira iturriac, ibayac, itsasoac, eta oetan arrayac. Ta lecu batean arquitzen ez dana, arquituco da bestean. Bearrean, edo premian arquitzen bada norbait, ori da edo ceren necatu nai ez duan, edo ceren ori dagoquion bere oneraco. Jaun au eguin zan guizon, zu becatuaren, eta etsayaren mendetic ateratzeco; eta eman zuan vicitza gurutzean. Jaun onec batayoco Sacramentuarequin quendu cizun Adanen becatuaren, edo becatu jatorrizcoaren mancha; ta eguin cinduan bere Elizaren ume, utziric beste asco fedearen arguiric ez duen gendeen artean. Jaun onec eman dizquitzu aimbeste laguntza Sacramentuen, liburu on, edo dotrinen bidez. Jaun au jarri zan aldareco Sacramentu guztiz Santuan, zure animaren janari, ta edari eguiñic zuri emateco bere gorputza, bere odola, bere anima, bere viotza, ta bere Jaungoicotasuna bera. Jaun au da atzenean zu aimbeste bider becatuan erortzetic gorde, ta, zu irintsitzeco zabalduric cegoan, infernuaren eztarritzar izugarritic atera zaituana. Itz batean ezta zure vicitzaren demboran uneric, eta punturic izan, ceñean zuc Jaun Onguille onen escutic mesede andiren bat artu ez dezun. Beti ta lecu guztietan iduqui zaitu itsasoan arraya urez inguratua dagoan eran, bere ontarte, ta mesedez alde guztietatic inguratua. Esan guidazu orain, Cristaua, baldin edoceiñ onguilleri esquerrac zor bazaizca: nolacoa izango da, gure Jaun Jaungoico, ta Onguille onen andiari esquerrac emateco degun, zorra? Alaere, gauza miragarria, ta ecusten ezpaliz, sinistu ecin litequeana! Jaunari esquerrac eman ordean, aztu guera eguin dizquigun mesedeaz! Ta aztutzea guchi baliz bezala,

mesede beraz valiatu guera Onguille maitagarriaren contra alchatceco! Atozea zu, aditzen zauden Cristaua, cembat bider begui oriez, cembat bider belarriaz, cembat bider escu-oñaz, cembat bider zure gorputzaz, cembat bider misto zorrotz orrezaz valiatu cera zure Jaun Jaungoicoaren contra becatu eguiteco? Cembat bider, Jaunac eman cizun osasuna, ichura, ta ondasunac: cembat bider Sacramentuac berac, dotrinac, eta beste gauz onac biurtu dituzu zure animaren puzoi, eta zure Onguille Andiaren contraco lanza? Au da gure Jaunari zor diogun eranzuera? *Hæccine reddis Domino, populе stulte, et insipiens?* (1). Noiz-ere bait biur gaitecen guerengana, nere Cristauac: ezagutu dezagun Jaunari esquerrac emateco degun zor andia, ta eman deguiozcagun sarritan, batez-ere goiz-arratsetan. Egunaz-ere maiz oroi gaitecen Jaun beraz, ta eguiten dizquigun mesedeaz. Onela iristeco oraindañoco esquergabequerien barcacioa, ta ongui aurrera vicitzen guerala, betico gloria. Amen.

(a) Observandum, adorationem tres actus complecti. Primo, actum intellectus, quo apprehendimus excellentiam alicujus. Secundo, actum voluntatis, quo nos illi interius inclinamur, et aliquid volumus facere actu interiore, vel exteriore, quo protestemur ejus excellentiam, et nostram subjectionem. Tertio actum exteriorem, quo caput inclinamus, vel genu flectimus, vel aliquod aliud signum subjectionis ostendimus. Ex quibus actibus secundus est maxime proprius, et essentialis; nam primus actus potest esse sine adoratione; tertius etiam cum irrisione. Bellarminus de Sanctor. Beatit. Lib. 1 cap. 12. Capitis inclinatio ussitatissima est, maxime in Sacrificio Missæ. Humi vero aliquem se prosternere ad exprimendam excellentiam Supremi Numinis antiquissimum est, uti constat ex cap. 17 Genes. Genuflexionis tandem usus constat ex Lib. 3 Regum cap. 8.

(b) Communior hæc sententia. (c) Isai. 40. (d) Genes. 1. (e). Actor. 17. (f) Isai. 40. (g). Sap. 11. [h] Prov. 16. [i]. Ad colossens. c. 3. [j] Job. c. 38. [l] Deut. 32.

OGUEI TA EMEZORTZIGARREN ERACUSALDIA,

Jaun Jaungoicoari zor diozcagun esquer on-humillen gañean.

Memento creatoris tui in diebus juventutis tuæ. Ecclesiastes 12.

Artu ditugun ontarte edo mesedeen ezagüera ona &.

Artu ditugun ontarte, edo mesedeen ezagüera ona da virtute bat Jaungoicoac berac guizonari eman ciona esquer onecoa izateco bere onguilleaquin. Virtute onen mallac dira: 1.ª gogoan iduquitzea eguin zaizquigun mesedeac. Onguilleari dagoca eguiten duan mesedeaz aztutzea, ta artzalleari beñere, ez aztutzea, esan zuan Senecac. *Hoc inter duos Beneficii lex est, alter statim oblivisci debet dati, alter accepti nunquam.* 2.ª Esquerrac ematea onguilleari. 3.ª dembora egoquia datorrenean aitortzea eguin zacun mesedea, ezagutua izan dedin onguillea. Onguilleac ez du ezquilla jotzen ibilli bear, ta era onetan ibiltzeac adirazten du ez duala mesedea eguin, lagun urcoaren onagatic, baicic beste fin zimurren bategatic, ta itsusten, ta ecer ecera biurtzen du mesedea, edo mesede izan citequean gauza; baña ontartea edo mesedea artu duanac derecha egoquia datorrenean

aitortu bear du bere onguilleac eguin dion mesedea, ta onguille beraren prestutasuna. 4.ª Onguilleari ongui nai izatea, ta al dan eran ordañtzea, edo argatic aleguiña eguitea. 5.ª Mesedeari erantzun daere, erantzun ezpalitzayo bezala, gogoan iduquitzea, ta onguilleari borondate esquerdun bat gordetzea; au da viotz prestu bati dagocan gauza.

Virtute onen contra vicioa da esquergabequeria, ta baditu onec-ere bere mallac. Lenengoa da eguin zacun mesedeaz aztutzea, ta au da ganaduac, edo centzugabeco animaliac berac eguiten ez duena. 2.en malla da esquerric ez ematea, edo esquer gaistoac ematea. Ain dira cembait gai onen gañean esquer gaistocoac, non eguiten zaten mesedo guztia ecertan ez dauqueen. 3.en malla da dembora egoquian antustez, edo soberviaz ez aitortzea artu degun mesedea. Badira onguille mota batzuec eguin dituen mesedeac, edo mesedeen iduripenac beti guztian erausitzen dituenac, baña issillic usten dituela mesede apur aen ordain artu dituen esquer onac; ta era onetan badira mesedeac artu dituenen artean batzuec ain antuste andicoac, ain arroac, non uste duen gueyegui beeratuco liraqueala eguin zainten ontarteac aitortu, ta onguillea alabatzearequin. 4.ª Artu ditugun ontarteai ez erantzutea erantzun guenezaqueela. 5.ª Gure onguilleentzat afectoric ez gordetzea. Emendic ezagutu dezaquegu mundu onetan onguille eguiazco guchi arquitzen dala, eta esquer gabez beteric daudela lecu guztiac. Ta cer izango da beguiratzen badiegu alde batetic gure onguille andi Jaun Jaungoicoac eguin dizquigun ontarteai, ta beste aldetic cer guisatan erantzun diegun ontarte oei? Ay! nere Cristauac! izanic gure Jaungoicoa gure onguille ecin andiagoa, alaere doi doya arquitzen du gure artean, eguin dizquigun ontarteaz ongui o-

roitzen danic ! Espadasunez beteric arquitzen da mundua esquergabeen contra ; baña beguiratzen badegu , cembat ontarte , ta ceñ andiac eguin dizquigun Jaunac , non arquituco degu gu gueroc baño esquergabe andiagoric? Ezagutu dezazun-bada, Cristaua, zure Jaunari zor diozuna, ta oitu zaitecen sarritan esquer on-humillac berari ematera oroi zaitez 1.ª nola ecer ecetic atera zaituan , ta certaraco. 2.ª zu jayo orduco nola prestatu cizun zure vici lecua , ta bear dezun guztia. Oroi zaitez atzena , nolaco Jauregui eder-zoragarria apaindu dizun Ceruan, munduco eche onetatic ateratzen ceraneco.

§ I.

Asi zaite , Cristaua , zure sortzearen aurreco dembora guztiai beguiraldi bat ematen , ta zuc ecusico dezu ecer ezaren illuntasunean egon cerala oraindic dembora guchi dan artean. Cer ciñan ezperen mundu au Jaunac eguin zuan arteco eternidade guztian ? ecer ez zu , ecer ez zure gurasoac , ta zure aurreco guztiac. Cer ciñan zu , ta cer guiñan gu guztioc , gure Jaungoico gauza guztien Eguille andiac mundu au eguin zuan demboran ? Ecer ez. *Non ciñan* , esaten dizu Jaunac (Ubi eras quando ponebam fundamenta terræ ? Job cap. 38». Sciebas tunc quod nasciturus esses , et numerum dierum tuorum noveras ? ibidem. *Non ciñan , lurraren cimenduac ezartzen ni ari nintzanean* ? Baciñaquian zuc orduan jayoco ciñanic , edo cembat egunean iraungo duan zure vicitzac? Cer guiñan orain lau milla , orain milla , edo orain bost eun urte-ere ? Ecer ez , etzan munduan gure berriric-ere. Cer guiñan atzenean orain eun urte danean ? Ecer-ez oraindic. Norc atera guinduan bada ecer-ezaren illumbe onetatic ? Ez

gueroc eguiaz ; ecer-ezac alabaña ez du ecer eguiteco escuric. Ez guizonac , ta ez Aingueruac-ere; oec-ere alabaña ecer-ezarequin ecin dan gauzaric chiquiena molda dezaquee ? Norc atera gaitu bada gure ecer-ezetic ? Norc ezpada gure Jaun Jaungoico gucialdunac ?

Gu gueren ecer-ezean utziric , eguin citzaquean Jaunac beste ecin conta al anima gu ez bezalacoac, ta guztiz leyalqui beren Eguille ona servituco zuenac. Ta alaere aec utzi cituan beren ecer-ezean, ta eguin guinduan gu ! Oraindic amaren sabelean sortu baño len , ezagutu cindudan , ta nere onguinai beticoarequin beguiratu , ta maite izan cindudan, esaten digu Jaunac. Jeremias, Profetari esan cion eran. *Priusquam te formarem in utero novi te* (Jerem c. 1.) *In charitate perpetua dilexi te* (cap. 31).

Ecusten dezu, Cristaua, nola oraindic orañago ecerere ez guiñan? ta gure berriric batere munduan etzan? Ecusten dezu nola ecer-ez onetatic nai izate utsarequin atera gaituan gure Jaun Jaungoicoac? Ta atera, beste ecin conta al utzitzen dituala betico beren ecer-ecean? Ta certaraco ecer-ezetic atera, ta ipiñi ote gaitu munduan gure onguille maitagarriac? Ez gaitu eguiaz emen ondasunac biltzeco ipiñi, Evangelioco aberats cuticiosoac eracusten digun bezala. Ez gaitu eguin gure gogo, ta viotzac ipintzeco munduaren atseguin loi, arrotasun, ta zoraquerietan. Ez, ez, Cristaua: gauza goyago, andiago, ta miragarriagoetaraco eguiñac guera: au da emen ezagutzeco, ta amatzeco gure Jaun Jaungoicoa, ta beraren Seme, ta gure Salvatzallea, ta guero vicitzeco beti betico atseguin contentuen artean Ceruan. Onetan dago guizonaren izate guztia, ta gure doatasuna. Izan zaitez Jaungoicoaren beldurrecoa , ta gorde itzatzu beraren aguinteac; au da alabaña guizonaren izan

guztia, esaten digu Escritura Santac. *Deum time, et mandata ejus observa: hoc est enim omnis homo.* (Ecclesiastes cap. 12).

Atozea oraiñ Cristaua, zu ecer ezetic atera, ta gauza añ andietaraco eguin zaituan zure Jaungoicoari, ez diozu zor dezun izatea, ta zu ceran, ta izan al zaitezquean guztia? Ez diozu zor sarritan beraz oroitzea, ta esquer on humillac ematea? Baña au are obeto ezagutu dezazun oroi zaitez bigarren lecuan, nola zu jayo orduco emen prestatu cizun zure Eguille onac zure vici lecua, ta vicitzeco bear dezun guztia.

§ II.

Eguin cinduan zure Jaunac emen bera ezagutzeco, amatzeco, ta beraren aguinteac gordetzeco: ta vici ceran demboraraco prestatu cizun eche edergalant bat, ta bear dezun guztia. Nai dezu ecusi nolaco echea prestatu cizun? »Zabalitzatzu bada »zure beguiac, ta beguira eguzquira, beguira illar»guira, beguira izarrez betea dagoan gañ orreta»ra: beguira-ezazu lurraren lau bazterretara: begui»ra aicera, beguira itsasora, ta alde guztietara. Or»ra zure Eguille onac zuretzat prestatu zuan eche »eder-galanta. Eche onen tellatuac, izarrez beteac »dauden Ceruac dira. Echazpia da, cere oñpean da»ducazun, mundu guztia. Pareteac elementuac dira, »ta guelac erriac. Eche onetaco criseluac, edo ar»guiac, egunaz eguzquia, ta gauaz illarguia, ta izar»rac dira. Tellatuac ez dira beñere urratzen; chu»tic daude beti pareteac, ta echeco arguia Jaungoi»coaren contura dago.»

Eche eder galant au zaitzen du beraren Eguille Jaungoicoac. Jaun andi onec airean bezala dauzca,

Isayas Profetac dionez. «eguiac, aldapac, men»diac, itsasoac, ta mundu guci gucia iru beat»zequin. Iru beatz oec dira Jaunaren Jaquiundea, »ontasuna, ta escua. Noiz, nola, ta certaco gauzac »eguin bere jaquiundeac eracutsi cion Jaungoicoa»ri. Bere ontasunac eraguin ciozcan bear zan ga»rayean; eta eguin cituan bear bezala bere escu on»guillearequin.»

»Etzan gure Jaugoicoa contentu gueratu, guretzat »eche eder galant au apainduric ipintzearequin. Ba»ciaquian Jaunac, ezurrez, ta araguiz jantziac, e»guin guin-uala, ta echeaz gañera beste gauza asco »bear guenituala. Orregatic echea eguin orduco, e»guin cituan lurpean urre cillarrac, diamanteac, ta »arri fiñac; lur gañean beyac, ardiac, eperrac, ollas»coac, ta illez, ta lumaz jantziric dabiltzan egaztiac, »ta gauzac. Eguin cituan iturriac, eguin cituan iba»yac, eguin zuan itsasoa, ta au, ta ibayac arrayez be»teac. Au guztia ecer ezpaliz bezala, eman cien gu»re Jaungoicoac lurrari, aiceari, suari, ta urari bear »adiña indar berenez, edo laguntzen zayela eguiteco »gure jan-edaneraco, soñeraco, ta beste gaucetaraco »bear degun guztia. Emen gure bazterretan arquitzen »ez diran gauzac arquitzen dira besteetan, ta andic e»cartzeco, legorrez ecartzecoac diranean, badira bi»deac, zaldiac, mandoac, edo idiac: ta itsasoz ecartze»coac diranean badira ontziac, eta ontziac. Bearrean »arquitzen bada norbait, ori izango da berac eguin »gabez eguin bear duena; edo ceren ori dan orduan »ari onguiena dagocan Ceruraco bidea.

Idiqui itzatzu bada noizbait-noizbait, Cristaua, zure beguiac, ta ecusiric zure Eguille onac zuretzat apaindu zuan eche eder galant au, ta eche onetaco gauzac, lotsa zaite, ceren Jaunaren ontarte ocz aztu, edo beraren contra becatua becatuaren gain eguite-

Universidad de Deusto
Biblioteca

co baliatu ceran. Ezagutu ezazu ongui, nolaco esquerrac zor diozcatzun.

§ III.

Etzaitecela ordea munduco eche eder oni beguira llilluraturic gueratu. Oroi zaitez erbestean vici cerala: ta erbesteturic gauden demboran onen eche eder-galanta, ta aimbeste gauza guretzat prestatu baditu gure Eguille onac ¿nolaco Jaureguia, edo vicilecua izango da Ceruco Jerusalen, ta Jaungoico beraren Erri zoragarrian guretzat prestatu duana? Ay! baña norc au adieraci? Ala ere alde onetatic cere Jaunari diozun zor andia cerbait ezagutu dezazun, Cristaua, alchaitzatzu zure beguiac Ceru orietara. Ceñ eder ematen due oriec gau argui batean izarrac beren lecuetan distiatzen, ta argui eguiten duela? Uste dezu oriec dirala Jaungoico beraren Erria? Oriec doatsuen Jaureguia? Utseguiten dezu, engañatzen cera. Ceru oriec Jaunaren vici lecuaren ataria besteric ez dira.

Zoaz bada, Cristaua, goorago, ta goorago, ta ecusico dezu Erri bat añ andi-eder-zoragarria, non gure adimentuac ecin ongui iritsi lezaquean. Ecusico dituzu Erri onen murallac, ta ez dezu jaquingo cer esan, aen edertasuna dacusazunean. Muralla oen lenengo arri errencada da jaspea, baña ez emengo jaspe illun oen antcecoa, baicic cristala bera baño garbiagoa, ta arguia igarotzen zayona. Ala dio S. Juan Evangelistac. Bigarren errencada da *Saphiro* deritzan Ceru colorecco arri eder bat, ta au ere cristalaren eran arguia. Irugarrena Chalcedoniaco arri eder baten antzecoa, au da brasa eracequia dirudiana. Laugarren errencada da esmeraldazcoa. Bostgarrena da S. Juanec *Sardonix* deitzen dion arri zuri-gorritara ematen duan bat. Seigarren arri errancada da *Sardio* deritzan beste arri eder batequicoa. Zazpigarrena da *Chrisolito* esaten zayon arria, au da urrezcoa, ta cristalac bezala argui ematen duana. Zortzigarren errencada da *berilo* deitzen dioen berdetara ematen duan arri eder bat. Bederatzigarrena da *Topacio* esaten zayon beste arri mota bat. Amargarrena errencada, S. Juanec dionez da *Chysophraso*, berdetara, ta urrecolorera ematen duana. Amaicagarren da *jacintoa*, jazmin colorecoa. Atzenean gañeco arri errencada da amethysto esaten zayon arri mota precioso bat, ta guztiac cristalaren eran argui eguiten duenac. Muralla eder onec goora duan neurria da eun, ta berrogueita lau beso. Atocea orain, Cristaua, ceñ gauz eder miragarria izango ez da Ceruco gure erria murallac onen arguiac, ederrac, ta zoragarriac diranean? Ay enc! ta au ala izanic azturic zorioneco gure erri artzaz, munduco gauza lauso, ta loyetan ondaturic bezala vici guerade! Cer da au, nere Cristauac, non da gure sinistea?

San Juan Evangelistac Ceruco erriaren murallac arri eder-preciotsu aequin eguiñac daudela, adirazten digunean, ez degu sinistu bear arrizco murallac dirala; baicic arri eder aec icendatzen dituala guri nolere bait aguertzeco ceñ miragarria dan Cerua murallaren eran inguratzen duan edertasuna.

Amabi ate ditu Erri onec: sortaldetic, edo Eguzquia sortzen dan aldetic iru: nortaldetic iru: egüerditic iru, ta eguzquia sartzen dan aldetic beste iru. Ez dira ate oec puscaz eguiñac, baicic margarita deritzan arri bat-osoarequin bacoitza, ta cristalic ederrenac, ta garbienac baño gueyago argui eguiten, ta distiatzen due. Zoaz Cristaua, zoaz gogoz, ta viotzez ate oetatic barrena. Beti zabalac daude Jaungoicoaren bildots Jesus Jaungoico-guizonaren odolean beren animac garbitu dituen guztientzat. E-

Universidad de Deusto
Biblioteca

cusico dezu erri artaco plazac, ta caleac, ta doatsuen Jaureguiac urrezcoac dirala, edo urre guztiac baño ederragoac, ta cristalic garbienac baño arguiagoac. *Platea civitatis aurum mundum, tanquam vitrum perlucidum.* Ecusico dezu Jaungoicoaren, ta Jaungoico guizon Jesus maitagrrriaren jarlecutic irteten, ta zabaltzen dala erri guztian atseguin, gusto, ta contentu guztien ibai bat, doatsu guztiac atseguiñez betetzen dituana beñere gogoan jogabe, ta beñere aspertu gabe. Ecusico dituzu ango plazaren erdian, ta ibayaren erz bietan arbola aiñ ederrac, ta aiñ ugari fruta ematen duenac, non ill oro fruta berria dacarten. Deitzen zayo arbola oni vicitzaren arbola. Asco lizaque arbola onen fruta, ta naiz ostoric chiquiena probatzea, munduan diran eritasun, ta gaiz mota guztiac; ta eriotza bera ayenatzeco. *Et folia ligni ad sanitatem gentium.* Ecusico dezu atzenean, ez dala an eguzquiaren, illarguiaren, ta izarren argui bearric: zori onecoac, edo doatsuac alabaña eguzquiaren eran argui eguingo duc, S. Matheoc dionez: ta nola argui eguingo du Jaungoicoaren Ama Virgiña guztiz Santac? nola Jaungoicoaren bildots Jesus maitagarriac? Nola atzenean Jaungoicoberaren izate ederrac? *Claritas Dei illuminavit eam.* (Videsis cap. 21 et 22 Apocalipsis.)

Ona nere, Cristaua, ona zure Eguille onac zuretzat prestatu duan jauregui ederra. Esan guidazu orain, esan guidazu arren. Cer esquerrac ez diozcagu zor onembat ontarte eguin digun gure Jaun Jaungoicoari? Nola egon algaitezque sarritan esquer umillac emangabe gure onguille andiari? Asco da gure oraindañoco zabarqueria: asco da esquergabequeriaz: oitu gaitecen goiz arratsetan Jaunari esquerrac ematera, Ceruraco bideari jarraitzera, iristeco beti iraungo duan ango vicitza doatsua. Amen.

OGUEI TA EMERETZIGARREN ERACUSALDIA.

Adirazten da lenengo lecuan gure pensamentu, itz, lan eta nequeac Jaunari esqueintzeco degun zor andia.

Bigarren lecuan, esqueintze onetatic atera ditzaquegun ondasun andiac.

Dominum Deum tuum adorabis, et illi soli servies. Deuter. 6 et Math. 4.

Gure lan, eta eguiteco guztien artean andiena, edo obeto esateco bacar bacarra da gure Jaun Jaungoicoa ezagutzea, adoratzea, ta servitzea. Adoratuco dezu zure Jaun Jaungoicoa, ta ura bacarric servituco dezu, esaten zacu Escritura Santan. Alaere eguiteco au da guztien artean aztu-ena ta beti gueroco utzitzen deguna! Ta gauza negargarria! Eguiteco oni venaz equin baño len etorri oi da eriotza, ta galtzen dira betico ecin conta al anima! Au guerta eztaquigun, eta dembora berean, Jauna servitzean arquitu ditequean, neque guztia gozatzeco, ta arintzeco da egun oroco asi degun jayera, edo devocioa. Ongui beguiratzen badiogu jayera oni, ta jayera onetaraco ipintzen diran gauzai, au da Cristauari dagocan vicitza onaren cimendua bezala; ta beragatic alic onguiena aguertzea, azaltzea, adiraztea dagocana. Jayera onen lenengo gauza da Jaunaren aurrean jartzea, edo sinistea, Jaunaren aurrean gaudela, ta beguira daoquigula. Bigarrena, Jaun bera umilqui ado-

Universidad de Deusto
Biblioteca

ratzea, ta eguin dizquigun ontarte ta mesedeaz esquerrac ematea. Oen gañean itzeguin nizuen aurreco dotrinetan. Irugarrena da gure pensamentu, itz, lan, eta nequeac Jaunari esqueiñtzea, ta au izango da gaurco dotrinaren gaya. Aditzera emango dizuet, lenengo lecuan: gure pensamentu, itz, lan, eta nequeac Jaunari esqueintzeco degun, eguimbide, ta zor andia. Bigarren lecuan, esqueintze onetatic, ongui eguiten dala, atera ditzaquegun ondasun andiac. Aditu contuz.

Ezagutzeco zuc, Cristaua, zure pensamentu, itz, lan, eta nequeac Jaunari esqueiñtzeco dezun, eguimbide, ta zor andia, ez dezu neque andiren bearric. Asco da onetaraco zuc contuz beguiratzea, norenac diran zure izatea, ta beste, becatuaz osterontzean, zuc dituzun, ta izan al ditzaquezun gauza guztiac, ta certaraco eman dizquitzun gauz oec, gauza beren Jaun, eta Jabeac. Zabal itzatzu bada, Cristaua, zure animaren beguiac, eta beguira-ezazu benic bein, norenac diran zure izatea, ta beste becatuaz osteroncean dituzun, eta izan ditzaquezun gauza guztiac. Ecusico dezu, zuc dezun guizonaren itzate ori ez dala zurea baicic zure Eguille onarena. Jaunarenac dira zure gorputza, ta gorputzaren sentiduac: Jaunarenac zure anima, ta animaren quemenac, edo *Potenciac*, oropena, adimentua, ta borondatea. Jaunarenac guera, esaten digu S. Pauloc. *Domini sumus*. Ecusico dezu, zure izate ori, iraungo badu, gauz ascoren bear dala, ta gauz oec guztiac dirala gure Jaun Jaungoicoarenac, ez zureac. Jaunarenac dira Ceru eder oriec, Jaunarenac eguzquía, illarguía, izarrac, gaua, ta eguna. Jaunarenac lurra, sua, ura, aicea. Jaunarenac egaztiac, ganaduac, arbolac, belarrac, loreac, frutac,

Jaunarenac iturriac, ibayac, itsasoac, arrayac. Zureac dira, Jauna, Ceruan, eta lurrean arquitzen diran gauza guztiac, dio Escritura Santac, *Cuncta enim, quæ in Cælo sunt, et in terra, tua sunt.*

Ecusico dezu, Ceruco atseguin-contentuen, eta erreñuaren gai izateraño goratua arquitzen bacera au dala Jaunaren ontarte, ta doai miragarri bat, Jaun berac bere ontasunez, ez zure ederra gatic eguin dizuna. Ecusico dezu, Adan gure lenvicico gurasoac galdu zuala Ceruraco escu, ta derecha au, ta galdu berequin bere ondorengo guztientzat: eta gueratu guiñala guztioc Jaungoicoaren aserre, ta madaricacioaren azpian, eta etsayaren mendean. Ecusico dezu, Jaungoicoaren semeac, guizon eguinta gurutzean vicitza ematen zuala, erosi cinduala beretzat; ta bere odol preciotsuaren costuz idiqui cituala Adanen, eta gure becatuac ichi cituen Ceruco ateac. Argatic esaten digu S. Pauloc: *etzerate, ez cerenac; erosiac cerate alabaña, ta erosiac precio andian.* Ecusico dezu, batayoco Sacramentuarequin atera zaituala Jaunac becatu jatorrizcoaren, edo originalaren loyetic; apaindu zaituala graciaren soñeco ederrarequin; eguin zaituala Jaungoico beraren Seme, Jesu-Cristoren senide, ta Ceruco erreñuaren jabegai, edo eredero. Ecusico dezu, etzerala cerez gai Ceruraco irabaciric chiquiena eguiteco, ez eta pensamentu on bat sortzeco-ere, ematen ezpadizu Jaunac onetaraco Ceruco bere lagunza, indarra, edo gracia. Ala esaten digu S. Paulo Apostoluac. Ecusico dezu atzenean, dezun gucia Jaunarena dala, ez zurea; ta cerbait izan al badezaquezu, ura guztia bear dezula Jaun beraren escutic. ¿Ta gure izatea, gure indarrac, gure gauza guztiac Jaunarenac badira, norenac, eta norentzaco izan bear due gure pensamentuac, itzac, lanac, nequeac? Baldin gauzaren jabearenac badi-

Universidad de Deusto
Biblioteca

ra gauzaren frutuac : norenac izan bear due gure lanac? Norenac, gure Jaun Jaungoicoarenac baicic? Ta ona, Cristaua, nondic datorquigun, gure pensamentu, itz, lan, eta nequeac Jaunari esqueintzeco, edo berbera dana, Jaunaren onra, ta gloriaraco eguiteco eguimbide, ta zor andia.

Eguimbide, ta zor andi au ezagatuco dezu gañera, beguiratzen badezu, certaraco eman dizquitzun Jaunac dezun izatea, ta beste gauza guztiac. Ez dizquitzu eman, Cristaua, gauz oec, cere gura, ta naicunde charrai jarraitzeco. Ez dizquitzu eman, abereac, edo centzugabeco animaliac bezala vicitzeco; baicic cere Jaun on-maitagarria ezagutzeco, amatzeco, ta zor diozun onra, ta gloria emateco Jaun berari. Gauza guztiac eguin cituan beragatic, edo bere onra, ta gloriaraco, dio Escritura Santac. *Universa propter semetipsum operatus est Dominus.* Au da onra bat Jaungoicoari bacarric gauza guztien jabe, ta fiñari bezala zor zayona. Onra bat eciñ Jaun berac-ere besterentzat utzi dezaqueana. Emendic atera-ezazu, Cristaua, cein zor andia dezun zure pensamentu, itz, lan, eta nequeac Jaunaren onra, ta gloriara zucentzeco, ta esqueintzeco. Ta oraindicere gueyago aditu nai badezu eguia onen gañean, adiezazu, ceiñ neque, ta castigu izugarriac adirazten dituan Jaunac zor oni erantzun nai ez dionarentzat. Ipiñi zuan Jaunac masti eder-bicaiñ bat, dio Isayas Profetac. Inguratu zuan masti au esiz, eta paretez. Eguin cion erdian torre bat, eta emen ipiñi cituan tolareac. Egon zan mats gozoen ustean zai, edo ichedoten; baña alferric; ceren eman etzuan mats garratz-basatiac baicic. Aserratu citzayon mastiaren jabeari, eta esan zuan: Quenduco diozcat esiac, eta pareteac; artu dezan edoceñec alduena, ta oiñpean guztia trincatu dezeen. Utzico bet etze; ezta gueya-

go iñausico, eta podatuco; ez du beregan gueyago ecusico aitzurric; ta estalico due guztia sasiac, larrac, aranzac. Aguinduco diet odeiai, ez deceela euric eguin masti esquergabe onen gañera. Mastiaren icenez aditzen da emen Israelgo gendea, baita gutatic edoceñen anima-ere. Ezpadiozcagu Jaunari esqueintzen obra onen frutu gozoac, quenduco ditu, gure animac inguratzen dituen aimbeste laguntza, dotrina, ta ejemplo on. Utzico gaitu lur, etze baten eran; igoco dira, ta estalico gaitue griña, ta pasio gaistoen larrac, sasiac, aranzac; eta ezta gugana jechico Ceruco indar, lagunza, ta gracia indartsueraguilleen inz gozoa. ¿ Asma diteque, Cristaua, pena, ta castigu izugarriagoric? Eta ez dira chiquiagoac Jesu-Cristoc aditzera ematen dituanac morroi zabarraren, eta pico alferraren hipui, edo paraboletan. Morroi zabarra bidaldu zuan bere nagusiac, irabaciraco eman cion dirua quenduric, betico su, ta garren artera. Ta pico alferrari esan cion Jesu-Cristoc. *Jayo ez dedilla igandic seculan frutaric batere.* Doi doia esan zuan au Jesu-Cristoc, igartua gueratu zan picoa. Ezagutu dezagun, nere Cristauac, obra onen frutu gozoac Jaunari esqueintzeco degun zor andia, ta izan gaitecen contuzcoac zor oni erantzutean, ala Jaunari zor diogunari, nola esqueintze onetan gorderic dauden, ondasun andiai beguiraturic. Goacen orain ondasun oen gañean itzeguitera.

Baldin guc contuz, eta bear bezala esqueitzen badiozcagu Jaunari gure pensamentuac, itzac, lan, eta nequeac; baldin gure asmo, ta intencio ona berrituaz, Jaunari agradatzeco, edo Jaunaren onra, ta gloria-

Universidad de Deusto
Biblioteca

raco zucentzen , eta eguiten baditugu gure lanac; andiac dira , ta ugariac Cristauarentzat onetan gorderic dauden ondasunac , eta irabaciac. Baña gauza negargarria da gai onetan degun zabarqueria , ta arretaren falta. Batzuec eztaquie nola , ta cein aisa esqueñi deguiozqueen bere nequeac Jaunari ; besteac jaquinda-ere , ez due ecertan artzen lan au ; ta onela galtzen ditue nortaqui cer ondasunac. Enzun ezazu, Cristaua , zure lanen esqueintze au nola eguin bear dezun ; ta au ecusi ondoan ecusico ditugu onetan zuretzat dauden ondasun andiac.

Esnatzen gueranean , nere Cristauac , gure lembicico pensamentua , lembicico viotzaren muguimentua, ta aoco itza zucendu bear degu Jaungoicoganonz; jauntzi bear degu honestidadearequin , esaten ditugula bitartean *Aita gurea* , *Ave Maria* , *Salvea*, edo beste oracioren batzuec. Zor diozcagu Jaunari gure viotz guztia, ta viotzaren afecto guztiac , baña gueyena agradatzen zaizcanac dira lenengoac. Ene seme, esaten digu esnatzen gueranetic , indazu viotz ori. *Fili, præbe mihi cor tuum.* Eztaquizu , ó guizona, zure viotz , eta miñgañaren premiciac, edo lenengo frutuac egun oro zor diozcatzula zure Jaungoicoari? *An nescis, ó homo , quod primitias tui cordis , ac vocis quotidie Deo debeas* ? Au eguin ordean , esnatu orduco gogoz , eta viotzez joaten baguera munduco arazoetara , edo are gaistoago dana gosarian , edo anima loitzeco diran gauzetan pensatzera : au izango da, Jaunari esqueñi bear diogun viotza , aurrena munduari esqueintzea , ta munduaren barautsez loitzea, ta ciquintzea. Au izango da ganadu beltzen eran, esnatu orduco ascara beguiratzea, edo ciquinquerietan muturca asitzea. *Oculos suos statuerunt declinare in terram.* Contu andia ipiñi bear degu bada , nere Cristauac , esnatzen gueranetic viotza , ta pensamentua Jaunagana alchatzean , baldin Jaunari agradatzea nai badegu. Lenengo pensamentua , lenengo viotzaren muguimentua , lenengo itza izan bedi Jaunaren alabanza, esaten digu S. Lorenzo Justinianoc. *Prima cogitatio , primus affectus , prima vox divinam resonet laudem.* Au eguin ondoan jarri bear degu Jaunaren aurrean, adoratu ta esquerrac eman bear diozcagu eguin dizquigun ontarte , ta mesedeaz; ta esquiñi egun guztico pensamentuac , itzac , lan , eta nequeac , ez nola nai , baicic Jauna amatzeco , Jaunari agradatzeco intencioarequin , edo berbera dana Jaunaren onra , ta gloriaraco. Eta nola Jaunaren graciaren, eta caridadearen vicitza gauza bearra dan, gure nequeac Ceruraco irabaciac izan ditecen, gauz ona izango da caridade , ta contriciozco afectoac eguitea ; ta onetaraco lagunduco due jayera onetan ipiñiric dauden fede , esperanza , caridade , ta contriciozco actoac. Atzenean gauz ona da gure lan guztiac Jaunari esqueintzea Jesu-Cristoren irabaci guztiaquin ; eta bere Aitari cion amorio baztergabeco arequin betean. Argatic esaten digu S. Paulo Apostoluac : eguiten dezuen gucia , dala itzez , dala lanez, guztia eguizue Jesu-Cristo gure Jaunaren icenean. *Omnia quœcumque facitis in verbo , aut in opere, omnia in nomine Domini nostri Jesuchti. facite.* Era onetan gure lan, eta nequeac, berunezcoac dirudiela-ere, urre eder biurtzen dira , alchatzen dira asco, eta distiatzen due era miragarrian Jaunaren beguietan. Atocea, Cristaua, baldin zuc erosi al bacentzaque aitzur bat, colpe bacoitzean ucuitzen duan guztia, dala arria, dala lurra , urre , edo cillar biurtzen duana ; ¿ cer eguin edo emango etzenduque, aitzur ura iristeagatic ? Salduco cinduque dituzun gauza guciac , eta etziñaque gueratuco ura ceretu artean. Ongui : ta zure pensamentu , itz , lan , eta neque guztiac biur-

tu baditzaquezu Ceruraco irabacien urre eder-distiatzallean; ta au zure lanac Jaunari , Jaun beraren onra , ta gloriaraco , Jesu-Cristoren merecimentuaquin batean esqueintze utsarequin : ¿nolaco arreta , ta contuarequin equin bear ez diozu jayera oni ? Ona nola esqueñi bear diozcatzun goicetic Jaunari egun guztico zure pensamentuac , itzac eta nequeac. Ezta eguiaz arazo , ta neque andia lan au eguitea; ezdu escatzen jaquiunde andiric ; bacar bacarric esque du viotz ona , ta arreta pisca bat. Baña cembatere neque guchico eguitecoa dan , contuz eguiten dala , berequin dacarci ondasun andi-ugariac , eta frutu miragarriac.

Frutu oetatic bata da egun guztico lanac, eta eguitecoac bacoitza bere demboran, eta bear dan eran eguitea, baldin goicetic venaz, eta viotzetic asmoac artzen badira Jaunaren amorioz, eta beraren gloriaraco egun guztico nequeac eguiteco. Guizon jaquiunde, ta virtute andicoac goicetic eguiten due egun guztico lanen traza, ta aututzen due bacoitzarentzat dembora egoquia. Baña Cristauric gueyenac zabartzen dira onetan, eta galtzen ditue, gauzac bear dan eran eguin gabez, ondasun andiac. Bigarren frutua da; goiceco Demonioari viotzaren ateac ichitzea. Beti ernai, ta gure inguruan dabill gure etsai amorratua leoi aserre baten eran, gu becatuan amilderazteco derecharen billa, S. Pedro Apostoluac adirazten digun bezala; baña bere sareac, lazoac, eta bizcac prestatu oi ditu conturic andienarequin, esnatzean, jan ondoan, eta lotaracoan. Bada gure etsayen artean bat gu esnatzen gueraneco *aurrera bidaldua, edo Precursorea*, dio S. Juan Climacoc: ta onec bere aleguin guztiac ipintzen ditu gure lembicico pensamentua loitzeco, eta Jaungoicoagandic viotzari alderaguiteco. Batzuetan esnatzen gueran

baño len prestatuco ditu ames gaistoac, esnatzean zabartu ote gaitezquean; besteetan sayatuco da, bereala oroi erazteco echeco arazoaz, edo munduco choraqueriaz, lagun urcoac eguin dizquigun charqueriaz, edo beste onelaco gauzaz. Baña zuc, Cristaua, ichico diozcatzu etsayari viotzaren ateac, baldin jayera onetan eracusten dan bezala, oitutzen bacera, esnatzen ceranean bereala Jaunari beguiratzera, beragana viotza jasotzera, ta oracioren batzuec esanaz honestidadearequin jauntzitzera. Au eguin gabez cembat calte ote dator animetara? Cembat, eta cembat, bear ez diran, edo esan-ere ecin ditezquean, gaucetan esnatzen diranetic asitzen dira gogoa, ta viotza loitzen, ciquintzen, lardatzen ? Cembat... Baña ez goacen aurrerago. Jaunari goicetic gure viotzac, eta lan guztiac esquincetic datorren irugarren frutua da gure becatuai dagozten pena, ta nequeac guchitzea, edo osotoro barcatuac gueratzea. Laugarren frutua da egun guztian eguiten diran lan guztiac, andiac, eta chiquiac, Ceruraco irabaciac izatea; baldin Jaunaren gracian arquitzen baguera, ta badirau, goicean artu dan, asmo, ta intencio onac. Ez dio gure Jaun Jaungoicoac aimbeste beguiratzen esqueintzen zayon, doay, edo gauzari, nola borondateari, ta borondatea da Jaunaren aurrean gure irabaciaren neurria, esan zuan S. Ambrosioc. Bostgarren frutua da: gauza berenez ez onac, eta ez gaistoac diranetan-ere Ceruraco irabaciac eguitea, baldin *ongui*, ta fiñ onarequin eguiten badira, ta dembora berean badiraue goiceco asmo, eta intencio onac. Emendic atera ezazu, aitzurrean, arean, ardatzean aritzea, oguia eguitea, jatea, edatea, ta beste onelaco gauzac izango dirala Ceruraco irabaciac, edo merecimentuac, baldin gauz oec goicetic esqueñi badiozcatzu Jaunari beraren onra,

Universidad de Deusto
Biblioteca

ta gloriaraco, ta intencio onec dirauela; ongui, ta bear dan iñarequin eguiten badituzu. Naiz jaten dezuela, naiz edaten, edo beste edoceñ gauza eguiten, eguizue gucia Jaungoicoaren gloriaraco, esaten digu S. Paulo Apostoluac. *Sive manducatis, sive bibitis, sive aliud quid facitis, omnia in gloriam Dei facite.* Baña contu emen; gauz oec nola diran jatea, edatea, ibiltzea, ta beste onelacoac, eguiten badira gaizqui, eguin dezagun contu bear ez dan demboran, edo neurrian, edo gueren naicnnde charrai atseguin eguiteagatic, orduan gauz oec ez dira ongui eguiñac, eta onac, baicic alferrac, errenac, gaistoac; eta beragatic ez dira gay Jaunari onra, ta gloria ematceco, ta Ceruraco irabaciac izateco. Aizenean Jaunari goicetic gure viotzac, eta lan guztiac esqueincetic datorren frutu gozoa da viotzeco paquea, ta uste, ta confianza andia bere Jaunagan. Paqueatsua da Jaungoicoa, dio S. Bernardoc, ta gure lanetan berari beguiratzea asco da viotza paquetan, eta esnetan bezala gueratzeco. *Tranquillus Deus, tranquilla omnia, et ipsum aspicere quiescere est.*

Ecusten dezu oraiñ, Cristaua, ceiñ ondasun andiac dauden Jaunari gure lan, ete nequeac esqueincean? Ecusten dezu, ceñ aisa eguin ditzaquean Ceruraco irabaci andiac Cristau ezjaquiñenac-ere? Florenciaco mendietan vici zan eremutar batez dioe guizon jaquintsu ascoc, gogora citzayola mundu guztian ciran, anima onen artean bera onena óte zan? Jachi zaite, esan cion Jaunac, Florenciara, eta zuc arquituco dezu an Pedro deritzan zurradore bat zu baño aseoz obea. Jachi zan Jaunac esan cion bezala, arquitu zuan Pedro, eta galdetu cion. Atozea, cer harau ateratzen dituzu? Cer cilicio daramazquizu cere gorputzean? Cembat ordu igarotzen dituzu egun oro oracioan? Eranzun cion Pedro zurradoreac:

Ez dei nic gauz orietatic batere eguiten. Nic eguiten dedana da goicean jeiquita bereala belaunico jartzea, esquerrac Jaunari viotz osoz ematea eguin dizquidan mesede guztiaz, eta ceren egun au eman didan. Guero esqueintzen diot nere viotza osotoro egun guztico nere pensamentu, itz, eta lan guztiaquin batean, Jaun bera gauz oetaco bacoitzean aleguiñean amatzeco, ta berari agradatzeco deseoarequin. Au eguinda bereala equiten diot nere nequeari. Au adituric, ezagutu zuan gure penitente eremutarrac Pedro zurradorearen virtute andia, ta etorri citzayon gogoracioaren choraqueria. Aditzen dezu, Cristaua? Equin bada gogotic, equin venaz, eta viotzetic jayera oni. Ezta, ez, Indietaco bazterretan arquitzen cillar, urre, edo diamanteen meatze aiñ aberats, aiñ ugari, ta valiotsuric, nola dan guri gure Jaun onac egun oroco lanetan utzi digun meatzea. Jaunari nai daquiola, egui au gure gogoviotzetan ongui sarturic gueratzea, ta eguia onec eracusten diguna contuz guc eguitea. Onela eguingo ditugu egun oro Ceruraco irabaci andiac, eta iritsico degu atzenean ango betico gloria. Amen.



Universidad de Deusto
Biblioteca

BERROGUEI GARREN ERACUSALDIA.

ORDIQUERIAREN GAÑEAN.

Sicut in die honesté ambulemus, non in commesationibus, et ebrietatibus, Roman. 13

Galde eguin bide cioen bein norbaiti, zar batentzat cer gauza ciran onenac? Erantzun zuan: ardo gozoa, Jaungoicoaren itza, ta conciencia garbia: iru gauz oec baña cer gauz obeagoric, ta gozoagoric izan diteque. *Dulce merum, verbum Domini, mens conscia recti. Quid tribus his senibus dulcius esse potest?* Ederqui esana, nere Cristauac. Escritura Santac berac esaten digu: ardoac, ta musicac poztutzen du guizonaren viotza. *Vinum et musica lætificat cor*, au bera dio David Santuac-ere, *Vinum lætificat cor hominis.* Ecusico dezue, ta ecusi-ere dezue iñoiz guizon adiñean sartu bat bere neque, quezca, ta eguin bearraquin moteldua, ta illundua, ta ardo guchi batequin aztutzen zaizcala bere nequeac, ayenatzen illuntasunac, ta jartzen dala gogotsuago nequeari equiteco, baita Jauncoicoaren gauzetaraco-ere. Argatic zarrentzat, ta cerbait eri diranentzat ardoa modu onean edatea gauza ona da. Ez oraindic uric edan: edan-ezazu ardo guchi bat, zure estomagoari, ta zure eritasunai beguiraturic, esaten dio S. Pablo Apostoluac bere Timoteori carta batean. *Noli adhuc aquam bibere, sed modico vino utere propter sthomacum tuum, et propter frequentes tuas infirmitates* (1 ad Timoth. c. 5).

Izanic ardoa berez ain gauz ona, ta gure onerako gure Jaungoicoac utzia, norc sinits cezaquean au gure animen puzoi biurtuco guenduala? Etzan erraz sinistea, baña guertatzen dana da ardoaz valiatzea guizona bere osasuna, bere anima, ta bere Jaungoicoa galtzeco, aztutzen dala bere Jaungoicoaz, ta Jaungoicoaren lecuan adoratzen duala bere ordiqueriarequin ardoa, edo onen ordeco beste edariren bat. Anciñaco demboran Españian ez omen zan testigotzat artzen orditzea guertatu citzayonic, Aita Lohner jaquintsuac esaten digunez. *Hispani ne in testem quidem admittunt illum, qui semel ebrius extiterit.* (Verb. Ebrietas). Ain gauz itsusia, ain gauza nazcagarria zan orduan ordiqueria. Baña egungo egunean zabalduric ecusten degu miñantze lotsagarri au zarretan, ta gaztectan, itsatsiric azquenean emacumezco cembaiti-ere. Griña lotsagarri au artzen duenac ez oi due ecertan artu becatu au, ezauzi eguiten due iñoiz Predicadore-ren batec deadarren batzuec eguiten baditu gauz onen gañean. Onela vici dira guerotic guerora gueyago gogortuaz beren becatuan, ta beti illac, ta gortuac Jaunaren itzac mella eguiteco: beren gogo, ta viotz guciarequin daude beren cutun, ta adisquide laztan ardoagan: oni bialtzen diozque beren neque guciac, oni beren ansia, ta suspirioac: oni incensu guciac.

S. Agustin gloriatsuac esaten digu: onela edanean igarotzen, ta orditzen dira guizonac, ceren uste duen ordiqueria edo gaitz chiquia, edo ez chiquia, ta ez andia dala; baña contu estua eman bearrac dira Apaizac uste gaizto onezaz, dio Santuac, baldin beti, ta gueratu-gabe aditzera ematen ari ezpadira beren contuco animai, cer gaitzac, ta calteac, ta cein andiac jayotzen dirau ordiqueriatic. *Tanta infelicitate se inebriant homines, quia putant ebrietatem aut*

Universidad de Deusto
Biblioteca

parvum, aut mullum esse peccatum. Sed pro ista ignorantia maxime Sacerdotes in die judicii redituri sunt rationem, si commissis sibi populis, quæ, l quanta mala de ebrietate nascantur asidué noluerint prædicare. (Serm. 232). Griña onen mendean vici diranac ongui ecusi dececn beren vicitza, ta ecusiric artu deceen Jaunaren Legueac aguertzen digun bidea, gai onen gañean itzeguingo dizuet gaur... Itzeguingo det garbiro, baña ez uste izan itzeguiten dedala urliagatic, ta sandiagatic, cembait misto gaiztoc erausi oi duen eran: baicican itzeguingo det becatu onetan erori diranac jeiqui ditezen, ta chutic daudenac erori ez ditecen. Aurrena ecusico degu *cer dan orditzea*, ta au ecusi ondoan ecusico ditugu edanean igarotzeco *macurtasunetic jayotzen diran ondoren gaisto, ta calte andiac.* Aditu arren contuz.

§ I.

Santo Tomas Doctore Aingueruac, ta onequin guizon jaquintsu guciac eracusten duenaz orditzea da Jaungoicoac bacoitzari eman dion ezagüera galtzea bere nayez, ta cer eguiten duan daquiala. *In eo quod homo sciens, et volens privat se ussu rationis.* 2. 2.æ q. 150. Becatu au berez becatu larria, ta mortala da. Au sinistu nai ez padezu becataria adiezazu cer dion Isayas Profetac. Ay! zuec ordiqueriari jarraitzera goiccan jeiquitzen ceratenac, deadar eguiten du Profet onec, ta ay! onequin aditzera ematen du gaistaqueria au dala becatu andia, ta becatu berequin betico su, eta garrac dacaizquiana. *Væ qui consurgitis mane ad ebrietatem sectandam.* c. 5. Adiezazu S. Pablo Apostolua, onec esaten dizu ez duela ordiac cer eguiñic izango Ceruco Erreñuan. *Neque ebriosi regnum Dei possidebunt.* Emendic, uste duanac, esa-

ten du S. Agustiñec, uste duanac orditzea becatu chiquia dala, ezpadu beste vicimoduric artzen, ta orditzeaz penitencia eguiten, betico neque-pena, ta betico su, ta garren artean egon bearra da onelacoa besteren guizon, edo emaztearequin becatura cirana-quin batean, ta eralleen artean. *Qui credit ebrietatem esse parvum peccatum, si se non emendaverit, et pro ipsa ebrietate pœnitentiam non egerit, cum adulteris, et homicidis æterna illum pœna cruciabit.* serm. 232

Ordiqueriaco becatu onetan erortzen dira 1.ª ardoarequin, sagardo, mistela, ta edoceñ edarirequin morscortzen diranac ta orobat beren nayez tabacoarequin ezagüera galtzen duenac ere. (Vide super hoc disputatiunculam post doctrinam n. 1.) 2.ª ardoa, sagardoa, ta beste edariac ematen dieztezenac ordico dirala ezagutzen diranai. Bear bada usteco dezue estu itzeguiten dedala gai onetan, baña zaute jaquiñean au dala jaquintsu gucien iritzia S. Tomasequin batean. (Vide 2 notam). Eguia da, edaria saltzen duanari calte andiren bat etorri bear bazayo edaria ucatzetic, eguin dezagun contu vicitza, edo osasuna galtzea, edo beste calte andiren bat orduan ez-dala becatu edaria ematea ordico diranai-ere: baña esatea *guchi bestela salduco lizaqueala: beste lecuren batean joango, ta an arrapaluco luqueela: erriertan, ta erausian eguingo luqueela*, au da nere Cristauac aitzaquiac, ta apucoac billatzea Jaincoaren leguearen contra. *Guchi salduco lizaque bestela?* ta zuc orizan dezaquezun irabaci pisca orregatic nai dezu lagun urcoaren anima galtzea? Irabaciaren ona lagun urcoaren animaren costuco irabacia. *Beste lecuren batera joango liraque? ta an orobat ordico liraque?* Nondic daquizu zuc? Zuc eguizu Jaunaren legueac aguintzen dizuna, ta bestec gaizqui eguiten badu, ez dizu aren gaizquiaz Jaunac conturic escatuco. *Errier-*

Universidad de Deusto
Biblioteca

tan asico liraque, iñorc ez luque burutuco. Ain beldurtia cera erriertaren? ain icacorra? Atozea contuan guchiago ematen badizue, edo pagatu nai ezpadizue eman dezun edaria, ez diezu escatzen, naiz errierta eguin dezeela? Bai noasqui: ongui; ta champon bat, edo lau cuarto-gatic jassotzen badezu edaten duenen erausia, ta errierta, atozea ta ez dezu jasoco lagun urcoaren anima ez galtzeagatic?

Irugarrena: Becatu onetan erortzen dira lagun urcoari orditzeco bidea ematen dioenac. Ecusten dezu zure adisquide bat Tolosan, errian, edo edoceñ lecutan nai adiña cargarequin, ta bide zabalac-ere estu asco dituala: ta mesede andiren bat eguiten bacenio bezala asitzen zatzaizca convidatu bearrean: *primo, cuñado, vecino, hermano cer dioe arreoc, ta edercoc?* Atoz edan dezagun aen *osasunara quartillu bat.* Badaramazu guisa onetan edatera, ta len erdi galdua bazegoan uzten dezu guero osotoro galduric. Eguiten dezu becatu larria, nere Cristaua, ceren quentzen diozun zure lagun urcoari bere animaco vicitza. Ecusten dezu beste adisquidea onguicho jarria, esan oi dan bezala, ta osotoro galtzeco ez duala ascoren bearric izango: ezagutzen dezu brindisca asitzen bazatzaizca erantzun naico dizula basoa jasotzeco quemena duan artean, ta au gucia dacusazularic arizatzaizca brindisca: *Brindo pariente, señor vecino, Alcalde, Regidor,* ta beste tristea zuri erantzun bearric zabaltzen da gucia. Eguiten dezu becatu, ceren lagun urcoa beartzen dezun bere anima galtzera. Medicu jaquintsuren batec brindisetan edaten diran osasuna oen gañean ederqui esan bide zuen. *Quo tibi potarum plus est in ventre salutum. Hoc minus á potis hisce salutis habes.* Cembat eta zure sabelean edandaco osasuna gueyago diran, ambat osasuna guchiago izango da zugan,

esan nai du. Onela bere lagun urcoa beartzen duanagatic dio guisa onetan S. Agustiñec: *Lagun* urcoa beartzen duanac bear baño gueyago edatera, ta onela orditzera, etzion ez aimbeste calte eguingo ezpata batequin eritzearequin nola eguiten dion ordiqueriaren becatuz anima *iltzearequin. Qui alterum cogit: ut se plus quam opus est bibendo inebriet, minus malum ei erat, si carnem ejus vulneraret gladio, quam si animam ejus per ebrietatem necaret.* (serm. 231 de temp). Beste batzuec eman oi dioe lagun urcoari edanean igarotzeco bidea edo zoraqueriaren batzuec ecusteagatic, edo aditzeagatic, edo beren bizarrotasuna aguertu bearrean. Au guerta diteque edoceñ demboraz, baña batez-ere egur zaleac diraneac, festa demboran, edo iñuterian. Ea! ta guizonaren doacabetasuna, dio S. Agustiñec: cembat dira edale, ta lujuriosoac bear baño gueyago edatera beartzen dituenac, ta ateetan esque daudenai baso bat-ere ematea gogoraco etzatenac! *Eh! infelicitas generis humani! Quam multi inveniuntur, qui ebriosos, et luxuriosos amplius quam oportet cogunt bibere, et ante ostium pauperibus petentibus vel unum calicem disimulant dare! ibidem.* Atzenean becatu mota onetan erortzen dira cembait jocalari, ta tratuguille, eguiten duela aleguiña laguna orditzeco, onela zabar-erazteco jocoan, edo tratua merqueago eraguiteco

Edanean igarotze au becatu larria izateco bear dira iru gauza. Lenengoa da ezagutzea batec cer eguiten duan, ta ezagüera onequin cenzua galtzeco perillean jartzea. 2.ª bere nayez ezagüera galtzea, edo galtzeco perillean jartzea. Bi gauz oec chit ederqui oi duan bezala aditzera ematen ditu S. Tomas Aingueruac. Iru guisatan guertatzen da orditzea, dio Santuac. *Tripliciter contingit ebrietas.* Lem-

Universidad de Deusto
Biblioteca

bicia guerta diteque ez ezagutzea batec gueyegui edaten duanic, ez eta edaten duanac orditzeco-diña indar duanic-ere, ta ustecabean ezagüera galtzea, ta onela orditzea izan diteque becaturic-gabe, dio S. Tomasec. *Et sic ebrietas potest esse sine pecato.* Ala guertatu citzayon Noe guizon Jaungoicoaren adisquide andiari. Gañera guerta diteque batec ezagutzea *bear baño cerbait* gueiseago edaten duala, baña uste ez izatea edaten duana orditzeco diña dala, ta onela orditzea izan diteque, dio Santuac, becatu venial utsarequin. *Et sic ebrietas potest esse cum peccato veniali.* Atzenean guerta diteque, guertatzen dan bezala, ezagutzea batec gueyegui, ta orditzeco diña edaten duala, ta ezagüera onequin edaten aritzea, ta onela orditzea, edo orditzeco perillean jartzea da becatu larria, edo mortala dio Santuac berac: onela alabaña galtzen du batec bere ezagüera bere nayez, ta cer eguiten duan daquiala. *Et sic ebrietas est peccatum mortale, quia secundum hoc homo volens, et sciens privat se ussu rationis.* (2.ª 2.æ q. 150).

Vitor, esango due oraiñ edaneraco oitura duenac, nere gaistaqueria gucia au da, ez det ecer ostutzen: ez iñor iltzen; jaquiña da nere becatua, ta au ur bedeicatuac daramana; ni alabaña ez naiz nere nayez seculan orditu; galanqui edatea nai izan det, baña orditzeric ez. Ona etsayaren engañio anima galgarria. Nere Cristaua, edaneraco oitura ez duan bati, edariaren berriric ez duan bati guerta daquiqueo orditzea ustecabean, ta bere vorondatearen contra, Noeri bezala, baña ordiari? ez, gueyenean beintzat: onelacoa orditzen bada orditzen da bere nayez, ta orditzen da cer eguiten duan daquiala, badaqui alabaña lenago cer guertatu zayon, ta jaquin bear du guchi bat gora bera aurrera cer guertatuco zayon. Ecin izan diteque maiz orditzea bat, ta ez orditzea bere nayez, ta cer eguiten duan daquiala, esaten du S. Tomasec. *Non potest esse quod homo asidue inebrietur, quin sciens, et volens ebrietatem incurrat.*

Edanean igarotzea becatu larri, edo mortala izateco orditzeac bear du izan osoac, au da osotoro ordi bear da, edo osotoro orditzeco perillean jarri bear da. Noiz dan ordiqueria osoa, noiz bitartecoa, edo erdimerdi esaten zayona ez da beti erraz ezagutzen. Edaten dezu onguicho, ta jartzen iztun, edo mututuric; edo mingaña asitzen zatzu tillipillit, tillipillit eguiten dizula olio gueyeguiarequin: belaunac jartzen zaizquitzu cargapean dardaraz, iduritzen zatzu bat bi, lurra, ta echeac muguitzen dirala uste dezu: aldescoan gabiltza. Edan da eguin dituzu, edo esan edan gabe zaudenean eguin, edo esan ez oi dituzun gauz loiren batzuec: etzera oroitzen norequin egon ciñan, non, ta nola: etzera oroitzen cer esan, cer eguin, ta nola echera ciñan? Arrasto oetatic atera ditequeala, dioe Doctoreac, otso zarra, edo otsacumea zan. (Vide notam 3). Baña emen, emen ongui gogoan artu bear didazue gauza bat: naiz ordiqueria ez osoa izan, baldin edaneraco macurtasun, ta oitura orretatic calte andiren bat badatorquizu zuri, edo zure emazteari, edo umeai, edo beste lagun urcoren bati dala osasunan, dala animan, edo ondasunetan, orduan oitura ori calte oec gatic izango da becatu larria. Argatic oitura onen mendean jartzen diranac gueyenac vici dira becatu larrian, vici dira confesio onic eguin gabe, ta atzenean Sacramenturic ezin artu dezaqueen bezala, griña onetatic jayotzen diran calteacgatic.

Universidad de Deusto
Biblioteca

§ II.

Ecusiric cer dan orditzea, ongui ezagutzeco cein lotsagarria dan ordiqueriaren griña, ecusi bear guinduque onen ume onac, edo garbiroago esateco edaneraco macurtasunetic jayotzen diran ondoren gaisto, ta calte arrigarriac. Edaneraco macurtasunetic jayotzen dan *aurreneco calte*, ta ondoren gaistoa da Jaungoicoac guizonari eman cion bere antz, ta imagiña ederra illunduric, itsusturic, loituric, ta ciquinduric uztea. Fedeac eracusten digun gauza da, guizona eguin zuala bere Eguille andi, ta Jaungoico onac bere antzera: eguin dezagun, esan zuan Trinidade guciz Santac, guizona gure antzera. *Faciamus hominem ad imaginem, et similitudinem nostram.* Argatic eman cizun zuri, becataria, cere animan escu-indarra gauz on asco eguiteco: eman cizun adimentua ona, ta gaitza, ta cere Eguille ona ezagutzeco: eman cizun oroipena beraz oroitzeco, ta vorondatea bera maite izateco. Onela ipiñi cinduan bere antz, ta imagiña eder eguiñic. Ongui: ta non da Jaincoaren antz, ta imagiña eder au edanarequin galtzen ceranean? non da gauz onetaraco escu-indarura? non ezagüera? non oroipena? ta non vorondatea? ez da ya ezagun Jaunaren antz, ta imagiña ederra, ta ez da ezagun centzugabeco animalien arteco ceran, edo ez. Esazu, ó guizona, dio S. Basisilioc, cer gauzatan centzu gabeco animalien goitic ipiñia ceran? etzera arquitzen centzuric ez duen gucien gañetic gauza gucien Eguille andiagandic artu cenduan ezagüeraren doayarequin, etzera arquitzen gucien jabe, ta aguintari eguiñic? Baña zure ezagüeraren doai, ta argui au galduric cere ordiqueriarequin, ongui conta zaitezque centzugabeco animalien

artean, ta aen antzeco idurin dezaquezu. *Qua in re, homo miser, á brutis differs? nonne rationis munere, quam á Deo omnium Conditore accepisti, reliquæ creaturæ factus Dominus, et imperator? hoc igitur te mentis lumine per ebrietatem privans inter bestias ratione carentes numerari poteris et illis similis videri.* (D. Basil. Homil. inebrietatem). S. Juan Crisostomoc dio centzugabeco animaliac baña ere gaiztoago biurtzen dala guizona ordiqueriarequin cembatez obea da astoa guizon ordia baño, cembatez zacurra? Centzuric ez duen animalia guciac asco duen janariaz, ta edariaz gañera ez dira igaroco, naiz milla guizonec onetaraco tenta ditzala. Centzugabeco animaliac baña-ere bada gaistoagoac cerate zuec edanean igarotzen ceratenac, dio Santuac. *Quanto melior asinus ebrioso est? quanto canis præstantior? omnes certé animantes quæ rationis expertes sunt, cum bibunt, aut comedunt, ultra quam satis est, etiamsi mille homines cogerent, nunquam elabuntur: pejores igitur irrationabilibus vos estis, qui inebriamini.* (Homil. 58 in Math). Orobat esaten du S. Agustin gloriosoac (serm. 231.) Emen ongui gogora ecarri, ongui ezagutu ezazu, Cristaua, orditzearequin cere Jaungoicoari eguiten diozun bidegabe icaragarria. Esan guidazu baldin gure Erregue Jaunaren antz, ta imagiña bat ecusico bacendu norc-ere bait oiñ pean darabillela, ta loiez, edo chistuz loitzen, da ciquintzen cer esango cenduque? Bidegabe icaragarria Erregueri eguiten zayola esango cenduque, ta pena andia dagocana. Cer izango da Trinidade guztiz Santaren antz, ta imagiña ederra zuc edanarequin ipintten dezun eran ipintzea? gucia loitua, illundua, ciquindua, ta centzugabe animalien antz eguiñic? Edaneraco oitura, ta macurtasunetic jayotzen dan 2.ren ondoren gaizto, ta caltea da osasunaren, ta bear bada vicitzaren galtzea. Edanean igarotzea osasunaren

Universidad de Deusto
Biblioteca

galgarria dala, esaten du Hipocrates, Medicinaren Gurasoac. Espiritu Santuac berac dio, asco bucatu dirala edan gueyeguiarequin. *Propter crapulam multi obierunt.* (Eccl. 37). S. Juan Crisostomoc dio, edaneraco macurtasun onetatic jayotzen dirala gaiz senda ecin ditezqueanac, edo sendatzen chit gaitzac diranac, eta ezpaliz infernuric–ere dacaizquian eritasunac-gatic berac–gatic utzi bear lizaqueala. *Etiamsi nulla esset gehena, nullumve aliud incommodum propter morbos, merito esset fugienda.* (D. Chrisost. hom. contra crapul. t. 5). Atocea, Cristaua, cembat bider aditzen dezun eguia au ceregan ezagutu dezu? astean cere nequean ari cerala ongui arquitzen cera, azcar edocein gauzataraco, baña onera etorri, ta arrapatzen dezunean gueratzen cera moteldua, buru pisuarequin, ta asterdiraño bear bada bearreraco gauz etzerala. Cembat berri gaizto izaten dira urte bacoitzean edanagatic?.

Edaneraco oitura, ta macurtasunetic jayotzen dan 3.ren ondoren gaisto, ta caltea da ecertaco ez dala bat uztea. Asco guizon dira berenez cintzoac, ta gauz ascotaraco azcarrac, bañà beren edaneraco macurtasunarequin ecertaraco ez biurtzen diranac. Certaraco izan diteque erri batean edanari jarritaco guizen bat? Ecin onelacoari errico carguric eman daquiqueo, ceren bere oitura gaistoarequin berequin beste ascoren animac galduco lituquean. Cer contu eguingo luque onelaco Alcate batec taberna goiz ichi-erazteco, ta ordu onean bacoitza bere echera bialtzeco? Cer contu Meza nagusico, edo vezperetaco demboran ardoa saltzen duenai, ta jocalariac beren echeetan iduquitzen dituenai dagoten pena emateco? Bera guciac baño gaistoago izango lizaque. Ta cer izango lizaque onelacoac Erregidore, edo Diputadu eguingo balira? Cer? tragc bategatic beren animac

bear bada etsayari ematea. Contu, contu carguac aututzeco escua izaten duenac; bada onelaco auquera macurretatic oquer, ta calte asco etortzen dira, ta guciac carguac ematen dituenen gañean.

Edaneraco macurtasunetic jayotzen dan 4.ren ondoren gaisto, ta caltea da echeari dagozcan gauzetan zabartzea, ta alferqueriari ematea; ta necazari batec alferqueriari eder-etsitzera ezquero cer uste izan diteque, ezpada emaztearen, da umeen negarra, biraba, larrugorritasuna, ta guciaren gabea? Ardoa adisquide duana ez da aberastuco, dio Espiritu Santuac. *Qui amat vinum, et pinguia non ditabitur.* Necazari edalea ez da aberastuco, dio beste lecu batean. *Operarius ebrius non locupletabitur* (Eccles. 19.) Athenas deritzan erri andi batean zuan gucia garbitu zuan edanean Calias ceritzan batec: neguaren erdian ecusten du norbaitec calcetan larrugorrian, ta badio isecaz: Calia ardoac lumaric gabe, ta mutilduric utzi du. *Hic á vino deplumatus est.* Cembategatic au bera esan diteque, nere Cristauac, egungo egunean? Au gucia ederqui adirazten digu Arsdequin deritzan guizon jaquinsu batec era onetan: guizon edalea da, dio, anzararen antzecoa: anzarac nai du beti mocoa iduqui bustian, nai du egon deadarca, ta nequeric-gabe, ta au bera nai oi du guizon edaleac. Bana cer guertatzen zayo atzenean? guertatzen zayo antzarari guertazen zayona bera: antzara gaisoari quentzen diozque atzenean dituan luma guciac, sartzen due burruntzi batean, ta erretzen due; eta ori da guizon edalearen bucaera, edalea bere edan bearrarequin, ta alferqueriarequin zorrez betetzen da, uzten due lumaric gabe artzeco-dunac, eramaten due etsayac betico su ta garren artera, ta an erretzen due, ta erreco due Jaungoicoa Jaungoico dan artean. *Sicut anser in fine deplumatur, et ad*

Universidad de Deusto
Biblioteca

ignem asatur , ita ebriosus tamdem omnibus bonis deplumatur á creditoribus , et positus in inferno assatur á Dæmonibus.

Edaneraco macurtasunetic jayotzen dan 5.ren ondoren gaisto , eta caltea da gucien farragarri , edo obeto esateco gucien lotsagarri eguitea ; edanac eraguiten ditu alabaña , ta erasaten gauza lotsagarriac. Argatic Concilio batean esaten da : orditzea Cristabarentzat gauz itsusi , ta lotsagarria dala. *Ebrietas dedecus est cuique Chtiano.* (Conc Aquisgran. Sub Greg. IV.) Noe Escritura Santac esaten digunaz batean , zan Jaunaren adisquide andia , bere adiñagatic , bere vicitza , ta oitura onagatic guizon guziz veneragarria : seieun urte urarequin igaro ondoan ipiñi zuan mastia , eguin zuan ardoa , ta uura bezala zalaco ustean edan zuan bear baño gueyago , ta galdu zuan bere ezagüera. Edanaren contua : seieun urtean ain veneragarria izan zan guizona jartzen da gucia erauntziric , aguerturic , ta lotsatzeco eran , ta bere umeetatic batzuec iseca eguiten dioela. Emendic etorri zan guero Noeren aserrea bere ume lotsagabe oen contra , emendic ume oec , ta oen jatorria madaricatua izatea. Noe guizon ain beneragarriarequin au edanac eguin zuanean , cer eguingo ez du berenez ariñac, centzu guchicoac , edo Jaunaren beldur guchicoac diranaquin ? Agrigento deritzan lecu batean jarri ciran egun batean edaten mariñel batzuec : edaten due galanqui , ta edaten due arrapatzeraño. Edanac eman oi dituan iduripenaquin iduritzen zate itsasoan daudela , ta ontzia galtzeco perillean dabillela : echea cebillen alabaña aen buruan azpicoaz goora irauliaz : iduripen onequin asitzen dira ontziari carga guchitzen: artzen ditue oiac, botatzen ditue leyotic bera : artzen ditue colchac botatzen ditue : artzen ditue cuchac , andijoaz oec-ere.

Etzan alaere ontzia gueratzen bere iraultzeco muguimentuan , gucia cegoan alabaña mariñelen buruco zorabian ; cer eguiten due ? etsiric ontziaren galtzeaz erauntzitzen dira guciac , ta larrugorrian jarriric ateratzen dira egunaren erdian , edo beintzat arguitan igari itsasoan bazeuden bezala. Beguira, nere Cristabac , cer ecuscaria guisa onetan legorrean, ta egunaz guizonac ecustea igari ! Farra eguiten dezu, Cristaua , ipui au aditzean , baña atozea etzatzu zuri onembeste guertatu ? Atozea , etzera iñoiz bide orietan eraunci oira zuacelaco ustean ? Etzera aritz, edo gaztañaquin borroca asi guizonen batzuec diralaco ustean ? Etzera deadarca, ta ojuz ibilli lorretan bazembiltza bezala ? Ay! nere Cristau onac ! oec, ta beste lecu onetatic ezin adieraci nitzaquean gauz asco ecusi dituzue ceroc, edo guchienean aditu.

Edaneraco macurtasunetic jayotzen dan 6.ren ondoren gaisto , eta caltea da emaztea , ta umeac naigabez , quezcaz , ta atsacabez igartzea. Guizona ezcontzaco Sacramentuarequin gueratu zan beartua becatu larriaren azpian bere emazteari vicitza paqueazcoa, ta ona bere aleguiñean ematera, naigabez, quezcaz , premiaz gogaitzeco bideric batere ematen ezdiola. Ongui : ta guizon batec edaneraco macurtasun au artu ezquero cer vicitza emango die bere emazte , ta ume tristeai ? cer quezcac, gauac guizonaren zai, ta noiz berri gaistoren bat izango duen beldurrac aidean daudela ? Cer gogaitzeco bideac betico billabearrarequin , umeen negar eta larrugorritasunarequin , zorren estutasunaquin ? Izan diteque gurutze pisuago , ta martirio luzeagoric bicimodu au baño ? Non dira bicimodu onec gueyenean ecarri oi dituan birabac, erriertac, ta auzoac asaldatzea? Norc contatu onelaco vicitzac dacaizquian calteac , ta becatuac ?

Universidad de Deusto
Biblioteca

Edaneraco macurtasunetic jayotzen dan 7.ren ondoren gaisto, ta caltea da erausia, ta isillic egon bear luqueen gauzac aguertzea. Ez da secretoric batere ordiqueria dan lecuan, esaten digu Espiritu Santuac berac. *Nullum secretum est ubi regnat ebrietas.* (Prov. 31). Norc estali, ta gorde du tragoen artean, gorderic iduqui nai zuan gauza? esaten du S. Ambrosioc. (De Elia, et ieiunio c. 17.) *Quis inter Cyathos texit quod tacere cupiebat.* Edanean igarotzea da tarantula deritzan puzoia bezala. Tarantularen puzoyac batzuec ipintzen ditu algaraz, lertzeco zorian, besteac uzten ditu illun, ta beltz; batzuec pozez asitzen dira saltoca, ta ecin iñorc guera-eraci ditu; besteac artzen ditu arrabia latzac guciai equiteco ortzca, aguinea, ta golpeca. Ala da, edo puzoi onen antzecoa bada edanean igarotzea. Edanaren tarantularequin ecusico dituzue batzuec, ezeri ez dagocala, eragabeco farra, algara, deadarrac, ta iru oiduac eguiten, beste batzuec saltoca, ta lasterca ta iñoiz gauaren erdian zezenca, iñoiz neronec ecusi dedan bezala: batzuec mutuluric, ta besteac chit iztun. Ta atzeneco au da gueyenean ecusten dan edanaren miraria. Edanarequin eguiten zayo mingañari ezin isillic egon bat erlejuari olio gueyerequin eguiten zayon bezala: ardoarequin batean igari asitzen dira viotzean gorderic ceuden gauzac igotzen dira mingañaren puntaraño, ta guero an dioaz guciac. Etzaye orduan barcatzen Apaizai, Predicadore, ta Confesoreai; etzate barcatzen echecoai, eta ez auzoai; etzate barcatzen ezconduai, ez doncellai, aguertzen dira bear bada oequin eguindaco ibillerac, ta becatuac.

Edaneraco macurtasunetic jayotzen dan 8.ren ondoren gaisto, ta caltea da aserrea, leya, ta chimera. Auzien Ama deitzen dio S. Buenaventurac. *Parens litium.* (De sex alis Cherub). S. Isidoroc dio orditzea

dala viotzean aserrearen baga gaistoac eraiguitzea. *Cordis furorem.* (De summo Bon). Baña guchi da au gucia Escritura Santac dionaren aldean. Gendearen asaldacio, aserre, ta quimerac dacazquian gauza da ordiqueria, dio Espiritu Santuac lecu batean. *Luxuriosa res vinum, et tumultuosa ebrietas.* (Prov. 20). Ardoac, ubari edanda, berequin dacaizqui aserrea, ta calte asco, dio beste lecu batean. *Vinum multum potatum irritationem, et iram, et ruinas multas facit.* (Prov. 31) Norgan dira ayac! noren gurasoac ditu naigabea, ta negarra? Norgan aserrea ta leya? norgan zuloac, norgan bidegabeco zauri, edo eridac, norgan beguietaco cataratac, ezpada beren echea ardoaren lecuan ipintzen, ta beren ansia basoac itzultzen dauqueen aetan? Au gucia Espiritu Santuac berac dio. *Cui væ? Cuius Patri væ? Cui rixæ? cui foveæ? cui sine causa vulnera? Cui suffusio oculorum? nonne his, qui commorantur in vino? et student calicibus epotandis?* (Prov. 23). Ezagutu dituzue cembait guizon, edangabe daudenean, chit paqueatsuac, ongui itzeguiñac, ta viotz onecoac, baña, cer lastima! edatearequin dirudi sartzen zatela aserrearen, leyaren, ta chimeraren Demonioren bat: iduritzen zate zuria nabar: iduritzen zate guciac beren contra dazaustela, ta emendic cer calteac! Cer aserreac echeetan, auzoetan, errietan! Cembat anima etsayaren atzaparretan! Nere Cristau onac, egun oro ecusten da eguia au.

Edaneraco macurtasunetic jayotzen dan 9.ren ondoren gaisto, ta caltea da, echecoai, auzoai, ta erricoai ejemplo gaistoa ematea. Edoceñ guraso, ta echetaco buru beartua dago bere ume, mirabe, ta gañeracoai Ceruraco bidea eracustera ez itz utsaquin, baicican itzez, ta vicitza onez. Onetan zabarra, ta naguia dan gurasoa ez absolvitzeco esa-

ten digu S. Carlos Borromeoc: ta S. Pabloc dio, onelaco gurasoa dala fedegabea, ta fedegabea baño ere gaistoagoa: *est infidelis, et infideli deterior.* Atozea, guizon edalea, ta nola zuc eracutsico diezu cere ume, ta mirabeai Ceruraco bidea? baldin cerori bide au utziric bide oquerretic bazabiltza? Nola eracutsico diezu maiz, ta ongui confesatzen, zerori berandutic berandura, ta gaizqui confesatzen bazera? Nola eracutsico diezu becatuaren bideetatic aldeguiten, cerorrec aldeguiten ezpadezu? Nola goiz echeratzen, cerori umeen contu gabe beranduraño tabernan bazaude?

Edaneraco macurtasunetic jayotzen dan 10.ren ondoren gaisto, ta caltea da lujuriaren sua eracequitzea. Norc dio ori? Elizaco Concilioac; *Lujuriaren gurasoa* deitzen dio Remni deritzan erri batean oraiñ berreun urte bezala eguin zan Concilioac. *Libidinis parens.* (Conc. Rem. anno 1589). Norc dio au? Au dioe Elizaren guraso, ta guizon jaquiundez, ta virtutez beteac. Edanaren ume nagusia da lujuria, dio S. Cirilo Alejandriacoac. (L. 7. in Lev.) Gauza miragarriagoa da edaleentzat garbi vicitzea, edo lujuriaren loiquerietan ez erortzea illac piztutzea baño, dio S. Vicente Ferrer-ec. *Ebriosis caste vivere est majus miraculum, quam mortuos suscitare.* (Dom. 2 post oct. Pasch.) Demonio beraa, puzoi dultzea, ta becatu goisoa da ordiqueria, dio S. Agustiñec. *Ebrietas est blandus Dæmon, dulce venenum, suave pecatum.* (Ad Sacras Virg.) Gauza luzea izango lizaque, dio S. Geronimoc, ordiqueriac ecartzen dituan calteac, ta becatuac banaca ucuituaz joatea, ta centzugabequeria guciac adiraztea... Asco izan bedi oraiñ esanic uztea: ez det nic iñoiz-ere ordia garbi, edo castotzat sinistuco. *Longum est ire per singula, et insanias, quas ebrietas suggerit, explicare:::: Hoc nunc*

dixisse sufficiat:::: nunquam ego ebrium castum putabo. (In cap. 1 epist ad Titum.) S. Ambrosioc ez du guchiago esaten: ez dituzue ecusi zaldiac lujuriaren luarequin nola irrintziaz, ta asaldatuac bere gurarequin egon oi diran? Zaldi onelaco biurtzen dira guizonac edan gueyeguiarequin dio Santuac, ceren berenez duen berotasunaz gañera ardoarequin eracequiric ezin escura ditue beren buruac, ta muguitzen dira centzuric ez duen animalien ciquinquerietara: *Per hanc* (id est ebrietatem) *fiunt ex hominibus equi adhinientes: siquidem naturali vapore corporis calidi, et præter naturam vini calore flamati, cohibere se non queunt, et in bestiales libidines excitantur.* (De Elia et ieiun.) S. Basilioc oraindic gueyago dio. Ascoz gaistoac deriztet ordiqueriac azpian artu dituanai bestia, edo centzugabeco animaliai baño, dio Santuac: animaliac alabaña baditue elcarganatzeco legue dembora, ta ordu jaquiñac, baña edaleac demboren, ta orduen beguiramenturic gabe, izan gaba izan eguna, izan bacarrean, edo iñor beguira dagoala, edo oartzen dala lujuriaren atseguin loyetaraco dira. *Imo et bestiis longe pejores existimaverim eos, qui ab ebrietate superantur, cum illæ coeundi statas habeant leges, et horas, hi vero nullius temporis, et horæ rationem habentes, neqissimis complexibus, et amoribus inter se utuntur.* (Homil. in ebriet.) Au gucia asco ezpada zuc sinisteco nic esan dedan eguia, adiezazu cer dioan Espiritu Santuac S. Pabloren ezpañaz: etzaitecela ardoan igaro, esaten digu S. Pabloc, ceren onetan dagoan lujuria. *Nolite inebriari vino, in quo est luxuria.* Nere Cristauac, ez da maiz asco ecusten edaleetan au? Ez dituzue ecusi edaleac naiz zarrac, naiz ezconduac izan itz lasailoyac darieztezela, queñadac edoceñ emacumeri eguiten, edo bearbada gueyago? Cer esango det Ma-

trimonio Santuac debecatzen dituan asco contuz?

Aditu bear dezue Escritura Santac Lothen gañean dacarren gauz arrigarri bat. Loth vicitu zan urte ascoan Sodoma ceritzan erri batean: erri onetaco gende gucia chiquia, ta andia itsutua, etziña, ta usteldua vici zan lujuriaren ciquinquerietan, guizonac guizonaquin, ta emacumeac emacumeaquin elcarrequin lotsatzen etziran bezala. Aimbesteraño itsutuac ceuden, ceñ Lothen echera etorriric Aingueruac zaldun ederren idurian, bildu zan errico gendea, inguratu zuen Lothen echea, ta deadarrez escatzen ciozqueen zaldun aec, aequin beren gura loyari atseguin eguiteco. Atzenean Jaunac erria, ta erricoac auts biurtu cituan Cerutic bialtzen zuala sufrez, ta betunezco sua. Erri onetan vicitu zan Loth Jaungoicoaren beldurrean, ta bere emazte, ta umeaquin atera eraci zuan Jaungoicoac Loth erriaz campora erriaren gañ su, ta garrac bialdu baño len. Atera zan Loth, ta guelditu mendi batean. Bere alaba zarrenac esaten dio gazteagoari. Adiezan gure Aita zartu den ya, ta ez den guizonic gueratu lurrean gurequin ezcondu ditequeanic. *Pater noster senex est, et nullus virorum remansit in terra, qui possit ingredi ad nos iuxta morem universæ terræ.* Uste zuen Lothen alabac Sodoma, Gomorra, ta beste iru erri erreac ciranean guizon guciac aitu cirala, edo laster aituco, ta beldur ciran ezcongai gueratzeaz. Cer eguiten, ta cer asmatzen due? Cer? ezcondu bearric zucen, edo oquer jartzen diran ascoc eguiten duena, edo bide oquer galdua artzea. Ator, esaten dio, aizpa batac besteari, ardoz moscor dezagun, ta lo eguin Aitarequin. *Veni inebriemus eum vino, dormiamusque cum eo.* Aita, churrut, ta churrut emanaz, moscortzen due, ta gauz arrigarria, nere Cristauac! Sodoman ain gende galdu-ustelduaren artean Jau-

naren beldurrean iraun zuan guizona edanean igaroric erori zan bere bi alabaquin, biac aurdun uzten cituala. (Gen. 19.) Ecusten dezu, Cristaua, cer dan edanean igarotzea lujuriarentzat? (Homil. 7 in Lev.) Baña cer diot lujuriarentzat? deitzen badio *Origenes-ec vitiorum omnium mater*, vicio gucien Ama; deitzen badio Concilio batec vicio gucien ardagaya, ta iñudea? *Omnium vitiorum fomes, ac nutrix.* (Conc Agath.) Eta atzenean vicio au utzi nai ez duana escomicatzeco aguintzen badu Mogunciaco Concilio batec. (Conc. Mog. ann. 813 c. 46.)

Atzenean, noiz-ere bait doctrina au bucatzeco, edaneraco macurtasunetic jayotzen dan ondoren izugarriena da animaco gorreria, gogortasuna, ta eriotza gaistoa. Ez uste izan, becataria, zu icaratzeagatic nere burutic ateratzen dedala au, ez, ez; au da eguia bat Elizaco Doctoreac aditzera ematen digüena. Escritura Santac esaten du becatuaren bidez dabiltzanac-gatic: Dagroyen beazuna oen ardoa, ta sugue lotariaren puzoi ezin sendaditequeana. *Fel draconum vinum eorum, et venenum aspidum insanabile.* (Deut. 32.) Escritura Santaren itz oei dagotela esaten du S. Ambrosioc guisa onetan: ederqui dio Escritura Santac *puzoi ezin senda ditequeana*; asco sendatzen dira alabaña beste sugue, edo becatuen puzoyetic, baña ordiqueriaren puzoyetic iñor ere, dio Santuac. *Pulchre additur insanabile; multi enim á reliquorum serpentum veneno curantur, nemo ab ebrietate.* (De Elia, et ieiun. c. 14.) Gueyago oraindic aditu nai badezu, galde guiozu S. Juan Crisostomori, cer dan guizon ordia, ta cer ordiqueria? guizon ordia da, erantzungo dizu, ill oraindic animarequin arquitzen dana, bere nayez Demonio biurtu dana. *Homo ebrius est mortuus animatus, Dœmon voluntarius.* Ordiqueriaraco macurtasuna, da,

Universidad de Deusto
Biblioteca

esango dizu animaren tisica, edo minantze curaric, ta barcacioric ez duana. *Morbus veniam non habens, ruina excusatione carens, commune generis nostri oprobium.* (Hom. 1. ad Pop. Anthiochen.) Badaquizue nondic jayotzen dan minantze au onen gaistoa izatea? Ara nondic: gazteric artzen du ascoc ardoraco, ta edaneraco griña au; Jaunaren graciarequin aisa gazteac garai lezaque bere griña au, baña ezauci eguiten da dembora aetan; zartzen da guizona, ta bere zartasuna alde batetic, ta bere griña beste aldetic esque, ta esque dagozca edariaren berotasuna, ta ecin daude ya beren buruac galdu arte. Ustai gaya berde dan artean, oquertu arren, erraz zuzenduco da, baña zartu bada, ta legortu upelari dausquiola ez da gueyago zucenduco. Guerrietaco miñarequin guizon gaztea cembait demboran macurturic ibilli arren, uste izan diteque zuzentzea, baña baldin gaztetanic zartzeraño cacoturic, ta macurturic egon bada, nola zartzean zucenduco da?

Cer bada, esango dezue, ez da onelaco becatarientzat sendatzeco, ta Jaunaren legueco bide zuzenean sartzeco usteric? Etsiric egon bearrac ote dira Ceruaz? Nere Cristau onac ez nuque nai esan iñor gueyegui izutzeco gauzaric, baña alaere aditzera emango det gayac escatzen duana. Oitura onetan sartu ez diranac, ecusiric, ta ezaguturic berequin duen perill andia, eguin bezee aleguiña igues-eguiteco macurtasun onen mendean jartzetic, aldeguiten duela edaleen batzarre gucietatic. Baña miñantze onequin arquitzen diranac cer eguingo due? eguin bear duena da cerbait dembora artzea negar eguiteco, ta ezagutzeco beren becatuac, beren utseguiteac, ta eguin dituen calteac, ta ongui prestaturic eguin gobada on bat, ceren lenecoac onac izan ez diran. 2.ª Aldeguin tabernetatic; aldeguin edanean

igarotzeco perilletatic. 3.ª Iñoiz nai ta ez lagunaquin bildu bearren bat tabernan, edo beste lecutan guertatzen bazayo, edo ez edan, edo edan urarequin, edo beintzat ez igaro on eguingo dioela daquian trago aetatic. Premiaric ez danean lagunaquin egoteco aldeguin arras, ta osotoro sendatu nai duanac. 4.ª egunean bein gogoan erabilli Jesusen neque oñaceac, ta batez-ere gure jan-edan gueyeguiagatic gurutzean igaro zuan egarria, ta eman citzayon edari samiñ beazunez nastua, onela egun oro sayatzen dala, maiz confesatuaz, ta bere animaren sendatzalleac esaten diona eguiñaz, muguituco du onelaco becatariac bere Jauna bere graciaren indarlaguntzeac ubari ematera, muguitceco becatu gucien barcacioa, ta gracian irauteco indarra ez ucatzera. Au eguin nai duanac, nere contu, bere etsayaren gorri gaistoan-ere, izango du eriotz on bat, ta atzenean eriotza onaren saria betico glorian. Au epa dizuet gucioi Jesu-Cristoren Pasio Santuaren bitartecoz Aitaren, ta Semearen, ta Espiritu Santuaren icenean. Amen.

(a) Nota 1.ª Benedictus Pererius in suis commentariis ad caput 43 Genes. egregie agit de ebrietate, additque perpulchram dissertationem, quam scripsit Philo disserens *num viro sapienti deceat aliquando se inebriare*? Distinguit Philo ebrietatem ab ebrietate; nomine enim ebrietatis et intelligitur eiusdem effectus, temulentia scilicet, atque privatio rationis, quo sensu nunquam decere, nec licere vio sapienti ebrietatem asserit jure; et intelligitur etiam pro uberiori, largiorique potu, quo sensu viro Sapienti, cui non immineat periculum privationis ab ussu rationis, aliquando licere, ac decere existimat. Equidem Sacræ litteræ tradunt Josephum

Universidad de Deusto
Biblioteca

Jacobi filium virum undique præclarum, eximiæque sanctitatis cum fratribus suis inebriatum fuisse. *Biberuntque, et inebriati sunt*, ait sacra pagina Gen. 43, *cum eo*; nec ideo contra eximium virum quidquam scriptum legitur á sanctis Patribus.

Disputant Theologi acriter, an causa valetudinis recuperandæ, aut conservandæ ex præscripto Medici liceat ebrietas? casus chymericus existimatur iste comuniter, uti videre est apud Illustrissimum Ligorium, Salmanticenses, et Carbonianum in additionibus ad Lucium Ferraris verbo *ebrietas*. Nihilominus non ita chymericus ab omnibus existimatur, cum et suffitus tabaci, et vinum generosum præservativa esse possint apud Medicos non imperitos pluribus in casibus. Quidquid tamen de posibilitate casus sit, fingamus posibilem ita ut nullum aliud sit medium efficax ad morbum pellendum præter ebrietatem, num poterit aliquis ex præscripto medici se inebriare? Triplex est Theologorum opinio. Prima sententia quam sequuntur Salmanticenses, Lesius, Sporer, Ferraris, et apud ipsos Caietanus, ac Silvester, licere ait in hoc casu ebrietatem; etenim ebrietas est, inquiunt, formalis, atque ab intrinseco mala, dum est *causa voluptatis*, uti patet ab eiusdem deffinitione communiter recepta; at in casu non causa voluptatis, gustus, l tactus palati, et Osophagi, sed alia de causa est. Præterea si liceat perpetuo se privare brachio, pede, l alio membro ut servetur totum corpus, cur non licebit non perpetuo sed pro brevi tempore privare se usu rationis ut totum corpus valeat?

Secunda opinio huic ex diametro opposita, quam sequuntur Sylvius, Henno, Carbonianus in additionibus sui Lucii, Antoinius, Petrus Colet cum aliis, ait in casu supposito neque in quocumque alio licere ebrietatem, cum sit intrinsece mala, non secus ac fornicatio, ac pollutio. Nunquid isthæ licere unquam possunt distintiuncula illa non causa voluptatis, sed valetudinis? Apage probabilistarum systhemata erronea, laxa. Ferè ita loquitur Author additionum Lucii Ferraris.

Tertia sententia media est inter utramque præcedentem, eamque tenet Alphonsus Ligorius vir egregius, ac moderatissimus. Apud ipsum ebrietas ipsa per se, scilicet temulentia, rationisque privatio, ab intrinseco mala est, non secus ac fornicatio, pollutio, abortus &, quare nunquam intendere licet ebrietatem hoc sensu, et nunquam asumi poterit uti medium. Ast ebrietas si accipiatur pro largiori, uberiorique potu, qui habeatur necesarius aut ad humores corrigendos, aut ut quis præservari possit á morbo contagioso, licebit tunc potus hic largior, etsi secutura prævideatur temulentia, atque privatio ussus rationis. Atque hæc sententia solidioribus nititur rationibus, quam prima, et secunda, estque valde consona menti Angelici Doctoris. Ratio prima hujus opinionis est; quia secundum Angelicum 2. 2.æ q. 150 *cibus, et potus est moderandus, secundum quod competit corporis valetudini. Et ideo sicut quandoque contingit, ut cibus, l potus qui est moderatus sano, sit superfluus infirmo*, ita etiam potest é converso contingere, ut ille, qui est superfluus sano, sit moderatus *infirmo*. Et hoc modo cum aliquis multum comedit, vel bibit secundum consilium medici ad vomitum provocandum non est reputandus superfluus cibus, vel potus. *Nec tamen ad vomitum provocandum requiritur* quod sit potus inebrians, quia etiam potus aquæ tepidæ vomitum causat, et idio propter *hanc causam non excusaretur aliquis ab ebrietate*. Hactenus Beatus Thomas. Ex iis primo constat quo pacto excessus in cibo, aut potu reputandus sit contra temperantiam; quare egregie fallitur Antoinius asserens largiorem potum, ex quo in casu contraversiæ ebrietas seqüeretur, ipsum per se etiamsi esset contra voluptatem esse peccatum contra temperantiam, cum supponatur necesarius ad valetudinem. 2.° infentur ratio urgentissima: apnd Angelicum qui multum bibit ad vomitum provocandum, si potus sit inebrians, non excusatur ab ebrietate, quoad hoc necesarius non est potus inebrians: ergo si esset necesarius, uti in casu supponitur, ex consilio medici ad salutem excusaretur ab ebrietate.

Secunda ratio: etsi ipsa privatio voluntaria ussus rationis sit ab intrinseco mala, at vero potus uberior, largiorve non ita, uti ex Angelico constat: cur ergo non licebit excesus hic ad morbum pellendum, non intenta, sed permissa duntaxat privatione ab usu rationis? equidem communis opinio est licere Matri pharmacum sumere necesarium ad vitæ suæ

conservationem: etsi prævideatur abortus fœtus inanimati, aut etiam animati, saltem si fœtus animati salvandi, atque bautizandi spes non esset, pereunte matre.

Disputant etiam Theologi, num liceat ebrietas propter metum mortis, quam tyrannus, aut inimicus minatur alicui, nisi bibat husque ad ebrietatem? Sunt qui licere putent in hoc casu ebrietatem ad vitandam mortem, quia potest aliquis velle, ut sibi abscindatur pes, 1 manus, ergo poterit eodem pacto velle se inebriari, ut mortem vitet. Hanc sententiam tuentur Lesius, Lucius Ferraris, et alii tanquam probabiliorem. At vero contra hanc oppinionem communiter pugnant Theologi, quos inter Azorius, Salmanticenses, Ligorius, Antoinius, Colet, quorum sententia firmata est Authoritate D. Antonini, et expressa in Augustino, qui ita loquitur sermone 232 de tempore: *etiamsi ad hoc veniretur, ut tibi diceretur aut bibas, aut morieris, melius erat, ut caro tua sobria occideretur, quam per ebrietatem anima moreretur.*

Præter authoritatem tanti viri sunt etiam rationes urgentissimæ. 1.ª quia non sunt facienda mala, ut inde *veniant bona*, ebrietas autem ab intrinseco mala est. 2.ª quia in hoc casu potatio non intenditur uti medium ad salutem, morbumve pellendum, sed uti medium ad ebrietatem, quare directe intenditur ebrietas ipsa, quod nunquam licet; neque dici potest tunc excesum in potu esse medium ad vitam, salutemque conservandam, cum ebrietas nullam connexionem, nullamque virtutem habeat ad mortem quam quis á causa extrinseca timet, vitandam. Hinc dispar est ratio in præcedenti casu; tunc enim licet potus largior utpote conducens, imo necesarius ad humores corrigendos, morbumque pellendum, ebrietasque non intenditur sed permitiur duntaxat. Sic Matri licet pharmacum sumere ad vitam servandam etsi prævideatur abortus, si pharmacum sumatur ad morbum pellendum; nunquid tamem licebit ad vitandam mortem, quam timet á propincuis? Nequaquam. Quare etsi primam sententiam probabiliorem putet Ferraris, merito dubitat Ligorius etiam de probabilitate.

Disputant 3.° num liceat aliquem inducere ad ebrietatem ut ille impediatur á graviori malo, puta urbis proditione, sacrilegio &.? Triplex est opinio. Prima quam sequitur Lo-

sius sustinet licere; etenim constans, atque inconcusum est, licere inducere ad minus malum paratum ad majus. 2.ª tenet non licere inducere ad ebrietatem formalem, aut qua alter peccet, cum non sint facienda mala, ut inde veniant bona, licere tamen inducere ad ebrietatem materialem, v. g. aponendo vinum generosimum, ac fortissimum, aut ita conditum, ut facile inebriare possit. Hanc sequuntur Salmanticenses, Layman, et alii cum Ferraris. Tertia sententia, quam sequuntur Tournely, Hlzman, Arsdequin, Antoine, tenet nec ad formalem, nec ad materialem ebrietatem licere alium inducere; cum enim ebrietas ipsa natura sua, atque ab intrinseco sit mala, atque repugnans naturæ rationali, inductio ad ipsam nunquam licere potest. Equidem contingere potest ut quis absque peccato fornicetur in somno, uti de Loth sentiunt communiter S. S. Patres, at vero inducere ad hoc nequaquam cohonestari poterit. Ecce tres opiniones, quas sui Patroni tuentur tanquam probabiliores, nec facile dictu est quænam ex his firmiori nitatur fundamento. Si quis enim paratus sit ad proditionem urbis, ad comburendam Ecclesiam, aut communes, ac publicas scripturas cur ipsi parari non poterit vinum medicatum, quo brevi inebrietur? id nihil aliud esset quam inducere ad minus malum, aut ad malum materiale, et quamvis, ebrietas non contineatur in altero peccato, ad quod paratus erat, cum hæc mala disparata sint, at vero virtualiter continetur malum ebrietatis, ac includitur in illo majori malo spirituali. His non obstantibus ad tertiam sententiam propensiores sumus, cum ebrietas etiam materialis respectu eam inducentis coadat libera, atque voluntaria non sunt facienda mala, ut inde veniant bona.

Quæritur insuper an iuste incarcerati possint inducere custodes ad ebrietatem materialem, ut effugiant mortem, aut exilium perpetuum &.? communis est D. D. opinio non licere, tum quia ad aliquid malum inducit, tum quia custodes patientur damna gravia. Ast si iniuste detineatur tunc licere inducere ad ebrietam materialem non vero formalem sentiunt Lacroixius, Ferraris, et alii.

Quæritur an peccet quis inebriando eos, qui rationis usum non habent? in hoc casu communiter aseritur non esse peccatum lethale semel, aut bis inebriare, cum rationis

Universidad de Deusto
Biblioteca

ussum, quem non habet, non amittat, nec damnum grave salutis pati possit regulariter; at lethale esset frequenter inebriare, cum id fieri non possit sine salutis detrimento. Videsis Lacroixium.

(b) Nota 2.ª ii, qui vinum vendunt eis ad ebrietatem abussuris, peccant lethaliter apud omnes; dubium tamen est quænam causa excusare id possit á lethali. Daniel Concina, et Gabriel Antoine gravissimum malum, uti mors, incendium, vulnera, aut quid simile pro causa exigunt. Hinc *excusantur caupones*, inquit Antoine, vinum vendentes militibus abussuris ad ebrietatem, si denegare non possint sine damno vitæ, l, bonorum omnium. Alii minori causa contenti sunt, ut Ligorius, Tournely &.ª ita ut sufficere asserant quodcumque grave damnum. Vide Illustrissimum Ligorium ubi de scandalo agit.

(c) De signis ebrietatis ita loquitur Carboneanus in additionibus ad Antoine: *Pater Anacletus* (*Reinffestuel*) ebrietatem plenam, perfectum esse negat *siquis pos potum* adhuc discernere possit inter *bonum, et malum*, licet non nihil phantasia turbata sit, aut sequatur vomitus, linqua titubet, pedes vacillent, oculi cernant duplicia, vel domus girari videatur, ideoque in hoc casu, erit peccatum veniale tantum, quamvis ex gravioribus, si deliberati sit commisum. Plena ebrietas notatur ex his signis, qui dat La-Croix 1.º si quis non meminerit dictorum, factorum, quomodo vel quando domum deductus. 2. Si commissit ea, quæ numquam alas saná menti, v. g. si præter morem turpia sit locutus, turbarit domum, uxorem verberarit, &.

BERROGUEI, TA BATGARREN ERACUSALDIA,

CASTIDADECO VIRTUTEAREN GAÑEAN.

Hæc est voluntas Dei, santificatio vestra; ut abstineatis vos á fornicatione, ut sciat unusquisque vestrum vas suum possidere in sanctificatione et honore. Epist. 1. Beati Pauli ad Thes.

Gaur itzeguin bear dizuet, nere Cristauac, castidadeco virtute ederraren gañean, consideratuaz doncelletan, ezcondu, ta alargunetan. Aditu nazazue contuz; bada ez da alferra izango zuen nequea.

§ I.

Castidadea, nere Cristauac, da *virtute bat costumbreai dagotena, ta araguiaren naicunde gaiztoac atzeratzen dituana.* Virtute au doncelletan da chit ederra, eta S. Francisco Sales gozoac esaten duanez, virtute gucien *Azuzena, edo lirio zuri ederra.* Jesus maitagarriac dio, *zacurrac, ta desonestoac izango dirala Cerutic erbestetuac su, ta garren artera*; eta zori onecoac *dirala viotz garbia duenac, cerren oec ecusico duen* beren Jaun Jaungoicoa, ta Jaun beraren edertasun, ta atseguin gucia. Zacurren izena ematen die Jesusec becatari loi desonestoai.

Virtute au da guztietan ederra bere moduan, baña batecere doncelletan. Virtute eder onec dio San

Universidad de Deusto
Biblioteca

Francisco Salesec, araguiz janciric dauden guizonac eguiten *ditu* Aingueruen anceco. *Ez da gauza ederric* garbitasuna gabe esaten du Santuac, ta guizon, ta emacumeen garbitasuna da *Castidadea*. Oraindic ascoz goraago jasotzen du virtute eder au San Juan Crisostomoc: *Cembat ventaja eguiten dion Ceruac lurrari*, ta Aingueruac guizonari, ambat dio Santuac, eguiten dio doncellen garbitasunac ezconzari. Ta oraindic gueyago esaten du Santu andi onec: *Aingueruac ezpadira ezconcen, ez dira araguiz, ta odolez eguiñac: ez dira lurrean beren vicitza duenac: ez dira asaldatuac izaten garbitasunaren contraco baga, ta deseo gaiztoaquin. Ez due janaren, ta edanaren bearric: eciñ mellaric eguingo die ez canta suabeac, ez munduco echura, ta arpegui ederrac, ta ez beste perillac. Baña garbitasun osoari jarraitzen dioen Cristauac munduco lazo, perill, ta tentacio guztien artean, alde gucietatic erorceco bideac dituela, Aingueruen garbitasunean ipintzen due beren gogo, ta violza.*

Castidadeco virtutea, nere Cristauac, da guciz ederra, baña dembora berean chit mimberaa: Da chit fiña, baña ausicorra, ta chit erraz bere edertasuna galtzen duana. Ederra da cristala, baña asco da nor bait bere arnasarequin cristalari alderatzea, bere edertasuna illundu, ta galduric guelditzeco. Ederra da lirio bat, baña galcen du bere edertasuna escutartean mirapidean erabilce batequin. Auxe bera guertatzen da castidadeco virtute ederrarequin. Virtute au illunceco, ta galceco ez da ez eguin bear ganaduai dagoten becatu andiscoteren bat, asco da pensamenac, edo oroipen loi bati toqui ematea: asco da uquitze ciquin bat eguitea, edo vorondatez arcea: asco da deseo, edo gusto char bat: asco da itzcho bat asmo charrarequin esatea, edo gozodasunarequin en-

zutea. Emen, nere Cristauac, egon bear nuquean luceago, ta itz eguin garbiro; bada asco zoroc nai izaten du modu gaizto oiyequin atseguin artu, eta guero escusatu aleguiña confesioco Sacramentuan; baña contentatuco naiz, esatearequin doncellai bi gauza, San Francisco Sales gozoagan iracurtzen diranac.

Lembicicoa: *nai badezue doncellac artu ezconzaco Sacramentua, gorde ezazue contu, ta arreta andiarequin ceren lembicico amorioa, lembicico senar, edo esposoarentzat. Daucat, dio Santuac, engañio anditzat, viotz oso, ta garbi baten ordean presentatzea viotz usatu, ta manchatu bat.* Bigarrena: *baldiñ zuen suerteac deitzen bazaitue, ezconcera Jesusequin, O! nere Jaungoicoa! gorde ezazue ceren amorioa esposo Jangoicozco onenzat. Bada au izanic garbitasuna bera, ez du beste gauzaric aimbeste maitatzen, non garbitasuna: eta nola zor zaizcan gauza gucien lembicico frutuac, batez ere zor zaizca amorioarenac.* Orra, nere Cristauac, ceñen ederra dan, doncellai dagoten castidade, ta garbitasuna, ta orra nolaco contuarequin gorde bear dezuen, ala ezconceco asmoa dezuenac, nola beti virgiñidadean bici nai dezuenoc. Guacen ezconduen castidadera.

§ II.

Ezconduai dagoten castidadea bere moduan ederra da, ta ezconduac gordetzen badue garbitasun osoa, S. Josec, ta Maria chit Santa, ta beste Santu ascoc gorde izan duen becela, da guztiz ederra. Onen gora igotzeco viotzic ezduen ezconduena ere, da bere moduan ederra, ta consideratu diteque matrimonioan, ta matrimoniotic campora. Matrimonioan consideratzen badegu ezconduen garbitasuna,

Universidad de Deusto
Biblioteca

ez dago au, beñere matrimonioan araguiaren gustoric ez artzean, ezpada estadu onec dituan nebriac ez igarotzean. Matrimonioac dituan nebriac aditzera ematea, izango lizaque, nere Cristauac, gauza lucea, ta gazteentzat peril andicoa: argatic esango dizuet bacarric Sararequin guertatu zana.

Sara, dama chit virtutetsu, aberats, ta ederra zan. Ezcondu zan zazpi zaldunequin, ta zazpiac ezcondutaco arratsean, ill otzac utzi cituan etsayac, beren emazteagana baño len. Cergatic uste dezue nere Cristauac? cerren zazpi galai oyec etziran ezcondu, ezconzac escatzen duan asmo garbiarequin, ez bada animalien eran, ipintzen zuela eren viotza, ta gogoa luxuriaco ardoan. Baña etzitzayon onela guertatu Tobias gazteari, bildur bazan ere ezcontzeco Sararequin.

Tobias gazteari eracutsi cion Aingueru S. Rafaelec nola portatu Sara ederrarequin, itzeguiten ciola modu onetan: *Zu Tobias Sararequin ezconcen ceranean, vicico cera iru egunean garbitasun, ta castidadean, Jaunari erreguizea besteric eguin gabe, ta iru gabac modu onetan igaro ondoan, arganaco cera; baña Jaunaren beldurrarequin, ez araguiaren atseguiñ lizunen ondoren, baicic cere ondorengoac uzteco, Abrahanen jatorrian semeetan Jaunaren bendicioa izan dezazun. Accipies virginem cum timore Dei, amore filiorum magis, quam libidine ductus, ut in semine Abrahæ benedictionem in filiis consequaris.* (Tobiæ c. 6).

Tobiasec eguin zuan S. Rafael Aingueruac esan cion; bada ezcondutaco arratsean, sartu zan Sararen gueian, ta esan cion: *Jeiqui zaite Sara, ta erregutu deguiogun Jaunari iru egun oetan::: Guraso onen umeac guera alabaña, ta ecin elcargana gaitezque, Jaunaren ezagüeraric ez duen gendeac bezala. Asi zan Tobias Sararequin batean oracio eguiten: Gure*

gurasoen Jaun Jaungoicoa, esaten cion Tobiasec Jaunari, bedeica zaitzeela Ceruac, ta lurrac, itsasoac iturriac, ta ibayac, ta oyetan zuc ecer ecetic eguiñic arquitzen diran gauza guztiac. Zuc Jauna eguin cenduan Adan lur pisca batetic, ta eman cenion lagunzat Eva; ta orain zuc daquizu ez dedala arcen nere emaztetzat Sara, araguiaren atseguiñ lotsagarriacgatic, baicican bedeicatua izan dedin beti beti zure icen Santua nere ondorengoetan. Ejemplo onec, nere Cristauac aditzera ematen du, ceñen asmo garbiaquin artu bear dan matrimonioco Sacramentua, baita ere Sacramentu onetan ezconduac bear duen garbitasuna. Zori onecoac zuec onen asmo garbiaquin ezcondu bacerate, eta ezconzari dagocan garbitasunean bici bacerate.

Matrimonioari dagocan garbitasuna gorde gabez matrimonioan bertan, icusi cituan Santa Catalina Senacoac, esaten du S. Francisco Salesec, asco ezconduren animac infernuan neque, ta oñace icaragarrien artean, ceren ausi zuen estadu onec escatzen duan Santidadea. Au guertatu citzaten dio Santuac, ez becatuaren anditasunagatic, bada andiagoac dira eriotzac, ta blasfemiac, ezpada cerren etzuen ecertan artu, ta onela vicitu ciran dembora lucean. Ez ote dira gaurco egunean ere era onetan vici asco ezcondu? Sartu becee bacoitzac beren bularrean escua, ta icusico due irteten dala lepraz betea.

Ezconduen castidadea consideratzen badegu, ezconzaz campora, dago oyec garbiac izatean beren eguiteco, deseo, itz, pensamentu, eta beste gauza gucietan. Ezconduai alabaña debecatuac daude ezconzaz campora, besteai debecatuac dauden gauza guztiac. Ez due noasqui onela pensatzen asco ezcondu lasayec. Baña sinistuco due erremedioric ez dan demboran. Aditu dezue, nere Cristauac nola

bere moduan ederra dan ezconduai dagoten castidadea. Icusi dezagun alargunai dagotena.

§ III.

Castidadeco virtutea ederra da, nere Cristauac, alargunetan ere. Oyec nai badue vici dagoten garbitasunean, bear due izan viotz andi, ta animoso bat, osotoro ayenatzeco araguiaren naicunde, ta atseguiñac, ez etorquizunac bacarric, baita igaroac ere, quentzen duela igarotaco licencien memoria, ta oroipena, bestela arquitzen dira perill andian, eta guertatuco zate Israeldarrai, Egiptotic irten da, guertatu citzatena. Igitoen mendetic atera cituan Jaunac bere Israeldar maiteac, onetaraco eguiten cituala eciñ conta al milagro; baña Israeldarrac laster asi ciran espadasun andiaquin itzeguiten: ta octatic ascoc nayago zuen Egiptoco janari dongueaquin egotea, ezen ez eremuan barrena joatea, Jaunac ematen cien mantenu garbiarequin.

Au bera guertatzen zate asco animari: aspertzen dira Jaunac garbitasunean ipintzen diezten janari garbiaz; aztutzen dira, beren estaduari dagocan castidadeaz, ta biurcen dira lenagoco bazca, ta ciquinquerietara. Alargunac duen perill andia, biurtzeco lenagoco atseguiñetara, ongui aditzera ematen du S. Agustiñec, icaratzen dancan, icusiric bere adisquide Alipioren garbitasuna, ta arritzen zan Santua, onec osotoro uzteaz araguiaren atseguiñac izanic oetara macurtua gazte demboran.

Eta eguiaz esateco, dio S. Francisco Sales gozoac, *frutac osoac dauden artean erraz conservatzen dira, batzuec lastoen gañean; besteac ondar artean, eta beste batzuec eren ostoetan; baña beñ osodasuna galdu ezquero, casi eciñ izan ditequean gauza da gordetzea,*

ezpada ezti, ta azucrearequin confitatu, edo gozagainduaz. Onelaxe, beñere galdu, edo ciquindu ez dan castidadea gorde diteque modu ascotara, baña osoa ezdagoana, ecin conservatu, ta gorde-diteque devocio andi bat gabe: Devocioa da alabaña animen ezti, ta azucrea.

Alargunac urricariac dira, nere Cristauac, oyen bacardadeari beguiratzen badiogu, baña vici badira garbiro, ta eguiazco Alargundasunean, honratu bear ditugu. S. Pablo Apostoluac esaten du, honra itzazue eguiazco Alargunac: *honora viduas, quæ vere viduæ sunt.* (1.º Ad timoth. 5. 3). Eguiaz Alargunac izateco dagozten gauzacho batzuec esatera noa.

Lembicia: eguiazco alargunac beardue izan alargun, ez gorputzean bacarric, baita viotzean ere. Au da; eguiazco alargunac bear du iduqui asmo sendo bat, beti alargun vicitzeco. Ezconceco asmoa duen alargunac, arquitzen dira alabaña guizonetatic apartе gorputzez, baña ez viotzez. Bigarrena: alargunen asmo onec bear du izan asmo garbi bat, obeto eren viotza Jaunarenarequin bat eguiteagatic. Cerren guelditzen badira alargun, umeac aberats uzteagatic, edo beste munduco motivoren bategatic, izan litezque munduan laudatuac, baña ez Jaunaren aurrean, bada onen aurrean ez due izango laudacioric, ezpaditue gauzac eguiten beraren icenean.

Irugarrena: alargunac eguiaz izateco, bear due aldeguin vorondatez munduco atseguiñetatic. S. Pablo Apostoluac esaten du; Alargun atseguiñetan vici dana, vicitzan illa dagoala. (Ubi supra vers. 6). Baldin alargunac nai badue guizonaquin itzeguin: guizonen choraqueriac aditu: gusto badue ibilcen festetan, ta munduco atseguiñetan: nai badue ibilli apaiñduric, onelaco alargunac vici dira gorputzean, baña illac daude animan. Guisa onetaco alargunac

Universidad de Deusto
Biblioteca

ez dira eguiazco alargunac, ez bada guezurrezcoac.

Laugarrena: Alargunac guelditzen badira umeaquin, izan bear due oen contu andi bat. S. Pablo Apostoluac esaten du, *echecoen* contua ez duanac, batez ere bereena, fedegabea baño gaiztogo dala (1. Ad timoth. 5. 4.). Botsgarrena. Oracioa izango da alargunen lan gucia. Bada eguiazco alargunac gorde bear due Jaunarentzat beren viotz, ta amorio guztia, eta beragatic ez due itzic ere bear besterenzat. Nola alargunac libre guelditzen diran senaren ilcearequin, esan bear dioe beren Jaunari. O! Jauna, oraiñ guztia nerea naizanean, artu nazazu guztia ceretzat: eraman nazazu zure ondora: jarraituco dizut zure unguentu usai ederrezcoen ondora. Itz batean eguiazco alargunac bear due izan marsoco viola, lore ederrac becela, zabalceco virtucen usai gozoa lecu guztietan: bear due egon ezcutatuac munduco atseguiñ, conversacio, ta onretaraco, ta onela beren dembora igarotzen duen alargunac, izango dira zori onecoac, esaten du Apostolu Santuac. (1. Ad Cor. 7. 8).

Castidadeco virtutea, nere Cristauac; aditu dezuen becela ederra da doncelletan, ezconduetan, ta alargunetan, bai ta erraz galcen duana ere bere edertasuna. Orregatic ez da cer viotza galdu. Eman digu Jaunac Maria chit Santagan bitarteco andi bat, guri lagunceco edoceñ trancetan, edoceñ estutasun, eta tentaciotan. Goacen bada guztioc Ama maite onengana, ta escatu deguiogun uste andi batequin, iritsi deguigula bere Seme Jesusegandic virtute eder au gordetzeco gracia, baita ere ongui vici, ta ilteeco bear degun lagunzta, guero egon gaitecen berarequin Ceruan beti betico atseguiñetan. Amen.

BERROGUEI TA BIGARREN ERACUSALDIA.

ADIRAZTEN DA LENVICIA.

Cer aditzen dan dotrinaren icenez, eta ceiñ gauza bearra dan Ceruraco.

Bigarrena: Eliz Ama Santaren aleguiñac dotrina guri icas-erazteco.

Irugarrena: Ascoren aitzaquiac dotrinara ez etortzeco, eta emendic datocen calteac.

In mansuetudine suscipite verbum insitum, quod potest salvare animas vestras. Jacobi 1.º

Noizbait, noizbait asitzera noa, nere Cristauac, aspaldi nai izan dedan lanean, edo Cristau aciai dotrina azaltzen, eta adirazten. Cristau cerbait adiñean aurreratu dirañac obeto jaquin, eta aditu bear ditue dotrinaco gauzac aurrac baño; eta jaquiunde onen arguiarequin jarraitu bear dioe Ceruraco bideari, becatutic, eta becatuaren bideetatic aldeguiñaz, eta Jesu-Cristoren Legue eder-garbia gordeaz. Cristau aciai arguitasun au ematea, eta Ceruraco bidean arretarequin ibiltzeco esnatzea da Eliz Ama Santac animen arzayai escatzen dien gauza bat (a); eta ona cergatic sall oni equitera noan. Ez naiz dotrinaco gauzac uquitzearequin contentatuco, baicic aditzera emango ditut gañera Jauna amatzeco, eta servitzeco

Universidad de Deusto
Biblioteca

ditugun bide , edo motivo andietatic cembait. Enzun ezazue bada viotz manso, ta umill batequin zuen animac salvatu ditzaquean , Jaunaren itza , esaten digu Santiago Apostoluac : *In mansuetudine suscipite verbum insitum , quod potest salvare animas vestras;* eta au bera escatzen dizuet nere asiera onetatic. Onetara cuturtu ditecen zuen viotzac , aditzera emango dizuet gaur, lenvicia: cer aditzen dan dotrinaren icenez , eta cein gauza bearra dan. Bigarrena, Eliz Ama Santaren aleguiñac dotrinaco gauzac guri icas-erazteco. Irugarrena , ascoren aitzaquiac dotrinara ez etortzeco , eta emendic datocen calteac. Enzun nazazue contuz.

Dotrinaren icenez aditzen da Jesu-Cristoren legue Santa galde , ta erantzute laburretara biurtua , eta era onetan arquitzen da Aita Asteteren liburu ederrean. Bere sarreran itzeguiten du Cristauaren izate, icen, eta siñalearen gañean. Guero lau partetan eracusten dizquigu, Cristauac jaquin bear dituan, gauzac. Lenengoan cer sinistu bear degun , eta onetaraco dira Credoa , ta Articuluac. Bigarrenean eracusten digu, *cer Jaunari escatu bear diogun*, eta onetaraco dira *Aita Gurea*, *Avemaria* , *ta Salvea*. Irugarrenean eracusten digu , cer eguin bear degun Ceruraco , eta onetaraco dira Jaunaren legueco amar Aguinteac , Elizaco bostac , eta Misericordiazco obrac. Gañera animaren etsayen , becatuaren , eta virtuteen gañean dacartzian gauzac laguntzen due ascó , cer eguin bear degun jaquiteco. Laugarren Partean eracusten du, cer artu bear degun, edo zazpi Sacramentuac, eta oen ondoren uquitzen ditu cembait gauz on.

Ezagutzeco , ceiñ gauza bearra dan Ceruraco do-

trina jaquitea , beguira Cristaua , certaco eguiu cinduan Jaunac ? Cembat gauza bear diran zuc zuri dagoquizuna eguiteco, eta nola gucia eracusten dizun dotrinac bere lau Parteetan. ¿ Certaco eguiñ cinduala Jaunac uste dezu? Eguin cinduan bera ezagutzeco , eta ezaguturic amatzeco , eta servitzeco , eta guero beticotasun gucian berarequin batean doatsu izateco (b). Emendic atera ezazu , zure lan , edo eguitecoric andiena , ta bearrena , edo bacarra dala zure Jaungoicoa ezagutzea, ta ezaguturic amatzea , ta servitzea. Cembat gauza bear dira zuc zure lan au ongui eguiteco ? Iru gauza , eta irurac iristeco bidea ederqui eracusten dizu doctrinac bere lau Parteetan (c). Lenengoa da ezagutzea fedearen arguiarequin cein maitagarria dan gure Jaungoicoa, eta ezagüera onequin esnatzea bera amatzeco , eta servitzeco, edo bera amatu , ta servitu-nai eguiazco bat sortzea viotzean. Esan guidazu , nola amatuco , ta servituco dezu zure Jaungoicoa , ta beraren Seme Jesus, ezpadezu ezagutzen , cein ona, eta maitagarria dan ? Eta nola , zure viotzean sortzen ezpada gogo , ta nai eguiazco bat ? Ecin datequean gauza da ori. Eta nondic , eta nola ezagutuco dezu Jaincoaren ontasun , eta maitagarritasun paregabea? Dotrinaren lenengo Partea , edo cer sinistu bear dan jaquitearequin. Gauza guciac nolerebait ari dira guri adierazten , cien maitagarria dan gure Jaungoicoa; bañа ezagüera au ezta ascó guc bear dan eran bera amatzeco , ta servitzeco. Jaun au da gu Ceruraco eguin guinduana. Jaun au da , gu Adanen becatuarequin galduac ecusiric , guizon eguin zana, gurutzean vicitza eman zuana. Jaun au da bere Eliza aimbeste nequerequin alcha zuana , bere umeen artean artu gaituana , eta Ceruraco bidea berriro prestatu digu-na. ¿ Cein on , eta maitagarria ez da , au gucia gu-

Universidad de Deusto
Biblioteca

re alde eguin duan, Jauna? Baña maitagarritasun au da fedearen arguiac bacarric eracusten duana, sinisteco eracusten dizquigun, gauzetan, batezere Credoan, eta fedearen Articuluetan. Eta ona cein gauza bearra dan Credoa, ta fedearen Articuluac onguí jaquitea, ezagutzeco Jaunaren maitagarritasuna fedearen arguiarequin, eta ezagüera onequin muguitzeco bera amatzera, ez bacarric gauza gucien Eguillea bezala, baita ere ceren fedeac eracusten digun aldetic dan ecin gueyagoraño on, eta maitagarria.

Jaungoicoa amatzeco, ta servitzeco ezta asco bera ezagutzea, ta amatu, ta servitu nai izatea, bear da gañera artaraco escua, ala, edo indarra. Izan dezaquezu zuc Jerusalengo lecu Santuac ecusteco nai andi bat, baña ezpadezu oñetan indarric pausoric ematceco, eta ezpadezu gañera ez zaldiric, ez ontziric, etzera ara joango beñere. Era berean ez dezu zuc zure Jaungoicoa bear dan eran amatuco, beraren maitagarritasuna ezagututa-ere, ezpadezu artaraco escu, al, eta indarric, edo berbera dana Jaunaren gracia, ta Ceruco laguntza, ta indarra. Jaunaren graciaren icenez aditzen da araco Espiritu Santuac animari batayoan, edo confesioco Sacramentuan, edo beste edocein Sacramentutan ematen dion doai miragarri ura. Au da animaren vicitza, eta santutasuna, eta deitzen dio Jesu-Cristoc eztayetaco soñecoa. Au da gu Jaincoaren Seme, Jesu-Cristoren senide, eta Ceruaren jabegai eguiten gaituana. Gracia au gabe eguiten diran obra guciac, berenez onac diranean-ere, dira illac, ceren sustraya illa dagoan: eta emendic gauza bearra gracia au guc gure Jaungoicoa amatzeco, ta servitzeco. Gañera graciaren icenez aditzen dira Jaunac becatutic aldeguiteco, ta obra onac eguiteco adimentura bidaltzen di-

tuan arguiac, eta viotzari eguiten diozean uquitzeac; deitzen zayo gracia oni Ceruco laguntza, ta indarra, eta gracia au-ere gauza bearra da guc gure Jaungoicoa amatzeco ta servitzeco. Au gabe ez guera gai, edo ez guera gauza pensamentu on bat-ere eguiteco, ez eta Jesus esateco-ere, dio S. Pauloc. *Nemo potest dicere Dominus Jesus nisi in Spiritu Sancto* (d). Eta nondic, eta nola jaquingo du Cristauac Ceruco gracia oec iristeco bidea? Nondic? Dotrinaren bigarren, eta laugarren Partetic. Bigarren Partean eracusten zacu, cer escatu bear diogun Jaunari; eta nola escatu bear diogun, eta onetaraco da *Aita gurea*, araco Jesu-Cristoc berac bere Elizari utzi cion erregu miragarri ura. Erregu onetan escatzen diozcagu Jaunari betico vicitza doatsua, animaco gracia, eta emen vicitzeco bear ditugun gauza guciac. Eta nola gure erreguac ascotan izan oi diran edo epelac, edo gaizqui eguiñac, Eliz Ama Santac erascusten dizquigu *Ave Maria*, eta *Salvea*, Virgiña chit Santaren bitartecotasunarequin iristeco bear deguna. Laugarren partean eracusten zacu, *cer artu bear degun*. Bacecusan Jesu-Cristoc, batayoco Sacramentuan guri graciaren vicitza eman arren, guizango guiñala argalac, oneraco naguiac, eta gaitzera macurtuac, eta eman cigun gracian iraun, eta aurreratu guindecen ipiñi cituan beste Sacramentuac, batez ere Comuniocoa. Au da vicitzaco arbolaren fruta eguiazcoa, eta au sarritan, eta devocioz artzen dala vici diteque Cristaua, becatuaren eriotzaren atzaparretan erori gabe (e), Jesu-Cristoc berac esana utzi zuan bezala. Bacecusan gañera Jesu-Cristoc, Cristauric gueyenac galduco zuela batayoan artu zuen graciaren vicitza, eta gueratuco cirala animaren aldetic illac, eta piztu citecen ipiñi zuan Confesioco Sacramentua. Ona, nola dotrinaren

Universidad de Deusto
Biblioteca

bigarren, eta laugarren Partea jaquitearequin daquian Cristauac, nola, ta cer bidez iritsico dezaquean Jauna amatzeco, ta servitzeco bear duan, gracia, al, eta indarra.

Ezta hau-ere asco guc gure Jaungoicoa amatzeco, eta servitzeco. Eguizu contu, ezagutzen dezula zuc gure Jaun Erreguea, eta badezula bera servitzeco nai, edo deseo andi bat, baita artaraco modua-ere. Ezta asco au zuc Erregue servitzeco; jaquin bear dezu onetaraco, cer zuc eguitea nai duan Erreguec, eta au jaquiñic ederqui servi dezaquezu. Au bera guertatzen da Jaincoa amatzearen, eta servitzearen gañean. Ez da asco ezagutzea, cein on, eta maitagarria dan Jauna, ez eta bera amatzeco nai utsa ere. Ezta asco zuc artaraco bear dan escu, al, eta indarra izatea; jaquin bear dezu gañera, cer zuc eguitea nai duan Jaun onec. Eta nola jaquingo dezu au? Dotrinaren irugarren Partetic. Parte onetan eracusten dira, guc eguitea Jaunac nai duan gauzac; emen Jaunaren Legueco amar Aguinteac, Elizaco bostac, eta misericordiazco obrac. Oen ondoren eracusten digu dotrinac aldeguin bear diegun animaren etsayac, cer dan becatua, becatu capitalac, oen contraco virtuteac, eta beste cembait gauza egoqui Jauna servitzeco cer eguin bear degun jaquiteco.

Oraindaño uquitu ditugun gauzac jaquitea Cristau guciai dagotena da. Oez gañera jaquin bear ditu bacoitzac bere estadu, ta carguari dagozcan eguinbideac. Ala esaten digu Santo Tomasec: *Singuli autem tenentur scire ea, quæ ad eorum statum, vel officium spectant* (f). Ecusten dezu, Cristaua, ceiñ gauza bearra dan dotrina? Cein bearra onec bere lau Parteetan dacarrena jaquitea? Jaquiunde au da Jaungoicoaren, eta aren Seme Jesu-Cristoren ezagüera ematen diguna, eta ezagüera onetan dago betico vi-

citza doatsua, dio S. Juanec, au da betico vicitza doatsua iristeco bidea: *Hæc est vita æterna, ut cognoscant te solum Deum verum, et quem misisti Jesum Christum* (g). Jaquiunde au da, guri aguertzen diguna gure Jaunaren ontasun neurriric, eta bazterric ez duana Credoan, eta Articuluetan. Jaquiunde au da Ceruraco bidean bear degun arguitasun gucia ematen diguna. Jaquiunde au da Erregueac, Principe, ta guizon andiac, Obispo Jaunac, eta Aita Santuacere, Ceruraco badira, guc bezala icasi, beren viotzean gorde, eta obretan eracutsi bear duena. Jaquiunde au da Escritura Santac aimbeste laudatzen, eta aiñ gora alchatzen duana. Ñai izan nuan, eta eman zat centzua, dio jaquintsuac Escrituran. *Optavi, et datus est mihi sensus.* Escatu nion Jaunari, eta etorri zan nigana jaquiundearen espiritua. Erreñuac, eta Erregueen jarlecuric andienac baño gueyago estimatu nuan, eta onen pare ipiñiric munduco ondasun guciac ez nituan ecertan iduqui. *Divitias nihil esse duxi in comparatione illius.* Arri eder-preciotsuac ez nituan ecertan artu onen aldean. Urrea, dan garbiena, eta fiñena-ere, ondar ale bat bezala da jaquiundearen pare, eta loya iduringo du onen aurrean cillarrac. *Omne aurum in comparatione illius arena est exigua, et tanquam lutum æstimabitur argentum in conspectu illius* (h). Ongui: eta au onela bada, dan bezala, etzera sayatuco, Cristaua, dotrina ederqui icastera? Dotrinara etortzera aldezun gucian, eta cere mendecoac bidaltzera? Baña asco degu gaurco. Uste nuan baño gueyago luzatu naiz lenengo puntuan, eta beste biac uquituco ditut urrengo Eracusaldian. Enzun ezazue, nere Cristauac, viotz manso, ta umil batequin, zuen animac salvatu ditzaquean, Jaunaren itza. *In mansuetudine suscipite verbum insitum, quod salvare potest animas vestras.* Jaunari nai

daquiola Ceruco jaquiunde au guc iristea, eta onequin vici guerala Jaunaren gracian gure egunac bucatzea. Au da nic opa dedana guciontzat Aitaren, eta Semearen, eta Espiritu Santuaren icenean. Amen.

(a) Ses. 5 cap. 2 de Reformatione (b) Factus est homo, ut summum bonum intelligeret, intelligendo amaret amando possideret, et posidendo frueretur. S. August. Enchir. cap- 9. Id vero fides nos docet tum in antiqua formula Articulorum fidei recepta in Hispania, Art.° 7 Humanitatis Jesu-Chti Domini nostri, tum in Symbolo Articulo ultimo, ubi nobis promittitur, *Vita æterna. Nec oculus vidit, nec auris audivit nec in cor hominis ascendit quæ præparavit Deus diligentibus se*, ait Apostolus 1 ad corint. c. 25. (c) Vide Venerab. Granatensem Lib. 1. ° part. 1.ª cap. 2 de Doctrina Christiana, ex quo hæc sumpsi. (d). 1.ª ad corint. c. 12 (e). Joam. c. 6. (f). S. Thomas. (g) Joam. c. 17. (h) Sap. 7.

BERROGUEI TA IRUGARREN ERACUSALDIA.

ADIRAZTEN DIRA AURRECO ERACUSALDIAN UTZI CIRAN GAUZAC, ETA OEC DIRA.

Lembicia: Eliz Ama Santaren aleguiñac dotrina guri icas-erazteco
Bigarrena: ascoren aitzaquiac dotrinara ez etortzeco, eta emendic datocen calteac.

In masuetudine suscipite verbum insitum, quod potest salvare animas vestras. Jacobi c. 1.°

Menengo Eracusaldian aditu cenduen, cer aditzen dan dotrinaren icenez, eta cein gauza bearra dan Ceruraco. Gaur aditzera emango ditut lembicia: Eliz Ama Santaren aleguiñac, dotrina guri icas-erazteco. Bigarrena, ascoren aitzaquiac dotrinara ez etortzeco, eta emendic datocen calteac. Asi gaitecen bi gauz oec ecusten.

Eliz Ama Santaren nai guciz iracequia, eta ansia andia da bere umeac betico vicitza doatsura guiatzea; eta nola ecin vicitza ura iritsi ditequean dotrina jaquin gabe, artu izan ditu au guri icas-erazteco neurri ederrac, eta asco. Elizaren aurreneco demboretan Obispo Jaunac berac ari oi ciran beren contuco animai dotrina eracusten. Oen artean icendatu ditezque S. Atanasio, S. Cirilo Jerusalen-

Universidad de Deusto
Biblioteca

go Obispoa, S. Agustin, eta beste asco. Iñoiz besteri utzitzen bacioen eguiteco au, izango zan ura guizon jaquiunde andiscoren bat, eta oetatic izan ciran Alejandrian Panteno, ta Origenes (a). Guerozco demboretan ere aritu izan dira lan onetan guizon andiac, naiz Obispoetatic, naiz besteetatic, nola diran Gerson, S. Ignacio Loyolacoa, S. Carlos Borromeo, ta beste ecin conta al. Cristauac ugarituaz joan ciran eran eguin bear izan ciran Eliza berriac, eta oetan ipiñi ciran, eta ipintzen diran Arzayai aguindu citzaten, eracutsi ceguiezala Cristauai Ceruraco jaquin bear dan dotrina. Cer penac ez ditu ipiñi gai onetan naguiac diran Arzayen contra? Gañera aguindu die escola-maisuai eguiteco au bera, eta aguindu die gurasoai, eracutsi deguiezala beren umeai dotrina, edo bidal ditzeela icasi dezaqueen lecura (b). Eta dotriñetatic, eta Jaincoaren itza entzutetic iguesi ez dabillen gendea, ez du nai Eliz Ama Santac aldean dauden hermitetan Mezaric esatea animen Arzayac Jaincoaren itza adiraci dezan artean; eta urrutian badago hermita, ez du nai an Mezaric esan dedin dotrina gabe (c).

Ez dira onetan gueratzen Elizaren aleguiñac. Anciñaco demboran Elizatic botatzen cituan iru igandetan beren Elizara gabe gueratzen ciranac (d). Etzitzayon iñori Meza entzuteco lecuric ematen, beste Eliza, edo Parroquiacoa bazan; aditzen da bidezcoa etzanean. Eliza bacoitzean, Meza asitzeco demboran, galdetzen zan: *ote da emen Eliz onetacoa ez danic?* Onelacoren bat bazan, ateratzen zuen Elizatic (e). Aiñ contu estuac artzen ciran orduan, Cristau bacoitzac bere Arzayaren dotrinatic igues eguin etzezan. Obispadu onetaco legueac aguintzen zuan, eracarri citecela Cristau gnciac Meza nagusietara (f) eta Trentoco Concilioac aguindu cien O-

bispo Jaunai, aditzera eman ceguiezala bere mendecoai, nola beartua dagoan bacoitza alduanean bere Elizara etortzera Jaincoaren itza entzuteco. *Ad audiendum verbum Dei* (f). Atzenean debecatzen du dotrina eztaquianari lembicico Comunioraco baimena ematea; debecatzen du onelacoac ezcontzea, eta deyac eguitea ere bai, itz batean debecatzen du dotrina eztaquienai Sacramentuac ematea. Ecusten dezu, Cristaua, cer neurriac artu, eta cer aleguiñac eguin dituan Eliz Ama Santac dotrina guri icas-erazteco? Eta alaere arquitzen dira Cristauen artean dotriñetatic iguesi dabiltzanac? Arquitzen dira, urte gucian Jaincoaren itza entzun gabe, vici diranac? Eta guero? Bucatu oi ditue eren egunac Ceruco arguiaren berriric gabe, ontzac bucatu oi dituan bezala. Dacuscun oraiñ, cer aitzaquiac ematen dituen dotrinara ez etortzeco, eta cer calteac datocen emendic.

Guchitan guertatzen da becatariac aitzaquiaren batequin bere burua edertu nai ez izatea. Ala guertatu zan Adan, eta Evarequin, eta ala guertatu oi da oen umeaquin-ere, eta oetatic dira dotrinac, eta Jaincoaren itza entzuteco naguitasunean vici diranac. *Ez guera aurrac dotrinara joateco*, esango due batzuec, *badaquigu gure diña. Eguingo baguendu daquigun onec eracusten diguna?* Cristaua, nola itzeguiten dezu era orretan, eta aimbeste dijoaquizun gauzaren gañean? *Ez guera*, diozu, *aurrac dotrinara joateco*. Atozea, ta aurrac bacarric dira dotrina, eta Jaunaren itza enzun bear duenac? Ez dezu aditu, nola Eliz Ama Santac aguintzen duan, Cristau aciaiere aditzera eman daquiztela jaquin bear dituen gauzac? Eta nola aditzera emango zaizquitzu etortzen

Universidad de Deusto
Biblioteca

ezpacera? *Ez guera aurrac* ¿ eta eztaquizu, aurren antzeco biurtzen ezpacera ; etzerala Ceruan sartuco. Ala dio Jesu-Cristoc berac : *Nisi conversi fueritis, et efficiamini sicut parvuli , non intrabitis in regnum Cœlorum* (g.) *Badaquigu gure diña*, diozu. Au esango balu S. Ambrosio batec, sinistu liteque, baña ez dio Santuac onelaco gauzaric , eta onen ordez dio , ez dala iñor-ere icastearen premia ez duanic: *Nemo est qui doceri non indigeat* (h). Eta zuc diozu , badaquizula zuri dagoquizun adiña ? Ote daquizu zuc , ongui confesatzeco nola prestatu bear dezun? Ote daquizu, Acto fedecoac , esperantza , caridade , ta contriciozco afectoac noiz , eta nola eguin bear dituzun? Ote daquizu etsayaren tentacioac garaitzeco cer eguin bear dezun? Ote daquizu dotrina liburuchoac dacarren pisca ori ere ? Gurasoa bacera , ote daquizu cer contu , eta nolaco neurriac artu bear dituzun zure umeac Ceruraco bidean erabiltzeco , eta becatuaren bideetatic quenerazteco ? Errico gaucetan nastutzen cerana bacera , ote daquizquitzu gucien oneraco Erriac dituan ordenanzac ? Ote daquizquitzu dezun carguac dituan eguim-bideac ? Ez noasqui guchi dira alabaña gauz oetan zabartzen ez diranac ; eta gueyenac vici dira vorondatezco ez jaquin negargarri batean , eta ala iltzen-ere dira zabarqueriazco becatu onetan. Ay ! zuec, dio Isayas Profetac, ay zuec ceren beguietan jaquintsuac ceratenac! *Væ qui sapientes estis in oculis vestris* (i). Baña eguin dezagun contu , badaquizula zuc zuri dagoquizuna; eztaquizu ecin gauz onic eguin dezaquezula Jaunaren laguntza gabe, eta laguntza oec ascotan ugari eman oi dituala Jaunac beraren itz Santua umilqui , eta viotz onarequin entzuten danean ? Eztaquizu , dotrina bat entzutean egon dala iñoiz cembait betico ez galtzea?

Ezpāguendu beste eguitecoric , etorrico guiñaque dotrinara , dioe beste batzuec ; baña aste gucian aunatzen guera , jayean-ere milla arazo baditugu, eta nola etorrico guera Meza nagusietara, eta guero berriz beste dotrinara? Aste gucian aunatzen cera, Cristaua , ez dizut ucatuco , baña aunatzen cera gorputzac bear duanaren billa , eta animac ez du ecer bear? Etzera zu bacarric necatzen , zu bezala necatzen dira beste asco-ere , eta badatoz Meza nagusietara; cergatic etzera zu-ere etorrico ? Cergatic chanda ez dezu eguingo echecoaquin ? Jaquiña dago cergatic. Zuc oraindaño ez dezu bururic ausi animaren onari dagozcan gauzetan , eta orain aldapa gogor bat arquitzen dezu Meza nagusietara etortzeco. Baña gauza bearra da , edo betico doatsu , edo betico doacabe izatea : gauza bearra da doatsu izate zuc animaren eguitecoari gogotic equitea , eta arretarequin jarraitzea : *Porro unum est necesarium.* Animaren eguitecoaren aldean cer dira gañeraco guciac? Ceretu ezazu zure neque oriequin mundu gucia ; bildu ezazu urre eta cillar gucia : eguin zaite ardi , bei, lur , baso , eta berace gucien jabe ? Cer probechu dezu gauz oriequin , baldin gucia utzi bear badezu dembora guchiren barrumbean ? Cer probechu, baldin zure anima galtzen badezu ? esaten dizu Jesu-Cristoc : *Quid prodest homini , si mundum universum lucretur , animæ vero suæ detrimentum patiatur* (j). Utzi bada, Cristaua , aitzaquia oec , eta oitu zaite Meza nagusietara chandaca bada-ere.

Meza nagusietara etortzea gucioc eguin dezaquegun gauza da , dio beste batzuec , eta ez datocenac alferqueriaz eguiten due au, gueyenac beintzat ; arratsaldeco dotrinara nola etorri al gaitezque ? Elcar aditu dezagun poliqui , Cristaua. Dotrina Meza nagusietan nic eguiten dedana , da Cristau acientzat,

Universidad de Deusto
Biblioteca

eta Asteteren liburuchoac dacarrena icasi duenentzat, edo artan ari diranentzat. Ezta neque au asco dotrina aurrai, ta len batere eztaquienai eracusteco. Oentzat beste moduric bear da. Autu bear da ordu egoqui bat, edo arratsaldean, edo goiz mezan, edo beste demboraren batean, edo galdetuaz, eta esanaz urte bacoitzean Avendutic Avendura igaro ditezque dotrinaren lau Parteac. Esanguidazu orain, Cristaua: badaquizquitzu, edo ez dotrinaren parte oec? Ezpadaquizquitzu, icasi bear dituzu, edo Elizara zatozela, edo liburuaz edo bestez baliatzen cerala. Badaquizquitzu dotrinaren lau Parteac, eta neque andia badezu arratsaldean etortzeco, atoz contuz Meza nagusietara, eta gende gazteac bidalitzatzu beste dotrinara, eguin dedilla au naiz arratsaldean, naiz goicean. Eguizu aleguiña echean sarritan esan eraztteco dotrina gazteai. Baña baldin oraiñ ere cere aitzaquiaquin dotrinetatic iguesi ibilli nai badezu, entzun itzatzu emendic etorri oi diran, eta erraz etorri ditezquean calteetatic cembait.

Lenengo caltea da gu Ceruraco bidean guiatu bear gaituan fedearen berri ongui icasi gabe asco, eta asco vicitzea, eta iltzea. ¿Eta gure becatuen penan guertatuco baliz auzoan guertatu dan naspillaren antzeco bat, cer izango da dotrina icasteco nagui vici diran oequin? Cer? An cembait lecutan guertatu dana bera. Ecusi dira an erri osoac, Jainco eguiazcoa utziric, guizon gaisto-errebes baten idoloa adoratzen, edo aren antz, eta imagiñaren aurrean belaunico, eta incensu erretzen. Ala guertatu zan Brest deritzan erri andian (1), guizon bat bacarra ez, beste bildu ciran guciac jarri ciran Mrabouren imaginaren aurrean belaunico. Nondic, eta onembesteraño Catolicoac itsutu ote dira? Ceren gure fede Santaren ezagüera azaleco bat besteric etzuen; eta ce-

ren beren Arzayac eracusten zuen dotrina ongui aditzeco arretaric ipiñi nai etzuen. Au bera guertatuco lizaque emen-ere dotrina icasteco gogoric ez duen gueyenaquin, edoceñ gaistaquerietara cuturtuco lituquee aguintari, eta buru gaistoac.

Bigarren caltea da, Jesu-Cristoren legue Santac, eta bacoitzaren estaduac, edo carguac dacartzian eguin-bide, edo obligacioac ez jaquitea, eta ez jaquiñ onetan vicitzea, eta iltzea asco. Cer esango degu onelaco Cristau gaisoaz? Cer, ezpada, beguiac estaliac dauzqueela, jaquitzen dirala betico su, eta garren artera? Eguizue contu, sartzen dala bat San Franciscoren ordenan; ez duala arretaric batere ipintzen jaquiteco, cer aguintzen duan Santuaren erreguelac; eta zabarqueria onetan vici dala, eta iltzen dala. Cer esango guenduque onelaco Erligiosoaz? Esango guenduque, etzuala izan Erligiosoaren jantzia, eta izena baicic, eta eraman zuela etsayac, ceren artu zuan erreguelaco eguin-bideac ezagutzeco conturic eguiñ etzuan. Ongui: eta guc Cristautu guiñenean ez guenduan gueren gaiñ artu Jesu-Cristoren legue Santa? Ez guenduan legue au osotoro gordetzeco itza eman guizonen, eta Aingueruen aurrean? Eta legue Santa au icasteco aleguiñaric eguin gabe vici, eta iltzen diran Cristauaz, cer esango degu Erligioso gaisto artzaz esan deguna bera baicic?

Irugarren caltea da, Jesu-Gristoc utzi cituan, graciaren iturri ugarietatic, edo Sacramentuetatic fruturic ez ateratzea, eta frutuaren lecuan gure animen puzoi biurtzea. Nola ori? esango dezu. Ceren dotrina ez daquiana ecin ongui prestatu ditequean Sacramentuac artzeco, batecere confesioco, ta Comuniocoa. ¿Cembat onelaco Cristau arquituco dira? Cembat examina nola eguin eztaquienac? Cembat

becatuen damu eguiazco, eta ontzeco asmo osoa nola artu bear dan icasi ez duenac? Cembat, becatu guciac esan ezquero barcatuac daudela, uste duenac? Cembat... baña gueyegui luzatuco nintzaque emen ongui letorquean gucia esan bear banu.

Ecusten dezu, Cristaua, cer aleguiñac eguin dituan, eta eguiten ari dan Eliz Ama Santa guri Jesu-Cristoren legue Santa, eta Ceruco dotrina eracusteco. Ecusten dezu, cer calteac datocen gure zabarqueria, ta aitzaquietatic. Entzun ditzagun bada emendic aurrera dotrinac, eta Jaincoaren itza contuz, eta, Santiagoc dion bezala, viotz manso, eta umill batequin. *In mansuetudine suscipite verbum insitum, quod potest salvare animas vestras.* Onela icasico degu Ceruraco bide ederra, vici gaitezque Cristauac bezala, eta iritsi dezaquegu betico vicitza doatsua.

(a) Vide Thomasinum de disciplina Ecclesiæ. (b) Vide Benedictum XIV in suo Bullario tom. 1.° Constit. 42, quæ incipit: «*Etsi minimè Nobis.* (c) *Sitæ quandoque* sunt in agro parvæ, humilesque Ecclesiæ, aliæ Parochiali proximæ, aliæ vero longo intervallo disjunctæ, ad quas diebus festis Patresfamilias una cum liberis accedunt, Sacerdotem operantem auditurі; ex quo fit, ut suæ Parochiæ nunquam ferè intersint, nec ullum de Mysteriis fidei, de Præceptis, de Sacramentis verbum accipiant. Episcopus huic malo occurret, suamque objiciet auctoritatem. Et primo quidem quoad parvas Ecclesias Parochiali proximas, expressa lege caveatur, *ne quis antea Sacrificium faciat, quam Parochus Missam celebraverit, sermonem habuerit, ceterasque sui muneris partes absolverit.* Hoc enim pacto Ecclesia Parochialis confluentium Parochianorum numero celebrabitur. Quo vero ad parvas Ecclesias á Parochiali longe sepositas, cum difficile admodum sit, Parochianos ob locorum distantiam, longum iter, atque asperum, hyemali præsertim tempore, cum pluviæ inundant, Parochiam adire, ibique Divinis oficiis interesse, relicta Ecclesia proximiore: *decernat* Episcopus, gravibus etiam statutis pœnis, quod Sacerdotes ibi operantes Chistianæ Doctrinæ summam popolo tradant, Divinamque legem annuntient. Monendus est tamen Parochus, ne alienæ operæ nimium tribuat, sed videat ipse quo loco res sint, cum pueri Sacramentum Eucharistiæ, et *Confirmationis, alii vero Matrimonii sibi administrari exposcant.*» Benedictus XIV Contitutione citata.

(d) Concilium Sardicense OEcumenicum anno 347 celebratum canone undecimo editionis græcæ, at decimo quarto editionis Dionysianæ, et Isidorianæ jussit, *ut si laicus, in ea in qua commoratur civitate tres Dominicos dies, id est tres septimanas non celebrasset conventum, communione privaretur.* Vide Cabasutium in sua Notitia Ecclesiastica Sæculo IV, et Benedictum XIV de Synodo Diœces. Lib. 11 cap. 14 n.° 7 Decretum hoc renovavit Concilium Quinisextum canone 80, ut videre est tom. 3 Collectionis Harduini col. 1690. Idem antea decrevere Patres Concilii Illiberitani apud Hispanos, cui præsedit Osius; Canon enim 21 ejusdem Concilii ita ait: *Siquis in Civitate positus per tres Dominicas Ecclesiam non accesserit, tanto tempore abstineat, ut correctus esse videatur.* Vide Summam Concilior. Hispaniæ á Villanuño Notis, novisque disertationibus adornatam.

(e) Synodus Nannetensis Canone 1.° statuit: *Ut* Dominicis, et festis diebus Presbiteri, antequam Missas celebrent, plebem interrogent, si alterius Parochianus in Ecclesia sit, qui, proprio contempto Præsbitero, ibi Missam velit audire. Quem, si invenerint, statim ab Ecclesia ejiciant, et ad suam Parochiam *redire compellant*, Canone vero 2.° addidit: *Nullus Presbiter* alterius Parochianum, *nisi in intinere fuerit, vel Placitum ibi habuerit, ad Missam recipiat.*» Vide Benedictum XIV loco citato.

(f) Synodus, seu collectio constitutionum antiquarum Ecclesiæ Pompelonensis fol. 18 hæc habet: *Statuimus, quod*

»*omnes* Parochiani cogantur, saltem diebus Dominicis, et fes-»tivis colendis audire Missas majores *in suis Parochiis.*» Hoc statutum fuit anno 1531 á Cardinali de Cesarinis. Synodus autem ultima monet Parochianos, non tamen cogit.

Hic quæri solet, num fideles teneantur interesse Parochiæ suæ ad audiendum verbum Dei? Certum est, eos, qui alio modo scire non posunt necesaria ad salutem, nec invigilare propriæ salvationi, teneri jure divino, ac naturali. Et in hoc nullum est dubium. Hinc ubi nulla est Ecclesia, in qua annuntietur verbum Dei, exponanturque rudimenta nostræ Religionis, præter Parochialem, multi erunt, qui jure Divino, seu præcepto diligendi Deum, et habendi curam æternæ salutis teneantur adire Parochiam ad audiendum verbum Dei.

Certum etiam est, extitisse olim præceptum Ecclesiæ, ut fideles interessent Parochiæ suæ ad audiendum verbum Dei. Constat id tum ex supradictis, tum ex Concilio Tridentino ses. 24 cap. 4 de reform, ubi clare admonet nos de hac obligatione. Sed disputant nonnulli, num hodie existat hæc obligatio á lege Ecclesiæ? Affirmant Wan-Espenius, aliique Rigidistæ. At comunis T. T. sententia tenet negativam cum Benedicto XIV, nec dubitari potest, hanc esse conformem menti Sacræ Congregationis Episcoporum, quæ præceptum latum ab Episcopo Midensi: ut fideles adirent suam Parochiam ad audiendum verbum Dei, præcidi jussit tanquam nimium severum, ut videre est apud Benedictum XIV loco citato. Synodus Pompelonensis omnino cohæret cum his, quæ adfert Benedictus XIV.

(g) Math. c. 18 (h) S. Ambrosius Lib. 1 Officior. c. 1 [i] Isai, c. 5 [j] Math. 16 (l) Histoire du clerge penciant la revolution Franzaise par M. l' Abbe Barruel.

BERROGUEI, TA LAUGARREN ERACUSALDIA.

ADIERAZTEN DA LEMBICIA.

Ceiñ marca gaistoa dan dotriñac, eta Jaincoaren itza ez entzutea, eta nor diran marca onequin dabiltzanac.

Bigarrena: ceiñ marca, edo siñale ona dan dotriñac, eta Jaincoaren itza ongui entzutea, eta nor diran marca onequin arquitzen diranac. Cer frutu emendic atera bear degun.

In mansuetudine suscipite verbum, insitum, quod potest salvare animas vestras. Jacobi c. 1.

Enzun ezazue viotz umill, eta manso batequin, zuen animac salvatu ditezquean, Jaincoaren Itza, esaten digu Santiago Apostoluac. Gure viotzac sasoi eder onetan ipiñi nayez, lenengo bi Eracusaldietan itzeguin dizuet cerbait dotriñac, eta Jaincoaren itza entzutearen gañean. Aditu cinduen azquenecoan Eliz Ama Santaren aleguiñac dotrina guri icas-erazteco. Aditu cinduen gañera ascoren aitzaquiac dotrin-etara ez etortzece, eta emendic datocen calteac. Gaur aditzera eman nai dizuet, lembicia, ceiñ marca gaistoa dan dotrinac, eta Jaincoaren itza ez entzutea, eta nor diran marca onequin dabiltzanac. Bigarrena, ceiñ marca, edo siñale ona dan dotriñac, eta

Universidad de Deusto
Biblioteca

Jaincoaren itza ongui entzutea, eta nor diran marca onequin arquitzen diranac. Bucaeran uquituco det emendic atera bear dan frutua. Entzun nazazue contuz.

Cer marca ote da dotrinac, eta Jaincoaren itza ez entzutea? Marca guciz gaistoa, eta izugarria, au da alabaña infernuco unayac bere mendean, eta beretzat daucan taldearen marca. Ala esana utzi cigun Jesu-Cristoc Evangelioan. Argatic zuec, esan cien beiñ Juduai; argatic zuec entzuten ez dituzue Jaincoaren itzac, ceren Jaincoarenac etzeraten: *Propterea vos non auditis, quia ex Deo non estis* (a). Jesu-Cristoren itz oetatic arguiro ezagutzen da, dotrinac, eta Jaincoaren itza entzun litequeala, ez entzutea dala infernuco unayac beretzat bildu duan taldearen marca, edo siñalea.

Nor ote dira marca izugarri onequin dabiltzanac? S. Gregorioc iru taldetan ipintzen ditu, eta talde bacoitzac badu dagocan marca. Lenengoa da dotrinac, eta Jaincoaren itza entzun litzaqueala entzuten ez dituenen taldea. *Non audientium* (b). Eta, zuec ongui daquizuen bezala, andia izan oi da erri bacoitzean talde au. Ez dira noasqui izango emen ere lautatic bat dotrinetara, eta Jaincoaren itza entzutera etortzen diranac, eta oec gueyenean batzuec berac; gañeracoac, gaisô, edo eri arquitzen diranac ez, beste guciac igues eguin oi due dotrinetatic, eta Jaunaren itzagandic, eta vici dira etsai galgarrien marcarequin, eta aren lenengo taldean, S. Gregoric dionez: *Non audientium.* Ez da au gauz izugarria, nere Cristauac? Nola guertatzen ote da au Cristauen errietan? Entzun ezazue, nola.

Batzuec igues eguiten due dotrinetatic, eta Jain-

coaren itzagandic, ceren viotzic ez duen becatutic, eta becatuaren bideetatic aldeguiteco, eta Jaincoaren itzac onetara deituco dien. Guertatzen da gurequin S. Agustiñi gaizqui vicitu zan demboran guertatzen citzayona. Ezagutzen zuan Santuac, cein gauz ederra zan virtutea; baña etzuan viotzic becatuaren atseguiñ lizunac betico utzitzeco, eta beldur zan Jaunac bereganatu, edo achitu cezan, eta ecusi cezan bere burua aimbeste maite cituan atseguin, eta contentu gabe. Ala esaten dio berac Jaungoicoari: *Timebam, ne caperes me.* Onen antzeco gauza bat guertatzen da bada asco becatarirequin, batezere oitura gaiztoetan ondatuac vici diranean. Ezagutzen du licharrerian vici danac, ezagutzen du adisquidetasun gaistoetan nastua dagoanac, ezagutzen du gorrotoan dagoanac, gauz ona, eta ederra dala Jaungoicoa servitzea, eta beraren legue santa gordetzea, baña ez du viotzic oraindic orretaraco bear dana eguiteco; eta Jaunaren itza entzutera badator, beldur da, estutu, ta beartu dezan itz onec, utzi nai ez lituquean, oitura charrac utzitzera.

Beste batzuec iguesi dabiltza dotrina, eta Jaunaren itz santua enzutetic, ceren oituac dauden, goiceco Mezaren bat entzun da, jai egunac nola nai igarotzera, edo echean, edo edanean, ta lasaiquerietan, edo basoac, ardiac, eta beyac ecusten, ta idoloac bezala adoratzen. Onelacoac dira ontzac bezala. Ontzac igues eguiten du arguiagandic, eta ozta aguertzen da eguantzaren arguitasuna, ezcutatzen da tellatuetaco zuloetan, edo aritz, edo gaztaña-zarren baten barrumbean, eta ez da andic irtengo arratseraño. Ala vici dira asco Cristau beren dembora gucian: igues eguiten due aricaco arguiagandic, eta iltzen dira Ceruraco bidearen berriric ongui icasi gabe. Ceiñ gauza icaragarria era onetan Jaungoico

aserratuaren aurrean aguertzea!

Beste batzuec ez dira etortzen dotrinac, eta Jaincoaren itza entzutera araso, eta eguitecoen aitzaquiarequin. Baña aitzaquia onec ez du batere edertzen Jaunaren beguietan beraren itz santua entzuteco zabarqueria, eta gogoaren falta. Iñoiz, edo berriz guerta diteque eguitecoac eguiaz eragoztea Elizara etortzea Jaunaren itza entzuteco demboran, baña sarritan, eta oituraz? Au ecin datequean gauza da. Ceer? Ez degu dembora arquitzen nai degun gauza guciraco? Ez degu dembora arquitzen feriara, ostatura, basora joateco? Nola ez degu arquitzen dotrinac, eta Jaincoaren itza entzuteco? Gañera, certaraco eguin cinduan, Cristaua, zure Jaunac? Etzinduan eguiñ bera ezagutzeco, amatzeco, ta servitzeco, eta guero beticotasun gucian berarequin batean Ceruan doatsu izateco? Beraz zure eguitecoric andiena, ta bearrena, edo obeto esateco bacarra da zure Jaungoicoa ezagutzea, amatzea, ta servitzea; gañeraco eguiteco guciac onen pare ipintzen badituzu, ez dira aurren jolasac besteric, S. Agustiñec esan zuan bezala. Bildu itzatzu, nai badezu, lurrac bere sabelean ezcutaturic dauzcan urre, cillar, eta ondasun guciac; eguin zaite lurraren gañean arquitzen diran ardien, beyen, basoen, eta beraceen jabe: cer probechu ateraco dezu ondasun oetatic gucietatic galtzen badezu zure anima? Esaten dizu Jesu-Cristoc: *Quid prodest homini si mundum universum lucretur, animæ vero suæ detrimentum patiatur* (c). Ona nor diran etsayac bere marcarequin lenengo taldean darabiltzanac. *Non audientium.* Jesu-Cristoc berac aditzera ematen digu oequin eguingo duana, ezpadira centzatzen. Guraso prestu batec prestatu zuan afari andi bat, dio Jesu-Cristoc: deitu cituan asco. Gauza guciac prest arquitzen ciran demboran, gaztigatu

cien, cijoacela afaritara; baña etzitzaican joan, ematen zuala bacoitzac bere aitzaquia. Batac esan zuan, erosi det baserri bat, eta urase ecustera joan bear det. Besteac esan zuan, bost idi-ustarri erosi ditut, eta aec progatzera noa. Besteac esan zuan, ezcondu naiz, eta ecin noaque. Adituric aitzaquia oec, esan cion guraso prestu arc morroyari: oa cale, ta plaza orietara, eta ecarri itzac arquitzen dituan beartsu, eri, urgun, ta itsu guciac. Ala eguin zuan morroyac. Maya bete zanean esan zuan nagusiac: Nic esaten dizuet: *Dico autem vobis*, nic deitu ta etorri ez diran orietatic batec-ere ez duala progatuco nere afaria. *Nemo virorum illorum, qui vocati sunt, gustabit cœnam meam* (d). Itz oetan aditzera ematen digu, ez degula progatuco Ceruco atseguin-contentuen afari andia, aitzaquiaquin igues eguiten badegu dotrina, eta Jaincoaren itzagandic.

Etsayac beretzat marcatua darabillen, bigarren taldea da, S. Gregorioc dionez, dotrinac, eta Jaincoaren itza entzun arren, Jaunac adierazten dienari viotzean lecuric ematen ez dioenena. *Non acceptantium.* Nere Cristauac, ez degu ecer eguiten dotrinac, eta Jaincoaren itzac entzutearequin, Jaincoac adirazten diguna eguiten ezpadegu; ez dira justuac Jaunaren beguietan beraren legue santa nola nai aditzen duenac, dio S. Pauloc: *Non enim auditores legis justi sunt apud Deum*, baicic justu ta onac izango dira legue onec eracusten duana eguiten duenac: *Sed factores legis justificabuntur* (e). Eta Jesu-Cristoc berac esaten digu: Zori onecoac Jaunaren itza entzuten duenac: *Beati, qui audiunt verbum Dei, et cutodiunt illud* (f). Emendic, Jaunaren itz santua aditu ta, viotzean lecu ematen ez dioenac, ez due Jesu-Cristoren artaldeco marca, baicic etsayaren bigarren taldecoa: *Non acceptantium:* ta talde au ere

Universidad de Deusto
Biblioteca

ez da noasqui chiquia, ongui beguiratzen badegu, nola entzuten duen ascoc Jaunaren itza. Nai dezu, Cristaua, aditu au? Zaude bada contuz, eta adiezazu esatera noana.

Batzuec entzuten ditue dotrinac, eta Jaincoaren itzac, eta entzuten ditue gustoz azaletic dijoacenean, eta Virgiña chit Santaren bitartecotasun, eta urriquimentuaren, eta betico vicitza doatsuaren gañean itzeguiten danean. ¿Norc alabaña gauz oec gustoz adituco ez ditu? Baña dotrinac arguiro beguien aurrean ipintzen baditue guertatu oi diran, edo erraz guerta ditezquean oquerrac, orduan ez ditue gustoz aditzen, gai artan erren eguiten duenac, eta onela aditu lecuan, beren gogoa, ta viotza itzultzen ditue beste aldetara, aurpeguico manchac, eta cimurtuac aguertzen cituan ispilluagandic emacume batec beguiac quendu oi cituan bezala. Onelaco Cristauac dira, Isayas Profetac dionez, Jaunaren legue ederra dan bezalacoa aditu nai ez duenac; *Filii nolentes audire legem Dei*, eta berengan esaten duenac: ez guri orrelaco gauza gogorric esan, baicic gauza berachoac, eta gustocoac: *Loquimini nobis placentia* (g). Beste batzuec gustoz entzuten ditue dotrinaric zorrotzenac-ere guiarrean uquituac izan ditecen artean. Itzeguin bedi cuticiaren contra, deadar eguin bedi tratu gaistoen, eta lagun urcoa odol ustutzeco asmatu diran bideen contra; nolaco gustoarequin ez dago edalea gauz oec aditzen? *Emen ote dira urlia, eta sandia*, dio beregan. Itzeguin bedi edanean igarotzeco oitura lotsagarriaren contra; aguertu bitez, erriai, echeai, umeai, eta animai emendic datozquien calteac, esan bedi oitura au sartzen bada, dala minantze bat ecin sendatu ditequeana, edo chit nequez sendatzen dana. Gauz oec entzuten ditu cuticiaren suarequin erquitua dagoanac poz andiare-

quin, eta duan damua da, sandia, ta berendia Elizan ez arquitzea. Au bera guertatzen da beste becatu ascoren gañean itz eguiten danean. Gustoz entzuten ditue beren chanda datorquien artean; baña au datorrenean, eta Jaunaren itzac guiarra uquitzen dienean, sumintzen dira, ayenatzen due viotzetic Jaunaren itza, eta bear bada aserratzen zate Predicariaren contra. Eguiten due onelacoac cecenac plazan suzco banderillaquin beiñ baño gueyagotan eguiñ izan duana. Egozten diozquee susco banderillac, eta bere miñarequin botatzen ditu ascotan beregandic lepardatzari dardar eraguiñaz. Au bera eguiten due ascoc Jaunaren itzarequin, guiarreraño igarotzen bazate; botatzen due berengandic suzco banderilla baliz bezala. Au ascotan guertatzen da baña batecere esaten danean, biurtu bear dala erriari, edo lagun urcoari sisatu zayona; utzi bear dala gorrotoa, itzeguin bear dala etsayarequin, Jaunac aguintzen duan demboretan, modu onean, utzi bear dirala betico becaturaco bide, eta perillac, onelaco echetan sartzea, urliarequin, edo sandiarequin itzeguitea. Beste batzuec ain dira beren iritziari itsatsiac, non beren uste oquerra arguiro aguertu arren, ecin sinistu duen, eta arquituco dira noasqui cembait ain zacarrac, ain moldacabeac, eta jaquiñezac, non fede gauzac-ere sinistuco ez dituen, bere uste, eta usanzaren baten contra badira. *Gaur aditu deguna eguia bada, etzeagoc guretzat Ceruric*, dio batec, eta erantzuten dio bere antzeco batec: *Ah! choroa; ara igo ezquero cerbait esan bear die.* Cer esango degu onelacoaz? Cer, egunaren erdian estropozoca dabiltzan itsuac dirala baicic? Isayasec cion bezala: *Impegimus meridie quasi in tenebris* (h). Au guertatu oi da ez guchitan batezere amarrenen, gorrotoaren, eta besterena biurtu bearraren gañean

Universidad de Deusto
Biblioteca

itz eguiten danean. Enzun ezazu, Cristaua, Españaco erri batean guertatu zan Jaunaren castigu izugarri bat. Arrats batean caleetan predicatzen cijoan Misionari bat, eta eche baten parean igarotzean otseguin zuan: Ah! emacume doacabea! Ay! beldur naiz, oguei ta lau orduren barrumbean auts biurzaitecen. Balcoyan cegoan nescacha bat guraso prestuen umea, baña gazte batequiñ adisquidetasun gaistoan vici zana. Predicariaren itz oec igaro cioen viotza batetic bestera; sartu zan barruna, ta asi zan damu andi batequin negar eguiten. Andic laster an zan beste urlia, eta jaquiñic guertatu zana, asi zan Predicariaren contra erausian, eta atzenean becaturaco bideac ematen. Ecusiric ecin cuturtu zuala nescacha, atera zuan puñal bat, onez ezpazan gaitzez nai zuana eraguiteco. Orduan esan cion nescachac, zoaz guelara, eta ichozu an. Gueratu zan Virgiña chit Santaren imagiña baten aurrean; asi zan negarrez escatzen gorde cezala arren perill artatic. Onela igaro zuan gaua; eta nola gazte aren deirie izan etzuan, sartu zan guelan, eta gauz arrigarria! arquitu zuan illa, eta auts biurtu zan gucia. Orra cer dan Jaincoaren itz Santua, aditu ta, viotzetic ayenatzea, ta orra nola chiquia ez dan etsayac bere marcarequin darabillen taldea: *Non acceplantium.*

Etsayac beretzat marcatua daucan irugarren taldea dira S. Gregorioc dionez, Jaunaren itza entzunic Ceruraco bidea artu duenac, baña atzera becatura, eta etsayaren aldera biurtu diranac. *Recidivantium.* Marca au da gucien artean izugarriena, ceren berequin daraman esquergabequeria guciz itsusi bat. Argatic S. Pedroc dio, onelacoac dirala goracoac bota, eta atzera jaten dituan zacurra bezala: *Canis reversus ad suum vomitum*, edo locazdi batean irabiatua dagoan cerria bezala: *Et sus lota in*

volulabro luti (i). Etsayac marca onequin darabillen taldea da guciz ugaria; guchi dira alabaña Jaunaren itzac, Ceruraco bidean iñoiz, edo berriz ipiñi ez dituanac garizuma edo Misioren batean bederic, ta oetatic gueyenac necatzen, eta asperten dira Jaungoicoa servitzeaz, eta igarotzen dira berriro becatuaren mendera, eta etsayaren taldera. Contentu izango nintzaque, dio Aita Calatayudec, Misioetan Jaunaren gracian jarri diranetatic amarretatic bic iraungo balue vicitza onean. Baña gai onetan ez det nai zuec ceroc beste testiguric. Zuec ezagutu dituzue birauguilleac, ta juramentuac nola nai eguiteco oitura duenac. Ezagutu dituzue jai egunetan bearrean aritzeco, eta dotrinetatic igues eguiteco oitura duenac. Ezagutu dituzue edanean igarotzeco griña lotsagarria duenac. Ezagutu dituzue itz loi-desonestoac esateco, eta ipui ciquiñac contatzeco erraztasuna duenac. Ezagutu dituzue erricotic, eta auzoetatic licharrerian gau, ta egun ari diranac. Ezagutu dituzue lagun urcoaren icen onari, edo famari ozca, ta aguinca ari zaizcanac. Ezagutu dituzue gurasoac, errietaco buru, eta cargudunac zabarrac beren eguim-bideetan. Oec guciac, edo gueyenac noiz bait esnatu cituan Jaunaren itzac garizuma, edo misioren batean, eta sartu ciran confesio onaren bidez Jesu-Cristoren artaldean. Esan guidazue orain oetatic cembat ezagutu dituzue becatuaren berrizcaturan erori gabe iraun duenac? Ez dezazuela esan, nic gogor itzeguin dizuedala; baicic cerengan deritzazuena, eta aitortuco dezue, guchi dirala Jaunaren gracian dirauenac, eta guciz ugaria dala etsayaren irugarren taldea. Ecusi degu, nere Cristauac, cein marca gaistoa dan dotrinac, eta Jaunaren itza ez entzutea, eta nor diran marca onequin dabiltzanac. Uquitu dezagun orain, ceiñ marca, edo siñale ona dan dotrinac, eta Jaincoaren itza on-

Universidad de Deusto
Biblioteca

gui enzutea, eta nor diran marca onequin arquitzen diranac.

Dotrinac, eta Jaunaren itz Santua ongui entzutea da Jaincoaren ume autuen, eta Jesu-Cristoren artaldearen marca; ¿ eta ezta asco au jaquitea, ceiñ ederra dan marca au, ezagutzeco ? Da benic beiñ Jaincoaren ume autuen marca, ala dio alabaña eguia bera dan Jesus maitagarriac: Jaincoarena danac entzuten ditu Jaincoaren itzac, esaten digu: *Qui ex Deo est, verba Dei audit* (j). Da gañera Jesu-Cristoren artaldearen marca, eta berac au ere esana utzi zuan. Ni naiz, dio, Arzai ona: *Ego sum Pastor bonus.* Nic ezagutzen ditut nere ardiac, eta oec ere ezagutzen naue ni. *Cognoscunt me.* Baditut beste batzuec oraindic artalde onetan arquitzen ez diranac; ecarri bear ditut aec ere, eta entzungo due nere deia, eta guciac eguingo due artalde bat, eta izango due Arzai bat: *Vocem meam audient, et fiet unum ovile, et unus Pastor* (l). Ona ceiñ marca ona dan dotrinac, eta Jaunaren itza ongui entzutea. ? Baña ceiñ ote dira marca onequin arquitzen diranac ? Oec dira Jaunaren itzaren gose, eta egarria duenac, al duenean entzuten duenac, eta Jaunac adirazten diena contuz eguiten duenac. Irauten badezue nere itzean, edo itz onec eracusten duna eguitean, zuec eguiaz izango cerate nere icasleac, dio Jesu-Cristoc. *Si vos manseritis in sermone meo, vere discipuli mei eritis* (m). Zori onecoac; dio berriz Jaincoaren itza entzuten, eta gordetzen duenac: *Beati, qui audiunt verbum Dei, et custodiunt illud* (n).

Cer frutu emendic atera bear degu? Lenengo frutua sortzea viotzean dotrinac, eta Jaunaren itza entzuteco nai andi bat, eta al dezunean etortzea. Jateco gogoric batere gabe arquitzen dana, ez dago on-

gui bere osasunan ; eta era berean ez dago ongui bere animan Jaunaren itz Santuaren nai, edo gogoric ez duana. Bigarren frutua viotza prest ipintzea Jaunac aditzera eman nai diguna ongui entzuteco. Itzeguizu, Jauna, ta emen dago zure servitzaria, zuc diozuna entzuteco, ta eguiteco, esaten cion Samuel Profetac Jaunari. *Loquere Domine, quia audit servus tuus* (o). Au bera esan bear diogu Jaunari, beraren itz Santua entzuteco jartzen gueranean, eta ez degu beguiratu bear nor dan Predicaria, baicic noren icenean datorren. Irugarren frutua, Jaunac aditzera ematen diguna gogoan ongui erabiltzea, eta eguiteco arreta artzea. Au izango da Jaunaren itza entzutea Santiagoc dion bezala, edo viotz mansoarequin: *In mansuetudine.* Au izango da etsayaren marca gaistoa quenduric, Jesu-Cristoren artaldeco marca ederra artzea: eta onequin irauten badegu, iritsico degu, guretzat aimbeste nequerequin gure Arzai onac irabaci zuan, Ceruco gloria. Amen.

(a) Joan. cap. 8. (b) S. Gregor. Homil. 18 in Evang. (c) Math. 16. (d) Luc. 14. (e) Ad. Rom. c. 2. (f) Luc. c. 11. (g) Isai. c. 30 (h) Isai. c. 59. (i) S. Petrus Epistola 2 c. 2. (j) Joan. c. 8. (l) Joan- c. 10. (m) Joan. c. 8. (n) Luc. c.11 (o) 1.° Reg. c. 3. Tota hæc concio sumpta est ex Sermonibus Calatayud.

BERROGUEI TA BOSTGARREN ERACUSALDIA.

ADIRAZTEN DA LEMBICIA:

Cer aditzen dan Jaunaren Itz Santuaren icenez, eta nolaco mesedea dan, Jaunac bere Elizari itz au utzi dion, eran utzitzea.

Bigarrena: Nolaco aserrea aguertu digun Jaunac beraren itz Santua entzuten ez duenen, eta gaizqui entzuten duenen contra.

Irugarrena: cer frutu emendic atera bear degun.

In mansuetudine suscipite verbum insitum, quod potest salvare animas vestras. Jacobi c. 1.

Enzun ezazue viotz umill, eta manso batequin, zuen animac salvatu ditzaquean Jaunaren itza, esaten digu Santiago Apostoluac. Gai onen gañean itzeguin dizuet iru Eracusalditan, eta azquenecoan aditu cenduen, ceiñ marca gaistoa dan dotrinac, eta Jaincoaren itza ez entzutea, eta nor diran marca onequin dabiltzanac. Aditu cenduen gañera, ceñ marca, edo siñale ona dan dotrinac, eta Jaincoaren itza ongui entzutea, eta nor diran marca onequin arquitzen diranac. Baña ceren batzuec ez daquien oraindic cer aditzen dan Jaincoaren itzaren icenez, gaur aditzera eman nai dizuet, lembicia: cer aditzen dan itz Santu onen icenez, eta nolaco mesedea dan, Jaunac bere itz au Eliz Ama Santari utzi dion eran utzitzea. Bigarrena, nolaco aserrea aguertu digun Jaunac beraren itz Santua etzuten ez duenen, eta gaizqui entzuten duenen contra. Irugarrena, cer frutu emendic atera bear degun. Asi gaitecen bertatic.

Jaungoicoaren itz andia da Jaincoaren Semea bera, edo Trinidadeco bigarren Persona, Aitaren antzederra, Aitaren adimentutic beticotasun gucian jayotzen dana, eta ez degu oraiñ itzeguiten onen gañean. Jaungoicoaren itzaren icenez aditzen da bada emen Jaunac moldatzen duan ots, eta dei bat guri adierazteco Ceruraco bidean jaquiñ, eta eguiñ bear ditugun gauzac. Eguiñ zuan Jaunac guizona bera ezagutzeco, amatzeco, ta servitzeco, eta guero berarequin batean Ceruan beti beti doatsu izateco. Eciñ eguiñ cezaquean, eta eciñ eguiñ dezaque guizonac betico vicitza doatsua iristeco eguiñ bear dana, ezpadaqui norc, eta certaco eguiñ zuan. Ceiñ on, eta maitagarria dan Eguille andi au? Nola iritsi ditzaquean bere lana ongui eguiteco bear diran gauza guciac, cer eta nola eguiñ bear duan Jauna amatzeco, ta servitzeco, nola aldeguin bear duan becatutic, eta becatuaren bideetatic? eta au gucia adierazten dio Jaunac guizonari bere itz Santuaren bidez, eta eracusteaz gañera uquitzen du, eta muguitzen ongui entzuten duanaren viotza arretarequin equiteco bere animaren eguiteco andiari.

Bacecusan Jaunac, nori nai ematen bacitzayon beraren itz Santua adi-erazteco escua, izango cirala Eracusle, ta Profeta guezurtiac, gogoac ematen ciena erausico zuenac, Jaunac esana bezala, eta beragatic munduaren asieratic Jesu-Cristo etorri zan bitartean, eta Jesu-Cristo etorri ezquero artu izan

Universidad de Deusto
Biblioteca

ditu neurri ederrac engañatuac izan ez ditecen bera servitu nai duen animac. Adani, eta beste Patriarca batzuei berac itzeguin cien. Legue zarrean adieraci oi zuan bear zana Profeten autic. Legue berrian Jesu-Critoc berac itzeguin cien Apostoluai, eta Judatarrai, eta eracutsi zuan Ceruraco bidea; eta bere Elizari, au da Apostolu Santuai, oen ondorengo Obispo Jaunai, eta oec bidaltzen, edo eguiteco onetaraco ipintzen dituenai eman cien bere itz Santua adierazteco escua. Eta norbaitec aguertzen, edo aditzera ematen ezpadu itz Santu au Eliz Ama Santac bere buruagandic, edo Jesu-Cristo gandic artu duan eran, quentzen da onelaco Predicari donguea lan onetatic. Onela utzi dio Jaunac bere itz Santua Eliz Ama Santari. Emendic Eliz Ama Santac ipintzen dituan Predicariac dira Jaunaren itz Santua gugana igarotzeco bideac, eta Jaunaren itza da bide oetatic gure adimentura, eta viotzera igarotzen dana. Predicariaren otsa ez da belarrietaraño baicic iristen; baña Jaunaren itza, ongui prestatua dagoanean bat, barrena dijoa.

Ezagutzeco orain *Nolaco mesedea dan* era onetan Jaunac bere itz santua Eliz Ama Santari utzitzea, beguira, Cristaua, nor dan guri itzeguiteco neurri onen ederrac artu dituana? Nondic datorquigun onembeste onra guri, eta ez beste ascori? Cer ondasunac ecarri dituan, eta egun oro dacartzian Jaunaren itzac? Nor ote da guri itzeguiteco neurri aiñ ederrac artu dituana? Esan degu, Jauna bera dala neurri oen artzallea, ¿baña ongui, ta betaro gogoan erabilli ote degu, *Nor dan* guri itzeguiteco aimbeste neurri artu dituana? Jaun au da iñoren, eta eceren bearric ez duana. Jaun au da bera beregan ecin gueyagoraño doatsua, eta doatsuna bera. Jaun au da gauza gucien Eguillea, Jabea, ta gucien contua daucana.

Jaun au da Erregue, ta Aguintari gucien Erreguea. Ta Jaun andi onec artu izan ditu aimbeste neurri gurequin itzeguiteco? Izan bedi Predicaria S. Pedro, Jaun onec itzeguiten dio ongui entzuten duanari; izan bedi Judas, Jaun onec itzeguiten du arc bere Maisuaren itz santua adirazten duanean. Izan bedi S. Juan Crisostomo, Jaun onec itzeguiten du eta au bera guertatzen da Elizaco beste edoceiñ Predicaric itzeguiten duanean ere. Etzerate zuec itzeguiten dezuenac, baicic nere Aitaren Espiritua da zuetan itzeguiten duana, esan cien Jesu-Cristoc bere Apostoluai: *Non estis vos, qui loquimini, sed Spiritus Patris mei, qui loquitur in vobis* (a).

Nondic guri onembeste onra? Jaunaren itzaren eguia partitzen da Eliz Ama Santaren barrutietan vici diranen artean bacarric; gañeraco guciac, itz santu onen leçuan, aditzen ditue etsai galgarriac eracutsi, eta zabaldu dituan gauzac. Nondic bada onra onen andia? Nondic, Jaunaren ontasun, eta urriquimentu andiagandic baicic? Au ongui ezagutu baguendu, ez guiñan Jaunaren itza entzuteco izan gueran bezain zabarrac izango.

Cer ondasunac ez ditu ecarri Jaunaren itz Santuac? Oroi zaite nolacoa arquitzen zan mundua Jesu-Cristoc bere legue santa adierazteco bidaldu cituanean Apostoluac munduaren lau bazterretara. Juduac ez, beste gende guciac etzuen ezagutzen Jainco eguiazcoa lenagoco demboretan-ere, Davidec cionez. Ezagutua da Judean Jaungoicoa, cion. *Notus in Judæa Deus* (b). Gañeraco bazter gucietan adoratzen ciran idoloac, edo arriz, zurez, eta beste gairen batequin eguindaco iduri, edo figurac, eta oetan Demonioa. Erreñu bacoitzean bacituen nortaqui cembat Jainco farragarri. Eta nolaco vicitza izan al citequean Jainco eguiazcoa ezagutzen etzan lecuetan arquit-

Universidad de Deusto
Biblioteca

zen ciranen vicitza? Naita ez guciz loi, eta itsusia, gueyenetan beintzat. Argatic cion Davidec aldeguin due guciac Jaunagandic, galdu dira Jaunarentzat: *Omnes declinaverunt, simul inutiles facti sunt*; ezta gauz onic batere eguiten duanic, bear bezala beintzat. *Non est qui faciat bonum, non est usque ad unum* (c). Eta Judatarrac berac nola vici ote ciran? Oec ere gaizqui, cembait atera ezquero; bada etzuen ezagutu nai izan beren Mesias, edo Salvatzallea, eta ezagutu ordean gurutzean illerazo zuen. Ona nolacoa cegoan mundua Jesu-Cristoc bere leguea adierazteara bidaldu cituanean Apostoluac. Mundu gucira joan da aditzera eman guiezue gende-mota guciai nere leguea, esan cien Jesu-Cristoc. *Euntes in mundum universum prædicate Evangelium omni creaturæ* (d). Gauza miragarria! Arrantzale batzuec ciran Apostoluac, eta alaere urte guchiren barrumbean deseguin ciran idoloac, ezagutzen ciran erreñuetan beintzat, asi ciran gende guciac Jainco eguiazcoa adoratzen, eta Jesu-Cristoren gurutzea eguiñ zan siñale guciz onragarri: S. Pedroc berac Judatarrai predicatu cien lenengo egunean bertan iru millari arrerazo cien Jesu-Cristoren leguea. Ecusten dezu, Cristaua, cer ondasunac ecarri dituan Jaunaren itz Santuac? Itz onec Asia, Africa, ta Europa ipiñi zuan Jesu-Cristoren leguean. Itz onec Italia, Alemania Inglaterra, Francia, ta España fedearen arguiz bete cituan. Itz onec Americaco bazterretan ayenatu zuan idolatriaren gau illuna. Eta dembora oetan-ere cer ondasunac ez dacartzi itz Santu onec bear bezala entzuten dan errietan? Itz onec arguitzen ditu adimentuac, deseguiten ditu becatuaren gelac, eta berotzen ditu Cristauac, Ceruraco bidean gogoz ibiltzeco. Argatic deitzen dio Escriturac: *Sua bezalacoa: Quasi ignis* (e), eta Jaunaren ots indartsua: *Vox Do-*

mini in virtute (f). Itz onec ateratzen ditu becatuaren bideetatic, beste guisatan centzatu ecin diran asco becatari, garizumaco demboran, eta Misioetan iñoiz ecusten dan bezala. Itz santu onec ascotan deseguiten, bigüintzen, eta gozatzen ditu viotzic gozacaitzenac, eta arri biurtuac cirudienac. Argatic Jeremiasec ipintzen du arriac puscatzen dituan mallucaren pare: *Sicut malleus conterens petras* (g). Ecusten dezu, Cristaua, nolaco mesedea dan Jaunac bere itz santua Eliz Ama Santari utzi dion eran utzitzea? Ta ala ere itz au entzuteco bidetic igues eguin dezu aimbeste bider? edo egon cera gogo gaiztoarequin, edo lo? Esquergabequeriaren itsusia! Au ezagutu dezazun, goacen ecustera nolaco aserrea aguertu duan Jaunac beraren itz santua entzuten ez duenen, eta gaizqui entzuten duenen contra.

Ceiñ-ere andia, eta baztergabea dan Jaunaren ontasun, eta misericordia, ez da chiquiagoa beraren zucentasun, edo Justicia, eta aserratzen da ascotan, ecusiric gure esquergabequeriac, eta ez guchiena oec beraren itz Santuaren contra diranean, era ascora aguertu digun bezala. Nolaco aserrea aguertu ote du bada Jaunac beraren itz Santua entzuten ez duenen, eta gaizqui entzuten duenen contra? Au aisa ezagutuco degu, beguiratzen badegu, cer esaten duan Escritura Santac, eta ceiñ castigu izugarriac eguiñ dituan Jaunac esquergabequeria onegatic.

Baldin beguiratzen badegu, cer dion gai onetan Escritura Santac, arquituco degu beñic beiñ Isayas Profetagan mastiaren parabola. Ipiñi zuan Jaunac masti bat; ichi zuan, eta erdian eguiñ zuan torre bat bere tolareaquin. Egon zan mats gozoen ustean, ba-

Universidad de Deusto
Biblioteca

ña oen lecuan eman cituan basa-matsac, edo gaciac. *Expectavit, ut faceret uvas, et fecit labruscas.* Ecusiric au esan zuan Jaunac: *Nic* masti esquergabe oni quenduco diot esia, sartu dedin nai duan edoceiñ, eta artu dezan gogoac ematen diona. Botaco ditut eguiñ niozcan pareteac, eta erabillico due oñen azpian. Utzico det etze; ezta moztuco, edo iñausico, ez eta achurtuco-ere. Estalico due sasiac, eta arantzac, eta aguinduco diet odeyai, ez deceela masti esquergabe onetan euriric batere eguiñ. *Nubibus mandabo, ne pluant super eam imbrem* (h). Cer aditzera ematen ote digu Jaunac masti onequin? Cer, bere itz santua, ta bere laguntzac quenduco dizquigula baicic, baldin entzun nai ezpaditugu bearen Ceruco dotrina, eta legue santa? Arquituco degu gañera Amos Profetagan, nola aditzera ematen dituan Jaunac gose izugarri baten berriac. Nic bidalduco det lurrera gosea, dio Jaunac: *Emittam famem in terram*: ez oguiaren gosea, eta ez uraren egarria, baicic nere itzaren gosea. *Non famem panis, neque sitim aquæ, sed audiendi verbum Domini.* Ibillico dira gendeac batetic bestera itz onen billa, eta ez due arquituco. *Circuibunt quærentes verbum Domini, et non invenient* (i). Aditzen dezu, Cristaua, cer esaten zacun Escritura Santan? Ecusten dezu, nolaco aserrea aguertu digun beraren itz santua entzuten ez duenen contra?

Baña are obeto ezagutuco degu au, eguiñ dituan castigu izugarrietara beguiratzen badegu. Beguira Orienteco bazterretara; dembora batean predicatu zan an Jaunaren itz santua ederqui. An predicatu zuen Apostoluac berac, eta guero S. Ciriloc Jerusalenen, S. Basilioc Cesarean, S. Gregorio Nazianzicoac, S. Juan Crisostomoc Constantinoplan. Nola arquitzen dira bazter aec? Mahomaren legue zatarra gordetzen duela. Beguira Africara, an predicatu zuen

S. Atanasio Alijandriaco Obispoac, S. Ciprianec, S. Agustiñec, eta beste guizon andi ascoc, eta gaur arquitzen da Africaco gendea, edo Mahomaren zoraqueriai jarraitzen diela, edo idolatriaren illumbean. Atoz Europara, ecusico dezu Rusia, Prusia, Olanda, ta Inglaterra heregiaren azpian, len gure Erligio Santan vici baciran-ere. Baña certaco necatuco guera anciñaco gauzai beguiratzen baldiñ oraiñ bertan Jaunaren aserreac eguiñ baditu castiguric izugarrienac gure auzoan, edo Franciaco Erreñuan? Emen ugari ereiten zan Jaunaren itz santuaren acia. Nola arquitzen da gaurco egunean? Itz santu onen gosete negargarri batean. Ez due Apaiz Catolicoac an vicitzeco-ere escuric, eta beragatic aimbeste milla catolico gaiso daude Jaunaren itz gabe, Sacramenturic gabe, eta fedea galtzeco perill andian. Nondic etorri zayo Franciari gose izugarri au? Etorri zayo, ceren Jaunaren itz santuac frutu guchi ematen zuan, ugari ereiten bazan-ere, guizon jaquintsu batec dionez. Ezta oraindic berroguei urte onec Francian bere sermoyetan deadar eguiten zuala, etorrico zala Jaunaren itzaren gosetea, anciñatic Amos Profetac esaten zuan bezala, ezpazuan frutu gueyago ematen ereiten zanac (j); eta ura beldur zan eran guertatu zayo Franciari. Au da, nere Cristau onac, gueroc ecusten degun castigu izugarria. Ez ote da au bera guertatuco gurequin ere? Eztaquigu cer guertatuco dan, baña badaquigu, guchitu dala Jaunaren itz santua entzuteco gure aurrecoac zuen gogoa; guchitu dala Jaunaren echean egoteco errespetoa. Badaquigu Jaunaren itzac ez dituala ematen lengo eran frutu ugariac. Badaquigu, oztuaz dijoala fedea, Jaungoicoari ta lagun urcoari zor diogun amorioa. Badaquigu atzenean, ezpaguera centzatzen, gure gañean erorico dala Jaunaren aserrea.

Universidad de Deusto
Biblioteca

Cer frutu emendic atera bear degu? Lenengo frutua, Jaunaren aurrean umillatzea, eta ezaguturic gure esquergabequeria andia beraren itz santuari dagocan gayean, erregutu bear diogu, ez gaitzala arren utzi beste Errenu asco utzi dituan eran. Bigarren frutua entzutea Jaunaren itz santua viotz umill, eta mansoarequin Santiagoc esaten digun bezala: *In mansuetudine suscipite verbum insitum quod potest salvare animas vestras.* Irugarren frutua oraindañoco utseguiteen loyetatic viotza garbitzea, eta aurrera contuz vicitzea Cristauari dagocan eran. Onela iritsico degu Jaunaren misericordia, eta uste izan dezaquegu betico gloria. Au opa det zuentzat, eta neretzat, Aitaren, eta Semearen, eta Espiritu Santuaren icenean. Amen.

(a) Math, 10. (b) Psalm. 75. (c) Psalm. 13 (d) Marc. 16. (e) Jerem. 23 (f) Psalm. 28. (g) Jerem. 23 (h) Isai. c. 5. [i] Amos c. 8. [j] Vide Montargonium ubi de Verbo Domini.



BERROGUEI TA SEIGARREN ERACUSALDIA.

ADIERAZTEN DA LENVICIA:

Cer prestaerarequin etorri bear degun Jaunaren itz santua entzutera.

Bigarrena: Nola entzun bear degun.

Irugarrena: cer eguiñ bear degun itz santua entzun ezquero.

In mansuetudine suscipite verbum insitum, quod potest salvare animas vestras. Jacobi c. 1.º

Entzun ezazue viotz umill, eta manso batequin, zuen animac salvatu ditzaquean, Jaunaren itza, esaten digu Santiago Apostoluac. Azqueneco Eracusaldian aditu cenduen, cer aditzen dan Jaunaren itzaren icenez, eta nolaco mesedea dan, Jaunac bere Elizari itz au utzi dion, eran utzitzea. Aditu cenduen gañera, nolaco aserrea aguertu digun Jaunac beraren itz santua entzuten ez duenen, eta gaizqui entzuten duenen contra. Gaur, gai oni dagocan bucaera emateco, aditzera emango det, lenvicia, cer prestaerarequin etorri bear degun Jaunaren itz santua entzutera. Bigarrena, nola entzun bear degun. Irugarrena, cer eguiñ bear degun itz santua entzun ezquero. Goacen iru gauz oec banaca ecustera.

Jaunaren itz Santua da, animaren soroan Aita Cerucoac ereiten duan, aci ederra, eta icen au ematen

Universidad de Deusto
Biblioteca

dio Jesu-Cristoc berac: *Semen est verbum Dei*: Aciac, dan onenac, eta vicañenac-ere, frutu ugariac emateco, escatzen du lur ongui prestatua, eta maneatua. Ereiñ ezperen artoa, garia, edo beste edoceiñ aci etze dagoan lur batean arantzac, eta belar gaistoac atera gabe, eta beste maneadurac eman gabe; cer frutu ateraco dezu? Zure frutua izango da ereiñ cenduan acia galtzea, eta urte gucico gosea. Au bera guertatuco da, eta guertatzen da Aita Cerucoac gure animen soroetan ereiten duan itz Santuaren aciarequin, ceren bear dan prestaerarequin etortzen ez gueran. Au ederqui aditzera ematen digu Jesu-Cristoc ereillearen parabolan. Erein zuan ereille onec aci ederra, baña pusca bat erori zan bidearen aldean, eta oñpean galdu zuen andic cebiltzan bidezcoac. Beste pusca bat erori zan arrien gañera, eta igartu zan. Beste pusca bat erori zan arantzen artera, eta bereala ito zuen oec. Bacarric frutua eman zuan lur onean erori zanac.

Cer eguiñ bear ote da bada prestaera eder batequin Jaunaren itz Santua entzutera etortzeco? Irugauza, Cristaua. Lenengo lecuan eguiñ bear dan gauza da viotzeco sorotic lar, arantza, ta belar gaistoac quentzea, au da, aldebat utzitzea arazo, irabaci, eta munduco beste gaucen gogoracio, ta quezcac. Au ez eguitera, Jaunaren itz Santua erorico da lur etzean, eta arantzen artean, eta ez du fruturic emango. Jesu-Cristoc berac arantzen icena ematen dio munduco ondasun, irabaci, eta beste gaucen gogoracioai. Doctrinac, eta sermoyac enzutera etorteco eguiñ bear dezun bigarren gauza da, certara etorri bear dezun beguiratzea. Au contuz eguiten badezu, nai ta ez gogoratuco zatzu Jaunac eracutsi, ta aditzera eman nai dizuna enzutera etorri bear dezula; au da Erregue gucien Erregueac, zure onguille

andiac zure oneraco itzeguin nai dizuna entzutera. Baña au eguiñ ordean baldiñ bazatoz certara zatozen beguiratu gabe, edo gauza berriren batzuec aditzeco pozarequin, ¿nola nai dezu dotriñetatic, eta sermoyetatic frutua ateratzea? Dotriñac eta sermoyac enzutera etortzeco eguiñ bear dezun irugarren gauza da sortcea cere viotzean gogo, eta egarri andi bat, Jaunac viotzera esan nai dizuna aditzeco eta eguiteco. Gosea gorputzeco osasunaren siñalea izan oi dan bezala, era berean Jaunaren itza gogo ta egarri andiarequin enzutea da animaco osasunaren siñalea dio S. Juan Crisostomoc. *Sicut esurire est sanitatis corporalis inditium, ita et studio magno audire divina eloquia bonæ animæ valetudinis certissimum est argumentum* (a). Olloac, chitac, eta beste egaztiac bazca botatzen zatenean gogo andiarequin, eta alcarren leyan joan oi dira bazcagana; ardiac era berean joaten dira gatzagana baldiñ au artechean chinchilic ipintzen bada zacuchoren batean, ceren gatzac gaitz ascotatic sendatzen, eta gordetzen dituan. Eta zu Cristaua, ¿etzera gogoz etorrico Jaunaren itz Santua, eta dotrinac entzutera? Eztaquizu, itz Santu au dala animen bazca? Au dala animac sendatzeco, eta becatuaren eritasunetatic gordetzeco gatza? Eguizu contu, lecu onetatic datorren guciarentzat astean beiñ botatzen dirala perlac, diamanteac, belarritaco, eta ebilla ederrac; atozea, etziñaque gogo, eta egarriarequin etorrico? Uste det bayetz. Atozea, eta dotrinetan, ta sermoyetan Jaunac isurtzen dituan ondasunen aldean cer dira emengo perlac, diamanteac, eta apainduria guciac? Cer gorotza baicic? eta ez dezu beguiratu bear, nor dan predicatzen duana, zure gogocoa, espiritu guchicoa, edo aundicoa dan, baicic cer eta noren partetic aditzera ematen dizun. Denda batera zoacenean ez de-

Universidad de Deusto
Biblioteca

zu beguiratzen saltzen dagoana nolacoa dan, baicic erosi nai dezun oyala, edo tela ona, edo gaiztoa dan, merquea, edo garestia dagoan. Ona nolaco prestaerarequin etorri bear dezun dotrinac, eta sermoyac enzutera. Prestaera onen faltaz cer ondasunac ez ditugu galdu oraindaño? eta miretsitzen guera mundua dabillen eran ibiltzea? Baña ez gaitecen gueyegui onetan luzatu. Dacuscun, nola enzun bear degun Jaunaren itz Santua, edo berbera dana, dotriñac eta sermoyac.

§ II.

Acia ereiteco lurra prestatzea gauza bearra da, baña ezta asco frutuac iristeco; ereiñ bear da gañera acia, eta ereiñ bear da aciari dagocan eran, eta demboran. Eta era berean Jaunaren itz Santua enzuteco viotza prestatu ondoan, entzun bear da ez nola nai, baicic ongui. ¿Cer aditzera eman nai ote du Jaunaren itza ongui enzuteac? Enzutea Jainco beraren itza bezala, enzutea Jaungoicoaren itzari zor diogun beguiramentu, eta errespetoarequin; enzutea atzenean viotz manso, ta umill batequin. Aditzen dezu, ¿nola enzun bear degun Jaunaren itz Santua? Aditzen dezu itzen otsa, baña asco gueyago ez. Atoz nerequin enzun dituzun itz oec aditzera eman nai duena ecustera.

Jaunaren itz Santua ongui enzuteco enzun bear da benic beiñ Jainco beraren itza bezala. Dotrinetan, eta sermoyetan esaten zacuna da Jaunac berelegue Santan aditzera eman diguna, eta Predicarien bidez itzeguiten digu Jaunac berac. Izan bedi dotrinac, eta sermoyac eguiten dituana S. Pedro, S. Pablo, San Juan Crisostomo, S. Ambrosio, itzeguiten du onen autic Jaunac. Izan bedi Judas bezalacoa, ala ere Jaunac itz eguiten du predicatzen duanac Jaun beraren legue Santa aditzera ematen duanean. Etzerate, ez, zuec itzeguiten dezuenac, baicic zuen Aita cerucoa da zuetan itzeguiten duana, esan cien Jesu-Cristoc Apostoluai. *Non estis vos, qui loquimini, sed Spíritus Patris vestri qui loquitur in vobis.* (b) Baldiñ era onetan enzuten ezpaditugu dotrinac, eta sermoyac; ¿cer frutu atera dezaquegu? Frutu atera ordean erraz guerta liteque calte andia ateratzea, dala ecertan arcen ez dala Jaunac aditzera ematen diguna, dala guerengan esaten degula: *echeraco-ere ona lizaque au.* Jaunaren itz Santua ongui enzuteco enzun bearda gañera zor diogun beguiramentu, eta errespetoarequin. Baldin sermoya asitzean lo jartzen bacera, eta noicean beiñ au zabalca batzuec eguitera atzera lotsatzen bacera; baldiñ dotrinan, edo sermoyan erausian bazaude, edo Elizatic irtenda joaten bacera cimitoriora, edo bazterren batera, au da nolerebait Jaincoaz, eta beraren itz santuaz iseca eguitea. Au da adiraztea etsayarena, eta etsayarentzat marcatua zaudela; eta beldur izan zaite, orrela Jaunaren itz santuagandic iguesi zoacenen batean eraman etzaitzan berequin gorputz eta anima. Nere Cristauac, norc sinis lezaque, Catolicoen artean au guertatzen dala? Elizaren aurreneco demboretan aiñ errespeto andiarequin enzuten zan Jaunaren itz Santua, non emacumeac-ere chutic egon oi ciran San Agustinec dionez, eta Santuac ericho ceudenai eguinda oi cien eseri citezela.

Izan dira Santuac Escritura Santa buru utsean baicic iracurritzen etzuenac, ceren Escritura Santan Jaunac itzeguiten digun. Eta guc eztegu beguiramentu, eta errespeto andiarequin enzungo Jaunaren itz Santua?

Atzenean errespeto andiarequin ezecic viotz manso,

Universidad de Deusto
Biblioteca

eta humillarequin-ere enzun bear dà Jaunaren itza ongui eta dagocan eran enzun nai badezu, ala esaten digu Santiago Apostoluac. Ta cer esan nai ote digu viotz manso, eta umillarequin enzute onec? Esan nai du, enzun bear degula Jaunaren itza sinisten degula dotrina, eta sermoyetan aditzera ematen zacuna umilqui, ta prest ipincen degula viotza Jaunac aditzera ematen diguna eguiteco, izan dedilla au naiz gozoa, naiz samiña, naiz lacatza, naiz leuna. Sasoi onetan arquitzen zan Daviden viotza cionean. Nere Jaun Jaungoicoa! prest arquitzen da nere viotza zuc aditzera eman nai didazuna eguiteco, prest arquitzen da bai. *Paratum cor meum, Deus, paratum cor meum* (c). Samuelec esaten cion Jaungoicoari, itz eguin beza Jauna, eta ona ni emen prest berorren itzac enzuteco. *Loquere Domine, quia audit servus tuus* (d). Era onetan enzun izan baguindu dotrinac, eta sermoyac, ceiñ frutu ugariac ez guinduan ateraco oraindañoco gure urteetan? baña ¿nor dira egungo egunean viotz umill, eta mansoarequin dotrinac, eta sermoyac enzuten dituen Cristauac? Ascoc ecin sinistu due Jaunaren partetic adirazten dana, beren uste, oitura, edo gogoaren contra bada, eta dembora berean edoceñ gauza sinisten due norc nai esan dezala beren gustocoa danean. Itzeguin bedi beardan eran itz loi desonestoac esateco, queñada lotsagarriac eguiteco, gauetan berandu echeratzeco, jai egunac ausitzeco oituraren contra. Itzeguin bedi, amarren premiciac eguiteco, Cristau bacoitzac duan obligacioaren gañean, eta izango dira batzuec, edo batzuec aiñ ecibagueac, eta adiurre gaistocoac animari dagozcan gaucetan, non sinistuco ez duen dotrinetan esaten dana uquitu ditudan gauz oen gañean. Baña itzeguin beguie beren gogora dan ez jaquiñenac, ozta dotrina daquien batec, eta sinistuco due S. Ambrosioren, S. Agustiñen, eta Santo Tomasen esana baño obeto. Oei deitzen die Jaunac seme errebesen, edo Jaungoicoaren Legue Santa aditu nai ez duenen icenarequin: *Filii nolentes audire legem Dei* (e). Zuec, nere Cristauac, zuec ceroc eguia onen testigu ipintzen zaituet. Ecusten dezu, Cristaua, nola enzun bear ditugun dotrinac, eta sermoyac? Dacuscun bada oraiñ, cer eguin bear degun oec enzun ondoan.

§ III.

Lurra ondo prestatzea acia ereiteco, eta ondoren contuz ereitea gauza bearra da fruturic izango bada; baña ezta oraindic asco abustura iristeco. Acia erein ondoan estali bearda erne dedin; erneta-ere gorde bearda contuz piztietatic, bidezcoetatic, ganaduetatic, eta gañera dembora egoquietan eman bear zaizca bere maneadurac, eta jorrac. Eta ona nere Cristauac, dotrinac, eta sermoyac enzun ondoan guc eguin bear deguna Janaren itz santuac gugan bere frutu ederrac ematea nai badegu. Estali bear dira viotzean pensamentu onaquin eta gogoan erabilliaz dotrinan aditu diran gauzac, erne eta errotu ditezen. Atozea ezperen, baldin Jaunaren itza aditu ondoan bereala utzitzen badiozu zure gogoari nolanai ibiltzen leneco atseguin loyen ondoren, edo beste munduco gaucetan; baldiñ Elizatic irtenda bereala echeraco bidean, eta echean bertan asitzen bazera erguelquerietan, eta itzqueta alferretan, cer frutu ateraco dezu dotrinetatic, eta sermoyetatic? Fruturic batere ez, edo chit guchi, ceren Jaunaren itz Santua erne baño len viotza betetzen dezun munduco gauzen arantzaz, edo gogoracioz. Au guerta ezdaquizun emendic aurrera, contuz viotzean gorde ezazu Jaunaren itz Santua, Elizan, bidean, eta echean erabilzu gogoan. ¿Eztezu

Universidad de Deusto
Biblioteca

iñoiz ecusi cer eguiten duan ardiac, eta idiac larrean ibilli ondoan? Asitcen da auzmarrean, eta ederqui chiquituaz len jan duana, igarotzen du urdallera. Au bera eguin bear dezu zuc, nic, eta beste edoceñec Jaunaren itz Santua aditu ondoan, San Agustiñec esaten digun bezala: *Quæ audistis cogitate... Quæ comedistis ruminate, sic enim eritis animalia munda, et apta epulis Dei* (f). Era onetan asico da ernetzen, eta errotzen Jaunaren itza zure viotzean, eta contu eguin bear dezu piztiac, bidezcoac, eta ganaduac, au da etsayac, zure griña charrac eta lagun gaistoac galdu ez deceen, eta atzenean berriz, eta berriz dotriñac eta sermoyac enzunaz, Ceruraco bidean sayatuaz lagundu bear diozu Jaunaren itzac zure viotzean asi duan obrari.

Ar ezazue bada, esango dizuet berriz ere Santiago Apostoluarequin, ar ezazue viotz umill, eta manso batequin zuen animac salva ditzaquean Jaunaren itza: *In mansuetudine suscipite verbum insitum, quod salvare potest animas vestras.* Enzun ezazu itz santua lurra lenago prestatzen dezula; enzun ezazu Jainco beraren itza bezala beguiramentu, eta errespeto andiarequin; enzun ezazu umilqui sinisten dezula, eta prest jarcen cerala Jaunac aditzera ematen dizuna eguiteco. Enzun ezazu, eta contu eguin aci on au ez galtzeaz. Zuc era onetan ecusico dituzu frutu ederrac, eta iritchico dezu onen ondoren betico vicitza doatsua. Amen.

(a) S. Chrysost. homil. 4 in Genes.
(b) Math. 10.
(c) Psalm. 56.
(d) 1 Reg. c. 3.
(e) Isai. c. 30.
(f) Agust. in Psalm. 103.

AVENDUCO ETA GARIZUMACO IGANDEETACO

SERMOYAC.

Universidad de Deusto
Biblioteca

AVENDUCO, ETA GARIZUMACO SERMOYEN

SARRERAN EGUINDACO DOTRINAC.

NOTA.

Aita Santu Benedicto amairugarrenac aguindu izan zuan, sermoyen sarreran aditzera eman ceceela Predicariac dotrinaco gauzaren bat. Ala eguiten da Españan. Avenduraco, eta garizumaco beste gauz ascoren artean ongui izango da adieraztea becatariai Jaincoagana biurtzeco duen eguin-bide, edo obligacioa, cer dan becatua, cembat eratacoa dan, nola prestatu bear degun Confesioco Sacramentuan gure animac garbitzeco, ta beste onelaco gauzac. Orain ipiñico ditut Obispadu onetaco, Aguinte gai oni dagozcanac.

«Ordenamos asi mismo á nuestros Párrocos, y á »todos los demas Predicadores de nuestra Diocesi, »tanto Seculares, como Regulares, que en las salu»taciones, de todos sus Sermones de cualquiera a»sunto, misterio, ó festividad que sean, espliquen »cathequisticamente un punto de doctrina Cristiana:::: »con estilo facil, llano, y perceptible: *Litteræ Pas»torales D. D. ab Irigoyen Episcopi Pompolonensis* »*pag. 65.*

Universidad de Deusto
Biblioteca

LENENGO DOTRINA,

Becatariac bere Jaungoicoagana biurtzeco duan, eguinbidearen gañean. (*)

Anciñatic ipiñia dauca Eliz Ama Santac *Avendua* esaten diogun dembora Santu au. Batzuec dioe S. Pedroren, besteac S. Gregorioren demboran asi zala, baña dana dala asiera onezaz, guc daquiguna da, Eliz Ama Santac ipiñi zuala Avendua, Jaunaren itza adituaz esna ditecen becatariac becatuaren lo pisutic, eta biur ditecen lembait len ain gaizqui utzi zuen Jaun Jaungoicoagana. Izan bedi bada gaurco dotrina, becatariac Jaincoagana biurtzeco duan, eguin-bide, edo obligacioaren gañean.

Utzi dezu, Cristaua, zure Jaun Jaungoicoa? Erori cera becatuan? Beartua zaude beraz lembait len, edo beintzat asco luzatu gabe (a) beragana biurtzera, edo confesatzen cerala, edo eguiaz, eta viotzetic damutzen cerala onezco damuarequin, edo berbera dana contricioarequin: betico utzitzen dituzula becatua, ta becatuaren bideac, echeac, adisquidetasunac. Ala eracusten dizu dotrinac. *Becatu mortalean erortzen dan gucian, bereala confesatu bear du* (becatariac) *barca daquion?* galdetzen du dotrinac, eta erantzuten du: *On lizaque baña premiazcoa ezta*

(*) No se han podido hallar las demas Doctrinas, que escribió el Autor.

(b). Caldetzen du berriz: *Cer eguin bear du bada?* Eranzuten du: *Bere becatuen eguiazco damua emendatzeco proposituarequin iduqui, eta Eliz Ama Santac aguintzen duanean confesatu.* Beartua zaude beraz, becataria, utzi cenduan cere Jaun Jaungoicoagana biurtzera lembait len, edo beintzat asco luzatu gabe: eta onetan asco zabartzea da becatu berria.

Beartua zaude, Jaunac bere Profeten autic esaten digunari beguiratzen badiogu. Ar ezazue beguitan gaistaqueria, ta becatua: *Odite malum*; amatu ezazue vicitza ona, dio Amos Profetac. *Diligite bonum* (c). Garbi zaitezte, eta zaute sendoro ceren garbitasunean: *Lavamini, mundi estote;* quen itzatzue gogoracio gaisto oriec, guera zaitezte gaizquiz gaizqui, ta becatuz becatu ibiltzetic, esaten digu Isayas Profetac. *Auferte malum cogitationum vestrarum, quiescite agere perverse* (d). Quen itzatzue, eta cerengandic bota eguin dituzuen becatu oriec guciac: *Projicite á vobis omnes prævaricationes vestras, in quibus prævaricati estis*: eta eguizue viotz, eta espiritu berri bat, deadar eguiten du Ezequiel Profetac: *Et facite vobis cor novum, et spiritum novum* (e). Ona, becataria, nola Profeta oen autic aguintzen dizun Jaunac, biur zaitecela beragana.

Beartua zaude gañera cere Jaunagana biurtzera bera viotz osoz amatzeco Aguinte andiari beguiratzen badiogu. Amatuco dezu dio Jaunac; amatuco dezu zure Jaun Jaungoicoa zure viotz guciaz, zure anima guciaz, eta zure indar, ta aleguin guciaz. »Nere Aguinte onen itzac gordeco dituzu contuz zu»re viotzean; contatuco dieztezu zure umeai, gogoan »erabillico dituzu echean eserita zaudenean, bidean »zabiltzanean, *oyan zaudenean, eta oyetic jaiquitzen »ceranean.*» Itz oetan aditzera ematen digu Jaunac,

Universidad de Deusto
Biblioteca

cein eguin-bide andia dan bera amatzeco degun eguin-bidea; eta ceiñ arreta andia izan bear degun beraganonz viotza jasotzeco, ta onguinai, ta amoriozco afectoac eguiteco. Eta, becatari aimbeste dembora onetan becatuan oatua bezala vici cerana, nola Jaungoicoa amatzeco Aguinte andi oni erantzungo diozu, ceregandic ayenatzen ezpadezu becatua, eta biurtzen ezpacera Jaun beragana? Eztaquizu, eciñ amatu dezaquezula zure Jaungoicoa beguitan artzen ez dezula becatua? Eciñ servi ditzaquezula bi nagusi, becatua, ta Jaungoicoa?

Beartua zaude, becataria, Jaunagana biurtzera, norena ceran, contuz beguiratzen badezu. Atozea, etzera Cristaua? Eta eztaquizu, *Cristauac* esan nai duala *Cristoren guizona*? Ala eracusten zacu dotrinan. Etzerate ez cerenac, esaten digu S. Pauloc: *Non estis vestri* (f); baicic Jesu-Cristorenac: *Vos autem Cristi* (g). Beraz zu, Cristaua, etzera cerea, baicic Jesu-Cristorena, ceren Jesu-Cristoc Jaincoa dan bezambat ecerecetic eguin cinduan; ceren gañera bere odol preciotsuarequin erosi cinduan. Emendic atera ezazu, etsayari eman diozunean zure anima, quendu diozula Jabe eguiazcoari esquergabequeria itsusi batequin, eta beragatic beartua zaudela calte ori deseguitera, ta cere Jabe onagana biurtzera. Ala eguiñ zuan Evangelioco Seme ondatzalleac. Ezagutu zuan bere gaizquia, ta esan zuan: joango naiz nere Aitagana. *Ibo ad Patrem meum* (h). Artu zuan Aitac onguinai, ta amorio andi batequin; barcatu ciozcan bere becatu guciac; biurtu, edo berriro eman ciozcan Aita Cerucoaren Seme bati cegozcan doai, ondasun, eta derecho guciac. Cergatic ez dezu zuc-ere au bera eguiñ bear, becataria?

Beartua zaude onetara, beguiratzen badiozu becatu barcatu gabeac, becatu berrietaraco dacarren

perillari. Damuz deseguiten eztan becatuac bere cargarequin becatu berrietara darama, dio S. Gregorioc. *Peccatum, quod mox per pœnitentiam non deletur, suo pondere ad aliud trahit* (i). Eta Santo Tomasec dio, Jaunaren gracian arquitzen ez danac ecin luzaro iraun dezaqueala berriro becatuan erori gabe. Au da eguia bat, Cristaua, egun oro ecusten, eta guertatzen danac arguiro eracusten dizuna. Errazago arquituco dezu becatu larrietan beñere erori ez dana beñ bacarric erori dana baño. Ta cer izango da, baldiñ becatuan erorita arretaric ezpadu becatariac Jaunagana biurtzeco? Cer, mendiaren erpiñetic amiltzen asi dan arriarequin guertatzen dana baicic? Atzenean beartua zaude, becataria, cere Jaun Jaungoicoagana biurtzera, ez nolanai, baicic lembait len, edo asco luzatu gabe; ceren bestela betico su, eta garren artera amiltzeco perillean egongo ceran. Ill bear dezu, becataria, ta eztaquizu noiz. Eztaquizu aurten, edo urrengo urtean, aste onetan, edo urrengoan, gaur, edo bigar etorrico zatzun erioa; baña badaquizu ez diola iñori-ere barcatzen, ta lapurraren eran, usteric guchiena danean datorrela· ¿Ta etortzen bazatzu bat batetan becatuan zaudela, cer izango da zuzaz.? Argatic esaten digu Jaunac: Ez luzatu egunetic egunera zure Jaun Jaungoicoagana biurtzea: *Non tardes converti ad Dominum Deum tuum, et ne differas de die in diem*; ceren bat batean zure gañean izango dan beraren aserrea. *Subito enim veniet ira illius* (j). Eta Jesu-Cristoc berac beiñ, ta berriz, eta ascotan aguintzen digu, gaudela ernai, ceren eztaquigun noiz etorri bear duan Jaunac contuac artzera. *Vigilate ergo, quia nescitis, qua hora Dominus vester venturus sit* (l). Cembat gaur infernuan arquitzen ote dira Jesu-Cristoren esan au ecertan artu gabez? Pensa ezazu, becataria nolaco pe-

rillean zauden eta biur zaite lembait len zure Aita onagana; eta eguitzu berarequin paqueac. Vici zaite Cristauari dagocan eran, onela iristeco betico vicitza doatsua. Amen.

(a) Peccatorem teneri ad media justificationis apponenda, nemo est qui neget. Num vero omissio extra periculum mortis sit novum pecatum, et non mera circunstantia peccati, disputant T. T. Omnes tamen in eo conveniunt, quod salten ex præcepto annuæ confessionis novum peccatum incurrat qui ultra annum differt pænitentiam. Idipsum dicendum ab omnibus, si urgeat præceptum charitatis erga Deum, aut periculum mortis, vel ministrare debeat peccator aliquod Sacramentum.

Fere omnes asserunt, peccatorem, qui per notabile tempus differt pænitentiam, non excusari á peccato mortali. Quale autem sit id notabile tempus, valde discrepant. Sunt qui opinantur, peccatorem statim (moraliter loquendo) post peccatum teneri ad media justificationis. Ita Cardenas. Sunt qui dilationem unius hebdomadæ reputent notabile tempus. Sunt qui spatium unius mensis nimis longum putent. Salmanticenses, et Cardinalis de Lugo, Henno, et alii sentiunt, peccatorem cum annua confesione satisfacere obligationi pænitendi, nisi urgeat aut periculum mortis, aut aliud præceptum; Ecclesia enim pro omnibus indistincte determinavit spatium anni. Non acquiescit Ligorius, fatetur tamen: *Quod peccatores præsertim rudes ab hoc peccato dilatæ pœnitentiæ ob inadvertentiam ut plurimum, imo feré semper excusari possunt. Antoinius ait: Quænam dilatio notabilis censeatur, ut sufficiat ad mortale, ex morali judicio æstimandum est, opportunitate, periculis, tentationibus, et aliis circunstantiis espectatis.* Atque hæc est sententia Suarezii disp. 2 sect. 5 comment. in 3 Part. D. Thom., ubi sic ait: *Illud tempus,* »*si non sit positiva lege præscritum*, prudenti arbitrio ipsius hominis, vel alterius, qui ejus cognita conscientia pos-

»sit auxilium præstare, committendum est, ut pensatis circunstantiis omnibus judicet, an incipiat *nimia esse dilatio.* »Neque aliquam regulam certiorem, aut magis particularem »asignare possum tan in hoc præcepto, quam in aliis affirmativis, præsertim circa actus, qui ad Deum ordinantur, »sola, *ac nuda naturali ratione perspecta.* Hinc sive Cathechistæ, sive concionatores cauté debent loqui, ubi agitur de peccato lethali; quid enim prodest multiplicare peccata? *Ubi agitur de mortali, nisi habeatur* expressa auctoritas »Scripturæ, vel Canonis, vel ratio efficax, *nonnisi periculosissime definitur. Et hoc est contra* multos Prædicatores, »et confessores modernos, qui sunt nimis faciles ad judicandum aliquid esse mortale, ait S. Antoninus 2.ª p. c. 10, § 2.º

(b) Verba nostri Cathechismi cauté indicant quod fieri oportet á quolibet peccatore, quin definiant, quandonam dilatio incipiet esse gravis.

(c) Amos cap. 5. (d) Isayas c. 1.º (e) Ezech. c. 18 (f) 1.ª ad Corinth. 6. (g) 1.ª ad Corinth. c. 3 (h) Luc. 13. (i) Homil. 11 sup. Ezechiel. (j) Eccli. 5.º (l) Math. 24 et 25. Marc. 13 Luc. 12 et 21.



Universidad de Deusto
Biblioteca

AVENDUAREN LFNVICICO IGANDERACO.

1.ª

BACOITZAC ERIOTZAREN UNE EDO PUNTUAN IGARO BEAR DEGUN JUICIOAREN GAÑEAN.

Erunt signa in sole, et luna. Luc. 21.

Avenduaren lembicico igandea degu gaur, Cristaua; eta beartua nago zuri dembora onen berriac ematera. Eliz Ama Santac Pazcoaren aurretic ipiñi zuan berroguei eguneco baraua, guc arguenzan Jesus bildots mancharic gabea viotz garbiarequin, eta dembora ari deitu oi diogu *garizuma*. Era berean ipiñi zuan egüerriren aurretic beste garizuma bat, Jesusen jayotzaraco presta guindecen gure becatuen damuarequin, barau, Confesio ta Comunioarequin, eta deitzen zayo dembora oni *Avendua*. Batzuen iritzian ipiñi zuan usanza eder au S. Pedro Apostoluac berac; baña Aita Santu Benedicto XIV dionez, ipiñi zuan S. Gregorio andiac.

Garizuma au lecu batzuetan atsitzen zuen S. Martin egunetic, besteetan Santu gucienetic: lecu batzuetan barautzen zan egun oro, beste batzuetan astean iru egunez; eta cembait lecutan Pasioco demboran bezala aldareac estalzen, eta janci beltzaquin esaten ciran Mezac: orain ere utzitzen du Elizac Gloria cantatzea, eta Mezac esaten dira janci morearequin. Eta gañera Comunio Santua artzen zuen Cris-

tauac guchienez igandeetan. Ona, Cristaua, cer dan, eta certaraco ipiñi zuan Eliza Ama Santac Avendua. Nai luque orain ere Eliz Ama Santac, dembora santu onetan guc utzitzea betico becatua, ta becatuaren bideac, eta Jesusec eracutsi digun Ceruraco bideari jarraitzea arreta andiarequin. Onetaraco gaur itzeguiten digu, azquen-contutaco egunaren aurretic aguertuco diran, siñaleen gañean. Aguertuco dira, dio S. Lucasequin, eguzquian eta illarguian egun aren siñale oec: *Erunt signa in sole et luna*. Asico da itsasoa orroaz, eta guciac ibillico dira arrituric, erquituric eta beldurturic, cer ecusi bear ote dan mundurequin. Emendic artu oi da azquen-contuetaco edo juicioco egunaren gañean, gaurco egunean itzeguiteco bidea. Baña bi dira, nere Cristaua, zuc eta nic eta gucioc igaro bear ditugun contuetaco egunac, edo juicioac. Batari deritza *bacoitzarena*, eta au izango da, eta izaten da eriotzaren une, edo puntuan bertan. Orduan ongui irteten dana, guerocoan ere ongui irtengo da. Bigarrenari deritza *guciena*, eta au izango da, munduaren bucaeran. Autsetan biurtuco dira echeac, erriac, erreñuac, basoac eta ganaduac. Auts biurtuco dira guizon eta emacume guciac. Aguertuco da Cerutic Aingueru bat, eta trompeta batequin otseguingo du: alcha ill guciac, eta atozte contuac ematera. Adituco da ots au Ceruan, infernuan eta bazter gucietan. Anima onac jachico dira Cerutic, eta sartuco dira bere gorputzetan atseguin andiarequin; baña gaiztoac irtengo dira infernuco su eta garren artetic eta sartuco dira beren gorputzetan gogoaren contra eta madaricacioa dariela, eta utzico ditue ordutanic erretzen eta quiscaltzen. An bilduco dira guizonac ececic Aingueru onac eta gaiztoac ere. Aguertuco da Jesu-Cristo gucien Juez, eta contu arzallea bere Ama maitagar-

Universidad de Deusto
Biblioteca

riarequin; emango die guztiai dagoten sentencia; idiquico da lurra; eta amilduco dira guciac infernuan, Lucifer eta Aingueru gaistoaquin batean. Ichico dira orduan infernuco ateac, eta beticotasun gustian ez dira idiquico. Igoco da Jesus onaquin Cerura: *atozte, esango die, nere Aitaren bedeincatuac*, atozte, arrezazue munduaren asieratic zuentzat prestaturic dagoan Ceruco Erreñua.

Bi juicio oec maiz eta contuz gogoan erabilli baguindu, etzan ez, izan dan bezalacoa izango gure vicitza, eta etziran izan diran adiña izango gure becatuac; baña guertatu zacuna da munduco iduripen, eta utsaren ondoren llilluraturic guere egunac igarotzea eta contuetaco egunean ondo irteteco bear dan eran ez vicitzea. Aurrera ere au bera guerta ez taquigun, becataria, itzeguin nai dizut gaur, bacoitzac eriotzaren une, edo puntuan igaro bear degun juicioaren gañean, eta aditzera emango dizut, *ceñ izugarria dan becatariarentzat.*

Virgiña chit Santa becatarien Ama gozoa, ecusten dezu zuc ceñ contu estuac eman bearrac gueran eriotzaco une izugarria datorquigunean. Ecusten dezu, ceñ aztuac vicitu gueran gueroco contu oez, eta ceñ ongui irten gaitezqueala, vicitza on, eta eder bat artzen ezpadegu. ¿Baña nola zucenduco guera gu onetaraco zuc ez laguntzera? Zu cera, Ama maitagarria, gure esperanza, *spes nostra*; arguitu itzazu bada gure adimentuac, eriotzaco orduan igaro bear degun juicioaren izugarritasuna ezagutzeco: esna itzazu gure viotzac garai onean gure contuac zucentzeco, eta emengo egunac ongui bucatzeco: eguin dezaquezu bai au gucia, ta gueyago iristen dituzula guretzat onetaraco bear ditugun Ceruco laguntza ugariac. Au da gaur escatzen dizugun mesedea, Aingueruarequin batean esanaz: Ave Maria.

Erunt signa in sole et luna, Luc. 21.

Ill bearrac, eta Jaunaren aurrean contuac eman bearra guera, becataria. Ala eracusten dizu zure fede santac, eta sinisten degu Catolico gucioc. Erabaquia dago guizonarentzat beñ illcea, eta ondoren contuac ematea: gucioc aguertu bearrac guera Jesu-Cristoren jarlecu, edo Tribunalaren aurrean dio S. Pauloc. Beraz zu ere, becataria, iltzen ceranean, aguertuco cera Jesu-Cristoren jarlecuaren aurrean, eta juzgatua izango cera zure vicitzari dagocan eran. Eztaquizu, Jesu-Cristo guizona danez jachico dan, edo ez anima bacoitza juzgatzera. Bayetz dio Aita Santu Inocencio III, beste ascoc uste due ezetz; baña berdin da zuretzat Jesu-Cristo guizona danez jachitzea, edo ez jachitzea zu juzgatzera, ceren Jaungoicoa danez arquituco dan zu iltzen ceran lecuan, eta an bertan juzgatuco zaituan. Cein izugarria izango dan juicio au becatariarentzat ezagutzeco, beguira zayezu arretaz, orduan igaroco zaizquitzun gauzai. Asi zaite nerequin batean.

§ I.

Eguizu contu, becataria; jartzen cerala azqueneco asnasetan; ordua datorrenean irteten dala gorputzetic zure anima. Utzico dezu orduan zure gorputz ori arren bazca izateco. Utzico dituzu zure adisquideac, onrac, arrotasun, eta apaindurac: utzico dituzu emengo izan, edo ondasunac aimbeste nequerequin bildu dituzunac: utzico dituzu gorputzaren atseguin mota guciac, eta igaroco cera demboratic beticotasunera. Pauso au utseguiten badezu betiraunde gucico utseguiña izango da. Arquituco dezu cere bu-

Universidad de Deusto
Biblioteca

rua bacardade icaragarri batean, eguin cinduan obra on eta gaiztoac bai, baña beste lagunic ez dezula. Asico cera alde gucietara beguiratzen. Ecusico edo ezagutuco dezu zure goyen dagola Jauna bere jarlecuan zuri contuac artzeco: zure azpian infernua: zure alde batean infernuco dragoya, zu irintsitzeco prest; eta bestean Aingueru guardacoa. ¿Norc esan ta adiratzi, becataria, sarrera onetan zuc igaroco dituzun quezcac, beldurrac, eta estutasunac? ¿Non dira dembora batean Jaungoicoaren lecuan amatzen cinduan idolo, edo adisquide aec? ¿Non dira zure anima galerazten cizuen urlia aec? Asico da infernuco dragoya, edo deabrua, zu salatzen. Becatari au esango dio Jaunari; becatari au izan da soberbia bera; onec nai zuana eguiten etzuenen contra, bere viotzean gorderic iduqui du beti gorrotoaren, eta vengantzaren sua; ez dio onen mingañac barcatu lagun urcoaren onrari, ta bazter gucietan zabaldu ditu gorrotoaren chingarrac. Becatari onec, bere dembora igaro du araguiaren atseguin lizunen ondoren. Ez dio barcatu bere buruari loitzen zuala escuca ciquiñaquin: ez dio barcatu ez ezcongayai, ez ezconduai: ez die barcatu abereai berai ere; eta bere losenchaquin galdu ditu aimbeste anima. Alferrac izan dira onentzat zure Sacramentuac eta itz Santua; alferra zure odol preciotsua. Becatari au izan da besteren gauzari ascotan atzaparra egotzi diona; saldu-erosi itsusietan sartu dana; zure legueac aguintzen cionic, edo ez du eman, edo eman du charrena gogoaren contra. Becatari onec batayoco egunean eman zuan nigandic aldeguiteco, eta zu viotz osoz amatzeco itza; eta bere dembora guztian izan da nere servitzari eta adisquide andia. Onec eman zuan becatutic eta becatuaren bideetatic aldeguiteco itza, eta bere egunac igaro ditu gaizta-

queriaren bideetan. Onec eman zuan munduaren arrotasun eta zoraqueriac utzitzeco itza, eta vicitu da arrotasun eta zoraquerien ondoren. Juez guciz zuzena, anima au bere becatuacgatic nerea izan da oraindaño; eta erabaqui ezazu nerea izan bear duala aurrera ere betico. Au ta gueyago dio S. Agustiñec gai onetan, ta S. Vicente Ferrerrec contatzen digu, gazte bat espirituz eraman zuala Jaunac juiciora. Bereala asi citzaizcan demonioac beguien aurrean ipintzen eguin cituan becatuac. Añ andia izan zan artu zuan icara, non beregana zanian eguin cituan penitencia chit gogorrac.

Eta zuc, becataria, dacusazunean cere burua guisa onetan ¿noronz itzulico dituzu zure beguiac? Aingueru guardacoagana? Baña Aingueru guardacoa bera izango da zure bigarren salatzallea. An aguertuco du cembat aleguiña eguin duan zu becatuaren bide, eta lagun gaiztoetatic quen-erazteco: cembat gogoracio, edo pensamentu on bidaldu dizquizun vicitz on bat artzeco, eta gucia izan dala alferra. Jauna, esango dio Jesu-Cristori: Zuc daquizu iseca eguiten zuela zure urriquimentuaz, eta baliatu nai izan ez duala zure odol preciotsuaz: alcha zaitez Jauna zure Zuzentasunaren ezpatarequin, eta eman zayozu dagocan saria: *exeat condemnatus.*

Irugarren salatzallea izango da zure barrengo ezagüera bera, edo conciencia. Adituric demonioac, eta Aingueru guardacoac zure contra esan duena, izuturic, eta ecertaco quemenic gabe gueratuco cera, eta nai ta nai ez zure barrenac esango dizu, zuriac dirala aguertu dituen becatuac: eta oen oroipena izango da zuretzat oñaceric andiena, eta infernuco ar ozcariaren anz bat. Nayago izango cenduque une onetan, mendi guciac zure gañera erortzea, eta oen artean lerturic ecer ecera biurtzea, ecen ez estuta-

sun onetan cere burua ecustea: baña ecin diteque au, eta nai ta ez aditu bear dituzu Juezac eguingo dizquitzun carguac.

§ II.

Eta ¿ cein da Juez au ? Jesus, Jaungoico, ta guizon eguiazcoa , ecin gueyagoraño jaquintsua, eta zucena. Juez bat bacoitzari emango diona bere saria , eguiñ dituan obra on , edo gaiztoai dagoten eran. Juez onen aurrean ez due ecer balioco , ez ondasunac, ez jaquiundeac , ez bitartecoac ; eta esaten dizu Ezequiel Profetaren autic : juzgatuco zaitut zure vicitzaren eran eta beguien aurrean ipiñico dizquitzut zure becatu nazcagarriac. *Judicabo te juxta vias tuas, et ponam contra te omnes abominationes tuas.* (Ezech 7). Beguiratuco diot , esaten digu Sofoniasen autic, Jerusaleni , edo animari arguia arturic , au da nere jaquiundearen arguiarequin. *Scrutabor Jerusalem in lucernis.* (Sophon. 1). Beguiratuco die bada Jaun onec, becataria , zure utseguite guciai , eta etzayo ezcutatuco batere. Ecusico ditu zure animaren ezcutuenean lotsaz gorderic dauden becatu oriec: ecusico ditu zure zabarqueriaz eguin dituzun utseguiteac: *Scrutabor Jerusalem in lucernis.* Ecusico du nola eranzun diezun zure estadu, edo carguaren eguin bideai. Ecusico ditu zuc becatu chiquitzat artzen cinduan erguelqueriac, erausi eta itz alferrac , eta gucien cargua artuco dizu, S. Matheoc dionez. Ecusico ditu zure obra onac , eta beguiratuco die nola eta cergatic eguiñac diran. *Scrutabor Jerusalem in lucernis.*

1. Ecusiric era onetan zure itz , pensamentu, eta obra guciac asico zatzu bere carguac eguiten. Nic, esango dizu , nere ontasunez eguin cindudan ecerezetic , eta eguin cindudan ni ezagutzeco , amatzeco,

eta betiraunde gucian nerequin batean Ceruan vicitzeco. ¿Nola erantzun diozu mesede oni ?

2. Nic prestatu munduco eche eder au , lurrean egon bear cenduan bitartean zure vicilecu izateco, eta ornitu nuan zuc bear cinduan gauza guciaz: eta emendic irteten ciñaneco prestatu nuan Ceruco erri eder ori. ¿Nola erantzun diozu mesede oni ? ¡ Ah! Esquergabea , lurreco gauzaz baliatu cera nere contra alchatzeco.

3. Nic eman nizquitzun oroipena , adimentua, ta borondatea nizaz oroitzeco , ni ezagutzeco , ta amatzeco , eta oez baliatu cera becatuaren bideac , eta atseguin lizunac amatzeco.

4. Nic eman nizquitzun beguiac , belarriac, mihia , escuac , oñac Ceruraco bideari contuz jarraitzeco , eta oez baliatu cera , becatua becatuaren gañean eguiteco.

5. Ni , ecusiric zu Adanen becatuarequin galdua, jachi nintzan Cerutic , eguin nintzan guizon , ta gurutzean eman nuan zugatic nere vicitza : beguira zayezu , esquergabea, nere escu-oñetan , eta sayetsean arquitzen diran siñale oei. ¿Cer gueyago eguiñ bear nuan zugatic ? ¿Eta nola erantzun diezu mesede oei?

6. Nic utzi nizquitzun Elizan zazpi Sacramentu zu nere graciaz eta virtutez betetzeco. Eta zuc biurtu dituzu zure puzoi. Cembat bider eguin dituzu confesio gaiztoac edo lotsaz , edo ceren becaturaco bideac uzteco viotzic etzenduan.

7. Ni , zuganaco onguinai , ta amorioz gueratu nintzan Aldareco Sacramentuan zuri emateco nere gorputza , nere odola , eta naizan gucia. ¿Nola eranzun diozu nere onguinai ta amorio oni ? ¡ Ah ! , doacabea , Judasen eran jartzen ciñan nere maian.

8. Nic bidaldu nuan nere Ainguerueta tic bat zu gordetzeco , eta Ceruraco bidean guiatzeco : nic i-

Universidad de Deusto
Biblioteca

piñi nituan nere Elizan zuri Sacramentuac, eta nere itzaren oguia emateco escudunac: nic deitu dizut aimbeste bider Ceruraco bidera, eta ez dezu aditu nai izan nere deiric. Ez da zugan arquitzen obra onic, eta zure vicitza gucia loitua dago becatuz. Eta au guchi baliz bezala galdu dituzu aimbeste anima nere vicitzaren costuz erosi nituanac. ¿Au da niri zor ceñidan esquerra? Becataria, ¿Cer eranzungo diezu cargu oei? Mutuluric gueratuco cera, eta beguiratuco dezu alde gucietara, urriquimentuaren billa berela: baña nor urriquituco da zuzaz dio Jeremiasec. *Quis miserebitur tui Jerusalem* (cap. 15). Ez zure Aingueru guardacoa, ez zure iceneco Santua, ez, becataria, Ama Virgiña guciz Santa, ceren dembora zanean, enzun gor eguin diezun. Beguiratuco ote diozu zure contra leoi aserrre baten eran dagoan Juez ari? ¿Baña norc izan ausardia onetaraco? Job Santuac oroituric Jaunaren ordu onetaco aserreaz dio: *Norc eman lequiquedan infernuco su, eta garren artean ezculaturic egotea, zure aserrea igarotzen dan bitartean?* (Cap. 14.): eta S. Juan Crisostomoc dio, errazago irozo litezqueala eciñ conta al oñaztar, edo arrayo, ecen ez Jesusen aurpeguia aserraturic ecustea. *Infinita satius est fulmina sustinere, quam illam mitem faciem nos aversantem videre.* (Homil. 47 ad populum). Ez dago bada, becataria, zuretzat iñondic ere laguntzaric, eta aditu bearra cera zure vicitza dongueari dagocan sentencia.

§ III.

Oraindaño isillic egon naiz, esango dizu; baña oraiñ etorri da alde-aldetic nere aserrea zure gañean isurtzeco ordua: eta juzgatuco zaitut zure vicitzari dagocan bezala. *Nunc de propinquo effundam iram*

meam super te... et judicabo te juxta vias tuas. (Ezech. 8.) Zuc ez dezu gorde nai izan nere legue garbia: nic orain uzten zaitut Satanasen mendean, *betico.* Zuc ez dituzu ecertan artu, nic zuretzat irabaci nituan Ceruco vicitza doatsua, eta atseguin-contentuac, eta nic bidaltzen zaitut betico su eta garren artera; *in sempiternum.* Zoaz madaricatua, nigandic, zoaz: *in ignem æternum.* Itsatsico zayo infernuco dragoia eta amilduco dira infernuan.

§ IV.

Aditzen dezu Cristaua, ceñ izugarria izango dan guretzat eriotzaco puntuan igaro bear degun *juicioa?* ¿Cer eguin al dezaquegu guc orduan ongui irteteco? Ez dago, ez dago beste bideric ezpada oraiñ dembora degunean Jaunagana biurtzea, eta vicitza berri garbi bat eguitea. Oraiñ gure alde degu Aingueru guardacoa: orduan izango da gure salatzalle. Oraiñ gure alde da Virgiña chit Santa: orduan ez digu balioco beraren bitartecotasunac. Oraiñ Jesus Aita urricaritsua bezala deyez dagoquigu: orduan Juez zucenaren eran dagoquigun sentencia emango digu. Au onela izan, eta ez dituzu gaurdanic urratuco becatuaren cate oriec? ¿Ez dezu artuco Ceruraco bide ederra?

Becataria, cer gaitz eguin dizut nic zuri, zuc orrembeste bidegabe niri eguiteco? Esaten dizu Salvatzalleac. *Quid feci tibi?* ¿Gaitz eguitea ote zan zu ecerecetic eguitea? ¿Gaitz eguitea ote zan zugatic guizon eguitea, eta gurutzean vicitza ematea? ?Gaitz eguitea ote zan zugatic Aldareco Sacramentuan gueratzea? ¿Cer gaitz eguin dizut bada zuc utzitzeco, eta becatuaren bideai jarraitzeco? *Quid feci tibi?*

Nere Salvatzalle maitagarria, asco da: aitortzen det

nere esquergabequeria itsusia: erabaqui det gaurdanic utzitzea becatua, eta becatuaren bideac. Lagunzaquizquit, Jauna, zu amatzen, eta servitzen; onela iristeco zuc neretzat irabaci cenduan betico vicitza doatsua. Amen.

AVENDUAREN LENDABICICO IGANDERACO.

2.ª

AZQUEN JUICIOCO EGUNAREN GAÑEAN.

Erunt signa in sole, et luna, Luc. cap. 21.

Noiz artean enzungor eguingo diezu, becataria, zure Jaun onac bidaltzen dizquitzen gaztiguai? Noiz artean iseca eguin bear dezu Jaun beraren ontasun, paciencia, eta urriquimentuaz? Noiz artean zure Jaincoaren ordean maite izan bear dituzu emengo gauza circillac, onrac, izanac, eta aztu bear dezu zure zori onaz? Noiz artean lau oñecoen eran vici nai dezu araguiaren atseguin lizunen ondoren? Zaude guchi bat, eta enzun itzatzu Eliz Ama Santaren deyac. Deitzen dizu, eta beguien aurrean ipintzen dembora onetan mundu guciaren Juez Jesu-Cristoren etorrera. Aguertuco dira, esaten dizu S. Lucasequin; aguertuco dira etorrera onen siñaleac eguzquian, illarguian, izarretan; eta itsasoaren baguen orroaquin izango da lurrean gendeen asaldacio, eta icara. Erquituco, ta igartuco dira guizonac, cer mundu guciari guertatuco ote zayon beguira daudela; izarrac berac-ere alabaña beren lecuac, eta ibillera ederra galduric orpoetatic atera dirala iduringo due. Orduan ecusico

du mundu guciac guizonaren semea, edo Jesu-Cristo odei batean datorrela escu, eta magestade andian. Gauz oec asitzen diranean beguira goronz, eta alcha buruac, ceren aldean arquitzen dan zuen erredencioa, eta Ceruco Erreñua. Beguira picoari, eta arbola guciai: frutua ematen asitzen diranean, ezagutzen dezue, aldean dala udá. Era berean gauz oec guertatzen dirala dacutsuenean, jaquin ezazue, alderatu dala Ceruco Erreñua. Eguiaz esaten dizuet, Juduen jatorria aitu baño len guertatuco dirala gauz oec. Ona, Cristaua, cer berriac ematen dizquitzun gaur Eliz Ama Santac S. Lucasequin. Berri icaragarriac becatariarentzat, baña berri Jesu-Cristoc berac emanic S. Lucasec letraz ezarriac.

Jesu-Cristoren avendu, edo etorrerac dira bi; igaro zan bata, etorquizun arquitzen da bestea. Aurrenecoan aguertu zan jaunci umillean, gugatic gurutzean vicitza ematera, ta gure, ta bere Aita Beticoaren arteco paqueac eguitera. Bigarren etorreran aguertuco da mundu guciaren Jaun, eta Juezari dagocan anditasun, eta gloria gucian. Beguiratzen dio Eliz Ama Santac alde batetic Jesu-Cristoren aurreneco etorrerari, eta poztutzen da, avenduco Meza, ta errezoac adierazten duen bezala. Beguiratzen dio beste aldetic Jesu-Cristoren bigarren etorrerari, eta Cristauric guyenen vicitza lotsagarriari; ta ecusiric oen gañera datocen betico suac, eta garrac; betico nequeac, eta negarrac, naigabetzen da, ta uzten du gloriaren cantatzea eta cembait lecutan beltzez jauntzierazo oi cituan aldareac-ere, aste santuaren aurretic eguiñ oi dan bezala. Argatic asitzen da gaur bere ume guciai otseguiten, azquen-contuetaco egun icaragarria beguien aurrean ipintzen diela. Certaraco eguiten ote du au Eliz Ama Santac? Certaraco, gu becatutic, eta becatuaren bideetatic quenerazte-

co baicic? Eliz Ama Santac nai duana eguitera mugui zaitecen zu Cristaua, itzeguingo ditzut gaur azquen-contuetaco, edo juicioco egun andiaren gañean. Aditzera emango dizut lembicia, munduaren bucaeran etorrico dala Jesu-Cristo gucioc juzgatzera, ta bacoitzari dagocan saria ematera. Bigarrena, certaraco dan Jesu-Cristoren etorrera andi au. Irugarrena, cer siñaleac aguertuco diran etorrera onen aurretic. Enzun nazazu contuz becataria.

§ I.

Bagabiltza oraiñ mundu onetan bacoitza bere bidean, eta gueyenac Jaunaren egun andiaz aztuac. Batzuec onra, antuste, eta arrotasunaren aiceai darraiztela; besteac ondasun, eta irabacien ondoren, usura, tratu ciquiñ, eta cuticiaren gogoracioetan erquituac vici dirala. Besteac gorputzaren atseguiñ lizunen billa usarrean bezala. Baña erabaquia dago guizonarentzat iltzea beiñ eta ondoren juzgatuac izatea, dio S. Pauloc: *Statutum est hominibus semel mori; et post hoc judicium* (a). Jesu-Cristo Jainco, ta guizon eguiazcoa da gure contu artzalle, eta Juez guztiz Jaquintsu, zucen, eta Gucialduna; ez ceren Aita, eta Espiritu Santua-ere Juez izango ez diran (Trinidadeco iru Personac alabaña escu, eta podere bat due, eta irurac Juez izango dira); baicic ceren juez izatea jaquiundeari dagocan gauza dan, eta era onetaco gauzac Semeari berezquiro dicheozcanac bezala aditzera ematen diran Escritura Santan. Gañera Jesu-Cristo izango da bada gure contu artzalle, ta Juez, ez Jaincoa dan bezambat bacarric, baita guizona danez-ere. Jesu-Cristo ipiñia dago vicien, eta illen Juez, dio S. Pedroc: *Ipse est, qui constitutus est á Deo judex vivorum, et mortuorum* (b).

Eman cion Semeari juzgatzeco escua, ceren guizona, edo guizonaren Semea dan, dio Jesu-Cristoc berac: *Potestatem dedit ei judicium facere, quia filius hominis est* (c). Itz oetan aditzera eman zuan Jesu-Cristoc, S. Agustiñec dionez, zala gure Jueza Jaincoa dan eta guizona dan bezambat.

Iltzen ceranean, becataria, zure gorputza gueratuco da obian arren bazca izateco, baña anima joango da Jesu-Cristori vicitza gucico contuac ematera. Bere jaquiundearequin, arguia bere escuetan artuta bezala, miratuco ditu zure obra onac, eta gaistoac, zure itzac, pensamentuac, eta lan guciac; zure zabarqueriac, eta becatu itsusiac. Ala adirazten du berac Sofonias Profetaren autic: *Scrutabor Jerusalem in lucernis* (d) Era onetan miraturic zure vicitza gucia, emango du dagoquizun sentencia, S. Juanen autic esaten digun bezala: *Dabo unicuique vestrum secundum opera sua* (e); ta zu joango cera irabaci dezun lecura. Ill zan aberats cuticiaz betea, ta jachi zan aren anima infernura; ill zan Lazaro beartsua, ta joan zan onen anima Abrahanen aldera. Onela bacoitzaren anima eriotzaren ondoren Jesu-Cristoren aurrean aguertzea, eta juzgatua izatea da *bacoitzaren juicioa, eta particularra* deitzen dioguna; eta juicio au ezta beticotasun gucian ez aldatuco, ez deseguingo.

Bacoitzaren juicio onez gañera izango da munduaren bucaeran beste bat *guciena* esaten zayona. Bucatuco da mundu au bere iduripen, zoraqueria, losencha, eta trampa guciacquin; eta orduan munduaren Salvatzallea, bere Ama maitagarriac, Ceruco Aingueru ta doatsu guciac inguratzen duela, odei eder batean etorrico da viciac, eta illac, edo onac, eta gaistoac juzgatzera. Au anciñatic aditzera eman zuen Isayasec, Zacarias, Habacuc, David, eta bes-

te Profetac. Au aditzera eman zuan S. Juan Bautistac. Au aditzera eman zuan beiñ, berriz, eta ascotan Jesu-Cristoc berac. Au atzenean aditzera eman zuen Apostoluac, Credoaren zazpigarren Articuluan esan zuenean: *Andic etorrico da viciac, eta illac juzgatzera.* Eta dotrinac Jesu-Cristoren guizatasunari dagozcan Articuluen artean zazpigarrena ipintzen du gaurco misterio onen gañean, diola era onetan: *Zazpigarrena sinistea, etorrico dala viciac, eta illac juzgatzera, esan nai du: onai gloria ematera, ceren aren mandamentu Santuac gorde cituen, eta gaistoai pena beticoa, ceren gorde etzituen.* Ona, becataria, misterio bat zuc, nic, eta gucioc sinisten deguna. Baña siniste oni dagocan eran vicitu guera? Eta gaur bertan nola vici ote guera? Baña goacen aurrera. Dacuscun, certaraco dan Jesu-Cristoren etorrera andi au,

§ II.

Baldiñ eriotzaren une, edo puntuan bertan juzgatua izango bada bacoitza; baldiñ orduco juicio, eta sentencia ezpada betiraunde, edo eternidade gucian aldatuco, edo deseguingo: ¿certaraco ote da bigarren juicio *guciena* deritzana? ¿Eta certaraco azqueneco egun andi artan Jesu-Cristo cerutic lurrera etortzea? Gauz andi, eta ascotaraco izango da Jesu-Cristoren etorrera au, eta benic beiñ mundu guciari adierazteco, ceiñ Letart, edo Providencia jaquintsu, eta zucena izan duan gauza gucietan. Ala dio S. Agustiñec: *Facturus publicam justitiæ suæ fidem* (f). Oraiñ ecusten, aditzen, eta guertatzen diran gauzacquin miretsitzen guera, eta bear bada esaten degu: *Nola du Jaunac paciencia? Nola guertatzen dira gauza oec?* Ecusten degu, Catolicoen errietan

ugari ereiten dala Jaincoaren itzaren acia, ta gueyena erne-ere gabe galtzen dala, eta dembora berean Asian, African, American bazter andiac arquitzen dirala norc itz Santu au aditzera eman ez duela. Ecusten degu gaistaqueriac, lapurretac, urdaqueriac gañez eguiñ duala munduan. Ecusten ditugu erri asco galduac, erriaren onari dagozcan, neurriac artu gabez. Ecusten degu, beldur gabe eguiten dirala becatuac, ceren Jaunac bereala ematen ez duan gueyenean bacoitzari dagocan sentencia, Escritura Santan esaten zacun bezala: *Quia non profertur cito contra malos sententia, absque timore ullo filii hominum perpetrant mala* (g). Ecusten dira munduan cembait guizon, eta emacume echean guztiz bearrac, eta adiñic onencan iltzen dirala, utziric umeac buru gabe, eta bicimoduric icasi gabe; eta dembora berean beste guizon edo emacume bat echean, eta errian caltea besteric eguiten ez duana, adiñ andira iristen dala, ta bultzaca-ere ecin beste mundura bidaldu duela. Ecusten dira beiñ baño gueyagotan Cristau onac neque, gurutze, eta saintasun andien artean, eta gau, ta egun necatzen dirala-ere ecin iritsi duela arto pusca bat beren, eta umeen gosea iltzeco; ta beste batzuec, becatuaren bideetan baicic necatzen ez diranac, eta ejemplo gaistoa ematen duenac; eta alaere osasunan, eta ondasunetan nai bezala arquitzen diranac, eta bear bada munduac alabatzen dituala. Iltzen danean, artzen du oetaco bacoitzac irabaci duan saria, baña eztaquigu, cer igarotzen dan orduan eta ecusten diran gauzac arrituac bezala utzitzen gaitue. Ala guertatu citzayon Davidi, ecusiric gaistoac eraz, eta ondasunez beteac (h) Ala guertatu citzayon Job Santuari-ere, eta cion: Cergatic vici dira gaistoac, eta izan dira ondasunez beteac? *Quare ergo vivunt im-*

Universidad de Deusto
Biblioteca

pii, et sublevati sunt, confertatique divitiis (i). Argatic etorrico da Jesu-Cristo azquen contuetaco egunean, eta aditzera emango dio mundu guciari, nolaco jaquiundez, eta cein neurri zucen, eta miragarriaquin iduqui duan guciaren contua.

Etorrera au izango da gañera mundu guciaren aurrean biur daquion Jesu-Cristori zor citzayon, eta gaistoac aimbeste eratan galdu dioen onra. ¿Norc eztaqui, nere Cristauac, cembat aleguiña eguin, eta eguiten duen Satanasec, Juduac, heregeac, Cristau gaistoac Jaincoaren Seme, eta munduaren Salvatzalle Jesus maitagarriari dagocan onra quentzeco? Esan becee ezperen emen guizonen artean ecusi cituan bidegabeac. Esan becee eman ciozqueen azoteac, arantzazco coroac, eta gurutzeco eriotzac. Esan becee gurutzean cegoan demboran, eta guero eguin ciozqueen iseca, ta desonrac. Esan becee atzenean gueroztic herege, ta Cristau gaistoetatic ecusi dituan charqueri, ta bidegabeac. Orain isillic dago, baña egun andi artan aguertuco da mundu guciaren aurrean gure Jaun, Erregue, ta Jueza bezala, ta alatzat ezagutuco, ta adoratuco duc, ez onac bacarric, baita gaiztoac-ere gogoaren contra bederic. Beguiratuco dioe gurutzean illerazo zuenari (j), eta gueratuco dira mutuen eran: *Omnis iniquitas oppilabit os suum* (l).

Jesu-Cristo gure Jaunac bere onrari ezecic beguiratu nai dio bere adisquide, eta servitzarien onrari ere; eta beragatic Jesu-Cristoren azqueneco etorrera izango da onen onraraco, eta gaistoen lotsatzeco. Vicitza au da gau illun bat bezala, eta onec direauen artean ez dira ascotan ezagutzen onac, eta gaistoac. Sartzen da Elizan bere-dembora birauen, gorrotoaren, cuticiaren, murmuracioaren becatuetan garo tzen duan emacume bat, ta jartzen da andre,

modestia, errespeto, eta beste modu ederretan vici dan, baten aldean. Sartzen da beste emacume, edo nescach erguel ura. Sartzen da araco ascorentzat becaturaco bisca, ta lazo izan dan nescach ez garbi ura, ta jartzen da virtutearen bidean vici dan baten ondoan. Sartzen da guizon erriaren, eta lagun urcoaren gauzetan beti sisatzen ari dan bat. Sartzen da araco, otsoaren eran animac galtzen dabillen, mutil ura, eta jartzen da Jaunaren beldur santuan vici diran guizon, eta mutill presturen batzuen aldean. Eztaquigu nor nor dan, eta ascotan onra, ta alabanzaric andienac daramazqui gaistoac, eta oná gueratzen da zocoan aztua. Baña vicitza onetaco gaua igarotzen danean, aguertuco du Jesu-Cristoc nor nor gueran; ta aguertuco du alaco eran, non bacoitzac arguiro ecusico duan bere vicitza gucia, eta besteena: bere eta beste gucien obra on, eta gaistoac, baita viotzeco lecuric illunen, eta ezcutatuenac-ere. Ala esaten digu S. Pauloc: *Illuminabit abscondita tenebrarum, et manifestabit consilia cordium* (m). Baldin noizbait utseguiteren batzuec guertatu bacitzaizquitzun, eta guero Jaunagana biurturic vicitza onari jarraitu badiozu, ez dezu lotsaric batere ecusico, ceren ondorengo damuaren, negarren, confesio, ta obra onen edertasunac estalico dituan zure becatuac ta estalico ez nola nai, baicic chit eder dirudien eran. Ala ecusi zuan Marina Escobar veneragarriac Santa Maria Magdalena. Zori onecoac, dio Davidec, beren utseguiteac barcatuac, eta estaliac dauzqueenac. *Beati, quorum remissæ sunt iniquitates, et quorum tecta sunt peccata* (n). Baña baldin enzungor eguin badiezu Jaunaren gaztiguai; baldin becatuaren bideac ez utzitzeagatic iguesi ibilli bacera Jaunaren itzagandic; orduraño viotzean corapillatua, eta ezcutatua iduqui arren zure gaiztaque-

ria, equingo dizue erditzeco miñac, Oseas Profetac dion bezala, eta zure lotsa andiarequin aguertuco, ta ecusico dira zure becatuac mundu guciaren aurrean. *Colligata est iniquitas Ephraim, absconditum peccatum ejus. Dolores parturientis venient ei* (o). Ay! zu guizon erriaren gauzac isillca sisatzen vicitu cerana, edo cargudun izan ceranean cere lanari baicic beguiratu ez diozuna! Ay! zu zar berde, edo mutill zañ-ezurretaraño gaiztaqueria igaroric zaudena! Orain isillic, eta ezcutuan daude zure sisatzeac, zure zabarqueriac, eta emendic etorri diran calteac; orain estaliac bezala daude zuc cere bacarrean, eta bein batarequin, guero bestearequin eguin dituzun becatu ciquiñac; baña badator contuen egun andia, ta: ezta gauza ain estaliric, nonta aguertuco eztan, ain ezcutaturic non jaquingo eztan dio Jesu-Cristoc. *Nihil enim est opertum, quod non revelabitur, et occultum quod non scietur* (p). Ay! zu emacume, edo nescach, aurtasunetic erguelqueriari, jolas, eta ibillera lizunai ederretsi ceniena; itsusiac, eta nazcagarriac dira zuc cere bacarrean, zuc zure lagunacquiñ, zuc urliarequin, eta sandiarequin eguin dituzun lanac. Ezcutuan daude orain lan oriec, baña badator gucia aguertuco duan ordua: *Nic aguertuco ditut*, dio Jaunac, zure lan itsutsi oriec, eta ipiñico ditut munduguciaren beguietan: *Revelabo pudenda tua in facie tua, et ostendam gentibus nuditatem tuam* (q). Ain andia izango da becatariac orduan artuco duan lotsa, non nayago izango luquean infernuco zocoric illunenean ezcutatua egotea.

Ezta onembesterequin contentatuco Jesu-Cristo. Onen artean izango dira ascó berac onac izateaz gañera beste ascó Ceruraco bidean ipiñi cituenac, dala eracuste ederracquin, dala egemplo onacquin : eguin dezagun contu Apostoluac , Elizaco gurasoac , Erli-

gioco ordenen buru-nagusiac , Predicari , ta confesoreac, ta guraso contuzcoac. Ill ciran oetatic asco, ta illco dira betico azqueneco eguna baño len , baña utzi zuen Ceruraco aci ederra , ta aci au erneaz, errotuaz , zabalduaz joango da ; eta eztaqui munduac noraño ugaritu diran , edo ugarituco diran aci onen frutuac. Era berean gaistoen artean ascó, edo gueyenac izango dira , berac gaistoac izateaz gañera beste ascori infernuraco bidea eracutsi ciezanac, edo liburu gaistoacquin , edo itzez , edo egemplo gaistoz: oetatic dira heregeen buruac, aur inocenteai becatua eracusten diezanac , guraso , eta errietaco cargudun zabarrac , becaturaco bisca , eta lazoac prestatzen dituen mutill, nescah , eta beste bitartecoac. Oec illta-ere gueratuco da infernuraco acia ; ta aci au erneaz , eta zabalduaz joango da , eta eztaquigu noraño co calteac ecarrico dituan. Baña Jesu-Cristoc, onai dagoten onra gucia emateco , eta gaistoac osotoro lotsatan ipintzeco , mundu guciaren aurrean aguertuco du , cembat anima irabaci cituen batzuec, cembat galdu besteac , cembat mesede eguin zuen onen eracuste , ta egemplo onac , cembat calte gaistoenac.

Atzenean Jesu-Cristoren etorrera au izango da onac atseguin-contentuz , ta gaistoac penaz beteric utzitzeco , ez bacarric animaren aldetic , baita gorputzaren aldetic-ere. Eguin bacituen onac Ceruraco irabaciac , eta gaistoac infernuracoac , gorputzac-ere lagun izan cituen irabaci oetan , eta beragatic nai du Jaunac , dembora betetzen danean piztu ditecen oec , eta animaquin batean parte izan deceen edo atseguin-contentuetan, edo penetan. (r) eta eman nai die sari au mundu gucia beguira dagoala ¡Ceiñ poz andia anima onentzat eguia oec gogoan erabiltzea! Baña dembora berean cer pena! ¡Cer illuntasuna, eta

Universidad de Deusto
Biblioteca

tristurac gorputzaren atseguin lizunac, ibillera gaistoac, escuca loiac, queñada lotsagarriac, itz desonestoac utzitzeco viotzic ez duan, becatariarentzat! Orra, Cristaua, certaraco izango dan bigarren juicio *guciena* deritzana, eta azqueneco egun andi artan Cerutic lurrera Jesu-Cristo etortzea. ¿Noiz izango ote da etorrera au? Galde au eguin cioen Jesu-Cristori Apostoluac, baña atzeratu cien beren jaquin-naya esaten ciela: eztagoquizue zuei Aita Cerucoac beregan gorderic dauzcan demborac jaquitea: Aitac berac baicic eztu egun, eta ordu aren berriric, ez eta Ceruco Aingueruac berac-ere (s). Alaere Jaunac aditzera eman cituan Escritura Santan cembait siñale, ta oec orain uquitu bear ditugu, laburcho bederic.

§ III.

Jesu-Cristo gure Jauna munduari contuac artzera etorri dedin baño len aguertuco dira asco siñale. Entzun itzatzu oetatic batzuec. Lenengo siñalea, baña urruticoa. Alchaco dira gendeac gendeen, Erreñuac Erreñuen contra; izango dira guerrac, gosea, izurria. Siñale au aditzera eman cigun Jesu-Cristoc berac (t), baña siñale onequin ezta mundua contuaco. Bigarren siñalea: ugarituaz joango da Cristauen artean gaistaqueria, ta becatua, eta oztuaz Jaincoaren, eta lagun urcoaren onguinai, ta amorioa. Zabartuco dira gurasoac, eta umeac izango dira esquergabeac. Zabartuco dira, dio S. Hypolito anciñaco martiriac, animen arzayac, eta gendeac izango dira errebesac beren artzaientzat (x). Siñale au ere eman cigun Jesu-Cristoc berac. Irugarren siñalea: munduaren bazter gucietan, Erreñu, Provincia, eta erri gucietan aditzera emango da gure Legue Santa. Oraindic lecu, ta bazter ascó dira, batezere American,

ezagutzen ez diranac, ta gure leguearen berriric ez duenac, baña munduaren bucaera baño len aditzera emango zate guciai. Siñale au-ere aditzera eman cigun Jesu-Cristoc (z). Laugarren siñalea: Ante-Cristoaren, araco Jaungoicoaren, Jesu-Cristoren, eta Eliz Ama Santaren etsai icaragarri aren etorrera. Etsai au aguertu baño len Cristau-talde andiac aldeguingo due, S. Pauloc dionez Eliz Ama Santagandic: *Veniet discessio primum* (aa). Eztaquigu, Cristaua Eliz Ama Santagandic aldeguite au igaro dan, edo etorquizun dagoan; daquiguna da, goizaldeco bazter guciac, edo orientecoac aldeguin zuela, eta Mahomaren zoraqueriai darraiztela. Guc daquiguna da chit anciña ez danean, aldeguin zuela Prusiac, Sueciac, Dinamarcac, Inglaterrac, Olandac, eta Alemaniaco bazter ascoc. Guc daquiguna da, gure egunetan aldeguin duala Franciaco Erreñuac. Era onetan aimbeste nequeren costuan Jesu-Cristoc ipiñi zuan Eliza guchituaz, eta bacardade negargarri batean gueratuaz dijoa. Ay! ene! ¡eta cer izango ote da Españaz oraingo eran badiraue gaistaqueriaren ujaldeac! Gañera Ante-Cristoa etorri baño len, edo dembora aetan utzico zayo cateatic infernuco dragoyari, edo Aingueru gaistoen, eta becatari gucien Erregue Satanasi. Jesu-Cristo ill zanean jechi zan Cerutic Aingueru bat catea andi bat escuan zuala, eta gaistoen Erregue au loturic ipiñi zuan infernuaren ondoan, S. Joanec dion bezala: *Et ligavit eum* (bb), eta ala egongo da azqueneco demboretaraño; baña orduan utzico zayo bere sareac, eta lazoac zabaltzen. Sartuco da Ante-Cristoagan, eta onec aren laguntzarequin eguingo ditu, nortaqui cer calteac? Eguingo ditu Ante-Cristoac bere laguntzallearequin gauza miragarriac, ta mirari, edo milagroen iduripenac. Ateraco ditu lurraren, eta itsasoaren az-

Universidad de Deusto
Biblioteca

pitic urrea , cillarra , perlac , diamanteac , eta era o-
netan izango ditu bere escuan gendeac llilluratzeco,
eta engañatzeco bide egoqui guciac. Engañatuco di-
tu batzuec losenchaquin , eta ondasunacquin ; en-
gañatuco ditu besteac nequeen , eta eriotzaren bel-
durrez. Ain dembora negargarriac izango dira oec,
non Ceruraco autuac diran animac berac-ere enga-
ñatuac izateco perill andian egongo diran. Ala esan
zuan Jesu-Cristoc berac. Quenduco ditu Sacramen-
tuac ; quenduco ditu Meza Santa , Elizetaco cantu,
errezo , eta gauz on gucia : aguinduco du , ezagutu,
ta adoratu dezeela Jaincotzat; baña Jesu-Cristoc dem-
bora danean utzico du ill otza ; eta amilduco da in-
fernura sufre eracequizco aincira , edo osin batera,
dio S. Joanec : *In stagnum ignis ardentis sulfure.*
Iru urte, ta erdian iraungo du, Damielec dionez , Eli-
zaren neque onec , eta ascoren iritzian Ante-Cris-
toa illa izango da Oliveteco mendian, nondic Ceru-
ra igo zan Jesu-Cristo (cc).

Bostgarren siñalea : aguertuco dira Henoc, eta
Elias Profeta, eta predicatuco due Ante-Cristoaren
contra, eta onec illco ditu. Oen gorputzac cale, edo
placetan etzango dira obiric gabe iru egun, ta er-
dian, dio S. Joanec, eta dembora onen ondoren piz-
tuac izango dira (dd). Seigarren siñalea: Juduac et-
zuen ezagutu nai izan Jesu-Cristo Mesias, edo Sal-
vatzalletzat, eta illerazo zuen gurutzean. Becatu o-
nen penan vici dira itsutuac, eta gogortuac, eta Me-
sias, edo Salvatzalle berri baten ustean, baña aditu-
ric Eliasec emango diezten berriac eta ecusiric Mun-
duan guertatzen diran gauzac, ezagutuco due beren
itsumena, eta darameen bide oquerra, eta biurtuco
dira Jaunagana, artzen duela gure legue Santa. Au
anciñatic aditzera eman zuan Malaquias Profetac,
eta Jesu-Cristoc dio: etorrico da Elias, eta gauza gu-

ciac biurtuco ditu beren lecura: *Elias venturus est, et restituet omnia* (ee). Azquen contuetaco egunaren siñale oequin elcarren leyan eren becatuac damuz , eta negarrez deseguiten arico dirala becatariac, e-
san liteque, baña ezta ala guertatuco. Iltzera dijoan eriac bere argui, edo alai uneac izan oi dituan eran izango ditu bear bada munduac-ere bere argui uneac, eta au asco adiña izango da becatariac beren gura-
charren ondoren ibilteco; eta batzuec isecaz galde-
tuco due, dio S. Pedroc: Non da aimbeste bider e-
san zacun Jesu-Cristoren etorrera: *Ubi est promissio, aut adventus ejus?* (ff). Jesu-Cristoc berac esaten di-
gu, gaistoac Noeren demboran munduaren urezco bucaera sinistu etzuen eran, ez duela ezagutuco, ta sinistuco azqueneco egun andiaren etorrera ere (gg). Aiñ andia da becatuac, eta griña charrac animaren beguietan zabaldu oi duen lañoa, edo gandua!

Zazpigarren siñalea : aserratuco dira becatarien contra Cerua, lurra eta gauza guciac. Illunduco da eguzquia, eztu arguiric emango illarguiac, izarrac galduco due eren ibillera ederra. Erorico dira izar-
rac, edo izarren antza duen suac, eta ibayac, ta itur-
riac saminduco, ta galduco ditue. Itsasoa asico da orroaz mundu gucia irintsi bear balu bezala. Asal-
datuco da aicea, eta erasoco die becatariai turmo-
yacquin, chimista, oñaztar, eta arri icaragarriacquin; lurreraco ditu asco eche, ta torre, eta arbolac sus-
trayetatic ateraco ditu. Lurra, becatariac bere ga-
ñean iduquitzez aspertua balego bezala, asico da dardaraz; erdiratuco, edo ascatuco da asco lecutan, eta irintsico ditu echeac, erriac, eta an arquitzen diran gauza guciac. Asico da infernua lurraren zu-
lo oetacoren batetic quea dariola; botaco ditu be-
regandic langosta mota batzuec aiñ amorratuac, eta puzoitsuac, non bost illabetean ibillico diran be-

Universidad de Deusto
Biblioteca

catariai darraiztela. Zulatuco ditue, eta oec emango duen oñacea izango da dio S. Juanec, arrubioac ematen duanaren antzecoa. Zoratuen eran ibillico dira gendeac, nora igues eguin eztaquiela; erquituac, eta igartuac iduringo due. Beguiratuco dio auzoac auzoari, senarrac emazteari, gurasoac umeari, eta batac besteari, eta arrituac gueratuco dira elcarren ichura dacustenean (hh).

Zortzigarren, eta azqueneco siñalea: aguertuco da suzco ibai, edo ujalde bat bazter gucietara zabalduaz joango dana. Au aditzera eman zuen Isayasec, Davidec, eta beste Profeta batzuec. Jaunaren aurretic aguertuco da sua, inguratu, eta erreco ditu beraren etsayac, dio Davidec. *Ignis ante ipsum præcedet, et inflammabit in circuitu inimicos ejus* (ii). Iguesi ibillico dira su onegandic guizonac. Sartuco dira torre, eta gazteluetan; igoco dira mendien gañera, ezcutatuco dira lice-zuloetan, baña alferric, ceren, noranai dijoacela, eta non nai ezcuta ditecela, achituco dituan su erretzalle arc. Erreco, ta auts biurtuco ditu guizon guciac ala onac, nola gaistoac; oec oñace andiaquin, baña onac edo oñaceric gabe, edo noizbait izan cituen utseguiteai dagoten neurrian bacarric necatzen dituala. Auts biurtuco ditu erriac, jauregui, ta torre guciac. Auts biurtuco ditu urrea, cillarra, perlac, diamanteac. Auts biurtuco ditu arryaac, onciac, portuac. Auts biurtuco ditu ganaduac, egaztiac, arbolac, eta atzenean mendiac berac, eta aitzac-ere auts biurtuco ditu. Lurra, ta lurrean arquitzen diran gauza guciac erreco dira, dio S. Pedroc: *Terra autem, et quæ in ipsa sunt opera exurentur* (jj). Au izango da mundu onen bucaera, eta orduan etorrico da Jauna vicien, eta illen juzgatzera.

Ecusten dezu, Cristaua, nolaco berriac ematen dizquigun gaur Eliz Ama Santac? Aditu dezu, mundu

onen bucaerán etorrico dala Jesu-Cristo gucioc juzgatzera, ta bacoitzari dagocan saria ematera. Aditu dezu, certaraco dan Jesu-Cristoren etorrera andi au. Aditu dituzu atzenean etorrera onen aurretic aguertuco diran siñaleac. Au onela izan, eta oraindañoco gure urteac igaro ditugu munduco gauza circill, eta aurquerien ondoren? ta galdu ditugu gure animac; galdu gure Jaungoicoa, ta betico ondasunac? Esna gaitecen, eta lembait len biur gaitecen gure Aita onagana. Biur zaite esaten digu: *Revertere*: zai dago, dio Isayasec, guzaz urricaldutzeco: *Expectat, ut missereatur vestri* (ll). Equin bada, becataria, zure eguiteco oni batere luzatu gabe; iristeco era onetan Jaunaren gracia, eta beraren gracian irauten dezula betico gloria. Amen.

(a) Ad Heb, c. 9, (b) Actor 10. (c) Joan. c. 5. (d) Sophon. 1. (e) Apocal. 11. (f) S. Augustin serm, 4 de tempor. (g) Eccl. 8. (h) Psalm. 12. (i) Job. c. 21, (j) Psalm. 106. (l) Joan. c. 19. (m) 1.ª ad Corinth. c. 4.º (n) Psalm. 31 (o) Osseæ c. 13. (p) Math. 10 (q) Nahum c. 3 (r) 2 ad Corinth. c. 4 (s) Marci c. 13, (t) Surget gens contra gentem & Math. 24. (x) Quoniam abundabit iniquitas refrigescet charitas multorum. Math. 24. Videsis Pougetum (z) Prædicabitur hoc Evaugelium Regni in universo orbe in testimonium omnibus gentibus, et tunc veniet consumatio. Matb. c. 24.

(aa) 2.ª ad Thesalon. c. 2, et 3 (bb) Apocal. c. 20 (cc) Anti-Christum Dominus Jesus interficiet spiritu oris sui. 2.ª ad Thesal. c. 2. Vivi missi sunt hi duo in stagnum ignis ardentis sulphure. Apocal. c. 19. «*Andreas Cœsarien*»*sis*, ait Tyrinus ad hunc locum, vivos in infernum adven»turos, sed alii conformius Sacræ Scripturæ, quæ dicit om»nes omnino morituros, dicunt, suffocandos et morituros in via, ut de Core, Dathan, *Abiron docui Num.* 16.» Adde tes-

timonium Pauli supra positum. De annis, quibus durabit hæc persecutio vide caput. 12 Danielis.

(dd) Malac. c. 4. Math. 17. Eccli 24. Apocal. 11. (ee) Math. 17 (ff) 2.ª Petri c. 3. (gg) Math. 24 (hh) Apocal. c. 9 (ii) Psalm. 96. Vide Bellarm. et Tyrin (jj) 2.ª Petri c, 3. [ll) Isai. c. 30.

AVENDUAREN BIGARREN IGANDERACO.

1.ª

BECATURACO BIDE, ETA PERILLAREN GAÑEAN.

Cum audisset Joannes in vinculis opera Christi, mittens duos de discipulis suis ait illi: Tu es qui venturus es, an alium expectamus? Math. c. 11.

San Juan Bautistac, carcelan cateaquin cegoala, aditu cituan Jesusec eguiten cituan gauz andi, ta miragarriac: eta bidaldu ciozcan bere icasleetatic bi galde onequin: *Zu ote cera etortzeco zaudena, edo besteric ote da guc uste deguna?* Aditu zuan Jesusec S. Juanen mandatua, eta eranzun baño len, mandatariac beguira ceudela, eguin cituan cembait mirari, eta esan cien: *zoazte, eta aditzera eman guiozcatzue Juani aditu, eta ecusi dituzuen gauzac*: Itsuac ecusten duc, errenac errencraric gabe dabiltza, lepradunac garbitzen dira, gorrac aditzen duc, illac piztutzen dira, eta viotz umildunac ongui entzuten, eta artzen ditue Ceruco erreñuaren berriac. Berri oequin joan ciran S. Juanen mandatariac, eta orduan asi zan Jesus an arquitzen ciranen aurrean S. Juan

alabatzen. Nor, edo cer ecustera irten cerate eremura? esan cien. ¿Guizon aldacor, cañabera bezala edoceñ aicerequin beñ batera, guero bestera dabillenen bat? edo guizon janci eder–leunaquin aguertzen danen bat? Baña onelacoac vici oi dira, ez eremuetan, baicic Erregueen Jaureguietan. ¿Cer ecustera joan cerate bada eremura? Profetaren bat? Baña nic esaten dizuet, Profeta baño ere gueyago dala Juan. Onez esana, eta letraz ezarria dago: *Nic bidalduco det zure aurretic nere Ainguerua, eta onec prestatuco ditu zure etorreraraco bideac.*

Ona noraño alcha, eta laudatu zuan S. Juan Jesu-Cristoc berac. S. Juanec Jaunaren Aingueruac bezala, eguin zuan aleguiña, guizonen viotzac prestacitecen Salvatzallearen etorreraraco beren utseguiteen damuz, eta urratzen cituela becatuaren bide, eta sareac; baña añ andia da becatuaren bide, eta sareetan vici danaren llilluramentua, eta itsumena, non asco izan etzan cembaitentzat, becatuaren bideac utzierazteco, S. Juanen aleguiñ gucia. Oetatic ciran Herodes, eta Herodias. Herodes Eerregueac quendu cion bere anaya Feliperi Herodias bere emaztea, ta onequin vici zan gaizqui, eta esanmesa andietaraco bidea ematen zuala. Joan citzayon S. Juan Erregueri eta bere aurpeguira esan cion, ecin eguin cezaqueala alaco gauzaric. ¿Eta cer atera zuan S. Juanec? Herodesec etzuan izan viotzic becaturaco bidea urratzeco: eta Herodiasi aimbesteraño eracequi citzayon S. Juanen contra, non etzan sosegatu Santua carcelan catez beteric ipiñeraci zuan artean. Atzenean quendu cioen Santuari lepoa Herodiasen gorrotoari atseguin eguiteco. Aditzen dezu, becataria, ceñ nequez uzten diran becaturaco bide, eta perillac, oetan itsutzen bada bat? Au bera guerta eztaquizun zuri ere, itzeguin nai ditzut becaturaco

Universidad de Deusto
Biblioteca

bide, eta perillaren gañean. Aditzera emango dizut, lenvicia: cer, eta cembat guisatacoa dan becaturaco bide, eta perilla. Bigarrena, nola llilluratzen, eta itsutzen duan becataria, andic irten ez dedin. Atzenean uquituco ditut becatariari emendic etorri oi zaizcan ondoren negargarrietatic batzuec. Baña billa dezagun lenago Espiritu Santuaren arguia, bitarteco ipintzen degula Virgiña chit Santa, Aingueruarequin batean agur eguiten diogula. *Ave Maria.*

Cum audisset Joannes in vinculis opera Christi, mitters duos de discipulis suis, ait illi: Tu es qui venturus es, an alium expectamus? Math. 11.

Asco dira Cristauen artean becaturaco bide, eta perill urcoan vici diranac, eta alaere ezagutzen ez, edo ezagutu nai ez duenac. Oec nequez irtengo dira becatuaren mendetic, eracusten ezpazate arguiro, cer, eta cembat guisatacoa dan becaturaco bide, eta perilla; eta au da, becataria, zuc oraiñ aditu bear dezun gauza contuz, eta becatuaren cateac urratzeco asmoarequin.

Becaturaco bide, eta perillaren icenez aditzen da artaraco bidea ematen digun edoceñ gauza. Orregatic ez da Ceruan, eta ez da lurrean guretzat becaturaco bidea, eta perilla ecarri ez lezaquean gauzaric; aimbesteraño alabaña gaude gaitzeronz macurtuac, non edoceñ edoceñ gauzac cuturtu guintzaquean becatuan erortzera, edo gogoz, edo bestela. Alaere ez dira berdiñac becaturaco bide, eta perill guciac. Bata da *urruticoa*, eta onela deitzen zayo, ceren beregandic urruti daucan becatua, eta guchitan amilderazo oi duan artan. Bazatoz Elizara, eta ecusten dezu guizon, edo emacume bat ongui jancia. Ecuste au utsutsic, edo beste salsagarriric ez duala, becaturaco bide, eta perill *urrutícoa* da, eta etzaude onelacoetatic igues eguitera beartua; bestela irten bearrac guiñaque mundu onetatic. Becaturaco beste bidea da *urcoa*, edo urrecoa. Deitzen zayo *urcoa*, ceren bide, ta perill onetan dagoana, edo jartzen dana sarritan erori oi dan becatuan, edo beintzat erortzeco perill andia dan sayets gucietara beguiratu ezquero. Eguizu contu, an, edo emen jai egunetan biltzen dirala araco eche artan mutillac, eta nescachac: aritzen dira dembora pusca batean carta-jocoan, eta ondoren, edo bitartean izan oi dira izqueta loyac, queñada lotsagarriac. Batzarre onetara joatea da becaturaco bide, eta perill urcoa. Eta alaere badira echeetaco buruac onelaco gazteen batzerreai lecu ematen diezanac! Echeetan guertatzen dana bera guerta diteque iñuterico trisca ez garbietan, festa demboran, eta basoan ermiten aitzaquian eguiñ oi diran gazteen batzarreetan: eta guisa berean urliarequin, edo sandiarequin izquetan egotearequin. Itz batean, baldin alde gucietara beguiraturic, becatuan erortzeco perill andia bada, orduan becaturaco bide, eta perilla izango da *urcoa*. Eta contu: *becatuaren* icenez ez da obrazcoa bacarric aditzen, baicic gogoz, itzez, escuz, edo beste edoceñ guisatan eguiten dana. Emendic dator gazte erguelac gaitzera colocatzen asitzen diranetic centza ditecen artean, becaturaco bide eta perill urcoetan vicitzea, asco beintzat, ceren gogoz, itzez, eta escuz erortzeco bideetan pocic ibilli oi diran; eta ecertan artzen ez ditue onelaco gauzac. Galde bequie cembaiti, *badezu ecer seigarren mandamentuaren contra?* eranzungo due: ez Jauna. Beldurtzen da Confesorea, cerbait izan litequeala, eta galdetzen dio: *izan da onelaco gauza? Bai, Jauna. Alaco gauza? Bai, Jauna.* Nola bada esan dezu ez dezula ecer seigarrenaren contra? Jauna, orrelaco

gauzac ez ditut ecertan artu. Emendic dator onelaco erguelen confesioac gueyenean gaiztoac izatea, ceren becaturaco bideac uzteco asmo eguiazcoric ez oi duen.

Becaturaco bide, ta perill urcoa izan diteque, ez seigarren mandamentuco gaucetan bacarric, baita beste mandamentuai dagoztenetan ere. Ala cembaitentzat izan oi da jai egunetan ostatura, edo beste edariac saltzen diran toquira joatea orditzeco, eta paquea galerazteco bide, eta perill urcoa. Beste batzuentzat jocoa. Batzuentzat saldu-erosia, besteentzat beste gauzaren bat. Orregatic becaturaco bide, eta perillaren gañean esaten dana ez da seigarren mandamentuaren contra gaizqui vici diranentzat bacarric aditu bear, baicic edoceñ mandamenturen contra becatu eguiteco bide, edo perill urcoan vici diran gucientzat.

Becaturaco bide, eta perill urcoa batzuetan da *borondatearen contracoa*: esan nai det, ecin batec utzi dezaqueana, ala nai balu ere. Badijoa bat itsasoan, eta an arquitzen da becaturaco bide urcoan, edo seigarren, edo beste mandamenturen baten contra. Becaturaco bide oni deitzen zayo borondatearen contracoa, ceren ecin, nai balu ere, aldeguin dezaquean bide onetatic, itsasoan dijoanac. Au bera guerta diteque carcelan dagoan batequin. Era berean borondatearen contraco bide, eta perillaren icena eman oi zayo, baldin calte andi gabe ecin utzi baditeque; baña asma alditezquean calte guciac etorri bear balue ere, utzi bear du becatariac becaturaco bide ta perill urcoa, utzi gabe ecin garaitu badu; lenago da alabaña anima beste gauza guciac baño. Becaturaco beste bide, ta perill urcoa da *borondatezcoa*, ceren ala nai duanac calte andi gabe utzi dezaquean: eta onelacoac izan dira gueyenac.

Guerta diteque gauza bat berez gaiztoa ez izatea, eta gaiztoa izan ordean ona izatea, eta ala ere ascorentzat becaturaco bide, eta perill urcoa izatea. Ala eguzquiaren, eta izarren edertasuna ona da, eta alaere anciñaco demboran ascorentzat izan zan idolatriaraco bidea. Era berean gauz ona da ezconza, errietaco cargudun izatea, baña ascorentzat dira becaturaco bide, eta perill urcoa. Orregatic aldeguin bear dezu, Cristaua, zuretzat becatura bide, ta perilla dacarten lagun gaizto, izqueta, eta jolasetatic, *besteac badijoacela* aitzaquiatzat eman gabe. Bearbada ez da aentzat zuretzat adiña perill, edo ezagutzen ez due: eta nolanai, dijoacela, edo ez dijoacela besteac, zu beartua zaude becaturaco bide, eta perill urcoetatic aldeguitera. Añ gauza bearra da au, non becaturaco bide, ta perill urcoan bere nayez bat jartzea bera becatu dan, perillari dagocan becatua eguitea cerbaitec eragotzico balio ere. Eguin dezagun contu urliarentzat jai arratsetan ostatura joatea dala orditzeco bide, ta perill urcoa. Badijoa alaere, baña biurtzen da echera ardoric uquitu gabe, ceren aitu dan. Ez da ordi, baña ordi baliz bezala becatu eguiten du, ceren bere nayez artaraco bide urcoan jarri dan.

Becaturaco bide, eta perill *urcoa* izateco ez da sarritan becatuan erori bearric, baldin era danean erortzen bada bat. Urtean beñ da iñuteria: urtean beñ izan oi dira erri bacoitzeco festac. Urtean beñ lecu batzuetan ermiten aitzaquian eguiñ oi diran mutill, eta nescachen biltze, edo batzarreac. Alaere ascorentzat dembora oec dira becaturaco bide, eta perill urcoac, ceren erori izan diran, eta erortzen diran, edo gogoz, edo itzez, edo queñadaz, edo bestela. Erri batera etorri oi omen zan Santuren baten arguiarentzat escatzera urtean beñ ermitaño bat aquer batec baño bizar andiagoa zuana. Artzen zuen

Universidad de Deusto
Biblioteca

eche batean esquea bucatu artean, eta echeco alaba, edo urliaren batequin igarotzen zan ermitaño bizar atsa bear ez liraquean gaucetara. Au guertatzen zan urtean beñ bacarric; alaere eche artaco sarrera bizar-ats-arentzat zan becaturaco bide, eta perill urcoa, ceren era cetorrenean erortzen zan. ¿Baña ecertan artzen dira becaturaco bide, eta peril urco oec? Ez noasqui. Igarotzen da iñuteria, igarotzen dira festa demborac, eta gazte erguelac prest egongo dira dembora datorrenean, leneco bide, eta perill urcora joateco, eta urte barrumbean eguin dituen confesioac izango dira gueyenean gaiztoac, ceren ez duen asmo eguiazcoric becaturaco bide, eta perill urcoac utzitzeco.

Atzenean becaturaco bide, ta perilla izan diteque urcoa becaturic eguiñ baño ere lenago, baldin sayets gucietara beguiraturic, erortzeco perill andia bada. Josef anciñacoa, Jacoben semea, etzan bere echecoandrearequin becatuan erori, baña cegoan echean egon zan baño gueyago egotea izango zan becaturaco bide, eta perill urcoa, ceren orpoz orpo cerraiquion emacume gaizto ura becatu eraguiteco, eta onen atzaparretan capa utziric igues eguin zuan echetic. Au bera guerta diteque servitzen dabiltzanaquin cembait aldiz. Suerteac ematen dio bati nagusi bat atseguin lizunetara itsutua, ollacoya, eta fruta guciac dastatu nai dituana: equiten dio, guerra emanez garbitasunaren contra, baña sendoro ayenatzen ditu tentaldi guciac. Ez da oraindic erori, baña dembora lucean onelaco echean egotea izango litzaque becaturaco bide, eta perill urcoa, guizon jaquintsu ascoren iritzian.

Ecusten dezu, Cristaua, cer eta cembat guisatacoa dan becaturaco bide, ta perilla? Ta gauz onela badira, diran bezala ¿cembat izango dira becatura-

co bide, eta perill urcoan vici diranac? eta perill onetatic lembait len irten ordean llilluraturic, eta itsuturic eren egoera gaiztoan dirauenac? Au nola guertatzen dan, dacuscun oraiñ.

§ II.

Anima bat becatuaren bide, eta perilletan nastutzen danean, illuntzen zayo adimentua, eta gogortuaz dijoaquio viotza. Baditu beguiac, eta ez du ecusten betico su, eta garren artean amiltzeco zorian dagoala: eta becatuaren bide, ta saretic irten ordean, an dago llilluraturic, eta itsuturic, eta andic ez irteteco milla aitzaquia asmatzen, eta billatzen ditu. Entzun itzatzu becataria oetatic batzuec.

Lenengo aitzaquia: eguia da, urlia nere echean egotea, edo onara etortzea neretzat dala becaturaco bide andia; baña ecin nic echea utzi dezaquet, eta ez escuric det aren etortzea eragozteco. Atozea, urlia, orrec gorputzaren vicitza quendu nai balizu, cer eguingo cenduque? etzenduque aleguiñean igues eguingo? Etzenduque deadar eguingo? Etziñaque, ala bear baliz, contu emango zure gurasoari? Ori bera eguin bear dezu bada animaren vicitza quendu nai dizun ori ceregandic ayenatzeco. Igues eguizu orregandic infernuco otsoagandic bezala. Eguizu deadar, ala bear bada. Esan guiozu, ezpadizu paquean utzitzen, contu emango diozula gurasoari, edo besteren bati. Atzenean au asco ezpada becaturaco bideac urratzeco, esan guiozu gurasoari cer guertatzen zatzun urliarequin, eta gurasoac artuco ditu bear diran neurriac. Jauna, gurasoari esaten badiot, galduco du urliac bere icen ona, edo fama gurasoarequico. Galtzen badu, ori guertatuco zayo bere culpaz, ceren zuc contuan ipiñi cenduan.

Universidad de Deusto
Biblioteca

Bigarren aitzaquia: aitortzen det Jauna, orain-
ño vicitu naizala becaturaco bide, eta perill asco-
tan: dembora batzuetan joaten nintzan eche batera
jocatzeco aitzaquian, eta oraiñ ere joaten naiz bat-
zuetan. Urte ascoan joan naiz iñuterico dantzetara,
eta era berean errico, eta inguruetaco festetara. Ga-
ñera bi urliarequin izan det adisquidetasun andia,
eta oraindic ere batarequicoac badirau. Dembora
orietan izaten ciran itz loyac, queñadac, musucac
era cetorrenean. Confesoreac iñoiz esan dit, aldeguin
dezadala becaturaco bide, eta perill oetatic; baña
ez det arretaric ipiñi confesoreac esan didana egui-
teco; oraiñ asmoarequin nator berorrec aguintzen
didana eguiteco, eta eman bear dit absolucioa. ¿Cer
diozu becatari itsua? Elizac, Rituala esaten diogun,
liburuan dio: becaturaco bide, eta perill urcoa utzi
nai ez duenai etzatela eman bear absolucioa. S. Car-
los Borromeoc esaten digu, len confesoreac contuan
ipiñi ondoan, becaturaco bideac utzi ez dituan beca-
tariari etzayola absolucioric eman bear, bide gaiz-
toac utzi, eta vicitz onaren siñale eguiazcoac eman
artean. Utzi itzatzu bada beñ betico becatuaren
bideac; presta zaite confesio on bat eguiteco, ta
orduan egongo cera absolucioa artzeco sasoyan.

Irugarren aitzaquia: *joango naiz araco eche arta-
ra, non neretzat arquitzen dedan becaturaco bidea:
joango naiz araco lagun, eta toqui aetara; baña ez
det becaturic eguingo; lenago lepoa eman.* Engañatzen
cera, becataria. Becaturaco bidean bere nayez jart-
zen danac, jartzearequin berarequin nai du becatua,
itzez ezpada, obraz: *Perilla nai duana perillean
bucaluco da*, esaten dizu Espiritu Santuac. Zuri
guertatuco zatzu chimirrica, edo ingumari guerta-
tu oi zayona. Badabill chimirrica arguiaren ingu-
ruan ariñ ariñ: beguiratzen dio, eder deritza, eta

cembat eta gueyago beguiratzen dion, ambat gueya-
go llilluratzen, eta choratzen da. Alderatzen zayo
arguiari beñ, ta berriz, eta erretzen zayo oraiñ egoa
bat, guero zancoac. Ezta alaere centzatzen, eta at-
zenean erretzen da gucia, eta gueratzen da illic.
¡Ah zu becatari, inguma, edo chimirrica guciac baño
choroago eguin cerana! Cembat aldiz au bera guer-
tatu zatzu? Eta alaere *joango naiz, diozu, becatura?*

Laugarren aitzaquia: *joango edo egongo naiz o-
raindaño becaturaco bidea neretzat izan diran ur-
lia aequin, baña uste det emango didala Jaunac be-
catuan ez erortzeco laguntza, eta gracia.* Engañat-
zen cera becataria; ceren Jaunac ematen dizquigu
becatuaren bideetatic aldeguiteco laguntzac, baña
aldeguiñ ordean gueren nayez sartzen baguera be-
caturaco bideetan, utzico gaitu gure griña charren
atzaparretan. Atozea, cere nayez sartzen bacera ca-
robi eracequi batean, naico dezu erre gabe Jaunac
gordetzea? Ez dezu ecusten, au dala zoraqueria bat?
Eta zoraqueria au eguin dezu, becaturaco bideetara
joan ceranean, ceregan esaten dezula: *Uste det, e-
mango didala Jaunac becatuan ez erortzeco laguntza.*
Oroi zaite cer guertatu zatzun guero. Oroi zaite iñu-
terian, eta festetan igaro zatzunaz, edo dantzan
bertan, edo dantza ondoan ezcaratzetan, escallere-
tan, zocoetan, echeraco bidean. Oroi zaite bai, eta
nai, ta nai ez zure barrumbeac esango dizu, cer dan
becaturaco bidean jartzea.

Bostgarren aitzaquia: *urliaren echera joaten naiz, ba-
ña ez gauza gaiztoetaraco: sandiarequin egoten naiz,
baña aspaldi da gure artean gauz oquerric guertatu
ez dala.* Izan bedi eguia ori gucia, eta demagun,
egoten cerala errosarioa esaten; alaere baldin zure
egoerac, ibillerac, eta modu guciac ematen badue
esanmesa gaiztoetaraco bidea, utzi bear dezu jayera

Universidad de Deusto
Biblioteca

ori; S. Pauloc esaten digu alabaña, utzi bear ditugula, gauza gaiztoac ezecic, gaiztoen antza duenac ere.

Seigarren aitzaquia: *albanu utzico nuque becaturaco bide au; baña certan nago urliarequicoa galtzen badel?* Atozea, eta certan zaude, galtzen badezu betico zure anima? Anima bat bacarra dezu; ori galtzen badezu, non arquituco dezu orren ordaña? Cer prochu du guizonac mundu gucia irabaztearequin, galtzen badu bere anima bacarra? dio Jesu-Cristoc.

Zazpigarren aitzaquia: *cer esango due eche artatic irteten banaiz? edo ara joaten ezpanaiz?* Atozea, edo badaquie, edo eztaquie zure vicitza gaiztoaren berri? Ezpadaquie, ez due ecer esateco bideric, ceren eche batetic irteteco, edo besteren batera ez joateco non nai izan oi dira milla modu, eta ez du orregatic iñorc ecer esateco bideric. Baña baldiñ badaquie errian batzuec, edo ascoc, nola vici ceran, poztuco dira oec, bide zucenean sartu cerala ecustean. Eta ez sinistu ez daquiela inguruco echeetan vici diranac zure contuen berri; galde ezperen iturriai: galde labe-aurreai: galde sucaldeetaco laratzai, eta esan albalecee, esango luquee zuri guertatu zatzun gucia, eta gueyago. Zuri guertatzen zatzu Midasen bizarguille, edo barberoaren ipuyac diona. Midas Erregueac omen cituan belarritzar batzuec, astoarenac cirudienac, eta iñorc ez ecusteagatic estaltzen omen cituan contuz illearequin. Egun batean bizarguilleac ecusi ciozcan, eta asi zan farraz. Esan cion Errequec eriotzaren pena ipintzen ciola, itzic esaten bazuan gauz aren gañean. Irten zan barberoa Erregueren echetic, eta eztanda eguin nai cion barrenac ecusi zuana esateco gogoz, baña izutzen zuan eriotzac. Joan zan erritic campora, eta soro, edo celai batean eguin zuan zulo bat, sartu zuan burua, eta aspertu zan arte gucian aritu zan esaten ecusi zuana: *Midasec asta-belarriac ditu, cion: Midasec astabelarriac ditu.* Aspertu zanean ichi zuan zuloa. Guero an jayo ciran cañaberac, eta oec, aiceac cerabiltzquianean, otseguiten omen zuen barberoac ereiñ zuan canta: *Midasec asta belarriac ditu.* Au bera guertatzen zatzu zuri ere becataria. Norc, edo norc jaquindu zure vicimoduaren berri: onec, eztanda eguiteco zorian ceucan bere burua, eta esan dio cerbait bere adisquide bati; arc beste batzuei, eta Midasen asta belarriac bezala aguertu dira inguruan zure pausoac.

Zortzigarren aitzaquia: *becaturaco bideac utzitzea añ gauza bearra dan ezquero, esango diot urliari, bucatu dirala gure contuac, eguin dezala confesio on bat.* Atozea, ta aitzaquia onequin vici nai dezu becaturaco bide, eta perill orretan? Eguizu contu, itotzeco zorian iduqui duala otsoac ardiren bat. Andic laster badijoa ardi choroa otsoagana, eta esaten dio: *Agur otso jauna egun on. Gauza bat zuri esan bearrean nago, eta da oraiñ adituco dezuna: etzaitecela izan oraindaño beceñ ardicoya; gaizqui itz eguiten due zuzaz: arrezazu vicimodu on bat.* Uste dezu, orrembesterequin onduco dala otsoa? Ondu ordean, ardi choroari egotzico diozca atzaparrac, eta eguingo du artzaz gura duana. Au bera guertatuco zatzu zuri ere, becataria, aitzaquia oriequin gueratzen bacera becaturaco bide, eta perillean: eta beldur naiz, etorri ditecen zure gaiñ becaturaco bidean dirauenai etorrri oi zaizten ondoren negargarriac. Uquituco ditut oraiñ oetatic batzuec.

§ III.

Becaturaco bidean vici danari datorquion lenengo ondorena da Jaunac ucatzea, becatuan ez eror-

Universidad de Deusto
Biblioteca

tzeco , eta beragãna biurtzeco bear diran , Ceruco laguntzac : eta oec gabe gueratuco cera zure gura charren atzaparretan , Ceruco inz , eta euri gozoac gozatzen ez duen lur elcor bat bezala. Au da ondoren izugarria , eta becatuaren bidean vici danac beregan dacusana ; Jaunac alabaña ematen ditu becatuaren bideetatic aldeguiteco laguntzac, baña aldeguin nai ez duanari utzitzen dio bere gura charrai jarraitzen neurria bete artean. Atozea , becataria, eta alaere ez dezu viotzic , bide gaizto orietatic aldeguiteco ?

Bigarren ondorena da zuretzat alferrac izatea Sacramentuac , eta Jesusen odol preciotsua ; ceren becaturaco bide , ta perill urcoac uzteco viotzic ez dezun bitartean , ecin Sacramenturic ongui artu dezaquezun. Au da eguia bat Catolico guciac aitortu bear duena, utzi ditezquean bide , ta perillen gañean itzeguiten dala.

Irugarren ondorena izan oi da eriotza gaiztoa; ceren , edo batetan illco da onela vici dana , edo prestaera charrarequin. Ala guertatu citzayon Toledoco inguruan becaturaco bidean vici zan ezcutari bati. Izan zuan noizbait Virgiña chit Santaren jayera andia , baña urteetan cerbait aurreratu zanean , asi zan atseguin lotsagarrien ondoren , eta vici zan gaizqui, echean zuan , aide batequin. Bazan erri artan anima virtutetsu bat , eta egun batean otoiz , edo oracioan cegoala , aguertzen zaizca Jesu-Cristo , Virgiña chit Santa , eta Aingueru asco. Asitzen dira gure ezcutariaren vicitza gaiztoaren gañean itzeguiten. Jesu-Cristoc eman zuan batetan vicitza quentzeco sentencia ; baña Virgiña chit Santaren erreguz eman cion oguei , ta amar egunen epea. Virgiña chit Santac esan cion anima virtutetsu ari , cijeala onelaco Erligiosogana , eta esan ceguiola ecusi , ta aditu zuana. Ala eguin zuan anima arc, baña Erligiosoac etzion sinistu bereala. Anima virtutetsuac beiñ ezecic iru bider ere ecusi zuan len esan dana bera , eta orduan sinistu zuan Erligiosoac, eta itz eguin cion ezcutariari. Aditzera eman cion guertatu zan gucia. Aitortu zuan bere vicimodu gaiztoa , eta damu andiz eguin zuan bere confesioa. Baña echapean arquitzen zan becaturaco bidea , eta ecin bota cezaquean , eta bera ecin campoetara joan citequean. Orregatic aguindu cion confesoreac, alda cedilla beste guela batera, eta ichi cezala atea barrendic. Urlia joan zan arratsean , eta ecusiric ichia cegoala , eraguin zuan guilza berri bat. Sartu, eta cuturtu zuan becatura. Berriro confesatu zan, eta aguindu cion confesoreac, atea barrendic guiltzatzen zuanean , etzeguiola guiltza quendu. Ala eguin zuan, baña urliac idiqui zuan berriro atea , eta biurtu ciran becatura. Confesatu zan berriro, eman ciozcan confesoreac penitencia sendo, eta samiñac ; baña aspertu zan oequin, eta esan cion confesoreari , utzi ceguiola paquean , atsoen ipuiaquin cebillela. Etorri zan oguei, ta amargarren egu-
na , eta gau erdian otseguin cioen confesoreari. Laster joan zan , eta arquitu zuan viciric, deadarrez ciola : *Ay ! arpoi batequin igaro bidee viotza.* Eguin zuan confesoreac al zuan gucia becatari ura Jaunagana biur erazteco ; baña alferric. Ill zan damu eguiazcoaren siñaleric gabe. Ona becatuaren bide, eta perillean itsutzeac dacartzian ondorenac.

Nere Jaun, eta Jaungoicoa ! ceñ andi , ta miragarria zure ontasuna gurequin ! Aimbeste bider eman dizugu bidea becataria doacabe ura utzi cenduan eran utzitzeco , eta alaere ichedon dezu , noiz bait centza ote gaitezquean. Urra itzatzu , esaten diguzu, becatuaren cate oriec. *Solve vincula colli tui , captiva filia Sion.* Beguira becataria , cer eguiten dezun:

dembora egoquian aditu nai ezpadezu Jaunaren deia, galduco cera, eta betico. Ea bada urra itzatzu becatuaren bide oriec, eta biur zaite zure Aita onagana: artuco zaitu seme ondatzallea artu zuan eran, eta irauten dezula beraren gracian, emango dizu zuretzat prestaturic daucan betico vicitza doatsua. Amen.

AVENDUAREN BIGARREN IGANDERACO.

2.ª

BECATUAREN OITURAREN GAÑEAN.

Cum audisset Joannes in vinculis opera Chti, mittens duos de discipulis suis ait illi: tu es qui venturus es, an alium expectamus? Math. 11.

San Juan Bautistac, Herodes Erreguearen aguintez carcelan catez beteric cegoala, aditu cituan Jesusec eguiten cituan mirari, edo milagroac, eta bidaldu ciozcan bere icasleetatic bi galde onequin: *Zu ote cera etortzeco zaudena, edo besteric ote da guc uste deguna?* Aditu zuan Jesusec S. Juanen mandatua, eta eranzun baño len, mandatariac beguira ceudela, eguin cituan cembait mirari, eta esan cien: *zoazte, eta aditzera eman guiozcatzue Juani aditu, eta ecusi dituzuen gauzac*: Itsuac ecusten due, errenac errenaric gabe dabiltza, leguenarrez beteric ceudenac garbitzen dira, gorrac aditzen due, illac piztut-

zen dira, eta viotz umilla duenac ongui entzuten, eta artzen ditue Ceruco erreñuaren berriac. Joan ciran berri oequin S. Juanen mandatariac, eta orduan asi zan Jesus an arquitzen ciranen aurrean S. Juan laudatzen. ¿Nor, edo cer ecustera irten cerate eremura? esan cien. ¿Guizon aldacor cañabera bezala edoceñ aicerequin beñ batera guero bestera dabillenen bat? edo guizon janci eder-leunaquin aguertzen danen bat? Baña onelacoac vici oi dira, ez eremuetan, baicic Erregueren jaureguietan. ¿Cer ecustera joan cerate bada eremura? Profetaren bat? Baña nic esaten dizuet, Profeta baño ere gueyago dala Juan: onez esana, eta letraz ezarria dago: *Nic bidalduco det zure aurretic nere Ainguerua, eta onec prestatuco ditu zure etorreraco bideac.*

Ona noraño alcha, eta laudatu zuan S. Juan Jesu-Cristoc berac. S. Juanec Jaunaren Aingueruac bezala, eguin zuan bere aldetic cegocan gucia presta citecen guizonen viotzac Salvatzallearen etorreraraco, uzten cituela becatuaren bideac, eta oiturac; baña añ andia da becatuaren oituran datzanaren itsumena, non asco izango ez litzaquean cembaitentzat S. Juan beraren aleguin gucia ere. Ala guertatu zan Herodes, eta Herodiasequin. Herodeses quenducion bere anaya Feliperi Herodias bere emaztea, ta onequin vici zan gaizqui. Joan citzayon S. Juan Erregueri, eta bere aurpeguira esan cion, eciñ eguin cezaqueala alaco gauzaric; baña Herodes oatua bezala arquitzen zan becatuaren oituran, eta etzuan izan viotzic andic irteteco: Herodias mindu zan S. Juanen contra alaco eran, non artu zuan Santuari vicitza quentzeco asmoa. Sartu zuen carcelan, bete zuen burniz eta atzenean lepoa quendu cioen. Orra cer dan becatuaren oituran itsutzea. Oitura onen gañean itzeguin nai dizut gaur, nere Cristaua; ero-

Universidad de Deusto
Biblioteca

ri etzaitecen gaitz izugarri onetan, eta erori bacera esnatu zaitecen lembait len irteteco. Aditzera emango dizut, lenvicia: cer dan becatuaren oitura. Bigarrena, nolaco miñancea dan. Atzenean uquituco det emendic atera bear degun frutua. Billa dezagun onetaraco Espiritu Santuaren arguia, bitarteco ipintzen degula Virgiña chit Santa, Aingueruarequin batean agur eguiten diogula. *Ave Maria.*

Cum audisset Joannes in vinculis opera Christi, mittens duos de discípulis suis ait illi: Tu es qui venturus es, an alium expectamus? Math. 11.

Cer aditzen ote da becatuaren oituraren icenez? Aditzen da becaturen batean erortzeco errastasuna. Asitzen da urlia juramentuac, eta birauac eguiten; asitzen da sandia ordiqueriari ederretsitzen, asitzen da berendia escuca loyac, queñada itsusiac eguiten, edo gurasoai zor zaten beguiramentu, edo errespetoa galtzen. Lenengo becatu oec ez dira bereala oitura biurtzen, eta bear dan arreta artzen baliz, erraz sendatuco liraque becatu oen calteac. Baña guertatu oi dana da, beñ artu duan bide gaiztoan sarritan erortzea becataria: eta onela ari dala erantsitzen dio bere buruari becatuan erortzeco oitura, edo errastasun bat becatu berriac eta berriac eguiteco perill urcoan ipintzen duana. Emendic atera ezazu, Cristaua, becatuaren oituraren ama bezala dirala len sarritan eguin diran becatuac. Atera ezazu gañera, becatariac iguerrico balu, aurreracho dijoala bere vicitza gaiztoan, eta beste vicimoduric ez artzera, erorico dala becatuaren oituran: ta alaere jarraitzen badio becatuaren bideari, orduan ez litzaque asco confesioan esatea: *eguin det becatu au onembeste bider*, baicic esan bearco luque gañera: *eta ezagutzen*

nuan sarritan erori nintzala becatu onetan, eta berriro eroriaz erantsico niola nere buruari becaturaco oitura, ta erraztasuna; baña gueyenean ez dira becatariac necatzen onelaco gaucetan.

Becatuaren oitura batzuetan da becatu venialetan, besteetan becatu larri, edo mortaletan amilderazten duana. Eguin dezagun contu: urliac du orditzeco oitura; au becatu larri, edo mortala da, eta beartua dago urlia becatu larriaren azpian oitura au deseguiteco neurri egoquiac artzera, eta artzen ezpaditu, aitortu bear du confesioan bere zabarqueria. Au bera aditzen da gañeraco oitura gaiztoaz ere gai andian diranean. Sandiac du guezur chiquiac esateco, edo gaiztoari otseguiteco oitura; au ez da berez becatu larri, edo mortala. Alaere badira becatu venialen oitura batzuec becatu mortalaren perill urcoa erraz ecarri lezaqueenac guizon jaquintsuac eracusten digüenez. Ala juramentu eguitea eguiarequin baña premia gabe becatu veniala da, baña sarritan juramentuac premia gabe eguitera oitutzen dana, erraz erorico da juramentu guezurrezcoetan ere. Birauac botatzea, baña gaitzic opa etzayola lagun urcoari, berez becatu veniala da, baña oituraz botatzen dituana laster igaro diteque aserrearequin botatzera. Au bera guerta liteque lagun urcoaren contra erausi eguiteco oiturarequin. Aurrenean ez dira falta chiquiac baicic aitatuco; guero berotzen da mingaña, eta esaten dira faltaric andienac ere. Ecusia dago onelaco oiturac deseguiteco arreta andia ipiñi bear dula Cristauac, eta onetan izan badu zabarqueriaric au ere esan bear du confesioan, cembaitec dioenez. Eta becatu venial utsac Jaunaren gracia galerazten ezpadu ere, oartuac gaudela eguiten baditugu arduraric gabe, eta oituraz, calte andiac dacartzie, ceren anima lasaitzen, eta prestatzen duen becatu an-

Universidad de Deusto
Biblioteca

dictan erortzeco ; eta gañera ceren galerazten dituen Aldareco Sacramentuac dacartzian frutu gozoetatic asco.

Ascotan guertatzen da confesoreac galdetzea becatariari : *eta len izan dezu becatu orretan erortzeco oituraric* ? eta orduan aitortu bear dezu dana dan bezala , eta besteric esatea debecatua dago ; beartua dago alabaña confesorea aleguiñean ezagutzera, absolucioa artzeco sasoi onean zauden , edo ez , eta ezagüera au iristeco gauza bearra da zuc aitortzea galdetzen dizun oitura. Gañera gaitz bat zarra bada, berria danean baño sendagai andiagoac escatzen ditu , eta beragatic confesoreac bidez galdetzen dizu, becatu orretan erortzeco oitura len izan dezun, edo ez. Gañera naiz galde deguizula , naiz ez , baldin oitura izan badezu , eta oitura urratzeco arretaric artu ezpadezu , esan bear diozu confesoreari: *Jauna, becatu onetan erori naiz onembeste bider* ; ta len ere izan det becatu onetan erortzeco oitura , baña ez det arretaric ipiñi griña au deseguiteco. Zuc onela aguertzen badezu zure gaitza , erraz ezagutuco du confesoreac , zure leneco confesioac onac , edo gaiztoac izan diran , eta cer sendagai bear diran zu sendatzeco. ¿ Baña au onela eguiten ote da ? Ez beintzat , asco dira alabaña beren gaitza ezagutuco diezanagandic igues eguiten duenac. Dacuscun oraiñ, nolaco miñancea dan becatuan erortzeco oitura.

§ II.

Zu , becataria , bazabiltza becatuaren bideetan, edo ez dezu arretaric griña char ori garaitzeco : eta arquitzen cera becatu orretan erortzeco oituran sartua, edo sartzeco zorian; ta alaere vici cera ardura gabe. Ay! eta baciñaqui , nolaco perillean zauden ! Baciñaqui, nolaco miñancea dan becatuaren oitura ! Bear bada ardura andiarequin sayatuco ciñaque becatu orretatic aldeguitera, eta negar eguingo cenduque oraindañoco vicitza gaiztoaz. Enzun ezazu bada , nolacoa dan miñance ori.

Becatuaren oitura , Elizaren gurasoac dioenez , da miñance bat ecin sendatu ditequeana , batezere zarra bada. Becatuac sarritan eguiten dala, berequin dacar oitura. Oiturac nolerebait beartzen du anima berriz eta berriz becatu eguitera , eta emendic jayotzen da ecin utzia , dio S. Bernardoc. Guertatzen ote da au , ceren ecin garaitu litequean oituraric zarrena , eta errebesena ere ? Ez; ezta alabaña oitura añ zarric, non Jaunaren laguntzarequin ecin garaitu litequean ; baña oiturac lotutzen du becatariaren vorondatea , alaco eran , non osotoro, eta venaz nai ez duan becatua utzitzea. Orregatic izango dira cembait, becaturaco gogoric , eta tentacioric gabe arquitzen diranean ere , becatu eguitera dijoacenac oitura utsagatic ; izango dira beste batzuec , becatuac nazcatuac bezala utzi dituanac , eta alaere uzteco viotzic ez duenac. Escritura Santac berac aditzera emateco , nolaco miñancea dan becatuaren oitura , esaten digu : Etiopiaco beltz bat zuritzen danean , eta catamotzac uzten dituanean bere manchac , utzico dituzue zuec ere gaizquiz gaizqui ibiltzeco oiturac: *Si Æthiops mutare potest pellem suam , et pardus varietates suas, et vos poteritis bene facere, dum didiceritis malum.* Baña nolaco miñancea dan oitura gaiztoa ezagutzeco , asco dezu, nere Cristaua , non nai eguno ro guertatzen danari contuz beguiratzea. Atozea, ez dira lecu gucietan arquitzen itz loi desonestoac esateco , edanean igarotzeco , alferquerian beren echearen , eta lagun urcoen caltean vicitzeco , eta besteren contra edoceñ gauza esateco , edo birauac

botatzeco oitura zarra duenac ? Eta ecusi dezu onelaco oetatic batec ere osotoro utzi duala bere oitura zarra ? Ez noasqui.

Becatuaren oitura da , S. Agustiñec dionez , becatariac bere buruari eransitzen dion bigarren izate, edo naturaleza bezala : *Quasi secunda , et affabricata natura.* Eguimbedi aleguiña zaldiari irrincia, otsoari ardien , azariari olloen , eta arranoari sarraisquiaren ondoren joatea eragozteco. Nequez quenduco zaizte griña oec , ceren beren izatearequin datozquienac diran , eta au bera guertatzen da , becatua becatuaren gaiñ eguiñez becatariac bere buruari egozten dion oiturarequin.

Becatuaren oitura da miñance bat becataria animaco gaucetan uzten duana itsuturic , eta gorturic. Aditzen , edo iracurtzen badu cerbait becatuac berequin dacartzian betico su , eta garren gañean , bereala quentzen ditu animaren beguiac gauz oetatic, eta gogora ecartzen ditu agradatzen zaizcan gogoracioac. Aditzen baditu Jaunac bere servitzarientzat prestaturic dauzcan, Ceruco atseguin miragarrien berriac , gueratzen da iristeco usteric gabe Indietaco ondasunen berriac aditzen dituan baten eran. Itsumen onetan vici da , eta atzenean guertatzen zayo Syriaco Erregueren guerrariari guertatua. Syriaco Erreguea guerran cegoan Israelcoarequin. Eliseo Profetac Jaunaren arguiarequin ezagutu cituan Siriacoaren asmo guciac , eta aditzera eman ciozcan Israelcoaren Erregueari. Jaquin zuan Syriacoac Eliseoc eguin zuana , eta bidaldu cituan asco armadun, ta zaldizco Profeta achitzera. Inguratzen due Eliseo cegoan erria , eta jaquiten du Profetac cer asmorequin datocen. Badijoaz Profetaren echera , eta erregutzen dio onec Jaunari , bidal dezala guizon aetara itsumena. Irteten zate Eliseo , eta esaten die : *ez*

da au zuec billatzen dezuen erria : atozte nerequin, eta eracutsico dizuet arquitu nai dezuen guizona. Etzuen ezagutu Profeta , eta jarraitu cioen. Eraman cituan Samariara , Israelco Erregueren errira bertara. An sartu ciranean , erregutu cion Eliseoc Jaunari , idiqui citzala guizon aen beguiac , eta bereala ecusi zuen oec, arquitzen cirala beren etsaia zan Erregueren atzaparretan. Au bera guertatzen zayo becatuaren oituran vici danari. Itsumenaren lañoac inguratzen du : ez du etorquizunari beguiratzeco nequeric artu nai ; badator eriotza , eta orduan deseguiten dira becatariaren ganduac , idiquitzen ditu beguiac , eta ecusten du bere burua etsayaren atzaparretan.

Becatuaren oitura da viotza gogortzen duan miñance bat , erramentariaren malluac ingudea gogortzen duan eran. Emendic dator , Jaunac onelaco becatariac beregana eracartzeco , neque , ta nai gaberen batzuec bidaltzen badiczte , gaiztoago izatea. Jo cinduan , Jauna , zure cigorrarequin, eta ez due beren gaiztaquerien damuric artu : ceatu cinduan , eta ez due icasi nai izan zuc eracusten ceniena , esaten dio Jeremiasec Jaunari onelaco becatariaz. Emendic dator gañera becataria ez lotsatzea bere vicitza gaiztoaz, eta emacume guizacoyac izan oi duen aurpeguia izatea : copetaren antzecoa jantzitzea , Jeremiasec dionez : *Frons mulieris meretricis facta est tibi* (Jerem. 3). Emendic sor, eta gor eguiñic gueratzea becataria. Badira itsasoac neguan izozten diranac , eta orduan ango arrayac daude iguitzen, edo muguitzen ez dirala; baña andic atera , ta parrilletan surtan ipintzen diranean , esnatzen dira. Arrai oen eran arquitzen cera becatari gogortua mundu onetaco itsaso izoztuan. Etzera esnatzen Ceruco gaucetaraco ; baña esnatuco cera etsayac itsaso onetatic zaramaizquianean betico

Universidad de Deusto
Biblioteca

su, eta garren artera. Atzenean onela gogorturic dagoan becataria, beratu, gozatu, eta bigüindu ordean Jaunaren itza, eta Sacramentuaquin, gueyago, eta gueyago elcortzen, eta gogortzen da. Guertatzen da onelaco becatariarequin eguzquiari buztiñarequin guertatzen zayona. Eguzquiac bidaltzen diozca arguizaguiari bere argui ederrac, eta berotasuna; eta bigüintzen da. Bidaltzen diozca era berean buztiñari, eta au elcortzen, eta guerotic guerora gueyago gogortzen da: eta au bera Jaunaren itz, eta Sacramentuai guertatzen zate gurequin: batzuec gozatzen, edo bigüintzen dira, eta Ceruco gauzetan viotza ipintzen due; baña becatari gogortuac are gueyago elcortzen dira. A! zu becatari aditzen zaudena: aspaldi da, au ceregan ecusten dezula ¿cer izango da zuzaz orain centzatzen ezpacera?

Becatuaren oitura da miñantze bat, Jaunac bacoitzari barcatuco diozcan, becatuen neurri, eta mugaz campora becataria amilderazo oi duana. Ceñ gauz izugarria dan au ezagutzeco, jaquizu lembicia, gure Jaunac gauza guciai ipiñi diela beren neurria, Escritura Santac esaten digun bezala: *Omnia in mensura, et numero, et pondere disposuisti.* Emendic beregan erabaquia dauca cer, ta cembat becatu bacoitzari barcatuco diozcan. Iru becatu barcatuco dieztet Damascoarrai, baña lautara igarotzen badira ez diet barcatuco esaten cien Jaunac Amos Profetaren autic: *Super tribus sceleribus Damasci, et super quatuor non convertam.* Jaquizu bigarrena, becatuen neurri au ez dala gucientzat berdiña. Ceruco Aingueruentzat antuste, edo soberbiazco becatu bat asco izan zan betico su, eta garren artera errortzeco. Ujaldeac mundu gucia estali zuenean, Noe, ta beraren echecoac ez, beste guciac ito ciran, eta ito ciranen artean asco izango ciran becatu bat

bacarra zuenac. Beste becatari ascorentzat neurri ugariagoa izan da. Eta norc izango du ausardia Jaunari esateco, *cergatic eguiten duan au onela*? Jaquizu irugarrena, becatariac bere neurria igarotzean eguiten duan becatu ura dala zauri bat beñere ongui sendatuco ez dana: edo dala becatuen putzua betico estaltzen duan arria bezala. Putzua idiquia dagoan bitartean socaz bederic irten diteque bat, ara erori arren; baña estaltzen bada eciñ jaso ditequean arri andiren batequin, ez dago andic irteteric. Orregatic cion Davidec: Ez dedilla, Jauna, ichi nere gañean nere becatuen putzua: *Neque urgeat super me puteus os suum.* Jaquizu atzenean, becatuen neurria igaro duan becataria dagoala etsayaren mendean betico su, eta garren arteraco prestatua. Atozea oraiñ becataria: badaquizu, cer neurri dan zuretzat Jaunac beregan siñalatu zuana? Ez. Badaquizu neurriaz campora igaro etzerala? Ez ori ere; baña badaquizu, becatu asco eguiñ dituzula, eta bear bada, bat gueyago eguiten badezu neurriaz gañetic igaroco cerala ¿certan zaude pauso ori ematen badezu? Beti-betico galdua cera. Ez dizut oraiñ deadar andiric eguin nai gai onen gañean; bacarric esango dizut, eguia izugarri oec utzi erazten ezpadizue becatua, eguia berac izango dirala ar ozcari bat betiraunde gucian erquitzen iduquico zaituenac.

Becatuaren oitura da atzenean miñantze bat beartzen duana Jesu-Cristo becataria bere griña charren mendean utzitzera, eta beragandic aldeguitera betico. Banoa ni, ta nere billa ibillico cerate, baña alferric: illco cerate ceren becatuan, esan cien Jesu-Cristoc Judu gogorrai: *Ego vado, et quæretis me, et in peccato vestro moriemini.* Au bera esango dio Jesu-Cristoc becatariari neurriaz campora igarotzean: Ay! esquergabea; eguin cindudan Ceruraco: eta zu ara

Universidad de Deusto
Biblioteca

cindecen eguin nintzan guizon, eta eman nuan vicitza gurutze batean. Au guchi baliz bezala, ipiñi nituan Sacramentuac zuri gracia, eta virtuteac emateco, eta gueratu nintzan Aldareco Sacramentuan zuri emateco nere gorputza, nere odola, eta ni naizan gucia. ¿Cer eguin bear nuan zugatic, eta eguin gabe utzi det? *Quid ultra debui facere, et non feci?* Baña gucia izanda alferric zurequiñ. Deitu dizut, eta ez dezu aditu nai izan nere deya: guera zaite bada esquer gabe gaiztoa; guera zaite cere griña, eta oitura lizunen mendean; banoa ni zugandic betico: *Ego vado.* Era onetan Jesusec uzten duanean becataria, aldeguingo due beragandic Aingueru guardacoac, eta gure Ama maitagarri Virgiña chit Santac: eta gueratuco da becataria Ceruco inz, eta euri gozoac uquitzen ez duen lur elcorra bezala, eta illco da bere oitura gaiztoen atzaparretan.

§ III.

Aditzen dezu, becataria, nolaco miñancea dan becatuaren oitura? Ay! zure doacabea oraiñ aditu nai ezpadezu, Jaunac beragana biurtzeco, ta vicitza berria artzeco bidaltzen dizun, deya. Zure doacabea birauac botatzeco, ta juramentuac nola nai eguiteco oitura gaiztoa dezuna! Zure doacabea antustez, eta soberbiaz beteric gurasoac, eta lagun urcoac ecertan ez dauzcatzuna. Zure doacabea edana, ta alferqueria Jaungoicoaren lecuan maite dezuna. Ay! zu lagun urcoen animac achitzen, eta Satanasi saltzen zabiltzana! Ay! zu itz loi ciquiñac esateco oitura zarrean gogorturic zaudena! Ay! zu lagun urcoen contra gorrotoan, eta aen falten billa vici cerana! Zure zori gaiztocoa, ezpacera oraiñ centzatzen! gogortuaz dijoa zure viotza ingudearen eran, eta beldur izan zaite, zure becatuac neurriaz campora igarotzeco zorian daudela. Igarotzen badira neurritic, betico galdua cera.

Nere Cristaua, ¿eta cer frutu emendic atera bear degu? Lenengo frutua. Zuc gaztea, aldeguizu zu gazte cerala becatutic, becatuaren bideetatic, eta lagun gaiztoetatic, eta oitu zaite Sacramentuac sarritan, eta ongui prestaturic artzera, eta nequearen gueyena eguiña iduquico dezu Ceruraco. Escritura Santac dio: gazteac gazte dala artzen duan bidea ez duala zartzen danean ere utzico: *Adolescens juxta viam suam, etiam cum senuerit non recedet ab ea* (Prov. 22). Guerta liteque adiñ zoroarequin irristatzea utseguiteren batean: eta contu: ez becatua becatuari erantsi, ceren erori cindezquean erraz becatuaren oituran, eta onela eracarrico cenduque Jaunaren aserrea cere gañera. Ala esaten dizu Espiritu Santuac. Bigarren frutua. Zu, Cristaua, arquitzen cera becatuaren oituraren miñancean sartua? Gaitz andiarequin zaude, eta galduco cera betico, ezpadezu chit venaz oitura ori deseguiteco, eta vicitz onari jarraitzeco aleguiña eguiten. Equin guiozu bada eguiteco andi oni gogotic Jaunaren lagunzan zure ustea ipintzen dezula. Presta zaite confesio on bat eguiteco: egun oro iracurri ezazu, eta gogoan erabilli S. Ignacioren liburutic cerbait, eta ondoren sortu ezazu viotzetic zure becatuen damu andi bat, eta aurrera ez eguiteco asmoa. Maiz gogora ecarzu zure anima Ceruraco bidean sarrerazteco Jesusec gurutzean igaro zuana. Arrezazu zure bitarteco, ta Amatzat Virgiña chit Santa, eta deitu guiozu zure estutasunetan. Sarritan confesa zaite, eta eguitzu leyalqui confesorearen aguinduac. Era onetan garaituco dezu zure miñance izugarri ori. Ez gaitecen zabartu gure animaren eguiteco andi, eta bacarrean: ga-

biltzan contuz gure vicitzaren arguiac dirauen bitartean, onela iristeco Jesu-Cristoc bere eriotzarequin guretzat irabaci zuan betico vicitza doatsua. Amen.

AVENDUAREN BIGARREN IGANDERACO.

3.ª

CONFESIOCO SACRAMENTUAC ESCATZEN DUAN ONTZECO ASMOAREN GAÑEAN.

Cum audisset Joannes in vinculis opera Christi, mittens duos de discipulis suis, ait illi: Tu es qui venturus es, an alium expectamus? Math. 11.

Cein ejemplo ederra gaurco Evangelioac beguien aurrean ipintzen diguna, noizbait gu osotoro becatutic irteteco eta Jaunagana jartzeco S. Juan Bautista, araco ogueita amaica urtean eremuan, eta bacardadean vicituric Salvatzallearen aurretic Salvatzalle beraren bideac prestatzera etorri zan guizon andi au, asi zan munduari becatutic irteteco, penitencia eguiteco, ta Salvatzallea cegocan eran artzeco ots andiac eguiten. Etzien barcatzen ez chiquiai, ez andiai, ez beartsuai, ez aberatsai, ez eta Erregueri berari-ere. Prest arquitzen zan guizon andi onen viotza, ecergatic ere eguin gabe ez utzitzeco Jaunac be-

re gañean ipiñi cion carguari cegocana. Dembora onetan Herodes Erreguea vici zan gaizqui, eta becatu ascotaraco bidea ematen zuala; bere anaya Feliperi quendu cion alabaña Herodias bere emaztea. Bacecusan Santuac ceiñ calte andiac cetocen emendic. Bacecusan gañera, cer guerta cequiqueon berari gai onetan arguiro itzeguinda. Alaere utziric alde bat beguiramentu oec itzeguin cion Herodesi bere aurpeguira, ta aditzera eman cion bere becatu itsusia. Ozta jaquin zuan au Herodiasec, edo Herodesen emazte ordeac, artu zuan gorroto, eta amorru aiñ andia, non etzan sosegatu Herodesi carcelan sar-erazo cion artean Santua. Atzenean quenerazo cion vicitza-ere; eta Santuaren burua, oraindic odola ceriola, eraman erazo zuan andre ez garbi-amorratu arc Erreguerequin jaten cegoan lecura. Ecusten dezue, cer dan Jaungoicoaren itza aditu nai ez izatea? Ecusten dezue, certaraño amilderazo, ta itsutu gaitzaquean becatuac?

Carcelan cegoan bitartean, aditu zuan S. Joanec Salvatzalleac eguiten cituan gauza miragarrien berria, eta bidaldu ciozcan bere icasle bi galde onequin: Zu cera etortzeco dagoana, edo besteren baten ustean egon bear ote degu? *Tu es qui venturus es, an alium expectamus?* Artu zuan Salvatzalleac mandatu au, eta erantzun baño len, mandatarien aurrean eguin cituan azco gauza andi; eta guero oei esan cien: zoazte orain, eta esanguiozue Joani ecusi, ta aditu dezuena. Esan guiozue, nere itzaren otsera ecusten duela itsuac, badabiltzala errenac, garbitzen dirala sorayoac, edo lepraz beteac, aditzen duela gorrac, piztutzen dirala illac, eta atzenean beartsuac icasten, eta artzen duela eracusten zaten Ceruraco bidea. Au esan ta bidaldu cituan Salvatzalleac S. Joanen bi icasleac; eta orduan eguin zuan Santua-

Universidad de Deusto
Biblioteca

ren laudario eder bat. Evangelio onec aditzera ematen dizquigu asco gauza, ta besteen artean, ceiñ viotz prestu–osoarequin prest arquitzen zan S. Joan ecergatic-ere bere Jaun Jaungoicoaren aguintea ez autsitzeco. Ta au aditzera ematean beguien aurrean ipintzen zacu gure animac confesioco Sacramentuan garbitzeco artu bear degun ontzeco asmoa. Gaur itzeguingo det confesioco Sacramentuac escatzen duan ontzeco asmoaren gañean. Aditzera emango dizuet lenengo lecuan: cer, eta nolacoa dan gure animac garbitzeco confesioco Sacramentuac escatzen duan ontzeco asmoa, edo propositua. Aditzera emango dizuet bigarren lecuan, ceiñ sarritan eguiten diran confesio gaiztoac ontzeco asmo osoa artu gabez. Baña asi baño len billa dezagun Espiritu Santuaren gracia, bitarteco ipintzen degula Virgiña guciz Santa, Aingueruarequin batean esanaz. *Ave Maria.*

Cum audisset Joannes in vinculis opera Chti, mittens duos de discipulis suis, ait illi: Tu es qui venturus es, an alium expectamus? Math. 11.

Gure animac confesioco Sacramentuan garbitzeco ezta asco becatuen contuac ateratzea, ez eta damutzea–ere. Gauza bearra da gañera ontzeco, edo becatu larriric beintzat beiñ-ere ez eguiteco asmoa. Eguia au aditzera ematen digu Jaunac Escritura Santan, eta Elizac bere Concilioetan. Ar ezazue, esaten digu Amos Profetac, ar ezazue becatuaren gorrotoa, eta ama ezazue ona, edo obra onac eguitea, onela urricaldu ote ditequean Jauna. *Odite malum, et diligite bonum, si forte missereatur Dominus Deus.* (c. 5). Garbi zaitezte, esaten digu Isayas Profetac, eta zaute sendo berriz ceren animac becatuz loitu gabe. *Lavamini, mundi estote* (c. 1). Eguiñ ezazue viotz

eta espiritu berri bat, esaten digu Ecequiel Profetac. *Facite vobis cor novum, et spiritum novum.* (c. 18). Eta ecusia dago Jaunac esaten digun onec guciac guchienean escatzen duela ontzeco asmoa. Au bera aditzera ematen digu Eliz Ama Santac Florenciaco, eta Trentoco Concilioan, bada esaten digu, damutu bear zacula eguindaco utseguiteaz, aurrera berriric ez eguiteco asmoarequin. *Cum proposito non peccandi de cætero.* Eta cer ote da ontzeco asmo, edo propositu au? Au da munduac uste duan baño gauza andiagoa. Au da batec Jaunaren laguntzan, edo gracian bere ustea ipiñiric, beregan osotoro erabaquitzea, ecergatic-ere becatu larriric beintzat aurrera ez eguitea. Itz batean, viotzez becatuari, ta becatuaren bideai betico adio esatea. Esan det *becatu larriric ez eguitea;* ezta alabaña premiazco gauza becatu venialac confesatzea, ta oen barcacioa iritsi diteque confesio gabe. Baña confesatzera datorrenac ezpadu aitortzen becatu venialen batzuec baicic, orduan artu bear du oetan ez erortzeco asmoa confesioa ona izateco. Ecusten dezu, Cristaua, cer dan confesioco Sacramentuac escatzen duan asmoa? Beguira ezazu oraiñ nolacoa dan.

Confesioco Sacramentuac escatzen duan ontzeco asmo, edo propositua da beñic beiñ asmo bat becatu larri gucietara, lecu gucietara, dembora, eta trance gucietara beguiratzen duana, ta zabaltzen dana. Au da asmo bat, ceñarequin becatariac erabaquitzen duan becatu larriric batere, iñon-ere, ta iñoiz-ere ez eguitea. Emendic asmo au duana prest arquitzen da Jaunaren Legueco amar Aguinteac, Eliz Ama Santarenac, eta bere estadu, eta carguac dituan eguin-bide, edo obligacioac ezagutzeco, ta gordetzeco osotoro. Prest arquitzen da becatu larri, bat bacarrari-ere, viotzean lecuric ez emateco ez echean, ez campoan ez bere ba-

Universidad de Deusto
Biblioteca

carrean, ez lagun artean, ez astean, ez jayean, ez festa demboran; ez vicitzan, ez eriotzan. Era onetaco asmoa aguertu zuan David Santuac Jaunagana biurtu zanean. Ez naiz Jauna, cion, gueyago aztuco zure Legue Santaz. *In æternum non obliviscar justificationes tuas.* Erabaqui det, Jauna, ta erabaqui juramentuarequin ez gueyago becaturic eguitea, ta zure aguinduac gordetzea. *Juravi, et statui custodire judicia justitiæ tuæ.* Bai, jarri da nere viotza beti beti zuc aguintzen dezuna eguitera. *Inclinavi cor meum ad faciendas justificationes tuas.* Ona nola David Santuac artu zuan asmoa becaturic batere, iñon-ere, ta iñoiz-ere ez eguiteco. Confesioco Sacramentuac escatzen duan ontzeco asmo, edo propositua da gañera ez asmo erdia, edo laurdena, baicic asmo oso-osoa, eta viotz gucitic jayotzen dana. Cer ote da asmo oso au? Au da eguiaz, eta viotz osoz erabaquitzea becaturic ez eguitea ez vicitzan, eta ez eriotzan, ez ondasunen ustean, ez ondasunac galtzeco beldurrez, ez besteren losenchagatic, ez erausien beldurrez, ez munduaren ustean, ez munduarequicoa galtzeco beldurrez, ez vicitzaren ansiaz, ez eriotzaren beldurrez. Asmo oso au nola artu ederqui eracutsi cigun gure Salvatzaileac Getsemanico baratzan. Ecusi cituan bere animaren beguien aurrean munduaren gaistaqueria guciac, eta asaldatu zan. *Torrentes iniquitatis conturbaverunt me.* Ecusi cituan becatu oecgatic dembora guchiren barrenen igaro bear cituan nequeac, eta alaere cein esquergabea izango zan mundua. Illuntasun, eta tristuraz bete citzayon viotza. *Cæpit contristari.* Eta len aimbeste egarri Pasioco caliza edateco aguertu bazuan-ere, guero gogoan ecin sartu balitzayo bezala arquitzen zan. *Cæpit tædere.* Alaere ecusiric bere Aitaren naya, erabaqui zuan au eguitea, naiz costa cequiola bere odol gucia isurtzea, eta

vicitza ematea. Eguin bedi, Aita nerea, esan cion, zuc nai dezuna, ta zuc nai dezun eran. *Non sicut ego volo, sed sicut tu.* Ona nolaco asmoa iduqui bear degun guc-ere Jaunac nai duana edo aguintzen diguna eguiteco, edoceiñ nequeren costuan ere. Au bera eracutsi cigun S. Pedroc-ere, ostegun santu arratsean aditzera eman cienean Jesu-Cristoc bere Apostoluai, cer dembora guchiren barrenen berarequin guertatuco zan. Ez esan cion S. Pedroc bere Maisuari, ez eta vicitza costaco bazat ere, ez det berori ucatuco. *Etiamsi oportuerit me mori tecum, non te negabo.* Eguia da S. Pedroc alaere ucatu zuala bere Maisua; eta au da gu beldur andi, eta santu batez beteric utzi bear gaituan gauza, baña ez gure asmo erdiac, edo iduripenac edertu ditzaqueana. Ceren baldin S. Pedroren viotz vici, ta prestuac asmo aiñ andiaren ondoren iraun ezpazuan eman zuan itzean ¿ nola nai guenduque guc asmo erdiarequin becatuan ez erortzea? Atzenean eciñ ederquiago eracutsi digu S. Paulo Apostoluac, ongui confesatzeco artu bear degun onguitzeco asmo oso-oso au. Asitzen da Apostolu Santua bere viotza progatzen, eta cer sasoyetan daucan beguiratzen. Norc galerazoco digu Jesu-Cristoren gracia, ta amorioa? galdetzen dio bere buruari. *Quis nos separabit á charitate Chti?* Galerazoco ote dit neque, eta gurutzeren batec? *An tribulatio?* Galerazoco ote dit estutasunen batean nere burua ecusteac? *An angustia?* Galerazoco ote dit goseac? *An fames?* Galerazoco ote dit larrugorritasunac? *An nuditas?* Galerazozo ote dit ezcontza galtzeco, munduarequin aserratzeco perillac? *An periculum?* Galerazoco ote dit lagunen erausiac, edo isecac aditu bearrac? Urliac, edo sandiac eguin dezaquean charqueriaren batec? *An persecutio?* Galerazoco ote dit ezpata nere lepoan ecusteac? *An gladius?* Onela

Universidad de Deusto
Biblioteca

progatzen du S. Pauloc bere viotzaren sasoya , ta au onela progaturic , cer diola uste dezue ? Ez , ez, dio Apostolu Santuac , ez eriotzac , ez vicitzac : *neque mors, neque vita* ; ez Aingueruac berac , ez guizon andiac : *Neque Angeli, neque Principatus, neque virtutes*; ecerc ere ez dit galerazoco Jesu-Cristoren gracia , ta adisquidetasuna. *Neque creatura alia poterit nos separare á charitate , quæ est in Chto Jesu Domino nostro.* Ecusten dezu , Cristaua , nola S. Pauloc artua ceucan ecergatic-ere becaturic ez eguiteco asmo oso-osoa ? Ta asmo au bera ez gueyago , ta ez guchiago escatzen digu confesioco Sacramentuac. Atzenean confesioco Sacramentuac escatzen duan ontzeco asmoa ezta asmo antzua edo legorra , baicic eraguillea , eta ontzeco vicimodua , eta neurri egoquiac ar-erazten dituana. Eguizu contu , Cristaua, zure zabarqueriaz gueratzen zatzula etze zure echeac duan sororic gozoena. Betetzen da demboraz larrez, sasiz , arantzaz , belar gaistoz. Vici cera urtearen erdiraco artoric ez dezula , eta iñorc eman nai ez dizula , ceren emalleac necatu diran paguaren usteric gabe ematez. Oroitzen cera zure soro onaz, eta beguira jarriric esaten dezu : » Ah! soroa, soroa ! so»ro nere naguitasunez galdua! Orain orrela bazaude»ere laster beste moduz ecusico zaitue » Atozea, Cristaua , baldiñ au esanda ezpadezu guero arretaric zure soroco sasiac , larrac , arantzac, eta belar gaistoac ateratzeco ; ezpadezu lurra maneatzen, simaurtzen, eta ichitzen; ezpadezu iñaurquiñic biltzen, ¿cer esango degu zure asmoaz ? Cer , ezpada zure asmoa zala antzua , legorra, nai ez nai edo idurípen utsa ; etzaitu alabaña muguitu zure soroan laborea ongui eguiteco bear diran neurriac artzera. Emendic atera-ezazu , Cristaua , ez dezula izan , ez eta izango-ere confesioco Sacramentuac escatzen duan

ontzeco asmoric , naiz golpeca urra dezazula bularra , naiz milla bider esan dezazula : *Artzen del becaturic beiñ-ere ez eguiteco asmo osoa*, baldiñ muguitzen ezpacera onetaraco bear diran neurriac artzera. Eri batec , sendatzeco neurriac ipiñi nai ezpaditu, cer esango dezu? Cer, sendatzeco asmo eguiazcoric ez duala baicic? Au bera esan, eta sinistu bear dezu anima eri dagoanaz, sendatzeco neurriac artzeco viotzic ezpadu. Neurri oec asco dira, ta oen artean bearrenac, eta gucioi dagozquigunac dira oec. Lenengoa: becatuaren bide, edo perilletatic aldeguitea. Bigarrena, becatura amilderazten gaituan gure griña nagusiac, eta oitura gaistoac ecitzeco, ta ucatzeco aleguiña eguitea. Irugarrena: lagun urcoari becaturaco bidea ematen dioen gure itzeguite, ta modu dongueac utzitzea. Laugarrena: lagun urcoaganaco gorrotoa utzitzea, ta itzeguite, ta moduetan ere gorrotoric ez eracustea. Bostgarrena: lagun urcoari ecer ostu, edo calteric eguiñ bazayo dala ondasunetan, dala onran, edo faman biurtzea zor zayona. Seigarrena: jaquitea ongui dotrina, baita gure estadu, vicimodu, eta carguac dituan obligacioac ere. Atzenean zor-artzeco, ta contu nastuac dituanac oec garbitzeco eguiñ bear du aleguiña. Neurri oec dira, nere Cristauac, andiai, chiquiai, Apaizai, ta Apaiz ez diranai berdin dagozquigunac; eta neurri oec artzera muguitu nai ez duan Cristauac ez du confesioco Sacramentuac escatzen duan asmoric. Ecusten dezu, Cristaua, *cer*, eta nolacoa dan gure animac garbitzeco confesioco Sacramentuac escatzen duan ontzeco asmoa?

§ II.

Norc orain aditzera emango du, cein sarritan e-

Universidad de Deusto
Biblioteca

guiten diran confesio gaistoac ontzeco asmo eguiazcoa artu gabez? Arritzeco gauza da gai onetan gure itsumena! Ez du becatariac berac necatu nai eguia onen beguiratzen, eta bestec beguien aurrean ipintzen badio arguia, edo quentzen ditu beguiac arguiagandic, edo aldeguiten du au ipintzen dioen lecuetatic. Ala guertatzen da dotrina arguiac, eta animetaco zauriac uquitzen dituenac eguiten diranean: Bear bada premiaric gueyena duenac goiz meza entzun da igues eguingo due Jaunaren itza aditzetic, beren buruac ispilluan ecusi ditzeen beldurrez. Zuc, Cristaua, beguiraldi bat emanguiezu ontzeco asmoaren faltaz eguiten diran confesio gaistoai. Confesio gaistoac bide onetatic eguiten ditugu lenengo lecuan, baldiñ artzen ezpadegu becaturic, larriric beintzat, batere iñon-ere, eta iñoiz-ere ez eguiteco asmo eguiazcoa. Eta asco, ta asco dira era onetaco asmo eguiazco gabe confesatzen diranac. Ala guertatu oi da guraso zabarracquin. Izango due bear bada beste becatuetan ez erortzeco asmoa; baña zabarqueriaren becatua gueratzen zate bere oñean. Ala guertatzen da errietaco cargüetan nastutzen diran ascorequin; izango dira bear bada gañeracoan guizon onac baña ez due izango bear dan asmoric, duen carguac, eta erriaren onac escatzen duana eguiteco. Ala guertatu oi da Mandamenturen bat oiturаz ausitzen duenaquin. Cuticiaren becatuetan sarritan erortzen danac erraz artuco du asmoa lujuriaco becaturic ez eguiteco; baña tratu ciquiñac, usurac, eta trampac utzitzeco? guchitan. Lujuriaren atseguin loyen ondoren, eta adisquidetasun, jolas, ta itzeguite limurietan dabillenac erraz artzen du asmoa lapurretaric ez eguiteco, baña utzitzeco bere lizunqueriac? guchitan. Gazteac, utzi ezquero Jaunaren beldur santua, ederretsi ezquero itzeguite, ibi-

llera, ta beste lujuriaren biscarequin nastutzen diran gauzai, ez oi du izan asmo eguiazcoric becatua osotoro utzitzeco, centzatu ditecen artean. Orobat edaleac neque andi gabe artuco du asmoa lapurretaric ez eguiteco, baña ez bere oitura charra betico utzitzeco. Au bera guertatzen da ezcontzeco egarriarequin llilluratuac, eta aizatuac dabiltzan cembait gazterequin, ez due asmoric itzeguite loyac, queñadac, edo oei darraizten gauzac betico utzitzeco. Cer esango det munduaren beldurrez batzarreetan, edo beste edoceiñ lecutan dagotena eguiten ez duenaz? Cer esango det azaria olloaren zai dagoan eran lagun urcoari charqueri eguiteco derecharen zai, eta prest vici diranaz? Cer esango det beren estadu, edo carguac dituan eguin bideai beguiratzen ez diezanaz? Cer Eliz Ama Santaren aguinteac ecertan artutzen ez dituenaz? eta ecertan ez artzea guchi baliz bezala Elizaren Mandamentuen icenic-ere aditu nai ez duenaz? Ah! gauza samiña da esatea, baña eguia da, Cristauric gueyenac ez duela viotzic betico utzitzeco becatua; ez duela becaturic batere, eta iñoizere ez eguiteco asmo eguiazcoric eta beragatic eguiten dira confesio gaisto asco, ta asco alde onetatic.

Confesio gaiztoac eguiten ditugu bigarren lecuan ezpadegu artzen ecergatic-ere becaturic ez eguiteco asmo oso-osoa; itz batean, ezpagaude gueren viotzetan prest ecergatic-ere becatuari lecuric ez emateco, ez ondasunacgatic, ez onracgactic, ez munduagatic, ez eriotzagatic, ez vicitzagatic. Ongui. Ta au onela bada, dan bezala, cembat, eta cembat confesio gaisto eguingo ez dira ontzeco asmo oso onen faltaz? Ceiñ da alabaña sasoi onen ederrean, eta era onetan prest egon dana confesatzera etorri danean? Mira ezazu, Cristaua, zure viotza, eta erantzun beza berac, dio S. Agustiñec. *Respondeat cor vestrum.*

Universidad de Deusto
Biblioteca

Prest ote cegoan zure viotza Jaunaren Leguea ez ausitzeco edoceiñ nequeren costuan-ere? *An tribulatio* ? Prest ote cegoan onetaraco naiz ecusi cere burua estutasunic andienetan? *An Angustia*? Naiz ecusi cere burua goseac? *An fames?* Larrugorrian, edo guciaren gabean ? *An nuditas?* Prest ote cegoan zure viotza Jaunaren aguinduac eguiteco, naiz emendic etorri aideen, adisquideen, onguilleen aserratzea? Naiz lagunen isecac eta burlac? *An persecutio*? Prest ote cegoan zure viotza becaturic ez eguiteco, naiz lepoan ecusi ezpata? *An gladius*? Erantzun becee gure viotzac. *Respondeat cor vestrum* Ay! nere Cristauac! Beldur naiz nere buruaz, eta beldur naiz gueyen gueyenaz gai onetan. Atozea, Cristaua, nola asmo, ta sasoi onen prestua izan centzaquean confesatu ceranean: baldin prestatzeco arretaric izan ezpadezu? Nola izan centzaquean asmo, ta sasoi onen prestua, edoceiñ bide asco badezu birauac eguiteco? gurasoac naigabetzeco ? itz desonestoac esateco? lagun urcoaren contra nola nai itzeguiteco? Nola izan centzaquean asmo, ta sasoi onen prestua, baldiñ urliaren losencha bat, beguiratze bat, edo urliarequicoa galtzeco beldur bat asco izaten bada zuc zure Jaungoicoa utzitzeco? Nola izan centzaquean asmo oso, eta sasoi prestu au, baldiñ asco izan bada, lagunac becatura, perilletara dijoacela, ecustea: eguiñ dezagun contu danza ciquiñetara, echeren bateco gende zoroen ardalletara, zu ere an ondoren lasterca joateco? Ta au guchiago edo gueyago beti munduan guertatu bada, cer izango ezta egungo egunean? Cer? ezta egungo egunean gala eguiten jocoaz, berandu echeratzeaz? Ezta desprecio eguiten gurasoaz, errietaco buruaz, Avendn Santuaz? O! dembora doacabeac! dembora ondoren negarriac ecarrico dituzuenac, ezpaguera centzatzen!

Confesio gaiztoac eguiten ditugu atzenean, baldiñ ontzeco gure asmoac ezpadira *eraguilleac*, au dà ar-erazten ezpadizquigüe ontzeco bear diran vicimodua, eta neurri egoquiac. Au da, nere Cristauac, asmo eguiazcoaren marca, tà siñaleric ederrena. Eta siñale au bada asmo eguiazcoa ezagutzeco siñale, ta marca ¿cer esango degu gure ontzeco azmoaz? Non dira alabaña egungo egunean confesatuta Cristauari dagocan eran vicitzeco neurria artzen dituenac? Non dira becatuaren bide, eta perillac osotoro, ta betico utzitzen dituenac? esan becee gauetaco egoerac, iscambillac, eta jolasac. Esan becee iñuterico, eta beste demboretaco zalagardac. Esan becee nescacha-mutillen billerac. Eta utzitzen ezpadira becaturaco bide, eta perillac, ecusia dago ez dirala izan gure asmoac eraguilleac. Non dira confesatuta sayatzen diranac ongui bere griña nagusiac, genio, ta oitura gaistoac ecitzera, ta ucatzera? Itzeguin beza bacoitzaren vicitzac, ta esango digu igaz birauguillea zana, ala dala aurtenere. Igaz zabarra zan gurasoa are zabarragoa dala aurten. Igaz itzeguite, ta beste moduetan ciquiña, ta desonestoa zana, are ciquiñagoa dala aurten. Igaz escu lucea zuanac aurten are luceagoa duala. Igaz lagun urcoaren contra erraz itzeguin oi zuanac, aurten ascoz gueyago. Non dira confesatuta osotoro utzi dituenac lagun urcoari becaturaco bidea ematen dioen gauzac? Cer esango degu, lagun urcoaganaco gorrotoan vici diranaz? cer, lagun urcoari ondasunetan, onran, faman, eta icen onean eguindaco calteac zucentzeco muguitzen ez diranaz? Cer, dotrina, ongui confesatzeco modua, eta bere estadu, edo carguac dituan obligacioac icasten ez dituanaz? eta icasi ordean igues eguiten duanaz icasteco bidetic? Cer esango degu atzenean eguin-bide

arguiac, eta bidezco dudaric ez duenac adituta erausian dabillenaz gauza berriren batzuec nolanai esaten balira bezala? Oec guciac confesatuta-ere ez due asmo eraguilleric; ceren ez duen viotzic ontzeco bear diran vicimodu, ta neurriac artzeco. Ezta vorondate osoa, dio Santo Tomasec, derecha etorrita obraz aguertzen ezpada. *Non est perfecta voluntas, nisi sit talis, quæ oportunitate data operetur.*

Ecusten dezu, Cristaua, nola gure animen puzo biurtzen degun confesioco Sacramentua? Ecusten dezu ceiñ sarritan eguiten diran confesio gaistoac ontzeco asmo eguiazcoaren faltaz? Ta au gucia ezaguturic ez ote degu beste vicimoduric artu bear? Cer atera dezu, Cristaua, zure oraindañoco vicitza gaistoaz? Cer, ezpada illuntasunac, tristurac, eta arantza gogorrac? Cer, ezpada lotsa anima galgarri bat eragozten dizuna confesatzea? Cer, ezpada cere vicitza gaistoa osotoro utzitzera eciñ muguitu bat? Noiz centzatuco ote cera? Atocea, eztaquizu ceiñ ona, ceiñ beraa, ceiñ misericordio-soa dan zure Aita Cerucoa? Eztaquizu zure billa dabillela aspaldico demboran? Deitzen, eta bere barcacio esquintzen dizu. Zu argana biurtzen ceran puntuan, aztuco dala, dio, zure esquergabequeria guciaz. Biurtuco dizu galdu dezun graciaren soñeco ederra. Biurtuco dizu Ceruraco escu, ta derecha gucia. Berac, berac garbituco du zure anima; berac gau ta egun lagunduco dizu Ceruraco bidean; eta ezta beraren graciarequin eciñ dezagun gauzaric. Presta zaite bada, becataria cere Jaunagana joateco, eta eguitzu berarequin paqueac. Vici zaite Cristauari dagocan eran, onela iristeco betico vicitza doatsua. Amen.

AVENDUAREN LAUGARREN IGANDERACO.

(*)

CONFESIOCO SACRAMENTU SANTUAREN GAÑEAN.

1.ª

Factum est verbum Domini super Joannem Zachariæ filium in deserto. Et venit in omnem regionem Jordanis prædicans baptismum pœnitentiæ in remisionem peccatorum. Luc. cap. 3.

Gaurco Evangelioac aditzera ematen digu, noiz, eta nola asi zan S. Juan Bautista Salvatzalle Jesus maitagarriari bideac, edo guizonen viotzac prestatzen. Amabost garren urtea cijoan Tiberio Erromaco Emperadore arquitzen zala. Juduen Erreñua Erromatarren mendera zanean lau pusca eguiñ zan, Judean presidente cegoan Poncio Pilatos. Galileaco Provincian Principe, edo Erregue chiqui bat zan Herodes. Iturea esaten cioen beste bazter batean cegoan Pilipe Herodesen anaya Tetrarca, edo Principearen icenarequin; eta Abilina ceritzan beste bazter, edo Provincia batean cegoa Lisanias. Atzenean Anas, eta Caifas ciran Juduen Aita Santuac urteca. Dembora onetan irten zan S. Juan Bautista eremutic, eta asi zan Jordango inguru gucietan deadarrez, egui-

(*) No se ha encontrado plática alguna para la Dominica 3.ª de Adviento.

Universidad de Deusto
Biblioteca

teco penitencia, utzitzeco becatuaren bideac, eta prestatzeco viotzac Salvatzallearen etorreraraco. Aspaldi da gu-ere asi guiñala lan onetan fiñ berarequin. Ecusi dezue, nere Cristauac, nola becatariac bere animaren puzoi biurtzen duan confesioco Sacramentua bere aldetic eguiñ bear luqueana eguiñ gabez, batzuetan esaminaren faltaz, besteetan ongui damutu gabez; beste ascotan ontzeco asmo eguiazcoa artu gabez. Au bera guertatzen da ez guchitan becatuac ongui aitortu gabez; eta arguiro ezagutu dezazuen eguia au, itz eguiñ nai dizuet gaur confesioaren gañean. Aditzera emango dizuet lenengo lecuan Jesu-Cristoc, eta Eliz Ama Santac confesatzeco ipintzen digüen Aguintea. Aditzera emango dizuet bigarren lecuan, cer, eta nolacoa dan aguintzen zacun confesio au. Aditzera emango dizuet irugarren lecuan, cer lazo, ta coloreaquin engañatzen dituan etsayac asco becatari. Goacen oraiñ Espiritu Santuaren arguiaren billa, bitarteco ipintzen degula Virgiña guciz Santa Aingueruarequin batean esanaz. *Ave Maria.*

Factum est verbum Domini super Joanem Zachariæ filium in deserto. Et venit in omnem regionem Jordanis prædicans baptismum pœnitentiæ in remissionem peccatorum. Luc. c. 3.

§ I.

Legue zarraren demboran, edo Moisesen leguean etzan confesioco Sacramenturic. Alaere legue zarrecoac, beren becatuen barcacioa iristeco, aitortu bear cituen oec, Morino jaquintsuac dionez (a). Cer, eta nolacoa zan Juduen confesio au? Ez dira Autoreac iritzi batecoac. Guc daquiguna da, confesio

au etzala Sacramentua, eta eciñ legue zarrean irichi cezaqueala becatariac eguiñ cituan utseguiteen barcacioa onezco damuarequin, edo contricioarequin baicic. Etorri zan guero munduaren Salvatzallea, ta guganaco onguinai, ta amorioac muguitzen zuala utzi cizquigun zazpi iturri edo Sacramentu guciz ugariac, ta beñere agortzen ez diranac, eta oetatic bata da confesioco Sacramentua. Iturri bat animaren loi guciac garbitzen dituana, becataria ongui prestatzen bada. Iturri bat illic dauden animac itz birequin piztutzen dituana. Ar ezazue, esan cien Jesu-Cristoc Apostolu Santuai; ar ezazue Espiritu Santua: zuec barcatzen dieztezuenen becatuac barcatuac izango dira. *Quorum remisseritis peccata remittuntur eis.* Eta zuec barcatzen ez dieztezuenenac barcatu gabe gueratuco dira. *Et quorum retinueritis retenta sunt* (b). Au da eguia bat Catolico gucioc sinisten deguna, eta eguia au ucatzen duana, edo onen contra darausena escomicatzen du Trentoco Concilioac. *Si quis dixerit, in Catholica Eccla. Penitentiam non esse veré, ac proprié Sacramentum.... á Chto Domino nostro institutum, anathema sit* (c). Jesu-Cristoc Apostolu Santuai esan ciezten itzetan utzi cion becatariari bere utseguiteac aitortzeco, edo confesatzeco aguintea. Ala sinistu du Eliza guciac bere asieratic gaurdaño. Ala eracusten du Trentoco Concilioac, eta ala sinisten degu gucioc (d). Jesu-Cristoren Aguinte, edo mandamentu onec becatu larrian erori dan Cristaua beartzen du confesatzera eriotzaco perillean dagoanean: beartzen du Jauna artu bear duanean: beartzen du confesioaren laguntza, eta gracia gabe eciñ iraun duanean becatuan erori gabe, edo eciñ bestela garaitu duanean griña charren bat. Atzenean beartzen du becatuan erori dan Cristaua confesatzera ascó ascó luzatu ga-

Universidad de Deusto
Biblioteca

be. Ona non dezun, Cristaua (e), Jesu-Cristoc confesatzeco utzi cigun Aguintea, eta ona noiz onec beartzen gaituan confesatzera.

Elizaren lenengo urteetan etzan Eliza beraren Mandamentuaren bearric izan Cristauac sarritan artzeco confesioco Sacramentua, orduan alabaña Mezatara cetocen gueyenac comulgatzen ciran, eta beragatic sarritan confesioco iturrian garbituco cituen beren animac (f). Onela vicitu ciran Cristauac aurreneco urte urrezco aetan; baña asi zan oztutzen jayera andi au, ta aguindu bear izan zuan Elizac, Cristau guciac iru Pazcoetan bederic confesatu, ta comulgatu citecela, au da Egüerrietan, Pazcoa loratuan, eta Espiritu Santuaren etorreran (g). Baña Eliz Ama Santaren aguinte au etzan asco izan, arerazteco Cristauai galdu zuen bide ona; eta San Juan Letranen eguin zuan Concilio batean aguindu zuan orain bost eun, eta laroguei urte danean, urtean bein guchiena confesatu, eta comulgatu ditecela ezagüeran sartu diran Cristau guciac. Aguindu zuan gañera, Mandamentu au gordetzen ez duanari debecatu daquiola Elizan sartzea, ta ez daquiola eman iltzen danean Eliz-lurric. Bacecusan Eliz Ama Santac, bere umeen artean arqui citequeala nor, edo nor sasoi onean egongo etzana bear dan demboran artzeco confesioco Sacramentua, ta comunio Santua; eta trance onetaraco eman cien animen Arzaiai escua becatariari luzatzeco dembora confesatzeco, eta Jauna artzeco. *Nisi forté de proprii Sacerdotis consilio ob aliquam rationabilem causam ad tempus ab ejus perceptione duxerit abstinendum* (h). Ecusten dezu, Cristaua, ceiñ beratasun, eta contu andia duan Eliz Ama Santac becatari errenacquin-ere? Baña guciac sayatu ote ciran, ta sayatzen ote dira Eliz Ama Santaren Mandamentu au gordetzera? Ez, ne-

re Cristauac; batzuec nola nai confesatu, eta comulgatu izan dira, eta Elizac aditzera eman bear izan du eztala confesatzeco, ta comulgatzeco Mandamentua gordetzen confesio, ta comunio gaistoarequin; besteac iguesca ibilli izan dira Elizaren Mandamentuac estutzera eguin duanean. Argatic Obispadu onetan aguindua dago, lembicia: gaitzarequin onaren ezagüeran sartu diran guciac confesatu ditecela al duen damuric andienarequin urtean beiñ guchiena garizumaco demboran. Bigarrena: erramu egunetic asita amabost egunen barrumbean comulgatu ditecela comulgatzera beartuac daudenac escomicu nagusiaren, eta lau errealen penan. Irugarrena: erramutic asita urrengo amabost egunen barrunen eguin ezpadue naguiren batzuec Elzaren aguindua, Erretoreac, edo animen Zaiac Elizan aditzera eman, edo aguertu ditzala oec, eta ez deguiela utzi egoten ez Mezatan, ez vezperetan. Laugarrena: baldiñ beste amabost egunen barrumbean ezpadira oec confesatzen, eta comulgatzen, desobediencia onegatic erortzen dirala escomicu nagusian. Bostgarrena, urte oro *Corpus* bitartean bidal ditzeela Erretoreac Provisore Jaunagana onelaco errenen izenac. Dembora luceetan aztua bezala egonda legue oec aguintzen duena, ceren Cristauac contuz gordetzen zuen Elizaren Mandamentua; baña ugaritu dira onelaco errenac, eta Elizaren Mandamentuac ecertan artzen ez dituenac, eta igaz aguindu zan, legueac cion eran bidalditecela Elizarequin cumplitzen ez duenen icenac. Ecusten dezu, Cristaua, Eliz Ama Santac confesatzeco ipiñi digun Mandamentua? Ecusi-ezazu oraiñ cer, eta nolacoa dan aguintzen zacun confesio au.

§ II.

Eguiten dezu, Cristaua, zure becatuen examiña,

Universidad de Deusto
Biblioteca

aurretic eracutsi zatzun eran. Artzen dezu eguiñ dituzun utseguiteen damu eguiazcoa eta ontzeco asmo osoa, leneco dotrinetan aditu centzaquean bezala. Bazatoz confesatzera cere Jaungoicoarequin paqueac eguiteco nai andi batequin. Ez dezu ibilli bear besteri bere sancha quendu naiez. Ez dezu etorri bear arrotasuna, ta antustea aguertzen dezula jauntzian, eta cere moduetan. Ez dezu belaunicoca, ta arrastaca joan bear confesatzera, cembait mutil cascar joan oi diran bezala. Ez dezu confesorearen aora beguira jarri bear confesatzeco, baicic escuyeco, edo ezquerreco belarrironz; belarriacquin alabaña, ez aoarequin aditu bearco du zuc esango diozuna (h). Jartzen cera bada modestia ederrarequin belaunico, ciñatzen cera, eta esaten dezu: *Ni becataria confesatzen naitzayo Jainco Gucialdunari, eta zuri nere Aita*, ta asitzen dezu zure confesioa. *Ni becataria*, diot, ceren viotzeco damua sortzeco aleguiñac lenago eguiñ bear dituzu, confesatzen asitzeco puntu edo unearen zai egon gabe, aurreco dotrinetan esan dan bezala. Era onetan aitortzen diozcatzu confesoreari, guertatu zaizquitzun utseguiteac, cere conciencian arquitu dituzun eran, pensamentuac alde batera, itzac bestera, eta obrac beste batera. Au da nere Cristauac confesioa. Ta nolacoa ote da Sacramentu onec escatzen duan confesioa ? Autoreac modu, edo condicio asco dacazte, batzuec confesioa obeto eguiteco diranac, besteac osotoro bearrac, eta premiazcoac. Oetatic batzuec aditzera emango ditut oraiñ beguien aurrean ipintzen ditzuedala nola gure becatuen confesioa eguiñ bear degun.

Confesatu bear dezu lenengo lecuan humiltasunarequin; au da cere itzetan, eta modu gucietan aditzera ematen dezula, ezagutzen dezula Jaungoicoagana co cere esquergabequeria, eta damuturic arquit-

zen cerala. Umiltasun au aguertu zuan Evangelioco seme ondatzalleac bere Aitagana biurtu zanean: *Aita* esan cion, *eguiñ det becatu zure contra, ta Cerua-ren aurrean: eta ezdagoquit gueroz zure semearen icena. Pater, peccavi in Cælum, et coram te; jam non sum dignus vocari filius tuus.* (i). Confesatu bear dezu bigarrena isillic. Au izan da Cristauen oitura, ta usadioa Elizaren aurreneco demboretatic, dio Trentoco Concilioac (j). Eguia da Elizaren lenengo demboretan confesio isilla ezecic usatu izan zala confesio aguiria ere eguitea Obispo Jaunen, Elizaco Ministroen, eta Elizan arquitzen ciran gucien aurrean, edo ceren Obispo Jaunac ala aguindu cion becatariren bati, edo ceren becatariac berac ala nai zuan; baña onelaco becatari batec Constantinoplaco Elizan, Nectario ango Obispo zan demboran, bere becatuac aitortzeaz gañera aditzera eman zuan becaturen batean lagun izan zuana ere: eta emendic artu zan bidea confesio aguiricoaren usadioa quentzeco; ta zori onecoac gu isillic bederic confesio onac eguiten baguendu. Confesatu bear degu irugarrena lotsa, ta modestia eder batequin. Bada lotsa bat gaistoa, eta berequiñ becatua dacarrena, esaten digu Espiritu Santuac: *Est confusio adducens peccatum.* Onelacoa da becatariari bere utseguiteac uca-erazten diozcan lotsa. Ta bada beste lotsa bat chit ederra Jaunaren beguietan: *Et est confusio adducens gloriam, et gratiam* (l). Au da araco lotsa ura, ceñarequiñ becataria lotsatzen dan bere Aita Cerucoaren contra izan dan beceñ esquergabea izanaz. Confesatu bear degu laugarrena arguiro, eta ipui edo conturic nastu gabe. Ezta confesioa contuac contatzeco; bacic bacaitzac bere utseguiteac garbiro esateco. Bereac, diot, ez besterenac. Eta contu, ez dezu esan bear nor lagun izan dezun becatuan. Confesatu bear de-

Universidad de Deusto
Biblioteca

zu bostgarrena edercatura gabe. Eguiñ dezagun contu: *Bota diozu lagun urcoari* birau, *edo madaricacio bat:* esan ezazu bada: *Bota det birau bat era onetan edo artan nere pacienciaren faltaz, eta ez dezazula esan bota dezula ceren emazteac, umeac, edo auzoac aserrerazo dizuen.* Confesatu bear dezu seigarrena eguiaz, edo guezurric esaten ez dezula, eta guezurra esaten badezu, gai larrian beintzat, eguiten dezu sacrilegioa. Atzenean confesatu bear dituzu ceregan arquitzen dituzun utseguite larriac osotoro, naiz galde ditzala confesoreac, naiz ez. Osotoro aitortzeco, edo confesatzeco zure utseguiteac aitortu bear dezu, cer virtute, edo mandamenturen contra utseguiñ dezun: nola utseguiñ dezun au da, edo pensamentuz, edo itzez, edo obraz. Cembat bider utseguiñ dezun. Iñori becaturaco bideric eman badiozu, cembat laguni, eta cembat bider? Eta oen artean ote zan umeric edo miraberic, eta cembat? Garbitasunaren contraco becatuetan erori danac, aitortu bear du urlia aidea, ezcondua, edo beste estadutacoa zan, edo ez. Baldiñ utseguiteac oiturazcoac eta berrizcaturarequin badira, orduan aitortu bear degu oraiñ gueranac len-ere izan guerala (batecere confesoreac galdetzen badigu). Becatuaren bide, edo perill urcoan dagoanac aitortu bear du au; ceren borondatez perillean egotea, edo jartzea bera becatu dan, eta gañera ceren perill au aguertzen ez dala, eciñ confesoreac ezagutu dezaquean cer eguin bear duan. Ecusten dezu cer, eta nolacoa dan Penitenciaco Sacramentuac escatzen duan confesioa? Badacus etsayac, ceiñ andiac diran confesio onetic datocen frutuac, eta oec eragozteco, ta becatariac engañatzeco prestatzen ditu bere lazoac, eta era onetan eraguiten diezte asco confesio gaisto. Lazo oetatic batzuec beguien aurrean

ipiñi nai dizquitzut oraiñ Cristaua; oetan erori bacera, irten zaitecen lembait len, eta erori ezpacera, vici zaitecen contuz, eta perilletic aldeguiten dezula.

§ III.

Gure Jaungoicoac eman cigun lotsa dio S. Juan Crisostomoc, becatu eguiteco, ta eman cigun barcacioaren ustea eguiñ ditugun utseguiteac aitortzeco. *Pudorem, et verecundiam Deus dedit peccato, confessioni fiduciam.* Cer eguiten du etsai anima galgarriac? Aldatzen ditu bi gauza oec; becatu eraguiteco ematen du barcacioaren ustea, eta becatua aitortzeco lotsa. *Invertit rem Diabolus: et peccato fiduciam præbet, et confesioni pudorem.* Etsayaren lenengo lazoa izan oi da au: *Becatua* diozu ceregan, Cristaua, becatua eguiñ dedilla pensamentuz, edo itzez, edo obraz, beti da becatu, eta asco izango da esatea becatu eguiñ dedala pensamentuz onembeste bider. Certaraco esan nere buruarequin, edo besterequin eguiñ *ditudan gauza itsusi oee?* Onela engañatzen dira cembait becatari, ta bear bada era onetan dijoaz beste mundura. Becataria, zuc zure utseguiteen barcacioa iristeco, aitortu bear dituzu cere viotzean arquitzen dituzun eran; pensamentuac pensamentuac bezala, itzac itzac bezala, ta obrac era berean. Bigarren lazoa: *nic eguiñ nuan gauza itsusi ura, baña ez nuan nai becatu eguitea, ta ez det cer confesaturic.* Atozea, etziñan cere nayez perillean jarri edo egon? Etzenduan becatu dan gauza eguiñ, aldeguin centzaqueala, edo beintzat aldeguiteco neurriac artu cintzaqueala? Certaraco dira bada aitzaquia oriec? Irugarren lazoa: *Gauza itsusi oec eguiñ nituanean chiquichoa nintzan ¿ cer niaquian nic or-*

Universidad de Deusto
Biblioteca

duan, cer zan becatua? Atozea, ta etzenduan ceregan ezagutzen gauza gaistoa, edo itsusia zala oriec eguitea? Etzenduan gurasoen beguietatic aldeguiten? Utzi guiezu, Cristaua, aitzaquia oriei, ta esan guiozcatzu confesoreari guertatu zaizquitzun gauzac guertatu diran bezala: eta ez esan, cerbait gogortzera eguiña ciñan demboran guertatu citzaizquitzun gaistaqueriac, ezagüeraric batere etzenduan demboracoac dirala. Laugarren lazoa: *Nic ez nuquean nai becatu ura eguitea; eta esan nion berac confesatu bearco zuala.* Atozea, Cristaua, ta eztaquizu confesioa bacoitzac berac, ez bestez eguiñ bear duala? Zuc aitortu bear dezu eguiñ dezun utseguitea bere sayets, edo circunstanciaquin; eta besteac aitortu bear ditu bereac. Ezta urte asco asco, inguru oetan guertatu omen zala oraiñ esatera noana. Nescacha batec eguiñ cituan lotsatzen zuen ciquinqueriaren batzuec. Gaisôtu zan iltzeco gaitzarequin. Confesatu zan, baña gaizqui. Artu zuan Jauna, baita Oleacioa-ere. Aurrera cijoan gaitza, eta alaere etzuan viotzic bere utseguiteac aitortzeco. Jartzen da iltzeco icerdiaquin, eta ezaguturic iltzera cijoala, esan cion nescacha-lagun bati: *Urlia, iltzera noa; guertatu citzaiztan onaco utseguite oec, eta ez ditut confesatu lotsaz; zuc nere ordez confesatu ilzatzu.* Era onetan iltzan. Ona nola engañatzen dituan etsayac asco anima! Bostgarren lazoa: *Becatu au esaten badiot confesoreari, eramango naue Inquisiciora.* Cergatic? Atozea, eztaquizu eciñ confesoreac aguertu dezaqueala ecergatic-ere esaten zayon gauzaric? Eztaquizu, confesorea aiñ zacar-anima gabea balizere, eciñ onec esandaco gauzaz baliatuco litzaqueala ez inquisicioa, ez besteric? Seigarren lazoa: *Jesus, norc esango ditu becatu onen itsusiac?* Ez nic beintzat. Atozea, choraisca: ucatu dezu Jesu-Cristo? eta eztaquizu ucatu zuala S. Pedroc-ere? eta ala ere da Santu aiñ andia! Eguiñ dezu eriotzaren bat? Eta eztaquizu Davidec-ere illerazo zuala Urias, eta gañera ciquindu ciola bere emaztea? eta David ala ere da Santu andi bat! Eguiñ dituzu Elizaren, eta Elizacoen contra gauza gaistoac? Eta eztaquizu eguiñ cituala S. Pauloc-ere era onetaco gauzac? Ta ala ere, S. Paulo da Jesu-Cristoren Apostolua, ta Santu andia; ta berac aitortzen du bere becatua. Izan cera emacume desleyala cere vici lagunarentzat? Eta eztaquizu, nola Jesu-Cristoc barcatu cion emacume zure antzeco bati? Izan cera mutill arro loiquerietan ondaturic vicitu cerana, eta nori nai becaturaco bidea eman diozuna? Eta eztaquizu S. Agustiñ-ere dembora batean vicitu zala atseguiñ loyen ondoren itsutua? baña biurtu zan Jaunagana, eta da gucioc daquigun bezalaco Santua. Izan cera nescach erguela, cere ibillera, cere itz eguite, eta jauntziarequiñ becaturaco bisca, ta lazoac ipiñi dituzuna? Eta eztaquizu dembora batean Magdalena batec au gucia eguiñ zuala? ta alaere da Santa chit andia. Cergatic bada zuc choraqueria oriequiñ gueratu nai dezu etsayaren mendean, Santu edo Santa bat izan zaitezqueala?

Zazpigarren lazoa: *Eztago neretzat Ceruric; eztago barcacioric, eta misericordiaric.* Atozea, cer darausquizu tristea? Eztaquizu, Jaunac berac diola, ez duala nai becataria galtzea, baicic beragana biurtzea, ta beraren gracian vicitzea? Eztaquizu, berac diola, becataria argana biurtzen dan puntuan aztuco dala aren gaistaqueriaz? Eztaquizu, zuri zure becatuac barcatzeco guizon eguiñ zala, gurutzean vicitza eman zuala, eta deitzen dizula Arzai onaren eran? Eztaquizu zure zauri guciac sendatzeco (diranac dirala) utzi zuala confesioco iturria? Eztaquizu,

Universidad de Deusto
Biblioteca

cembat epe, edo dembora eman dizquitzun? cembat bider uquitu dizun zure viotza aspaldico demboran? Ta, au gucia daquizula, zoraqueria oriequiñ zabiltza? Billa ezazu zure Aita ona humilqui, billa ezazu garai onean; arquituco dezu, eta jarrico cera Ceruraco bidean. Zortzigarren lazoa: *Icaratuco da confesorea, esaten badiozcat nere becatu itsusiac; eta ez dit absolucioric emango.* Icaratu confesorea? Eztu Escritura Santa iracurtzea besteric, ecusteco zuc dituzun becatu oriec, eta are itsusiagoac anciñatic munduan guertatu izan dirala. An ecusico du, Adanen umeai darraiztela becatua guchiago, edo gueyago, lurrari belar gaistoac darrayon eran. Jaquiñ ezazu, Cristaua, ez duala confesorea izutzen becatu asco, ta andiac aditzeac, baicic becatariac ontzeco viotzic ez duala, ecusteac. Presta zaite bada zu ondo, utzi itzatzu becatuaren bideac, eta ar itzatzu ongui vicitzeco neurriac, eta orduan confesoreagan arquituco dezu, zuc nai dezun atseguin-contentua; ta iñoz esaten badizu, obeto presta zaitecela, ori da zure onagatic, eta Sacramentuac gaizqui artu ez ditzatzun. Bederatzigarren lazoa: *Jesus, eta cer bere gogoan iduquico du nere confesoreac, esaten badiozcat becatu oec? Oraindaño iritzi onean iduqui nau, ta aditzen duanean guertatu zatana cer esango du?* Cer esango du diozu confesoreac? Baldiñ zu ongui prestaturic, eta vicitza onaren neurriac artzeco egarriarequin ecusten bazaitu, alde batetic urriquimentu andi bat artuco du bere viotzean, eta bestetic len baño-ere iritzi obean iduquico zaitu. Soldadescan dabillen batec artzen badu erida andi bat, eta lembait len badijoa sendatzalleagana, esaten diola: *Ea ona ni herida oequin, eguin bedi laster sendatzeco bear dana equin deguiodan guero berriro etsayari.* Atozea, cer esango cenduque soldadu

onez? Cer, ezpada viotz andico soldadu bat dala? Au bera esango du zuzaz confesoreac, baldiñ cere herida oriequiñ bazoaz ongui prestatua, eta etsayaren contra ongui peleatzeco asmoarequiñ. Amargarren lazoa: *Badator garaizuma, edo etorrico da Misioren bat, eta orduan gucia esango det baña artean ez?* Atozea, Cristaua, ¿tan nondic daquizu lecuric izango dezun edo ez? Nondic daquizu, lecua izanda-ere, garaituco dezula zure lotsa, ta atzerapen ori? Ah! Beldur naiz, guerta daquizun Isayas Profetac dion gauza bat: *Etorri ciran*, dio, Profeta onec; etorri ciran jayotzeco zori zoriraño, eta etzuan amac izan erditzeco indarric (m). *Venerunt filii usque ad partum, et virtus non est pariendi.* Zure lotsa ori becataria egunetic egunera aziaz joango da, eta beti gueroco utzico dezu zure utseguiteen aitortzea. Franciaco erri batean aurdun cegoan Colamba ceritzan emacume bat. Asi citzaizcan erdiratzeco miñac, baña eciñ erdi zan. Iru urtean iraun zuen miñ oec, eta etzan beñere erdi. Oguei ta bost urtean vicitu zan bere aurra sabelean zuala: il zan, eta ascatuta, arquitu cioen narrua arri biurtua. Ah! aditzen zauden Cristaua: ez aditu, edo enzun gor eguiten diozu oraiñ Jaunaren gaztiguai; guero eguingo dezula, diozu, becatu gucien gobada; baña beguira beste ascori guertatu zatena, guertatu eztaquizun, beguira zure becatu oriec arriaren eran gogortuac guera ez ditecen. Atzeneco etsayaren lazoa: *Oraindic badet dembora Jaincoari esquerrac, ilzeracoan eguingo det vicitza gucico confesio bat.* ¿Iltzeracoan, Cristaua, iltzeracoan? Eguin dezagun contu, ematen dizula Jaunac dembora. Jaquiñ ezazu, eztala ordu ura egoquia lan oetaraco; jaquiñ ezazu, gaitzac, il bearrac, eta betico infernua beguien aurrean ecusteac, uzten duela becatariaren viotza, ecertaraco ez

Universidad de Deusto
Biblioteca

dala, ta gauz onetaraco quemenic gabe. Enzun ezazu Españaco erri batean nescacha gazte bati guertatua. Nescacha au zan ederra, ta doai onez apaindua, baña il citzaizcan gurasoac, eta gueratu zan ume zurtza. Artu zuan gazte batec onenganaco jayera, ta etzan gueratu gaitzera cuturtu zuan artean. Confesatzen zan sarritan, baña etzuan viotzic bere utseguitea esateco: lotsac alabaña garaitzen zuan. Onela vici zan anima doacabe au, munduaren beguietan ongui baña Jaincoarequico chit gaizqui. Erri artara joan zan Misionari jaquintsu bat, eta deitu cion oni gaiso eguiten zuala bere burua. Joan citzayon batere luzatu gabe, ta utziric laguna confesioco gauzaric eciñ aditu cezaquean lecuan, asi zan becatariari ongui cegozcan gauzac esaten: aditu cion aitortu zuan gucia, eman cion absolucioa, eta biurtu zan bere lecura. Berequiñ zuan lagunac aditzera eman cion, eria confesatzen cegoan bitartean ecusi zuala gauza izugarri bat. *Ecusi det, cion,* oyaren bazter batetic aguertzen zala noicean beiñ atzapar itsusi-icaragarri bat; *artzen zuan nescacha cintzurretic, eta itotzear ipiñtzen zuala cirudian* Au ecusi det beiñ ta berriz. Adituric au laster eguiñ zuan Misionistac bere becatariagana; baña, beguira ceiñ icaragarriac diran Jaunaren juicioac! osasunarequiñ arquitzen zan nescacha au ill otza gueratu zan confesorea bigarren aldian aren echean sartzean. Ezta gogora ecarri besteric, nolaco illuntasun, eta tristurarequiñ gueratuco zan confesorea. Asitzen da Jaunari erregutzen, eta onetan dagoala, aditzen ditu cateen otsac, ay! eta adia icaragarria batzuec. Beguiratzen du, ta aguertzen zayo norbait gucia suz, eta garrez inguratua. *Nor, edo ceiñ cera zu?* galdetu cion. Ni naiz, ni zurequiñ confesatu naizan becataria, erantzun cion. Atozea, eta etziñan ongui confesatu? Ez osotoro, ta guertatu zatana zuri aditzera ematera nator. Jaquiñ bear dezu, nere ama il zanean gueratu nintzala bacarra, ta nola ichura onecoa nintzan, asi zan gazte bat niganaco adisquidetasuna artzen. Demboren buruan bere erregu, ta palacuacquiñ eraguiñ cidan becatu. Iru urtean vicitu nintzan, sarritan confesatzen nintzala, baña beti lotsaz gordetzen nuala becatu au. Bidaldu cinduan Jaunac zu erri onetara Misioa eguitera; aditu nituan zure sermoyac, eta bacoitzac arpoi baten eran igarotzen cidan viotza, eta neritzan neretzat bacarric itz eguiten cenduala. Biurtzen nintzan echera, ta negarrez eciñ aspertu nintzan. Urlia, esaten nion nere buruari. Guerta diteque zuc betico galdu nai izatea cere burua? Etzenduan lotsaric izan becatu eguiteco; eta oraiñ lotsaz zaude becatua aitortzeco? Deitu cindudan, gaiso nere burua eguiten nuala: ta ay! asi nintzan becatu chiquietatic andienac azqueneraco utzitzen nituala; guero etsayac buruan ipiñi cidan, asco galduco nuala nere faman aitortzen banuan nere becatua; orduan osasuna nuala, ta gaisotzean eguingo nuala confesio on bat. Ozta irten ciñan zu nere echetic, gueratu nintzan itz gabe, ta dembora guchiren barrenen illa. Arritu zan confesorea, ta onec galdetu cion anima doacabe ari: *Atozea, ta cer da oraiñ zuri pena, ta naigaberic andiena ematen dizun gauza? Ecusteac* , erantzun cion; ecusteac, Jaunac bidaldu cinduala zu lecu urrutietatic onera ni becatutic ateratzeco, eta galdu dedala era aiñ ederra. Au esanda, adia, eta cateen ots izugarriac eguiten cituala, ezcutatu zan anima doacabea beti-betico su, eta garren artera. Ecusten dezu, Cristau beldurtia? Ecusten dezu, cer dacarren lotsa anima galgarri bati lecu emateac?

Universidad de Deusto
Biblioteca

§ IV.

Aditu dezu, Cristaua, nola Jesu-Cristoc utzi cion Eliz Ama Santari Confesioco Sacramentua gure animac garbitzeco, sendatzeco, ta Ceruco bidean ipintzeco. Aditu dezu Jesu-Cristoc, eta Jesu-Cristoren Elizac bere umeai aguintzen diena. Aditu dezu cer, eta nolacoa dan aguintzen zacun confesio au. Aditu dezu atzenean, cer lazo, eta coloreacquin engañatzen dituan etsayac asco becatari? Atocea oraiñ; cembat, eta cembat confesio gaisto ez ditu eraguiten etsayac era onetan? Atocea zu, nescacha gaztea: cembat dembora da lotsaz vici cerala araco becatu ura garbiro esateco? Atocea zu mutil gaizqui oitua, cembat urte da lotsaz gordetzen dezula araco eguiñ cenduan lizunqueria itsusi ura? Eta ez ote dira zarren artean eciñ muguitu diranac beren becatuac osotoro aitortzera? Utzi itzatzu, Cristaua, choraqueria oriec; presta zaite ongui, ta naiz heregia bacendu-ere, zoaz nai dezun confesoreagana, eta aurrenetic esan guiozu quezcaric gueyena ematen dizun becatu ori. Zure anima gaisoagatic ez dezazula lotsaz utzi esan gabe eguia. *Pro anima tua ne confundaris dicere verum.* Zuc ecusico dezu, nolaco atseguin-contentua artuco dezun, cere burua becatuaren cargatic libre ateratzen dezunean. Zuc ecusico dezu, ceiñ gauza gozoa dan zure Aita Cerucoarequin paquean egotea. Ta paquea au gordetzeco vicimoduan irauten badezu, berac emango dizu zuretzat prestaturic daucan betico vicitza doatsua. Amen.

(a) Videsis Benedictum XIV de festis: Lib.° 1, cap. 2 mum.° 25. (b) Joan. 20. (c) Tridentin. Ses. 24 can. 1 de Sacram. Pœnitentiæ. (d) Eadem ses. cap. 5 (e) Præceptum Divinum de confessione apud omnes obligavit ad non differendam notabiliter confessionem; sed.

AVENDUAREN LAUGARREN IGANDERACO.

2.ª

AZQUEN JUICIOCO EGUNAREN GAÑEAN.

Et videbit omnis caro salutare Dei. Luc. c. 3.

Gure Salvatzalle Jesus maitagarria jayo zan Belenen, eta jayotz au aditzera eman ciezan Ceruco Ainguеruac, Belenen inguruan artaldeaquin cebiltzan, arzayai. Aditzera eman cien izar eder batec iru erregueai, eta gañera Espiritu Santuac aditzera eman cion Jerusalengo Elizan Simeoni. Alaere Jesus vicitu zan Nazaretco errian oguei, ta bederatzi urteetaraño, Salvatzalletzat iñorc ezagutzen etzuala. Berri au munduari adirazteco, autua ceducan Jaunac San Juan Bautista. Jayo zan S. Juan, Jesus baño lenchea-go, eta vicitu zan oguei, ta amar urteetaraño eremu izugarri batean bacarric: aren soñecoa zan gameluaren illezco zamarra bat: janaria basoco langostoac, eta aitzetan arquitzen zuan eztia: edaria ur utsa. Aguindu cion Jaunac, irten cedilla Salvatzallearen etorrera adiraztera: eta onetaraco prestaeraci citzala guizonen viotzac becatuen damuarequin. Joan zan bereala Jordango ibayaren inguruetaco errietara: asi zan penitencia, edo becatuen damuaren gañean itzeguiten, eta damu au aguertzen zuen becatariac batayatzen cituan ibayan. Galdetu oi da, batayo au Sacramentu zan, edo ez gure batayoaren eran,

Universidad de Deusto
Biblioteca

eta eranzuten da ezetz; etzuan alabaña becatuac barcatzeco indarric, eta besteric esatea debecatzen du Trentoco Concilioac. Alaere laguntzen zuan, oitu citecen becatariac, Jesu-Cristoc guero ipiñi zuan batayora.

Isayasec, Profetac bezala, lenagotic ecusi zuan nola S. Juanec deadar eguiten zuan eremuan: Presta ezazue Salvatzallearen bidea: *Parate viam Domini*: zucendu itzatzue aren bideac: *Rectas facite semitas ejus*: orduan goratuac izango dira viotz umillac: *Omnis vallis implebitur*: eta mendien eran goitituac dauden arro, eta antustez beteac umilduco dira: *Omnis vallis implebitur*; *et omnis mons*, *et collis humiliabitur:* len oquerrac ciran viotzac zucendu, eta len lacatzac ciran bideac leundu, eta celaituco dira: *Erunt prava in directa, et aspera in vias planas.* Cer gueyago? Orduan guizon guciac beren beguiz ecusico due, Jaunac bidaldu dien, Salvatzallea: *Et videbit omnis caro Salutare Dei.*

Eguiñ zuan S. Joanec ederqui Isayasec lenago aditzera eman zuana: aguertu zan Salvatzallea norc nai ecusteco eran, eta ascoc ecusi zuen; baña orduan vici ciranen artean gueyenac etzuen ecusi, eta are guchiago ecusi cezaqueen etorquizun ceudenac. Salvatzallea, guciac ecustea guertatuco da azquencontuen egunean: egun artan arguiro ecusico due Aingueru, eta guizon guciac, ala onac, nola gaiztoac. Beragatic gaur itzeguiñ nai dizuet azquen-contuetaco egunaren gañean, eta aditzera emango det, ceiñ izugarria izango dan becatariarentzat egun ura. Billa dezagun onetaraco Espiritu Santuaren laguntza, bitarteco ipiñiric Virgiña guciz Santa, Aingueruarequin batean esaten diogula. *Ave Maria.*

Et videbit omnis caro salutare Dei. Luc. c. 3.

§ I.

Erabaquia dago guizonarentzat beiñ iltzea, eta ondoren contuac ematea, dio S. Pauloc. Au guertatzen da lenengo lecuan eriotzaren unean bertan; baña nola orduan gorputza gueratzen dan obian dagocan saria artu gabe, munduaren bucaeran bilduco dira Adanen ume guciac contuac ematera. Au da eguia bat catolico gucioc sinisten deguna, eta Credoan bertan Eliz Ama Santac eracusten diguna. Egun onen aurretic ecusico dira asco siñale, eta azquenean aguertuco da suzco ibai bat, mundu au auts biurtuco duana. Auts biurtuco dira guizonac, eta emacumeac. Auts biurtuco dira erriac, gaztelu, eta echeac. Auts biurtuco dira artoac, gariac, ardiac, beyac, basoac. Auts biurtuco dira urre, cillar, perla, diamante, eta gañeraco gauzac. Ala dio S. Pedroc: *Terra autem, et quæ in ipsa sunt opera exurentur.* Au guertatzen danean, bereala izango da azquencontuen eguna. Egun oni deitzen dio Sofonias Profetac Jaunaren egun andia: *Dies Domini magnus*: aserre, neque, ta estutasunaren eguna: *Dies iræ dies illa, dies tribulationis, et angustiæ.* Norentzat ote? Becatariarentzat, ez Jaunaren beldur Santuan vici diranentzat. Au ongui ezagutu dezazun, becataria, enzun arreta andiarequin egun artan ecusi bear ditugun gaucetatic andienac bederic.

Bucatzen danean mundua, esan degun eran, jachico da Cerutic Aingueru bat, eta bear bada S. Miguel, ascoc uste duen bezala. Deituco die ill guciai, dijoacela contuac ematera. Ots au añ vici, indartsu, ta izugarria inzango da, non adituco dan munduaren lecu aldeetan. Adituco da Ceruan, eta doatsuen animac atseguin, eta pozez beteco dira, ceren mundu

Universidad de Deusto
Biblioteca

guciaren aurrean emango duan Jaunac aen aldeco sentencia: eta gañera ceren aimbeste demboran auts artean, eta arren bazcatzat egon diran beren gorputzac ecusi bear dituen doatsuen doai ederrez apainduac. Jachico dira Cerutic milloica anima doatsuac, edo Adan, eta Evagandic asi ta munduaren bucaeraraño izango diran anima on guciac: eta prest arquituco ditue, len izan cituen gorputzac berac. ¿Norc esan anima onen orduco atseguin-contentua? Zuc oraiñ, Cristaua, confesio on batequin garbitzen badezu zure anima, eta ucatzen badituzu zure griña charrac, eta jarraitzen badiozu vicitz onari ¿norc esan, zuc artuco dezun, poza, ecusten dezunean zure gorputza? O nere gorputza, esango diozu, bear bada: dembora batean necatu ninduzun, eta necatu ciñan cere gura charraquin, necatu ciñan zure begui, belarri, mingañ, eta escu-oñai ucatzean, escatzen cituen atseguiñ lotsagarriac: necatu ciñan lagun gaizto, eche, eta adisquidetasun anima galgaraietatic aldeguin cenduanean: necatu ciñan sarritan, eta prestaera onarequin confesatzen, lagunen erausi, ta isecac aditzen, eta vicitza onari jarraitzen; igaro zan neque oen negu gogorra, eta etorri da atseguincontentuen betico udaberria: *jam hiens transiit* (Cantic. 2). Sartuco da anima doatsua bere gorputzean, eta bereala piztuco da au. Piztuco da beñere ez illzeco: piztuco da tacharic batere gabe, eta S. Agustiñen iritzian piztuco da gaztetasunean izan, edo izango zuan sasoi ederrean. Guchi da au: gorputza une artan bertan gueratuco da doatsu, edo zori onecoaren doayez edertu, ta apaindua. Lenengo doaya: alaco aro, edo sasoyan gueratuco da, non ecerc calteric eciñ eguingo dion, ez eritasunac, ez eriotzac: *Mors ultra non erit..... neque dolor erit ultra.* Bigarren doaya: añ vici, ta ariña gueratuco da, non be-

guien ichi-idiqui batean joan litequean gogoracio, edo pensamentuaren eran nequeric gabe, nora nai. Irugarren doaya: gueratuco da añ garbi, ta mea, non espiritu utsa baliz bezala sartu ta irten litequean edo ceñ toquitatic, ecerc ere eragozten ez diola. Laugarren doaya: doatsuaren gorputzac argui eguingo du, S. Mateoc dionez (cap. 13), eguzquiaren eran: *Fulgebunt sicut sol*, Arguitasunaren doai au izango da apaindura bat beñere zartu, eta urratuco ez dana: eta era onetan apaindua dacusazunean cere burua, cer esango dezu, Cristaua? Au bera guertatuco da beste doatsuaquin, eta ecusico dituzu milloyac, eta milloyac eguzquiac bezala argui eguiten duela.

Baña Aingueruaren otsa Ceruan ececic infernuan ere adituco da. Arrituco dira Lucifer, eta bere Aingueru gaiztoac. Arrituco dira becatari galduen animac. Nayago izango luquee infernuaren zocoric illunenean ezcutaturic egotea, Jesu-Cristoren, eta mundu guciaren aurrean aguertzea baño; baña nai, ta nai ez irten bearco due Jaunari contuac ematera. Irtengo dira Lucifer, eta beste Aingueru gaiztoac. Irtengo dira limbotic, batayoric gabe ill ciran aurren animac, milloyac, eta milloyac: eta gueratuco dira gaisoac betico erbestetuac Cerutic. Odolezco malcoaquin negar eguitea escatzen duan gauza da au, beguiratzen badegu, aur aec gurasoen edo zabarqueriaz, edo gaiztaqueriaz Cerutic deserrituac betico gueratuco dirala. O! guraso gogor madaricatuac! zuen gañera erorico da Jaunaren aserrea. Irtengo dira an beco su, eta garren artetic Lutero, Calvino, eta oequin batean becatua eguiteco bide, eta moduac gazte jaquiñezai eracusten vicitu ciranac. Irtengo dira guizon, eta mutil palacuz, eta losenchaquiñ, edo ezcontzeco itzaren iduriarequin animac infernura amilderazo cituenac, elcarri dar-

Universidad de Deusto
Biblioteca

raizcala, eta elcarren contra madaricacioa dariela. Irtengo dira emacume, jancian onestidadea gorde nai izan etzuenac, erguelac, eta becaturaco bisca prestatzen zuenac. Irtengo dira errietaco cargudun, eta guraso zabarrac. Irtengo dira emengo izan, eta irabacietan viotza ipiñita, saltze, eta eroste itsusietan vicitu ciranac, eta erriari, edo lagun urcoari gaizqui eramana itzultzeco viotzic izan etzuenac. Joango da anima bacoitza bere gorputzagana ¿eta norc esan, ceñ iraiñ gaiztoarequin beguiratuco dion? Ecusico du alabaña, aren gura charrai atseguiñ emateagatic betico galdu duala bere burua. Sartuco da anima doacabea bere gorputzean, berun, edo menast urtua molde batean sartuco baliz bezala, eta ordutanic asico da gorputza betico oñaceaquiñ. Eztaquigu, norañocoa izango dan doacabe bacoitzaren itsustasuna; baña ascoren iritzian, aiñ itsusia gueratuco da doacabea, non ecuste utsa asco izango lizaquean nor nai ill otza gueratzeco. Eta cer izango da onelaco milloyac, eta milloyac ecustea? Atocea oraiñ, Cristaua: eta Aingueruac trompetarequiñ contuetara deitzen duanean, nondic irtengo ote guera? Cerutic, edo infernutic? Ongui beguira dezagun oraiñ, dembora degun bitartean.

§ II.

Biltzen diranean Adanen ume guciac, contuac ematecо, Josafateco ibarrean: aguertuco da Jesu-Cristoren estandarte, edo siñalea S. Mateoc dionez. Siñale au izango da gurutze bat guciz ederra, S. Juan Crisostomoc esaten digunez. Ecusico due Juduac siñale au: oroituco dira, nola gurutzean illerazo zuen beren Mesias, edo Salvatzallea, eta asico dira adiaz, eta negarrez: *Plangent omnes tribus terræ.* Laster aguertuco da Jesus munduaren Contu artzallea eder-

tasun, eta onraric andienean, berequin dacartziala Virgiña chit Santa, eta Ceruco Aingueru guciac. Ez da mingañic adierazteco, norañoco edertasuna izango dan Jesusen etorreraraco edertasun au. Odei zuri alde gucietara argui eguiten, eta distiatzen duan bat izango da Jesusen jarlecua, eta an eserico da gucioi contuac artzeco. *Tunc sedebit super sedem Majestatis suæ.* Ipiñico dira beste *tronu*, edo jarlecuac Virgiña chit Santarentzat, eta Apostoluentzat-ere. Atseguin, eta pozac gaiñez eguiten diela egongo dira onac edertasun au gucia ecustean; baña gaiztoac arrituac, eta erquitzen. Jesusen aurpeguia onentzat aguertuco da guciz gozoa; baña gaiztoentzat chit izugarria. Job Santuac, gogora ecarriric Jaunaren orduco aserrea, dio: Norc eman leguiquedan, Jauna, infernuan ezcutatua egotea, zure aserrea igaro dedin bitartean? (Job c. 14).

Aguinduco die Jaunac bere Aingueruai, bereistu ditzeela gaiztoac onetatic; eta ipiñico ditue onac escuico aldean, eta gaiztoac ezquerrean: *Oves quidem á dextris, hædos autem á sinistris.* (Math. 25). Berecіera au becatarientzat izango da guciz lotsagarria. Berecico ditue Apaizac Apaicetatic: senarra emazteagandic, gurasoa umeagandic. Ecusico du araco mutill, edo guizon gaizto, becatuaren bide, eta ibillerac utzi nai ez dituan arc escuyeco aldera dijoala beste bere laguna, ceren gaiztoa izan bazan ere, adituric Jaunaren itza, ezagutu zuan bere centzugabequeria: eguiñ zuan confesio on bat, eta jarraitu cion Ceruraco bideari. Ecusico du araco emacume, edo nescach erguel desonesta arc, nola dijoan escuyera doatsuen artera urlia bere nescach-laguna, ceren ibillera lotsagarrietan parchuel izan baciran ere, Avendu, edo garizuma batean, venaz biurtu zan Jaunagana: utzi cituan lagun gaiztoac, eta aurrera

Universidad de Deusto
Biblioteca

vicitu zan Jaunaren beldur Santuan. Arrituco dira becatariac beren ezagun, eta lagunac escuyeco aldean ecusiric, eta esango due: oec dira dembora batean guc farra, eta iseca eguiten guiñutenac: *Hi sunt, quos aliquando habuimus in derisum, et in similitudinem improperij:* Orduan chorotzat guenduzcan guc oec, ceren utzi cituen becaturaco bide, eta perillac, baña izan guera eguiaz choroac, eta centzugabeac: *Nos insensati* (Sap. 5).

Bereciera onen ondoren asico da Jesus Jaungoico guizona itz-eguiten. Oraindaño beti isilic egon naiz dio Isayasen autic: *Tacui semper* (c. 42); baña orduan itz eguingo du, eta ez da izango eranzuteco ausardiaric. Idiquico dira bacoitzaren vicitzaren liburuac, Danielec dionez; *Judicium sedit, et libri aperti sunt* (c. 7): esan nai du: añ arguiro ipiñico dituala Jaunac gauza guciac gure beguien aurrean, non ecusico ditugun diran eran, ala gureac, nola besteenac: ala obra onac, nola gaiztoac. Aditzera emango du Jaunac, nola eguiñ cituan Aingueruac, espiritu garbi-ederrac, eta oetatic asco Lucifer buru zuela beren antuste, edo soberbiagatic betico su, eta garren artean amildu ciran. Aditzera emango du, nola guizona eguiñ zuan Ceruraco, apaintzen zuala graciaren doai miragarriz, eta nola galdu zuan gucia, Paradisuco arbola baten fruta debecatua janta. Aditzera emango du, nola utseguiteac zucentzeagatic, eta guizona Ceruraco bidean ipiñi nayez jachi zan Cerutic, eta guizon eguiñ zan Virgiña chit Santaren Sabelean, eta eman zuan gurutzean bere vicitza. Aditzera emango du, nola gure oneraco ipiñi cituan Sacramentuac, oen artean Comunioco Sacramentua, gurequiñ vicitzeco, gure viotzetara etorteco, eta guri bere ondasun guciac, eta betico vicitza emateco. Aditzera emango du, ceñ ederrac, ceñ zucen, eta miragarriac ciran gure oneraco artu cituan neurri guciac. Ascotan mundu centzugabeac, munduco jaquintsu arroac nola nai itz eguiten due Jaunaren Letart, edo Providenciaren gañean, baña mutuen eran gueratuco dira guciac, nola igaro diran gauzac, dacustenean: *Omnis iniquitas oppilabit os suum* (Psalm. 106). Nai eta nai ez guciac ezagutuco due Jaunaren ontasun, eta Jaquiundea, eta adoratuco due Jaungoico, ta guizon eguiazcoa bezala: ez onac bacarric, baita gaiztoac ere: belaunicatuco dira, dio S. Pauloc, Ceruan, lurrean, eta infernuan arquitzen diran guciac: *Omne genuflectetur, Cœlestium, terrestrium, et infernorum* (Ad Philippens. c. 1).

Aguerturic mundu guciaren aurrean gure oneraco artu dituan neurri miragarriac, beguiratuco die bacoitzaren obra on, eta gaiztoai. Añ zucena, eta izugarria izango da beguiraldi au, non Sofoniasec dion: arguiac arturic bezala beguiratuco diela Jerusalenen, edo animaren bazter guciai: *Scrutabor Jerusalem in lucernis* (Sophon. 1). Beguiratuco die obra onai, eta azal chit ederra izan arren, usteltzat emango ditu, asmo garbiarequiñ, eta ongui eguiñac ezpadira: *Ego justitias judicabo* (Psalm. 74). Beguiratuco die ala gogoz, edo pensamentuz, nola itzez, eta obraz eguindaco becatuai, eta aguertuco ditu beren itsustasun guciarequiñ. Zuc, becataria isilic eguiñ cinduan, edo cere bacartasunean, edo urliarequiñ, lotsatzen zaituen, becatu oriec, eta bearbada beldurrez ez dituzu garbiro aitortu, edo confesatu; baña ecusi cinduan Jaunac, eta guciac igaro ciran eran ipiñico ditu Jaunac mundu guciaren beguien aurrean. Bai, dio Jaunac, nic aguertuco ditut zure becatu itsusi-lotsagarriac: *Revelabo pudenda tua* (Nahum 3). Aguertuco ditu, eguia da, onen utseguiteac ere: aguertuco ditu Santa Maria Magdalenaren er-

Universidad de Deusto
Biblioteca

guelqueriac , janciera arroac, eta emendic jayo ciran becatuac ; baña dembora berean aguertuco dira guero eguiñ cituan negar samiñac, eta vicitza eder-garbia, eta onen distiadurac estalico ditu leneco utseguiteac , eguzquiaren arguitasunac bere manchac estaltzen dituan bezala. Atzenean ezta izango becatu añ chiquiric, ez eta itz alper batere, non Jaunac aguirian ipiñico ez duan. Ala esaten digu S. Mateoc. Esan zadazu oraiñ, Cristaua, ¿ ez da becatariarentzat gauz izugarria izango, guisa onetan becatu guciac munduaren beguietan ipiñtzea, eta gucien contuac ematea? eta alaere asco becatari vici dira beren utseguiteac confesioan aitortzeco lotsaz? Au da zoraqueri andia.

§ III.

Aguerturic gucien, eta bacoitzaren obra on, eta gaiztoac, itzulico da escuyeco alderonz, beguiratuco die onai gozotoro, eta esango die: Atozte, nere Aitaren bedeicatuac: arrezazue, munduaren asieratic zuentzat prestaturic dagoan , Ceruco Erreñua: *Venite, benedicti Patris mei, posidete paratum vobis regnum á constitutione mundi* (Math. 25). Asico dira Ceruronz igotzen doatsuac: ecusico due au ezquerreco aldean daudenac, eta naigabez erquituco dira: *Peccator videbit... et tabescet* (Psalm. 111).

Beguiratuco die gaiztoai, eta aserrearen ibai bat bere aurpeguitic irteten zayola, esango die: zoazte nigandic, zoazte madaricatuac: zuazte betico su, eta garren artera : *Discedite á me maledicti in ignem æternum* (Math. 25). Idiquico da lurra, eta irintsico ditu infernuaren eztarritzar izugarriac ala Satanas, ta bere lagunac, nola beste doacabe guciac. Ichico dira betico infernuco ateac, eta ez dira beñere idi-

quico. Igoco da Jesus Aingueru, ta doatsu guciaquiñ bere Ceruco Erreñura; eta ango vicitza izango da Jaunaren edertasun neurriric, eta mugaric ez duan ura ecustea, amatzea, laudatzea beñere aspertu gabe: eta beticotasun gucian atseguiñ-contentuen artean egotea.

§ IV.

Orra, nere Cristaua: orra, ceñ izugarria izango dan becatariarentzat azquen-contuetaco eguna. Cer ote da, orduan ongui irteteco, eguiñ bear deguna? Cer, ezpada oraiñ gure utseguiteen gañean negar eguitea, eta ongui aitortzea, edo confesatzea. Onela egun andi artan confesio onaren edertasunac estalico ditu, eta ez due lotsaric emango. Cer ote da, guc gañera eguiñ bear deguna? Sarritan, eta prestaera onarequiñ Sacramentuac artzea, eta vicitz onari gogoz, eta venaz jarraitzea.

Nere Salvatzalle Jesus maitagarria! *Peccavi*! eguiñ det becatu eciñ conta al bider. *Peccavi*: eguiñ det becatu, eta galdu det zure gracia, eta Ceruraco escu, eta derecha gucia: ez naiz zure umearen icenez onratua izateco diña. *Peccavi*: eguiñ det becatu, eta irabaci ditut betico suac , eta garrac; baña erabaqui det, Jauna, zugana biurtzea, eta zu servitzea: ar nazazu arren zure servitzarien artean: indazu vicitz on bati jarraitzeco zure laguntza ugaria. Au da nic gaur, ta beti escatzen dizudan ontarte, eta mesedea, onela iristeco nere becatuen barcacioa, eta guero betico vicitza. Amen.

Universidad de Deusto
Biblioteca

GARIZUMAREN LEMBICICO IGANDERACO.

1.ª

ESCANDALOAREN GAÑEAN.

Ductus est Jesus in desertum ab Spiritu ut tentaretur á Diabolo. Math. c. 4.

San Mateoc gaurco Evangelioan adirazten digu Jesu–Cristo gure Jaunac etsayarequin eremuan izan zuan guerra, ta pelea. Eraman zuan Espiritu Santuac Jesus eremu batera, etsayaren guerra, ta tentuac garaitzen guri eracustera. Onetan aditzera ematen zacu, ez degula gueroc becatuaren perillean sartu bear, ez eta tentacioetan–ere Eremuan prestatu zan Jesus etsayarequin guerran asitzeco berroguei egunean, ta gauean ecer artu gabe cegoala. Onetan eracusten digu prestatu bear degula lendanaz gure etsayaren equin aldietan gallenduac gueldi ez gaitecen, dala barauez, dala cilicioz, dala noizean beiñ loa, ta jana guchituaz, Jaunari erregutuaz. Jesus ona prestaturic cegoan ez cergatic berac prestatzearen premia zuan etsaya garaitzeco, baicican ceren guri eracutsi nai cigun nola etsaya garaitu bear genduan; etortzen zayo etsaya, ta asitzen zayo tentatzen, esaten diola: *Jaincoaren Semea bazera, esazu eguiñ ditezela ogui, orraco arri oriec. Si filius Dei es, dic ut lapides isti panes fiant.* Ecusten zuan etsayac Jesus berroguei eguneco barau gogorrarequin necatua ar-

quitzen zala, ta emendic muguitu nai zuquean janera. Baña Jesusec ayenatu zuan etsaya, esaten ciola: ez da guizona ogui utsean vici, baicican Jaunaren itzarequin. Onetan aditzera ematen zuan ez guerala gorputz utsac, baicican gorputzaz gañera degula anima, ta animaren janaria len dala gorputzarena baño, edo lenago dala Jaunaren esanac zuzen eguitea gorputzari atseguiñ eguitea baño. *Non in solo pane vivit homo, sed in omni verbo, quod procedit de ore Dei.* Mututuric guelditu zan etsaya, ta garaitua bere aurreneco equin-aldian. Ecusten dezu anima nola ayenatu bear dezun zure etsaya zure gogoari janeraci nai dionean gauza debecaturen bat? Ecusiric etsayac aurreneco pelean etzuala ecer atera, equiten dio bigarren aldian beste alde batetic, esaten diola: *baldin Jaincoaren Semea bazera salta zaitez or bera, bada escribitua dago: aguindu cien bere Aingueruai zai zaitzeela, ta artuco zaitue emen ororzean beren escuetan, oñean miñic ar ez dezazun zuc. Si filius Dei es mitte te deorsum: scriptum est enim: quoniam Angelis suis mandavit de te, et in manibus tollent te, ne forte offendas ad lapidem pedem tuum.* Eraguin nai ciqueon etsayac salto Elizaren torre batetic lurreraño, emendic ecusten zuenen losencha, ta alabantzaquin arrotasunaren tentacioan achitu ote cezaquean. Bigarren tentacio au ayenatu zuan Jesusec erantzuten ciola: *Escribitua dago ez dezu tentaluco zure Jaun Jaungoicoa.* Onetan aditzera ematen digu Jesus onac, ez degula gauz oquerretan sartu bear Jaunac ateraco gaitualaco ustean; au da alabaña Jaungoicoa tentatzea baldin anima bat bere nayez sartzen bada itzeguite gaiztoetan, becaturaco perillean, biltzen bada lagun gaiztoaquin, uste izatea Jaincoac bialduco diozcala Aingueruren batzuec andic ateratzeco; au da Jaincoa tentatzea. Gallendua,

Universidad de Deusto
Biblioteca

ta mututuric gueratu zan etsai gaiztoa bigarren aldi onetan-ere, baña ez alaere etsia. Ateratzen du Jerusalendic, ta eramaten du mendi gaiñ guciz goi batera, ta eracusten diozca munduco gauzaric ecustecoenac. Aguertzen diozca bazter guciac, ta oetaco edertasunac, ta guciac beingoan beguien aurrean ipiñiric esaten dio etsai galgarriac: ecusten dituzu gauz oec guciac? bada guciac emango dizquitzut, lurrean belaunico jarriric niri zure Jaunari bezala agur eguiten badidazu. *Hæc omnia tibi dabo, si cadens adoraveris me.* Tentacio gogorra zan au berez Jesusen viotza cuticiara erori albacitequean; baña leneco aldietan bezala ayenatu zuan erantzuten ciolo: Oa ortic Satanas ordu gaiztoan: escribitua ceagoc: adoratuco dec ere Jaun Jaungoicoa, ta ura baicic ez dec servituco. *Vade Satana, scriptum est enim Dominum Deum tuum adorabis, et illi soli servies.* Au aditu zuanean etsayac, aldeguin zuan Jesusengandic, ta lotsaz ta arrabiaz joan zan su, eta garren artera; ta Aita Eternoac bidaldu cituan bere Aingueruac Jesus onari bear zuan gucia ematera.

Au da, nere Cristauac gaurco Evangelioac dacarrena. Jesusec eracutsi izan digu aurrean jarriric emen guerra, ta tentacioen artean vici bearrac guerala, eracutsi digu nola prestatu bear degun guerra onetan gallenduac ez gueratzeco. Etsayagan aditzera ematen da ez bacarric deabrua, bai eta beste lagun urcoari becaturaco bidea, oña, edo escandaloa ematen diezan guciac-ere. Gai ederra izango lizaque tentacioac garaitzeco neurrien gañean itzeguitea, baña gaur utziric au itzeguin nai det becaturaco bidea, ta oña ematen duenen gaiñ. Onetaraco aurrena aditzera emango det cer dan escandaloa; ta guero ceiñ becatu izugarria dan. Escatu deguiogun Jesusen Amari becatu au ezagutzeco, ta ezaguturic negar

viotzetic eguiteco gracia Aingueruarequin esaten diogula. *Ave Maria.*

Ductus est Jesus in desertum ab Spiritu, ut tentaretur á Diabolo. Math. c. 4.

§ I.

David Erregue Santua, bere becatuaz negar eguiteaz gañera, quezca andiarequin barcacio esque cegocan Jaungoicoari besteen becatuaz. Jauna, esaten cion, norc ongui ezagutzen ditu becatuac? garbi nazazu niri gordetzen ta ezcutatzen zaizquidan utseguitetatic, tabarcaguizquidatzu besteen becatuac. *Delicta quis intelligit? ab occultis meis munda me, et ab alienis parce servo tuo* (Psalm. 18). Ceri dagocala, esan lezaque, Davidec Jaunari escatzen cion barca ceguizquiola besteen becatuac? baña ez da neque andiren bearric ezagutzeco David Santuaren erregua ceri cegocan. David zan Erregue, ta beragatic bere mendeco gucien burua, guiaria, ta gurasoa, ta beldur zan bere mendecoen becatuac aren gaiñ izan citezen zabarqueriaren bategatic; edo bere vicitzarequin becaturaco bidea, edo escandaloa emanic. Argatic quezca andiarequin Jaunari escatzen cion besteen becatuen barcacioa.

Eta cer da escandaloa? da, dio S. Tomas Aingueruac, esan, edo eguin gaisto, edo gaistoaren antza duanarequin lagun urcoari becatuan erortzeco bidea ematea. *Dictum l factum minus rectum præbens alteri ocasionem ruinæ.* Esaten dio nagusi batec mirabeari ecartzu auzoco sorotic arbia, au da escandaloa ematea; ematen dio alabaña becatuan erortzeco bidea. Becatuan erortzeco, edo irauteco bidea eman diteque era ascotara, ta beragatic escandaloa

Universidad de Deusto
Biblioteca

da gai gucietara zabaltzen dan becatu mota bat.

Lenvicia guerta diteque, becataria, zuc lagun urcoari becatu venialean erortzeco bidea ematea, ta orduan zuc ematen diozun escandaloa berez ez da becatu mortala, baicican veniala. Etortzen da eche batera norbait echeco andrearen, edo nagusiaren galdez, ta esaten dio nagusiac mirabe bati, *esanguiozu ez nagoala echean.* Eztula echean, ta nagusia campoan esan oi dan bezala. Nagusiac ematen duan escandaloa becatu veniala da. Bigarrena: guerta diteque lagun urcoari becatu larri, edo mortalean erortzeco bidea ematea, ta orduan escandaloa izango da becatu larria. Eguin dezagun contu, erregutzen diozu bati Justiciaren aurrean, edo bestela eguin dezala juramentu guezurrezco bat, edo eguia ez dezala aitortu bear dalaric. Erortzen cera escandaloa deritzan becatu mortalean, ta gañera zure gañean dira juramentu artatic etortzen diran calteac. Emendic confesioan garbiro albada aitortu bear da cer mandamenturen contra becatu eguiteco bidea eman dan, cembati eman zaten bide au, eta seigarrengo mandamentuaren contracoa bada, aitortu bear ere da, ezconduai, aideai, castidadea gordetzeco votoa duenai eman bazate.

Irugarrena guerta diteque zuc lagun urcoari becatura bideric batere ez ematea, ta bere gaiztaqueria utsez artzea. Escandalo mota oni deitzen dioe Teologoac Fariseoen escandaloa. Oec Jesu-Cristoren eracuste ederraquin, ta eguiten cituan gauza miragarriaquin beragan sinistu, ta viotzetic maite izan bearrean, artu zuen oña Jesusen contra ezin-ecusian, embidian, ta gorrotoan erortzeco. *Ecce positus est hic in ruinam....multorum in Israel.* (L. 2.) Fariseoen ancecoac dira munduan asco. Ecusten due beren gogocoa ez duenen bat, gucian amen esaten ez daquian bat, aldeguiten jocotic, tabernatic, danza, ta beste

becaturaco bide ascotatic, ecusten due maiz confesatzen, ta beste gauz onetan. Ecusia dago gauz oequin bideric iñori ematen etzayola becatuan erortzeco; baña alaere ascotan guertatzen da beren gogocoa ez duenac erausian egotea, gauz onac-ere alde gaistora botatzea: *Urlia maiz confesatzen da, devocioz Elizan dago; ez du nai festetara, dantzara, lagun artera joan*; baña jaquizu cer iñequin dan au gucia; *Iprocresiaz bete da; ori gucia eguilen du santatzat iduqui dezeen.* Baciñaqui cer mingaña duan, baciñaqui cer charqueria eguin cidan? Onelaco erausiac ez dira, nere Cristauac ecertan artu bear; baicican aurrera joan bear da gauz onac eguiñaz; ta norbaitec emendic erausiraco, ta juicio oquerrac eguiteco oña artzen badu, izango da au bere culpaz, ta gaistaqueriaz.

Laugarrena guerta diteque zuc lagun urcoari becaturaco bideric ez ematea, ta alaere miseriaz becatuan erortzea. Emacume bat dagocan eran jauntziric echetic Elizara, edo beste lecuren batera irtetea berez ez da becaturaco bidea iñori ematea; baña alaere guerta diteque, ta guertatu izan da beiñ baño gueyagotan beguira jarri, ta becatuan erortzea norbait. Gai onetan, ta beste onelacoetan zuec dagoquizuen adiña ezagüera izan dezazuen, adinazue contuz esatera noan puntuetan. 1.ª Ezagutzen dezu zuc, nescacha, zuri dagoquizun eran apainduric irteten bazera Elizara, Tolosara, festara, dantzara, guerta ditequeala nor edo nor becatuan erortzea, ta ceregan beldur au ezagutzen dezu, ez daquizula nor erorico dan. Etzaude beartua ez jauntzitzera dogoquizun eran; etzaude beartua echean egotera beldur onegatic, eta baldin guertatzen bada norbait becatuan erortzea izango da au erortzen danaren culpa bacarric. 2.ª Ezagutzen dezu orrela apainduric irteten ba-

Universidad de Deusto
Biblioteca

cera , urlia , edo sandia , zure ondoren dabillen ura, ezagutzen dezu , ceren aren berri daquizun , erorico dala becatuan ; beartua zaude , Teologoric gueyenac eracusten duenaz , noiz edo berriz echean gueldit-zera, Meza utzico bada ere , ta are gueyago beartua zaude festa , dantza , ta onelaco gauzac uztera. Esan det noiz edo berriz , ceren neque andia lizaque dem-bora luzeetan besteren becatuaren beldurragatic me-za, ta beste gauzac uztea. 3.ª Ezagutzen dezu, ezcon-tzeco itzac eman diozcatzun orrequin itzeguiten jar-tzen bacera , batez-ere bacarric , cerori jartzen ce-rala perill andian , ta bestea erortzen dala becatuan, dala itzez , dala escuz , dala gogoz , edo bestela, beartua zaude ezcondu artean modestiarequin alde-guitera besteac bere anima galdu ez dezan. 4.ª Eza-gutzen dezu, onelaco lecutara joaten bacera an bear bada zai arquitzen dala zuri darraiquizun urlia , zu muguitzeco bear ez dan jolasetara, ta joaten cera be-ra ecusteagatic, ta berarequin egoteagatic, erori ze-ra escandaloa deritzan becatuan. 5.ª Ezagutzen dezu urliac itzeguin dizula Ernioco gurutzeraco , Lezora-co , Aranzazuraco , Tolosaraco zurequin lasaiquiro ibiltzeco asmoan , ezagutzen dezu danzaraco lenda-naz esan dizunaren gogoa , ta griña gaistoa ; bada beartua zaude aldeguitera gauz oetatic , ta bestela e-maten diozu lagun urcoari escandaloa. Eta au onela bada , dan bezala , cer izango da , baldiñ zu cerori bazabiltza lagun urco argalac ceregana muguitzeco, ta lazoan arrapatzeco ?

Jauna esan dezaque nor baitec : nic ez det orrelaco gauzaric ; baña eguia esan bear badet , ezcontzeco, naia , ta aizeac artu nituan ezquero , aleguin gucia eguiten det apaintzeco , batez-ere festa demboran, iñuterian , Tolosara noanean ; nai nuque norc-ere bait begui onez ecustea , guizonai ederra iritsitzea;

ta Jauna , urliarequin edo sandiarequin itzeguiteco derecha arrapatzen dedadean orduan dira nere atse-guin-pozac , ta egunic consolatuenac. Ongui , ongui eguiten dezu eguia aitortzea.

Emacumea dagocan-eran , ta bear dan modestiare-quin jauntzitzea , jasoa izatea , ez da becatu , dio S. Tomas Aingueruac , fin gaistoric ez danean. *Ornatus simplex servata recta intentione , consuetudine, et con-ditione status non est peccatum.* (In Epist. 1. ad Thi-mot.) Eta are gueyago dana S. Pablo Apostoluac dio guisa onetan : *nai det* emacumeac lotsa onaren mu-guetatic irten gabe, ta gueyeguiric gabe jasoac ibilt-zea , ez illea quiscurturic , edo enrizaturic , ez urrez, margaritaz , edo soñeco preciotsuz , baicican Cris-tauari dagocan modestiarequin. *Volo similiter et mu-lieres in habitu ornato cum verecundia , et sobrietate ornantes se, non in tortis crinibus , aut auro , aut margaritis vel veste pretiosa, sed quod decet mulieres promittentes pietatem per bona opera.* (1. ad Timoth. c. 2.) Au bera dio S. Pedroc. 1. P. c. 3. Emacumeac gañera ederra iritzi nai izatea guizonai , ezcontzeco terecharen ansiarequin , ta emendic cerbait burua a-rintzea fin gaiztoric gabe , au oraindic izan diteque becatu mortal gabe dio S. Tomas Aingueruac. *Mu-lieres appetentes placere viris ex veritate quandoque peccant tantum venialiter.* 2. 2. q. 169 art. 2.

Au onela da , nere Cristauac gauzari berez , soil soil beguiratzen diogula. Baña guizonai ederra iritzi nai au , ezcondu gura au , ta onetaraco iñoiz ecus-ten diran gauzac dira emacume ascoren , edo galtzen diran gueyenen condenacioco sustraya. Emendic da-tor alabaña guerotic guerora gueyago viotza itsastea guizonai ongui iritzi bearrari , emendic apaintzea ur-lia , edo sandia lazoan arrapatzeco, emendic nai iza-tea onelacogan lujuriaren sua eracequitzea , ta atze-

Universidad de Deusto
Biblioteca

nean viotza prest jartzea edoceiñ gauza eguiteco ezcontzeco terechagatic. Onegatic dio guizon jaquintsu batec emacume gueyago condenatzen dala guizon baño. (Videsis Ill. Lig. hic.) Beguira bada bacoitzac bere animari, beguira beregan igarotzen zaizcan asmo, gura, edo naicundeai, ta garbitu confesio on batequin.

Escandaloco becatuan erortzea guerta diteque bost-garrena lagun urcoari lagun eguiten diozula becatuan, lagun eguite onequiñ alabaña zerorrec eguiten dezunaz gañera zeretzen dezu besteren becatua ere. Noiz, nola, ta cer gauzatan, edo gayetan lagun eguite au becatu dan ez da erraz dembora guchian adieraztea, ez eta luzean ere, da alabaña gauza illun, gauza me Teologoai arazo asco ematen diena. Ucuituco ditut zuec aditu ditzaquezuen cembait puntu.

Ezagutzen dezu iñuterian dantzara joaten bacera lendanaz mandatu eguiten diozun orrequiñ, jarrico cerala guizartean eseriric, prensan bezala alde bietatic estuturic: ezagutzen dezu, batere lotsaric gabe eguingo dizquitzula ongui ez dirudien mirapilliac gaztañac, ta sagarrac ateratzeco aitzaquiaquin, ta zu cerori batere naigaberic eracutsi gabe egongo cerala; ta egoten cerala: laguntzen diozu bada becatuan ari, ta ematen diezu beguira daudenai ejemplo gaistoa. Lagun eguiten diozu nagusiari arbia, garroa ostutzen: echeco nescach ezcontzeco asmoetan dabillenari jolas gaistoetan ibiltzen meza artean, illun-abarrean: ematen diozu mandatu nescach orrequiñ ezcontzeco asmoa duan mutillari irten dedilla illun-abarrean onelaco lecura, arratsean onelaco leyotara, daquizularic cer igarotzen dan, ta alaere eguiten dituzu mandatu oec: laguntzen diezu bada becatu eguiten, ta beragatic erortzen cera escan-

daloco becatuan. Au igarotzen da Cristauen artean; au munduaren beguietan, ta alaere gurasoac lo, eta lo? Ecartzen dizu eche bateco nescameac artoa, alabac garia, ta beste gauzac, ta daquizularic ez duela berena, daquizularic ez duela bear adiña bide onetaraco estaltzen dituzu lapurreta oec, lapurreta oec, ta estaliaz zugan duen confiantzarequiñ aurrera dijoaz gari eta arto pilla ostutzen: erortzen cera bada escandaloa deritzan becatuan. Jauna, ordea bazuen bidea becaturic gabe gari, edo arto piscaren batez baliatzeco. Atozea nondic daquizu zuc ori? Ecusten dezu zure lagun urcoa edanean ya chit igaroa, ta osotoro galduco dala convidatzen badezu, brindatzen badiozu, ta alaere esaten diozu *vecino, hermano, cuñado, ez dezu gaur nere convitea artu gabe echera bear, brindo cuñado*, onela muguitzen dala bestea edatera, ta brindis, ta brindis eguitera; ematen diozu bada gueyen gueyenean escandaloa, laguntzen diozula becatuan erortzen. Uzten det tabernariaren gañean itzeguitea, ceren Jaunari esquerrac, tabernaric emen ez dan. Emendic nolere bait ezagutu dezaquezue noiz escandaloco becatuan erortzen ceraten lagun urcoari gauza gaistoren batean lagunduaz, ta aditzen ez dezuena galde bacoitzac bere Artzayari, edo confesoreari.

Jauna nic premia batean escatu niozcan idi, edo bei batzuec bati ezagutzen nuala valio zuan baño ascoz gueyago pagaeracico cizquidala, ceren diruric escuan ez nuan; ta ala arturic demboraz pagatu niozcan, edo pagatu bearrean nago: jaquiñ nai nuque escatze onetan, edo pagatzean becatu eguiñ dedan. Premia gabe ez da onelacoric eguiñ bear, ceren gauza gaisto lizaquean, baña premia andia badezu escatu dezaquezu gauza bere balioan, ta balio duan baño gueyagoan baicic eman nai ezpadizu, ar

Universidad de Deusto
Biblioteca

dezaquezu gauza cere premia estaltzeco, edo beste motivo andiren bategatic. Ala eracusten due Teologoac San Tomas Aingueruarequin. Gañera onela gauza artu badezu, ta juramentuarequiñ aguindu badezu pagatzea bear baño gueyago, orduan becaturic gabe paga dezaquezu, ta pagatu bear ere dezu. Baña juramenturic eguiñ ezpadezu ere becaturic gabe paga dezaquezu ez pagatzetic calte andiren baten beldurra bada.

Jauna: nic auzi batean juramentu eraguiñ nion eguia aitortuco etzuala beldur ninzan bati, ta onetan ez daquit cer eguiñ nuan. Premiaric gabe, eta ezeri ez dagocan gauzan bazan juramentua, eman cenduan escandaloa ; baña baldiñ zure derechoa arguitzeco, ta ongui aguertzeco asco esan nai bazuan juramentu eraguiteac , etzenduan becaturic eguiñ; zuc alabaña escatu cenduan eguia aitor cezala, edo ciaquiana esan cezala , eta esan ezpazuan berari egoquico zayo.

§ II.

Escandalozco becatuan erori zaitezque 6.ª, lagun urcoari becaturaco bidea ematen diozula becatua, edo gauza debecatua eraguiteco gogo, edo asmoarequiñ. Ala escandalozco becatuan erortzen cera 1.ª lagun urcoari juramentu guezurrezcoa eguiteco erregüac, losenchac, palacuac eguiten badiozcatzu. 2.ª Umeai, ta mirabeai jai osoetan bear debecatuac eraguiten badieztezu bezperan eguiñ, edo bigaramoneco calte andigabe utzi litezqueala. Jayetaco bearra eguitearen gañean, asco eguiten dira Aita Santu; bada artzen due escua jai erdi, edo aste egunac jai oso eguiteco, ta jai osoac jai erdira biurtzeco.

Ó gurasoac! ó nagusiac! cembat ote cerate ceren,

ta zuen ume-miraben animai baño nayago diezenac echeco ganaduric charrenari! 3.ª Escandaloaren becatuan erortzen cera ume-mirabeai eracusten badiezu licharrerietan: *oa ecarritzac urliaren sorotic arbia, basotic garoa, ostoa, egurra, icatza, sagarrac, artoa.* 4.ª Lagun urcoari eracusten, edo muguitzen duanac usura, edo bestela tratu gaistoac diranac eguitera. 5.ª Muguitzen duanac lagun urcoa ezcontzeco itza ez cumplitzera. 6.ª Ayuntamentuetan elcar muguitzen duenac bidezco gauzen contra itzeguitera, votatzera. 7.ª Emazteari umeai, mirabeai, edo besteri conseju ematen diezanac charqueriren bat eguiñ duanari: *ez barcatzeco, arequiñ ez itz eguiteco.* Ez det ucuitu nai emen seigarren mandamentuaren contra nolatan escandaloa ematen dan; becatu eguiteco asmoa danean; nic esan gabe ere alabaña onelacoac badue bear adiña ezagüera.

Escandaloaren becatuan erori zaitezque zazpigarrena asmoric ez dezula lagun urcoari gauza gaistoric eraguiteco; gogoric ez dezula becatu eraguiteco. Nola au? esaten dezula, edo eguiten gauzaren bat igarritzen dezula, demborari, lecuari, ta alde guciai beguiratu ezquero ipintzen dezula lagun urcoa becatuan erortzeco perill andian. Argatic alferra da zuc esatea: Jauna orise zan, edo eguin nuanean ez nuan gogoric ta asmoric lagun urcoari gauza gaistoric eraguiteco, alferra badin becatu eraguiteco puzoya duan esanà, edo eguiña bada zuc eguiten dezuna. Atocea baldin gende arte batera arri andi bat tiratzen badezu, becatutic libratzeco asco izango da zuc esatea: ez nuan tira iñor jotzera. Onela erortzen dira escandaloa deritzan becatuan 1.ª Seigarren mandamentuaren contraco itz ciquiñ-nazcagarriac, ta lagun urcoari becaturen bat eraguiteco perill andia duenac esaten dituenac. Cembat zar gaisto dira gaz-

Universidad de Deusto
Biblioteca

teen artean era onetan itzeguiten duenac! Cembat ezconduen arteco cembait gauza aguertzen dituenac! Cembat onelaco gaztaña biltzean, itaco demboran, layetan, arto zuritzean! Ta norc adieraci emendic animetan gueratuco diran calteac? Onela itzeguiteco oitura duenac ipiñi bear liraque mingañean ferraturic abereac oñetan ferratu oi diran bezala. 2.ª Aide, ta auzo elcarrequin itzeguin nai gabe vici diranac; emendic dator alabaña ecusten duenac esatea, nic ez daquit oriec nola confesatzen diran. 3.ª Era onetan erortzen dira escandalozco becatuan araco emacume lasai, edo nescatzar ez garbi bularrac, ta gorputzaren gueyena aguiri duela guizonen artean lotsaric cabe ibiltzen diran aec. Non cera lotsa ona? non cera? 4.ª Lagun urcoa vicitza mudatzen asi danari isecaz dagozquionac ceren danzara, becaturaco perilletara joan nai ez duan; bada iseca oec ascotan dirala lotsatzen due bestea, ipintzen due leneco pausoetara biurtzeco perillean. 5.ª Lagun urcoaren gaizquieguiña alabatzen, ta ontzat ematen duen losenchari gaistoc. *Ederqui eguin diozu: atseguiñ artzen det orise eguileaz, ta ojala gueyago eguiñ baciñuca.* Ah! mingaiñ gaisto madaricatuac, ta Demonio leunac. Onelacoac castigu andiagoa mereci due becatua, edo gaistaqueria eguiten duanac berac baño, dio Santu batec: *Collaudare delinquentes longe plus est quoad supplicii pertinet æstimationem, quam delinquere* (Hom. 2 de David, et Saul). Enrique Inglaterraco Erregue icen onetaco VIII galdetu cion Prigiano bere Ministro bati: *Prigiano, cer becatu da Ana Bolenarequin gaistaqueria eguitea, aren Amarequin lenago au eguiñic?* Prigianoc erantzun cion: *Jauna, ori ez da beiñ olloa, ta ondoren ollascoa jatea baño gueyago.* Orduan Erreguec ezagutzen zuala Ministro gaisto onen losencha esan cion: eguiaz hi aiz Prigiano, nere infernuraco Ministro. *Vere tu es meus inferni Vicarius.*

6.ª Erortzen dira escandaloa deritzan becatuan becatu eraguiteco asmoric ez duela senar–emazte paguearic gabe echecoai, ta auzocoai ejemplo gaistoa ematen diezanac. 7.ª Edanean igarotzeco oitura duenac gueyenean edo beti ematen due becatu ascotaraco bidea edo berandu echeratzen dirala, edo birauac botaaz, edo botacraciaz, edo bestela. 8.ª Birauac, ta juramentuac botatzeco oitura duen nagusi-echecoandre, ta gurasoac. Onelacoac guchitan ongui confesatzen dira, ceren asmo sendoric ez duen oitura madaricatua uzteco. 9.ª Adisquidetasun gaistoren batequin cer esana ematen duenac. 10 Araco deabruaren correo, echeetaco naspilla, gorrotoa, aucia, ondamendia ecarri oi duen misto madaricatu aec. Onelacoac joango dira eche batera, ta urdaya, secena, artoa, edo cerbait ateratzeagatic, edo adisquidearen papera eguiteagatic asico dira: *ez taqui milla gauza berorri esan bearrac baniluan, baña gaur ezdago betaric gucia esateco.* Zale izan bestea–ere jaquitearen. Zaude pisca bat, joango cera bereala, eseri zaite. Ez daqui urliac berorrentzat cer ausencia ceucan: uste du berorrec besteric *baña, baña, baña*; cer da bada baña ori? Asitzen da deabruaren berriaquin ongui esan zanari aurpegui gaistoa ipiñiaz, guezurra eransiaz, ta bucatzen du gaceta bustan onequin: ta au utsa da nere colcoan guelditzen danaren aldean, baña eçin csango det ecergatic–ere. Esazu misto madaricatua, bota czazu, bada calte guchiago eguingo dezu esanarequin. Onelacoac ez det sinisten, ta ez det sinistuco ongui confesatzen diranic, ta beren bizcarrean daramee Jaincoaren madaricacioa, ta condenacioco sentencia. Madaricatu paquea, ta adisquidetasuna gal-erazten duana madaricatua, bada guerran ipiñico ditu paquean ceuden asco, dio Espiritu Santuac.

Maledictus susurro multos enim turbabit pacem ha abentes (Ecl. 18). Contu eguin bear due echeetaco buruac onelacoac ordu gaistoan ayenatzeco; ta bestela ecin bada eguin bedi goroztizco conjurua; au da alabaña virtute andico conjuro bat onelaco deabruac ayenatzeco.

Escandaloa deritzan becatuan erori zaitezque, becataria, beste guisa batean, ta da gauza gaistoric ez esaten, ta ez eguiten dezula, baña bai gaiztoaren iduria, edo antza duana, emendic lagun urcoac artzen duala becatuan erortzeco bidea. Emendic escandalozco becatuan erortzen dira 1.ª senar-emazteac, umeac, ta mirabeac beguira daudela, edo aldean dirala, beren Sacramentuari dagozcan gauzetan. Contu ezconduac, bada cer igarotzen dan ongui daquien guizon jaquintsuac esaten due, ta escribitzen calte andiac datozela emendic. 2.ª lecu aguirietan, ta gendea dabillenean gobada jotzen duenac era lotsagarrian, edo emendic ezin adieraci nezaquean bezala. Onelaco emacumeac iduqui bear liraque ei batean sarturic. 3.ª vigilietan araguia jaten duenac, osasunaren antzean daudela, iñori juicio gaistoric ez eraguiteco, aditzera eman bear due, arquitzen dirala Maisuaren aguintez araguia jatearen premian. 4.ª Era onetan escandalozco becatuan erortzen dira, echeren bateco sarrera, edo jayerarequin erausiraco, ta juicio oquerrac eguiteco bidea ematen duenac. Jauna ez det gogoan igaro-ere eche artan gauza gaistoric eguitea: ez det dembora itzeguiten, ta gauz onac contatzen igaro besteric eguiten. Ez da ezer, zure jayera orrec-ematen badu cer esana, zure sarrera orregatic munduaren aban badabill zurequin besteaaren fama, beartua zaude uztera, ta bestela escandaloa ematen dezu. Beartua zaude, esaten dizu S. Bernardoc, uztera ez gaistoac diran gauzac bacarric,

baita gaistoaren antza duenac-ere. *Non solum cavere teneris quod malum est, sed quiquid male fuerit coloratum.* (S. Ber. de Cons. ad Eug.) Atzenean, Cristaua, escandaloa deritzan becatu onetan erori zaitezque, dezun carguan zabarra izanez, cerala Erregidorea, Vecinoa, gurasoa-nagusia. Izan zaitezque cerori ona, Jaincozcoa, eguin ditzaquezu penitencia andiac; barauac, cilicio, ta beste gorputza menderatzeco nequeac artu itzaquezu; baña zabarra bazera zuc umeai, eta mirabeai dotriña, ta Ceruraco bidea eracustean, zabarra bazera becatura bide, ta perilletatic quen-erazteco, zure zabarqueria au bera asco da zure gañean izateco zure umeen becatuac.

§ III.

Ecusi degu, nere Cristauac, cer dan escandaloa esaten diogun becatua, ta au ongui ezagutzeco uquitu ditugu becatu onetan erortzeco diran guisa asco. Ta becatu mota au nolacoa dala uste dezue? Gauz icaragarria Jesu-Cristoren sentenciaz bezambatean. Ay dio, Jesu-Cristoc! Ay! ta munduaren zori gaistocoa escandaloagatic. *Væ mundo ab scandalis.* Ez dio Jesu-Cristoc zori gaistocoac cuticiosoac, zori gaistocoac birauguilleac, zori gaistocoac lujuriosoac bacarric, ez; baicican ecusiric becatu mota izurriaren guisa zabaldua lecu gucietara, estadu gucietara. Ay dio, ta munduaren zori gaistocoa. *Væ mundo ab scandalis.*

Zori gaistocoa mundua, ceren ezagutzen ez du bere gaitza, ta ezagutu gabe ezertan artzen duan. Gaitza ezagutzen ez, ta ezertan artzen ez danean eria perill andian arquitzen da. Ta au da munduari becatu mota onequin guertatzen zayona. Escandaloa gañez eguiñic arquitzen da, gazteetan, zarretan, ezconduetan, ezcongaietan, gurasoetan, ta umeetan,

Universidad de Deusto
Biblioteca

baña ez da ezertan artzen, ez da ayenatzeco aleguiñaric eguiten, eta cer becatu mota izan diteque becatu onelacoa baño izugarriagoa ? Becatuac quezca esnatzen duanean ascotan becataria muguituco da bere quezcarequin negar eguitera, vicitza berria artzera ; baña quezcaric ematen ez duanean ez da viotzetic damutuco, ez du negar eguingo. Zori gaistocoa da emendic mundua becatu mota onegatic. *Væ mundo ab scandalis.* Zori gaistocoa gañera, bada Jaunaren justiciac escatzen du, becatu onetatic datozen oquerrac zucentzea bacoitzac bere aldetic, ta ez da quezcaric, ta arduraric onetan ere artzen. Gauza jaquiña da lagun urcoari calte eguiñ dionac dala ondasunetan, dala onran, dala faman, caltea deseguitera beartua dagoala ; ta animan caltea eguiñ badiozu etzaude Jaunaren beguietan calte ura des-eguitera beartua ? Baña norc esan, norc adieraci becaturaco bidea ematen duanac, cer calteac eguiten dituan, ta nola deseguin calte oec? Zuc bear bada ucuitze loi batequiñ, queñada batequiñ, itz gaizto batequiñ eracutsi ceñion besteari becatua ; onec beste biri ; biac lauri ; lauac ogueiri, ta ogueiac millari, ill ciran batzuec, ta oraindic vici da zuc eracutsi cenduan becatua, ta aurrera dijoa. Guertatzen da escandaloarequin, edo becaturaco bidea ematearequin gari soro bati su ematearequin guertatzen dana. Erazequitzen diozu soroaren ertz batean lasto bati; onec besteari, besteac besteari, ta onela zabaltzen da, soro gucira, zabaltzen da soro batetic bestera ta uzten du gucia auts biurtua. Ay becaturaco bidea eman dezunac! zuec bati edo biri eman badiezu, oec emanaz joan dira besteai, besteac besteai; calte oec deadar eguiten due Jaunaren beguietan, deadar infernura joan diranac, deadar orain galduaz, erreaz becatuan dijoazenac; ta alaere gu quezcaric gabe! *Væ mundo ab scandalis,*

væ homini illi per quem, scandalum venit. Ceren becatu onequin Jesu-Cristoren neque icerdiac, ta gugatic isuri zuan odol preciotsua alferrac eguiten diran. Jaungoicoa eternidade gucian egonda bere gogoan daucala gure lagun urcoaren anima : ta demboraz eguiñ zuan berarequin batean eternidade gucian vici cediñ Ceruan. Cer eguiñ ez du onetaraco ? Anima ura ez galtzeagatic etorri zan Cerutic lurrera, artu zuan guizatasuna, igaro zan isequeen, gorrotoaren, azoteen, arantzen bidetic ; ta atzenean anima argatic isuri zuan odola, ta artu zuan eriotza, ta eriotza gurutzecoa. *Mortem autem crucis.* Baña certaraco dira gure Jaunaren aleguiñ oec gucioc, ecertaraco baldiñ guc alfer-eguiten baditugu ? Alferric anima ari aimbeste nai izan dio Aita Eternoac bere Jauregui, ta Palaciora eramateco asmoan : alferric Espiritu Santuac nai izan du bere Esposatzat : alferric semea guizon eguiñ zan : alferric aimbeste neque oñaze igaro zuan : alferric isuri bere odola, ta alferric gurutzean eman bere vicitza, ceren guc gure vicitza gaistoarequin galdu degun aimbeste costataco anima ori.

Cer nai dezue, oraiñ nere Cristauac, cer nai dezue becatu mota onen gañean nic esatea? Aimbesteraño-co des-leyaltasuna deritzat Jesu-Cristori aimbeste costa citzayon animac gal-eraztea, ta etsayari ematea, ceñ ez nuque sinistuco becatu-mota onec barcacioric duanic, fedeac eracusten ezpalit : ta Jesu-Cristoc berac: obe litzaque becaturaco bidea ematen duanarentzat, dio errotarri andi bat lepoan erantsiric itsasoan ondatzea. *Necesse est ut veniant scandala, verum tamen væ homini illi, per quem scandalum venit. Qui autem scandalizaverit unum de pusillis istis, qui in me credunt, expedit ei, ut supendatur mola asinaria in colo ejus, et demergatur in profundum maris.* (Math 18.)

Universidad de Deusto
Biblioteca

Jauna, ta ez da bada erremedioric? Bai nere Cristauac, ez guera galduco, galtzen baguera erremedioa gabez. Erremedioa da negar viotzetic eguiten dala bacoitzac aitortzea bere becatuac: erremedioa da penitencia eguitea: erremedioa da Jaunari maiz, ta gogotic erregutzea becaturaco bidea eman diegunacgatic, ta atzenean David Santuac Jaunari esaten ciona: Jauna esaten cion, eracutsico dieztet gaistoai zure Leguearen pausoac: oraindaño cere mingañarequin galdu badituzu asco anima birava, ta itz nazcagarria dariozula, mingaiñ ori izan bedi emendic aurrera Jauna alabatzeco: oiñ oriec izan badira becatura, jolas gaistoetara laster eguiteco, izan bitez oraiñ maiz Elizaratzeco: escu oriec izan badira licharreriaraco, ta cere gorputz-animac loitzeco, izan bitez lagun urcoari laguntzeco: gorputz ori oraindaño izan bada atseguin ez garbietan erretzeco, izan bedi emendic aurrera nequearen, ta penitenciaren azpian vicitzeco. Guisa onetan len zugandic gaitzeraco bidea artu duenac icasico due. Jaungoicoaren bidea. *Docebo iniquos vias tuas*; ta cembait galdu badira betico, muguituco dezu Jauna oei eguiñ diezun calteacre barcatzera; muguituco dezu bere Misericordiac ubari zure gaiñ isurtzera, ta atzenean eriotz on batequiñ betico gloria ematera. (Ad quam nos &.)



GARIZUMAREN LENVICICO IGANDERACO.

2.ª

BECATARI, DEMBORA EGOQUIAN JAUNAGANA BIURTU OI DANAREN ERIOTZASEN GAÑEAN.

Ductus est Jesus in desertum á Spiritu, ut tentaretur á Diabolo. Math. c. 3.

Ceiñ ona gure Salvatzalle Jesus maitagarria! Badacus, gure emengo vicitza gucia dala soldadesca, ta guerra utsa, Job Santuac cion eran: *Militia est vita hominis super terram.* Eta au dacusanac bezala jartzen da Salvatzallea bera pelean etsayaren contra, eracusteco guri animaren guerran eguiñ bear degunа. Eraman zuan Espiritu Santuac bacardade, edo eremu batera. Barautu zan berroguei egun, eta gauean, igarotzen zuala dembora au gucia ecer-ere jan gabe, ta edan gabe. Gosetu zan, eta ona non datorquion etsaya tentatzera al duan sayets gucietatic. Etziaquian etsayac, Jesus zala Jaincoaren Semea, ta munduaren Salvatzallea, baña bazuan bere beldurra, eta jaquiñ nai zuquean au. Argatic iru aldiz tentatu zuan aiñ trebe, non uste izan cezaquean, guizon utsa bazan Jesus, garaituco zuala erraz; eta Jaincoaren Seme, eta Mesias bazan, aguertuco zala nor zan. Lenengo equiñ aldian esan cion: *Jaincoaren Semea bacera zu, esazu, biur ditecela ogui, orraco arri oriec. Si filius Dei es, dic, ut lapides isti panes fiant.*

Universidad de Deusto
Biblioteca

Erantzun cion Jesu-Cristoc: Letraz ezarria dago: *ezta* guizona ogui utsarequiñ vici; vici da (animaren aldetic) Jaincoaren itza entzuten, eta itz onez adierazten diona contuz eguiten duala. Mututuric gueratu zan etsaya Jesusen erantzuerarequin; baña etzuan ala ere etsi berearequiñ irteteaz. Artu zuan Jesus (gure onagatic utsitzen cion alabaña etsayari tentacio oec prestatzen); artu zuan Jesus, eraman zuan Jerusalengo Elizaren gañera, eta esan cion: *Jaincoaren Semea bacera, salta zaite or beera;* bada letraz ezarria dago: *Aguindu cien bere Aingueruai zaitu zaitzeela, eta emendic erortzean artuco zaitue beren escuetan, miñic artu ez dezazun zure oñetan. Si filius Dei es mitte te deorsum.* Escritura Santaco itzacquiñ equiñ bacion, Escriturarequiñ berarequiñ erantzun cion Jesu-Cristoc: *Escribitua dago: Ez dezu tentaluco zure Jaun Jaungoicoa.* Bigarren pelea onetan gaizqui irten bazan-ere etsaya, etzuan utzi bere aria. Artu zuan berriz Jesus; eraman zuan mendi guztiz goi baten erpiñera; bat batean eracutsi ciozcan munduco erreñu guciac, eta beguien aurrean ipiñi ciozcan gucietan arquitzen ciran edertasunac, eta esan cion: *Emango dizquitzut ecusten dituzun gauz oec guciac, belaunico jarri ta adoratzen banazu zure Jauna bezala. Hæc omnia tibi dabo, si cadens in terram adoraveris me.* Erantzun cion Jesu-Cristoc: *Oa ortic Satanas escribitua ceagoc: Adoratuco dezu zure Jaun Jaungoicoa, eta ura bacarric servituco dezu. Dominum Deum tuum adorabis, et illi soli servies.* Lotsaturic, eta naigabez betea joan zan etsaya andic bere lecura. Bereala etorri ciran Ceruco Aingueruac, eta ecarri cioen Jesus onari bear zuan jan edana. Au da, nere Cristauac, gaurco Evangelioac dacarrena. Cembat gauz eder ez dizquitzu emen eracusten gure Salvatzalleac? Eracusten digu, nola gure animac

prestatu bear ditugun etsayarequin peleatzeco. Eracusten digu, ez degula gueren nayez becaturaco bide, perill, eta tentacioetan sartu bear, batez-ere garbitasunaren contraco perilletan; eta sartzen dana goizago, edo beranduago loitua gueratuco da. Eracusten digu gañera, beinta berriz garaituagatic etsaya, ez degula zabartu bear, ceren ura era onaren zai dagoan, gu gaitzera amil-erazteco. Atzenean adirazten digu, leyalqui peleatzen duanari bidaltzen diozcàla Jaunac Ceruco laguntzac, eta indar berriac. Baña eguiñ ote degu, ta eguiten ote degu gure Salvatzalleac aiñ ederqui eracutsi diguna? Au eguiñ ordean ederretsitzen die becatariac bere griña charrai, eta amilduaz dijoa becatuaren mallatic mallara, eta arreizquero eztu cer eguiñ andiric etsayac atzeneco tranceraño. Argatic gaur itzeguiñ nai dizuet becatari, dembora egoquian Jaunagana biurtu ez danaren, eriotza icaragarriaren gañean. Becatariaren eriotza ceiñ icaragarria dan adierazteco, beguien aurrean ipiñico dizquitzuet lembicia: becatariaren viotza inguratzen duen gogoracio samiñac. Bigarrena: trance artan Jaincoagana viotza jasotzeco becatariaren nequeac eta etsimen isill bat. Atzenean eriotza bera. Goacen oraiñ Espiritu Santuaren arguiaren billa, bitarteco ipintzen degula Virgiña guciz Santa Aingueruarequin batean esanaz. *Ave Maria.*

Ductus est Jesus in desertum á Spiritu, ut tentaretur á Diabolo. Math. c. 4.

Ill bearra da gauza bat gucioc aitortzen deguna, onac, eta gaistoac, fededunac, eta fedegabeac. Au aditzera ematen digu alabaña ezagüera zucenac. ¿Cer? Ez guera vici lurrezco ontzi batzuetan? Eta

Universidad de Deusto
Biblioteca

ontzi egun oro loya, ta ciquinqueria dariezenetan? Ez guera adiñ batera ezquero egunetic egunera deseguiten, aultzen, usteltzen? Ill bear degu beraz. Au aditzera ematen digu gañera beste guciacquiñ guertatu danac, eta guertatzen danac. Non dira gure lembicico gurasoac? Il ciran. Non dira ondorengo Patriarcac? Il ciran. Non dira legue zarreco Patriarcac, Erregueac, Aita Santuac, beste guizon andi, ta chiquiac? Il ciran. Non dira gueroztic mundura aguertu ciranac, oraingoaz osterontzecoac? Il ciran. Il bear degu beraz guc-ere. Bai; eta ez die eriotzac barcatuco, ez Erregueai, ez oen mendecoai, ez Aita Santuai, ez oen mendecoai; ez andiai, ez chiquiai, ez aberatsai, ez beartsuai, ez ederrai, ez itsusiai. Berdiñ sartzen da erioa beartsuen echoletan nola Erregueen Jauregui, eta torreetan, esan zuan gentil batec. *Palida mors æquo pulsat pede pauperum tabernas, regumque turres.* Au eracusten digu atzenean gure fede Santac. Adan gure lembicico gurasoac ausi ezpalu Jaunaren aguintea, Adan eta beraren ondorengoac etzuen ill bearric; baña etzuan eguiñ Adanec Jaunaren esana, eta berequiñ bere ondorengoentzat irabaci zuan eriotzaren pena. Autsa cera, ta auts biurtuco cera esan cion Jaunac. *Pulvis es, et in pulverem reverteris* (Genes c. 3). Argatic dio S. Pauloc: erabaquia dago guizonentzat iltzea, ta iltzea beiñ. *Statutum est hominibus semel mori* (Ad Heb. c. 9.). Justuac sarritan ipintzen du beguien aurrean eguia; aldeguiten du becatuaren bideetatic, sayatzen da ongui iltzeco bear diran neurri guciac artzera, beti dago prest eriotza datorreneco; eta datorrenean humilqui aditzen du Jaunac guciontzat emana daucan sentencia. *Statutum est hominibus semel mori.* Ecusten du era onetan prestaturic dagoan animac, bucatzen zaizcala emengo

nequeac, elcar eciñ ecusia, becaturaco perillac. Ecusten du, etorri zayola bere errira joateco dembora; eta noizbait utseguiteen batzuec guertatu bacitzaizcan ere, bere barrumbeac esaten dio, nola aleguiña prestaturic aitortu cituan, eta gueroz nola vicitza onari jarraitu dion, eta emendic sortzen zayo bere viotzean Jaunaren ontasun, eta Misericordiaren uste, edo esperantz andi bat. Zori onean entzun nituan, dio beregan, araco dotrina, ta sermoi aec; zori onean utzi nituan becaturaco bideac, perillac, jolas gaistoac, itz eguite, ta adisquidetasun limuriac; zori onean utzi nituan usurac, tratu ciquiñac, errico contu nastuac. Zori onean equiñ nion Ceruraco bideari. Aratzeco ustea ematen dit Jaunac. O! Jesus ona! noiz ecusico zaitut? Era onetan justuac sosegu andi batequiñ ematen du bere vicitza Jaunac dionean. Ala eman zuen Santo Domingoc, Santa Catalina Senacoac, S. Francisco Javierrec, Santa Teresac, eta beste eciñ conta al anima onec, eta Suarez veneragarriac cion: Ez nuan uste izan beñere, onen gauza gozoa zala iltzea. *Numquam putabam esse tan dulce mori.*

Baña ill bearraren berriac achitzen duanean becataria bere griña, ta pasio charren ondoren itsuturic dabillena, ¿norc esan, ceiñ illuntasun, eta tristura andiac, ceiñ gogoracio samiñac inguratzen duen beraren viotza? Etzuan becatariac aditu nai izan dembora egoquian, ceiñ gauza gaistoa, ta samiña dan guc gure Jaun Jaungoicoa utzitzea, ta ceiñ ondoren negargarriac datocen emendic. Eta noizta guchiena uste duan iltzea, arquitzen da bereala ill bear dualaco berriarequin. Orduan nere Cristauac; orduan deseguiten dira, munduac, eta pasio charrac animaren beguietan zabaldu ciozqueen lañoac, eta bat batetan ecusten ditu gauzac

Universidad de Deusto
Biblioteca

diran bezala. Ay! dio batzuetan, nic uste nuan nigandic urruti arquitzen zala eriotza, eta ez nituan ecertan artzen confesore, ta Predicadoreen esanac; eta ona cer trancean ipiñi dedan nere burua. Ill bear det, eta ill bereala! *Ecce morior*! Gaitz erdi lizaque bi aldiz ill bear banu, baña iltzea da beiñ bacarric eguiten dan lana. *Statutum est hominibus semel mori*! Ill bear eta ill bear bereala. *Ecce morior*. Eguiñ ninduan Jaunac ecer ezetic, eta eguiñ ninduan bera amatzeco, servitzeco, ta berarequiñ beticotasun gucian doatsu izateco; au zan nere lan bacarra, baña au da nic ecertan iduqui ez dedan lana: ta oraindic lan oni equiñ baño len iltzera noa! *Ecce morior*. Ni mundura aguertu orduco, ederqui prestatu cituan Jaunac, emen vicitzeco bearco nituan gauza guciac, eta gauz oezaz valiatu naiz beraren contra alchatzeco, eta ezta neretzat izan nere gura charrac beste Jaincoric. Eta oraiñ iltzera noa, eta iltzera bereala! *Ecce morior*. Deitu ninduan Jaunac bere fede, ta Legue Santara, utziric beste asco fedearen arguiric ez duen gendeen artean; eguiñ ninduan Jainco beraren ume, ta Ceruaren jabegai, edo heredero; eta ontarte, edo mesede onen andiari esquer onez, eta vicitza on batequiñ erantzun bearrean, fedegabearen eran, ta ascoz gaizquiago vicitu naiz: ay! ta iltzera noa! *Ecce morior*. Nere oneraco utzi ciozcan Jaunac bere Elizari zazpi Sacramentu, eta oen artean confesioco, ta Comunioco Sacramentua; baña oec biurtu izan ditut nere caltetan; ez nintzan alabaña ongui prestatzen; ez nuan esamiñaric eguiten; ez nintzan ongui damutzen; ez nuan viotzic becatuaren bideac betico utzitzeco, nere griña charrac ecitzeco, eta besteren gauzac jabeari biurtzeco; eta nere confesio guciac izan dira iduripen uts bat. Eta oraiñ iltzera noa? *Ecce morior*.

Ni Ceruraco bidean sar erazteco, utzi cion Jaunac Elizari bere itz Santuaren sendagai miragarria; baña ni iguesi ibilli naiz dotrina, ta sermoyetatic, eta enzun ditudanean ere erausian, eta aditzen ez ditudan gauzetan nola nai itzeguitea izan da nere frutu gucia: ta oraiñ ill bear nic bereala? *Ecce morior*. Ay! eciñ conta al dira nic eguiñ, eta eraguiñ ditudan becatuac, asco dira nigatic betico galdu diran animac! eta oraiñ ill bear nic bereala? *Ecce morior*? Gogoracio samiñ oec equingo dioe becatari gaisoari, eta cembat alderago daucan bere ill bearra, ambat gueyago illuntasunez, eta tristuraz beteco due Antioco Erregueari guertatu citzayon eran. Antioco Erreguea, usteric guchiena zuanean, artu zuan iltzeco gaitzac bere erritic campoan; eta ezaguturic iltzera cijoala, aiñ illuntasun, eta tristura icarragarriac artu zuan, non gueratu zan loric eciñ eguiñ zuala, ta ecertaraco etzala. Deituric bere adisquideac, joan da nigandic loa, esaten cien: *Recessit somnus ab oculis meis*. Cembat neque, ta tristurareu artean ez det nere burua ipiñi. Oraiñ oroitzen naiz Jerusalenen eguiñ nituan gaistaqueriaz. *Nunc reminiscor malorum, quæ feci in Hierusalem*. Oraiñ ezagutzen det, emendic datorquidala nere gaitza: ta orra tristuraz iltzera noa lecu arrotzean. *Ecce pereo tristitia magna in terra aliena* (Machab. 1. c. 6.). Ecusten dezu, Cristaua, ceiñ gogoracio samiñac inguratzen duen becatariaren viotza, ill bearra datorquionean? Ecusten dezu, ceiñ icaragarria dan alde onetatic becatariaren eriotza? Ta asiera bestcric ezta au gucia.

§ II.

Badacus becatariac iltzera dijoala, ta bereala. Badacus, eguiaz ta viotzetic Jaunagana biurtzen ez-

Universidad de Deusto
Biblioteca

pada galdua dala betico; baña neque da, eta neque andia, alaere, Jaunaren aserreac era onetan achitu duan becatariaren viotza, bear dan eran, Jaun beragana biurtzea. Argatic dio S. Pauloc: Gauza izugarria da Jainco viciaren escuetan erortzea. *Horrendum est incidere in manus Dei viventis.* (Ad Hebræos c. 10). Ta ala arquitzen da becatuaren bide, perill, eta oituretan dabillena; ill bearra datorquion becataria; achitua dago gaistaqueriaren bidean vici dala, ta iltzeco sentencia bere gañean dauca. *In operibus manuun suarum comprehensus est peccator.* (Ps. 9) Eta erraz da trance onetan becataria, beardan eran, Jaunagana biurtzea? Ez; nere Cristauc, ta gauz ederra izan ordean da guchitan guertatzen dana. Alde ascotatic datorquio neque au becatariari. Datorquio benic beiñ bere buruagandic. Azaldatzen du alabaña bere ilbearrac. Azaldatzen due umeen, echecoen, eta aideen negarrac. Azaldatzen due eta loturic bezala utzitzen bere gaistaqueriac; ta beste aldetic gaitzac berequin dacartzian nequeaquin ez dago ecertaraco. Gaistoa achitzen due, eta loturic ipintzen bere gaistaqueriac, dio Escritura Santac, *Iniquitates suæ capiunt impium, et funibus peccatorum constringitur.* (Prov. c. 5.). Baldin osasuna onean gaudela ecin ascotan moldatu baguera confesio on bat eguiteco, ta gure utseguiteaz bear dan eran damutzeco; baldin naigabe batec, buruco, edo aguiñetaco miñ batec ecertaraco ez guerala utzitzen bagaitu: ¿cer izango da eriotzaren beldurrac, eta nequeac inguratzen gaituenean? Becatariaren viotza bere oitura gaistoacquin gogortua, ta chingude biurtua dago; eta neque da, neque da, era onetaco viotza bat batean gozatzea, eta ongui maneatzea. Neque da, nere Cristauac, osotoro usteldua, edo igartua dagoan arbola batec batetan lore ederrac, eta frutu gozoac

ematea. Neque da zalquea ebaquitzen danean, ogui biurtzea. Neque da ongui vicitzen, eta ongui iltzeco prestatzen beiñ-ere icasi ez duanac batetan icastea. Neque da Etiopiaco batec bere larru beltza, eta tigreac bere manchac utzitzea. Eta neque onen antzecoa da becatariac iltzeco demboran Jaunagana biurtzeco duan nequea. *Si Æthiops mutare potest pellem suam, et pardus varietates suas, et vos poteritis bené facere, cum didiceritis malum.*

Neque au datorquio gañera becatariari bere etsayagandic. Ecusten du etsayac, ordu artaraño berea izan duala becataria, eta atzeneco vicitzaren condoan contu eguiten ezpadio igues eguin lequioquela bere atzaparren artetic Quezca onequin biltzen dira infernuco etsayac, eta goseac igaroric eizaren zai dauden leoyen eran inguratzen due becatari gaisoa. Equiten dioe alde gucietatic; batzuec buruan sartzen dioe; ez dala gaitza uste duan beceiñ andia, ta bear bada igaroco zayola; besteac equiten dioe bere demboran erren eguin duan alde artatic. Cuticiara, usura, ta tratu ciquiñetara macurtua izan danari beguien aurrean ipiñico diozquee irabaz bide berriac. Aucilariari paperac, eguiñ oi diran trampac, eta engañioac. Antuste ta soberbiara etziña izan duanari soñua joco dioe alde onetatic eta au bera eguingo due jolas, ibillera, itzeguite, ta adisquidetasun gaistoetan vicitu danarequin ¿Eta bere dembora gucian etsayaren contra peleatzen icasi ez duanac, bere griña, eta oitura gaistoac ecitzera sayatu ez danac, nola bat batetan icasico du etsaya garaitzen? Neque da nere Cristauac. Au aditzera eman cion Jerusaleni, eta gutatic bacoitzari Salvatzalleac esan zuanean: Etorrico da egun bat, dio, ceñean inguratuco zaituen zure etsayac: *Circumdabunt te inimici tui vallo;* eta ez dira sosegatuco zu mendera artean; ta au guer-

Universidad de Deusto
Biblioteca

tatuco zatzu, ceren enzun nai izan ez dituzun nere Aingueruen, confesore, ta Predicadoreen autic bidaldu dizquitzudan gaztigu, edo avisoac. *Eo quod non cognoveris tempus visitationis tuæ.*

Atzenean becatariaren Jaungoicoagana biurtzeco nequea etorri oi zayo becatariari, ceren Jaunac bere esquergabequeriaren penan guchitzen diozcan bere laguntzac. Ecuzten du bada becatariac bere trance onetan alde batetic bere il bearra; bestetic ecin ongui moldatu duala bere burua Jaunagana biurtzeco. Ecusten du infernua bere eztarritzarra zabalduric, eta igues eguin nai luque eriotzagandic, baña alferric. Emana dago sentencia, ta nai ta ez joan beardu mundu onetatic, dio S. Pedro Damianoc. *Manere satagit, ire compellitur.* Norc esan oraiñ ceiñ estutasun andiac inguratuco duen becatari tristea trance artan? Gueratu nai luque emen eta ez dio utzitzen dio S. Pedro Damianoc: *Manere satagit, ire compellitur;* Atozea oraiñ, Cristaua, ezta icaragarria era onetan arquitzen dan becatariaren eriotza?

§ III.

Baña goacen eriotzari berari beguiratzera. Badatorquio lasterca becatari gaisoari bere ordua. Norgana biurtuco da becatari tristea trance onetan. Biurtuco ote da becataria gure bitarteco, eta Ama onagana, edo Virgiña guciz Santagana? Baña Virgiña guciz Santac ez du adituco. Zoaz esquergabe madaricatua, esango dio bere viotzera; zoaz nere Semearen, eta Eliz Ama Santaren etsaya; zoaz lizunquerien, eta vicitza loyean irabiatzea besteric nai ez dezuna, zoaz dagoquizun lecura. Biurtuco ote da S. Miguel Aingueruagana? Baña onec lagundu ordean bere aurpeguira emango dio, nola Demonioaren banderai jarraitu dien, utziric Jesu-Cristo. Biurtuco ote da Apostoluetara? Baña oec esango dioe: Judasec saldu zuan Jesu-Cristo ogueita amar diruan, baña zuc saldu dezu ascoz merqueago. Saldu dezu itz deshonesto bategatic; saldu dezu queñada lotsagarri bategatic; saldu dezu uquitze ciquiñ bategatic. Zoaz, zoaz Judas cere lagunagana. Biurtuco ote da Ceruco beste Santuetara? Baña oec esango dioe: nondira zuc Jaincotzat adoratu dituzun munduco gauz oriec? Non dira atseguiñ contentuac? Non dira gauetaco egoerac, esamesa, ta erausiraco bidea ipintzen cenduala? Non dira edanean, jocoan meza arteac, eta vezperetaco dembora igarotzeac? Non dira zure irabaciac, usurac, licharreriac? Non dira zure adisquideac, zure lagunac, eta estalquiac. *Ubi sunt Dii tui, qui fecisti tibi?* Betoz oraiñ, eta atera zaitzeela estutasun orretatic? *Surgant, et liberent te in tempore afflictionis tuæ.* Norgana bada itzulico da becataria ordu icaragarri onetan? Bere Jaunagana? Baña esango dio Jaunac: deitu dizut aimbeste bider, baña ez dituzu ecertan artu nere deyac. *Vocabi, et renuistis.* Eman dizquitzut aimbeste ateleca confesoreen, Predicadoreen, eta liburuen bidez, baña gucia izanda alferra. *Increpationes meas neglexisti.* Dotrina, sermoi, ta Misioetan ibilli nintzan zure billa, nere escua luzaturic zu becatutic ateratzeco baña zu esquergabea ibilli ciñan nere iguesi. *Extendi manum meam, et non fuit qui aspiceret.* Oraiñ, oraiñ nic ere zuzaz farra eguingo det. *Ego quoque in interitu vestro ridebo.* Au eguin oi du Jaunac becatari esquergabearequin Escritura Santac aditzera ematen digunez. Iltzen da becataria era onetan, bearbada Sacramentuac arturic, eta munduaren beguietan ongui, baña Jaunaren aurrean gaizqui, eta amiltzen da beti betico su, eta garren artean.

Ecusten dezu , Cristaua , ceiñ icaragarria dan becatariaren eriotza ? O eriotza ! dio Escritura Santac ; O eriotza! ceiñ gauza samiña dan zure oroipena munduco gauzetan viotza daucanerentzat. O ! *mors , quam amara est memoria tua homini pacem habenti in substantiis suis* ! (Eccli 4.) Ez gaitecen bada gueyago engañatu ; utzi ditzagun becatuaren bideac , baita escandaloa ematen duen itzeguiteac, egoerac ere ; eguiñ ditzagun confesio on batequin paqueac gure Jaun onarequin , eta Virgiña guztiz Santa bitarteco degula vici gaitecen contuz , iristeco eriotza on bat , eta guero beti betico vicitza doatsua. *Ad quam nos* &.



GARIZUMAREN BIGARREN IGANDERACO.

GORPUTZAC IZANGO DUAN BETICO ZORI ON, ETA DOATASUNAREN GAÑEAN.

Domine, bonum est nos hic esse. Math. 17.

Beti aditu bear ote dira lecu onetatic becatarien contraco gauz illun, eta izugarriac ? Ez ote zate cerbait esan bear , becatua , eta becatuaren bideac utziric Jaunaren legue Santa gordeaz vici diran animai? Ez ote zate gozagarriren bat eman bear , alaitu ditecen Ceruraco bidean ? Bayetz dirudi , eta ala eguin zuan Jesus onac S. Pedro , S. Juan , eta Santiagorequin.

Aditzera eman ciezten Jerusalenen igaro bearco cituan nequeac, eta gurutzeco eriotza: eta nai ta naiez illuntasunez beteco ciran berri oequin Apostolu oen viotzac; baña alaitu, ta oraiñ esatera noan eran. Artu cituan berequin , eta joan zan mendigañ batera. Iruren aurrean jarri zan era miragarri batean. Aurpeguiac argui eguiten cion eguzquiaren eran, eta soñecoac añ ederrac , eta zuriac ceuzcan , non elurra bera cirudien. Aguertu ciran Moises , eta Elias , eta itzeguin zuen , Jesusec munduaren oneraco igaro bear zuan eriotzaren gañean ; joan ciran andic Moises, eta Elias; eta jarri zan Jesus len oi zan eran, edo ezcutatzen zuala mirari andi batequin bere doatasunari cegocan edertasun gucia; S. Pedroc esan cion: Jau-

Universidad de Deusto
Biblioteca

na gauz ona , eta atseguin andicoa da emen egotea: *Bonum est , nos hic esse*: eguin ditzacun iru lecu, bata zuretzat , bestea Moisesentzat , eta bestea Eliasentzat. Ozta au esan zuan S. Pedroc , aguertzen da odei guciz argui bat , eta dembora berean aditzen da turmoiaren otsa: eta itzeguiten du Aita Cerucoac era onetan : au da nere Seme maitea : onegan izan da beticotasun gucian nere atseguin-contentua : enzun , eta eguiñ ezazue eracusten dizuena : *Hic est filius meus dilectus , in quo mihi bene complacui : ipsum audite.* Turmoyaren otsarequin izutu , eta auspez lurrera erori ciran iru Apostoluac. Jesusec, bere escuarequin uquitzen cituala , esan cien : *alcha zaitezte , ez icaratu, eta ez iñori esan ecusi dezuena, piztu nadiñ artean.* ¿ Cer aditzera ematen ote digu misterio onec ? Aditzera ematen digu , Jesus dala Aita beticoaren seme maitea , gugatic guizon eguiñ, eta gurutzean vicitza eman zuana. Aditzera ematen digu gañera , emengo neque, ta gurutzeac Jaunaren icenean daramaizquianac izango duan betico zori on, eta doatasuna. Zori on, eta doatasun au bi guisatara da. Bata da gorputzari dagocana, eta au izango da gaurco itzaldiaren gai gucia. Aurrena aditzera emango det, nolaco vici lecua prestaturic daucan Jaunac bere servitzarientzat. Urrena, nolaco doayaquiñ apainduco duan Jaunac zori oneco bacoitzaren gorputza. Atzenean, nolaco atseguiñ-contentuac izango dituan zori onecoac bere gorputzeco sentidu bacoitzean. Enzun nazazue arreta andiarequiñ zuec, Jesu-Cristoren legue eder garbia gordetzen dezuen anima onac, eta beude besteac utzi nai ez dituen gura gaisto, ta atseguiñ lotsagarrien locaztian. Baña onetan asi baño len billa dezagun Espiritu Santuaren arguia, arturic bitarteco Virgiña chit Santa Ainguеruarequiñ batean esaten diogula. *Ave Maria.*

§ I.

Domine, bonum est nos hic esse. Math. 17.

Gure fede santac eracusten digun eguia da, prestaturic daucala Jaunac bere servitzarientzat betico zori on, eta doatasuna, Fedeac eracusten digu gañera, doatasun au izango duala, ez animac bacarric, baita gorputzac ere, ceren animaren neque, eta obra onetan lagun izan zan. Ala sinisten degu gucioc. Gorputzaren doatasun au nolerebait ezagutzeco, beguira, Cristaua benic beiñ nolaco vicilecua zuretzat prestatu duan Jaunac.

Cer vicilecu prestatu dizula Jaunac, uste dezu, nere Cristaua? Vicilecu au da Aita Cerucoaren jaureguia bera; vicilecu au da Ceruco Jerusalen ederra. Vicilecu onen anditasunari beguiratzen badiozu, ez du neurriric, eta ecer ez da mundu gucia, aren pare ipintzen badezu. O Israel, arrituric dio Baruc Profetac: *Cein andia dan Jaunaren echea! Ceiñ andia beraren vicilecua!* Andia da, eta ez du bucaeraric: guciz goya eta neurriric, edo mugarric ez duana: *Magnus est et non habet finem: excelsus, et inmensus.*

Eta vicilecu onen edertasunari beguiratzen badiozu, ezta adimenturic au ongui ezagutzeco, ta are guchiago mingañic, dan bezalacoa aditzera emateco. S. Paulo eraman zuan beiñ Jaunac vicilecu onetara, eta andic jachi ondoan eztaqui cer esan, eta arrituric dagoan baten eran esaten digu, ez due beguiac ecusi, ez due belarriac aditu, ez guizonaren adimentuac iritsi, nolaco ondasunac prestatu dituan Jaunac bere servitzarientzat. Eta beste batean cion, ecusi cituala guizonac ecin adiraci litzaquean gauza miragarriac. S. Joani eracutsi ciozcan Ainguеru batec

Universidad de Deusto
Biblioteca

Ceruco erria, eta erri onen edertasuna, eta au nolerebait guri adirazteco baliatu zan emengo arri ederren, edo urre, arri, eta cristalaren icenaz, ez ceren onelaco gauzaric an arqutzen dan, baicic ceren ecin guc ezagutu dezaquegun Ceruco erriaren edertasuna, emengo gauz ederren laguntzarequin baicic. Ea zuec, anima onac, emengo gurutze, ta samintasunen artean Jesusi jarraitzen diozuenac: zuec beartsu, ta emengo eraric gabe vici ceratenac alcha itzatzue zuen gogo, eta viotzac Ceruronz, eta beguira S. Joanequin batean, zuentzat Aita Cerucoac eguiñ duan vicilecu ederrari.

Chit ederra, eta apaindua dago, aguiri dan, Ceru ori. Izarrac, ta eguzquiac argui eguiten, eta distiatzan due era miragarrian, eta chit eder ematen due, baña jaquizu, ori gucia ez dala zure vicilecuaren ataria baicic. Zoaz, Cristaua, goorago, eta arquituco dituzu Ceruco erriaren murallac. Lau esquiñetara, edo cuadroan eguiña dago erri au dio Juanec: *Civitas in quadro posita est*: eta inguratzen due muralla guciz eder amabi arri-errencadarequin eguiñac. Lenengo errencada da jaspe guciz garbia, cristalaren eran arguia igarotzen zayona. Bigarren errencada da Ceru-colorea duana, eta S. Juanec deitzen dio *Safiro*. Irugarren errencada da brasa eracequiaren anza duana, eta deitzen dio S. Joanec: *Calcedonio*. Laugarrena da *esmeralda*. Bostgarrena, *zurigorria*, eta deitzen dio S. Juanec *Sardonix*. Seigarrena da S. Juanec *Sardio* deitzen dion arri eder bat. Zazpigarna urre-colorea duana, eta deitzen dio Santuac *Crisolito*. Zortzigarrena da berde dirudiana, eta deitzen dio *berilo*. Bederatzigarren arri-errencada da *Topacio*. Amargarrena da urrecolorea berdearequin nastua duana, eta deitzen dio S. Juanec *Crisofraso*. Amaicagarrena da cazmin colorea duana, eta deitzen dio *Jacinto*. Amabigarrenari deitzen dio *Ametisto*. Arri-errencada bacoitzac izango ditu ecin conta al milloi legua; guciac dira pusca gabeac, edo osoac, eta argui eguiten due cristalaren eran. ¿Eta añ ederrac badira murallac, cer izango da erria bera?

Erria bera cer uste dezu? Urre garbia dio S. Juanec, eta ez nola nai urrea baicic, da cristalac bezala argui eguiten duana: *Ipsa vero Civitas aurum mundum simile vitro mundo*. Lau esquiñetara eguiña da len esan dedan eran, eta bere lau aldeetan ditu amabi ate, au da, alde bacoitzean iru. Ate bacoitza da *margarita* deritzan arri preciotsuz eguiña, eta ez puscaquin, baicic arri osoaquin, eta distiatzen due guc esan al baño era miragarriagoan. Amabi ate oec beti daude idiquiac ala gauez, nola egunez, Jaunaren graciaren soñeco ederrarequin dijoacen gucientzat. Sar zaite Cristaua ate oetatic. Cer ecusico dezu? Ecusico dezu, erria ezecic, erri onetaco caleac, plazac, eta lecu guciac dirala urre garbia, S. Juanec dionez: *Et platea civitatis aurum mundum*.

Aditzen dezu, Cristaua, nolaco vicilecua prestatu dizun zure Jaun onac? Ez da izan munduan Erregueric Jauregui añ eder, ta galanta izan duanic. Baña cer diot nic añ eder ta galanta? Munduco urre, cillar, diamante, ta beste arri ederrac: munduco erreñu guciac icaz pusca bat, edo gorotza besteric ez dira zure vicilecuaren aldean. Alaere, ó Adanen umeen itsumen negargaria! lur pisca baten ondoren aimbeste guerra eguiten, eta aimbeste odolezco ibayac isurtzen dira, eta dembora berean aztutzen guera Ceruco erri zoragarriaz. Noiz artean iraun bear ote du gure zoraqueriac? Baña goacen aurrera, ta dacuscun, nolaco doayaquin apainduco duan Jaunac zori onecoaren gorputza.

Universidad de Deusto
Biblioteca

§ II.

Zori oneco, edo doatsua, lurrean vici dan bitartean ere, da Jaunaren echea; beraren vicilecu, edo Eliza bezala, eta Espiritu Santuac edertzen, eta apaintzen du animaren aldetic bere doayaquin. Cer izango da gorputz, eta anima Cerura daramanean? Cer izango da Jaunac bere edertasun neurriric, ta mugaric ez duana eracusten dionean? Ez da Jauna contentatuco anima era onetan doatsu eguitearequin, baicic gorputza ere janciera guciz eder batequin apainduco du Aita Cerucoaren umeari, Jesu-Cristoren señide, eta Espiritu Santuaren vicilecuari dagocan eran.

Lau doai izango dira, doatsuaren gorputzaren apaindura au, Elizaco gurasoac eracusten digüenez. Lenengoa da arguitasunaren doaya. Doai onequin jancico da doatsuaren gorputza, eta argui eguingo du eguzquiaren eran, dio S. Mateoc: *fulgebunt sicut Sol*: eta au izango da apaindura bat beñere urratuco ez dana, apaindura bat beticotasun gucian beti berri egongo dana: apaindura bat munduac asma ditzaquean janciera guciac baño ederragoa. Bildu bitez diamante, eta arri mota eder guciac: bildu urreric garbiena, eta soñeco gai preciotsuenac; eguin bedi oraindaño aguertu diran guciac baño janciera chucunago bat. Alaere janciera au ecer ez, edo itsusia izango litzaque, edoceiñ doatsuc Ceruan izango duan apaindураren aldean.

Doatsuaren gorputza apainduco duan, bigarren doaya da alaco aro, ta sasoyean gueratzea, non iñondic ere eciñ izan dezaquean calte, eta nequeric chiquiena ere. Ez due otzac, eta beroac: ez due puzoyac, ezpatac eritasunac, eta eriotzac berac ere indarric doatsuaren gorputzaren contra, S. Juanec

esaten digun bezala: *Mors ultra non erit, neque luctus, neque clamor, neque dolor erit ultra.*

Irugarren doaya izango da añ vici ta ariña gueratzea doatsuaren gorputza, non beguien ichi-idiqui batean joan ditequean nora nai nequeric gabe Aingueruac joan oi diran eran. Emendic doai onequiñ joan liteque doatsua, batzuetan Jesus onaren, besteetan Virgiña chit Santaren aurrera, eta milloica igaro litzaque leguac gogoracio, edo pensamentuac bezala. Orregatic esan zuan Isayasec, artuco dituela egoac arranoen eran, eta ibillico dirala batere aunatu gabe: *Asument pennas, ut aquilæ, volabunt, et non deficient.*

Laugarren doaya izango da añ garbi, ta me gueratzea, non ecerc eragotzico ez dion edoceñ lecutan sartzea: Jesus ona Apostoluac arquitzen ciran, lecuan, ateac ichiac ceudela sartu zan bezala: eta ala nai izatera sartuco lizaque lurraren errayetan, eta an ezcutaturic dauden urre, cillar, eta arri ederrac ecusi ondoan irtengo lizaque erraz, eta nai bezala.

Esan guidazu oraiñ, Cristaua, ceñ Emperadorec, ceñ Erregue, edo Erreguiñac izan du onelaco doayric bere apaindura ta janci ederraquiñ? Eta apaindura au emango dio Jaunac doatsu bacoitzari, munduan dan beartsuena, eta aztuena baliz ere. Cristaua, eta apaindura au beste sariric ezpaliz ere ez da asco zu Ceruraco bidean gogotic ibiltzeco? Eta cer esango degu, zori onecoac gorputzaren sentiduetan izango dituan atseguiñ-contentuai beguiratzen badiegu? Atoz, Cristaua, eta oei ere eman deguiegun oraiñ beguiraldi bat.

§ III.

Doatsuaren animac, ecusiric Jaungoicoaren edertasuna, aimbesterañoco atseguiña izango du, non

Universidad de Deusto
Biblioteca

gañez eguiñic, zabalduco zayon bere sentidu gucietara, Davidec dion eran: *Cor meum, et caro mea exultaverunt in Deum vivum.* Baña izango da gañera sentidu bacoitzac, berari berezquiro dagocan atseguiñ, eta contentua.

Beguiac gordetzen ditu doatsuac, becaturaco bidea dacarten gauzac ecustea debecatzen diela: eta neque onegatic izango due beguiac sari chit ugaria. Ecusico due Jaunaren errico edertasun gucia. Aiñ miragarria da au, non emendic ecusi albaguentzaque, arrituric ez guiñaque jate, ta erateaz ere oroituco dio S. Vicente Ferrer-ec. Ecusico ditue eciñ conta al doatsu, argui eguiten duela bacoitzac eguzquiaren eran? Ecusico due Virgiña chit Santaren, edertasuna. S. Dionisio Areopagitac ecusi zuan Virgiña chit Santa artean lurrean vici zala, eta añ arguia, ta ederra iritzi cion, non esan zuan andiagoric eciñ ecusi citequeala zori onecoen artean ere. Eta Marina Escobar veneragarriac, ecusiric Virgiña guciz Santaren edertasuna, esan zuan, ecuste utsagatic ere necatu guindezqueala eciñ conta al urtetan. Eta cer izango da Jesus maitagarria ecustea? Ecusi zuanean S. Pedroc Jesus mendiaren gañean, eguzquiac bezala argui eguiten zuala, *Jauna, gauz ona, eta atseguiñ andicoa da*, cion, emen gu egotea. *Bonum est nos hic esse.* Eta cer esango zuan, Ceruan duan edertasun gucian ecusi balu?

Belarriai ucatzen die Jaunaren beldur Santuan vici danac itz loiac, ipui ciquiñac, eta lagun urcoaren contraco elaberriac enzutea, eta neque onegatic adituco ditu Ceruco Serafiñen, eta Aingueruen canta gozoac. S. Francisco Asisi, illuntasunez, edo tristuraz cegoan batean, aguertu citzayon Aingueru bat cherrebataren anza zuan gauzaren batequin. Uztai, edo arcuarequin eguin zuan soñua asitzeco queñada

bat, eta aimbesterañoco atseguiña artu zuan Santuac, non illco zan contentuz, utzi ezpalu Aingueruac bere soñu gozoa. Ceruco canten gozotasunarequin milloica joango dira urteac, dembora pisca bat balira bezala. Hau ezagutzeco ongui, enzun ezazu, Cristaua, Nafarroan Erligioso bati guertatua. Davidec canta batean dio: Jauna, milla urte zure aurrean atzo igaro zan eguna bezala dira: *Mille anni ante oculos tuos, tanquam dies hesterna, quæ præterijt* (Psal. 89. v. 41). Erligioso batec eciñ aditu zuan itz oetan Davidec diona, eta erregutu cion Jaunari, eman ceguiola gauz onen ezagüera. Aditzen du conventuaren aldean carnau edo chori baten canta chit gozoa, eta choriaren cantari cerraicala sartu zan basoan barrena. Guerotic guerora gozoago ceritzan cantari, eta iru ordu bezala igaro cituala ceritzan demboran, biurtu zan conventura, eta arquitu zan cer guertatzen etziaquiala. Conventua etzan len zana, ez eta Erligiosoac ere. Abade edo conventuco buruac galdetu cion, noiz irten zan: eranzun cion iru ordu bezala izango cirala. Galdetu cion berriz, ceñ zan orduan Abade, edo buru: eranzun zuan, *urlia*. Joan ciran liburuetara, eta ecusi zuen irureun urte cirala, urlia ura Abade izan zala. Aguindu cion Abadeac Erligioso ari ar cezala Jauna: artu zuan, eta bereala ill zan. Eta chori aren cantac ambat atseguin eman bacion esan dedan Erligiosoari, cer atseguin artuco ez du doatsuac betiraunde gucian Aingueru, ta doatsuen canta, eta soñuac adituaz?

Belarriai bezala, ucatzen diezte Jaunaren servitzariac beste sentiduai ere ongui ez diran gustoac, ala sudurrai, ausapayai, nola escuai, ta gorputz guciari: eta ilduracio onegatic izango ditu betico atseguin garbiac.

Orra, Jesusen legue Santa gordetzen dezuen ani-

Universidad de Deusto
Biblioteca

ma onac , orra nolaco zori on , edo doatasuna prestatu dizuen Jaun onac , gorputzarentzat. Alai zaitezte bada , alai zaitezte betico atseguin , eta ondasun oen ustearequin. Igaroco dira laster emengo neque, eta samintasunac. Igaroco dira munduac, Demonioac, eta griña charrac ematen dituen gurutze guciac , eta sartuco cerate betico paquea gozoan. Igaro da, esango dizue Jesus onac ; igaro da munduco nequea: *Jam hiems transiit*, eta etorri da zuentzat betico doatasunaren udaberria.

Eta zu , becatari aimbeste urte aetan cere doatasunaz azturic vici cerana , ez ote cera oraiñ ere esnatuco becatuaren lozorro orretatic? Gaurdanic betico adio esan nai diozu Ceruco edertasun guciari? Betico adio Ceruco atseguin guciai ? Ay ! ta baciñaqui cer galtzen dezun ! Ea nere , Cristauac , dembora da ezagutzeco certan dagoan gure zori ona. Billa dezagun arretarequin : vici gaitecen Jesus onac eracusten digun eran , onela iristeco beti iraungo duan vicitza doatsua. Amen.

GARIZUMAREN BOSTGARREN IGANDERACO. (*)

JAUNGOICOAREN ITZA ADITZEAREN GAÑEAN.

Qui ex Deo est verba Dei audit ; propterea vos non auditis , quia ex Deo non estis. Joann. cap. 8 v. 47.

Cein da , cein , nere enzunleac , gure artean, esan dezaquiana : *ni escribituric nago vicitzaren liburuan, salvatu bear duenen artean naiz ni* ? Iñor ez gure artean , nere enzunleac. Alaere gaurco Evangelioac beguien aurrean ipintzen digu señale andi bat batzuentzat Ceruraco , besteentzat eternidade gucian iraun bear duen sugarren arteraco : au da Jaincoaren itza , ta bere ministroen ezpañaz adieraztera dizquigun eguiac aditzea , edo ez aditzea. Puntu onen gañean itzeguingo dizuet gaur; baña lenago adieraci nai dizuet Jaincoaren itza aditzeco premia ongui eracusten duen dotrinaco puntu bat. Izan bedi gaurco doctrina Cristau guciac, ta bacoitzac jaquiñ bear duanaren gañean.

Beartua, ta obligatua dago Cristaua, S. Tomas Aingueruac, ta onequin Teologoac eracusten duenaz jaquitera, Jaincoac aguintzen diozcan gauzac ongui eguiteco bear dan adiña doctrina. *Horum autem quædam aliquis scire tenetur , illa scilicet , sine quorum scia non potest debitum actum exercere.* (S. Thom. 1. 2. quest. 78 art. 2.) eta au becatu mortalaren azpian. Jauna ta cembaterañocoa ote da Cristau guciac becatu mortalaren azpian jaquiñ bear duen dotriña au? Dotriña au gucia lau gauzatara biurtzen du Asteteren

(*) No se han encontrado los sermones correspondientes á las Dominicas tercera y cuarta de Cuaresma.

Universidad de Deusto
Biblioteca

urrezco liburuchoac. Arrazoyaren ussora Cristaua datorrenean obligatua dago jaquitera *cer sinistu, cer escatu , cer eguin, cer artu , edo errecibitu bear duan,* dio liburuac. Lembicia beartua , ta obligatua dago jaquitera cer sinistu bear duan, ceren beartuac , ta obligatuac gauden maiz eguitera fedeco afectoac, edo ber bera dana maiz sinistera Fedeco misterioac, ta ezpadaqui batec cer sinistu bear duan , nola bear bezala sinis dezaque ? Sinisten dezue Ceruco izarrac parezca dirala? ez Jauna esango dezue, ceren ez daquigun ezer gauz orren gañean ; nola bada sinistuco du batec cer sinistu bear dan ezpadaqui ? Emendic Ceruan sartu nai duan Cristauac jaquin bear du, badala Jainco bat onai Ceruco atseguin contentuac emango diezteena , gaistoai eternidadeco neque oñazeac. Ala dio S. Pabloc. *Accedentem ad Deum oportet credere quia est , et inquirentibus se remunerator sit.* Oro bat jaquin bear du Jainco au Jainco bacarra izanic dala iru Persona Aita , Semea, ta Espiritu Santua. Jaquiñ bear du gañera Trinidadeco bigarren Persona, ceña dan Semea, guizon eguiñ zala gu salvatzeagatic. Gauz oec , ta batez ere lembicicoa , aiñ premiazcoac dira, ce , oec jaquiñ gabe, ta sinistu gabe , oraiñ izan dedilla zabarqueriaz, oraiñ batere culparic gabe eziñ salva ditequean , eta oec ezdaquizquiana ezin iñorc-ere , ez eta Aita Santuac-ere absolvi dezaque.

Misterio oezaz gañera cer sinistu bear dan jaquitecojaquiñ bear da Credoa. Jauna ta obligacio onequiñ cumplitzen ote degu Credoa gogoan iduquitze utsarequin ? ez ez. Memoriaz jaquiteaz gañera beartuac, ta obligatuac gaude becatu mortalaren azpian Credoco articuluen substancia bederic aditzera , eta ezagutzera ; memoriaz jaquite utsa alabaña edoceñ aur centzugabec , baita loro batec-ere , eguin dezaqueen gauza da.

Beartua dago , Cristaua bigarrena cer escatu bear duan jaquitera. Au jaquingo du Aitagurea , ta beste Elizaren oracioac jaquiñaz. Jauna , ta obligatuac arquitzen guera Aitagurearen peticioac cartillac dacaizquian bezala jaquitera ? Gauz onen gañean asco dala eracusten due Doctoreac jaquitea, on gucia Jaincoagandic bear degula , ta Jaincoari escatu bear zaizcala. Alaere gauza lotsagarria da cantac icasteco , dantzatzeco , ta beste gauzetaraco ipintzen dan contuaren laurdenic ez ipintzea Cristau batec Aitagurean cer escatzen duan ongui jaquiteco. Beartua , ta obligatua dago Cristaua irugarrena cer eguiñ bear jaquitera : au jaquingo du Jaincoaren legueco mandamentuac, Eliz Ama Santarenac, ta Misericordiazco obrac jaquiñaz. Beartua , ta obligatua dago laugarrena cer artu , edo errecibitu bear duan jaquitera. Emendic jaquiñ bear du lembicia Batayoco Sacramentua ipiñi zuala Jesu-Cristoc becatu original, edo jatorrizcoa , ta beste batayatzen danagan arquitzen dan edoceñ barcatzeco edo quentzeco. Bigarrena confesioco Sacramentuaren gañean jaquiñ bear du Cristauac , Sacramentu au ipiñi zuala Jesu-Cristoc batayatu ezqueroco becatuac barcatzeco. Onetaraco bear dirala examiña , edo becatuac gogora ecartzea , dolorea , propositua , confesioa , ta satisfaccioa , edo Trentoco Concilioac dion bezala , aozco confesioa, viotzezco damua , ta obrazco satisfaccioa. Comunioco Sacramentuaren gañean jaquiñ bear da , Apaizac itzac esaten dituan bezala jartzen dala Jesu-Cristo Jainco guizon eguiazcoa ala Ostian nola Calizan, ta Jesu-Cristo Jainco guizon eguiazco au errecibitzen degula comunio Santuan : onetaraco barauric, ta becatu larri , edo mortal gabe allegatu bear degula, eta onela allegatzen guerala gueitutzen digula gracia, ta ematen dituala asco doai. Beste Sacramentuen ga-

Universidad de Deusto
Biblioteca

ñean orobat jaquiñ bear da ipiñi cituala Jesu-Cristoc, ta nola ta certaraco errecibitzen diran beintzat errecibitzen diranean.

Lau gauza oec Cristau guciac jaquiñ bear dituen gauzac dira. Baña ote daquizquie guciac ? O nere Jaungoicoa ! Odolezco malcoaquin negar eguiñ bear litzaque, gogora ecarriric puntu onetan cembaitec duen zabarqueria. Galde bequie cembait umeri cer, edo ceiñ da gure Jaungoicoa ? galde bequie , cer esan nai duan Jesus Aitaren escuiean escrita egoteac? Galde bequie cer esan nai duan Santuen comunioac, becatuen barcacioac, araguiaren resurreccioac, vicitza beticoac, eta usteco due beste munduco gauza errebesen batzuec galdetzen zaiztela , eta esango due, ez ni gueyago urliagana chartela artzera , doctrina berria , ta oquerca galdetzen du. Umeena ez da aimbeste, galde bequizte cembait gurasori gauz oec, galde bequie nola examiña eguiñ bear , nola becatuen damua artu ditequean , ta ecusi da ascotan erreguzere ezin guelditu , ezin isildu diran mistoac mututuric guelditzen dirala. Eta nondic dator onembeste Ceruraco bear diran gauzen-ez jaquitea ? Ara nondic. 1.ª gucion Arzayac eguiten dituan dotriñac ez aditzetic : izango dira noasqui urtean doctriña bat aditzen ez duenac. 2.ª echean doctriña ez esatetic, chartelac estutzen duanean baicic. Irugarrena umeac dotriñara ez bildaltzetic : alde batetic gurasoric gueyenac ez daquie beren diña baño gueyago , edo ez daquie beren umeai ongui eracutsi deguiezaqueen moduan, ta bestetic ez due conturic beren umeac doctriñara bialtzeco. Ez dezue ecusten emen Arzaya doctriña eracusten egon oi danean ez datorrela umeen zortzigarren partea ? Eta cer esatea nai dezue guisa onetaco gurasoaz? Eciñ Cerura ditezqueala, eciñ Cerura ditezqueala puntu onetan erremedioa ipiñi nai ezpadue.

Adieraci ditugun lau gauza oezaz gañera, bacoitzac becatu mortalaren azpian jaquiñ bear ditu artu duan cargu, ta empleoari, dagozcan gauzac, eta ezpadaquizqui jaquiteco aleguiña eguiñ bear du. Ara ejemplocho bat gauza aditzeco. Nic, izanic Jaunaren misericordiaz Apaiza, ta Confesorea, becatu mortalaren azpian jaquiñ bear ditut Apaiz bati, ta Confesore bati dagozcan gauzac. Oro bat gurasoac, oro bat Alcateac, oro bat Maisuac, Escribau, ta beste empleo guciac. *Bacoitza beartua, ta obligatua arquitzen da dio*, S. Tomas Aingueruac, bere estadu, ta oficioai dagozcan gauzac jaquitera. (Singuli autem tenentur scire ea, quæ ad eorum statum vel officium spectant. ut sup). Jaquiteco aleguiña eguiñ gabez asco becatu ditue 1.ª gurasoac, bere umeen acierären gañean. Oetatic ascoc doctriñac aditu gabez, beren confesoreari bere obligacioa galdetu gabez asco becatutan erortzen dira, erortzen diranic ezagutu gabe, ta beiñ-ere becatu oezaz ongui damutu gabe. Bigarrena, obligacioac jaquiteco aleguiña eguin gabez erraz asco becatutan erori ditezque Alcateac, Erregidoreac, ta Vecino Jaunac. Jauna, utseguiten dala ezagutzen ezpada ez da becaturic. Ori da ez oartze, ta ez ezagutze ori culpa gabe guertatzen danean; baña ez guertatzen bada zabarqueriaz, galdetzeco lotsaz, edo presuncioz. Jaquiteco aleguiña eguin gabez asco becatutan erori ditezque , ta erortzen ere dira cembait Cristau idien, beyen, ardien tratuetan, balio duen baño gueyagoan ematen dituela ceren batuan ematen dituen, orobat artoan, garian, ta beste gaucetan. Eta becatu oec dira barcatzen ez diran becatuac, ceren ezagutzeco aleguiña eguiten ez dan. Cergatic bait Trentoco Concilioac aguindu cien Obispo Jaunari contuan ipiñi citzeela beren ardiac, nola bacoitzac joan bear zuan bere Parro-

Universidad de Deusto
Biblioteca

quia, edo Elizara Jaincoaren itza aditzera, neque, ta calte andi gabe cijoaqueancan. *Moneatque, Episcopus Populum diligenter, teneri unumquemque Parochiæ suæ interesse, ubi commode id fieri potest ad audiendum verbum Dei.* (Tridenti. ses. 24 cap. 4 de reform. Videatur super hoc Benedict. XIV t. 2 de syno. Diœces. L. 11. c. 14).

Asco da dotriñaric, goacen sermoyera, escatzen diogula onetaraco Virgiña guciz Santari bere gracia, Aingueruarequin diogula *Ave Maria.*

Qui ex Deo est verba Dei audit, propterea vos non auditis, quia ex Deo non estis. Joan 8.

Jaincoaren ume eguiazcoa danac, esaten digu gaurco Evangelioac, Jaincoaren itzac aditzen ditu: argatic zuec aditzen ez dituzue, ceren Jaincoaren umeac etzeraten. *Qui ex Deo est verba Dei audit, propterea vos non auditis, quia ex Deo non estis.* Sentencia icaragarri au bota cien Jesusec Fariseoai, ceren eracusten zuan Ceruco doctriña aditu nai etzuen, eta aditu arren aditzen zuenari beren viotzetan toquiric eman nai etzioen. Eta sentencia icaragarri au bera botatzen digu gaur Jesusec Cristauai. Fariseoac esaten cioen Jesusi cirala Abrahan fededunaren jatorricoac: eta guc esaten degu guerala Cristauac, eta Jesu-Cristori bere odola costataco animac: Fariseoac cioen, cirala *Jainco eguiazcoaren umeac: unum Patrem habemus Deum:* eta guc au bera esaten degu, guerala Jainco eguiazcoaren umeac, ez heregeac, ez gentillac, ez Juduac, ez Maomarrac, baicican siniste andia Jainco eguiazcoagan degunac. *Unum Patrem habemus Deum.* Baña Jesu-Cristoc ematen die gutatic ascori Fariseoai eman cien sentencia bera, esaten digula. Jaincoaren ume eguiazcoa danac aditzen ditu Jaincoaren itzac: argatic zuec aditzen ez dituzue, ceren Jaincoaren umeac etzeraten: *propterea vos non auditis, quia ex Deo non estis.* Beraz zu, ta ni, anima becataria, deabruaren umeen marcarequin arquitzen guera, ezpadegu aditzen Jaincoaren itza! Beraz zu, ta ni, anima becataria, eternidade gucian su garren artean egon bear duenen marcarequin arquitzen guera, ezpadegu gure viotzetan ongui artzen Jaincoaren itza, ezpadegu eguiten itz onec adierazten diguna! Marca icaragaria, nere enzunleac! Oraiñ ecusi bear degu, norgan arquitzen dan etsayaren umeen marca icaragarri au; marca onequiñ arquitzen dana esna dedin, ta Jaincoaren umeen marca iristeco bear dana eguiñ dezan.

§ I.

Iru gende motac due etsai galgarriaren umeen marca, ta señalea: S. Gregorioc, ta Santo Tomasec eracusten duenez. (S. Greg. homil. 18 in Evangelia. S. Shomas in cap. 8 Joann). Oec dira Jaincoaren itza adi lezaqueela aditzen ez duenac: adituric viotzean toquiric ematen ez diezanac, ta atzenean Jaincoaren itza viotzean artu, ta berriz becatuetara biurtzen diranac. *Non audientium, non aceptantium, residivantium.* Aurrenecoac ez due aditzen Jaincoaren itza: bigarrengoac ez dieze viotzean toquiric ematen: eta au da ez aditzea bezala, ta bear bada gaistoago; atzenecoac Jaincoaren itza aditzen, eta viotzean artzen due, baña, ceren gordetzen ez duen, ez due bear dan eran aditzen. Eta iru gende mota oec etsayac marca onetan bere arditzat ezagutzen ditu, Arzai batec bere ardiac marcan ezagutzen dituan eran.

Etsayaren umeen marca duen animetatic lembicicoac dira Jaunaren itza adi lezaqueela aditzen ez

Universidad de Deusto
Biblioteca

duenac. *Non audientium.* Jaincoaren itza adilezaqueela uzten due batzuec beren becatua ecusteco, ta ezagutzeco beldurrez, badaquie alabaña becatua fedearen arguiarequin ongui ecusi, ta ezagutu ezquero bereala asaldatzen duala conciencia, ta ongui confesatu artean ez diola paquearic ematen: baña nola viotzic ez duen cembait becatari gaistoc becatua, ta becatuaren oitura gaistoac osotoro uzteco, cer eguiten due anima doacabe oec concienciaren zaunca izugarriac ez aditzeco? igues eguin confesatzetic, igues eguin Jesusen viotzeco platiquetatic, sermoi, ta doctriñetatic. Eta cer marca due anima oec? ez due ez Jesu-Cristoren ardien marca, oec alabaña aditzen due Jesu-Cristoren itza, ta chistua, berac dion bezala: *oves meæ vocem meam audiunt* (Joan. cap. 10. v. 27); beraz due etsai galgarriaren umeen marca: *Vos ex Patre diabolo estis.* (Joann cap. 8 v. 44). Eta guisa onetan Jaincoaren itza aditzetic iguesi ibiltzea etsayaren umeen marca bada, cembat izango dira nere enzunleac? Cembat gure artean marca onequin arquitzen diranac?

Aspaldi da noasqui, guraso birau guillea, iguesi zabiltzala confesatzetic, sermoyetatic, ta dotriñetatic, Confesoreac, edo zure Arzayac zauri orretan ucuitu zaitzan beldurrez. Cer marca da au? etsayaren umeen marca. Argatic aditu nai ez dezue esaten dizu Jesu-Cristoc, Jaincoaren itza, ceren Jaincoaren umeac etzeraten: *Propterea vos non auditis, quia ex Deo non estis.* Aspaldi da noasqui, nescach erguel, edo mutil buru arroa, deabrua gurutzeagandic bezala iguesi ibilli cerala confesatzetic, sermoi, ta zure Artzayaren dotriñetatic, adisquidetasun anima galgarri ori, ucuitze lizunen oitura ori uzteco beldurrez: ta orain pasadacho bat arturic len ezagutzen etzaituanen batequiñ, etorrico cera, batayoan

artu cenduan Jaunaren graciarequiñ arquitzen baciña bezala. Cer marca, cer siñale ote da au? Ez da Jesu-Cristoren umearen marca, bada iguesi zabiltza Jaunaren itza aditzetic. *Propterea vos non auditis, quia ex Deo non estis.* Aspaldi da nosaqui emacume antustez, ta soberbiaz betea, sierpearen, emacumearen baño antz gueyago dezuna, aspaldi da noasqui, cer eguiñ asco ematen ez dezula confesonarioetan aditzen ez dezula Jesusen viotzeco platicaric, sermoi, ta dotriñaric; confesoreari edo Jaincoaren Ministroari adi dezayozun beldurrez Cerua nai duan emacumeac amatu bear duala bere compañia, utzi bear dituala paquea galerazten duen ciplac, ta coplac, ta beste erausiac. Cer marca ote da au? Etsayaren umeen marca. *Propterea vos non auditis quia ex Deo non estis.* Aspaldi da noasqui, guizon edanean, ta jocoan jai egunac igarotzen dituzuna, igues eguiten dezula zure confesore artuagandic, zure Arzayaren dotriña, ta platiquetatic zure confesore, edo Artzayari adi deguiozun beldurrez ez dagoala Ceruric zuretzat, ezpadezu utzi nai edaneraco, edo jocoraco oitura madaricatu ori: ezpacera sayatzen bearra galanqui eguitera, umeac, ta familia mantentzeco: ezpadezu echean paquea ematen, ta zure compañia amatzen. Cer marca da au? Etsayaren umeen marca. *Propterea vos non auditis, quia ex Deo non estis.*

Jaincoaren itza, adi lezaqueela, aditzen ez due beste batzuec, beren gurasoen zabarqueriaz, edo contugabeaz. Emen toqui onetan burua ausitzen egon da Arzaya dotriña esplicatzen jai arratsaldeetan, emendic iracurtzen dira Jesusen viotzeco platicac; baña etortzen dira, gurasoac, zuen umeac? Etortzen dira mirabeac? Eta etortzen cerate ceroc? Dotriñara etorri bearrean batzuec joaten dira plazara pe-

Universidad de Deusto
Biblioteca

lotara, besteac auzoetara jocora: batzuec albiraca, besteac cembait echetaco ardallan. Cer da au gurasoac? Cer marca? Etsayaren umeen marca. *Propterea vos non auditis, quia ex Deo non estis.*

Contatzen du Viatriaco deritzan Cardenal batec necazari batez, nola bere Artzayaren dotriñetatic igues eguiten zuan: batzuetan echean guelditzen zan, besteetan plazara joaten zan, edo soroac ecustera. Iltzan guizon au, eta obiraco oficioan Apaiza, *Parce mihi Domini*: cantatzen asitzean, aldarean cegoan Santo Cristoac, escuac iltzeetatic libraturic belarriac ichi cituan, adierazten zuala: guizon onegatic eguiten citzaizcan erregüac etzituala adituco, ceren onec aditu naiz izan etziozcan bere Artzayaren ezpañaz adieraci nai ciozcan dotriña onac.

§ II.

Etsayaren umeen marca berequiñ daraman bigarren gende mota da, Jaincoaren itza adituric, itz berari viotzean toquiric ematen ez diona. *Non aceptantium.* Toquiric ez emate au, iru guisatan gueratzen da lembicia Jaincoaren itzari isquincho, aitzaquiac billatuaz, eguiten diogula. Bigarrena, Jaincoaren itzari, edo Ministroai aitzaquiac billatzen dieztegula; irugarrena Jaincoaren itza ez guerentzat, baicican besteentzat aditzen degula. Jaincoaren itzari viotzean toquiric ez ematea lembicia gueratzen da, isquincho aitzaquiac billatuaz, eguiten diogula. Zuc gurasoa, beiñ baño gueyagotan, aditu dezu eragotzi bear diezula zure umeai berandu echeratzea, urliarequiñ edo sandiarequiñ itzeguitea: eracutsi bear diezula dotriña, ta onetaraco bialdu dotriña, sermoi, ta platicac aditzera. Ta gauz oetan asco zabarturic vici cerala, eciñ ongui confesa zaitezqueala, baña cer e-

guiñ dezu zuc? Eguiñ dezuna da, conciencia isilerazteco, cere buruarequiñ esatea; *Andia da Jaunaren misericordia, beguiratuco aldu guzaz ere.* Siñale gaistoa; bada ez da zugan aguiri Jesu-Cristoren umeen marca. Zuc gazte centzu gabea, bein baño gueyagotan aditu dezu, ez dagoala zuretzat Ceruric, ez dagoala becatuen barcacioric, ez dagoala confesio onic, sarrera ori utzi dezazun artean. Baña zuc bereala utzi bearrean sarrera ori, batzuetan gogora ecartzen dezu Jaincoaren Misericordia, besteetan guero uzteco asmoac artzen dituzu; ta au gucia, Jaincoaren itzac guiarrean ucuitu zaituan artean isquincho eguiteagatic zure concienciaren deadar latzac guera ditezen. Cer siñale, cer marca da anima gaistoa? Ez da zugan aguiri, ez da ezagun Jaincoaren umeen marcaric, baicican etsayarena. Zu guizon edanean igarotzen cerana. Jai egunean edanean, ta jocoan umeentzat bear litzaqueana gabitzen dezuna, asco bider aditu dezu, ez dagoala zuretzat Ceruric, eche ori utzi dezazun artean, ta bearrera saya zaitecen artean; baña zuc eciñ adisquideaquiñ bildu gabe vici zaitezquealaco aitzaquian, eta Jaunaren misericordia andia dalaco aitzaquian, ayenatzen dezu zere viotzetic Jaincoaren itza, ta guisa onetan aurrera zoaz cere oitura madaricatuan. Cer siñale ote da au? Cer marca? Siñale, ta marca guciz icaragarria! *Propterea* &.

Jaincoaren itzari viotzean toquiric ez ematea guertatzen da bigarrena, Jaincoaren itzari, ta ministroai aitzaquiac billatzen dieztegula. Jaincoaren itzaren gañean gueratzen da ascotan Maisuarequiñ, ta eriarequiñ beiñ baño gueyagotan guertatu izan dana. Bear bada eri bat arquitzen da andidura batequiñ iltzeco perillean: ezagutzen du maisuac lanzetaz ez idiquitzera barrena emango diola andidurac, ta ilco

Universidad de Deusto
Biblioteca

dala. Ebaquitzen dio lanzetaz, ta ipintzen du senda ditequean eran. Norc ez dacus eriac miñ artu badu ere, esquer asco zor diozcala maisuari, ceren senda ditequean eran ipiñi duan? Baña ascotan guertatzen da era alchatzea maisuaren contra, eta gogora datorquion gucia esatea. O! eta cembat bider au guertatzen dan Jaunaren itzaren gañean! Jaincoaren ministroac asco aldiz zauriaren erdi erdian ucuitzen ditue asco becatari becatuan buca ez ditecen, ta esquerrac eman bearrean idiquitzen ditue beren auac Jaunaren itzaren, ta Ministroen contra. Ala eguiñ zuen Fariseoac ere. Jesusec eguia garbiro esaten ciela, ucuitu cituan zauriaren erdian, ta minduric alcha ciran Jesusen contra, ta izan zuen Jesusi arrica emateco ausardia. Ez ote da, nere Cristauac, egungo egunean asco bider au guertatzen? Ez ote zayo Jesusi, ez ote zate Jesusen Ministroai, escuz ezpada, miztoz arrica ematen? Eta cer marca da au? Ez eguiaz Jaincoaren umeen marca. *Qui ex Deo est verba Dei audit: propterea vos non auditis, quia ex Deo non estis.*

Jaincoaren itzari viotzean lecuric ez ematea guertatzen da irugarrena Jaincoaren itza aditzen degula ez guretzat, baicican besteentzat. Asco dira jana maneatzen duenen guisacoac. Jana maneatzen duenac partitzen due jana mayeraco pusca au aurreneco platoraco, bestea bigarreneraco; ta berenaz ez da conturic. Eta cer besteric guertatzen da sermoyetan? Zarrac gazteentzat aditzen due, gazteac zarrentzat: gurasoac umeentzat, umeac gurasoentzat: nagusiac mirabeentzat, mirabeac nagusientzat: senarrac emazteentzat, emazteac senarrentzat. Ah! ceiñ ongui datorren orise urliarentzat, ceiñ ongui beste ura sandiarentzat; eta zuretzat? Zu barauric echera. Siñale charra, bada ez da ezagun Jesu-Cristoren umeen marca. Jaincoaren ume eguiazcoa danac beretzat aditu bear ditu Jaincoaren itzac. *Qui ex Deo est verba Dei audit propterea vos non auditis, quia ex Deo non estis.*

§ III.

Etsayaren marca berequin daraman irugarren gende mota da, Jaincoaren itza bein viotzean arturic, leneco becatuetara berriz biurtzen dana. *Recidivantium.* Icaragarriac dira berrizcatura onen gañean Escriturac berac adierazten dituan gauzac. Guisa onetaco becatariac toqui batean comparatzen ditu chacurraquin: aotic bota duana jatera biurtzen dan chacurrabezala da, dio Espiritu Santac, berriz bere becaturatzen dan zentzugabea: *sicut canis, qui revertitur ad vomitum suum, sic imprudens qui iterat stultitiam suam* (Prover. 26.) Beste toqui batean madaricatzen ditu esaten duala: ay iraupena galdu dûenac: ta vide zuzenac utzi dituenac, ta gaistoetara aldeguin duenac! *Væ his, qui perdiderunt sustinentiam, et qui dereliquerunt vias rectas, et diverterunt in vias pravas.* Jaunaren itzeguite oec adierazten due, Jaunaren itza viotzean bein arturic berriz becaturatzen danac, ez duala ez Jesucristoren umeen marca, baicican etsayaren umeena. Marca onequin cembat ote dira gure artean? Urteac dira guraso birau guillea, birauesco becatu oriec bein botatzen dituzula, guiarrean ucuituric Jaincoaren itzac garizumaco demboran ta egun guchiren barrenen orietaratzen cerala, chacur baten eran. Cer marca da au anima gaisoa? Cer izango da, ezpada etsayaren umeen marca? Urteac dira nescah erguela, urteac dira mutil centzugabea iraunerazten diozula adisquidetasun anima galgarri orri, garaizuman cerbait uzten dezula itzeguitea adituric

cembait eguia, ta beherda Pazcoetan absolucioa uca ez daquizun, au arturic laster lenecora biurtzen cerala. Cer señale da au? cer marca? etsayaren umeen marca. Urteac dira anima becataria, beiñ uzten dizula cerequico lizunqueria oriec eguitea noiz edo berriz Jaincoaren itza adituric, berriz biurtzen cerala cere oitura gaistora, cherria urtan garbitu ondoan loitara biurtzen dan bezala. Cer marca da au? etsayaren umeen marca.

Urteac dira emacume sierpearen antzecoa, cere soberbiaren, cipla, ta coplen artean vicitza gaisto batean vici cerala, beiñ jeiqui, beiñ erori, ta beiñ ere dembora luceco enmienda gabe. Marca gaistoa! Etsayaren umeen marca. Urteac dira guizon edanean igarotzen cerana, urteac dira edaneraco, ta alferqueriaraco oitura orretan vici cerana: cembait aldiz bear bada jeiqui cera adituric misio bat, edo sermoiren batzuec, baña berriz ta berriz biurtu cera anciñaco oitura orretara. Cer marca da au anima doacabea? Marca gaistoa! Etsayaren umeen marca, Jauna, ta iru gende mota oec guciac etsayaren umeen marcarequin arquitzen badira, ceiñ arquitzen da Jaincoaren umeen marca, ta señalearequin. Galde guiozu Jesu-Cristori, ta esango dizu, oec dirala Jaincoaren itzac adituric viotzean ongui gordetzen duenac, edo contuz Jaincoac adirazten diena eguiten duenac. *Beati qui audiunt verbum Dei et custodiunt illud* (Luc 11). Lau sorotan erein zuan Jesu-Cristoc bere itz santua, Evangelioen ereillearen parabolan adierazten duan bezala, ta soro batec baicic etzion fruturic eman. Cer naigabe izango lizaque necazari batentzac, lau soro ereiñic, batec bacarric frutua emango balio? Eta cer naigabea izango da lau gende motatic batec bacarric badu Jesu-Cristoren umeen marca? Besteac etsayaren umeena? Batec Jaincoaren umeena, ceren Jaincoaren itza contuz aditu, ta contuz viotzean gordetzen duan beste irurac etsayarenac, ceren edo aditzen ez duen Jaincoaren itza, edo adituric viotzean toquiric ematen ez dioen, edo atzenean viotzean arturic ayenatzen duen becatura biurturic. *Non audientium, non acceptantium, recidiventium.*

Jauna: ez da bada guretzat erremedioric? ez da Jaincoaren umeen marca iristeco moduric? Ay! Jesusen anima! Badira, bai, zurequiñ neretzat, erremedioac, ta asco alare! erremedioa da vicitza berria, vicitza berria; baña vicitza berria artzen dago gure lana, ta nequea. *Hoc opus, hic labor.* Guc nai genduque Jesu-Cristoren umeen marca gurequiñ izatea, baña nai guenduque etsaya, eta etsayaren lanac utzi gabe. Guc nai guenduque gu onac izatea, baña nai guenduque batere nequeric costa gabe. Eta au da eciñ guerta ditequean gauza. Nai dezu Jesusen anima, vicitza berri bat artu? Guisa onetan Jesu-Cristoren umeen marca izan dezazun? Ara bada artu bear dituzun erremedioac. Lembicico erremedioa. Oraiñ ongui prestatzea confesio on bat eguiteco; ta onetaraco Jaunac zure miseriaz urricalduric, eman deguizun bere gracia, eguiñ penitencia. Penitencia eguiñ nai duanarentzat badira barauac, badira zumeac, badira beste moduac. Bigarren erremedio jaquiña, edo beintzat jaquiñ bear lizaqueana: becaturaco ocasio ta perillac utzi; utzi urliarequico adisquidetasun anima galgarri ori: utzi eche ori, non galdu dezun cere anima. Egon zaitez, nai badezu anima becataria, gau ta egun belaunico negarrez Jaunari barcacioa escatzen! egon zaitezque acto contriciozcoa acto contriciozcoaren gañean eguiñaz: egon zaitez zere burua ceatzen emendic Pazcoa arte gucian burniazco azotez. Confesa zaitez; uste dezu ezer eguin dezula? Bada jaquiñ ezazu gauz oec

guciac utsa dirala, alferrac dirala, ezbadituzu becaturaco toqui, ocasio, ta perill oriec uzten. Irugarren erremedioa ; maiz confesatzea, ta are lasterrago, baldiñ zure miseriaz becaturen batean erortzen bazera. Laugarren erremedioa, aditu contuz, ez maisian egoteco, ta erausian, baicican Jaincoac viotzera adieraci nai dizuna zuzen eguiteco gogoz, aditu diot zure Arzayac, ta Jaincoaren ministroac eguiten dituen doctriñac, ta Jesusen viotzeco platicac. Ea, nere Cristauac, asco degu etsayaren marcarequiñ vicitzeric, asco degu etsaya servitzeric; erremedio oec artuaz eguiñ gaitean Jesu-Cristoren ardi eguiazcoac, guero gure Arzai Jaincozco onequiñ vicitzeco beti iraungo duan Ceruco glorian. Amen. Amen.

IRU DOCTRIÑA

Griña eta pasio gaistoen gañean.

LENENGO DOCTRIÑA

GRIÑA TA PASIO CHARRAREN GAÑEAN.

Qui sunt Christi, carnem suam crucifixerunt cum vitiis et concupiscentiis. Ad Galat. cap. 5.

Gure griña, ta pasioac berenez ez dira ez onac, ez gaistoac; baña Adan becatuan erori zanetic gueratu ciran gaitzeronz etziñac, eta macurtuac, ta beti contu eguiñ bear diegu becatura amilderaci ez gaitzaten, batez-ere gure griña, ta pasio nagusienai, edo indartsuenai. Au eguiñ gabez guertatzen dira mun-

duco oquer guztiac. Atoz nerequiñ, Cristaua, ta ecusico dituzu oquer oetatic batzuec. Enzun arretaz.

Beguira ezazu munduaren edoceiñ bazterretara, ta ecusico dituzu lecu guztietan asco, ta asco berac nai duena eguiteco guraz beteac, ta beren gura au ucatzeco, ta garaitzeco neurriac artu gabez, vici dirala becatu ascotan erortzeco perill andian, ta erortzen ere dirala sarritan. Ecusico dezu emacume bat gucia aguindu bear duana, guztia berac nai duan eran eguiñ gura dana; ta contra eguiten bazayo, galerazten duala echeco paquea, zapuzturic jartzen zayola guizonari. Ecusico dezu mirabe bat, aguinduac eguiñ nai gabe dabillena, muturca, ta lotsagabequeria andiac eguiten dituana; ceren festara, danzara, edo urliarequin itzeguitera joaten utzi etzayon. Ecusico dituzu errietaco batzarreetan batzuec, errico gauza guztietan buru, ta aguintari izan bear duenac: erriaren izan, edo ondasunac nai duen eran iragacitzen, ezcutatzen, edo ondatzen dituenac: aucietaraco bideac ematen dituenac; ta norbaitec itzeguiten badu aen contra, edo ucatzen badie votoa, gueratuco dira betico gorrotoan votoa ucatu duanagana. Becatu oen iturburua, ta ama da *gura dana eguiteco nai, edo borondate* gaizqui oitua, ta ucatu gabea.

Beguira-zazu, Cristaua, berriz munduaren bazterretara, ta ecusico dituzu beste asco beren iritziari itsatsiac, olagarroa aitzari itsasia egon oi dan bezala. Griña onec, ezpada bera garaitzeco aleguiña eguiten, berequiñ dacar utseguite, ta becatu ascoren perill andia. Ay! zuen zori gaistocoac, ceren beguietan jaquintsuac ceratenac, deadar eguiten du Isayas Profetac *Væ qui sapientes estis in oculis vestris.* Era onetan beren iritziari itsatsiac vici diranen artean ecusico dituzu batzuec sartzen dirala gauza pisuetan

Universidad de Deusto
Biblioteca

itsumen andiarequiñ, ta bide zucena eracutsi dezaquenai galdetu gabe. Ta cerbait galdetzen badue, ez due gogoz adituco beren erara, ta gustora itzeguiten diena baicic. Ecusico dezu nola conseju ematen diezan lagun urcoai aucitaraco, edo beste gauza oquerretaraco. Ecusico dezu atzenean, bere buruz, eta iritziz puztutaco oec, ongui aditzen ez dituen gaucetan ere, lotsatzen dirala besteri galdetzeaz. Emendic cembat becatu? cembat calte errietan, eta echeetan? Becatu oen guztien ama da gure iritzia ucatzeco zabarqueria andi bat, antuste, ta soberbia madaricatu batera biurtzen dana.

Beguira guiozu berriz-ere munduari, ta ecusico dituzu beste asco onra, ta puntura aiñ itsutuac, aiñ etziñac, eta itsatsiac, non gura au ucatu, edo eci gabez, chit erraz galtzen duen beren anima, ta Jaungoicoa. Ez da gauza gaistoa onra, puntua, ta icen ona; baicic gauz ona, ta beardan neurrian amatzen dala, asco laguutzen du Ceruraco bidean contuz, ta arretaz ibiltzeco. Baña onra, eta puntuan ipintzen bada viotza, itsutzen da onrazalea, ta gueratzen da aiñ mimberaa onrari dagozcan gaucetan, non aisa amiltzen dan becatuan, sayets onetatic ucuitzen badue, edo ucuitzen duela, iduritzen bazayo. Emendic dator onelaco onra, ta puntu zaleac aide, ta auzoaquin erraz paquea, ta adisquidetasuna galtzea: emendic lagun urcoaren faltac aguertzea, gauz onac-ere alde gaistora botatzea, edo guchitzea. Emendic aurrecoen contu, eta ipui eguiazcoaz, edo guezurrezcoac nastutzea, lagun urcoaren icen ona itsusten, ta ciquintzen dala. Emendic aren oquerrac, edo guertatzen zaican calteac aditzea gozotoro, ta musicaric ederrena baña atseguin-contentu gueyagorequiñ. Emendic atzenean onra zalea, irozo ditzaquean baño, gastu gueyagotan sartzea, jan, edanean, eta jaunci mo-

dacoetan, onra, eta puntuaren idolo, edo momoa adoratzeco. Becatu oen guztien iturburua da onra, ta puntuaren gura ez *ucatzea*, ta ez *ecitzea*.

Zoaz aurrera, Cristaua, munduari beguiratuaz, ta topatuco dituzu beste asco, vengantzaren chingarra colcoan duela vici diranac, ceren auzoac, aideac, edo adisquideac aen gustora itzeguin etzuan, votoa ucatu cien, edo beste mesederen bat eguiñ etzien. Ez dauqueela gorrotoric, esango due confesatzean; baña ongui miratzen badira oen viotzac, prest arquituco dira lagun urcoari, derecha datorrenean, charqueriaz eranzuteco. Emendic dator espiritu cimur oec lagun urcoari beti contra eguitea batzarreetan, edo beste edoceiñ trancetan. Emendic aren contra itzeguitea, derecha aguertzean. Emendic lagun urcoaren oquer, edo calteren baten berria aditzean, barren guztia gozatzea, ta zabaltzea. Becatu oen ama da, viotzean estaliric dagoan, gorrotoaren chingarra, ta vengantzaraco sasoya.

Arquituco dituzu gañera beste asco gorputzaren era, ta sentiduen atseguin-contentuetan llilluraturic, ta itsuturic vici diranac, batzuec jan-edanean, besteac ara ona ibillian, utziric umeac, mirabeac, ta echea quezcaric, ta conturic gabe; besteac atzenean ez dagozten jauntzi, ta apaindurietan. Ezta gorputzaren erac nai izatea becatu andia, era oec Jaunaren leguearen contra ezpadira gauza larrian; baña baldiñ viotza itsasten bazayo oen gurari, chit erraz jarrico da erazalea becatu larrietan erorteco perill andian. Ala ecusico dezu, Cristaua, jan-edanera itsutu ezquero bat, erraz amiltzen dala ordiquerian, itzeguite loyetan, queñada ciquiñetan, isillic egon bear duen gauzac aguertzean; ta ez dala centzatzen ez echea ondatzearequin, ez emaztearen, ta umeen negar, eta larrugorritasunarequin. Ecusico dezu, oi-

Universidad de Deusto
Biblioteca

tutzen bada echeco andre bat , bere echea utziric, ara ona ibiltzera,(visitetara), ez dio ardararic umeac, eta mirabeac gaizqui acitzeaz , ta oitura gaistoac i-casteaz. Ecusico dituzu asco , ta asco emacume, a-guertzen diran jauntzi mota berriai jarraitzen , naiz echea gaizqui gueratu, naiz echeco paquea galdu, eta naiz Jaunaren leguea era ascotara ausi dedilla. Beca-tu oen sustraya da gorputzaren era , ta sentiduen atseguin-contentuetara viotza itsatsia egotea.

Etzaitecela onembesterequin gueratu , Cristaua, munduari beguiratzean. Beguira ondo berriz eche andi onetan vici diranai : ta arquituco dituzu eciñ conta al guizon , eta emacume , zar , eta gazte, it-satsiac , itsuac , ta llilluratuac vici diranac seigar-ren mandamentuaren contra itzez , pensamentuz, edo bestela erorteco perill andia duan vicimodu erguel, lasai , edo zoro bati. Ez det esaten onelaco oec guz-tiac seigarrengo mandamentuaren contraco lizunque-ria andienean erori nai duela ; au izango lizaque gueyeguira igarotzea ; baicic diot , onelacoen vicit-zari alde guztietara beguiratzen bazayo, arquitzen di-rala itzez , pensamentuz, queñadaz , edo bestela be-catuan erortzeco perill andian , perill urcoan , ta borondatezcoan. Perill andi-urcoan ; ceren vicimodu erguel , lasai , edo zoro bati darraizcan bitartean, goicean , edo arratsean , egun onetan , edo bestean, nolacoac diran derechac ala izango dira lizunqueriac. Perill au da borondatezcoa, ceren borondatez vicimo-du oni jarraitu nai zayon. Goacen ezperen guertat-zen danari beguiratzera. *Quæ hic dicuntur , semper præ oculis habenda mihi videntur.* Asco dira mutillen artean gaistaqueria andienetan erortzeco asmoric ez duenac , baña beti prest daudenac derecha danean, festan , dantzan , ta zoraquerietan ibiltzeco emacu-meaquin: beti prest emacumeaquiñ egoteco , itzegui-

teco , jolasteco. Eciñ esan diteque mutill oen itzegui-te, ta ibillera guztiac becatu larriac dirala; baña dem-bora berean eciñ ucatu diteque vicimodu lasai au dala becatu ascotan erortzeco perill andi-urcoa; ta ala onelacoac erorico dira , batzuetan pensamentu loyetan , besteetan itzeguite ciquiñetan ; batzuetan beguiratze goisoetan, besteetan tentaniac, queñadac, isillmandatu gaistoac , escucac eguitean. Asco dira emacumeen artean , ecergatic-ere azquen-azquene-neco becatu itsusian erori nai ez luqueenac , baña dembora berean erguelac , ibilcariac , edo beintzat mutillaquin itzeguitea , ibiltzea , jolastea , eder , eta arro aguertzea asco gustatzen zatenac. Eciñ oecgatic-ere esan diteque , becatu larrian erortzen dirala itze-guite , ta ibillera , edo gauza guztian ; baña esan di-teque , ta esan bear-ere da , era onetan erguelque-riari , ta vicitza lasai oni ederetsiric vici diran bitar-tean , arquitzen dirala becatu larri ascotan erorteco perill andi , ta urcoan : esan diteque , ez oi duela confesio onic eguiñ noizbait noizbait centza ditecen artean. Bitartean ibillico dira becatutic becatura a-milduaz ; oraiñ pensamentu batean , gueroseago itz loyac gozotoro aditzean : oraiñ escuca , edo queñada batean, guero musu edo laztanetan: oraiñ ipui ciquiñac contatzen, guero dantzan, edo dantza ondoan alberda-nian. Ezconduen artean-ere asco dira, guizon jaquin-tsuen iritzian , araguizco atseguin-contentuetan viot-za ipiñi duenac, ta abereric ciquiñenac baño abere-ago biurtzen diranac : ta itsumen onec dacar bere-quiñ becatu ascotaraco perill andia. Emendic ciquin-queria berrien billa ibiltzea : aurren , ta mirabeen ondoan , edo oec oartuco diran demboran , eta le-cuan elcarganatzea. Emendic....baña asco da. Sara-ren aurreneco zazpi guizonac Demonioac ito cituan: Judas Patriarcaren seme bi Her, eta Onan ceriztenac

Universidad de Deusto
Biblioteca

ill cituan Jaunac. Sararen senarrac, S. Rafaelec Tobiasi aditzera eman cionez, ito cituan Demonioac, ceren Jauna bere gogo, ta viotzetic quenduric, centzugabeco animalien eran gura lizunean viotza ipiñi zuen. Ta Judas Patriarcaren bi semeac bucatu cituan Jaunac ceren nazcagarriac ciran Jaunaren beguietan, ta batac beintzat becatu guztiz itsusiac eguiten cituan emaztea aurdun ez gueratzeagatic. Becatu oen guztien ama da, gazteetan, vicitza lasai-berdea: ezconduetan, atseguiñ ciquiñetan viotza ipintzea; ta ezcondu nai, eta nai asi diranetan beren gura charrari atseguin emateco egarria. Eztago onela itsuturic vici diranentzat Ceruric, centzatuta vicitza on bat venaz artu artean.

Atzenean ecusico dituzu, Cristaua, asco munduco ondasun, eta izanen ondoren osotoro itsutuac, cuticiaren idoloaren aurrean auspez, edo belaunico jarriric. Ondasunac nai izatea conveni zacun neurrian, ta bide onez, ez da becatu; baña ondasunai viotza itsastea ta itsastea neurriric, eta mugaric-gabe, au da gauza bat osotoro illuntzen duana adimentua, elcortzen, ta arri biurtzen viotza, ta galerazten duana Jaungoicoa. Onelacoari, dituan ondasun guztiac, biurtzen zaizca bere puzoi, eta arantza, Jesu-Cristoc berac esan zuan bezala: ta ez dituanen egarriac erquituric, eta igarturic dauca doacabea. Ecusico ditu lagun urcoen nequeac, eta premiac, ta guztiac alferqueriac dirala usteco du. Sartuco da saldu ciquiñetan, eta ezta arentzat musica aiñ gozoric: nola dan irabaciaren icena. Aberatsa Ceruan sartzea baño errazago da bagasoca bat jostorratzaren beguian sartzea, dio Jesu-Cristoc berac. *Facilius est camelum per foramen acûs transire, quam divitem intrare in regnum Cælorum.* (Matth. 19.)

Ecusten dezu, Cristaua, cer dacarren gure griña, ta pasio nagusiac ez ucatuac, ez ilduratzeac, ez ecitzeac? Ecusten dezu, ceiñ becatu asco guertatzen diran gure zabarqueria, ta naguitasun onegatic? Alaere becatu oec, edo beintzat oen ama izan oi da guztiz ezcutatua, estalia, ta colore ederraquin apaindua, ta emendic jayotzen diran becatuac izan oi dira beiñere, ez Pazcoetan, ez Misioetan, barcatzen ez diran becatuac. Bere naya eguiteco, bere setarequin irteteco, ta guztian aguintari, ta buru izateco griña aguintari duanac, ta au ucatu, ta ecigabez amiltzen danac echeco aserreetan, ta auzoaquin, aideaquin, ta besteaquin gorrotoan, birau, ta madaricacioetan, auci, ta naspilletan: erraz ezagutu ditzaque becatu oec, ta bear bada confesioan aitortuco-ere baditu. Bañа oen ama, ta sustraya? Bere naya eguiteco, bere setarequin irteteco, ta guztian aguintari, ta buru izateco griña? Ta griña au ucatzeco, ta ecitzeco zabarqueria? Au estalico, ezcutatuco, ta apainduco du jauntzi ederren batequiñ. Bere iritziari itsatsi danac, naiz asma al ditezquean oquerrac eguiñ, edo eguiteco perillean jarri, gordeco du, ta edertuco bere antustea, ta itsumen arroa. Onra, ta puntuaren aizez puzturic dagoanac, ezagutu beardu, asco utseguitetan erortzen dala, gura au eci, ta neurri onean ipiñi gabez: ezagutu bear luque zabarqueria au oraindaño izan dala, ta aurrera ere izango dala becatu ascotaraco perill andia. Alaere soñeco churiz jauntziric ipiñico du bere onra, ta puntuaren eragabeco gura, ta au ucatzeco, ta ilduratzeco naguitasuna, esaten duala beregan: *Ez du aguintzen Jaungoicoac, onraric, eta punturic gabe vici gaiteala.* Eguia da au; baña era berean eguia da, aguintzen digula, uca ditzacula gure gura, ta pasioac, edo gueren buruac; ta au guc ez eguitera eciñ sar gaitezque Ceruan. *Abne-*

get semetipsum. Gañera aguintzen digu, gaudela alaco aro, ta sasoyean, non prest egon bear degun onra, ta puntu guztiac utzitzeco, ta atzenean vicitza bera-ere emateco becatuan ez amiltzeagatic; ta ez da sasoi eder onetan arquitzen onra, ta puntuan viotza ipiñi duana. Vengantzaren sua colcoan gorderic vici danac badaqui, bere su gaisto au osotoro itzalita bere lagun urcoa eguiaz eta viotzetic amatu artean, eciñ becatutic irten ditequeala, baña alaere estaltzen du colcoan daucan chingar gaistoa, esaten duala: *Nere buruari adiña gaitz opa diot urliari, baña ona da centzatzea, ongui irabacia zuan aren ausardiac, ta aren ibillerac oraiñ guertatu zayona: guchicho izateaz det damu.* Era onetan edertzen du bere vengantzaren espiritua, ta derecha datorrenean ez dio barcatzen lagun urcoari, ez itzez, ez lanez. Vicitza erguel, edo lasayera oituric dauden guizon, eta emacumeac, ala zarrac nola gazteac, nai ta ez ezagutzen due gaistoac dirala vicimodu orretatic datocen contuac, nola diran itz loyac, queñada ciquiñac, beguiratze lotsagarriac, alberdaniac; baña ez due sinisten vicimodu erguel, edo lasaya dala becatu oen iturburua, edo obeto esateco ez dira batere beguiramendu oetan necatzen, ta esateu due: *Ez guiñan jayo paret artean ezcutaturic, urdinduric, edo orituric egoteco: gazteac bear du bere jolasa,* ta aitzaqui oequiñ gueratzen dira lengo vicitza lasayaren, ta becatu ascotaraco perill andian; naiz gaizqui confesatu, naiz etsayac eraman. Au bera guertatzen da cuticiac erquituric, ta itsuturic daudenaquiñ.

Era onetan griña, ta pasioac ucatzeco, ilduratzeco, ta ecitzeco zabarqueria andian vici diran, Cristauen becatuac izan oi dira gañera beñere barcatzen ez diran becatuac. Au ezagutu, ta sinistu dezazun ongui, enzun itzatzu, Cristaua, eguia oec. 1.° Eguia:

eztu becatariac iristen becatuen barcacioric, viotzic ezpadu utzitzeco becatuaren bide, eta perill andi urcoac, ta borondatezcoac. Au da Cristau guztiac, eta ezagüera ona duen guztiac-ere daquien gauza. Perillean bici nai duana, perillean bucatuco da, esaten digu Espiritu Santuac. 2.° Eguia: bere nai, ta borondatean, bere iritzian, onra, eta puntuan, vengantzan, vicitza lasai-berdean, cutician, ta beste gura larrietan itsuturic dagoana, ta gura berac ucatzeco, ta ecitzeco conturic, eta arretaric ez duana, arquitzen da becatu ascotan erorteco perill andi-urcoan, ta arquitzen da bere nayez, ta zabarqueriaz. Zaldi ezi gabe, bere zoroac aguintzen dion eran dabillen, baten pare ipintzen du onelacoa S. Ambrosioc. *Qui dominari nescit cupiditatibus, quasi equus raptatus indomitus.* Cergatic bait esan zuan Jesu-Cristoc: etorri nai badu norbaitec nere ondoren, uca beza bere burua. *Abneget semetipsum.* Irugarren eguia: bere griña, ta pasio larri-gaistoetan itsuturic, ta aetara itsatsiric bici danac ez du viotzic ucatzeco, ilduratzeco, ta ecitzeco griña, ta pasio berac ta beragatic ez du viotzic, eta almenic becatuaren bide, eta perill andi urco onetatic irteteco. Argatic becatu mota oec gueratu oi dira barcatu gabe, ez eguiaz ceren barcacioric eciñ izan dezaqueen, baicic ceren becatariac viotzic ez duan bere griña, ta pasioac ucatzeco, ta vicitza berri ona artzeco. Ez dago beraz, Cristaua, ez dago becatuen barcacioric, ez dago confesio onic, ezda Ceruric gure griña, ta pasio gaistoac ucatzera, ta ilduratzera sayatzen ezpaguera contuz, eta arreta andiarequiñ. *Qui sunt Chti, carnem suam crucifixerunt cun vitiis et concupiscentiis.* (Ad Galat. cap. 5.)

1.ª Beguira-ezazu oraiñ, Cristaua, nola examinatu bear dezun zure conciencia confesio on bat eguiteco asmo osoa artzen dezunean. Atera ezazu contua: cembat dembora onetan vici ceran griña, edo pasio gaistoren batean viotza ipiñiric: edo cere borondate, ta iritzian: onra, edo puntuan: vengantzan, vicitza lasai-berdean, cutician, edo beste guraren batean: cembat becatu, ta utseguitetan amildu ceran griña, ta pasio oec ucatu gabez? Atzenean cembat demboran vicitu ceran Jaungoicoaganaco amoriozco afecto eguiazco eguiñ gabe.

2.ª Presta zaite arreta onarequiñ, eta zoaz cere Aita Cerucoagana, eta artuco zaitu viotz bera urricaritsu batequiñ, eta zu nor bacera, emango dizu betico vicitza doatsua. Amen.

Super his, quæ hic aguntur, vide Petrum Calatayud Tom. 1 suarum doctrinarum, tractat. 2 Doctrin. 4.



BIGARREN DOTRIÑA.

GRIÑA TA PASIO CHARRAI EMAN BEAR ZAYEN ILDURA, EDO MORTIFICACIOAREN GAÑEAN.

Si quis vult post me venire, abneget semetipsum. Math. cap. 16.

Ecusi degu aurreco dotriñan cembat becatu, cein estaliac, ta guchitan barcatzen diranac guertatzen diran, guc gure griña, ta pasio charrac ucatzeco, ta ilduratzeco arretaric izan gabez. Gaur ecusi bear degu cer dan, eta cembat eratacoa gure griña, ta pasioen ucatzea, ildura, ta eciera au. Au ecusi ondoan beguiratuco du bacoitzac, cer utseguiñ duan alde onetatic bere Jaun ona amatzeco aguinte andiaren contra. Enzun arreta andiarequin.

Ez da Cristauaren eguiñ bide guztien artean estuagoric gure griña, ta pasioac ucatzeco, ilduratzeco, ta ecitzeco eguiñ bidea baño. Nai duenarequin irten artean ez due paquearic eman nai: beti ari dira palacatzen, eta losenchan gure borondatea, ta au berenganatzen badue, are gaistoago, ta indartsuago eguiten dira. Argatic arreta, ta contu andiarequin artu bear dira griña, ta pasio charrac ucatzeco, ilduratzeco, ta ecitzeco neurri onac: ta neurri oec artzeari deitzen zayo *ildura, edo mortificacioa.* Bi eratan da au, S. Agustiñec dionez; bata campo-

coa, ta gorputzari dagocana; bestea barrengoa, ta espirituari dagocana (a).

Eguiñ zuanean Jaunac guizona, eguiñ zuan gorputza animaren lagun, ta jauregui ederra izateco, ta apaindu zuan, Jaunac berac baicic eciñ asma citzaquean adiña edertasunequin; ta atzenean prestatu ciozcan Ceruan atseguiñ-contentu guztiz andi, ta zoragarriac. Baña erori zan Adan becatuan, ta Adanen gorputz eder ura bertatic gueratu zan abereen antzeco eguiñic. *Comparatus est jumentis insipientibus, et similis factus est illis* (b). Len ezagüera onaren mendean umil arquitzen zana, gueroztic da gure etsairic errebesena. Da Mundua, Demonioa, ta infernua bera baño gaistoagoa. Da guertatzen diran gaistaqueria guztien, edo gueyenen suteguia. Da Jaungoico beraren Seme bacar Jesus Jaungoico-guizona gurutzean illeraci zuana. Da atzenean mundu guztia nasturic, engañaturic, llilluraturic, edo zoraturic, nai duan eran, darabillen etsaya. Etsai izugarri au ilduratzea, ecitzea, ta menderatzea da Cristauaren eguiteco andia, ta ildura, edo mortificacio mota aurrenecoa. Au icasi nai badegu, ez degu contuz beguiratzea besteric, cer guisatan ilduratu, ta mendera ecarri izan dituen beren gorputzac Santuac, eta anima virtutetsuac. Ecusico ditugo oec, batzuetan loa ucatzen beren buruai, Jaunaren aurrean beillan, beren utseguiteen gañean negarrez, edo Jaungoicoaganaco amorioz eracequiac. Ecusico ditugu besteetan; oi bigüiña quenduric, lur otzaren, arbazten, edo ol utsaren gañean lo eguiten. Ecusico ditugu batzuetan soñeco zacar-lacatz bat besteric gabe, naiz izan jatorri guztiz prestucoac. Ecusico ditugu besteetan zurdaz, edo auntz illez eguindaco soñecoa larruaren urrena jauntziric, ta au zan anciñaco cilicioa: ta oraiñ onen ordean ipintzen due ascoc lar-

ruaren contra alambrezco catea bat barrenontz puntac dituala. Cilicioaren ildura usatua izan da chit anciñatic andien, eta chiquien, aberatsen, eta beartsuen artean. Jacob Patriarcac, David Erregueac, Macabeoac, S. Juan Bautistac erabilli zuen cilicioa. Jeremias Profetac deadar eguiten cien gendeai: *jaunci zaitezte cilicioz: eguizue negar, eta adia: Accingite vos cilicio, plangite, et ululate.* Judith andre prestu, pijo, ta ederrac, alargundu zanean, aldeguin zuan munduaren zoraquerietatic, guelditu zan bere echean, garbitasun, eta penitencian bere egunac bucatzeco: jaunci zuan cilicioa, Escritura Santac esaten digun bezala (c). Au bera eguiñ due Legue berrico Santu eta anima on virtutetsu ascoc. Ecusico ditugu batzuetan beren buruac azotez ceatzen soñecoac, eta pareteac odolez betetzeraño (d), besteetan barau gogorrac ateratzen, doi doia viciric egoteco diña jaten, eta edaten duela. Esanguidazu, Cristaua, baldin dembora guztietaco Santuac, edo anima virtutetsuac, ta aen artean batzuec batayoan artu zuen graciaren soñeco zuri-ederra galdu etzuenac, onembat aleguiñarequin ilduratzen bazuen gorputza ¿cer eguiñ bear ez guenduque guc, eguiñ ditugun adiña becatu, ta gaistaqueriaren ondoren? Ta ezpadegu viotzic gorputza ilduratzeco, ta ecitzeco ¿nola irichi uste ditugu, Santuentzat, edo anima onentzat prestaturic dauden, Ceruco atseguiñ-contentu miragarriac? Baldiñ aimbeste costatzen bazaizte oec anima onai: guc nai guinduque doaric? Gueyegui balio due, Cristaua, aiñ erraz, eta merque iristeco. S. Paulo Apostoluac esaten digu: Jesu-Cristorenac diranac ilduratu, ta gurutzeficatu duela gorputza bere gura ta naicunde charraquin. *Qui sunt Chti, carnem suam crucifixerunt cum vitiis, et concupiscentiis* (e). Ta bere buruaz dio: castigatzen det nere gorputza, ta ipintzen det ezagüera onaren men-

dean, eracutsiric besteai Ceruraco bidea, nerau galdu ez nadiñ. *Castigo corpus meum, et in servitutem redigo, ne forte, cum aliis prædicaverim, ipse reprobus efficiar* (f). Ecusten det, nere Cristauac, ez dirala guztientzat egoquiac aditzera eman ditudan ildura, ta penitencia andiac; ecusten det gañera guchic duala aec escatzen duen beceiñ espiritu andia. Ecusten det atzenean asco dala Cristauarentzat bere gorputza ilduratzea, ecitzea, ta menderatzea, Jaunaren Legue Santa, ta gañeraco bere eguinbideac gordetzea eragotzitzen dituala bere griña ta pasioac galanqui necatuaz, dala apainduriac utziaz, barautuaz, edo beste eratan (g). Gorputzari ilduraric asco ematen dioe gure necazari prestuac gueyenac beintzat; baldin eguiten dituen nequeac Jaunari esqueñiaz, ta Jaun beraren onra, ta gloriaraco eguingo balira; ta jai egunetan Jaincoaz aztuco ezpalira cembait. Ildura, ta mortificacio mota onen premia gueyago due aisian, eta eraz vici diran gendeac; ongui badu alabaña pochoc zaldalea, ta necatzen ezpada, edo echean, edo campoan, certan, edo artan, ez dira faltaco osticocac, arrantzac: eta oitura gaistoac. Ala guertatu da oraindañocoan, ta ala aurrera-ere guertatuco da munduac dirauen artean. Itz batean: Cerura nai badegu, era batera, edo bestera gorputza necatu, ta mendean iduqui bear degu, amilderaci ez gaitzan becatuen cinguiretan. Jesu-Cristorenac diran anima, ilduratu, ta gurutzeficatu due araguia bere gura, ta naicunde charraquin, dio S. Pauloc: *Qui sunt Chti, carnem suam crucifixerunt cum vitis, et concupiscentiis.*

Ona da, ta ona ezecic guztiz bearra gorputzaren ildura, edo mortificacioa, ecusi degun bezala, baña

ascoz obea da, dio S. Agustiñec, ascoz preciotsuagoa, ta goyagoa bigarrena, edo *barrengo mortificacioa. Pretiosius, et sublimius* (h). Barrengo ildura, edo mortificacio guztia biurtu diteque iru gauzatara. Lenengoa da gure gorputzari, sentiduai, griña, ta pasioai ucatzea escatzen dituen atseguin-contentuac, ta ongui eraman Jaunagandic, edo lagun urcoagandic egun oro datozquigun, samintasunac, eta gurutzeac. Bigarrena: gure griña, ta pasioetatic jayotzen dan, gogo, ta nai guztia utzitzea. Irugarrena gure lan, ta gauza guztietan guiari artzea Jaunaren nai, edo borondatea. Ez dezu zuc aditzen noasqui, Cristaua, gauz oen otsa baicic; ta zuri dagoquizun adiña aditu ditzatzun, enzun ezazu contuz oraiñ adierazteta noana.

Iru gauz oetatic lenengoaren gañean esaten digu S. Bernardoc gauz eder bat. Gueren buruaquin eguiñ bear degula, dio Santuac, eri baten contua artuta zai dagoanac eguiten duana. Onelaco contua daucanac ucatzen dio eriari calte eguingo dion guztia, naiz negar eguin dezala; baña on eguingo dioen gauzac arrerazten diozca aleguiñean, naiz eriaren gustoac ez izan. Au bera da guc gueren baruaquin eguin bear deguna. Ucatu jan-edan gaistoac: ucatu beguien beguiratze arroac, edo ariñac: ucatu belarriai canta ciquiñen, itz anima galgarrien, ta erausi gaistoen aditzea: ucatu escuai queñada, ta uquitze bear ez diranac. Ucatu soñecoen arrotasun, ta apainduria ez dagozquigunac, dantza, jolas, eta ibillera zoroac. Eta egun oro naiz echean, naiz campoan arquitzen ditugun, samintasunac artu bear ditugu, gure animaren eritasunac sendatzeco datozquigun sendagayac, ta edariac bezala. Ona barrengo ildura edo mortificacioaren malla bat. ¿Baña nor da egungo egunean bere anima eriari era onetan contu eguiten

diona ? Nor era onetan ucatzen diozcana bere buruari gorputzac, sentiduac, griña, ta pasioac gura dituen atseguin contentuac ? Nor, Jaunagandic, edo lagun urcoagandic datozquigun gurutzeac ongui artzen, ta viotz prestuarequin daramaizquiana ?

Barrengo ildura, edo mortificacioac escatzen du gañera gure griña, ta pasioetatic datorquigun gogo, eta naya osotoro ucatzea, utzitzea, gurutzeficatzea. Au da gueren amorio, ta vorondatea, esan oi zayon gaisoaren ucatzea. Au iristeco guc, jarraitu bear diogu Santuac, eta guizon jaquintsuac ederqui eracutsia utzi digüen bideari. Ara nolacoa dan bide au. Gure griña, ta pasioac batzuetan nai due debecatua dan gauza larria, eguiñ dezagun contu edanean osotoro igarotzea, lagun urcoari calte andiren bat etortzea, seigarrengo mandamentuaren contraco atseguiñ loyac. Ecusia dago, beartuac gaudela becatu larriaren azpian gauz oetan gure gogo, ta naya osotoro ucatzera, ta gurutzeficatzera Jaunaren beldur Santuarequin. Norbaitec niri jarraitu nai badit, uca beza bere burua, dio Jesu-Cristoc. *Abneget semet ipsum.* Gure griña, ta pasioac nai due beste batzuetan debecaturic dagoan gauzaren bat, baña berez larria ez dana. Eguiñ dezagun contu guere buruac edertzeco guezur chiqui bat esatea, gurasoai vicitasun piscaren batequin erantzutea, lagun urcoaren falta barreatuac contatzea, apaintzeco contu gueyegui ipintzea. Gauz oetaraco gogo, ta naya ucatu bear du Cristauac, bere griña, ta pasioen mendean vici nai ezpadu. Gauza chiquietan, ta egun oro, edo sarritan guertatzen zaizquigunetan ucatzen badegu gure gogo, nai, edo borondate charra, erraz guero garaitzen da gauz andietan; baña jarraitzen badiogu gure gogoari gauza chiquietan, chiquiac diralaco aitzaquian; laster au bera guertatuco da andietan-ere. Ala esaten di-

gu Espiritu Santuac (i). Ala eracusten digu egun oro guertatzen danac. Aurrenean asi oi dira utseguiteric andienac-ere gauza chiqui batetic. Beguiratze goiso bat, sarricho itzeguite bat: apaindu nai gueyegui bat, beranducho echeratze bat, lagun urcoaren utseguite chiquien gañean erausian egote bat, ta beste onelaco milla gauza, aurrenean chit erraz utzi citezqueanac, ecarri izan ditue ondoren guztiz negargarriac. Argatic gauza chiquiac dirudienetanere contuz ucatu bear degu, gure griña, ta pasioetatic datorquigun, gogo, ta nai charra.

Gure griña, ta pasioac nai due batzuetan berez becatu ez dan gauzaren bat. Eguiñ dezagun contu bergera batean loreac, frutac, belar usai gozodunac ecustea, ta miratzea: lagun artean ipui, edo contu garbiac gatzarequin esatea, ta beste onelaco gauza asco ez dira gaistoac, eta bear dan fiñ onarequiñ eguiten diranean, izan ditezque onac. Alaere bere gogo, eta nai charrac ucatzen, eta gurutzeficatzen icasi nai duanac, sayatu bear du, batzuetan bederic, becatu ez diran gauzetan-ere bere gogoac escatzen diona ez eguitera. Ala eguiñ zuan David Erregueac beiñ batean. Guerran cebillen Filisteoen contra, ta egarriac estuturic esan zuan bere soldaduen aurrean: *O ! ematen balit norbaitec Belengo putzuco ura* ! Au aditu zuenen artetic irten ciran iru zaldun chit indartsuac, ta Filisteoen erditic igaro ciran Belengo putzura, eta ecarri zuen, Davidec aimbeste nai zuan, ura. Ecusiric Davidec cembat costa zan ur ura, etzuan edan, baicic esqueñi cion Jaunari (j). Etzan gauza gaistoa ura edatea, egarriac cegoan edan nai zuana, ta Erregue zan; baña alaere ilduratu, ta garaitu nai izan zuan bere gogo, ta naya. Era onetan sayatzen baguiña gure gogoetac, ta naicundeac ucatzera berenez becatu ez diran gaucetan, quemenic

gabe gueratuco liraque gure griña , eta pasioac , edo beintzat erraz garaituco guinduque gauza debecatuen esque asitzean.

Gure griña , ta pasioac escatzen due beste batzuetan berez gauz ona , ta Santa dana. Eguiñ dezagun contu sarritan , eta ongui prestaturic confesatzea, sermoyac aditzea , meza nagusiac entzutea. Norc eztacus gauz oec dirala chit onac? ta oetaraco genioa, ta griña chit ederra? Alaere ucatu bear degu gauz oetaraco gogo, eta naya, gauza berac eguitea utzi gabe. Badaquizu, edo jaquiñ nai dezu nola? Eguiten ditugula gauz on oec, ez gure gogo, ta nayagatic: ez gure genioari atseguiñ emateagatic, baicic Jaunaren borondateari, ta gure animen onari beguirauric.

Era onetan ucatu ondoan gure griña, ta pasioetatic datozquigun gogoac, ta naicundeac ez da besteric bear barrengo ildura, ta mortificacioa ederqui eguiteco, ezpada artutzea Jaunaren nai, ta borondatea gure lan, eta gauza gucien guiari. Ez degu ecerere eguiñ bear, ez degu nai izan bear, lenic beguiratu bague cer nai duan gure Jaun onac, ta beraren borondatea ezagutzean itsu itstuan jarraitu bear diogu, dala guretzat samiña, edo dala gozoa Jaunac nai duana. Jauna da alabaña gure Jabea, gure Eguillea, gure Eroslea, ta Onguille andia. Jaun au lecu guztietan arquitzen da guri laguntzeco, ta gure onari beguiratzen. Norc ez du bada Jaun onen borondatea bere guiari ipiñico? Nere Jaun Jaungoicoa! Non izan da oraindañocoan, non nere fedea? non nere centzua? Ez det nic oraindaño nere gogoa, nere naya beste guiariric ezagutu! Joan dira nere urteac quearen eran, eta Ceruraco bidea ongui ezagutu ga-

be! Eracusi guidazu, Jauna, zure borandate santua eguiten: eguiñ bedi au Ceruan, eguiñ bedi lurrean, eta mundu guztian. Amen.

Beguira-zazu oraiñ, Cristaua, cer utseguiñ dezun cere griña, ta pasio charrac ilduratu, ta gurutzeficatu gabez. Beguira bigarrena: cembat dembora onetan vici ceran zabarqueria onetan, eta Jaungoicoaganaco onguinai, ta amoriozco afectoac eguiaz, eta viotzetic eguiñ gabe. Eta beragatic saya zaite oitura, griña ta pasio charrac ilduratu, ta gurutzeficatzeco; presta zaite confesio on bat eguiteco; au eguiñaz , eta aurrera Jaunaren laguntzarequin vicitza onari jarraitzen diozula, iritsico dezu Ceruco gloria. Amen.

(a) Duo sunt abstinentiæ, et crucis genera: unum corporale, aliud Spiritale. Augustinus Serm. 20 de Sanctis, et 1.° de S. Joanne Baptista. (b) Psalm. 48. (c) Scissisque vestibus, indutus est (Jacob) cilicio lugens filium suum multo tempore. Genes 37. Cum mihi molesti essent, induebar me cilicio. Psalm. 34. Posui vestimentum meum cilicium. Psalm. 68. Caput terra aspergentes, lumbosque ciliciis præcincti. Machabæor. Lib. 2 c. 10. De S. Joan. Math. 3. Vide etiam Jerem. c. 4, ubi sunt verba illa: *Accingite vos ciliciis* &. *Habens* (Judhit) *super lumbos suos cilicium*, jejunabat omnibus diebus vitæ suæ præter Sabbata. Cap. 8.

(d) Auctores spontaneæ, et propria manu inflictæ flagellationis facit Beatos Dominicum Loricatum, et Petrum Damianum Jacobus Boyleau Doctor Sorbonicus apud Gravesoniun, et Benedictum XIV. Hi tamem cum Joanne Mabillonio demonstrant, ussum spontaneæ ververationis antiquiorem esse Beato Dominico Loricato, et Petro Damiano. Displicet Jacobo Boyleau hæc consuetudo , eo quod flagellorum ictus dorso incussi oculis officiant, methodusque flagellandi lumbos femorales ad venerem incitet. Ast spernenda est hæc ratio, *certum enim est* « inquit Benedictus XIV, ex centum homi-

»nibus, qui se flagellant, vix unum inveniri, si modo inve»nitur, qui ex flagello incitetur ad venerem; cumque reliqui »nonaginta novem rebelles carnis motus flagellando cohibeant, »nemo est qui non videat, pium hunc ussum licite ex præ»dicta ratione improbari non posse; et multo magis, cum »ille qui carnis rebellionem in ipsa verberatione experitur, »non solum possit, sed etiam debeat ab ea se abstinere; quod »ipsum fieri debet etiam ab illo, qui ex flagellis adhibitis vis»sus detrimentum capit; nisi forte uterque verberationis lo»cum mutando, se ab utroque periculo liberare possit. Nec »urget quod á Clemente VI edita est constitutio adversus »Flagellantes, in qua vetitum est, ne de cætero Chti fideles »verberationibus utantur. Constitutio enim edita est adver»sus eos, qui ex Hungaria ortum ducentes viri, et mulie»res, per totam Germaniam superiorem, et inferiorem, Po»loniam, Galliam, Angliam, et Belgium bis palam de die, sed »fere scurrilliter aculeatis funiculis, ad sanguinem usque se»se flagellabant; uti fusé refertur apud Spondanum in conti»nuatione annalium Card. Baronii ad annum 1349 n.º 2, et ex »eo apud Josephum Binghamum tom. 3 de antiquitate Eccle»siast. lib. 7 cap. 3 § 12, ubi etiam ille narrat deprava»tos eorum mores, et impia, et hæretica dogmata, quæ pro»fitebantur. In quo rerum themate unusquisque facili nego»tio cognoscere poterit, nullum hinc deduci posse argumen»tum adversus piam Sanctorum consuetudinem se flagris, et »loris percutiendi, ne caro adversus Spiritum concupiscat.» Hæc est plura alia videsis apud Benedictum XIV in suo o-pere de Canonizatione Sanctorum compillato á Hieronimo Lombardo Soc. Jesu. Volum. 2. Dissert. 7.

(e) Ad Galat. c. 5. (f) 1.º ad Corinth. c. 9. (g) Carnis, corporisque mortificatio, præter jejunia, et cætera ab Ecclesia præcepta, ex se non est necesaria, ut homo salutem æternam consequatur «Non enim necese omnibus est, ait Bellar»minus *de septem verbis Domini* Lib. 2 cap. 10, humi cu»bare, flagellis ad sanguinem usque corpus proprium cæde»re, jejunare quotidie in pane, et aqua, cilicium asperum, »vel ferream catenam ad nudam carnem quotidie gerere; »et alia id genus, ad carnem edomandam, et cum vitiis, et »concupiscentiis crucifigendam facere.» Nihilominus certum

est teneri omnes ita temperantiæ virtutem exercere, ut avertumus pericula consentiendi corporis cupiditatibus, quæ vix-contigere postest quin carnem domare satagamus aut labore, aut sobrietate, vigiliis &. (h) Augustinus loco citato. (i) *Qui spernit modica, paulatim decidet.* Eccli 19. (j) 1.º Paralip. 11.

IRUGARREN DOTRIÑA.

GRIÑA, TA PASIO NAGUSIAREN GAÑEAN.

Si quis vult post me venire, abneget semetipsum. Math. cap. 16.

Ecusi guenduan aurreco dotriñan, ceiñ gauza premiazcoa dan gure griña, ta pasioac ucatzea, ilduratzea, ta ecitzea, guc gure Jaun Jaungoicoa viotz osoz amatu nai badegu. Ecusi guenduan gañera ceiñ erraz gai onetan utseguiten degun. Gaur itzeguiñ nai dizuet gure griña, ta pasio nagusienaren gañean. Adiracico dizuet, 1.ª cer dan griña, ta pasio nagusiena esaten dioguna. Adiracico dizuet 2.ª ceiñ contu, ta arreta andiarequin griña, ta pasio-mota au ucatu, ta ilduratu bear dan. Atzenean beguiratuco du bacoitzac, cer, ta nola utseguiñ duan alde onetatic Jauna amatzeco Aguintearen contra. Enzun arretarequiñ Cristaua.

Baldiñ guc guerengan igarotzen zacuna aitortu nai badegu, nai ta ez esan bearco degu arquitzen dirala gugan gura, gogo, naicunde, ta zaletasun batzuec

gure ona iristeco, ta gaitza ayenatzeco. Zori onecoac izateco, ta zori gaistotic aldeguiteco. Gura, ta gogo au eman cion Jaunac guizonari, arreta gueyagorequiñ ibilli cediñ bere Ceruraco bidean. Baña cer guertatu zan? Cer ezpada guizonac bere Jaunaren aguintea ausitzea, jaten zuala Jaun berac debecatu cion sagarra; ta galtzea berequiñ bere ondorengo guztientzat *justicia* edo *zucentasun* originala deitzen zayon doai miragarria. Emendic gure zori onaren gogo, gura, ta egarria gueratu zan guztiz epeldua animari dagozcan gauz-etaraco, ta osotoro etziña, ta macurtua munduco gauza, ta atseguiñ circilletara. Macurtua bere naya eguitera, ta bere iritzi itsuai jarraitzera. Macurtua emengo ondasun, irabazbide, ta oen naspilla guztietara. Macurtua gorputzaren atseguiñ loyetara, dala janean, ta edanean, dala jauncian, dala jolas, ta ibillera lotsagarrietan. Macurtua bere ona begui onez ecustera, ta lagun urcoarena illuntasun, eta tristuraz. Macurtua; baña certaraco aurrera igaroco guera, banaca ucuituaz gure gura charrac? Asco da esatea becatu eguinta gueratu zala guizona gaitzeraco zaletasunez inguratua, ta centzugabeco animalien antzeco eguiñic. *Comparatus est jumentis insipientibus, et similis factus est illis.* Guizonac bada berequiñ dituan *gura, gogo, naicunde*, ta zaletasun oei deitzen diegu *griñaren* icenez; ta oetatic jayotzen diran *asaldacioac*, bagac, ta muguimentuac dira *pasioac.*

Griña, ta pasioac, edoceñec beregan ecusten duan bezala, ez oi dira izan berdiñac indarretan, ta aguintean. Guertatzen da batzuetan, griña batec beste guztiac bere mendean ipintzea, ta guztien gañetic tontorra jasoric, guztien alcate, ta aguintari bera gueratzea. Guertatzen da beste batzuetan, bi edo gueyago griña, ta pasioc elcar artzea: eguiñ dezagun contu *cuticiac*, ta viotzaren gogortasunac; janedaneraco gurac, ta lujuriac; ta elcar arturic beste guciac menderatzea. Griña ta pasio aguintari oei derizte: *griña, ta pasio-nagusienac*; ta aguinte au datorquie bide ascotatic. Batzuetan gorputzaren sasoi, aro, edo temperamentutic. Ala Esauren griña nagusiena zan gogortasuna, ta gozacaitzqueria, bere sasoi, ta temperamentu lacatzac griña oni indarrac ematen ciozcala. Dembora berean Jacob-ren griña nagusiena zan paqueatsua, ta Jaincotia izatea, biquiac, ta sabelaldi batecoac ciralaric Jacob, ta Esau. Beste batzuetan gure griña, ta pasioren bat guztien aguintari izatea, dator adiñetic. Ala ecusten da, aguintari dirala aur demboran griña, ta pasio batzuec, gaztedasuna sartzean beste batzuec, ta zartzean beste batzuec. Aur demboran griña nagusienac izan oi dira *gueldiric ecin egona, erausia, embidia.* Gaztedasunean *arroqueria, baletic bestera ibiltzea, dana, ta ez dana arduragabe gastatzea, apaindu naya, ta jolas, ta atseguiñ charren gura.* Badator zartasuna, ta gueyenean aguintari jartzen dira beste griña, ta pasio batzuec. Cuticia, onra, era on, ta estimacioen ansia: anciñaco gauzac laudatzea, dembora oetacoac ecertan ez iduquitzea: iduricortasuna, ta iñorgan eciñ fiatzea: oec dira, zartasunean gueyena nabarbentzen diran, griña, ta pasioac. Batzuetan gure griña, ta pasioren batec besteen artean gueyena tontorra alchatzea etorri oi da acieratic; besteetan lagun gaisto, edo onaquiñ biltzetic, edo oitura gaistoac, edo onac artzetic. Ezpadu semeac, edo alabac jayozanetic aditzen, madaricacioa, ta juramentua baicic; ezpadu ecusten queñada ciquiñac, ta escuca loyac besteric; erraz onelaco seme, edo alabaren griña, ta pasio nagusiena izango da, birauac eguiteco, ta atseguin loyetaraco griña,

Universidad de Deusto
Biblioteca

ta pasioa. Atzenean gure griña, ta pasioren bat besteen artean aguintari, ta nagusiena izatea etorri oi da idurimendu, edo imaginacioaren aldetic. Idurimendu, edo imaginacio guztiac ez dira berdiñac, ta era batera moldatuac, ta guerta diteque griña batari besteari baño su, ta indar gueyago ematea. Ala ecusten da genio illun baten imaginacioac gueyago laguntzen diola tristuraren griña, ta pasioari besteai baño: ta au bera guertatzen da genio mota bacoitzean. Gañera; cer nolaco antz, ta imagiñaquiñ betetzen dan imaginacioco ispillua, alaco griña, ta pasioac; au da antz, ta imagiña aei dagozten pasioac gueyena esnatzen dira, ta nabarbentzen; ta gueratzen dira oec aguintari, ta nagusi eguiñic. Eguizu contu, Cristaua, quenduric zure guelatic Ama Virgiñaren antz, ta imagiñac, guelaren lau aldeac betetzen dituzula pintura gaistoz, ta nornai becatura amilderazeco egoquiac diran, imagiña ciquiñez. Ecusia dago, ceiñ pasio, ta griña izango dan zure aguintari, ta nagusi pintura ta imagiña ciquiñ aec ayenatu, edo bota arteau. Ta ona cer guertatzen dan egun oro, ta puntu oro, idurimentu, edo imaginacioaren ispillua, edo liburu miragarria antz, ta imagiña gaistoz, edo ez onez betetzearequin. Aurtasunetic bear bada urlia oitu zan, bear ez diran gauzac ecustera, aditzera, ucuitzera, ta bete zuan bere idurimenduaren, edo imaginacioaren guela antz, ta imagiña ciquiñez. Guero aei beguiratuaz, llilluraturic, ta choraturic egonaz, gueratzen dira imagiña berac imaginacioan sendoro ezarriac; ta emendic dator, urliagan griña, ta pasioric sutuena, eta nagusiena izatea ciquinquerietaraco griña, ta pasioa. Emendic sarritan aguertzea animaren beguietan gauza loyen, ta nazcagarrien antz, edo imagiñac, dala bacarric dagoanean, dala norbaitequiñ itseguitean,

Meza enzutean, edo edoceiñ gauza eguitean. Emendic batzuetan vicitza guztico gurutze necagarria, ta beiñ baño gueyagotan burua galtzea. Chit nequez miñance au sendatzen da; sendatzeco alabaña, quendu, edo deseguiñ bear liraque imaginacioan ezarriric dauden antz, eta imagiña loyac, ta aen lecuan ipiñi Jesus gurutzeficatua, infernuco penac, edo beste onelaco gaucen imagiñac; ta au da gauza, dembora, gogo ona, ta Jaunaren laguntza andia escatzen duena. Guertatu da iñoiz lecu andiren bat, edo ezcontza bat aimbesteraño deseatzea, ta aiñ vici, ta sendoro imaginacioan gauz oen antz, ta imagiñac ezartzea, non sinisturic gueratu izan diran ansia oec cituenac, Obispo, edo Cardenal eguiñ dituela, edo ezcontzeco itzac eman citzaiztela, eta eguingo luquee noiz-ere nai juramentu, eguia dala au guztia. Ezta oraiñ contu ateratzea besteric, nolaco indarra duan idurimendu, edo imaginacioac gure griña, ta pasioai su emateco, ta nola oetacoren bat eguiñ ditequean beste griña, ta pasioen buru, ta aguintari (a).

Baderitzat, Cristaua, esan dedanarequin ezagutu dezaquezula, cer dan *griña, edo pasio nagusiena* esaten dioguna. Oraiñ adierazo nai nuque, ceiñ contu, ta arreta andiarequiñ griña, ta pasio-mota au ucatu, ilduratu, ta eci bear degun. Ez det emen itzeguiten griña, ta pasio onera garamatzienen gañean. Onelaco doai preciotsua duenac, eman bear diozquee milla esquer Jaunari, ta Jaun beraren onra, ta gloriaraco zucendu bear due beren griña, ta pasio ona. Ala eguiten zuen Abelec, Jacob, Job, ta beste Santu ascoc. Contu eguiñ bear due onelacoac, eguiten dituen, gauz onac eguiteaz ongui, au da, ez beren gri-

ña, ta pasioari atseguiñ eguiteagatic, ez beren nayari, ta contentuari beguiraturic; baicic Jaunaren onra, ta borondatea beguien aurrean ipintzen duela. Onetan bear dan, arreta artu gabez, cembat Ceruco ondasun galtzen dira? Itzeguiten det bada, gaitzera gáramatzien, edo gaitzera amiltzeco perillean ipintzen gaituen, gure griña, ta pasio nagusienen gañean: diranac dirala oec, edo andiustea, edo cuticia, ira, gorputzaren atseguin lizunen gura, edo beste edoceiñ.

Aurreco dotriñan ecusi guenduan, ceiñ gauza bearra dan guc gure griña, ta pasio charrac ucatzea, ilduratzea, ta ecitzea ¿Ta gauza bearra bada griña, ta pasio gaisto guztiaquiñ au eguitea: cer izango da, gure griña, ta pasio nagusienari beguiratzen badiogu? Ceiñ contu, ta arreta andia ipiñi bearco ez degu au ilduratzeco, ta ecitzeco? Au da alabaña gure etsayen artean andiena, ta alaere gueyena maitatzen dana. Au da gueyena ezcutatzen, ta jauntzi ederrez apaintzen dana. Au da atzenean griña ta pasio bat, mugaz ilduratzen, ecitzen, ta garaitzen ezpada, eriotzaraño jarraituco diguna; ta garaituric dagoala uste izan arren, derecha datorquionean, berriro equiten duana animaren contra.

Gure griña, ta pasio nagusiena da beñic beiñ gure etsai guztien artean andiena, edo gure etsayen buru, aguintari, ta erreguea; ta beragatic, gure eguiñ al guztian, burua quendu bear guenioque ilduratuaz, ta nai duana eguiten utzitzen ez diogula. Baña gure itsumenaren izugarria! Etsai izugarri au izan oi da guc gueyena maitatzen deguna; oni barcatzen diozcagu, eguiten, ta eraguiten dituan, oquerrac; ta beldur guera griña, ta pasio nagusiena mucinduric, ta begitarte gaistoarequin jarri daquigun. Beguira ezperen egun oro ecusten danari. Beguira

gazte jolas, ta ibillera dongueetan dabiltzanai: beguira ezcontzeco usteaquin zoraturic, ta Jaunaren beldur santua utziric vici diranai. Oen griña nagusiena batzuetan da jolas ez garbien, itzeguite, ta queñada lotsagarrien gura, ta besteetan era gabeco ezcondu nai bat, prest ipintzen dituana asco utseguitetan amiltzeco. Ta alaere ez due viotzic griña, ta pasio nagusien oec ilduratzeco, ta ucatzeco; maiteegui ditue, onen gogor artzeco, griña berac. Aguindu bequie beste edoceiñ gauza, barauac, errezoac, belaunico egotea, ta ala bear bada, izotzturic dagoan, erreca batean leporaño sartzea, ta eguingo due pocic utzitzen bazate beren griña nagusiena ucuitu gabe. Au bera guertatzen da cuticiosoarequiñ, ta edaneraco griña duanarequiñ. Eguiñ oi degu onetan Saulec Amalecitaquin eguiñ zuana. Aguindu cion Jaunac Saul Erregueari Samuel Profetaren bidez, deseguiñ, ta osotoro urratu citzala Amalecitac, andiri, ta chiquiri, ez eta ganaduai-ere, barcatzen etziela. Irten zan Saul guerrara berreun milla ta gueyago soldadurequiñ. Garaitu cituan Amalecitac: bucatu zuan gende che guztia, ta gauza chit preciotsu etziranac deseguiñ cituan. Baña etzuan viotzic izan Agag Amaleciten Erregueari, ta artalde ederrai vicitza quentzeco (1 Regum cap. 15). Barcatu cien, ta aserreraci cion Jaunari. Ona guc eguiten deguna animaren guerran. Aguintzen digu Jaunac gurutzeficatu ditzagula gure griña, ta pasioac. Garaitzen ditugu gueren gogocoac ez ditugunac, baña gure griña nagusienac? Oec gueyegui amatzen ditugu, bereala deseguiteco, ta ucatzeco. Barcatzen diegu, ta gurequiñ dijoaz obiraño. Ala ecusten da edaleaquin, ala itz loi ciquiñac esateco, ta queñada lotsagarriac eguiteco oitura duenaquiñ: ala ezcondu bear, bear ta bear asi diranaquiñ, ta ala cuticiari, ta

irabaci ez garbiai ederretsi diezanaquiñ.

Gure griña, ta pasio nagusiena etsairic andiena izateaz gañera da, ezcutatzen, ta colore ederrez jauntziric, ta apainduric, aguertu oi dana. Urliaren griña, ta pasioric indartsuena, ta aguintariena izango da, eguiñ dezagun contu: *andi ustea; ta bere borondatez, ta iritziz* dan guztia betea, ta puztua egongo da. Emendic dator, urlia norbaitec ucuitzen badu, edo ucuitu duela, iduritzen bazayo, onra, ta puntuari dagozcan gaucetan, edo eguiten ezpazaizca gura dituan agurrac, ta naicuntzac; ezpadu auzoac, edo aideac arc nai duana eguiten, aren alde itzegiten: artzen du urlia suac, eta garrac, ta ez da aren aotic aguertzen, biraua, madaricacioa, lagun urcoaren onrari, aren aurrecoai, ta aideai ozca, ta aguinca aritzea besteric. Oquer oen guztien iturburua, oen ama, ta sustraya da andi ustearen, ta soberbiaren griña, ta pasio nagusiena; ta alaere eztu aitortuco urliac eguia au: ezcutatuco du zauri au, ta esango du aserrearen su aldi batean eguiñ cituala onembeste birau, ta aimbeste erausi. Sandiaren griña, ta pasio nagusiena izango da cuticia, edo ondasunen egarri beñere eciñ ill, ta eciñ aspertu dan bat; ta berac ez, beste guztiac ezagutzen due au, ta esaten. Egarri onetatic dator saldu erosian zucen ez ibiltzea: gende bear guztia alferra, burugabea, ta besteren costuz vici nai luqueala iritzitzea. Emendic viotzaren gogortasuna, ta emengo gauzetatic gogoa eciñ quendua. Ala ere ez du cuticiosoac ezagutu nai bere minantze, eta griña nagusien au: *gauzaric ez dala, esango du, conturic, ta arretaric, ez dan lecuan.* Berendiaren griña, ta pasio nagusiena da embidiaren griña cimur-lotsagarria. Emendic dator auzoaren, aidearen, ta ezagunaren berri onac aditzean, barrena illunduric gueratzea, ta aren calteren bat ja-

quitean viotza zabaltzea, ta esatea: *edergui eguiñ zayo, ongui irabacia zuan aren ibillerac.* Alaere ez du aitortuco berendiac embidiaren griña, ta pasioa. Ezcutatuco du, ta edertuco beste coloreren batequiñ. Aurrac esan oi duen bezala, esan lezaque. *Buruban sabeleco miña duala.* Urliaren griña, ta pasioric indartsuena, ta nagusiena da mutillaquiñ, edo nescachaquiñ atseguiñ artzea, ta jolastea, ta eciñ dago jolas gabe. Emendic dator itz loy, queñada, ta escuca ciquiñetan erortzea. Emendic festa, ta dantza lotsagarrietan ibiltzea, alberdanian ganaduen eran iñauterian, errico, ta auz errietaco festetan, ta derecha dan guztian. Alaere urliac ez du osotoro aitortuco becatu oen guztien sustraya, eta pasio nagusia. Ez du aitortuco nescachaquiñ edo mutillaquiñ jolasean ibiltzeco egarri, ta pasioa; ta guertatu diran becatuac aitortzen badira, aitortuco dira erdizca, ta ustecabecoac bezala. Au bera guertatzen da beste griña nagusi ascorequiñ. Onetan eguiten da, Raquel Jacob-ren emazteac Laban bere Aitari ostu ciozcan, idoloaquin eguiñ zuana. Jacob bere emazte, mirabe, ta gauzaquiñ irten zan isilic Aita guiarabaren echetic, ta Raquelec berequiñ eraman cituan Aitaren idoloac. Jaquiten du Labanec Jacob-ren irteera, ta ez ditu arquitzen bere idoloac. Bereala irten zan suyaren ondoren, ta achituric, esan cion oni: Cergatic ostu dituzu nere Jaincoac? *Cur furatus es Deos meos?* Erantzun cion Jacobec: Zure idolo edo Jaincoaquiñ zuc arquitzen dezun edoceñi, quendu bequio guztien aurrean vicia. Etziaquian Raquelen lapurretaren berriric, ta ez jaquiñean itzeguiten zuan onela. Miratu cituan Labanec Jacob beraren, ta beste batzuen egon lecuac, ta etzituan arquitu bere idoloac. Badijoa Raquelen guelara, edo estalpera, ta Raquelec ezcutatzen ditu idoloac gameluen chalmapean,

ta esertzen da gañeán. Miratu cituan Labanec chalmape ura ez, beste lecuac, ta orduan esan cion bere alaba Raquelec: Ez dedilla aserratu Jauna, berorren aurrean chutic eciñ jarri naitequealaco: arquitzen naiz alabaña emacumeac izan oi duen miñance arequiñ. (Genes. 31.) Onela engañatu zuan Raquelec bere Aita, ta gueratu zan bere idoloaquin. Esanguidazu oraiñ, Cristaua, ez dezu zuc au bera, edo onen antzeco gauza bat eguiñ zure viotzeco idolocho oriequiñ? Zure idoloa da zure griña, ta pasio nagusien ori. Zure idoloa da zure andi ustea zure aicezco puntu ori. Zure idoloa da ondasunen, edo irabaciaren egarri ori. Zure idoloa da edaneraco oitura ori. Zure idoloa da *ezcondu bear, bear, ta bear ori.* Zure idoloa da nescachaqüiñ, edo mutillaquiñ enasquerian ibilli nai ori. Ta idolo oec osotoro utzi bearrean ecusi ez dezazun cere burua, estaltzen dituzu alic onguiena, ez Raquelec bezala gameluaren chalmaquiñ, baicic beste soiñ ederragoaquiñ.

Atzenean gure griña, ta pasio nagusiena da griña, ta pasio bat, mugaz ucatzen, eta ilduratzen ezpada, gu illarte guztian iraungo duana: ta garaitua dagoala idurin arren, berriro equiten duana animaren contra, derecha datorquion puntuan. Noiz ecusi dezu, Cristaua, mugaz ucatu, ta ilduratu ez diran griña, ta pasio nagusiac eriotzaraño iraun ez duela? Noiz cuticiatsuac, noiz onra, ta puntuan viotza ipiñi duanac; noiz edaneraco itsumena duanac; noiz itz loyac esateco, queñada, ta escuca ciquiñac eguitera oitua dagoañac; noiz utzi ditu ill artean bere griña, ta pasio nagusien oec? Baña eguiñ dezagun contu mugaz ucatzen, eta garaitzen dituzula griña, ta pasio nagusiac. Ez dezu zabartu bear alaere ceren berriro equingo dizu dembora, ta derecha ona datorquionean. Sinits guidazue, esaten digu S. Bernardoc: *Credite mihi*: iñausita ere berriz aguertzen dira: *Et putata repullulant.* Ayenatuta, edo üisatuta atzera gurequiñ dira: *Et effugata redeunt.* Itzalita berriro piztutzen, ta eracequitzen dira. *Et reaccenduntur extincta.* Loac artuac, ta sortuac daudela ere berriz esnatzen dira. *Et sopita denuo excitantur.* (b). Guchi da, dio Santuac berac, beiñ iñaustea gure griña, ta pasioac. Sarritan iñausi bear dira, ta sarritan ezecic, albada beti onetan jardun bear lizaque. Eta asco baratzazay batec belar gaistoac beiñ, edo berriz jorran ebaquitzea: beti contuan egon bear du, ta jorraya sarritan erabilli. Nai duanac nere ondoren etorri, ucatu beza bere burua, au da, bere griña, ta pasioac, esaten digu Jesu-Cristoc. *Siquis vult post me venire, abneget semeptisum* ¿Ecusten dezu, Cristaua, ceiñ contu, ta arreta andiarequiñ ucatu, ta ilduratu bear dan griña, ta pasio nagusiena?

Beguira ezazu bada oraiñ, onetan izan dezun zabarqueriarequin cer utseguite eguiñ dituzun Jaunaren lenengo mandamentuaren contra. Cembat dembora onetan vicitu ceran cere Jaun Jaungoicoa eguiaz, ta viotz osoz amatu gabe, cere griña, ta pasio gaistoac ucatu, ta garaitu gabez. Eta atzenean saya zaite Jaunaren laguntzarequiñ cere griña, ta pasio charrac ucatu ta garaitzera, ta becatuaren bideetatic aldeguitera, onela iristeco betico vicitza doatsua. Amen.

(a) Videsis Muratorium in Philosophia morali (b). S. Bernardus serm. 58 in Cantic.

LIBURU ONEC DACARTZIAN ERACUSALDIEN

ARQUIBIDEA.

Lenengo Eracusaldia: Jesusen piztueraren gañean. 3
Bigarren Eracusaldia: Adirazten da nolacoa izan zan Jesusen piztuera, eta nolacoa izan bear luquean gure animen piztuerac 10
Irugarren Eracusaldia: Adirazten da Jesusen Ceruraco igoera, eta ceiñ guchi diran berarequin ara nai duenac. 17
Laugarren Eracusaldia: Espiritu Santuaren etorreraren gañean 24
Bostgarren Eracusaldia: Espiritu Santuac animan isurtzen duan graciaren doai miragarriaren gañean . . . 31
Seigarren Eracusaldia: Irutasun edo Trinidade chit Santaren gañean. 40
Zazpigarren Eracusaldia: Corpus Cristi edo festaberri eguneraco. 52
Zortzigarren Eracusaldia: Aldareco Sacramentu guciz Santuaren desagravioen festividadearen gañean . . . 61
Bederatzigarren Eracusaldia: Adirazten da nola Virgiña chit Santa, Jaungoicoaren eta gure Ama maitagarria Cerura jasoa edo alchatua izan zan gorputz eta anima . 72
Amargarren Eracusaldia: Virgiña chit Santaren jayotzaren gañean. 81
Amaicagarren Eracusaldia: Ceiñ gauza gaizto eta samiña dan, guc gure Jauna utzi izan degun eran utzitzea. 96
Amabigarren Eracusaldia: Ceñ gauza gaizto eta samiña dan becatua 104
Amairugarren Eracusaldia: Ceñ gauza gaizto eta samiña dan, guc gure Jaun eta Jaungoicoa becatuagatic utzitzea 111
Amalaugarren Eracusaldia: Ceñ gauza gaizto eta samiña dan, guc gure Jaun eta Jaungoicoa utzitzea, ederqui adirazten digüe Jesusec Pasioco neque oñaceac. 117

Universidad de Deusto
Biblioteca

Amabostgarren Eracusaldia: Becatuac berequin ecarri oi dituan ondoren gaiztoen artean, lenengoa izan oi da becatuan erortzeco oitura. 124
Amaseigarren Eracusaldia: Becatuac berequin ecarri oi dituan ondoren gaiztoen artean, bigarrena izan oi da, lagun urcoai becaturaco bidea edo escandaloa ematea. 131
Amazazpigarren Eracusaldia: Becatuaren ondoren gaiztoen artean irugarrena izan oi da, becaturaco bide eta sareetan anima nasturic eta catrabillaturic gueratzea. . 137
Emezortzigarren Eracusaldia: Adirazten da nolaco aitzaquiac billatzen dituan becatuaren bideetan vici danac, andic ez irteteco. 145
Emeretzigarren Eracusaldia: Becatuaren ondoren gaiztoen artean laugarrena izan oi da confesio gaistoac eguitea. 154
Ogueigarren Eracusaldia: Becatua ez aitortzeco, etsayac becatariari gogora ecarri oi diozcan iduripen eta zoraquerien gañean. 163
Oguei ta bat garren Eracusaldia: Vicitza ontzeco asmo oso eta eraguillea sortu gabez eguiten diran confesio gaiztoen gañean 171
Oguei ta bigarren Eracusaldia: Comunio gaiztoen gañean. 178
Oguei ta irugarren Eracusaldia: Ceñ sendagai miragarria dan Jaunaren itz Santua 184
Oguei ta laugarren Eracusaldia: Adirazten da nola becatariac eguiaz Jaunagana biurtu gabe, bere egunac bucatzen dituan 197
Oguei ta bostgarren Eracusaldia: Gure fin goi miragarriaren gañean lenengoa 212
Oguei ta seigarren Eracusaldia: Gure fin goi miragarriaren gañean bigarrena 230
Oguei ta zazpigarren Eracusaldia: Gure fin goi miragarriaren gañean irugarrena 248
Oguei ta zortzigarren Eracusaldia: Gure fin goi miragarriaren gañean laugarrena. 254
Oguei ta bederatzigarren Eracusaldia: Jaunac bere fede ta legue Santara deitzean Cristauari eguiñ dion ontarte edo mesede andiaren gañean 260

Oguei ta amargarren Eracusaldia: Atzeneco Eracusaldico gayaren beraren gañean. 268
Oguei ta amaicagarren Eracusaldia: Asco edo guchi ote diran salvatzen diran Cristauac 280
Oguei ta amabigarren Eracusaldia: Cristau asco dirala deituac, baña guchi autuac 288
Oguei ta amairugarren Eracusaldia: Ceñ gauza gozoa eta ariña dan Jesusen legue Santa gordetzea 297
Oguei ta amalaugarren Eracusaldia: Ceñ andia dan gure Jaungoicoa 308
Oguei ta amabostgarren Eracusaldia: Cer guisatan erraz edo aisa icasi dezaquegun Jaunaren aurrean ibiltzea. 316
Oguei ta amaseigarren Eracusaldia: Jaunaren aurrean gaudela lecu guztietan, eta non nai ta noiz nai beguira dagoquigula sinistearen gañean 322
Ogueita amazazpigarren Eracusaldia: Jauna adoratzeco degun zor andia 335
Oguei ta emezortzigarren Eracusaldia: Jaun Jaungoicoari zor diozcagun esquer on umillen gañean . . . 344
Oguei ta emeretzigarren Eracusaldia: Gure pensamentu, itz, lan eta nequeac Jaunari esqueintzeco degun zor andia 353
Berrogueigarren Eracusaldia: Ordiqueriaren gañean. 364
Berroguei ta batgarren Eracusaldia: Castidadeco virtutearen gañean 391
Berroguei ta bigarren Eracusaldia: Cer aditzen dan dotrinaren icenez, eta ceiñ gauza bearra dan Ceruraco. 399
Berroguei ta irugarren Eracusaldia: Eliz Ama Santaren aleguiñac dotrina guri icaserazteco 407
Berroguei ta laugarren Eracusaldia: Ceiñ marca gaistoa dan doctriñac, eta Jaincoaren itza ez enzutea, eta nor diran marca onequin dabiltzanac 417
Berroguei ta bostgarren Eracusaldia: Cer aditzen dan Jaunaren itz Santuaren icenez, eta nolaco mesedea dan Jaunac bere Elizari itz au utzi dion eran utzitzea . . 428
Berroguei ta seigarren Eracusaldia: Cer prestaerarequin etorri bear degun Jaunaren itz Santua enzutera. 437
Avenduco eta Garizumaco Sermoyac edo doctriñac . 447
Lenengo doctriña: Becatariac bere Jaungoicoagana

biurtzeco duan eguimbidearen gañean 448
Avenduaren lenvicico iganderaco: Bacoitzac eriotzaren une edo puntuan igaro bear degun juicioaren gañean . 454
Avenduaren lendavicico iganderaco bigarrena: Azquen juicioco egunaren gañean. 464
Avenduaren bigarren iganderaco lendavicicoa: Becaturaco bide eta perillaren gañean. 480
Avenduaren bigarren iganderaco bigarrena: Becatuaren oituraren gañean. 494
Avenduaren bigarren iganderaco irugarrena: Confesioco Sacramentuac escatzen duan ontzeco asmoaren gañean 506
Avenduaren laugarren iganderaco: Confesioco Sacramentu Santuaren gañean 519
Avenduaren laugarren iganderaco bigarrena: Azquen juicioco egunaren gañean 535
Garizumaren lembicico iganderaco lendavicicoa: Escandaloaren gañean. 546
Garizumaren lembicico iganderaco bigarrena: Becatari dembora egoquian Jaunagana biurtu oi danaren eriotzaren gañean 565
Garizumaren bigarren iganderaco: Gorputzac izango duan betico zori on eta doatasunaren gañean. . . . 577
Garizumaren bostgarren iganderaco: Jaungoicoaren itza aditzearen gañean 587
Iru doctriña. Lenengo doctriña: Griña ta pasio charraren gañean. 602
Bigarren doctriña: Griña ta pasio charrai eman bear zayen ildura edo mortificacioaren gañean. 613
Irugarren doctriña: Griña ta pasio nagusiaren gañean. 623

IRU LIBURU OETAN OQUER EZARRI DIRAN ITZEN ZUCENTZECO BIDEA.

Aurrena ipiñico da, itza gaizqui ezarria dagoan orrierdia; urrena errencada; guero itz gaizqui ezarria; ta azquenean bear dan itza bera.

LENENGO LIBURUA,

Orrierdia.	*Errencada.*		*Iracurri bedi.*
8	27	Izan cedin non nai:	Izan cedin non nai
11	4	jarri deguiogun . .	jarrai deguiogun
»	8	Adarmi	Adami
»	36	servabitis . . .	observabitis
18	32	gucia ceren . . .	guciac eren
19	13	ominia.	omnia
20	22	duanac	duenac
23	13	apaindura . . .	apaindura
25	7	Fitii	Filii
»	25	Jaungoicotasunac .	Jaungoicotasuna
26	30	zan. , ...	zuan
27	1	daldu	galdu
»	14	y 17 inffituta. . .	instituta
»	20	domum	donum
»	34	omia	omnia
28	7	nesaria	necessaria
43	32	lete . , . . .	leve
»	33	pondus operatur. .	pondus operatur
50	23	adtzera	aditzera
51	25	regnum (celorum) Dei	regnum Dei
52	3	Trisentinum . . .	Tridentinum
»	13	perfectum. . . ,	perfectam
53	11	mortiturus . . .	moriturus
54	23	alia	alio
57	19	Sacramentuac . .	Sacramentua
»	33	iztatzen	intzatzen
66	18	adian	andian

Universidad de Deusto
Biblioteca

75	26	templa.	templum
89	31	emen	eman
91	20	Aditn	Aditu
114	7	eguilea	eguitea
119	4	ari	ori
123	25	damu Urliac . , .	damu. Urliac
125	11	jaquiñetzac . . .	jaquiñenac
128	16	catamotsac . . .	catamotzac
129	3	enec	onec
130	16	icheden	ichedon
131	35	gauzcac	gauzac
139	23	Junari.	Jaunari
147	3	carguctan. . . .	cargüetan
153	11	zuanic Era . . .	zuanic. Era
167	27	reconciliationem. .	Reconciliationem
168	7	qiuæ	quæ
179	1	lotsagarriareguin .	lotsagarriarequin.
183	3	inim	enim
»	5	servavit	servabit
»	10	si	se
195	3	Obstupiscite . . .	Obsupescite
196	31	Videvis	Videsis
200	1	ere?	ere
209	44	Datocenac, ona . .	datocenac. Ona
216	29	1.° Quæstio quæ . .	1.ª Quæstio: quæ
218	31	Videvis	Videsis
224	19	miseritsitzecoa . .	miretsitzecoa
230	4	ona.	oña
240	27	eguitea?	eguitea.
242	29	dia	dira
253	2	ateseguin	atseguiñ
»	34	Coruraco	Ceruraco
269	16	espiritureaquin . .	espirituarequin
272	11	ezpazan	ezpazan:
276	5	Jauna	Jaunac
277	19	enen	onen
279	1	origine, ...	Origene
320	34	ederequi	ederqui
333	34	ematea?	ematea.

350	19	Ensun	Enzun
356	2	at non non negarunt.	at non negarunt
357	10	pacis	panis
363	6	ere Cembat . . .	ere ¿Cembat
367	2	exponant	exponunt
372	4	fliis	filiis
374	34	bislcuyac	bilcuyac
383	2	bigrren	bigarren
»	32	ecusten	eracusten
389	4	oto	ote
399	28	guizonazen . . .	guizonaren
400	19	baba	bada
401	3	biarduen	diarduen
406	8	ote ta	ote da
410	18	ez escu oñetan lotu .	escu oñetan lotu
423	22	obstupiscite . . .	obstupescite
429	17	batean.	baten
442	1	utsez?	utsez
»	28	engui	ongui
452	14	charratera . . .	charretara
453	24	guretatzen . . .	guertatzen
460	7	botatze	botatzea
470	4	vicitsua	vicitza
477	12	Cristaua, guciac. .	Cristau guciac
480	30	Elzac	Elizac
481	4	Pazcocoa	Pazcoaco
484	2	totius. Eclesiæ . .	totius Eclesiæ
505	15	michi	mihi
»	22	masedeai	mesedeai
510	19	ratione ratione diversa	ratione diversa:
511	4	acttone	actione
»	13	non. . . . . ,	nempe
515	11	Sentiebas	sentiebat
520	6	uitzi	utzi
»	24	nay ez.	nayez
534	5	scelera multa. . .	scelera multa?
537	23	gueratzen. . . .	guertatzen
539	9	eguin bibe. . . .	eguin bide
540	19	ytzitza.	vicitza

Universidad de Deusto
Biblioteca

552	18	billatzen diran, testiguac.	billatzen diran testiguac
555	11	bztzuetan	batzuetan
563	30	vitæ	vitæ tuæ
571	29	Jamarrequin	Tamarrequin
586	10	Ecclsiam?	Ecclesiam
589	1	astzera	artzera
596	35	ezongaya	ezcongaya
600	9	eguingo	equingo
611	9	azten	uzten
619	1	beintzat?	beintzat

BIGARREN LIBURUA

27	14	Sentua	Santua
30	15	geyenetan	gueyenetan
34	24	nom	non
44	1	Sinagoan	Sinagogan
53	26	imisio	initio
56	1	sententiam	sententia
»	37	consnetudo	consuetudo
86	29	vera	vero
88	16	hin	in
90	33	casteco	icasteco
106	6	bese	bere
110	24	nec	onec
111	4	amutu	amatu
»	34	zayen	zayon
116	27	Machebeus	Machabeus
440	1	emezortzigarren . . .	emeretzigarren
147	32	aliquadid	aliquando
151	5	au	aut
152	21	insurgart	insurgat
158	34	pæccati	peccati
164	12	Pauloco.	Pauloc
170	22	ext	est
»	33	gravis simam	gravissimam
»	34	mutiationcm	mutilationem
177	25	irugurren	irugarren
178	15	uizi	utzi

195	8	confesoreari	confesorea ari
199	23	hin	hinc
201	32	porsolutio	persolutio
202	20	naturaleza.	naturaleza,
»	27	executado	executado,
203	17	opprobavit	approbavit
»	20	nihi	mihi
208	15	vicitzat	vicitzas
209	5	icen ona.	icen ona,
219	7	asserrunt	asserunt
»	26	con, tra.	contra
»	31	ad eis	ab eis
220	16	defectns.	defectus
»	19	alicuit	alicui
233	7	gristaqueriac	gaistaqueriac
235	10	ezugüera	ezagüera
236	1	naiz jan naiz edan? . .	naiz jan naiz edan,
239	10	zen	zan
241	6	bebenicbein.	benicbein
249	13	cerbai	cerbait
253	19	ardoren	ardoaren
270	29	Sanutac	Santuac
278	1	lanengo	lenengo
288	20	Utguiezu	Utziguiezu
294	2	becariac	becatariac
306	4	Sacracratum	Sacramentum
309	2	Bostgarrena	Bostgarren
313	5	revixit.	revixit,
314	3	barcarra	bacarra
315	13	juquintsua	jaquintsua
317	21	ber	bear
319	29	equiñ	eguiñ
324	20	ogui	oguei
327	14	omen	emen
330	14	perrill	perill
338	7	atdean	aldean
345	6	pena ere.	pena ere,
349	9	condiciac	condicioac
553	9	da	dan

Universidad de Deusto
Biblioteca

361	15	idurripena	iduripena
362	15	umulqui	umilqui
»	23	adiagoac	andiagoac
364	15	cera	cere
376	1	Janaren	Jaunaren
»	20	onembestrañoco	onembesterañoco
401	11	lennego	lenengo
403	27	apaiatcen	apaintzen
410	1	uramentu	juramentu
420	17	gan	dan
425	12	esquergabequeriarequin ?	esquergabequeriarequin;
430	8	apaitcen	apaintzen
»	23	ditigun	ditugun
431	14	aimpleri	adimpleri
»	19	ess	esse
456	22	ditequan	ditequean
»	32	itsusiren	itsuriren
469	1	laztanga	laztanca
477	7	onac	onec
480	17	guauza	gauza
481	13	eda	edo
483	35	sartu	sartuco
484	16	nenegarrez	negarrez
»	30	goaiztoac	gaiztoac
507	10	gorpotza	gorputza
508	12	bellarriac	belarriac
»	25	Gueroaga	gueroago

IRUGARREN LIBURUA.

20	25	intrabit	introibit
22	5	aliquid	aliquod
23	31	exo	ex
31	17	dezaquegun	ditzaquegun
»	23	doyaez	doayez
32	21	Pazcoetic	Pazcoatic
35	31	quiratza	quiratsa
36	5	gueratu	gueratuco
53	7	arratzean	arratsean

61	12	guciena	gueyena
63	3	diezagun	dizagun
»	15	diezagun	dizagun
»	26	gaitzera	gaitzeraco
67	6	aberats	aberatsi
68	8	Jesusec	Jesus
76	5	atseguineguin	atseguiñequin
»	30	Jaunac	Jauna
80	18	termeritati	temeritati
83	1	equiaqui	eguiazqui
84	2	arguitzen	arquitzen
»	16	belarric	belarriric
85	12	ha tan lacta	hæc tan læta
»	15	Jaicoarentzaco	Jaincoarentzaco
90	12	aina	aiñ
91	4	taqui	daqui
92	10	deitzen	deitzen dion
104	12	becatnaren	becatuaren
116	6	andagoac	andiagoac
118	31	pana	pena
119	16	eta iguerriman ere	ez bedi iracurri
126	19	itzutzen	itzultzen
136	15	dituan	dituan
144	31	post sequetun institutionem in nota libri primi, fol. 216	
146	11	onara	onera
148	23	ingumari	ingumariari
163	20	izugarria	izugarriara
170	26	Confesariac	Confesoreac
179	32	aurreco	aurreneco
191	19	izagarri	izugarri
193	10	bana	baña
195	5	plean	blean
196	20	lurren	lurrean
202	16	era	eran
206	6	irinchitzen	irinchitzen du
220	14	jaquinndean	jaquiundean
228	26	barrenac	barrena
»	27	utzico	utzitzeco
229	9	ezpadagu	ezpadegu

Universidad de Deusto
Biblioteca

231	1	danac	danac
239	30	arteetan	ateetan
242	19	Apostolua	Apostoluac
248	27	estutasunareguin . . .	estutasunarequin
252	18	aztuitzeco	aztutzeco
253	23	bacin	baciña
255	21	ayac!	ayac,
256	12	eguituco	eguiteco
»	14	becarra	bacarra
258	4	ahi	ay
264	4	guod.	quod
269	10	nequ-oñaceac	neque-oñaceac
270	23	Salvatuco da, dio S. Marcos Evangelistac. Sinisten ta batayoco . . .	Salvatuco da, dio S.Marcos Evangelistas, (cap. 16) sinisten ta batayoco
273	5	immemde	immunde
277	30	Cristauac	Cristaua
282	32	Profectac	Profetac
284	2	doaya	doya
285	13	garitzeco	garaitzeco
»	20	becatariac , ...	becatari
287	5	diranean	diranen
301	27	ses	sed
302	18	eguidaco	eguindaco
»	24	ciaquianic , ...	ciaquianac
312	32	bide	bedi
313	9	Guomodo . , . . .	Quomodo
»	20	dio	dion
337	21	Isayac	Isayas
338	5	posse taliqui	posset aliquid
341	28	illumbean?	illumbean. ¿
351	6	Amargarrena	Amargarren
»	8	Amaicagarren	Amaicagarrena
356	7	ezagatuco	ezagutuco
361	16	ezquintzetic	ezqueintzetic
365	18	ezauzi	erauzi
367	24	batean	batera
369	15	diraneac	diranean
374	35	trage , ...	trago

381	25	neqisimis	nequisimis
385	28	vio	viro
387	21	idio	ideo
»	25	contraversiæ	controversiæ
»	28	infentur.	infertur
388	30	permitiur	permititur
389	28	coadat	evadat
»	29	voluntaria	voluntaria:
390	18	perfectum	perfectam
»	»	pos	post
»	26	alas	alias
»	27	menti	mente
392	32	pensamenac	pensamentu
398	16	virtueen	virtuteen
401	27	cien	cein
404	2	iritsico	iritsi
411	16	izate.	izateco
413	15	jaquitzen	jachitzen
419	33	aricaco	animaco
425	1	votulabro	volutabro
452	26	hob	hoc
456	24	ceñ	eceñ
487	19	etziñaque	etziñucaque
495	24	Herodeses	Herodesec
525	33	bacaitzac	bacoitzac
537	31	lecu	lau
557	28	zan	esan
558	5	gueratuco	guertatuco
»	14	cabe	gabe
561	28	artzen duan	artzen ez duan
562	30	dezunac.	dezuenac
563	13	ecertaraco	certaraco
566	7	utsitzen.	utzitzen
572	13	ederra	erreza
575	21	vocabi	vocavi
577	16	baña alaitu, ta. . . .	baña alaitu ciran
584	3	da	du
587	24	scia	scientia
593	23	residivantium	recidivantium

Universidad de Deusto
Biblioteca

597	31	gueratzen	guertatzen
598	5	era	eria
601	6	residiventium	recidivantium
616	27	anima	animac
621	26	monu	manu
623	2	avertumus	avertamus
626	21	arteau	artean
»	25	itseguitean	itzeguitean
633	10	eta asco	ezta asco

NOTA.

Badira beste cembait utseguite chiqui, baña ez dira emen ipintzen, ceren iracurle Euscaldunac erraz iguerrico dienac diran.

Lista de los Sres. Suscritores del Arciprestazgo mayor de Guipuzcoa á las Pláticas Doctrinales del Presbítero D. JuanBautista de Aguirre y fábricas de las Iglesias suscritas á las mismas.

CORRIEDO DE AZPEITIA.

D. José María Sorazabal.
» Gregorio Odriozola.
» Rafael Zavala.
» José Francisco Embil.
» Juan Bautista Marticorena
» Lorenzo Ayastuy.
D. José Ignacio Galdos.
» José Manuel Abalia.
» Baltasar Mendia.
» José Joaquin Viquendi.
» Juan Eizaguirre.
» Manuel Odria.

CORRIEDO DE AZCOITIA.

D. Luis Basilio Egaña.
» José Manuel Uzcanga.
» José Vicente Galdos.
» Ascensio Iza.
D. Balentin Burgo.
» Marcial Aramburu.
» Vicente Alberdi.

CORRIEDO DE BOZUE.

D. José Antonio Minteguiaga
» Pedro José Echavarri.
» Juan Bautista Echeverria.
» Martin Antonio Zurutuza.
» José Antonio Sarasola.
» Francisco Ignacio Urretavizcaya.
» Vicente Casto Echave.
» Francisco Ignacio Lardizabal.
» Juan Bautista Irastorza
» José Ignacio Elosegui,
» Juan Miguel Arteaga.
D. Francisco Antonio Arteaga
» Miguel Ignacio Araneta.
» Antonio Goicoechea.
» José Francisco Argaya.
» Martin José Tellería.
» Lorenzo Lascoz.
» Gregorio Ugartemendia.
El Sr. Ubillos Abad de Ugarte
» José Ignacio Garagarza
» Juan José Olano por 5 egemplares.
» Silvestre Mimendia.
Fábrica de Alzo azpicoa.

Universidad de Deusto
Biblioteca

CORRIEDO DE BERASTEGUI.

D. Andres Obineta
» Miguel de Lizarza.
» Martin José de Garciarena
» Pedro de Ibarrola.
» Juan Miguel de Muñagorri
D. José Joaquin Echeverria.
Sr. Vicario de Eldua.
Fábricas de id.
Berastegui.
Elduayen.

CORRIEDO DE CESTONA.

D. Sebastian Alejo de Azpeitia
» Javier Amilivia.
D. Bernardo Javier Olascoaga.

CORRIEDO DE DEVA.

D. Domingo Muguerza.
» Miguel Salaverria.
» Juan Francisco Leizaola.
» Martin Rementeria.
D. Ignacio Zubelzu.
» Francisco Albisu.
» Juan Bascaran.
» José María Eguren.

CORRIEDO DE ELCANO.

D. Luis de Lardizabal.
» Fermin Ostolaza.
» Francisco Larrar.
» José María Malac.
» Juan Ibarreche.
Fr. Pedro Manuel Balanzategui.
D. José María Ibaceta.
» Victoriano Echaniz.
Fr. Lázaro Balanzategui.
» Miguel José Alzuru.
» Pedro Antonio Azcue.
» Gaspar Iturregui.
» Fábricas de Aya, Oiquina, Artadi y Aizarnazabal.

CORRIEDO DE GASTAÑAGA.

D. Pedro Eizaguirre.
» Eusebio Antonio Zumalacarregui.
D. Francisco Antonio Legorburu.
Fr. Julian Echeverria.
» Ramon Mugica.
» Ramon Alustiza.
La fábrica de Ichaso.
» Francisco Oñativia.
» José Joaquin Aztiria.
» Julian Urquiola.
» Domingo Lesarri.
La fábrica de Gaviria.
» Santiago Oria.
» Juan Bautista Zabalo.
» José Domingo. Goya.
Fr. Miguel Vasabeitia.
La fábrica de Ezquioga.
» Martin José Mendia.
La fábrica de Cerain.
» José Manuel Zumalacarregui.
La fabrica de Mutiloa.
» Ignacio Antonio Zavaleta.
» José Antonio Raizabal.
» José Ignacio Galarza.
» Meliton Ugarte.
La fábrica de Legazpia.
» Manuel Aramburu.
» José Francisco Olaran.
» José Ignacio Olaran
La fábrica de Zumarraga.

CORRIEDO DE GUETARIA.

D. Ramon Aizpurua.

CORRIEDO DE HERNIOBEA.

D. Francisco maría Legarra.
» Pedro Antonio Legarra.
» Antonio María Irazusta.
» José Antonio Arzallus.
El Sr. Rector de Asteasu.
» Manuel José Ondarza.
» Francisco Maria Lerchundi
» Juan Francisco Sarobe.
Fr. José María Ansola.
» José Ignacio Beovide.
» Ignacio María S. Milian.
» José Andres Artucha.
» José Manuel Sorondo.
» Juan Bautista Aspiroz.
D. Claudio Larburu.
» Ramon Belaunzaran.
El Sr. Rector de Andoain.
» Juan Bautista Zubeldia.
» Ildefonso Trio.
» Juan Bautista Echeveste.
» Juan Bautista Ichasuaso.
» Manuel José Larreta.
» Francisco Antonio Camio.
» Francisco María Arregui.
» José Domingo Goitia.
» Gregorio Sasiain.
» Lorenzo Galatas.
Y siete fábricas.

Universidad de Deusto
Biblioteca

MEDIO CORRIEDO DE HERNANI.

D. Pedro Paulo Larrarte.
» Pedro Maria Beistegui.
» Miguel Francisco Odriozola.
» José Ignacio Mendia.
» Agustin Mendia.
D. Juan José Gaztañaga.
» Francisco María Zatarain
El Ilustre Cabildo de Orio por 3 egemplares.
Sr. Vicario de Astigarraga por 22 egemplares.

CORRIEDO DE MOTRICO.

D. Domingo Francisco Ibaibarriaga.
» José Cipriano Goyenechea
D. José María Sustaeta.
» Juan Ignacio Larrondobuno.

CORRIEDO DE SAN SEBASTIAN.

D. Elias Gorostieta.
» Miguel Espilla.
» Joaquin Olañeta.
» Juan José Galarmendi.
» Evaristo Gimenez.
D. Joaquin Lazcos.
» José Antonio Arrillaga.
» José María Insausti.
» José Ignacio Lavaca.
» Juan Pablo Gorostidi.

CORRIEDO ENTERO DE LA SIERRA.

D. Pedro Manuel de Ecciza.
» Antonio Gorostieta.
» Marcelino Eizmendi.
» Juan Esteban Zelaya.
» Juan Felipe Ichaso.
» Manuel Antonio Larrarte.
» Matias Lasquibar.
La fábrica de Albistur.
» Juan Bautista Izàguirre.
» Antonio Luis Sistiaga.
» Juan José Eleizalde.
» José Ignacio Iraola.
La fábrica de Regil.
» Martin José Arguiñarena.
» José Javier Sudupe.
La fábrica de Vidania.
» Juan José Iriarte.
» Francisco Maria Gorostegui.
D. F. Aramburu.
La fábrica de Beizama.
» Joaquin María Erroicerenea.
La fábrica de Goyaz.

CORRIEDO DE SEGURA.

D. Manuel Antonio Aramburu.
» José María Aramburu.
» José Prudencio Bidaola.
Fr. José Olazaran.
Fr. José de la M.e de Dios y Oyarvide.
Fr. José María Elola.
D. Andres Echeverría.
» José Antonio Echeverria.
» Joaquin Igartua.
La fábrica de Cegama.
» José Ignacio Garmendia.
La fábrica de Idiazabal.
Las fábricas de Santa María y Santa Engracia.

CORRIEDO DE TOLOSA.

D. Eusebio de Urrutia.
» José Antonio Insausti.
» Vicente Furundarena.
Fr. José Osacar.
» Pedro Antonio Ayerdi.
» José Antonio Jauregui.
» Alejandro Lalama.
» Nicolas Gorrochategui.
» Antonio Castilla.
» José Antonio Urigoen.
D. Feliz Soroeta.
» Quintin Arrillaga.
La fábrica de Tolosa.
» Juan Miguel Arana,
La fábrica de Hernialde.
» Martin Aurquia.
» José Miguel Larrañaga.
La fábrica de Leaburu.
El Sr. Rector de Anoeta y la fábrica del mismo pueblo.

CORRIEDO DE VILLAFRANCA.

D. Ramon Beguiristain.
El Sr. Vicario de Villafranca
» Santiago Ayala.
La fábrica de Villafranca.
» José Bengoechea.
La fábrica de Beasain.
Fr. Elias de los Dolores.
Fr. Juan de S. José.
El Ilustre Cabildo de Oyarzun por 4 egemplares.
D. José Joaquin Ollo por 2 egemplares.
D. Pedro José Urdangarin.
« José María Ibarlaburu.
» José Antonio Imaz.
» Antonio Maria Asurmendi.
» Pablo Mugica.
» José Ignacio Ayendi.
» Emeterio Lardizabal.

Universidad de Deusto
Biblioteca

CORRIEDO DE ZUMABTZARREA.

D. Frncisco Olaechea.
» Juan José Salazar.
» Juan Bautista Montes.
» José Agustin Goyenechea.
» Juan Goitia.
» Juan José Iturralde.
» Juan Bautista Antia.
» Marcelina Aguirre.
» Juan Sebastian Sagastiberria.
» José Miguel Larrañaga.
» Juan Bautista Mendarte.
» Juan Antonio Echeverria.
Fábricas de id.
Lizarza.
Oreja.
Ibarra.
Belaunza.

Lista de los Señores Suscritores de fuera del Arciprestazgo de Guipuzcoa.

D. Luis Elio.
» Joaquin Ignacio Arrayago
» José Maria Iribes.
» Vicente Iribarren.
» Cristobal Eguzquiza.
» Santiago Villabona.
» José Martin Martirena.
» Ignacio Maria Iñarra.
» José Goti.
» Ignacio Tellechea.
» Martin José Artola.
» Juan José Astiz.
» Juan José Cueli.
» Francisco María Azpiroz.
» Pedro Otermin.
» José Zavalo.
» José Vicente Ochotorena.
» Juan Miguel Ochotorena.
» José Santos Lacarra.
» Santos Lacarra.
» Victoriano Amasa.
» Pascual Irañeta.
Sr. Beneficiado de Lacunza.
Sr. Abad de Arruazu.
Sr. Vicario de Ugartearaquil
Sr. Abad de Irañeta.
Sr. Abad de Irurzun.
Sr. Abad de Aizcorbe.
» Pedro Nicolas de Lanz.
» Justo Taberna por 4 egemplares.
» Miguel de Otermin por 15 egemplares.
» Manuel Acha.
» Agustin Ortuzar.
» Mariano Canton.
» Pedro Chertudi.
» Juan Cruz Lecertua.
» Manuel Pertica.
» Faustino Arechederreta.
» José Manuel Arteta.
» Julian Arteta.
D. Martin José Marizcurrena
» Pedro Tomas Vidaniz por 5 egemplares.
» Andres Antonio Obineta, por 7 egemplares.
Sr. Abad interino de Alsasua
Sr. Vicario de Ciordia.
Sr. Abad interino de Bacaicoa
Sr. Abad de Iturmendi.
» Miguel José Arbiza.
» Juan Bautista Lecea.
» Prudencio Larraza.
» Francisco Miguel Jorge.
» Manuel Iriarte.
D. Juan José Zarrabeitia.
» Vicente Zarrabe.
Fr. José Zarrabe.
» Nicomedes Orue.
Fr. Manuel Beobide.
» Juan José Unanue.
» Ascensio Uranga por 2 egemplares.
» Antonio Amenabaz.
» Miguel Joaquin Bazcarán.
» Lucas Lopetedi.
» José Luis Dendarieta.
Un Presbítero de Anzuola.

MONDRAGON CON SU ANTE-IGLESIA.

D. Pedro Guruceta.
» Juan Pedro Balanzategui.
» Francisco Victor Aristimuño.
D. Norberto Ugarte.
» Eusebio Bengoa.
» Francisco Garaizabal.
» Dámaso Sologaistoa.

ARECHAVALETA CON SU ANTE-IGLESIA.

D. José María Bengoa.
» N. Aramburu Zavala.
D. Sinforiano Unzurrunzaga.

ESCORIAZA CON SU ANTE-IGLESIA.

D. Tiburcio Erostarbe.
» Ciprian Echeverría.
D. Juan Antonio Ocaranza.
» José Elguea.

SALINAS.

D. Juan Bautista Alegria por 2 egemplares.

Universidad de Deusto
Biblioteca

OÑATE CON SU ANTE-IGLESIA.

D. Gerónimo Yarza.
» Francisco Vnzurrunzaga.
» Juan Balentin Urtaza.
» Juaquin Gogendi.
D. Juan Luis Erostegui.
» José Anduaga.
» Teodoro Ignacio Garro.
» Elias Arregui.

ARAMAYONA CON SU ANTE-IGLESIA.

D. Santiago Arejola.
» Pedro Luis Terrau.
» Francisco Unzueta.
» Nicolas Lasaga.
D. Domingo Echeverria.
» Miguel Lasaga.
» Francisco Madina.

OCHANDIANO.

D. Agustin Burgoa.
D. Esteban Iturzaeta.

ANGUIOZAR.

D. Ignacio Garitano.
» Simon Berraondo.
D. Antonio Berraondo.

ELORRIO.

D. José María Elizalde.
» Saturnino Basauri.
» Ignacio Burguinas Olalde.
» José Domingo Betolaza.
D. Francisco Lizanilurri.
» Pedro Leon Aizpiri.
»Cosme Ocerin.
» Pedro Valentin Alzaa.
» Bernabe Ocerin.
» Eusevio Careaga.
» José Maria Abaitua.
» Matias de Balzategui.
Fr. Agustin Belauztegui.
Fr. Manuel Gaviola.
D. Miguel Godoa.
» Juan Antonio Iturriaga.
» Francisco Echavarria.
» Saturnino Ecenarro.
» José Ramon Aldasoro.
» José Bentura Arrate.
» Miguel Azcaray.
» Simon Lecumberri.
» Martin Aranguren.
» Domingo Atristain.
Fr. José Ramon Irigoyen.
Fr. Sebastian Echarri.
Fr. Manuel Beovide.